

# ZALDIBAR HIZTEGIA

## 1. GIZA-GORPUTZA

Atal honetan giza gorputzari dagokion lexikoa biltzen dugu. Informazioa hobeto emateko atal hau ondoko era honetara banatuta aurkezten dugu: burua, ahoa, begia, belarria, sudurra, ilea, gorputza, besoak, hankak, errainak, azala, gurariak eta loa.

### 1.1. BURUA

**arpegidxe:** aurpegia

**arpekerie:** aurpegiera, aurpegiaren itxura

**asbegidxe:** hazpegiak, aurpegiera

"Asbegidxe onek dire, begidxe, bai asbegidxe" (Hazpegiak hauek dira, begiak, bai hazpegiak)

**bekokixe:** bekokia, kopeta

**betondue:** betozkoa, betiluna

"Orrek deko betondue!" - (Horrek dauka betondoa)

"Ene selako betondue dekon orrek!" - (Ene zelako betondoa daukan horrek!)

**betoskue:** betozkoa, betondoa, betiluna

**bigotie:** bibotea

**bixarra, bixerra:** bizarra

**burue:** burua

"Ni nere sasoyen, ixen da beti albora begire, da gero klaro! jaxoparridxe batzuk jaxoten siren buruen deformias, piskat, asko, denpora asko asurrien egote sienak eta, gurien ainbeste enas akordetan, da alde batera egoten basien lusero, dana ara jute san, da beste aldien utzik baleuke moruen umiek, burue, da buelta emon" - (Ni nire sasoiaren izan da beti albora begira, eta gero jakina! jaioberriak batzuk jaiotzen ziren buruaren desitxuragaz, pixka bat, asko, denbora asko hezurrian egoten zirenak eta, gurean hainbeste ez naiz gomutatzen, eta alde batera egoten baziren luzaro, dena hara joaten zen, eta beste aldean hutsik baleuka moduan umeak, burua, eta buelta eman)

"Ba gogorra, e, oiñ, e, ya burue galdute piskat" - (Ba gogorra, orain, ja burua galduta pixka bat)

**kaskarra:** burua

**kokota:** kokotea, garondoa

**konortie:** konortea

"Ori golpie artute gelditzen da, konorte barik gelditu da" - (Hori kolpea hartuta gelditzen da, konorte barik gelditu da)

**matrallie:** matraila, masaila

**okotza:** okotza, kokotsa

**samapie:** okozpea, kokospea

**samie:** sama

"Sein asto gañien saltoka, seiñ, e, ba saman, sein burtaunen puntan, ankorkillo" - (Zein asto gainean saltoka, zein, ba saman, sein burteunaren puntan, hankorkilo)

**sena:** sena

"Txakurrek beres eukitten dau ortaako sena" - (Txakurrak berez edukitzen du horretarako sena)

"Senera etorri da" - (Senera etorri da)

**sentidue:** zentzua

"Sentidu barik da ori" - (Sentitu barik dago hori)

**sentzune:** zentzua

"Sentzune dekatzen, e, sasoyen estot sekule ikusi eitten ori" - (Zentzua daukadan, sasoiaren ez dut sekula ikusi egiten hori)

### 1.2. AHOA

**adurre:** adurra, lerdea

**aginkerie:** hagin ikara, hagineta ura

**agin txikixe:** hagin txikia, hasierako haginak eta hortzak

**agiñe:** hortzak eta haginak

"Ni ikusitte na agiñek garbitzen, e, suteko txingerras" - (Ni ikusita nago haginak garbitzen, suteko txingarragaz)

**agiñ okerra:** hagin okerra, desbideratuta irteten duen hagina

**agosabaidxe:** ahosabaia

**ague:** ahoa

**ainkadie, ainkarie:** haginkada, hozkada

"Samatik ainkarie inye, il eitte sittun" - (Samatik haginkada eginda, hil egiten zituen)

**albagiñe, alboagiñe:** albo hagina

**atzeko agiñe:** atzeko hagina

**aurreko agiñe:** aurreko hagina

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**barre faltzue:** barre faltsua, behartuta, gogo

barik egiten den barrea

**barre santzue:** barre zantzoa, barre algara

**barrie:** barrea

**bosa:** ahotsa

"Bos ona deko" - (Ahots ona dauka)

**denterie:** kirri-kirria

**espana:** ezpaina

"Pikuek danak erreta dxuek espana jeneralien gedxenak" - (Pikuek denek erretzen ditek ezpaina gehienetan gehienek)

**gustue:** gustua, zaporea

"Bañe intxaurre normalien dok ona, se intxaurre, pasetan dxakok, lejiak ero garbitze mok, barrure pasau eitte dxakok, se pasau eitte dxakok piskat eta arek gero iste dxok gustue" - (Baina intxaurra normalean duk ona, ze intxaurra, pasatzen zaiok, lexiarekin edo garbitzen baduk, barrura pasatu egiten zaiok, ze pasatu egiten zaiok pixka bat eta hark gero uzten dik gustua)

**irribarrie:** irribarrea

"Esta normala ori irribarrie" (Ez da normala irribarre hori)

**juisixoko agiñe, juisioko agiñe:** juizioko hagina, azkenengoz irteten duten haginak

**karraskarie:** kirrizkada, hagnetako zarata, haginak kauskitzean sentitzen den kirrizkada

**lurrune:** lurruna

**miñaspikue, minpekue:** mihipea, mihiharia, mihipekoa

**miñe:** mihia

"Miñe etata ebaltzen gendusen" - (Mihia aterata erabiltzen genituen)

"Amen miñen aspidxen ser bat eta ebai tte itte otzen batzuei be len, e?" - (Hemen mihiaren azpian zer bat eta ebaki eta egiten zieten batzuei ere lehen, e?)

**mosue:** musua

**muturre:** muturra, musturra, ezpainak

**santzue:** zantzoa, irrintzia

**sispurue:** zizpurua, hasperena, intziria

**trague:** zurrutada, zurrupada

**txarri agiñe:** txerri hagina, desbideratuta irteten duen hagina

**txistue:** txistua, tua

**uixe:** oia, hobia

## 1.3. BEGIA

**begi argixe:** begi argia

**begi asulek:** begi zuriak, begi urdinak

**begi baltza:** begi beltza

**begidxe, begixe:** begia

"Begidxe tapaute, selan esatakon orri?" - (Begiak tapatuta, zelan esaten zitzaion horri?)

**begi errie:** begi errea

"Persona piskat txarra ta bakixu, begi errie" - (Pertsona pixka bat txarra eta badakizu, begi errea)

**begi jausixe:** begi jausia, begi tristea

**begiko santue:** begi santua, begi-ninia

**begi motela:** begi motela

**begi nabarra:** begi nabarra

**begirakunie:** begirakunea

**begi tristie:** begi tristea

**begi suridxe:** begi zuria, begi argiak dauzkanari esaten zaio

"Gure Aitorre pe begi suridxe eukesan, benetan suridxe" - (Gure Aitorrek ere begi zuriak zeuzkan, benetan zuriak)

**betulie:** bekaina

"Olan betuletan da be, umiendako, da, ori, e, sabalodxe esatakon umiekiñ" - (Hala bekainetan eta ere, umeentzat, eta, hori, zabalodia esaten zitzaion umeekin)

**bistie:** ikusmena

**malkue, markue:** malkoa, negarra, negar anpulua

**negarra:** negarra, negar anpulua, malkoa

"Ordun gastie san ori tte, emote otzan da, artzeko eskasa ixen bi dau, arek negar itzelak eitte sittuen" - (Orduan gaztea zen hori eta, ematen zion eta, hartzeko eskasa izan behar du, hark negar itzelak egiten zituen)

**negar malkue, negar markue:** negar anpulua, negarra, malkoa

**pestañie:** betilea

**pistie:** pizta, bekarra

**sabalodxe:** zabalodia ume jaioberriei buruan eta bekainetan egiten zaien zahi antzekoa

"Len txikitxotan, e, umiek eskola asieran da eukitten dabe, bañe umie jadxokeran be bai buruen, e, sabalodxe ta" - (Lehen

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*txikitxotan, umeek eskola hasieran eta edukitzen dute, baina umea jaiokeran ere bai buruan, zabaloida eta)*

**sotiñe:** zotina, negar zotina

## 1.4. BELARRIA

**astrapalie:** astrapala, zalaparta, iskanbila  
*"Astrapala baten jun da" - (Astrapala baten joan da)*

**belarridxe, belarrixe:** belarria  
*"Oridxo epela botetakuen belarrire, tangatxo atzuk" - (Olio epela botatzen zitzaizen belarrira, tantatxo batzuk)*

**berbarue:** berbaroa

**berbotza:** berbotsa

**dunduridxue:** durunda, barrunbea  
*"Beroi jo esposu atxurras etara kanpora or esta mogitzen ori, e, sera golpie ero, beronen, serak emote akon golpien dunduridxuek ero estaki pa sek, e, ensegida akabetan da satorra, segiruen" - (Berori jo ez baduzu aitzurragaz atera kanpora hor ez da mugitzen hori, zera kolpea edo, beronen, zerak ematen zitzaion kolpearen durundak edo ez dakit ba zerk, behingoan akabatzen da satorra, segituan)*

*"Neuk dekot belarridxen dunduridxue!" - (Neuk daukat belarrian durunda!)*

**garrasixe:** garrasia

**pausotza:** pauso-hotsa

**saratie, saatie:** zarata  
*"Arek etaaten dxuen saatie, ni neuk ikusitte badxekas" - (Haiek ateratzen ziaten zarata, nik neuk ikusita bazauzkaat)*

**saratotza:** zaratotsa

**sarraparra:** zarraparra, zalaparta  
*"Ba saratie dauenien, estakixu, sarraparra ba, gausak oker dabixenien, guk alan esate genduen, selako sarraparra dauen emen!" - (Ba zarata dagoenean, ez dakizu, zarraparra ba, gauzak oker dabilzanean, guk hala esaten genuen, zelako zarraparra dagoen hemen!)*

**txilidxue:** txilioa, garrasia  
*"Txilidxue, miñ artzen danien txilidxue" - (Txilioa, min hartzen denean txilioa)*

**txirrintxie:** intziria

*"Orrek deko txirrintxie!" - (Horrek dauka intziria!)*

## 1.5. SUDURRA

**arnasie:** arnasa

**antza, atza:** hatsa

**barrusaiñe:** barru-usaina, leku itxietan egiten den usaina

**erre usaiñe:** erre usaina

**sagar usaiñe:** sagar usaina  
*"Bastidanetik pasau nok eta an da sagar usaiñik! biretik" - (Bastidanetik pasatu nauk eta han dago sagar usainik!)*

**surpie:** sudurpea

**surre:** surra, sudurra

*"Bai odola surreti bai, gripie ero dauenien ta, bañe ona dala ori tte, ba" - (Bai odola sudurretik bai, gripea edo, dagoenean eta, baina, ona dela hori eta, ba)*

**sursillue:** sudurtziloa, sudur-zuloa

**umedade usaiñe:** umeltasun usaina, hezetasun usaina

**usaiñe, usañe:** usaina

*"Nik baten ortxe bedarra ebaten nabillela tunelen onduen, segias, e, arrapau neban, da ill, selako usañe txarra, baye txarra bañe!" - (Nik baten hortxe belarra ebakitzen nabillela tunelaren ondoan, segagaz, harrapatu nuen, eta hil, zelako usaina txarra, baina txarra baina!)*

*"Usaiñe ni neuri etxatak gustetan orrena ba pe" - (Usaina niri neuri ez zaidak gustatzen horrena bat ere)*

## 1.6. ILEA

**anketako biserra:** hanketako bizarra

**frekillue:** kopeta-ilea

**griniñe:** grina, kirtena

**kaspie:** zahia

**koletie:** ile-mototsa

**kopetie:** txirikorda, ile-korda

**koro bikue:** koroa bikoa, buruko koroa bi daukanari esaten zaio

**koroye:** koroa, buruko koroa

*"Amen be bai, amen be bai beste batzuk eukitten dabe olan, amen, amen atzien"*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*moruen, amentxe koroitxue, da aori esin  
ixaten da susendu es batera ta es bestera"*  
- (*Hemen ere bai, hemen ere bai beste  
batzuek edukitzen dute hola, hemen,  
hemen atzean moduan, hementxe  
koroatxoa, eta haori ezin izaten da  
zuzendu ez batera eta ez bestera*)

**moñue:** motoa, moto txikerra, mototsa

*"Nik estot esautu, bai gure amak bastante  
lusie euken bañe, barruen, pañoluen  
barruen erabilte ban moñue inye"* - (*Nik  
ez dut ezagutu, bai gure amak nahikoa  
luzea zeukan baina, barruan, zapiaren  
barruan erabiltzen zuen mototsa eginda*)

**peiñetie:** orraxka, mototsa egiteko erabiltzen  
zena eta gero mototsean bertan erabiltzen  
zena

*"Peiñeta pe ote sien, e, sabalauek eta  
estutxuauuek eta, bañe moñuen peiñetias"*  
- (*Orraxkak ere egoten ziren, zabalagoak  
eta estutxoagoak eta, baina mototsean  
orraxkagaz*)

**pelajie:** ile-sapak, ilajea

*"Se pelajie daruen!"* - (*Ze ilaje daroan!*)

**trensie:** ile-korda, ile txorta

**tximie:** txima, sapa

**uldiunie:** uldunea, soilgunea

*"Uldiunak eta dekos, kalbuei estakixu?"* -  
(*Ulduneak eta dauzka, burusoilari ez  
dakizu?*)

**ule baltza:** ile beltza

**ule errisaue, ule risaue:** ile kizkurra

*"Ule risaue deko orrek"* - (*Ile kizkurra  
dauka horrek*)

**ule griñie:** ile kirtena, ile grina

**ulejie:** ile-sapak, ilajea

**ule kiskorra:** ile kizkurra

**ule maskala:** ile mengela

**ule mikie:** ile mengela

**ule puntie:** ile punta, tente geratzen den ilea

**ule suridxe:** ile urdina

**ule tentie:** ile tentea

*"Beres ixaten die ule tentiek batzuk"* - (*Berez  
izaten dira ile tenteak batzuk*)

**ulie:** ilea

*"Esate ben, e, andrai tte neskai tte serora  
ulie ebate otzela"* - (*Esaten zuten, andreei  
eta neskei eta zerora ilea ebakitzen  
zietela*)

## 1.7. GORPUTZA

**albue:** alboa

**altzue:** altzoa

*"Aiñiketan merkansiarra danok, lekue  
arrapetako jokuen eitteko, altzun, altzun  
kartak eta, jokuen danok"* - (*Arineketan  
merkantziarra denok, lekua harrapatzeko  
jokoan egiteko, altzoan, altzoan kartak  
eta, jokoan denok*)

**biskerra:** bizkarra

**bularra:** bularra

**eperdidxe, ipurdidxe:** ipurdia

**gerridxe, gerrixe:** gerria

*"Santa Eufemia bai gerriko miñena"* -  
(*Santa Eufemia bai gerriko minarena*)

**gorputze:** gorputza

**lepue:** lepoa

*"Igurtzi olan es, e, jo jo, olan, da! da! da!,  
lepuen, da gero alkolaas dana igurtzi"* -  
(*Igurtzi hola ez, jo, jo, hola, da! da! da!,  
lepoan, eta gero alkoholagaz dena  
igurtzi*)

**paparra:** paparra

*"Neuri elixan nauela paparretik ebatostan"* -  
(*Neuri elizan nagoela paparretik oratu  
zidan*)

**silbota:** zilbota

**sille:** zila

**sorbaldie:** sorbalda

**sorburue:** sorburua

**titidxe, titixe:** titia

**tripie:** tripa

*"Ur epela ona da, e? da ur epela ona ixaten  
da gausa askotako ur egosidxe ta, e?  
tripetatik basabis be ur egosidxe, ona  
ixaten da"* - (*Ur epela ona da, e? eta ur  
epela ona izaten da gauza askotako ur  
egosia eta, e? tripetatik bazabiltza ere ur  
egosia, ona izaten da*)

## 1.8. BESOAK

**arra:** arra

**asbixarra:** hazpizarra, hatz-bizarra

**atzamar potolue:** atzamar lodia, orkoroa

**atzamarra:** atzamarra

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Ene! medikuana medikuana ta, atzamarras esetz medikuana, esi eban berbaik eiñ, bañe atzamarras medikuik eseban gure, sortzi bat urte ero eukan" - (Ene! medikuagana medikuagana eta, atzamarragaz ezetz medikuagana, ezin zuen berbarik egin, baina atzamarragaz medikurik ez zuen gura, zortzi bat urte edo zeukan)

**atzamar txikidxe, atzamar txikixe:** atzamar txikia

**atzaskala:** atzaskala, atzazala

"Sapatuetan ebai bi dala atzaskala, entzutie dekat nik, sapatuetan euskitten da bakarrik" - (Zapatuetan ebaki behar dela atzaskala, entzutea daukat nik, zapatuetan eguzkitan eta bakarrik)

**besue:** besoa

**besapie:** besapea, galtzarpea

"Besapie esa otzat beti" - (Besapea esan diot beti)

"Makiña txiki batas, ointxe serien dauena amen Euban, erresidensian, a, besapien artu makiña txikidxe ta jute san etxeik etxe" - (Makina txiki bategaz, oraintxe zerean dagoena hemen Euban, erresidentzian, besapean hartu makina txikia eta joaten zen etxerik etxe)

**eskerra:** ezkerra

"Aldie aundidxe, e, ba, estie ondo ibiltten, ikasi artien beintzet, batzuk balio dabe bateako nai besteako, or be ba, fubolistak esker eskumak batzuk deke ta beste batzuk eskertidxe die, ba ganauek igual igual deko ori" - (Aldea handia, ba, ez dira ondo ibiltzen, ikasi artean behintzat, batzuek balio dute baterako nahi besterako, hor ere ba, futbolariak ezker eskumak batzuek daukate eta beste batzuk ezkertiak dira, ba ganaduak berdin-berdin dauka hori)

**esku barrue:** esku-barrua

**eskue:** eskua

"Ser dabixu eskuartien?" - (Zer darabilzu esku artean?)

**esku gañie:** esku-gaina

"Biargiñek esku gañietan eukitten dabesan, e, sapo narruek" - (Beharginak esku gainetan edukitzen dutena, zapo-narruak)

**eskumie:** eskuma

"Piskat, e, ikusten baako eskerrera doyela, da eskumera jun biar badau o geldi" - (Pixka bat, ikusten bazaio ezkerreara doala, eta eskumara joan behar badu o geldi)

"Esker eskuma bixi gara" - (Ezker-eskuma bizi gara)

**eskuturre:** eskuturra

**galtzarpie:** galtzarpea, besapea; berba hau ezaguna den arren, besapea gehiago erabiltzen da

**ikubille:** ukabila

**juntie:** junta, artikulazioa

**ukondue, ukundue:** ukondoa

## 1.9. HANKAK

**ankagañie:** oin-gaina

**ankaspidxe:** oinazpia

**ankapie:** oinazpia

**ankie:** hanka, oina

"Ankakin oiñ, oiñ ankak, sabaldute ipiñi babie euskitten iger igerra, da sapaldu sapaldu sapaldu, danok urkultzen die" - (Oinekin, orain, orain oinak, zabaldua ipini baba eguzkitan siku-sikua, eta zapaldu-zapaldu-zapaldu, denok urkultzen dira)

**belaune:** belauna

"Belaunen kontrakue da ori" - (Belaunaren kontrakoa da hori)

**bernie:** berna

**bietza:** behatza

**bietz eskola:** behatz azazkalak

"Ni ego nintzen luseruen oetik jagi be eiñ esiñ ankak andittute ospelakiñ, da serak eukitte nittun bietzak, bietz oskolak barres! buf! oiñ es, oiñ estot eukitten, oin nik estakitt ori seena ixango san" - (Ni egon nintzen luzaroan ohetik jagi ere egin ezin hankak handituta ospelekin, eta zerak edukitzen nituen behatzak, behatz azazkalak barrez! buf! orain ez, orain ez dut edukitzen, orain nik ez dakit hori zerena izango zen)

**istarra:** izterra

**mokorra:** mokorra, aldaka

"Nire aitte pe euki ban olakue da, apurtu ban mokorra ta egon san Elgoiberren, e,

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*olako, medikue" - (Nire aitak ere eduki zuen holakoa eta, apurtu zuen mokorra eta egon zen Elgoibarren, holako, medikua)*

**orkatillie:** orkatila

**orpue:** orpoa

**pausue:** pausoa, urratsa

**saltue:** saltoa

*"Karo urrengo saltue, jarraitu baleu gerriek, erungo ben ori frentera, bai, se gastetxuaue da" - (Jakina hurrengo saltoa, jarraitu balu gerrak, eroango zuten hori frentera, bai, ze gaztetxoagoa da)*

**sankabie:** zankabea, belaunaren atzeko aldea

**txankie:** txanka, bernaren atzeko aldea

## 1.10. ERRAINAK

**asurre:** hezurra

**barie:** barea

**belaun burue:** belaun burua

*"Mutil koskortxue pe, selako belaun buruek eukitte sittuen!" - (Mutil koskortxoek ere, zelako belaun buruak edukitzen zituzten!)*

**biotza:** bihotza

**birestune:** behaztuna, behazuna

**biskarresurre:** bizkarrezurra

**estegorridxe:** hestegorria

**estie:** hestea

**estomague:** urdaila

**garaune:** garuna

**gibela:** gibela

**guntzurrune:** guntzurrina, giltzurrina

**istarridxe:** eztarria

**kaka:** kaka

**matrallasurre:** matrailezurra

**odola, oola:** odola

*"Sisak papela, siarrue itteko, batzeko papela, a etate ben da, trapue pasau, kendu odola ta txak! axe ipiñi, da arek geatu eitte ban itxurie" - (Zig-zag papera, zigarroa egiteko, batzeko papera, hura ateratzen zuten eta, trapua pasatu, kendu odola eta txak! huraxe ipini, eta hark geratu egiten zuen itxura)*

**orkatilleko asurre:** orkatilako hezurra

**puxikie:** puxika

**sayetza:** saihetsa

**sana:** zaina

**txixe:** txiza

*"Danak, e, txixe daridxola esturasunas be, esate ban" - (Denak, txiza dariola estuasunagaz ere, esaten zuten)*

## 1.11. AZALA

**andittue, aundittue:** handitua

**aragi bixixe:** haragi bizia

**aragidxe, aragixe:** haragia

*"Or da selako aragikue dan be bai personie, selako aragikue dan be bai, aragi diferentiek dekaus danok" - (Hor dago zelako haragikoa den ere bai pertsona, zelako haragikoa den ere bai, haragi desberdinak dauzkagu denok)*

**arraspadie:** urratua

**asala:** azala

*"Da ei eban, e, egurresko txabola bat, da bañera bat, ipiñi eban, da ikusi eban ba orras ur orras, e, onek asaleko gaixuek eta osatu eitte siela, es asalekuek bakarrik, e? beste gausa batzu pe bañe, orrek osatu eitte siela, bates be ortik agertu san, esta?" - (Eta egin zuen, egurrezko txabola bat, eta bainuontzi bat, ipini zuen, eta ikusi zuen ba ur horregaz, azaleko gaixo hauek eta osatu egiten zirela, ez azalekoak bakarrik, e? beste gauza batzuk ere baina, horiek osatu egiten zirela, batez ere hortik agertu zen, ezta?)*

**asal barridxe:** azal berria, zauriak osatzean egiten den azala

**atximurkadie:** atximurkada, txatxamurkada

**baltzunie:** beltzunea

**begitxinyorra:** begi-txindorra

**berdie:** azalaren kolorea, gaixo kolorea

**ebaidxe:** ebakia

**enorra:** enorra, garia, garatxoa

*"Birekurutzien bota, dirue, sentimuek, len txakurrandidxe da txakur txikidxe ixeten sien gure gaste denporan, birekurutze baten bota ta esate ben, a topetan dauenai etorte akosela da bestiai juen, da iñok topetan espadau? ba juen es" - (Bide-gurutzean bota, dirua, zentimoak,*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*lehen txakur handia eta txakur txikia izaten ziren gure gazte denboran, bidegurutze baten bota eta esaten zuten, hura topatzen duenari etortzen zaizkiola eta besteari joan, eta inork topatzen ez badu? ba joan ez)*

*"Enorrendako da jute akos danak, ensegida" - (Enorrentzat eta joaten zaizkio denak, berehala)*

*"Seoser bedar batzukin, bedar bat artu te, kuutze batzuk eitte otzan enorrai taka-taka-taka! seoser erresau gero eitte ban da kobreta ban, beren sera libra bat txokolate, bañe juete akosan, e?" - (Zer edo zer belar batzuekin, belar bat hartu eta, gurutze batzuk egiten zizkion enorrari taka-taka-taka! zer edo zer errezatu gero egiten zuen eta kobratzen zuen, bere zera libra bat txokolate, baina joaten zitzaizkion, e?)*

**eridie:** zauria

*"Bai, da beste batzuk esaten dabe, ganauendako be bai, olan tripako miñe dekesela ero pentzaueskero betunadxuek eta aginyute da, olan eridiai eitteko be esaten dabe iños, e? mansanilla uras, egurditte" - (Bai, eta beste batzuek esaten dute, ganaduarentzat ere bai, hola tripako mina dauzkatela edo pentsatuz gero al baitariak eta aginduta eta, hola zauriei egiteko ere esaten dute inoiz, e? kamamila uragaz, igurtzita)*

*"Epai bedarra guk ipintte gendun txapa gani en berotu te, gero asala kentze geuntzen, eta a ipintte geuntzen, e, serai, eridiai gani en, da gurien mordue eote san, oin galdu die bañe, epai bedarrak, e, txapa gani en berotu te gero, olako mintze eukitte ban, da a soltau te a ipintte geuntzen, e, serai, eridiai gani en" - (Epai belarra guk ipintzen genuen txapa gainean berotu eta, gero azala kentzen genion, eta hura ipintzen genion, zerari, zauriari gainean, eta gurean mordoa egoten zen, orain galdu dira baina, epai belarrak, txapa gainean berotu eta gero, holako mintza edukitzen zuen, eta hura askatu eta hura ipintzen genion, zerari, zauriari gainean)*

**erpekadie:** erpakada, txerpakada

**errie:** errea. erredura

**gorriunie:** gorriunea

**granue:** garaua

**intzeбайдxe:** intzebakia

*"Soluen esaten da intzebadxek eta" - (Soroan esaten da intzebakia eta)*

**iserdidxe, ixerdixe:** izerdia

**kallue:** kailua

**kostrie:** zolda, zarakarra

**lunarra:** orainena

**mamiñe:** mamia, haragia, gizona

**markie:** orbaina

*"Urretzen bada, bariseli ek markak iste ittu" - (Urratzen bada, asto-nafarreriak orbainak uzten ditu)*

**materidxie:** materia, zornea

*"Orrek etate ban ori materidxe oi" - (Horrek ateratzen zuen materia hori)*

**odolbatue:** odolbatua

**ollo aragixe:** oilo haragia

**ospela:** ospela, azkordina

*"Ospela pe belarridxetan be askok eukitte ittu" - (Ospelak ere belarrietan ere askok edukitzen ditu)*

*"Ekarridesu apio, e, ospelak asi orduko, egosi apio, da aritxen uras garbittu, da sertzeko, da eskuetak u pe bai" - (Ekardazu apioa, ospelak hasi orduko, egosi apioa, eta harexen uragaz garbitu, eta zertzeko, eta eskuetakoak ere bai)*

**pekie:** peka, orezta

**pikorra:** pikorra, garaua

**puslie, puspillue:** puspuloa, urbatua

*"Puspillue da, e, guk esate otzau puspillue, asala, arrotzen danien" - (Puspuloa da, guk esaten diogu puspuloa, azala, harrotzen denean)*

**saldarra:** zaldarra

*"Saldarra tte, kipulie ta ipintte akon, len, bate matek esago tzon ori be, kipulie pasau oridxotan, e, piskat, estaittela errete egon, gordin samar, se kipulie bigune da ba" - (Zaldarrari eta, kipula eta ipintzen zitzaion, lehen, baten batek esango zion hori ere, kipula pasatu oliotan, pixka bat, ez dadila errete egon, gordin samar, ze kipula biguna da ba)*

*"Entzun es, euki be bai einye na ni galantak, euki be bai saldarrak eta, bañe, oiñ esta ikusten, e? olakoik, orrek saldarrak eta jeneralien, e, seretik, olan infesiñotik eta*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*etorten die" - (Entzun ez, eduki ere bai eginda nago ni galantak, eduki ere bai zaldarrak eta, baina, orain ez da ikusten, e? holakorik, horiek zaldarrok eta gehienetan, zeretik, hola infekziotik eta etortzen dira)*

**sapo narrue:** zapo narrua, belaunetan eta ukondoetan egiten den garauz beteriko azala

*"Mutikuek belaunetan da praka motxakin ye ibiltte sien da, da sapo narrue esate otzen, sapo narrue" - (Mutikoek belaunetan eta praka motzekin eta ibiltzen ziren eta, eta zapo narrua esaten zioten, zapo narrua)*

**sauidxe:** zauria

**silyorra:** txotorra, begi-txindorra

**simurre:** zimurra, ximurra

**txatxumurke:** txatxamurka, txatxamarka

**urdiñe:** urdina, azalaren kolorea, zurbila denean esaten da

**urretue:** urratua, urratada

*"Barberidixan labañas kentze otzen, da iños igual, e, urretutxon bat ero itte otzen, da ispirittue erabilte ban arek, bueno!" - (Bizartegian labainagaz kentzen zioten, eta inoiz beharbada, urratutxoren bat edo egiten zioten, eta alkohola erabiltzen zuen hark, beno!)*

## 1.12. GURARIAK

**askurie:** hazkura

**egarridxe:** egarria

*"Orduen, e, eukitten dabe olan, e, sera, egarridxe eukitten dabe, d'orduen, ba, egarridxe, da egarridxe emototzena ori jatie ero arrapetan dabena" - (Orduan, edukitzen dute hola, zera, egarria edukitzen dute, eta orduan, ba, egarria, eta egarriak ematen dien hori jatea edo harrapatzen dutena)*

**gosie:** gosea

*"Goseik estot euki nik, es gerran d'es gerra ostien, d'es aurretik" - (Goserik ez dut eduki nik, ez gerran eta ez gerra ostean, eta ez aurretik)*

**kakalarrixe:** kaka-larria

**komunerako larrixe:** komunerako larria

**larrigurie:** larrigura, botagura

**logurie:** logura

**txixelarrixe:** txiza-larria

## 1.13. LOA

**amesa:** ametsa, ameseta

**arrausidxe:** aharrausia

**lo:** lo

**lo ariñe:** lo arina

*"Lo ariñe da biskor itxartzen dana, sarata gutxias itxartzen dana, esta? lo ariñe dekon personie" - (Lo arina da biskor itxartzen dena, zarata gutxigaz itxartzen dena, ezta? lo arina daukan pertsona)*

**lo asarrie:** lo haserrea, lo ostea

**lo esarridxe:** lokukua, loaldi txikia

**lotaldidxe:** loaldia

**lo taukidxe:** lo taukia, lo kuluxka

**siestie:** bazkalostekoa

**surrumarie, surrustarie:** lo zorrumea, zurrunga

## 2. OSASUNA

Atal honetan osasunagaz erlazionatuko berbak aurkezten ditugu. Atala lau azpiataletan banatu dugu: gaixoak, sintomak, erremedioak eta kolpeak.

### 2.1. GAIXOAK

**asto napparreidxe:** asto nafarrerria

*"Asto napparreidxe pasaikue da ori" - (Asto nafarrerria pasatarikoa da hori)*

**berakue, beruskue:** beherakoa

**biotzekue:** bihotzekoa

**bixidxue:** bizioa

**elgorrixue:** elgorria

**enpatxue:** enpatxua

**erreumie:** erreuma, unorea

**gaixotasune:** gaixotasuna

**gaixue:** gaixoa

*"Alan gaixuek egon dienien da laguntzeko ta ori bai, ein ya seoser, esta?" - (Hala gaixoak egon direnean eta laguntzeko eta hori bai, egin da zer edo zer, ezta?)*



# ZALDIBAR HIZTEGIA

**gibilekue:** giblekoa

**gorra:** gorreria, gorra

**gripie:** gripea

*"An iru lagun batera il sien gripias" - (Han hiru lagun batera hil ziren gripeagaz)*

**kanserra:** biziena, minbizia

**katarrue:** katarroa

*"Beres pasate san katarrue, pattarra, nei gastetan, eran eraiste esnie pattarra botata, da artzeko a saltoka itteko morukue, txarra, bañe, bueno" - (Berez pasatzen zen katarroa, pattarra, niri gastetan, edan eragin didate esnea pattarra botata, eta hartzeko hura saltoka egiteko modukoa, txarra, baina, beno)*

*"Es enas juen, neuk ein yot mediku, ointxe asi nas, ta ointxe artu ot, e, sera, bakunie lelengue, da katarrue sekule euki estoten morukue" - (Ez ez naiz joan, neuk egin dut mediku, oraintxe hasi naiz, eta oraintxe hartu dut, zera, txertoa lehenengoa, eta katarroa sekula eduki ez dudana modukoa)*

**kokaldie:** kokalda, papera

**kukurruku estule:** kukurruku eztula

**osasune:** osasuna

**pestie:** izurritea

**pulmonidxie:** pulmonia, alborengoa

*"Gu uniek giñenien da, buruik garbittu betzan eitten orduen, jo! burue garbittuskero, e, pulmonidxie ero estakitt ser arrapau bi sala pentzeta san" - (Gu umeak ginenean eta, bururik garbitu ere ez zen egiten orduan, jo! burua garbituz gero, pulmonia edo ez dakit zer harrapatu behar zela pentsatzen zen)*

## 2.2. SINTOMAK

**arnasestue:** arnasestua

**biotzerrie:** bihotzerrea

**buruko kargie:** buruko karga; katarroa edukitzen denean, buruan sentitzen dena

*"Buruko kargie deko orrek" - (Buruko karga dauka horrek)*

**dardarie:** dardara

**doministikune:** doministikua

**emoidxe:** jarioa, isuria

**erasue:** eraso

**estule:** eztula

**galbanie:** nagitasuna, nagia; beroak eragindako nekadura

**gogo eskasa:** gogo eskasa

**gorputzaldidxe:** gorputzaldia, gorputzaren egoera

**iguiñe, igoñe:** higuina, nazka

**inderra, inyarra:** indarra

*"Sistemak asko erabiltte sien, segun se jente euen, da itzuldi estaitten, inyar asko eukieskeo, aspikaldiei ebatute lepuas be bai" - (Sistemak asko erabiltzen ziren, segun zer jende zegoen, eta itzuli ez dadin, indar asko edukiz gero, azpiko aldeari oratuta lepoagaz ere bai)*

**infesiñue:** infekzioa, zoldura

*"Mansaniñie ona ixango da, e? da beste gausa ba pe bai ona olan, e, ixaten die infesiño, serak, batzutan esta osatzen eseeas bes, bañe, estriñabako jabo txinbo, egosi, da aritxas uras garbittu" - (Kamamila ona izango da, e? eta beste gauza bat ere bai ona holan, izaten dira infekzio, zerak, batzuetan ez da osatzen ezegaz ere ez, baina, estrenatubako xaboi txinbo, egosi, eta harexegaz uragaz garbitu)*

**juena:** joana, odol jarioa

**kalenturie:** kalentura, sukarra

**kaltie:** kaltea

**kirri-korrue:** kirri-korroa, zirri-parra; katarroaren ondorioz bularrean egiten den zarata

**konbittue:** gonbitoa, errebesa

**larridxe:** larria

**minsorridxe:** minsorra, min txikia luzaro

**miñe:** mina

*"Selan inyarras ebalten daben, ba joten basaittu arpeidxen, miñ aundidxe eingo tzu" - (Zelan idarragaz erabiltzen duen, ba jotzen bazaitu aurpegian, min handia egingo dizu)*

**mokue:** mokoa, mukia

**nagidxe:** nagia

**nayesa:** larritasuna

**nekie:** nekea

**otzikerie:** hotzikara

**partuondue:** erditze-ondoa

**sotiñe:** txokina, zotina

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**taupadie:** taupada

**txakurrestule:** txakur-eztula

**txokolota:** txokina, zotina

**txuringie:** odoluzkia, anburua

## 2.3. ERREMEDIOAK

**agiñetako miñe:** hagineta mina

*"Ta agiñeko miñendako Urkiolan, Santa Poloniara, ari buelta eiñ, a, ure artu an, itturridxe deko Santa Poloniak, estaitt egon basa" - (Eta hagineko minentzat Urkiolan, Santa Poloniara, hari buelta egin, ura hartu han, iturria dauka Santa Poloniak, ez dakit egon zaren)*

**alkola:** alkohola

**anisen ure:** anisen ura, tripetarako erabiltzen zen

*"Anisen ure ta emote otzesen" - (Anisen ura eta ematen zizkieten)*

**asun pasadie:** asunen igurtzialdia, gripea osatzeko egiten zena

**bedar ure:** belar ura

*"Garbittu, barrue garbittu, bedar urek emote sittuen orrek" - (Garbitu, barrua garbitu, belar urak ematen zituen horrek)*

**begiskue:** begizkoa

**berakas txortie:** berakatz txorta

**botikie** botika

**erre botikie:** erre botika, erredurak osatzeko erabiltzen den botika

*"Bai, ori geure ausuen euen, erre botikie itte ben" - (Bai, hori geure auzoan zegoen, erre botika egiten zuten)*

**erremidixue, erremidixue:** erremedioa

**indesiñue:** injekzioa

**ispirittue:** espiritua, alkohola

*"Ispirittue, alkola, frotau arexeas da beste erremidixoik, e" - (Espiritua, alkohola, igurtzi harexegaz eta beste erremidiorik)*

**kurie:** osaketa

**medikamentue:** medikamentua

**medikasiñue:** medikazioa

**santiretue:** zaintiratua

**urdaillekue:** urdailena

## 2.4. KOLPEAK

**belarrondokue:** belarrondokoa

**begiondokue:** betondokoa

**bultzekadie:** bultzakada

**burukue:** burukoa

**eskumuturrekue:** eskumuturrekoa

*"Makiñatxo bat eskumuturreko artu genduen, segaittik ese guk geurie, igerri barik eta es genkigun, e, ba, maistriek ba di-da, bat euki gendun bilbotar bat!" - (Makinatxo bat eskumuturreko hartu genuen, zeren guk geurea, igarri barik eta ez genekien, ba, maistrak ba di-da, bat eduki genuen bilbotar bat!)*

**golpie:** kolpea

*"Ulie badeko aixie artzen dau, da estau golpe aundiik emoten, e, astiroa ebali be itten dau" - (Ilea badauka haizea hartzen du, eta ez du kolpe handirik ematen, astiroago erabili ere egiten du)*

**ikubilkue:** ukabilkada

*"Ikubilko at emonguat!" - (Ukabilkada bat ematen badiat!)*

**ipurdikue:** ipurdikoa

**kokotekue:** kokotekoa

**koskorroye:** koskorroia

**narrukue:** narrukoa

**ostikadie:** ostikada

**sartekue:** zartakoa

*"Etxien unikue burteunien paraute, olan, e, sarteko galantak artu be bai, e?" - (Etxean bakarrik burteunean paratuta, hola, zartako galantak hartu ere bai, e?)*

**txalue:** txaloa

**txanketakue:** txanketakoa, txanketan ematen den kolpea

*"Txanketako at emoten botzut barda batas!" - (Txanketako bat ematen badizut barda bategaz!)*

**ukondokadie:** ukondokada

## 3. FAMILIARTEKOAK

Atal honetan familia eta familia hartuemonei dagozkien berbak biltzen ditugu. Berbak hobeto sailkatzeko, atal honen azpi-atalak familia bera, senideak, familia erlazioak eta adin erlazioak izango dira.

# ZALDIBAR HIZTEGIA

## 3.1. FAMILIA

**aistie:** ahizta, ahizpa

"Etxeik etxe gurien geurien etzan egon, e? gurien beti, nire aista nausiñek be josten ondo ikasi eban da politto, orren amama be iguel ibiliko san etxeik etxe ero" - (Etxerik etxe gurean geurean ez zen egon, e? gurean beti, nire ahizta nagusienak ere josten ondo ikasi zuen eta polito, horren amama ere beharbada ibiliko zen etxerik etxe edo)

**aitte:** aita

"Beren aittek jo dau" - (Beraren aita jo du)  
"Ba len apur bat eitte giñuan ori, gure aitte sanai gusteta dxakoan arto piskat ereittie be ta ba, ordun ba len esan dotena ganauas bier eitte soan eta iridxe, eta gero etxerako esnetako beste bei bat ero bi eukitte giñuasen da ba ordun eitte soan ori" - (Ba lehen apur bat egiten genian hori, gure aita zenari gustatzen zitzaioan arto pixka bat ereitea ere eta ba, orduan ba lehen esan dudana ganaduagaz behar egiten zuan eta idiak, eta gero etxerako esnetarako beste behi bat edo bi edukitzen genitian eta ba orduan egiten zuan hori)

**aitteamak, aittetama:** gurasoak, aita-amak

**aittite:** aitatea

"Oñes juten ixen ga aittittas da amamas Abariñora, mese nausitta" - (Oinez joaten izan gara aitaitagaz eta amamagaz Abadiñora, meza nagusitara)

"Nik alan be nere aittitteas ikesi nebasen olako bueno, baserriko ser gustiek" - (Nik hala ere nire aitaitagaz ikasi nituen holako beno, baserriko zer guztiak)

**alabie:** alaba

"Alabie bat egon san, ortxe frontoko etxien da beste bat sera, Saturren semie beste bat, bi on sien or tifusas, bata il ein san da bestie bixi da gero" - (Alaba bat egon zen, hortxe frontoiko etxean eta beste bat zera, Saturren semea beste bat, bi egon ziren hor tifusagaz, bata hil egin zen eta bestea bizi da gero)

**ama:** ama

"Beorren amak ikusi dau siarro erretan" - (Berorren amak ikusi du zigarro erretzen)

**amama, amoma:** amama

"Ni akordeta nas, e, nik amasaspi urte neukesan amama il sanien da, e, or estankuen euki genduen baskaridxe" - (Ni gomutatzen naiz, nik hamazazpi urte neuzkan amama hil zenean eta, hor estankoan eduki genuen bazkaria)

"Leku batzutan amama pe bai esate benes bañe, nik gure etxien beintzet ama san" - (Leku batzuetan amamak ere bai esaten zutenez baina, nik gure etxean behintzat ama zen)

**anadxie, anaye:** anaia

"Anadxa bi euesan, da batak soñue jote ban da bestiek ori jote ban" - (Anaia bi zeuden, eta batak soñua jotzen zuen eta besteak hori jotzen zuen)

"Aren anai baten semie, semie da" - (Haren anaia baten semea, semea da)

"Orrek ekarri ttu olluek da beren anayek il ttu" - (Horrek ekarri ditu oiloak eta beraren anaiak hil ditu)

**andra gixonak:** andre-gizonak

**andrie:** andrea, emaztea

"Se etxetakue da sure andrie?" - (Ze etxetakoa da zure andrea?)

"Arek kentzeko bai, e, or andra batek, e, Gasan da eiñ, eitte sittun kurutze bat, seoser erresau ero estakitt ser da" - (Haiek kentzeko bai, hor andre batek, Gazan eta egin, egiten zituen gurutze bat, zer edo zer errezatu edo ez dakit zer eta)

"Gure andriai guste itte dxakosak" - (Gure andreari gustatu egiten zaizkiok)

"Nere andrie pe ingo ban ori" - (Nire andreak ere egingo zuen hori)

**arrebie:** arreba

**famelixe, familidxe:** 1. familia. 2. seme-alabak

"Esate ben ba, geroko familidxe ixeteko, e, eukela ser aundidxe" - (Esaten zuten ba, geroko familia izateko, zeukala zer handia)

"Ba gerra aurrekue, krisise on san aundidxe, gerra aurrien, ba Eibarko jentie, Eibarren krisis andidxe on san! etorri san jentie, familidxak eukesanak onus de, al dan moruen, diru barik, gosie kentzen bakarrik" - (Ba gerra aurrekoa,

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*krisia egon zen handia, gerra aurrean, ba Eibarko jendea, Eibarren krisi handia egon zen! etorri zen jendea, familiak zeuzkatanak honantz eta, ahal den moduan, diru barik, gosea kentzen bakarrik)*

**gisona, gixona:** gizona, senarra

**guresuek, gurasuek:** gurasoak

*"Guk erderas gutxi, eta an ibiltten giñien, eta gure guresuek txartua, gu txarto, gure guresuek txartua, asko be, bai" - (Guk erdaraz gutxi, eta han ibiltzen ginen, eta gure gurasoak txartoago, gu txarto, gure gurasoak txartoago, asko ere, bai)*

**loibie:** loba, biloba

**nebarrebak:** neba-arrebak

*"Gu ixen ga, e, saspi nebarreba ixen giñien, da, gurien be bost, e, seme alaba dekaus, da batek estabe, bost mutillek, sekule eskopetien serik, e?" - (Gu izan gara, zazpi neba-arreba izan ginen, eta, gurean ere bost, seme alaba dauzkagu, eta baten ez dute, bost mutilak, sekula eskopetaren zerik, e?)*

**nebie:** neba

*"Oin be obretan da, e, ori, e, orren nebie ba kontratistie da ta, ori be sarri ikusi ot nik, koñatue ori eitten, autzetan, e, kordela ebali, da irobalie ero suk esan dosune ero ba, beste olako kordel bat, iguel da, da gero ori eitte otzenien ba arek, e, reglias moruen markauko dau, ak, e, esato etarako dau segurutik" - (Orain ere obretan eta, hori, horren neba ba kontratista da eta, hori ere sarri ikusi dut nik, koinatua hori egiten, hautsetan, kordela erabili, eta hari-bala edo zuk esan duzuna edo ba, beste holako kordel bat, beharbada eta, eta bero hori egiten ziotenean ba hark, erregelagaz moduan markatuko du, hark, zehatz aterako du segurutik)*

**semealabak:** seme-alabak

**semie:** semea

*"Gurien semiek, oin tratoras on danak, e, bueno arek eskuen artute, aotik olan bedarrak sartu te itte otzas ba, bueno, baye ser eitten sabis de?" - (Gurean semeak, orain traktoreagaz egon denak, beno, hark eskuan hartuta, ahotik hola*

*belarrak sartu eta egiten dizkio ba, beno, baina zer egiten zabilta eta?)*

*"Ni paño ogeto dakis nere semiek orrek" - (Nik baino hobeto dakizki nire semeak horiek)*

## 3.2. SENIDEAK

**bigarren lengusue, bigarren lengosue:**

bigarren lehengusua

**birraititte:** birraitaita

**iseko osabak:** izeko-osabak

**ixekue, isekue:** izekoa

*"Bai juen be bai ni, ixeko baten, a, Elorridxora, e, arriuen atzien, da nire aista txikidxe aittek jarritte arrio artien, silla baten" - (Ba joan ere bai ni, izeko baten, Elorriora, arreoaren atzean, eta nire ahizta txikia aitak jesarrita arreo artean, aulki baten)*

**etxeartekue:** etxartekoa, senidea

*"Beste bat jute san, ta, ixate san ero etxearteko bat, ero etxe barrukun bat ero, familiadxako bat jeneral" - (Beste bat joaten zen, eta, izaten zen edo etxarteko bat, edo etxe barrukoren bat edo, familiako bat gehienetan)*

**lengosiñe:** lehengusina

**lengusue, lengosue:** lehengusua

**loibie:** loba

**osabie:** osaba

*"Osaba bat euken solterue aitten anadxie, ta, ari arriuen emoteko, ari letrak eitteko, ba letrok ein ye soltau te soltau te iñ, apurtu neban tela dana" - (Osaba bat zeukan ezkongea aitaren anaia, eta hari arreoan emateko, hari letrak egiteko, ba letrok egin eta desegin eta desegin eta egin, apurtu nuen ehun dena)*

**senidie:** senidea

**tia:** izekoa

**tio:** osaba

*"Gure tio jausi san olan puntatik" - (Gure osaba jausi zen hola puntatik)*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

## 3.3. FAMILIA ERLAZIOAK

**a(i)ttaiñarreba,** **aitteïñarreba:**  
aitaginarreba

"Asi ein san nere aitteïñarreba" - (Hasi egin zen nire aitaginarreba)

**aitteamapuntekuek:** aita-amapuntakoak  
"Da len gañera beuen oittura bat, eskontzeko aitteamapuntekuek, ixete sien lenengo umien, e, aitteaman besuetakuek" - (Eta lehen gainera bazegoen ohitura bat, ezkontzeko aita-amapuntakoak, izaten ziren lehenengo umearen, aita-amen besoetakoak)

**aittordekue, aittordie:** aitaordea

**alabaordie:** alabaordea

**amaiñarreba:** amaginarreba

**amaordie:** amaordekoa

**amapunteko, amapuntekue:** amapuntakoa, amabitxia

"Amapunteko ta aitepunteko, ordun alan esate san, aitepunteko ta amapunteko, da gero eruetallie, batek eruede ban, da arek bidxek gero, iños familidxakon bat be bai, bañe, gedxenetan, nik erue ittuae bost ero sei, gedxa be bai, umiek eta, alan ixate san" - (Amapuntakoa eta aitapuntakoa, orduan hala esaten zen, aitapuntakoa eta amapuntakoa, eta gero eroalea, batek eroaten zuen, eta haiek biak gero, inoiz familiakoren bat ere bai, baina, gehienetan, nik eroan ditut bost edo sei, gehiago ere bai, umeak eta, hala izaten zen)

**andraskue:** andrazkoa

**attepunteko, aitepuntekue:** aitapuntakoa  
"Bateue bai, bateora etzan juten ama, ama es, jute siren, aiñie esatakon, ba famelidxako at ero amistadeko bat, umie erueten, ta juten siren aitepunteko ta amapuntekue" - (Bataioa bai, bataiora ez zen joaten ama, ama ez, joaten ziren, inudea esaten zitzaion, ba familiako bat edo lagunarteko bat, umea eroaten, eta joaten ziren aitapuntako eta amapuntakoa)

**arribaordie:** arribaordea

**besuetakue:** besoetakoa

**erreingedxe:** erraingaia, erraina izango dena

**errena:** erraina

**koñatakidxe:** koinatagaia

**koñatie, koñetie:** koinata

**koñatakidxe:** koinatugaia

**koñatie, kuñetue:** koinatua

**nebaordie:** neba-ordea

**semeordie:** semeordea

**suingedxe:** suhigaia

**suiñe:** suhia

## 3.4. ADIN ERLAZIOAK

**agurie:** agurea

**aingerue:** aingerua, ume txikitxo

"Ortxe godxen be il san, neskatxo bat eta mutiltxo ba pe bai, ni akordeta nas olantxe gastetan, da aingeruek esate san" - (Hortxe goian ere hil zen, neskatxo bat eta mutiltxo bat ere bai, ni gomutatzen naiz holantxe gastetan, eta aingeruak esaten zen)

"Bai, oin txiliñik esta erabilten, bañe len mesatarako be, oin kanpa nausidxe jotzen da bañe txiliñe ixete san, tilin-tilin, txiliñe esatakon, da aingerue, gastetxue, illetako umiek ilte sienien be ba, aixe ixete san, txiliñe, ene ba aingerue ixen da esate san" - (Bai, orin txilini ez da erabiltzen, baina lehen mezatarako ere, orain kanpai nagusia jotzen da baina txilina izaten zen, tilin-tilin, txilina esaten zitzaion, eta aingerua, gaztetxoa, hiletako umeak hiltzen zirenean ere ba, huraxe izaten zen, txilina, ene ba aingerua izan da esaten zen)

**andrie:** andrea

"Ori da andreik sarrena" - (Hori da andrerik zaharrena)

**atzue:** atsoa

**bardinkotie:** berdinkotea, berdingoa, ertaina  
"Bardinkotie, mutiko bardinkotie, ero neskatue bardin ya" - (Berdinkotea, mutiko berdinkotea, edo neskatua, bardin da)

**bikidxek:** bikiak

"Ba nik, e, aitten anadxak, bikidxek neukesan, e, osabak, da arek esate ben gausain bialdute, olantxe gorri gorri einye eukitte bela, e, landie, bedarra pe esebala urtetzen, jo ta su dantzaren, bañe trikitidxen dantzaren, es, es, espatadantzien,

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*espatadantzan jakiñ ein bi da" - (Ba nik, aitaren anaiak, bikiak neuzkan, osabak, eta haiek esaten zuten ganaduzain bidalita, holantxe gorri-gorri eginda edukitzen zutela, landa, belarrak ere ez zuela irteten, jo eta su dantzan, baina txikitan dantzan, ez, ez, ezpata-dantza, ezpata-dantzan jakin egin behar da)*

**gisona, gixona:** gizona

*"Gixonak geidxa ta andrak gitxia, oixe be, oin be iguel segitzeau, e?" - (Gizonek gehiago, eta andreak gutxiago, horixe ere, orain ere berdin segitzen dugu, e?)*

**gixoneskue:** gizonetzkoa

*"Bikotiek iru, gixoneskuei, bueno, asieran da amayeran, da andraskuei bi" - (Bikoteak hiru, gizonetzkoai, beno, hasieran eta amaieran, eta andrazkoai bi)*

**kajakue:** urikoa

**mutiko bardinkotie:** mutil berdingoa, ertaina

**mutikue:** mutikoa

*"Mutikuek erute sittuen elixara" - (Mutikoek eroaten zituzten elizara)*

*"Orrek bakixu nos konteta sien, teatruak eitte sien ba len amen, batzokidxen da, teatruak eitte sien da, karo! e, kanbidxetako, e, jantxidxe ero personajiek ero a, ba bidxen bittartien, mutikue san, e? gure Felix artistie san orretan, mutikue san, da kontau selan kontau? ikasitte, e? arexas liburuas" - (Horiek badakizu noiz kontatzen ziren, antzerkiak egiten ziren ba lehen hemen, batzokian eta, antzerkiak egiten ziren eta, jakina! aldatzeko, jantzia edo pertsonaiak edo hura, ba bien bitartean, mutikoa zen, e? gure Felix artista zen horretan, mutikoa zen, eta kontatu zelan kontatu? ikasita, e? liburu harexegaz)*

*"Gu mutikuek giñela, orretan ibiltte sien" - (Gu mitikoak ginela, horretan ibiltzen ziren)*

**mutil koskorra:** mutil berdingoa, ertaina

**mutille:** mutila

*"Ori da mutillik gastiena" - (Hori da mutilik gazteena)*

*"Nik pentzetot mutille eskondu arte isaten dala" - (Nik pentsatzen dut mutila ezkondu arte izaten dela)*

*"Gu iru ixen giñen, iru neska ta iru mutil, ixen ga gu" - (Gu hiru izan ginen, hiru neska eta hiru mutil, izan gara gu)*

**neskato bardinkotie:** neskato berdinkotea

**neskatue:** neskatoa

**neskie:** neska

*"Ori da erriko neskaik lodidxena" - (Hori da herriko neskarik lodiena)*

*"Neskenak eta mutillenak, aparte euesan, oingo moruen es" - (Neskenak eta mutillenak, bereiz zeuden, oraingo moduan ez)*

*"Neskiei estotzen kobretan, mutillei" - (Neskei ez zieten kobratzen, mutilei)*

**saspikidxe:** zazpikia

**umie:** umea

*"Gerua ume gutxia da" - (Geroago ume utxiago dago)*

*"Lau urteko ume bat etorri da" - (Lau urteko ume bat etorri da)*

*"Nik, e, au ipintten ibilli sieneko akordue, umie, iru bat urte ero, seoser akordu ori badekat" - (Nik, hau ipintzen ibili zireneko gomuta, umea, hiru bat urte edo, zer edo zer gomuta hori badaukat)*

**umesurtze:** umezurtza

## 4. ELIKADURA

Atal honetan giza elikaduraren gainean jasotako berbak biltzen ditugu. Azpiatalak, jatorduak, hastekoak, okela, txerriak, arraina, arrautzak, ogia, esne-gaztaia, gozokiak-postreak eta edariak dira.

### 4.1. JATORDUAK

**afaxe, afarixe:** afaria

**amarretakue:** hamarretakoa

**armosue:** gosaria

**baraue:** baraua

**baraustie:** baraustea, barausgarria

**baskaidxe, baskaridxe, beskaridxe,**

**beskaidxe:** bazkaria

**jana:** jana

**janaridxe, janarixe:** janaria

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Janarixe iguel erres topauko dau ero" -  
(Janaria beharbada erraz topatuko du edo)

**jatekue:** jatekoa

"Oneaittik erun giñeike jatekue be" -  
(Honegatik eroan genezake jatekoa ere)

**jatordue:** jatordua

**kopaue:** kopaua, mokadua

**merendie, meridxendie, beridxendie:**  
askaria

"Ba gero, despedie oiñ esate akon moruen  
ba, merendatxo at ero, lagunei" - (Ba  
gero, despedida orain esaten zaion  
moduan ba, askaritxo bat edo, lagunei)

"Nik arriuek ikusi ttuas bañe, meridxendie,  
ba ori oitturie baeuen" - (Nik arreoak  
ikusi ditut baina, askaria, ba ohitura hori  
bazegoen)

"Beti egote san ba, meridxendie" - (Beti  
egoten zen ba, askaria)

## 4.2. HASTEKOAK

**arrosa:** arroza

"Emote bena san arros asko, personako  
kilue arrosa, rasonamentuen" - (Ematen  
zutena zen arroz asko, pertsonako kiloa  
arroza, arrazonamentuan)

**bañepatatak:** leka patatak

"Gari jotietan, bañe patatak eta makillaue  
ixaten san" - (Gari jotzeetan, leka-  
patatak eta bakailaoa izaten zen)

**bañie:** leka

**berakas sopie:** berakatz-zopa

"Amen aldemenien da berakas sopie iguel,  
berakas sopie itte ben" - (Hemen  
aldamenean eta berakatz zopa  
beharbada, berakatz zopa egiten zuten)

**berdurie:** berdura

**binagrie:** ozpina

**bitze:** bitsa

**ensaladie:** entsalada

**fideo sopie:** fideo zopa

**garbansue:** garbantzua

"Domeketan garbansue, okelie ekarri tte,  
ero etxien, e, ero pernil sati bat ero, bañe  
okelie, normalien okelie ekarri tte  
garbansue ta gero okelie tomatias, sopie  
iñ, fideo sopie aurretik" - (Domeketan

garbantzua, okela ekarri eta, edo etxean,  
edo pernil zati bat edo, baina okela,  
normalean okela ekarri eta garbantzua  
eta gero okela tomateagaz, zopa egin,  
fideo zopa aurretik)

"Domeketako janaridxe garbansue ixate  
san" - (Domeketako janaria garbantzua  
izaten zen)

**gatza:** gatza

"Gero ba, sartze san uretan, e, gatza  
kentzeko" - (Gero ba, sartzen zen uretan,  
gatza kentzeko)

**gisau:** gisatua, erregosia

**koipie:** koipea

"Sebue ero koipie eukitten dau pegaute  
arek" - (Bilgorra edo koipea edukitzen du  
itsatsita hark)

**lapikokue:** lapikokoa

**lentejie:** dilista

"Sakukarie eitte san arrosa, danas arrosa,  
patatakin arrosa, lentejias arrosa,  
garbansuas arrosa" - (Zakukada egiten  
zen arroza, denagaz arroza, patatekin  
arroza, dilistagaz arroza, garbantzuagaz  
arroza)

**makarroye:** makarroia

**marmittakue:** marmitakoa

**ollosaldie:** oilo-salda

"Ollosaldie bai, ollosaldie, ama biskor,  
gogortu daidxen ollo saldiek" - (Oilo-  
salda bai, oilo-salda, ama bizkor, gogor  
dezan oilo-saldak)

**ondakiñe:** hondakina

**ondarra:** hondarra

"Da iños ondarrak, e, betetako, ori bai  
estomague, beteta san" - (Eta inoiz  
hondarrak, betetzeko, hori bai urdaila,  
betetzen zen)

**oridxo asie:** olio aza

"Ba egosi oridxoas da gatzas, eurek oridxo  
gordine bota da gatza, da gero berakatz  
asko ta oridxue ipiñi, e, da dorau dorau  
einye, bera siku siku dauela, ur gitxias  
egositte gero oridxe asie, orduen estai pa  
oridxo asie esate akon da oin be ori,  
asak" - (Ba egosi olioagaz eta gatzagaz,  
eurak olio gordina bota eta gatza, eta  
gero berakatz asko eta olio ipini, eta  
doratu-doratu eginda, bera siku-siku  
dagoela, ur gutxigaz egosita gero olio

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*aza, orduan ez dakit ba olio aza esaten zitzaien eta orain ere hori, azak)*

**orixue, oridxue:** olioa

*"Bai garbittueskero, ba beste itxure bat, bai plasarako askok eitte dxuek, oridxue beste askok eitte otzek, garbittu eta gero oridxue, gastayei be bai, babiei be bai" - (Bai garbituz gero, ba beste itxura bat, bai plazarako askok egiten ditek, olioa beste askok egiten zietek, garbitu eta gero olioa, gaztari ere bai, babari ere bai)*

**pistola sopie:** pistola zopa, pistola izenekoa  
ogiagaz egiten den zopa

**porru patatie:** porru patata

**porrusaldie:** porru salda

**saldie:** salda

*"Botate otzesu oixe kipulie ta, berak botetan daben ure sikatzen doyenien, tomatie bota, da, gero ardauridxe ero koñaka ero bota da, gero, e, piper sikue be baitte, saldie euki, ero saldie okelierna ero ostantzien berakatzas ta saldie einye ipiñitte, bota ta antxe, da, txorisue ta pernille be sartenien buelta bat emon, da bota, ta bañe, gero saltziek bertatik urteta otzan, e? apartekoik etxakon eitten, askenien ogi rayau apurtxo bat ero urun apurtxo bat, piskat, e, bota, piskat a sendotzeko, da, amen oitturie, egosteko oitturaik esta, gurien beintzet, da ostera aldemenetan beti" - (Botatzen diozu kipula horixe eta, berak botatzen duen ura sikatzen doanean, tomatea bota, eta, gero ardauridxe ero koinaka edo bota eta, gero, piper sikua ere bai eta, salda eduki, edo salda okelarena edo osterantzean berakatzagaz eta salda eginda ipinita, bota eta hantxe, eta, txorizoa eta pernilla ere zartaginean buelta bat eman, eta bota, eta baina, gero saltsak bertatik irteten zion, e? apartekorik ez zitzaien egiten, azkenean ogi birrin apurtxo bat edo irin apurtxo bat, pixka bat, bota, pixka bat hura sendotzeko, eta, hemen ohitura, egosteko ohiturarik ez dago, gurean behintzat, eta ostera aldamenetan beti)*

**saltza berdie** saltsa berdea

*"Ba, patata saltza berdien seraas, e, perejillas eta, ba ari ba, seoser geitxua sartzeko beste seoser ba, sera iderra*

*bota, esta?" - (Ba, patata saltsa berdean zeragaz, perrexilagaz eta, ba hari ba, zer edo zer gehitxoago sartzeko beste zer edo zer ba, zera ilarra bota, ezta?)*

**saltzie:** saltsa

*"Egalak eta gordeta oskusen, da aren saltzan ipintte oskusen, saltza gosoau! bueno!" - (Hegalak eta gordetzen zizkigun, eta haren saltsan ipintzen zizkigun, saltsa gozoagoa! beno!)*

**sopie:** zopa

## 4.3. OKELA

**faldie:** falda, okela mota bat

**gidxarrie:** giharra

**gixena:** gizona

**kallue:** tripakia

**okelie:** okela

*"Ori esan gurosu suk kaso bateraskero okelie apurtzeko" - (Hori esan gura duzu zuk kasu baterazkero okela apurtzeko)*

**sankarroie:** zankarroia

**sesiñe:** zezina

*"Okelie, eroste banak, e, lantzien sati bat etxieta ta, gero sesiñe" - (Okela, erosten zuenak, lantzean zati bat etxeetara eta, gero zezina)*

**tajadie:** xerra

**tripotxa:** bildotsaren odolagaz egiten den odoloste antzekoa

**txuletie:** txuleta

## 4.4. TXERRIKIA

**amasie:** oreka, saltsagarria, masa

**aurreko pernille:** aurreko pernilla

**buskentza:** buzkantza

**kirri kirrixie:** kirrizkia, txerriaren kartilagoa

*"Osaba bat genduken karneserue beyen, da umiekin errekaure, da arek euken oitturie bustena bastante punta puntie, emoteko ta a kirri kirrixie da dana" - (Osaba bat geneukan harakina behean, eta umiekin mandatura, eta hark zeukan ohitura buztana nahiko punta-punta, emateko eta hura kirrizki kirrizkia da dena)*



# ZALDIBAR HIZTEGIA

**odolostie:** odolostea

"Beren ganauen estiekin eitte sien odolostiek, da txorisue pe bai" - (Beraren ganaduaren hesteekin egiten ziren odolosteak, eta txorizoak ere bai)

**odolostien masie:** odolosteen masa

"Amen txarridxe beti iltte san, da, danak eitten sien bañe odolostien masie, ondo ein ye" - (Hemen txerria beti hiltzen zen, eta, denak egiten ziren baina odolosteen masa, ondo egin eta)

**pernille:** pernila

"Pernillek ondo igurtzi agas, da eskeitte ipiñi tte, beratzen euki lelengo ta, e?" - (Pernilak ondo igurtzi haregaz, eta eskegita ipini eta, beratzen eduki lehenengo eta, e?)

**piper autze:** piper hautsa

**salmuerie:** salmuera, gatzura

"Gero bai, gero beratu te emon, e, salmuerie eo esate akona, piper autzas ero seras, ero piper, txoriseruen, e, seras da, binagrie ero estait ser eitte akon, eitte ben ser masa bat, d'axeas egosi, da gero, eskei, ta sayeskidxe pe iños bai" - (Gero bai, gero beratu eta eman, salmuera edo esaten zitzaiona, piper hautsagaz edo zaragaz, edo piper, txorizeroaren, zeragaz eta, ozpina edo ez dakit zer egiten zitzaion, egiten zuten zer ore bat, eta harexegaz egosi, eta gero, eskegi, eta saiheskiak ere inoiz bai)

**sartanekue:** zartaginekoa

**sayeskidxe:** saiheskia

**solomue:** solomoa

"Ba apartetotzesan, e, pernillek eta solomuek eta orrek apartetotzesan da gero, urdaidxe eta serak" - (Ba kentzen zizkion, pernilak eta solomoak eta horiek kentzen zizkion eta gero, urdaiak eta zerak)

**txarrikidxe:** txerrikia

**txarri koipie:** txerri koipea

**txintortie:** txintxorta

**txorixue, txorisue:** txorizoa

**urdai asala:** urdai azala

**urdaidxe, urdeixe:** urdaia

"Urdaidxe ta iguel, e, ni akordeta nas or, e, urdaidxe sartanien ein ye gero iguel arrotza bat batiu gañera bota, da a ixate

san berakas sopie ta armosu oi" - (Urdaia eta berdin, ni gomutatzen naiz hor, urdaia zartaginean egi eta gero beharbada arrautza bat irabiatu gainera bota, eta hura izaten zen berakatz zopa eta armozu hori)

## 4.5. ARRAINA

**angulie:** angula

"Lelengo angulak eta orretzek jate besan" - (Lehenengo angulak eta horiexek jaten zituzten)

**antxobie:** antxoa

**arrañe:** arraina

"Suri arrañe dana gustau dxatzu te, nik estot arrañe jaten ikasi be iñ" - (Zuri arraina dena gustatu zaizu eta, nik ez dut arraina jaten ikasi ere egin)

**atune:** atuna

**bakillau sikue:** bakailao sikua

"Domeka arratzaldetan da ba, aittas da amas jute giñien ba, meridxetara, e, bakillau sikue da olako serak jaten, txakoliñera" - (Domeka arratsaldeetan eta ba, aitagaz eta amagaz joaten ginen ba, askaria jatera, bakailao sikua eta holako zerak jaten, txakolindegira)

**bisigue:** bisigua

**egala:** hegala, hegoa

**karakola:** karakola

"Ba karakolak amen, e, oitturie da karakolak uras egostie, amen sekule esta egosi uras, e, karakolik, amen eitten da, garbitze osus ondo ondo, ure kendu te, aparte ipintte osu, e, oridxue ta kipulie, asko, kipula pillo bat, da, bota aritxe gañera da, bixii tauesela, e?" - (Ba karakolak hemen, ohitura da karakolak uragaz egostea, hemen sekula ez da egosi uragaz, karakolik, hemen egiten da, garbitzen dituzu ondo-ondo, ura kendu eta, aparte ipintzen duzu, olio eta kipula, asko, kipula pilo bat, eta, bota huraxe gainera eta, bizirik daudela, e?)

**lebatza:** legatza

"Lebatza gurien asko, e, bai da, sapterue ta, narrue kendute sapterue, e, orre pe asko eingo ban iguel, arraindire esnie

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*selan eruten genduen ba, astien, e, serien beti domeketan, beti ekarte san" - (Legatza gurean asko, bai eta, zapateroa eta, narrua kenduta zapateroa, horrek ere asko egingo zuen beharbada, arrandegira esnea zelan eroaten genuen ba, astean, zerean beti domeketan, beti ekartzen zen)*

**makillaue, bakillaue:** bakailaoa

*"Bakillaue ebate san antzerakue bañe karo! lastue ebateko" - (Bakailaoa ebakitzen zen antzerakoa baina jakina! lastoa ebakitzeko)*

*"Len beintzet, oin ba ipintte otzasus iguel ba, berdura pillo bat ero olako, piperra ta tomatie ta, e, kipulie, pillo bat eta, oin ba misteridxo gedxa ipintte otzasu bañe beti, makillaue beti, da gure amamak esate ban, e, gure osabie or makillauten ibiltte sanien Terranobara, aitten anadxie sarrena, arek, e, ba beti berak ekarte bala makillaue" - (Lehen behintzat, orain ba ipintzen dizkiozu beharbada ba, berdura pilo bat edo holako, piperra eta tomatea eta, kipula, pilo bat eta, orain ba misterio gehiago ipintzen diozu baina beti, bakailaoa beti, eta gure amamak esaten zuen, gure osaba hor bakailao-ontzietan ibiltzen zenean Terranobara, aitaren anaia zaharrena, hark, ba beti berak ekartzen zuela bakailaoa)*

**peskaue:** arraina

**pil-pilien:** pil-pilean

**sapaterue:** zapateroa, atunen antzeko arraina

**sardiña sarra:** sardina zaharra

**sardiñie:** sardina

**txitxarrue:** txitxarroa

## 4.6. ARRAUTZAK

**arrotza gorringue:** arrautza gorringoa

**arrotza surringue:** arrautza zurringoa

**arrautzie, arrotzie:** arrautza

*"Arrotzak asko balio eben amen" - (Arrautzak asko balio zuen hemen)*

**gorringue:** gorringoa

**kaskarie:** eskola, azala

**minsdune:** mintz hutsezko arrautza, oskol barik egiten dena, baina barruko mintza daukana

**mintze, bintzie:** mintza

**mintzebako arrotzie:** mintz hutsezko arrautza, oskol barik egiten dena, baina barruko mintza daukana

*"Bai esan mintzebako eitte ako, ixen eskola da falta dabena bañe" - (Bai esan mintzebako egiten zaio, izan eskola da falta duena baina)*

**surringue:** zurringoa

**oskola:** eskola, azala

**tortillie:** tortila, arrautzopila

## 4.7. OGIA

**aidxe:** ahia

**amasie:** orea, masa

**arto erregutie:** arto errugutada, arto xerra

*"Arto erreguta bat eta urdai sati bat, arto erregutie ba, artue ebaitte ta, artue, arto erreguta bat eta urdai sati bat eta, gordiñik eta an, ixotza, gona barrenak izotzak gogortute ta, egarridxe eukitten genduenien, e, beidxen anka suluetan ure eran da oixe, da orduen arrapau bagenduesan guk onek, onek babok" - (Arto erregutada bat eta urdai zati bat, arto erregutada ba, artoa ebakita eta, artoa, arto erregutada bat eta urdai zati bat eta, gordinik eta han, izotza, gona barrenak izotzak gogortuta eta, egarria edukitzen genuenean, behien hanka zuloetan ura edan eta horixe, eta orduan harrapatu bagenituen guk hauek babok)*

**artopille:** arto opila

**arto urune:** arto irina

*"Arto urunas einye bañe, uras barik esnias einye morokille" - (Arto irinagaz eginda baina, uragaz barik esneagaz eginda morokila)*

**artue:** arto irinagaz egiten den ogia

*"Artue t'esnie ta oni tte semiei tte asko gustetakue ta, konjeladorien beti egoten da gurien, oin be bai, artue, etxekue" - (Artoa eta esnea eta honi eta semeari eta asko gustatzen zaie eta, hozkailuan beti*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*egoten da gurean, orain ere bai, artoa, etxekoa)*

**asala:** azala

**erregutie:** erregutada, xerra

**fota:** fota, ogi mota bat

**gari urune:** gari irina

**kuskurre:** kuskurra, kurruskua

**labartue:** labe artoa

**lebadurie, labadurie:** legamia

*"Orduen eralgi ein bir ixete san ba oremaidxe egote san ganbaran da, eralgi bayas, da gero ba ipiñi pillue da erdidxen sulo at ein ya an botate otzesun, e, etxeko lebadurie basan aurreko, e, astien beiñ itten san, e, labako sue ixeten san, labako sue da, aurrekue gorde basenduen aurreko asteko sati bat, a ta gero kalekue piskat beti botate otzan, erosittekue be, lebadurie, da ba, ure berotu, ogeta amabost amasei bat gradure ixeten da, da, ba ein masie ondu ondo da bertan tapaute itxi oremaidxen da, e, labie ixotu gero igoten sanien ogidxe, e, formie emon da, ya eiñ ogidxe eta ipiñi mai baten, da gero ba labie garbittu, te, gero sartu, e, ogidxe eta rin da! artue pe bai, artuek pillo bat eitten siren" - (Orduan eralgi egin behar izaten zen ba oramahaia egoten zen ganbaran eta, eralgi bahegaz, eta gero ba ipini piloa eta erdian zulo bat egin eta han botatzen zenion, etxeko legamia bazen aurreko, astean behin egiten zen, labeko sua izaten zen, labeko sua eta, aurrekoa gorde bazenuen aurreko asteko zati bat, hura eta gero kalekoa pixka bat beti botatzen zion, erositakoa ere, legamia, eta ba, ura berotu, hogeita hamabost hamasei bat gradura izaten da, eta, ba egin orea ondu ondo eta bertan tapatuta utzi oramahaian eta, labea isiotu gero igotzen zenean ogiak, forma eman eta, ja egin ogiak eta ipini mahai baten, eta gero ba labea garbitu, eta, gero sartu, ogiok eta rin da! artoak ere bai, artoak pilo bat egiten ziren)*

*"Labadurie bai, labadurie ixaten da, e, gaur labako sue itte osunien, onako pelotatxo bat ein ye, sati bat itxi, urunas tapaute, da andik, e, sei eguna ero sortzi eguna*

*ero eiñ biar bosu barridxe, aretxas nastau urrengo masie, axe da labadurie" - (Legamia bai, legamia izaten da, gaur labeko sua egiten duzunean, holako pilotatxo bat egin eta, zati bat utzi, irinagaz tapatuta, eta handik, sei egunera edo zortzi egunera edo egin behar baduzu berria, harexegaz nahastu hurrengo masa, huraxe da legamia)*

**mamiñe:** mamia

**masie:** masa, orea

*"Ari masiai urrengo, e, amar ogi ero amabi ogi ein bi osusenai ari dana nastau ba a pelotie, ta gero, urrengorako ba barridxe itxi, da arek funsionaten dau, e, oingo onen besti onen morun, iguel iguel" - (Masa hari hurrengo, hamar ogi edo hamabi ogi egin behar dituzunei haiei dena nahastu ba pilota hura, eta gero, hurrengorako ba berria utzi, eta hark funtzionatzen du, oraingo beste honen moduan, berdin-berdin)*

**morokille:** morokila

*"Nire gastetan, ba, belauneko paraute, itte san, or laratzeti bera eskei, katiatik, da morokille an eitte san makilla batas parau belauneko ta dza!" - (Nire gastetan, ba, belauniko paratuta, egiten zen, hor laratzetik behera eskegi, kateatik, eta morokila han egiten zen makilla bategaz paratu belauniko eta dza!)*

**ogi asala:** ogi azala

**ogi baltza:** ogi beltza

*"Ori ba ogi baltza suntu barik eralgi barik, se eralgi ein biar ixaten da" - (Hori ba ogi beltza zertu barik eralgi barik, ze eralgi egin behar izaten da)*

**ogidxe, ogixe:** ogia

*"Ogitten jun die" - (Ogitan joan dira)*

**ogi kuskurre:** ogi kuskurra, ogi kurruskua

**ogi mamiñe:** ogi mamia

**ogi mamurre:** ogi mamurra, ogi papurra

**ogi surixe:** ogi zuria

**ogi urune:** ogi irina

**opille:** opila

*"Opille iguel, e, eltze san, e, baridxe ku arratzaldie ero, ogidxe itten sana ta iguel, asteko ogidxe amaittute, da lelengo bertan egunien jateko isten san me meye*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*opille*" - (*Opila beharbada, heltzen zen, bariku arratsaldea edo, ogia egiten zena eta beharbada, asteko ogia amaituta, eta lehenengo bertan egunean jateko uzten zen mehe-mehea opila*)

**orie:** orea, masa

**pistolie:** pistola, ogi mota bat, mehea eta luzea

*"Tostaue ixaten da pistolie, ta neri gustau, sopia itteko"* (*Xigortua izaten da pistola, eta niri gustatu, zopa egiteko*)

**ritxie:** erritxea, ogi mota bat

**san blas opille:** san blas opila

*"Eibarren eitte sien san blas opillek, san blas opille esate san, oiñ amen be bai one pe edertxuk eitte ittu, ederrak ein be gañera"* - (*Eibarren egiten ziren san blas opilak, san blas opila esaten zen, orain hemen ere bai honek ere edertxoak egiten ditu, ederrak egin ere gainera*)

**talue:** taloa

*"Talo gosue itteko esate ben orrek, labartue esaten dabe, laban, e, ogidxekek itten sienien, artaburuek sartze sien, laban, gurien be itte ben ori, urkuldu be errasa itten da, da ba, labartue esate akon da gero gosuaue dala, aras eitte san urune"* - (*Talo gozoa egiteko esaten zuten horiek, labe-artoa esaten dute, labean, ogiak egiten zirenean, artaburuak sartzen ziren, labean, gurean ere egiten zuten hori, urkuldu ere errazago egiten da, eta ba, labe-artoa esaten zitzaion eta gero gozoagoa dela, haregaz egiten zen irina*)

**tremesa:** tremesa, zahi eta guzti egiten zen ogi mota

**urune:** irina

*"Urun apur bat gurien beti, talue itteko be bai, da artue eitteko be bai"* - (*Irin apur bat gurean beti, taloa egiteko ere bai, eta artoa egiteko ere bai*)

*"Ni umetan selan jute nitzen ara errotara, aittittek errotie euken an da ba, astuas urune ekarten"* - (*Ni umetan zelan joaten nintzen hara errotara, aitaitak errota zeukan han eta ba, astoagaz irina ekartzen*)

## 4.8. ESNEA-GAZTA

**bei esnie:** behi esnea

**erro berue:** erro beroa, esne gordina

*"Erro berue da gordiñe, esne gordiñe, batu te arakue, errotik ara basora ero txolotera ero batu"* - (*Erro beroa da gordina, esne gordina, batu eta harakoa, errotik hara edalontzira edo txolotera edo batu*)

**esnie:** esnea

*"Ni urte pilla baten jue nas Eibarrera, guk esnie Eibarrera saltze genduen"* - (*Ni urte pila baten joan naiz Eibarrera, guk esnea Eibarrera saltzen genuen*)

*"Karo estau gure, a lapikue egosi tte esnie egosi tte a garbittu te, olako gausaik es, artu paketetik eta, karo oingo prisiek eta oingo serak etxekok askenik"* - (*Jakina ez dugu gura, lapiko hura egosi eta esnea egosi eta hura garbitu eta, holako gauzarik ez, hartu paketetik eta, jakina oraingo presak eta oraingo zerak ez zaukak azkenik*)

**gastauntzidxe:** gazta ontzia

**gastaye:** gaztaia, gazta

**gatzure:** gaztai ura, gaztaiak egikeran galtzen duen ura

**legarra, learra:** legarra

*"Usau bai bañe iñ, e, learrrik etxien ba, eskendulako guk billotxik, ba beiñ ero beiñ, bate mat ekarten basan ba, kendu bai ari bañe"* - (*Erabili bai baina egin, legarrik etxean ba, ez genuelako guk bildotsik, ba behin edo behin, baten bat ekartzen bazen ba, kendu bai hari baina*)

**mantekillie:** gurina

**modalie:** gazta egiteko moldea

## 4.9. GOZOKIAK-POSTREAK

**asukrie, asukerie:** azukrea

*"Kilo bat asukera eskatzen baeban baten batek, ya poltzie ipintte san"* - (*Kilo bat azukre eskatzen bazuen baten batek, ja poltsa ipintzen zen*)

**bolue:** bataioetan ematen diren gozokien izena

*"Bolue esate san, bolue, oin botetan daben moruen, bautiso ostien juten die ba*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*karamelo bille amen, an ikuste osu semat ume juntetan dien, da dirue, dirue botetan dabe, da ba orduen, antxe euesan danak ipiñitte, ene gure posa!" - (Bolua esaten zen, bolua, orain botatzen duten moduan, bataio ostean joaten dira ba karamelu bila hemen, han ikusten duzu zenbat ume elkartzen diren, eta dirua, dirua botatzen dute, eta ba orduan, hantxe zeuden denak ipinita, ene gure poza!)*

*"Bautisue da ta, bolue ongo da ta, ori bai" - (Bataioa da eta, bolua egongo da eta, hori bai)*

**estidxe:** ezitia

**galletie:** gaileta

*"Ama bisittetan juete sienak, bere lagunek ero familidxakuek ero, jeneral erute otzen ba, galletak ero" - (Ama bisitatzen joaten zirenak, bere lagunek edo familiakoek edo, gehienetan eroaten zieten ba, galletak edo)*

**intxaur saltzie:** intxaur saltsa

*"Ba ipintte osu esnie, asukerías da kanelias, egosten, da irakitten satitxo baten euki, piskat sendotzen esnie, atzeratu, kanelie kendu, da, gero prepareta senduen, e, intxaurre, ba, satittute trapu baten ipintte san da, mallukias ero, egurrezko mallukias ero, txiki txiki txiki ein" - (Ba ipintzen duzu esnea, azukreagaz eta kanelagaz, egosten, eta irakiten zatitxo baten eduki, pixka bat sendotzen esnea, atzeratu, kanela kendu, eta, gero prestatzen zenuen, intxaurra, ba, zatituta trapu baten ipintzen zen eta, mailukiagaz edo, egurrezko mailukiagaz edo, txiki-txiki-txiki egin)*

*"Bai beti, urtero urtero, esnias, uras! esnias, da asukera askoas da esnias, besperan ipiñi beratzen intxaurrek esnias, esne epelas, ta asukereas, eta gero, gabon egunien afaldu orduko, piskat aurreatxua, denpora asko ein bi da eraitten, eraitten, eraitten, da bueno, soragarrixe da intxaur saltzie, biarra dekola eitten" - (Bai beti, urtero-urtero, esneagaz, uragaz! esneagaz, eta azukre askogaz eta esneagaz, bezperan ipini beratzen intxaurrak esneagaz, esne epelagaz, eta azukreagaz, eta gero,*

*gabon egunean afaldu orduko, pixka bat aurreratxoago, denbora asko egin behar da eragiten, eragiten, eragiten, eta beno, zoragarria da intxaur saltsa, beharra daukala egiten)*

**kajetolie:** gabonetako dultze kaxa

**kanelie:** kanela

**karamelue:** karamelua

**konpotie:** konpota

**kortadillue:** azukre kozkorra

**mermeladie:** mermelada

**morokille:** morokila

**postrie:** postrea

**sagar errie:** sagar errea

*"Ori neguen eitten san, e, sagar errie, ero ogidxe tostau, da, sartu, arda berotu te asukerías, bañe ori" - (Hori neguan egiten zen, sagar errea, edo ogia txigortu, eta, sartu, arda berotu eta azukreagaz, baina hori)*

**tostadie:** tostada

*"Nik tostadak, beti eitte itzut ointxe be, karnabaletan" - (Nik tostadak, beti egiten ditut oraintxe ere, aratustetan)*

*"Ogidxenak estittu eitten, bestiek gustetakes gedxa, bañe bestiek gosuek eitte ittu, e? bai gosuek eitte ittu, soziedaderako eitte itzut eta, amamak eiñiko tostadak gosuek ixaten ei die" - (Ogienak ez ditugu egiten, besteak gustatzen zaizkie gehiago, baina besteak gozoak egiten ditugu, e? bai gozoak egiten ditugu, soziedaderako egiten ditut eta, amamak egineko tostadak gozoak izaten ei dira)*

**turroye:** turroia

**txokolatie:** txokolatea

*"Txokolatie ero, orduen olakomat ixango san" - (Txokolatea edo, orduan holakoren bat izango zen)*

## 4.10. EDARIAK

**anise:** anisa

**anisetie:** anisetea

*"Ataixu anisete apur bat" - (Atera ezazu anisete apur bat)*

**arda fiñe:** arda fina

**arda gosue:** arda gozoa

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Arda gosuek barriketan egote sien da arda korrientie saragidxen, da arda fiñek botilletan" - (Ardau gozoak barriketan egoten ziren eta arda arrunta zahagian, eta arda finak botiletan)

**arda korrientie:** arda arrunta

**ardau baltza:** arda beltza

**ardaue:** arda

"Ardaue erosi ot bost egunerako" - (Ardaue erosi dut bost egunerako)

"Bai, nik pentzot, e, gurien ardaue emote akuela" - (Ba, nik pentsatzen dut, gurean ardaue ematen zitzaizela)

"Txala itten dabendien, lelengo, lelengo emote akon ardaue, botilla bete ardaue" - (Txahala egiten dutenean, lehenengo, lehenengo ematen zitzaion ardaue, botilla bete ardaue)

**ardau gorrixe:** arda gorria

**ardau surixe:** arda zuria

**batza:** sagardua egindakoa geratzen diren sagar hondakinak

**botilletako ardaue:** botiletako ardaue, ardaue fina; ardaue solte saltzen zeneko desberdintasuna

**doladie, toladie:** dolarea

"Txakoliñe guk an, e, aurrien euen etxie Katike, an, asko eitte ben da, aratxe erun da antxe prentseta genduen, prentsa baten, doladie esate genduen" - (Txakolina guk han, aurrean zegoen etxea Katika, han, asko egiten zuten eta, haraxe eroan eta hantxe prentsatzen genuen, prentsa baten, dolarea esaten genuen)

**edaridxe, eraridxe:** edaria

**kafe t' esnie:** kafesnea

**kafie:** kafea

"Kafie ta eskatze sien jeneral olan gutxi" - (Kafea eta eskatzen ziren gehienetan hola gutxi)

"Txingarra, da a gorri gorrixe, artu, e, orras, tenesillakin, artu te sartze ben an, lapikun kafe artin, bai gure amak be bai beti tte, esate notzan setako da ama ori tte? au? kafiek obeto urteteko esate osten" - (Txingarra, eta hura gorri-gorria, hartu, horregaz, tenazekin, hartu eta sartzen zuten han, lapikoan kafe artean, bai gure amak ere bai beti eta,

esaten nion zertarako da ama hori eta? hau? kafeak hobeto irteteko esaten zidan)

**koñaka:** koinaka

**kopie:** kopa

**moskorra:** mozkorra

**mostue:** mostoa

**pattarra:** pattarra

**sangridxie:** sangria

"Sangridxie esate akon orri, asukrie ta ardaue, da ure" - (Sangria esaten zitzaion horri, azukrea eta ardaue, eta ura)

**sardaue, sagardaue:** sagardoa

"Ori itten da sagarra eskus dana apurtze san, eskus bañe, ser aundi bat ixeten, enbudo aundi baten moruen, erruera aundi bat euen, da ari eraiñ, da an apurtu, da juten da aska bata, arrisko aska bata, ure ta, e, batza esatako gero, da a batza, e, prentsa itten da, bai, prentsa, da geratzen da gastaye lentxik, soltau prentzie, da atxurras dana, jo, da sabaldu da bota ure, erregalidxueas, ur utzas, uri pakue in gendun urte baten, bañe gosua da uras beras, ure bota, da sagarrak, asko artzen dau ure, da gero atza estutu a barrido be" - (Hori egiten da sagarra eskuz dena apurtzen zen, eskuz baina, zer handi bat izaten, inbutu handi baten moduan, txirrinka handi bat zeukan, eta hari eragin, eta han apurtu, eta joaten da aska batera, harrizko aska batera, ura eta, batza esaten zaio gero, eta batza hura, prentsatu egiten da, bai, prentsatu, eta geratzen da gaztaia legetxe, askatu prentsa, eta aitzurragaz dena, jo, eta zabaldu eta bota ura, erragalioagaz, ur hutsagaz, urik bakoa egin genuen urte baten, baina gozoagoa da uragaz beragaz, ura bota, eta sagarrak, asko hartzen du ura, eta gero atzera estutu hura berriro ere)

"Guk ara erute genduen, e, sagarra, sagardaue itteko" - (Guk hara eroaten genuen, sagarra, sagardoa egiteko)

**txakolin gorridxe:** txakolin gorria

**txakolin suridxe:** txakolin zuria

**txakoliñe:** txakolina

"Orrek semat eta gedxa obie esaten dxuek, e, txakoliñe itteko be bai eta ardaureko be bai" - (Horiek zenbat eta gehiago

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*hobea esaten ditek, txakolina egiteko ere bai eta ardaurako ere bai)*

"Da urte baten ei eben txakoliñe bañe, erateko morukue es" - (Eta urte baten egin zuten txakolina baina, edateko modukoa ez)

**txikoridxie:** txikoria

"Aldie ote san, da batzuk eskatu eitte ben Txinbo txikoridxie, ero olan" - (Aldea egoten zen, eta batzuek eskatu egiten zuten Txinbo txikoria, edo hola)

**ure:** ura

## 5. JANTZIAK

Jantzieraren gaineko berbak banatzeko egin ditugun azpi-atalak arropak, oinetakoak, osagarriak, apaingarriak eta, azkenik, joskigintza beharrari dagokiona izango dira.

### 5.1. ARROPAK

**adxubetie:** kordel mota bat, gorontza edo gonutza lotzeko lehen erabiltzen zena

**arkondarie:** alkondara

"Bai, batzuk fin fiñek ixate sien arkondarak, aurrien, e, sati diferentie ipiñi, suridxe, arek domeketakuek, pliegiek einye, dotoriek arkondarak!" - (Bai, batzuk fin finak izaten ziren alkondarak, aurrean, zati desberdina ipini, zuria, haiek domeketakoak, tolesak eginda dotoreak alkondarak!)

**baberrue:** baberoa, okozpekoa

**bruse:** brusa

"Kiputzek, e, bruse eruteben sera, baltza, ta Biskaikuk ori beste asulkie" - (Giputzek, brusa eroaten zuten zera, beltza, eta Bizkaikoek beste hori urdinkia)

**elastikue:** elastikoa

**errota urdiñe:** lantokirako erabiltzen zen arropa, beharginen jantzia

**errope:** arropa

**euskerasko frakak:** euskarazko prakak, praka hauek brageta albo batean edukitzen zuten botoi batzuekin

**faldoye:** faldoia

**frakak, prakak:** prakak

"Gixoneskuek, e, bruse, arkondarie ta bruse ta, prakak" - (Gizonezkoek, brusa, alkondara eta brusa eta, prakak)

**gabardiñie:** gabardina

**galtzie:** media

**garrikue, gerrikue:** gerrikoa

"Da a sartze akon, gerrikuen sinttan, da gero lotu, bueltaka ta bueltaka, umie ondo batu, batu, batu tente jun daitten, kotxeik eseuen da" - (Eta hura sartzen zitzaion, gerrikoaren zintan, eta gero lotu, bueltaka eta bueltaka, umea ondo batu, batu, batu tente joan dadin, kotxerik ez zegoen eta)

**gonie:** gona

**gonutze:** gonutza, gorontza

"Gonutzas ibiltte sien lena, olan, da a lotute ondo, mangutzik eta gonutze esate akon, ser bat" - (Gonutzagaz ibiltzen ziren lehenago, hola, eta hura lotuta ondo, mahuka hutsik eta gonutza esaten zitzaion, zer bat)

**jakie:** jaka

**jantzidxe:** jantzia

**jersie, jertzie:** jertsea

"Jersie alrrebes igual ni sarritten, esta? jerse onek sarrok, alrrebes da ama! loterixik urten bi tzu, se ba? ta alrrebes dosu jertzie ta, esatoste" - (Jertsea aldrebes beharbada ni sarritan, ezta? jertse hauek zaharrok, aldrebes eta ama! loteriak irten behar dizu, zer ba? eta aldrebes duzu jertsea eta, esaten didate) [Jertsea atzekoz aurrera jantziz gero, horrek zorte ona dakarrela uste da]

**kaltzetiñe:** galtzerdia

**kamisetie:** kamiseta

**kamisie:** kamisa, azpikogonaren antzeko jantzia

"Bai gure amak kamisie mangadune erabiltte ban, udan mangadune, da ganetik esebe barik, gonutze ta gonie" - (Bai gure amak kamisa mahukaduna erabiltzen zuen, udan mahukaduna, eta gainetik ezer ere barik, gonutza eta gona)

**kamisoye:** kamisoia

"Danetik, ixerak, toallak eta danak egote siren an ipiñitte, kamisoyek eta oge gañien da, bakixu, umien kontuek ya,

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*gero es bañe, danak ikustera jute gintzesen, goguen dekat, e, Marselo eskondu senien, estakixu?" - (Denetik, izarak, oihalak eta denak egoten ziren han ipinita, kamisoiak eta ohe gainean eta, badakizu, umeen kontuak ja, gero ez baina, denak ikustera joaten ginen, gogoan daukat, e, Martzelo ezkondu zenean, ez dakizu?)*

**mantarra:** mantarra

**mariñerie:** marinera

*"Lelengo eruede san olan, e, sera kamiseta morukue, mariñerie da aren goikue bañe gero, ixurras, bueltan, gerridxen formie gomie sartu gerridxen tamañuen, da gero bueltan, e, seras" - (Lehenengo eroaten zen holan, zera kamiseta modukoa, marinera eta haren goikoa baina gero, izurragaz, bueltan gerriaren forma goma sartu gerriaren tamainan, eta gero bueltan, zeragaz)*

**paxie:** paxa

*"Lelengo brusiai imintte akon da gero serien, bueltaka bueltaka batu, paxias lotu, da gero jaketxue, kamisetxue ta jaketxue" - (Lehenengo brusari ipintzen zitzaion eta gero zerean, bueltaka-bueltaka batu, paxagaz lotu, eta gero jakatxoa, kamisatxoa eta jakatxoa)*

**praka motxa:** praka motza, praka laburra

**sayonie:** saiona, kamisa; azpiko-gona antzekoa

*"Sayonie esate akon barruti jasten sanai" - (Saiona esaten zitzaion barrutik janzten zenari)*

**soñekue:** soinekoa

*"Nik esautu ittuas bodak amen, baltzes jantzitte da an eseuen lutuik, gañea baltzes da lusies soñekue ta dana, esautute na" - (Nik ezagutu ditut ezkontzak hemen, beltzez jantzita eta han ez zegoen lutorik, gainera beltzez eta luzeaz soinekoa eta dena, ezagututa nago)*

**txaketie:** jaka

**txapiñue:** txapina

*"Guk txapiñue esaten tzau, beye bustittekuen gorus bueltau, da godxas bera ipiñi" - (Guk txapina esaten diogu, behea*

*bustitakoan gorantz bueltatu, eta goiaz behera ipini)*

## 5.2. OINETAKOAK

**abarka asala** abarka kordela: abarka kordela

*"Orduentxi ju akola ari katarrue, beti abarka asalak bustitte, seiruen, gero agertu sien gomaskuek" - (Orduantxe joan zitzaiola hari katarroa, beti abarka azalak bustita, segituan, gero agertu ziren gomazkoak)*

**abarka mantie:** abarka mantak

*"Abarka mantak neuk esautu ittut" - (Abarka mantak neuk ezagutu ditut)*

**abarketie:** abarketa

*"Aren aittek eitte sittuen abarketak" - (Haren aitak egiten zituen abarketak)*

*"Emen basuek garbitze sien abarketakin ibiltteko moruen da oiñ, esi leike txakurrekin be juen" - (Hemen basoak garbitzen ziren abarketekin ibiltzeko moduan eta orain, ezin liteke txakurrekin ere joan)*

**abarkie:** abarka

*"Gure aittek beti eitte sittuen berak abarkak" - (Gure aitak beti egiten zituen berak abarkak)*

*"Da busti? seiruen, gure amak esate ban katarrue, gomasko abarkak, e, agertu sienien ju akola berai" - (Eta busti? segituan, gure amak esaten zuen katarroa, gomazko abarkak, agertu zirenean joan zitzaiola berari)*

**abarkistena:** abarka-eztana, abarkak egiteko iltzea

*"Abarkistena, aras suluek ein ye pasau, gero ugela ganien, buelta gustien, da gero neurridxen ipiñi" - (Abarka-eztana, haregaz zuloak egin eta pasatu, gero uhala gainean, buelta guztian, eta gero neurrian ipini)*

**abarkola:** abarka-ohola, abarkak egiteko ohola

**aletxie:** aletxa, kordelak pasatzeko belarriak  
*"Aletxak abarkak eukitte besanak, kordelak pasetako serak" - (Aletxak abarkek*



# ZALDIBAR HIZTEGIA

*edukitzen zituztenak, kordelak pasatzeko zerak)*

**begidxe:** abarken begia

*"Josteko, narru satidxe kendu, ertza kendu t'arekin, erreparu moruen olan pasau danien, da muturrien ipintte otzen beste serto bi, begitxo bi, ser diferentias, narru baltzas eitte otzesan begitxuek" - (Josteko, narru zatia kendu, ertza kendu eta haiekin, erreparu moduanholan pasatu denean, eta muturrean ipintzen zien beste zertxo bi, begitxo bi, zer desberdinagaz, narru beltzagaz egiten zizkien begitxoak)*

**brozigidxe:** bortzegia, zapata mota bat

**botie:** bota

*"Umedadiena gedxa, oin besteko oñetakorik eta bes, umetan len etzan, e, serien oiñ umiek eta bakixu selako oñetakuek eta ebalte ittuen, botak eta" - (Hezetasunarena gehiago, orain besteko oinetakorik eta ere ez, umetan lehen ez zen, zerean orain umiek eta badakizu zelako oinetakoak eta erabiltzen dituzten, botak eta)*

**estena:** eztena, abarkak egiteko iltzea

**kordela:** kordela

*"Kordelak pasatakie die aletxak" - (Kordelak pasatzekoak dira aletxak)*

**larrosetie:** begizta, mingila

**lasadie:** mingila, zapatak lotzeko korapiloaren gainean egiten den begizta

**lokarridxe:** lokarria

**morapillue, koapillue:** korapiloa

*"Morapillo moruko bat emote geuntzen gu takiu selan, da gero, metie in bi san arekin, metie bakixu ser san, metie soluen? ori txuntxurroi" - (Korapilo moduko bat ematen genion guk dakigu zelan, eta gero, meta egin behar zen haiekin, meta badakizu zer zen, meta soroan? txuntxur hori)*

**oñetakue:** oinetakoa

*"Oñetakuek, e, abarkak, etxien einyekuek ta beste batzuk erositekuek dotoriaiek, arek domeketakuek ero estaipa ser sien" - (Oinetakoak, abarkak, etxean egindakoak eta beste batzuk erositakoak dotoreagoak, haiek domeketakoak edo ez dakit ba zer ziren)*

**sapatie:** zapata

**sebue:** bilgorra

**sinttie:** abarketako zinta

**takodun sapatie:** takoidun zapata

**takoye:** takoa

**tatxuela:** tatxuela, zapata bortzegiek zoruan edukitzen zituztenak

**txankulue:** txankloa, egurrezko zapatak abarken gainetik janzten zirenak kortarako edo

*"Txankuluek esate aken, au punte sorros sorrotza" - (Txankoloak esaten zitzairen, punta hau zorrotz-zorrotza)*

**txarri sille:** bileria, apabarroa, txizpegia; boti eta lustretzat ematen zaien koipea, txerriaren zilaren ingurukoa da

## 5.3. OSAGARRIAK

**amantala:** amantala

*"Batzuk, ba, asarratu eitte sien, karo erdiko pasuoi trabetotzen, da batzuk ixi ixilik, grasie ingo tzen, ankie pasau, luse luse inye, da kasui pe in barik, bañe beste batzui librau ein bi otzen erdidxoi, da atzera be amantala sabal sabal ipiñitte, altzuen, ala!" - (Batzuk, ba, haserretu egiten ziren, jakina erdiko pasabide hori trabatzen zieten, eta batzuk isi-isilik, grazia egingo zien, hanka pasatu, luzeluzeluz eginda, eta kasurik ere egin barik, baina beste batzuei librau egin behar zieten erdi hori, eta atzera ere amantala zabal-zabal ipinita, altzoan, tira!)*

**antiejuek:** betaurrekoak

**bastoye:** makulua

**belarridxe:** buruko zapiaren belarria, adarra, erroa

*"Batzuk orratza ipintte utzen batzuk belarridxe sutunik ipintteko, orratzak" - (Batzuek orratza ipintzen zioten batzuek belarria zutunik ipintzeko, orratzak)*

**buruko pañuelue, buruko pañolue, buruko pañekue:** buruko zapia

*"Esautu es ginyun ba! buruko pañueluas es bakarrik, orras beste mantilla aundidxoi bera jaurti, amen da gero amendi bera beste bat be bai" - (Ezagutu ez genuen ba! buruko zapiagaz ez bakarrik,*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*horregaz beste mantila handi hori behera jaurti, hemen eta gero hemendik behera beste bat ere bai)*

*"Buruko pañelue ipintteko, moñue apur bat aundidxe eiñeskero, dotoria geratze san" - (Buruko zapia ipintzeko, mototsa apur bat handia eginez gero, dotoreago geratzen zen)*

**buru baltza:** buru beltza, buruko zapiari erabiltzen ziren orratzak

*"Buru baltzak, ordun buru baltzak be bai, bañe buru suridxe pe bai, e?" - (Buru beltzak, orduan buru beltzak ere bai, baina buru zuriak ere bai)*

**gerrikue:** gerrikoa

**guardasola:** guardasola, aterkia

*"Bai sera! gu Eiberrera be juete giñien guardasolas uran" - (Bai zera! gu Eibarrera ere joaten ginen goardasolagaz udan)*

**iru puntako pañolue, iru puntako pañuelue:** hiru puntako zapia

*"Pañolotxu at ipintte aken, saman, iru puntako pañolotxo at, amen krusaute, olan" - (Zapitxo bat ipintzen zitzaien, saman, hiru puntako zapitxo bat, hemen gurutzatuta, hola)*

**karterie:** diru-zorroa

**kolkue:** golkoa

**metxerue:** metxeroa

**orras buru baltza:** orratz buru beltza

**pañolue, pañuelue:** zapia

**partikerie, faltrikerie:** patrika

*"A! barruen partikerie, bai, olan poltza bat, poltza bat olan, ta alan eskue sartze ben, altzau gonie ganekue ta tan! seras, partikeran" - (A! barruan patrika, ba, hola poltsa bat, poltsa bat hola, eta hala eskua sartzen zuten, altxatu gona gainekoa eta tan! zeragaz, patrikan)*

**poltzie, boltzie:** poltsa

*"Neri akordau eraitte ostan guk eskolara erute gendun moruko poltzie" - (Niri gogora eragiten zidan guk eskolara eroaten genuen moduko poltsa)*

**poltzikue, poltzillue:** poltsikoa

*"Giltze poltzikuen dekat" - (Giltza poltsikoan daukat)*

*"Bai, dirue poltzikuen esate ben" - (Bai dirua poltsikoan esaten zuten)*

**sinttie:** zinta

**sintturie:** gerriko uhala

**talmie:** samako zapia

**txapela:** txapela

*"Kendu txapela ta erresetan ikusitte na" - (Kendu txapela eta erregutzen ikusita nago)*

## 5.4. APAINGARRIAK

**adornue:** apaingarria

*"Adorno morun da oiñ antxe" - (Apaingarri moduan dago orain hantxe)*

**anillue:** eraztuna

**belarritekue:** belarritakoa, arrakada

**erastune:** eraztuna

**erlojue:** erlojua

**katie:** katea

**kollarra:** idunekoa

**lasue:** lazoa, begizta

**puntillie:** puntila

**siderra:** zilarra

**txirtxillue:** zirtzilua, belarritako mota bat

*"Txirtxilluek esate akuen be bai, gure amamak eta txirtxilluek esate ben" - (Zirtzilua esaten zitzaien ere bai, gure amamak eta zirtzilua esaten zuten)*

**txoridxe:** txoria, lazoa

**urregorridxe:** urregorria

## 5.5. JOSKIGINTZA

**albandorratza:** albandorratza

*"Albandorratza bai, koltxoi josi eittekuek, ene geuk eitte genduen koltxo josten da, oin die modernuek, se geuk be koltxoi joste genduen, urten urten iguel eskenduen ingo koltxoye bañe, urte bii pat beintzet danak astintze sien" - (Albandorratza bai, koltxoi josi egitekoak, ene geuk egiten genuen koltxoi josten eta, orain dira modernoak, ze geuk ere koltxoi josten genuen, urtean-urtean beharbada ez genuen egingo koltxoa baina, urte birik bat behintzat denak astintzen ziren)*

**alrrebesa:** iruntzia

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*"Erakue da ba, auxe, erie auxe da, da alrrebesa da bueltie" - (Erakoa da ba, hauxe, era hauxe da, eta iruntzia da buelta)*

**ardatza:** ardatza

*"Bai siridxe sartze otzasan da gero kanpotik sartze otzasan egurreko siridxe olan, goitti bera olan sartze otzasan lau aldietatik, egurreko siridxe sartze otzasan, gurien an da bat ondio ardatza" - (Bai ziriak sartzen zizkion eta gero kanpotik sartzen zizkion egurrezko ziriak hola, goitik behera hola sartzen zizkion lau aldeetatik, egurrezko ziriak sartzen zizkion, gurean han dago bat oraindino ardatza)*

*"Gurien aittek eitte sittuen, burdidxe ardas da gusti eitte ban osoik" - (Gurean aitak egiten zituen, gurdia ardatz eta guzti egiten zuen osorik)*

**ardi lanie:** artilea

*"Lelengo soltau, euskitten euki ero aixetara euki, da gero buelta emon, ipiñi amen lanie, sartues sartues, sartues sartues, ya almedie itte san, geu be inye gas ori" - (Lehenengo askatu, eguzkitan eduki edo haizetara eduki, eta gero buelta eman, ipini hemen artilea, sartuez-sartuez, sartuez-sartuez, ja burukoa egiten zen, geu ere eginda gaude hori)*

**aridxe:** haria

*"Amen be beuen, aridxe ittekue be" - (Hemen ere bazegoen, haria egitekoa ere)*  
*"Esin yot aridxe sartu" - (Ezin dut haria sartu)*

**artasidxe:** artaziak

*"Gero alako aparajue pe euko gendusen, soltetako artasidxe eta selakuek" - (Gero halako tresnak ere edukiko genituen askatzeko artaziak eta zelakoak)*

**bordae:** bordatua

*"Gatxa da oso soltetie bordae" - (Gaitza da oso desegitea bordatua)*

**botoye:** botoia

**bragetie:** brageta

**buru baltza:** buru beltza, orratz mota bat

**buru suridxe:** buru zuria, orratz mota bat

**dobladillue:** barrena

**erie:** era, jantzietan iruntziaren kontrakoa

**errepasue:** errepasoa

**erretortie:** hari mota bat arrunta baino finagoa dena

*"Amamak euken beren arriuen ekarrittako, erretortie esate akon aridxe baño fiñau sana" - (Amamak zeukan bere arreoan ekarrittako, erretorta esaten zitzaion haria baino finagoa zena)*

*"Aridxe fiñe da, da erretortie esate otzen, aridxe baño fiñae, meyaue" - (Haria fina da, eta erretorta esaten zioten, haria baino finagoa, meheagoa)*

**euskerasko bragetie:** euskarazko brageta, albo batean botoiak dauzkana da

**eune:** ehuna

*"Eune, eune, bai, gurien badas iserak euneskuek amomak emondakuek" - (Ehuna, ehuna, bai, gurean badaude izarak ehunezkoak amamak emandakoak)*

**gona barrena:** gona barrena

**gorue:** gorua

*"Gurien beuen makiñie laniena, neuk ikusi ttut, ori ardidxe, e, lanias eitte ben, goruek ero, gure amak esaten sittuen, gorularidxe eta lantzien etxe baten eta selan ibiltten sien, gurien beuen makiñie orretakue" - (Gurean bazegoen makina artilearena, neuk ikusi ditut, hori ardiak, artileagaz egiten zuten, goruak edo, gure amak esaten zituen, gorulariak eta lantzean etxe baten eta zelan ibiltzen ziren, gurean bazegoen makina horretakoa)*

*"An esa oskuen an eroyen katxarro bat, aridxas goitti bera, da gorue sala esa eben da" - (Han esan ziguten han eroan katxarro bat hariagaz goitik behera, eta gorua zela esan zuten eta)*

*"Bai, katxarro bat san alan, da gero makilla bat andik goittik eta, ene ori gorue da! esate ben da ba, oixe!" - (Bai, katxarro bat zen hala, eta gero makila bat handik goitik eta, ene gori gorua da! esaten zuten eta ba, horixe!)*

**ilbana:** albainua

*"Etxat etorriko, jesus! ilbana, ilbana alantxik esaten genduen ilbana" - (Ez zait etorriko, jesus! albainua, albainua halantxe esaten genuen albainua)*

**ilban aridxe:** albainu-haria

**inperdible:** kateorratza

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*"Inperdible batas ipintte akuesan umiei, kutunek" - (Kateorraz bategaz ipintzen zitzaizkien umeei, kutunak)*

**ipingidxe:** ipinkia

*"Bai, bai goitti bera, ipingidxek, ipingi bat ipiñi bi ako oni, ye ba alan san" - (Bai, bai goitik behera, ipinkiak, ipinki bat ipini beharko zaio honi, eta ba hala zen)*

**irobalie:** hari-bala

*"Jenerala irobalias ero olan eitte ben" - (Arrunta hari-balagaz edo hola egiten zuten)*

**ixurre:** izurra

*"Len ixurre ba asko eruate san" - (Lehen izurra ba asko eroaten zen)*

**itzulidxe:** itzulia, eraren kontrakoa jantzietan

**josteko makiñie:** josteko makina

*"Gurien be kortan eon san, e, ixeko baten, e, josteko makiñie, sasaki egunien enterraute egon san, kortan irias tapaute gero satza gañien da" - (Gurean ere kortan egon zen, izeko baten, josteko makina, zazpi egunean lurpetuta egon zen, kortan iragaz tapatuta gero satsa gainean eta)*

**jostorras begidxe:** jostorraz begia

**jostorras sulue:** jostorraz zuloa edo begia

**jostorrazta:** jostorrazta

*"Oin be bai, ba albandorrazta, a be bada, len galtzie eruate san asko, e, serak, ardilanaskuek eta, da ba, aritxek konpontzeko ta ba aritxek sertzeko ta, orretako bai, ondiok, e, lengo egun baten be ei notzan nik, piper txoriserue sartu sinttan ilobalias, da albandorrazta ero jostorraz andidxe" - (Orain be bai, ba albandorrazta, hura ere badago, lehen galtza eroaten zen asko, zerak, artilezkoak eta, eta ba, haiexek konpontzeko eta ba haiexek zertzeko eta, horretako bai, oraindino, lehengo egun baten ere egin nion nik, piper txorizeroa sartu zintan hari-balagaz, eta albandorrazta edo jostorraz handia)*

**jostorrazta ipuridixe:** jostorrazta ipurdia, begia edo zuloa

**josturie:** jostura

**kardie:** karda, artilea kardatzeko erabiltzen zena

**kateorrazta:** kateorrazta

**kirru:** kirrua, ehun mota bat

*"Kirru da au senduau, da bestie meyaue" - (Kirrua da hau sendoagoa, eta bestea meheagoa)*

**kortxetie:** kortxeta

**lanie:** artilea

*"Olan ra! buelta eitte ban, ta ra! a ebalte gendun babie joteko, da koltxoyen lanak joteko be bai" - (Hola ra! buelta egiten zuen, eta ra! hura erabiltzen genuen baba jotzeko, eta koltxoaren artileak jotzeko ere bai)*

**lanorrazta:** puntu egiteko orratza

**liñue:** lihoa

*"Amen bat da, bañe beste bat fiñae, bi das, bat fiñae ta beste bat bastuae, da nik, e, fiñek baeusan len bañe, gu be pillo bat giñen da, dana liñuena bañe" - (Hemen bat da, baina beste bat finagoa, bi dagoz, bat finagoa eta beste bat latzagoa, eta nik, finak bazeuden lehen baina, gu ere pilo bat ginen eta, dena lihoarena baina)*

**madejie:** mataza

**mangie:** mahuka

**marakillie:** txabila

**maune:** mahoia, ehun mota bat

**morapillue, korapillue, koapillue:** troinua, korapiloa

*"Selan jaste ben? guk etxien, nik estot ikusi bañe, ipiñi olan morapillo emon, da gero, orrastxuekin ipintte sittuen belarridxek onutz" - (Zelan jantzen zuten? guk etxean, nik ez dut ikusi baina, ipini hola marapilo eman, eta gero, orraztxoekin ipintzen zituzten belarriak honantz)*

**ojala:** botoi-zuloa

**orras buru suridxe:** orratz buru zuria

**orrazta:** orratza

**panie:** pana, ehun mota bat

*"Orrek ixate sien, bai, panie ero selan ixate san, mantakidxen morukuek" - (Horiek izaten ziren, bai, pana edo zelan izaten zen, mantakiaren modukoak)*

**pañue:** ehuna

**pliegie:** izurra

**puntue:** puntua

**telie:** ehuna

*"Kendu eitte ake telatxo at" - (Kendu egiten zaie telatxo bat)*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**titerie:** titarea  
**txatala:** ipinkia

## 6. BIZILEKUA

Bizilekuari emango diogun atal honetan etxearen inguruan batu ditugun berbak aurkeztuko dira. Azpi-atalak etxea egiteko materialak, etxearen egitura, etxearen banaketa, atea-leihoak-eskailera, sua, argia, ura, ezkaratzeko tresnak, ontziteria, altzariak, etxeko arropak, lisiba eta garbikuzia dira.

### 6.1. ETXEA EGITEKO MATERIALAK

**arlandue:** harri landua

**armasoye:** armazoaia

**arridxe, arrixe:** harria

*"Eun kiloko arri bat ekarri dabe" - (Ehun kiloko harri bat ekarri dute)*

*"Ba arrixe etxie itten dan morun bueltie einye txuluek, dana olantxe bañe selan arrixe? nobera oteko moruen, e? bai an da ondio gurien, an da" - (Ba harria etxea egiten den moduan buelta eginda zuloak, dena holantxe baina zelan harria? norbera egoteko moduan, e? bai han dago oraindino gurean, han dago)*

**burdiñie:** burdina

*"Lelengotan burdiñie eote soan or, gañien" - (Lehenengoetan burdina egoten zuan hor, gainean)*

**gallurreko tellie:** gailurreko teila

*"Gallurreko tella pañe, orrek aundidxauek die, asko be aundidxauek, doble baño gedxa" - (Gailurreko teilak baina, handiago horiek dira, asko ere handiagoak, bikoitza baino gehiago)*

**igeltzue, ireltzue:** igeltsua

**kare bixidxe:** kare bizia

*"Ori peligosue ixate san begidxetarako ta, kare bixidxe" - (Hori arriskutsua izaten zen begietarako eta, kare bizia)*

**karie:** karea

*"Bai neu pe bai, e, bota notzen, e, ori anketako miñe euki nabani en etxien birriten be euki dot eta, botate notzen,*

*seretik ekarri naban, Lemonatik ekarri naban karie" - (Bai neuk ere bai, bota nion, hanketako min hori eduki nuenean etxean birritan ere eduki dut eta, botatzen nion, zeretik ekarri nuen, Lemoatik ekarri nuen karea)*

**kristela:** kristala

**ladrillue:** adreilua

*"Lena ladrillue, suonduen ero ikatz artien erosein sartu suonduen, trapu batas batu eta an ote san nobera, gero botillie be bai urena, gero etorri sien gomasko ser batzuk" - (Lehenago adreilua, sutondoan edo ikatz artean edozein sartu sutondoan, trapu bategaz batu eta han egoten zen norbera, gero botila ere bai urarena, gero etorri ziren gomazko zer batzuk)*

**losie:** harlauza

**masie:** masa, morteroa

**matedxala:** materiala

**ola:** ohola

**porlana:** porlana, zementua

**sementue:** porlana, zementua

*"Nere akorduen ipiñi san sementue" - (Nire gomutan ipini zen porlana)*

**simentasiñue:** oinarriak

**tabloye:** ohol luzanga

**tellie:** teila

*"Ori da munarridxe dan señalie, sera, tellie aspidxen badeko" - (Hori dago munarria den seinalea, zera, teila azpian badauka)*

*"Esaugarridxe ori da, ba, tellie" - (Ezaugarria hori da, ba, teila)*

**urritxa eurre:** hurritza egurra

### 6.2. ETXEAREN EGITURA

**agie, abie:** habea

*"Onek agie ona deko" - (Honek habea ona dauka)*

**arkue:** arkua, baserri batzuetan etartean egoten dena

**beye:** behe, zola

**egala:** hegala

**erretellie:** erreteila

**ertza:** ertza

**eskiñie:** izkina, kantoia, hegala

*"Dana suri suri, da gero sartze otzasun piskat, e, bakixu semat egur sartu, pare*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*bat ero onako besakara ero, sartze akos da arekin ba, suri suri paraten da, da erretan dienien egurre pa, eskiñatxora eñ" - (Dena zuri-zuri, eta gero sartzen diozun pixka bat, badakizu zenbat egur sartu, pare bat edo holako besakada edo, sartzen zaizkio eta haiekin ba, zuri-zuri paratzen da, eta erretzen direnean egurrak ba, izkinatxora egin)*

**etxe ormie:** etxe horma

**fatxadie:** aurrealdea

**frontala:** frontala, habe nagusia

*"Ba an be, ba trabes da ori es, e, kaperidxuek daroyes, trabes, or frontal bat" - (Ba han ere, ba trabes dago hori ez, gapirioak daroatza, trabes, hor frontal bat)*

**gallurre:** gailurra

*"Gallurre, esate ako ari, gallurreko egurre, gero bestiek kaperidxuek" - (Gailurra, esaten zaio hari, gailurreko egurra, gero besteak gapirioak)*

**goidxe, goixe:** goia

**ittogiñe, ittugiñe:** itogina

*"Bada, e, an ausoko baserri baten, e, sera ipiñitte, e, ure, sera, askara, ittogiñetik" - (Badago, han auzoko baserri baten, zera ipinita, ura, zera, askara, itoginetik)*

**juntie:** junta

**kantoye:** kantoia, hegala, izkina

**kaperidxue, kaperixue:** gapirioa

*"Kaperidxuek die tellatukuek" - (Gapirioak dira teilatukoak)*

*"Kaperixuek apurtu sien" - (Gapirioak apurtu ziren)*

**latie:** lata

*"Kaperidxuen ganien jositte dauena? bai latie" - (Gapirioen gainean josita dagoena? bai lata)*

*"Tellan aspidxen latie, latie, guk beti latie esa otzau" - (Teilaren azpian lata, lata, guk beti lata esan diogu)*

**lau urekue:** lau ureko teilatua

**matxinbrie:** matxinbrea

**matxoye:** postea

**oraixe, oridxe:** teilatu-hodia

*"Amen uniko, bakarrik amen, e, urek eta artzeko oraixe esaten tzau ori, oraixe, kanal ori dana oraixe" - (Hemen bakarra, bakarrik hemen, urak eta hartzeko teilatu*

*hodia esaten diogu hori, teilatu hodia, ubide hori dena teilatu hodia)*

**ormasulue:** horma-zuloa

**ormie:** horma

*"Ori gurien esta egon, bañe amen aldemenien da, ormara altzeta eben da, makillias, makillias ra! gero jatera oyesenien, bajatu" - (Hori gurean ez da egon, baina hemen aldamenean eta, hormara altxatzen zuten eta, makilagaz, makilagaz ra! gero jatera zihozazenean, baxatu)*

**pilarra:** postea, zurtoina

**postie:** postea, zurtoina

*"Gero dekes, e, defenza batzuek, postietan, orrek, e, okertu estaittesan bera edurras ero" - (Gero dauzkate, defentsa batzuk, posteetan, horiek, okertu ez daitezen, behera elurragaz edo)*

**sakapie:** sakapea

*"Ba gure guresuek eta, ba, sakapie esate geuntzen, tellien aspidxen ba, bittartias etxien, e, sakapie, da arek otias serretan ibiltte sien, gure guresuek" - (Ba gure gurasoak eta, ba, sakapea esaten genion, teilen azpian ba, bitarteagaz etxean, sakapea, eta haiek oteagaz ixten ibiltzen ziren, gure gurasoak)*

*"Sakapie da, a aspiko sera, sakapie, tellatupie" - (Sakapea da, hura azpiko zera, sakapea teilatupea)*

*"Tellatutik urteta bana aspiko aterpie da sakapie esate geuntzan guk" - (Teilatutik irteten zuena azpiko aterpea eta sakapea esaten genion guk)*

**salie:** behea, zola; gehienetan egurrezkoa izaten da

**sapatie:** zapata

*"Sapatie, e, kaperidxuek ero gallurre, beti gora postie dator, eta gero eruten dau, onako egur bat, e, preaparaute, egur, e, sendo bat, an postien gañien, arek, gallurreko egur bidxek akopletan dien lekuen" - (Zapata, gapirioak edo gailurra, behetik gora postea dator, eta gero eroaten du, holako egur bat, prestatuta, egur, sendo bat, han postearen gainean, haiek, gailurreko egur biak akoplatzen diren lekuan)*

**solibie:** soliba

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**tellatue, tallatue:** teilatua

"Bai, agie da, sera, e, tallatue sostenitzen daben serak, orrek poste aundixok eta orrek ixaten die, arek eta kaperixuek" - (Bai, habea da, zera, teilatuari eusten dioten zerak, poste hadi horiek eta horiek izaten dira, haiek eta gapirioak)

**tranpie:** sabaira edo ganbarara igotzeko dagoen tranpa

"Karo batzuk, e, sabaire altzatie selan, tranpatik sier ero olako sulo batetik sier, beste batzu pa iguel eukitten dabe kanpoko aldetik bentana ero olako, moruko ate aundi mat iguel, baserri batzutan ori be ikusten da, bentanie baño askos aundixae ate morukue dana, ta andik sabaire sartzeko" - (Jakina batzuek, sabaira altxatzea zelan, tranpatik zehar edo holako zulo batetik zehar, beste batzuek ba beharbada edukitzen dute kanpoko aldetik leihoa edo holako, moduko ate handiren bat beharbada, baserri batzuetan hori ere ikusten da, leihoa baino askoz handiagoa ate modukoa dena, eta handik sabaira sartzeko)

**txixe posue:** txiza putzua

**ur bikue:** ur biko teilatua

## 6.3. ETXEAREN BANAKETA

**artokidxe:** ardi-tokia

"Ganbarak euesan or, artokidxe san beye da goidxen ganbarak, da sagarra ta garidxe ta, arkak eta eoten sien da, bañe euski begiko, aparteko gustue frutiek, danak, e?" - (Ganbarak zeuden hor, ardi-tokia zen baina eta goian ganbarak, eta sagarra eta garia eta, arkak eta egoten ziren eta, baina eguzki begiko, aparteko gustua fruituak, denek, e?)

**bañerie:** bainuontzia

**bastarra, basterra:** bazterra

"Gurien askenengo ola, bueno sati bati kanbidxau geuntzen lekuen ondio, an egon san, e, sera, lengo basterrien, e, lengo sera" - (Gurean azkenengo ohola, beno zati bati aldatu genion lekuan

oraindino, han egon zen, zera, lehengo bazterrean, lehengo zera)

**beko kuartue:** beheko gela

**bixitzie:** bizitza

**entradie:** sarrera

**eskatza:** ezkaratza, suetea

"Eskatzak dekos iru metro luse" - (Ezkaratzak dauzka hiru metro luze)

"Gure eskatzeko atie euen albatien" - (Gure ezkaratzeko atea zegoen albatean)

**etartie:** etarte, atariaren kanpoko aldea

"Sulfatue urtu uretan, da etartien eitte ben pillo aundi bat, da erdidxen eitte otzen sulue, ara botatotzen, sulfatuen ure, tomatiai ero oin be itte otze sulfatue, ori estakit seaittik, beittu, oixe estakitt, bañe nastau nastau nastau eitte ben, garidxe ta ipintte san, asatzak esate san, aurreko urteko lasto eskutie, ebai olako tamañuen, da artu a ta ipintte san ba, erreidxe susen, eruteko, nundi noa eraitte ben jakittek" - (Sulfatoa urtu uretan, eta etartean egiten zuten pilo handi bat, eta erdian egiten zioten zuloa, hara botatzen zioten, sulfatoaren ura, tomatei edo orain ere egiten diete sulfatoa, hori ez dakit zergatik, begiratu, horixe ez dakit, baina nahastu-nahastu-nahastu egiten zuten, garia eta ipintzen zen, azatzak esaten zen, aurreko urteko lasto eskuta, ebaki holako tamainan, eta hartu hura eta ipintzen zen ba, marra zuzen, eroateko, nondik nora ereiten zuten jakittek)

"Gurien bat aste ben, gure etartien" - (Gurean bat hazten zuten, gure etartean)

**etxaondue:** etxe ondoa

**etxaspidxe:** etxe azpia

**etxeaurrie, etxaurrie:** etxe aurrea

"Bai gure etxeaurrien be deposittue ta, iguel, ara etorriko da iguel, bañe oin be bastante ibiltten da ori be" - (Bai gure etxe aurrean ere depositua eta, beharbada, hara etorriko da beharbada, baina orain ere nahiko ibiltzen da hori ere)

**etxe bueltie:** etxe buelta, etxe ingurua

"Gure etxe bueltan da esta entzuten" - (Gure etxe bueltan eta ez da entzuten)

**etxe ingurue:** etxe ingurua

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**etxe kantela:** etxe kantela

**etxe kantoye:** etxe kantoia

**etxie, itxie:** etxea

"Au da etxeko umeik gastiena" - (Hau da etxeko umerik gazteena)

"Ba ortixik lelengoko etxekue nas ni" - (Ba hortixik lehenengo etxekoa naiz ni)

"Etxeko batzuk eta ba, akabo! ausunakon bat, nik, e, aixe esautu ot" - (Etxeko batzuk eta ba, akabo! auzunekoren bat, nik, huraxe ezagutu dut)

**etxiostie, etxeostie:** etxe ostea

**ganbarie:** ganbara, kamara

"Ganbaran sabal sabal boteta san artue" - (Ganbaran zabal-zabal botatzen zen artoa)

"Ganbarie da, aspidxen kaperidxuekin, ola" - (Ganbara da, azpian gapirioekin, ohola)

**gelie:** gela

"Gelie be etxatan gustetan, kuartue gustau, kuartue gustau te gelie esan biar" - (Gela ere ez zitzaidan gustatzen, kuartua gustatu, kuartua gustatu eta gela esan behar)

"Orrek aldemenien euesan da godxen be bai, gelie, sala andi bat, eta gero salie, arek euki ben gelie" - (Horiek aldamenean zeuden eta goian ere bai, gela, sala handi bat, eta gero sala, haiek eduki zuten gela)

**goisabaixe:** goi-sabaia, goitegia; sabaiaren gainean teilatu bitartean egoten den gaineko sabaia

"Goisabaidxe leku askotan egon da, gurien es, bañe, lelengo sabai bat, eta gero beste, beste egur batzuekin preparaute goisabaidxe" - (Goi-sabaia leku askotan egon da, gurean ez, baina, lehenengo sabai bat, eta gero beste, beste egur batzuekin prestatuta goi sabaia)

**irutxurre:** bazterra, txokoa, okolua

**kamarie:** kamara, ganbara

**karrajue:** karrajua

"Gu gastetan karrajue beti esaten, da karrajue da ene! pasillue gustau, karrajue barik, da ero kaletarrak esate ben pasillue, eskolan da, da guk karrajue, da guk seaitti pa karrajue?" - (Gu gastetan karrajua beti esaten, eta

karrajua eta ene! pasilloa gustatu, karrajua barik, eta edo kaletarrek esaten zuten pasilloa, eskolan eta, eta guk karrajua, eta guk zergatik ba karrajua?)

"Baeuen, e? akordeta nas euen karrajue, e?" - (Bazegoen, e? gomutatzen naiz zegoena karrajua, e?)

**komedora:** jantokia

**komune:** komuna

"Da gero euen komune, komune san, e, ba, sulo bat, egurreko sera, da andik bera atzera" - (Eta gero zegoen komuna, komuna zen, ba zulo bat, egurrezko zera, eta handik behera atzera)

**kuartue:** gela

"Kuartun be bai, len botate san, usain gosuo, usain gosue, ni akorte nas, e, kuartue garbitu te gero, berarrak botate soasen" - (Gelan ere bai, lehen botatzen zen, usain gozo hori, usain gozoa, ni gomutatzen naiz, gela garbitu eta gero, belarrak botatzen zituan)

**lastokixe:** lastategia

**pasillue:** iraganbidea

**pisue:** etxebizitza

**sabaidxe:** sabaia

"Ganbara bi eukesan arek eta, ganbarie sati bat, da gero sabaidxe segidxen" - (Ganbara bi zeuzkan hark eta, ganbara zati bat, eta gero sabaia segidan)

"Amengo baserridxe danak, e, kasi kasik, e, betik ero godxe, beyen kortie ta eskatza, eta gero godxen kuartuek sabaidxas" - (Hemengo baserri denak, kasik-kasik, behetik edo goia, behean korta eta ezkaratza, eta gero goian gelak sabaiagaz)

"Sabaidxe da sabaidxe ta ganbarie, beste bat da, gure etxiek sabaidxe euki dau, kortie, da parien sabaidxe, tellaturaño" - (Sabaia da sabaia eta ganbara, beste bat da, gure etxeak sabaia eduki du, korta, eta parean sabaia, teilaturaino)

**salie:** egongela

"Gurien esta egon olako salaik, au bastante eskasa ixan da bañe" - (Gurean ez da egon holako, salarik, hau nahiko eskasa izan da baina)



# ZALDIBAR HIZTEGIA

## 6.4. ATEA-LEIHOAK-ESKAILERA

**ateburue:** ateburua

**atie:** atea

"Abadiak urtete ban atera" - (Abadeak irteten zuen atera)

"Etorri die atetik ate" - (Etorri dira aterik ate)

**balkoye:** balkoia

**balustrie:** balustra, leihoen kanpoko aldean egoten diren burdinazko edo egurrezko hesiak

**barandaue:** baranda, bantzua, oralekua

**bentanie:** leihoa

"Ba iguel euki es, e, atetik ero bentanaik ero sartzeko eta leku estuetatik kargaka be, e, altzau dabenak" - (Ba beharbada eduki ez, aterik edo leihorik edo sartzeko eta leku estuetatik kargaka ere, altxatu dutenak)

**bisagrie:** bisagra

**eskillara barrena:** eskailera barrena

**eskillara burue:** eskailera-burua

**eskilarapie:** eskailerapea

**eskillarie:** eskailera

"Altza bai, orrek estau esetako balio, lena eitte gendun ori, e, eskillarak eta, altza egur eskasa da" - (Haltza bai, horrek ez du ezertarako balio, lehenago egiten genuen hori, eskailerak eta, haltza egur eskasa da)

**giltze, giltxe:** giltza

"Itxi danien giltze apurtu da" - (Itxi denean giltza apurtu da)

**kabesala:** ateburua

**mansue:** eskailera bantzua, oralekua

**markue:** markoa

**matillie:** maratila

**sayeterie:** leiho txikia

**txingeta:** eskulekua

## 6.5. SUA

**arriketza:** harri-ikatza

**auspue:** hauspoa

**autze:** hautsa

"Ba urei bota autze, esta? ta eraiñ, eraiñ eiñ ari, eraiñ eraiñ, ye ondo sertze sanien ba, ixerak antxe beatzen gau gustien, da selako kolorie!" - (Ba urari bota hautsa,

ezta? eta eragin, eragin egin hari, eragin-eragin, eta ondo zertzen zenean ba, izarak hantxe beratzen gau guztian, eta zelako kolorea!)

**bekosue:** beheko sua

"Nik amen bekosuen, estot esautu olan dana bekosuen eitten sekule bes se, ni jadxo orduko gerra aurretik txapie euen" - (Nik hemen beheko suan, ez dut ezagutu hola dena beheko suan egiten sekula ere ez ze, ni jaio orduko gerra aurretik txapa zegoen)

**brasie:** txingarra

"Bai bekosue autze ta, brasie eta, olakuek" - (Bai beheko sua hautsa eta, txingarra eta, holakoak)

**burruntxixe:** burruntzia

**egurriketza:** egur-ikatza

"Ya egurre, lotute ipintte ben, da gero basan emen ori bestioi sartzie, esta? da, ori selan sartu leike? eitte ben sue, egurriketzas, da auspuas einye, gori gori einye ipiñi, ipintte ben an burdiñie, da ori burdiñioi san egurrek euen bueltie baño txikidxaue, gero sartze ben dxast! or egurrien da botate otzen ure, baldie, raaa! otzittu te, gogortute!" - (Ja egurra, lotuta ipintzen zuten, eta gero bazen hemen beste hori sartzea, ezta? eta, hori zelan sar daiteke? egiten zuten sua, egur-ikatzagaz, eta hauspoagaz eginda, gori-gori eginda ipini, ipintzen zuten han burdina, eta burdina hori zen egurrak zeukan buelta baino txikiagoa, gero sartzen zuten dxast! hor egurrean eta botatzen zioten ura, baldea, raaa! hoztu eta, gogortuta!)

**garrie:** garra

**ikesgiñen:** ikazkinean, ikatza egiten

"Ni eurekin ena ibillitte, nik askenengue iñ eben or, ikusi nabana or, e, Lete ta Pedro Txiki ibilli sien, Pedro Txiki san, e, Niebeskue, an, e, Santa Eufemiara, angotxie san, da arek bidxek ibilli sien or, e, ikesgiñen, askenengo ikusi nabana, da or serien be bai Okan Itturridxen be bai" - (Ni eurekin ez nago ibilita, nik azkenengoa egin zuten hor, ikusi nuen hor, Lete eta Pedro Txiki ibili ziren, Pedro Txiki zen, Niebeskoa, han, Santa Eufemiara, hangoxea zen, eta haiek biak

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*ibili ziren hor, ikazkinean, azkenengo ikusi nuena, eta hor zerean ere bai Okaran Iturrian ere bai)*

**iketza:** ikatza

*"Ni neuk estittuas erabili, esta? bañe ikusi ittias, barruen iketzas, nik bestie pai, burdiñaskuek txapa gañien berotu, ta arekin plantxau ein yot" - (Nik neuk ez ditut erabili, ezta? baina ikusi ditut, barruan ikatzagaz, nik besteak bai burdinazkoak txapa gainean berotu, eta haiekin plantxatu egin dut)*

*"Iketza bai, iketza basuen bañe, iketza? ba egurrek, pago egurre ta, bertan iste genduen, aste sanien usteltzen, batu eitte besan danak gurien, dana batu, ta pillo aundixek eiñ, da gero ari, lurre bota ganera, lurre, e? atxurras jote ben lurre, olako satixek, da ari ganera bota lurre, gabien, illuntzixen, etxea etorri orduko, ser eitte ben gure aittittek eta? ari su emon, buelta gustin, sue, da a apurke apurke bera juete san erretan, barrutik, bera juete san erretan, t'egunek eitte basen erretan, e? egun asko eitte ban erretan, bañe gero selakue ixete san! soragarrixe! e? egurriketza, soragarrixe gero" - (Ikatza bai, ikatza basoan baina, ikatza? ba egurrak, pago egurra eta, bertan uzten genuen, hasten zenean usteltzen, batu egiten zituzten denak gurean, dena batu, eta pilo handiak egin, eta gero hari, lurra bota gainera, lurra, e? aitzurragaz jotzen zuten lurra, holako zatiak, eta hari gainera bota lurra, gauean, iluntzean, etxera etorri orduko, zer egiten zuten gure aitaitak eta? hari su eman, buelta guztian, sua, eta hura apurka-apurka bera joaten zen erretzen, barrutik, bera joaten zen erretzen, eta egunak egiten zituen erretzen, e? egun asko egiten zuen erretzen, baina gero zelakoa izaten zen! zoragarria! e? egur-ikatza, zoragarria gero)*

**illentidxe, illinttidxe:** ilintia

*"Illentidxe da, illentidxe da, egurre, suten daon egurre, garra barik, brasie dekona" - (Ilintia da, ilintia da, egurra, sutan dagoen egurra, garra barik, txingarra daukana)*

**iruridxe:** irudia, txondorra egin eta ostean geratzen diren ikatz eta lur hondakinak erreta, hurrengo txondorra egiteko erabiltzen dira sua egitean.

**katie:** katea

**kedarrie:** kedarra

*"Da beste gausa bat intaidxas da ebaten gendusen atzamarrak, gari ebaten da, sartu atzamarrak olan tximinidxan, ta kedarrie, a san erremeridxue, artu kedarrie ta a bota, oola geratze ban arek" - (Eta beste gauza bat igitaiagaz eta ebakitzen genituen atzamarrak, gari ebakitzen eta, sartu atzamarrak hola tximenean, eta kedarra, hura zen erremedioa, hartu kedarra eta hura bota, odola geratzen zuen hark)*

**keye:** kea

**laratza, laatza, latza:** laratza

*"Laratza goittik, ta an beti eote san galdaillie ero, an seose eitten beti, batien morokille illuntzixen, gure amak beti eitte ban morokille, da antxe itte ban, plantau, e, suten onduen da eraitten eraitten, da gero esnie egosi tte, an gausa asko eitte besan, lengo sarrak asko, asko, an galdailletan" - (Laratza goitik, eta han behetik egoten zen galdarila edo, han zer edo zer egiten beti, batean morokila iluntzean, gure amak beti egiten zuen morokila, eta hantxe egiten zuen, paratu, sutearen ondoan eta eragiten-eragiten, eta gero esnea egosi eta, han gauza asko egiten zituzten, lehengo zaharrek asko, asko, han galdariletan)*

*"A san, e, latz, es latza es, bañe arek euken, e, eltzeko brasei tte, olan eskue olan erainye, brasie danak artze basen arek, da a san eskuek es erretako ero, estakixu? ixen raro bat euken, akordauko ata bañe" - (Hura zen, laratz, ez laratza ez, baina hark zeukan, heltzeko txingarrei eta, hola eskua hola eraginda, txingarra denak hartzen zituen hark, eta hura zen eskuak ez erretzeko edo, ez dakizu? izen arraro bat zeukan, gomutako zait baina)*

**larrriñe:** larraina, txondorra egiteko prestatzen den lur eremua; ikaztobia, ikaztokia

**metxerue:** metxeroa

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**metxie:** metxa

**mukurre:** mukurra

**parrillie:** parrila

"Parrillie esate geuntzen ari, bai, parrillie, olan lau ankakue bañe, olan barra-barrak eukesena, olan parrille" - (Parrila esaten genion hari, bai, parrila, hola lau hankakoa baina, hola barra-barrak zeuzkan, hola parrila)

"A bai! a da, e, parrillie esate otzena, an ganien, iru anken ganien ipiñi, ya an beotze sien gausak, lapikuek eta gausak itteko" - (A bai! hura da, parrila esaten ziotena, han gainean, hiru hankaren gainean ipini, ja han berotzen ziren gauzak, lapikoak eta gauzak egiteko)

**posporure:** posporoa, mistoa

"Posporue isotze ban bañe umedadiek ero amatau eitte otzan posporue" - (Posporoa isiotzen zuen baina hezetasunak edo amatatu egiten zion posporoa)

**prasie:** txingarra

"Ta prasie botate san gora goraka, prasie itte sanien, gora goraka bota, ori be beti" - (Eta txingarra botatzen zen gora-goraka, txingarra egiten zenean, gora-goraka bota, hori ere beti)

**sue:** sua

**su motela:** su motela

**suondue:** sutondoa

**suteko autze:** suteko hautsa

"Ba satz morukue ero esate ben, e, oin be suteko autze, txapako autze be guk, orture botate au, danera, ba ori igual iguala, botate san" - (Ba sats modukoa edo esaten zuten, orain ere suteko hautsa, txapako hautsa ere guk, ortura botatzen dugu, denera, ba hori berdin-berdina, botatzen zen)

**suteko burdiñie:** suteko burdina, bartzuna, txingarrak erabiltzeko burdina

**taloparie:** talo para

**tenasie, tenesie:** tenazak

**trebedie, treberie:** trebedea

**txapie:** txapa

"Amen, e, aitte selan, e, kontratistie san, beti, e, obretara dediketan san, txapie nire akordu gustien egon da" - (Hemen, aita zelan, kontratista zen, beti, obretara

dedikatzen zen, txapa nire gomuta guztian egon da)

**tximinidxe, tximiñie:** tximinia

"Guk garbitze genduen tximiñie, arrixek, arrixek olan ori boltzioi be aundixau euki, igul anditxuaue segun tximiñie sabala bada sabaltxuaue, saku baten, (...) sartuas arrixek, da gero a soka batas ondo lotu, da beste soka bat, burdi sokie esate otzana, burdixe lotzeko lusie, a botate ben goittik, e, arek puntan lotu arek eta, da a ebali gero gora ta bera, gora ta bera, gora ta bera, gora ta bera, guk aixe ebalte genduen, da beste batzuk be bai" - (Guk garbitzen genuen tximinia, harriak, harriak hola beltz hori ere handiagoa eduki, beharbada handitxoagoa segun tximinia zabala den zabaltxoagoa, zaku baten, (...) sartuagaz harriak, eta gero hura sika bategaz ondo lotu, eta beste soka bat, gurdi soka esaten diotena, gurdia lotzeko luzea, hura botatzen zuten goitik, haiek puntan lotu haiek eta, eta hura erabili gero gora eta behera, guk huraxe erabiltzen genuen, eta beste batzuk ere bai)

**txingerra, txingarra:** txingarra

"E, erretan danien, sabal sabal itte osu, e, txinger gustie, da, tapau de, suri suri suri itten da, gero garbitze osu" - (E, erretzen denean, zabal-zabal egiten duzu, txingar guztia, eta, tapatu eta, zuri-zuri-zuri egiten da, gero garbitzen duzu)

"Lena guri esate oskun, bedarra barik, e, egurre ero sue, ibili txingerra ero, da gero oyen txixe ingo su, esakerie" - (Lehenago guri esaten ziguten, belarra barik, egurra edo sua, erabili txingarra edo, eta gero ohean txiza egingo duzu, esaera)

**txondorra:** txondorra, ikatza egiteko prestatzen den egur piloa

## 6.6. ARGIA

**argidxe:** argia

**farola:** farola

**iputargixe:** argi eskasa

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Ori semat bider entzun da bai, estakit ser argixe genduken bai bañe iputargixen beste argiik eseban emoten" - (Hori zenbat bider entzun da bai, ez dakit zer argia geneukan bai baina ipurtargiaren beste argirik ez zuen ematen)

**kandela negarra:** kandela negarra

"An ikusten dabil da, ño! kandela negarra itzela da ta" - (Han ikusten dabil eta, ño! kandela negarra itzela dago eta)

**kandelerue:** kandelairua

**kandelie:** kandela

"A kandelie amatau orduko ixate san" - (Kandela hura amatatu orduko izaten zen)

"Kandelie iños ikusi ot, bañe, ni neu enas konturetu erun dabenik" - (Kandela inoiz ikusi dut, baina, ni neu ez naiz konturatu eroan dutenik)

**karburue:** karburua

**kurselue:** kurtzelua

"Gurien esta sekule be esautu, lena ibiltte siren, kurselue pe ibiltten ei siren, mayatzien be, estai nos, kurselue esate san itxurie, argi bat, da aras ibiltten ei sien gari jorran da" - (Gurean ez da sekula ere ezagutu, lehenago ibiltzen ziren, kurtzeluak ere ibiltzen ei ziren, maiatzean ere, ez dakit noiz, kurtzelua esaten zen itxura, argi bat, eta haregaz ibiltzen ei ziren gari jorran eta)

## 6.7. URA

**agie:** ur makila, angara; ura errazago garraiatzeko edo irateko erabiltzen zen makila; mutur banatan gantxo edukitzen zuen baldea eskegitzeko

**angarie:** angara, ur makila

"Angarie san, balda bi ipintten sien bata atzien da bestie aurrien, da, makillie baño senduaue ixate san, e? egur bat, sendo samarra, da gantxo moruen, e, euren lekue euken" - (Angara zen, balde bi ipintzen ziren bata atzean eta bestea aurrean, eta, makila baino sendoagoa izaten zen, e? egur bat, sendo samarra, eta gantxo moduan, euren lekua zeukan)

**arridxe:** harria, sukaltarria

"Konturetu ein bi sa, nik, arridxe esautu ein yot, da beste askok estabe esautu arriik" - (Konturatu egin behar zara, nik, harria ezagutu egin dut, eta beste askok ez dute ezagutu harririk)

**deposittue:** depositua

"Ganausaiñ ibili biar ixaten senduen, da ganaue sainyute ure eran erayotzasue? se etxien be eseuen ordun urik eta, amen etxien, e, or beyen manantiala ta ortitxik ekarte san, gero aittek, e, motorras deposittue beyen ta deposittue godxen, da goititik, e, gero, e, ure bajatu te" - (Ganaduzain ibili behar izaten zenuen, eta ganadua zainduta ura edan eragin diozue? ze etxean ere ez zegoen orduan urik eta, hemen etxean, hor behean iturburua eta hortixik ekartzen zen, gero aitak, motorragaz depositua behean eta depositua goian, eta goitik, gero, ura baxatu eta)

**erriko ure:** herriko ura, etxeetara eroateko herriak ipini duen ura

**fregaderie:** harria, sukaltarria

**itogin ure:** itaxuretik hartzen den ura

**tangie:** tanga

"Epeldu txapa ganiien orixue piskat, ta axe bota, tanga batzuk" - (Epeldu txapa gainean olio pixka bat, eta huraxe bota, tanga batzuk)

**tellatoko ure:** itaxuretik hartzen den ura

"Nik esautu neban mutikotan, gurien eseuen etxien urik, da gero aittek ei ban, e, ei ban tellatoko urek artute, tellatoko urek danak artu sittuen da ei ban, depositto bat da oin be an da, ogei mille litroko depositto bat ei ban, da orduen aprobetxeta sittuen, e, tellatoko urek, da arekin ipiñi ban, e, etxerako ure, bañe guk, e, ure geunken, e, serien, Santa Maiñen, erriko ure Santa Maiñen aprobetxeta genduen guk, da gure ama, erropak, e, sertzien, leixibie itten ara jute san" - (Nik ezagutu nuen mutikotan, gurean ez zegoen etxean urik, eta gero aitak egin zuen, egin zuen, teilatuko urak hartuta, teilatuko urak denak hartu zituen eta egin zuen, depositu bat eta orain ere han dago, hoge mila litroko depositu bat egin zuen, eta orduan aprobetxatzen zituen, teilatuko urak, eta haiekin ipini

# ZALDIBAR HIZTEGIA

zuen, etxerako ura, baina guk, ura geneukan, zerean, Santa Marinan, herriko ura Santa Marinan aprobetxatzen genuen guk, eta gure ama, arropak, zertzen lisiba egiten hara joaten zen)

**txorrue:** txorroa

**ure:** ura

"Nik beti esautu ot, beti esautu ot bañe, sera, modu diferentera, gutxi gora bera sentzune artzen asi nitzen sasoyen, orduntxe sartu ben sera, tuberixa bides, ure" - (Nik beti ezagutu dut, beti ezagutu dut baina, zera, modu desberdiner, gutxi gora behera zentzua hartzen hasi nintzen sasoi, orduantxe sartu zuten zera, hodia bidez, ura)

"Emen gure aldien es, guk eskenduen erabiltten urik soluetara" - (Hemen gure aldean ez, guk ez genuen erabiltzen urik sorotara)

"Ure amen, ur gitxi euen da, neguen da ondo bañe bestela, neu enas ixen, aitte, aitte" - (Ura hemen, ur gutxi zegoen eta, neguan eta ondo baina bestela, neu ez naiz izan, aita, aita)

## 6.8. EZKARATZEKO TRESNAK

**ardau botie:** arda zahatoa

**asta bateko lapikue:** asta bateko lapikoa

**astie:** asta, ontzien oralekua

**baldie:** baldea

"Guk erabilte genduen palue, ure eruteko, e, iños, landatze sanien, e, ortuaridxe, ba urrin samar eruen bier basan ba, aurrien, da atzien bidxetan ipiñi tte baldias, e, balda bana ipiñi aurrien da atzien da alan" - (Guk erabiltzen genuen makila, ura eroateko, inoiz, landatzen zenean, ortuaria, ba urrin samar eroan behar bazen ba, aurrean, eta atzean bietan ipini eta baldeagaz, balde bana ipini aurrean eta atzean eta hala)

**barrikie:** barrika, upel txikia

"Sagar urtie basan, sardaue gure aiñe, jun barrikara ta, gure dan beste sardaue eran" - (Sagar urtea bazen, sagardoa gure adina, joan barrikara eta, gure den beste sagardoa edan)

**botie:** zahatoa

**botillie:** botila

"Gero barrikan sartzen da, da egoten da, irakitten asten da, onenbeste egunera botaten dau sikiñetan! tapa barik egoten da, da gero onenbeste egunera, tapau, da euki geldi tte geo, botilletan sartu" - (Gero barrikan sartzen da, eta egoten da, irakiten hasten da, honenbeste egunera botatzen du zikineta! tapa barik egoten da, eta gero honenbeste egunera, tapatu, eta eduki geldi eta gero, botiletan sartu)

"Bañe atzien, e? se ostantzien, e, eraiñ ye, atze atzien, pli-pli, pli-pli, te ya sendotzen sendotzen, sendotzen juten da, da asken askenien, e, eitte otzen, nik amamai tte gero amai tte ikasitte, ogidxe, e, asala, laban tostau, de gero a, e, botillas apurtze genduen guk, e, ogidxe birrinnyu" - (Baina atzean, e? ze osterantzean, erein eta, atze-atzean, pli-pli, pli-pli, eta ja sendotzen-sendotzen, sendotzen joaten da, eta azken-azkenean, egiten zioten, nik amamari eta gero amari eta ikasita, ogia, azala, labean txigortu, eta gero hura, botilagaz apurtzen genuen guk, ogia birrinnyu)

**brotxie:** brotxa

**bukoye:** bukoa

"Bukoye, bai bukoye dok barrike aundidxaue" - (Bukoa bai bukoa duk barrika handiagoa)

"Bukoyek dittuk aundidxauek" - (Bukoiak dituk handiagoak)

**edarrie:** errada

"Edarrie esate akon, asta bat eukitte ban, ori, gerran be, refujiauk egon sienien, nire etxien, erabilli eben" - (Errada esaten zitzaion, asta bat edukitzen zuen, hori, gerran ere, aterpeak egon zirenean, nire etxean, erabili zuten)

**enbudue:** onila, inbutua

**fruterue:** fruteria, fruta-ontzia

**galdarillie, galdailie:** galdarila

"Asa erredondo batas, eskegi latzien bekosuten, latzien eskegi, da an egoste gendun esnie, galdailak, gurien bi ero iru euesan" - (Asta biribil bategaz, eskegi laratzean beheko suan, laratzean eskegi,

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*eta han egosten genuen esnea,  
galdarilak, gurean bi edo hiru zeuden)*

**galdarie:** galdara

**gantxue:** gantxoa

**garrafoye:** garrafoia

**kafeterie:** kafegailua

**kanillie:** kanila

*"Kanille ta gero bestie ba, txorrue ipintte akok beyen bañe kanillie, ipintten txek olan, e, kanillak eta gero sulutxue itten txek aprobetako, gero serrau eitteko sostxo batas" - (Kanila eta gero bestea ba, txorroa ipintzen zaiok behean baina kanila, ipintzen ziotek hola, kanilak eta gero zulutxoa egiten ziotek probetarako, gero itxi egiteko zoztxo bategaz)*

**kantiñe:** tankina, kantina

**kasuelie:** kazola

**katxarrue:** katxarroa

*"Sakona, sakona, esta? bai, baltza, illun illunek, ba ari estotze, estakitt selan esate otzen ari, ainbeste katxarro euesan ordun ese" - (Sakona, sakona, ezta? bai, beltza, ilun-ilunak, ba hari ez diote, ez dakit zelan esaten zioten hari, hainbeste katxarro zeuden orduan eze)*

**labañie:** labana

*"Poltza aundi bat erabilte ben, ta antxe erremintta danak, e, uras da jaboye itteko ontzidxe, brotxie, da labañak" - (Poltsa handi bat erabiltzen zuten, eta hantxe erremintta denak, uragaz eta xaboia egiteko ontzia, brotxa, eta labainak)*

**lapiko gorrixue:** lapiko gorria

**lapikue:** lapikoa

*"Amak lapikue ipiñi dau suten" - (Amak lapikoa ipini du sutan)*

*"A gordeta eukitte ban, a lapiko, olako lapiko andi baten sartute eukitte ban" - (Hura gordeta edukitzen zuen, lapiko hura, holako lapiko handi baten sartuta edukitzen zuen)*

**lurrezko kasuelie:** lurrezko kazola

**lurrezko lapikue:** lurrezko lapikoa

**morterue:** mortairua

*"Ortxe ortxe, ortxe morteruen, morterue da ori, morterue da ori, ontxe akordata" - (Hortxe-hortxe, hortxe mortairuan, mortairua da hori, mortairua da hori, oraintxe gogoratuta)*

**ontzidxe, untzidxe:** ontzia

*"Pastoriek erabilte ittue orrek, guk ba, eskenduen olakorik, sobra dauenien aparteko ontzirik es" - (Artzainek erabiltzen dituzte horiek, guk ba, ez genuen holakorik, sobra dagoenean aparteko ontzirik ez)*

*"Untzidxe eta danak esautu ittut" - (Ontziak eta denak ezagutu ditut)*

**orrasidxe, orrasixe:** orrazia

**palanganie:** palangana, azpila, terreina

**petrolidxo galdarie:** petrolio galdara

**pikie:** bikea, uia, zahagiari eta zahatoari barruan ematen zaiena kontserbatzeko

**piper potie:** piper potea

**potie:** potea

*"Bai, da potietan sartu te, gero, e, botilletan orduen, da puntiei irobalias lotu, gero egosteko" - (Bai, eta poteetan sartu eta, gero, botiletan orduan, eta puntari hari-balagaz lotu, gero egosteko)*

**prensie:** prentsa

*"Prensa bat ixatok ori sagardaua ta eitten dan moruen, igual, e? bota araxe prensara, eta gero estutu, eta gero andik barrikara bota ta gero barrikan etxaki pa nik semat denporan ta oten dan, egon an barrikan, eta arek, e, sikiñe kanpora etaten dxok" - (Prensa bat izaten duk, hori sagardaua eta egiten den moduan, berdin, e? bota haraxe prensara, eta gero estutu, eta gero handik barrikara bota eta gero barrikan ez zakiat bat nik zenbat denboran eta egoten den, egon han barrikan, eta hark, zikina kanpora ateratzen dik)*

**saragidxe:** zahagia

**sartana:** zartagina

*"Olgañien, e, dauen sartana ekarridesu te iguel sartana, ba iguel oridxo ondarra ero iguel, da parrastadie be iguel orman" - (Ohol-gainean, dagoen zartagina ekardazu eta beharbada zartagina, ba beharbada olio hondarra edo beharbada, eta parrastada ere beharbada horman)*

**sinkesko baldie:** zinezko baldea

*"Bañe ori, mutikuenak sien orrek, bai bai, ori tte gero aundidxauek eta serak, onek, e, sinkesko baldak ixate sienak, orrek eukitte ben, e, olako tamañoko txapaskue,*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*ta apurtze sienien arek, arek aparteta otzesan da, sarienak eta, al danak" - (Baina hori, mutikoenak ziren horiek, bai bai, hori eta gero handiagoak eta zerak, hauek, zinezko baldeak izaten zirenak, horiek edukitzen zuten, holako tamainako txapazkoa, eta apurtzen zirenean haiek, haiek apartatzen zizkioten eta, sareenak eta, ahal denak)*

**sinkie:** zina

**tapie:** tapa

**tomate potie:** tomate potea

**topiñe:** tupina

**tramankulue:** tramankulua, trastea

**trastie:** trastea

*"Gero ikusiko yuk kortan semat traste sar, orduko bada or!" - (Gero ikusiko diagu kortan zenbat traste zahar, orduko badago hor!)*

**txokolaterie:** txokolatera

**txolopotie:** txolopotea

**txolota:** txoleta

## 6.9. ONTZITERIA

**bajillie:** ontziteria

*"Ni neuk ikusi ttuasetan, bueno erropak eta bai, bajillie ta, orre pai bañe ostantzien, e, oiñ, baserrixetan bakixu selan, e, goruekin ye juete sien, nik ori, Bitori Gasakue eskondu sanien, akordeta nas, e, juen sala serien, e, ene! Gasako, e, Bitorin gixonak ekarri basen ba Mallabittik, da, Jesus! a ixen san guretako, oixe ikusmirie akabo!" - (Nik neuk ikusi ditudanetan, beno, arropak eta bai, ontziteria eta, horiek bai baina osterantzean, orain, baserrietan badakizu zelan, goruekin eta joaten ziren, nik hori, Bitori Gazakoa ezkondu zenean, gomutatzen naiz, joan zela zerean, ene! Gazako, Bitoriren gizonak ekarri zituen ba Mallabitik, eta, Jesus! hura izan zen guretako, horixe ikusmira akabo!)*

**basue:** basua, edalontzia

**flater asala:** plater azala

**flater sakona:** plater sakona

**flatera, platera, patela:** platera

*"Sati bat flaterak eta istekue, illaran" - (Zati bat platerak eta ixtekoa, ilaran)*

**katillue:** katilua

*"Lebadurie, gorde itten da lebadurie, guk gorde itten gendun, gorde katillu baten, antxe" - (Legamia, gorde egiten da legamia, guk gorde egiten genuen, gorde katilu baten, hantxe)*

**kikerie:** kikara, xikara; normalean txiki-txikia denaren gainean baino ez da erabiltzen berba hau

**kollara kirtena:** koilara kirtena

*"Amen bai, e? amen eitte san beyen, e, ganauen tripie garbitze genduen askara juen da, aundi aundidxe kendu te gero ekarri tte kollara kirtenaas, e, buelta emon da, a barrue eukitten daben, e, sera, e, dana garbi garbi eiñ ye" - (Hemen bai, e? hemen egiten zen behean, ganaduen tripa garbitzen genuen askara joan eta, handi-handia kendu eta gero ekarri eta koilara kirtenagaz, buelta eman eta, barru hura edukitzen duen, zera, dena garbi-garbi egin eta)*

**kollarie:** koilara

**kutxillue:** kutxiloa

**pitxarra, pitxerra:** pitxarra

*"Lodittu itten dau, asko eraneskeo, pitxarras jun de eran, da gure dan beste eran a, estau arek kaskarrara eraitten, e? bestie pai, bestiek moskorra emoten dau" - (Loditu egiten du, asko edanez gero, pitxarragaz joan eta edan, eta gura den beste edan hura, ez du hark kaskarrera eragiten, e? besteak bai, besteak mozkorra ematen du)*

*"Pitxarra erabiltte gendun guk" - (Pitxarra erabiltzen genuen guk)*

**tasie:** kikara edo xikara baino handiagoa dena, katilu artekoa

**tenedorra:** tenedorea, sardexka

**tresna:** tresna

## 6.10. ALTZARIAK

**ankie:** hanka

**araside:** arasa

*"Arasie san, aremaidxo moruen, amen arasie euen, arasie, da an euen,*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*karrajuen godxen, olako, ol bat, ta an ote sien kasuelak eta sartanak, olan lapikuek eta, e, lurreko kasuelak eta antxe egote sien" - (Arasa zen, armairu moduan, hemen arasa zegoen, arasa, eta han zegoen, karrajuan goian, holako, ohol bat, eta han egoten ziren kazolak eta zartaginak, hola lapikoak eta, lurrezko kazolak eta hantxe egoten ziren)*

**arkie:** arka

**aremidxue, armaidxue:** armairua

*"Amen aldemenien b'alantxik euen, sala andi bat, da gero gelie bertan, gela itxu bat, da an be olantxik euen, da gelien onduen euen, orman, aremaidxo aundi bat, bañe orman sartute" - (Hemen aldamenean ere halantxe zegoen, sala handi bat, eta gero gela bertan, gela itsu bat, eta han ere holantxe zegoen, eta gelaren ondoan zegoen, horman, armairu handi bat, baina horman sartuta)*

**aurkidxe:** aulkia, hau bizkarbakoa da, baita kortarako ganadua batzeko erabiltzen dena ere

**errespaldue:** errespaldoa, bizkarra

**eskapalota:** eskapalota, geletan egoten zen armairu handia arropa gordetzeko

**espillue:** ispilua

**gatzun askie:** gatzun aska, honetan pernilak, urdaia eta orokorrean txerrikia gordetzen zen gatzetan kontserbatzeko; bertan gatzatu ere egiten zen

*"Gero gatza gero emote otzen gero, gatzun askie ero esate geuntzen guk, gatzun askan sartu te an eukitte sittuen" - (Gero gatza gero ematen zien gero, gatzun aska edo esaten genion guk, gatzun askan sartu eta han edukitzen zituen)*

**jarlekue:** jarlekua, jesarlekua

**jergoye:** jergoia

**kajie:** kaxa

**kajoye:** tiradera

*"Ta gero etxeik etxe, diru batzen kajoyen ipiñitte, ba orduko, e, gastien, e, oiturak, e" - (Eta gero etxerik etxe, diru batzen tiraderan ipinita, ba orduko, gazteen, ohiturak)*

**koltxoye:** koltxoia

*"Nik etxien estot, e, esautu, bañe or, e, Uribarriñien egoten sien, e, arto malutias*

*eiñeko, koltxoyek, da gu umiek eta iguel ogañien saltoka ta, da Nikasia, erdi koittau bat or da" - (Nik etxean ez dut, ezagutu, baina hor, Uribarriñean egoten ziren, arto malutagaz egineko, koltxoiak, eta gu umeak eta beharbada ohe gainean saltoka eta, eta Nikasia, erdi koitadu bat hor eta)*

*"Oin be bai igual an gordeta euko dabes lengo sarrak orrek eta, de koltxori barres oin selan estauen lanaskoik, bier bes" - (Orain ere bai beharbada han gordeta edukiko dituzte lehengo zaharrek horiek eta, eta koltxoiari berriz orain zelan ez dagoen artilezkorik, behar ere ez)*

**komodie:** komoda

*"Bai komodak godxen das, godxen kajoye" - (Bai komodak goian dagoz, goian tiradera)*

**kunie, kumie:** kuma

**lanasko koltxoye:** artilezko koltxoia

**lastamarragie:** lastamarraga

**malutasko koltxoye:** malutazko koltxoia

**maidxe, madxe, maixe:** mahia

*"Nik estot esautu olako mairik" - (Nik ez dut ezagutu holako mahairik)*

*"Nik beti auxe esautu ot, amamen arriokue, da or da oniñok, nik beste mairik estot esautu amen etxien, auxe beti" - (Nik beti hauxe ezagutu dut, amamaren arrekoa, eta hor dago oraindino, nik beste mahairik ez dut ezagutu hemen etxean, hauxe beti)*

**mollie, muellie:** malgua, koltxoiaren azpian ipintzen dena

*"Aspidxen burdiñesko ser bat, oingo moruko molleik es bañe" - (Azpian burdinazko zer bat, oraingo moduko moilarik ez baina)*

**mueblie:** altzaria

*"Pague mueblerako eskasa da, bai, one pe pague dittuk" - (Pagoa altzarirako eskasa da, bai, hauek ere pagoa dituk)*

**oalbue:** ohe albo

**obarrena:** ohe barrena

**okamie:** ohekama

**ogegañie:** ohe-gaina

**olgañie:** ohol gaina, ontziak eta tresnak edukitzeko erabiltzen zen apala

*"Olgañie, erixu olgañera, erixu ori olgañera ero ekarrixu olgañetik" - (Ohol gaina,*



# ZALDIBAR HIZTEGIA

*eroazu ohol gainera, eroazu hori ohol gainera edo ekarzu ohol gainetik)*

**oremaidxe, eromaidxe:** oramahaia

*"Gero ein masie, bota lebadurie, ein forma, eromaidxen eukitte san" - (Gero egin masa, bota legamia, egin forma, oramahaian edukitzen zen)*

**oriñala:** txizontzia

**ormako madxe:** hormako mahia; hormaren kontra batzen zen mahaia

**oye:** ohea

*"Ba burditten ba, serak, erropie ta sera, serak mueblik, oyek eta trastiek, kargaute antxe dotorie ipiñitte" - (Ba gurdietan ba, zerak, arropa eta zera, zerak altzariak, oheak eta trasteak, kargatuta hantxe dotore ipinita)*

*"Oyek ote soasen burdiñeskue pe bai" - (Oheak egoten zituari burdinazkoak ere bai)*

*"Bai gurien oge bat baeuen olan, oge bat euen olakue gurien, ixena estakitt gure amak esate otzen ixena ba ari bañe, a kuartue eskendun ebalten, a oyen, lorik iñok esaban eitten, da onena san lo eitteko, e? altue ta molle ona ta danak, bañe iño pes, gure mutillek eta eseben gure an lo eitteik" - (Bai gurean ohe bat bazegoen hola, ohe bat zegoen holakoa gurean, izena ez dakit gure amak esaten zion izena ba hari baina, gela hura ez genuen erabiltzen, ohe hartan, lorik inork ez zuen egiten, eta onena zen lo egiteko, e? altua eta moila ona eta denak, baina inork ere ez, gure mutilek eta ez zuten gure han lo egiterik)*

**sillie:** aulkia

*"Ankurkillo bai, gure aitte jarri esan eitten sekule, kanpuen be, eskatzien bai, amen sillan bañe kanpora urtete ban gure aittek eta jarri sekule bes iñun, ankurkillo antxe geldi olantxik" - (Hankurkilo bai, gure aita jarri ez zen egiten sekula, kanpoan ere, ezkaratzean bai, hemen aulkian baina kanpora irteten zuen gure aita eta jarri sekula ere ez inon, hankurkilo hantxe geldi holantxe)*

**telebisiñue:** telebista

*"Esan bi otzut, telebisiñuen euskeras ondo eitten dabena saldibertarra dauela" -*

*(Esan behar dizut, telebistan euskaraz ondo egiten duena zaldibartarra dagoela)*

**tiradora:** tiradera

*"Komodie, armaidxue ta komodie, beste batzuk olan txikitxuauek, da beste batzuk tiradoras esate dxakok, tiradorakin olan tiratze sanakin" - (Komoda, armairua eta komoda, beste batzuk hola txikitxoagoak, eta beste batzuk tiraderagaz esaten zaiok, tiraderekin hola tiratzen zenekin)*

**txarri askie, txarri arkie:** txerri aska, gatzun aska, honetan pernilak, urdaia eta orokorrean txerrikia gordetzen zen gatzetan kontserbatzeko; bertan gatzatu ere egiten zen

*"Txarri askie esate akon, eukitte san ser bat, txarri eta iltte sanien, danak ipiñi an, lantzien bat, bat ipiñi, gatza bota, beste bat gañien ipiñi, atzea barrido beste kapa bat, olan" - (Txerri aska esaten zitzaion, edukitzen zen zer bat, txerri eta hiltzen zenean, denak ipini han, lantzean bat, bat ipini, gatza bota, beste bat gainean ipini, atzera berriro beste kapa bat, hola)*

**txitxillue:** zizeilua, karrajuan edo suetean egoten zen jesarleku luzea

## 6.11. ETXEKO ARROPAK

**almueda asala:** buruko azala

*"Almueda asala pe, almueda pe bai gurien, alakuek, estakitt selan esateutzen ari, bañe satarra lo eitteko ta" - (Buruko azalak ere, burukoak ere bai gurean, halakoak, ez dakit zelan esaten zioten hari, baina zatarra lo egiteko eta)*

**almuadie, almuedie, almedie:** burukoa

*"Es, lumie, seretan bai, almuedetan ero burkuen" - (Ez, luma, zeretan bai, burukoetan edo burkoan)*

**burkue:** burukoa

*"Ori burkue kenduixu ortik eta" - (Buruko hori kendu ezazu hortik eta)*

**eunesko ixerie:** ehunezko izara

*"Eunesko ixerak bai, ori orixek, gurien oin be badas oin goixen, da oiñ iñok estittu gure, oiñ, e, takarrak ei die oyen, oiñ, e, goorrrak ei die oyen da iñok estittu gure, e?" - (Ehunezko izarak bai, hori-horiak,*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*gurean orain ere badaude orain goian, eta orain inork ez ditu gura, orain, takarrak ei dira ohean, orain, gogorrak ei dira ohean eta inork ez ditu gura, e?)*

**iserie, ixerie:** izara

*"Ba sati bat bota orri, ipingi ba batzuk esate ben da beste batzuk ba oixe, san, txatal bat ipiñi orri, ixeriei moruen ba, ixera bias bat ein ye ba, olan sien len" - (Ba zati bat bota horri, ipinki bat batzuek esaten zuten eta beste batzuek ba horixe, zen, txatal bat ipini horri, izarei moduan ba, izara bigaz bat egin eta ba, hola ziren lehen)*

**koltxillie:** koltxila, ohazala

*"Koltxillak eta ixate sien lena, koltxillak telasko lodi loridxe, manta sarremat ero barruen ipintte, gañetik forrau, tela barritxo batas" - (Koltxilak eta izaten ziren lehenago, koltxilak ehunezko lodi lodiak, manta zaharren bat edo barruan ipinita, gainetik forratu, ehun berritxo bategaz)*

**mantela:** zamaua

**mantie:** manta

*"Mantias tapau te, gausa berue bi dau, bai lepos da danien bi dau, errapien da danien, berue bi dau" - (Mantagaz tapatu eta, gauza beroa behar du, bai lepoz eta denean behar du, errapean eta denean, beroa behar du)*

**sobrekamie:** ohazala

*"Da arek ekarri ban, bueno! arreo bat, ixerak, ta arek ser ekarri ban, or lenauko sobrekama loradunak eta, zer ekarri ban, ba danak goixen das, arek ixerak iñok estittu gure" - (Eta hark ekarri zuen, beno! arreo bat, izarak, eta hark zer ekarri zuen, hor lehenagoko ohazal loreduak eta, zer ekarri zuen, ba denak goian daude, izara haiek inork ez ditu gura)*

**toallie:** esku oihala

**trapue:** trapua, sorkia, zapia

*"Palo batas, onako, onen tamañoko sabalerakue, txingerrak eta ekarteko, beste trapu sar batzuk egur baten sertute, garbitzeko" - (Makila bategaz, holako, honen tamainako zabalerakoa, txingarrak*

*eta ekartzeko, beste trapu zahar batzuk egur baten zertuta, garbitzeko)*

**ulie:** ulea, mahai gainean ipintzen den plastiko antzekoa

*"Ba koltxoitxue aspixen, da gero olako plastiko bat, ulie moruen ixeten sana aspitti, da dotoriek, are pe, al dienik eta dotorienak iseratzuek eta dana dotoriek" - (Ba koltxoitxoa azpian, eta gero holako plastiko bat, ulea moduan izaten zena azpitik, eta dotoreak, haiek ere, ahal denik eta dotoreenak izaratxoak eta dena dotoreak)*

## 6.12. LISIBA

**agie:** arropa eskegitzeko haga

*"Da eskegi tte agan, agie esate geuntzen erropak eskegitzeko agie" - (Eta eskegi eta hagan, haga esaten genion arropak eskegitzeko haga)*

**barreñue:** barreinua, terreina

**jabo ure:** xaboi ura

**jaboye:** xaboia

*"Orduen urtien dana altzaute euki ninyuen da nik eitte nittun jaboyok eta danak" - (Orduan urtean dena altxatuta eduki nuen eta nik egiten nituen xaboiok eta denak)*

**lejie:** lixiba

*"Es erropak gero sartze gendusen, ixerak aintxe, antxe autzartien, orduen lejiak eta esan usetan, e? oingo moruen, e?" - (Ez arropak gero sartzen genituen, izarak hantxe, hantxe hauts artean, orduan lixibarik eta ez zen erabiltzen, e? oraingo moduan, e?)*

**leixibarridxe:** lisiba-harria, errekan arropa garbitzeko erabiltzen zen harlauza

**leixiba ontzidxe, lixibuntzixe:** lisiba-ontzia  
*"Lixibontzidxe esatakon, ur berue botetakon, erauntzorridxe, da aixe botata" (Lisiba-ontzia esaten zitzaion, ur beroa botatzen zitzaion, ereinotza orriak, eta huraxe botata)*

**leixibe otzarie:** lisiba otzara

**lixibie, leixibie:** lisiba

*"Balde aundi bat, da an ipintte ben erropioi, da lixibie itten das esate ben" - (Balde*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*handi bat, eta han ipintzen zuten arropa hori, eta lisiba egiten dagoz esaten zuten)*

**losie:** lisiba-harriaren harlauza

*"Losie ote san da ure, erropak garbitzen ara jute san, sertu orduko, ori tellatoko uroi ipiñi orduko" - (Harlauza egoten zen eta ura, arropak garbitzen hara joaten zen, zertu orduko, teilatuko ur hori ipini orduko)*

*"Ba urik etxien espaeuen garbitzeko be, jabondu be antxe, gero, lixibie sertu, uretan sartu, ta ba antxe losan jo, igurtzi" - (Ba urik etxean ez bazegoen garbitzeko ere, xaboitu ere hantxe, lisiba zertu, uretan sartu, eta ba hantxe harlauzan jo, igurtzi)*

**lumatxie:** lumetxa

*"Lumatxie moruen, uldute da" - (Lumetxa moduan, ulduta dago)*

**mantxie:** lohidura, zikina

**suteko autze:** suteko hautsa, lisiba egiteko erabiltzen zen, ur beroagaz arropari botatzen zitzaion gainetik kolorea emateko

*"Bai gure amak, e, usate basen, ixerak, gabien, ipiñi orras autzorras, orrek, barrika aundixetan, beratzen, ixerak, eunesko ixerak lena bakixu, e? orrek sendo senduok, da arek ipiñi, da bixamon goixien gero, a ure kendu te ur garbixas ipiñi, beste bola batzuk jaboye esate otzena, bola batzuketin, da sepilloas eitte ban gure amak, ordun labadoreik eta eseuen da, sepilloas ixerak, mai bat, txiki baten ganien ipiñi sepilloas, ta gure, amen etxi onek eseuken urik, ye, estakitt Mendiguteneko itturriza, akordeta sa? ara, an da aska aundi bat, oin be bada, ba gure ama, gure amak artu lepuen, balda aundi baten ixerak, da araxe juete san, aklaretan, da gero ni juete nitzen eske, ba berak gorutz ekarri esin sarritten da, nik laguntze notzan ixerok ekarten" - (Bai gure amak, erabiltzen zituen, izarak, gauean, ipini hauts horregaz, horiek, barrika handietan, beratzen, izarak, ehunezko izarak lehenago badakizu, e? horiek sendo-sendook, eta haiek ipini, eta biharamun goizean gero, ura hura kendu eta ur garbiagaz ipini, beste bola batzuk xaboia esaten ziotena, bola batzuketin, eta*

*eskuilagaz egiten zuen gure amak, orduan ikuzgailurik eta ez zegoen eta, eskuilagaz izarak, mahai bat, txiki baten gainean ipini eskuilagaz, eta gure, hemen etxe honek ez zeukan urik, eta, ez dakit Mendiguteneko iturrira, gomutatzen zara? hara, han dago aska handi bat, orain ere badago, ba gure ama, gure amak hartu lepoan, balde handi baten izarak, eta haraxe joaten zen, aklaratzan, eta gero ni joaten nintzen eske, ba berak gorantz ekarri ezin sarritan eta, nik laguntzen nion izarok ekartzen)*

**tiñie:** tina, tinakoa

## 6.13. GARBIKUZIA

**autze:** hautsa

**basurerue:** zakarrontzia

**basurie:** zaborra, zarama

**eskobie:** erratza

**esku trapue:** esku trapua, esku sorkia

**fregonie:** lanbasa

**itxuskidxe:** itsuskia, erratza

**moltzue:** ezkaratza garbitzeko trapua

**plantxie:** plantxa

*"Ba len, gero famosue in san, ni asi nintzen lekuen, e, plantxie itte ben, plantxa masisue pai te eletrikuek, gero suk entzunde dekosu Ufesa, usaba bi amenguk siren, oin saldu dabe, plantxie ta, estufak, neguen estufak eta uran plantxak" - (Ba lehen, gero ospetsua egin zen, ni hasi nintzen lekuan, plantxa egiten zuten, plantxa trinkoak bai eta elektrikoak, gero zuk entzunda daukazu Ufesa, ugazaba bi hemengoak ziren, orain saldu dute, plantxa eta, berogailuak, neguan berogailuak eta udan plantxak)*

**sepillue:** eskuila

**ugerra:** ugerra

## 7. SINESKERAK

Atal honetan sinekeren gaineko berbak batzen ditugu. Gaia aurkezteko honako azpi-atalok egin ditugu: eliza, erlijioa,

# ZALDIBAR HIZTEGIA

elizkizunak, kleroa eta gainerako sineskerak.

## 7.1. ELIZA

**abemaittekue,** **aramaittekuek,**  
**aremaitekue:** abemarietakoak,  
ilunabarreko kanpaien izena; ordu honetarako gazteak etxeratu behar izaten ziren

"Bai ba, da gero eguerdidxen, aremaitekuen ostien jotzen sientzen kanpayek" - (Bai ba, eta gero eguerdian, abemarietakoan ostean joaten ziren kanpaiak)

"Aremaittekuen itxera, aremaitekue bakixu ser san? aremaitekuen itxera, e? da espabe kastigue, aste gustien estekosu, urtengo iñoa, da egun baten ba, niri be, frontoyen bailie ote san, amen Saldibarren frontoyen, da ni beti dantzazalie, da, beandu itxera ni, atzenekue, banator itxera da ointxe il yaku nebie Eibarkue, ori niri palisie emoustena, Jose Mari, banator da, sabaldu ot ori atioi, atioi beroi, da ate ostien eskutaute, kortako soka batas, orrek, beixen sokokin, ene! emousten palisa bat, aremaitekuek pasaute etortiarren, e? da amak eitte ban lo or gelan, or gelan, da jagi san ama ta esa otzan, setan abil? neskie il i bi ok eta itxiok bakien neskiei, bakarrik esoan ongo ta, ta itxi ostan emotie bañe o nitxen, berna danak moraute atzetik, emousten palisias" - (Abemarietakoan etxera, abemarietakoak badakizu zer zen? abemarietakoan etxera, e? eta ezpabere zigorra, aste guztian ez daukazu, irtengo inora, eta egun baten ba, niri ere, frontoian dantza egoten zen, hemen Zaldibarren frontoian, eta ni beti dantzazalea, eta, berandu etxera ni, atzenekoa, banator etxera eta oraintxe hil zaigu neba Eibarkoa, hori niri jipoia eman zidana, Jose Mari, banator eta, zabaldu dut ate hori, ate hori berori, eta ate ostean ezkutatuta, kortako soka bategaz, horiek, behien sokokin, ene! eman zidan jipoi bat, abemarietakoak

*pasatuta etortzearen, e? eta amak egiten zuen lo hor gelan, hor gelan, eta jagi zen ama eta esan zion, zertan habil? neska hil egin behar duk eta utzi iezaioke bakean neskari, bakarrik ez zuan egongo eta, eta utzi zidan ematea baina egon nintzen, berna denak ubelduta atzetik, eman zidan jipoiaz)*

**aingeru kanpaye:** aingeru kanpaia

"Aingeru kanpaye, da ixete san ba txiliñe" - (Aingeru kanpaia, eta izaten zen ba txilina)

**altarie:** aldare

"Umetan, bai, txarto dauela ta ill ero bixi in yaitzen mesie, da kandela mordo bat ipiñi an, e, aurrien, altarien onduen" - (Umetan, bai, txarto dagoela eta hil edo bizi egin dadin meza, eta kandela mordo bat ipini han, aurrean, aldarearen ondoan)

"Gero elispan euen ba, lelengo lelengo ixen san altarie Saldibarko parrokiakue arriskue da ta meritu aundixe emote otze, da a ego san elispan, ta oiñ atzenengo etorri sient, au selan dekosue amen? da Yosebark sartu ban barrure, ta ordun an da kapilla bat, antxe da ipiñitte ori, arrisko altari ori, dana arriskue da" - (Gero elizpean zegoen ba, lehenengo-lehenengo izan zen aldarea Zaldibarko parrokiakoa harrizkoa da eta meritu handia ematen diote, eta hura egon zen elizpean, eta orain atzenengo etorri ziren, hau zelan daukazue hemen? eta Josebak sartu zuen barrura, eta orduan han dago kapera bat, hantxe dago ipinita hori, harrizko aldare hori, dena harrizkoa da)

"Altaran bai beti esautu ittuas, elixan eskondu dienak" - (Aldarean bai beti ezagutu ditut, elizan ezkondu direnak)

**amabidzek:** hamabietakoak, hamabiak, hamabietan jotzen diren kanpaien izena

**amabidzen ganekuek:** hamabien gainekoak  
"Amabidzek, gero amabidzen ganekuek, da orduen sera, anjeluse, erresetan, sera, ta gero aramaittekue" - (Hamabiak, gero hamabien gainekoak, eta orduan zera, angelusa, errezatzen zen, zera, eta gero abemarietakoak)

**atrille:** atrilea

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Atrille, oin kendute das, oiñ esta atrillik bañe esautu ittuas bai" - (Atrilea, orain kenduta dagoz, orain ez dago atrilerik baina ezagutu ditut bai)

**bankue:** jesarlekua, elizan egoten dena

"Bai, bai, orrek bankuek beti eon die, don Felisiano euela ei eban obrie, aurretik ba bankuek, lenako banko sarrak euesan, gero ba ordun ipiñi sien barridxe" - (Bai, bai, jesarleku horiek beti egon dira, Don Feliziano zegoela egin zuen obra, aurretik ba jesarlekuak, lehenagoko jesarleku zaharrak zeuden, gero ba orduan ipini ziren berriak)

**beko elispie:** beheko elizpea; bertako elizan goiko eta beheko elizpeak bereizi egiten izan dira

**bikotie:** bikotea, kanpaiaren hots errepikatua  
"Andraskuai bikotien bi, da gero bakarrak, da atza be bikotien bi, da gixoneskuei iru bikote" - (Andrazkoei bikoteen bi, eta gero bakarrak, eta atzera ere bikoteen bi, eta gizonezkoei hiru bikote)

**bonetie:** boneta

"Abadie, ipintte ban aurrien olan, e, bonetie esatakon, eruete benai, da a ipintte ban alan, da ara botetakon, e, da segun semat boteta sendun, da amaitze sanien ba jute san abadie" - (Abadeak ipintzen zuen aurrean hola, boneta esaten zitzaion, eroaten zuenari, eta hura ipintzen zuen hala, eta hara botatzen zitzaion, eta segun zenbat botatzen zenuen, eta amaitzen zenean ba joaten zen abadea)

**bueltako eskillarak:** bueltako eskailerak, biribileko eskailerak

**ebanjelidxue:** ebanjelioa

"A kutune, ebanjelidxuas eiñe mojak eitte sittuen da, alantxik sertxo bat, ipintte akuen kutune umiei" - (Kutun hura, ebanjelioagaz egina mojek egiten zituzten eta, halantxe zertxo bat, ipintzen zitzaien kutuna umeei)

**elispie:** elizpea

"Gero elispien, elixe onen ostien euen kanposantue" - (Gero elizpean, eliza honen ostean zegoen kanposantua)

"Ori lengue da, elispie lengo muruen da" - (Hori lehengoa da, elizpea lehengo moduan dago)

**elixie, elisie:** eliza

"Dotriñie dotriñara, domeketan elixara, bai, erderas, e? eskolan erderas, e? elixan euskeras eiau dana, dan dana, Saldibarko elixan esebe esta eiñ erderas oiñ arte" - (Doktrina doktrinara, domeketan elizara, bai, erdaraz, e? eskolan erdaraz, e? elizan euskaraz egin dugu dena, den dena, Zaldibarko elizan ezer ere ez da egin erdaraz orain arte)

"Erridxen ibiltte san bat, elixarako batzen" - (Herrian ibiltzen zen bat, elizarako batzen)

**ermittie, erminttie:** baseliza

"Samartiñeko ermittie, ara orduko allega orduko, ba! esate ban da kitto! akabaute" - (San Martineko baseliza, hara orduko ailegatu orduko, ba! esaten zuen eta kito! amaituta)

"Ba, beittu amen euen oitturie, San Lorenzo da ortxe gan gantxu baten, gan gañien da, e, San Martin badakixu sein yan Saldibarren, bueno alturatxo baten da, ermita txiki txiki bat San Lorenzo, agostun amarrien ixaten da San Lorenzo, da ekarte ben ori santuoi, se egunetan ekarte san? bera ekarte san, santutxu txiki txiki txikidxe san" - (Ba, begiratu hemen zegoen ohitura, San Lorentzo da hortxe gain-gaintxo baten, gain-gainean dago, San Martin badakizu zein den Zaldibarren, beno altueratxo baten dago, baseliza txiki-txiki bat San Lorentzo, abuztuaren hamarrean izaten da San Lorentzo, eta ekartzen zuten santu hori, ze egunetan ekartzen zen? behera ekartzen zen, santutxu txiki-txiki-txikia zen)

"Bakotxa bere ermittak, sera, bakotxa santu egunien bai, amen ixete san, rogatibak ixete sien ba, ermita bakotxeko, segun se egunetan ixete sien, ori bai, da juete sien, e, ermita bakotxea, ori esautu ot, da baitte San Lorensora, San Lorenzo egunien, e, Saninasio egunien bajatze san, San Lorensoko ermittatik, parrokidxara bajatze san San Lorenzo, santue, da gero Saninasio egunien,

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*prosesiñuen igotze san bertara atzera, es, Saninasio egunien bajatu, da San Lorenzo egunien igo, da gero an mesias sertzze san, gero Gasan ba Santidxago egunien, Santa Marinan, ba bakotxa serien, bañe aurretik, rogatibak esate akuen da urtien sera, egote san mesa bat, ori bai esautu ot" - (Bakoitza bere baselizak, zera, bakoitza santu egunean bai, hemen izaten zen, errogatibak izaten ziren ba, baseliza bakoitzeko, segun ze egunetan izaten ziren, hori bai, eta joaten ziren, baseliza bakoitzera, hori ezagutu dut, eta baita San Lorentzora, San Lorentzo egunean, San Inazio egunean baxatzen zen, San Lorentzoko baselizatik, parrokiara baxatzen zen San Lorentzo, santua, eta gero San Inazio egunean, prozesioan igotzen zen bertara atzera, ez, San Inazio egunean baxatu, eta San Lorentzo egunean igo, eta gero han mezagaz zertzen zen, gero, Gazan ba Santiago egunean, Santa Marinan, ba bakoitza zerean, baina aurretik, errogatibak esaten zitzaien eta urtean zera, egoten zen meza bat, hori bai ezagutu dut)*

**erre kanpaye:** sutea dagoenean abisua emateko jotzen diren kanpaien izena

*"Ene! orrek kanpayok erre kanpayek die ta ariñeketan kubuek artute ba bakotxak, e, al dabena eitten" - (Ene! horiek kanpaiok erre kanpaiak dira eta arineketan baldeak hartuta ba bakoitzak, ahal duena egiten)*

*"Danak segidan jote sien erre kanpayek eta ene! sue da nunun" - (Denak segituan joaten diren erre kanpaiak eta ene! sua dago non edo non)*

**estolie:** estola

*"Bai, elixa sartzie sana, ba a ixate san ba, elixako atien, egote san ama, da egote san an abadie estolias, da emote tzan sera, ta erute ban estoli orras elixa barrure, elixa sartzie san amen" - (Bai, eliza sartzea zena, ba hura izaten zen ba, elizako atean, egoten zen ama, eta egoten zen han abadea estolagaz, eta ematen zion zera, eta eroaten zuen estola horregaz eliza barrura, eliza sartzea zen hemen)*

**goiko elispie:** goiko elizpea

**il kanpaye, illeko kanpaye:** baten bat hiltzen denean jotzen diren kanpaien izena

*"Domusantu arratzaldien aste sien il kanpayek, il kanpaik jotzen suttuen, eseuen es erromeridxaik eta es, e, famelidxako at il baletxikixu moruen da, gurien gero galdu da ori, bañe nire amama, neure amama bixi sanien, ipintte ben ixotute lanparillie, gabien, da arimen gabera pasau arte etzan amatetan a, selako oitturak" - (Domu-santu arratsaldean hasten ziren hil kanpaiak, hil kanpaiak jotzen zituzten, ez zegoen ez erromeriarik eta ez, familiako bat hil balitzaizu moduan eta, gurean gero galdu da hori, baina nire amama, neure amama bizi zenean, ipintzen zuten isiotuta lanparatxoa, gauean, eta arimen gauera pasatu arte ez zen amatatzen hura, zelako ohiturak)*

*"Onek, selako oitturak dire onek, tan-tan, il kanpayek jotzen ainbeste denporan, tan-tan alan ixete san oitturie" - (Hauek, zelako ohiturak dira hauek, tan-tan, hil kanpaiak jotzen hainbeste denboran, tan-tan halan izaten zen ohitura)*

**intzentzue:** intsentsua

*"Olan esaten dabe, intzentzureko eitten dabela autze" - (Hola esaten dute, intsentsurako egiten dutela hautsa)*

**isopue:** isipua

**jesusen bidxotza:** Jesusen Bihotza

**kandelerue:** kandeleroa

*"Ori ipintte san trapu baltz bat, gero aren gañien ipintte san beste suri bat, dotoretxue, bakotxak al eban gañuen, puntillakin ye bordautxuekiñ, bañe iguel da, da beste bat baltza pikuekiñ, da kandelero bi" - (Hori ipintzen zen trapu beltz bat, gero haren gainean ipintzen zen beste zuri bat, dotoretxoa, bakoitzak ahal zuen ginoan, puntilekin eta bordatutxoekin, baina berdin da, eta beste bat beltza pikuekin, eta kandelero bi)*

**kanpa bueltakue:** kanpai bueltakoa

*"Ba kanpa gustiek jo pentzetot nik, e, nik Don Benito ixen sanien pentzetot, kanpa*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*bueltakuk eta, gedxa jo siela" - (Ba kanpai guztiak jo pentsatzen dut nik, nik Don Benito izan zenean pentsatzen dut, kanpai bueltakoak eta, gehiago jo zirela)*

**kanpa garratza:** kanpai garratza, kanpai ozena

**kanpatorrie, kanpantorrie:** kanpandorra  
*"Ori tte gero, presoka, presoka, Saldibarreko, elisiek, oin serraute deko, bañe punterue euken, punterue da bueltien, e, estakixu elisak selan oten dien, ormigoyas, e, ormak gordeta einye, ba andixik pasue, da, esate gendun se, i, bañe illuntzixen iguel gaba iguel, bate bat ok or eskutute ta orra eskoyesan, atzenien jun ein biar, kanpatorra iote gendun guk, kanpatorra gorengo pisure, orrek eskillarak bueltakuek, erdixek apurtute, gero bajatu esiñ iguel, andik bera, da, an eitte gendusena, guk kristonak, elisa ostien d'an, presoka, topau esinye alkar, topau esiñ" - (Hori eta gero, presoka, presoka, Zaldibarreko, elizak, orain itxita dauka, baina punteroa zeukan, punteroa dago bueltan, ez dakizu elizak zelan egoten diren, hormigoiaz, hormak gordeta eginda, ba handixik pasatua, eta, esaten genuen ze, hi, baina iluntzean beharbada gaua beharbada, baten bat duk hor ezkatututa eta horra ez goazen, atzenean joan egin behar, kanpandorrera igotzen genuen guk, kanpandorrera gorengo pisura, bueltako eskalera horiek, erdiak apurtuta, gero baxatu ezin beharbada, handik behera, eta, han egiten genituen, guk kristorenak, eliza ostean eta han, presoka, topatu ezinda elkar, topatu ezin)*

**kanpaye:** kanpaia

*"Domusantutan bai, domusantu egunien kanpaye jote san atzaldien, funsiñue itte sanetik gedxa, gaberartien kanpaik jote sien" - (Domu-santutan bai, domu-santu egunean kanpaia jotzen zen arratsaldean, funtzioa egiten zenetik gehiago, gauera arte kanpaiak jotzen ziren)*

**kapillie:** kapera

**korue:** korua

*"Elixie erdittik aurrera utzik dekosu da atzien da eskillerak, koruko eskillerak" -*

*(Eliza erditik aurrera hutsik daukazu eta atzean eta eskailerak, koruko eskailerak)*

**kurutzie:** gurutzea

*"Kurutzie lelengo, kurutzie ta abadie, oin be bai, oin be elispara amen parrokidxan, urtetan dau, kurutziek, abadias urtetan dau, da gero sartzen da gorpue barrure" - (Gurutzea lehenengo, gurutzea eta abadea, orain ere bai, orain ere elizpera hemen parrokian, irteten du, gurutzeak, abadeagaz irteten du, eta gero sartzen da gorpua barrura)*

*"Baeuesan, bakixu, kurutziek elixan, barruen" - (Bazeuden badakizu, gurutzeak elizan barruan)*

**mantie:** zamaua

*"Urte bete, gure aitte be gasteik il san, urte bete oso osue mantias, bertan batu de bertan isten genduen, geure sillie ta danak gendukesan da sillien kontran, juen mese nausittako sasoyen, sabaldu, da" - (Urte bete, gure aita ere gazterik hil zen, urte bete oso-osoa mantagaz, bertan batu eta bertan uzten genuen, geure aulkia eta denak geneuzkan eta aulkiaren kontra, joan meza nagusitako sasoiaren, zabaldu, eta)*

**matrakie:** matraka

**mesa liburue:** meza-liburua

*"Ba, guk esebes, erute san, e, mesa liburue, da, misala, misala euki neban danak eseben eukitten, mesa liburue ixate san eguneroko mesie bat, beti iguela, bañe misalak, urte gustiko egunek ebanjelidxuek eta, epistolie, diferentiek eukitte sittuen, da santuen egune pe bai, da orrek apartaute" - (Ba, guk ezer ere ez, eroaten zen, meza liburua, eta, misala, misala eduki nuen denek ez zuten edukitzen, meza liburua izaten zen eguneroko meza bat, beti bat, baina misalak, urte guztiko egunak ebanjelioak eta, epistola, desberdinak edukitzen zituen, eta santuen egunak ere bai, eta horiek bereiz)*

**mesetako kanpaye:** mezatako kanpaia, meza kanpaia

*"Bai, mesetako kanpaye bai, oin be joten da, mesa aurretik amabi kanpai, da gero, ya abadiak altarara igo bi dabenien, ordue joten dabenien segidan ba iru, altararako*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*ya, ba sera aixe ixeten da" - (Bai, mezatako kanpaia bai, orain ere jotzen da, meza aurretik hamabi kanpai, eta gero, abadeak aldarera igo behar duenean, ordua jotzen dutenean segituan ba hiru, aldarerako ja, ba zera huraxe izaten da)*

**misala:** meza-liburua; gure informatzaile batek bereizi egiten ditu misala eta meza-liburua

*"Idx e idxe abadie itteko beste estudixau misaletik" - (Ia ia abadea egiteko beste estudiatu misaletik)*

*"Nik bidxek esautu ittuas, bati esatakon mesa liburu ta bestiei misala bañe neutako bardiñek sien" - (Nik biak ezagutu ditut, bati esaten zitzaion meza liburua eta besteari misala baina neutetako berdinarak ziren)*

*"Gero misalak etara sittuen da ba misalas ba segitze genduen" - (Gero meza-liburuak atera zituen eta ba meza-liburuagaz ba segitzen genuen)*

**parrokidxie:** parrokia

*"Ori, amen nik, e, parrokidxan estot oittu, bañe karmelitak, karmelitetan bai, karmelitetan an, kanpantxue, karmelitetako kanpantxue seiretan, oiñ, kanpantxorik estekot bañe trena dekot, asten da seiretan" - (Hori, hemen nik, parrokiaren ez dut ohitu, baina karmelitak, karmelitetan bai, karmelitetan han, kanpaitxoa, karmelitetako kanpaitxoa seiretan, orain, kanpaitxorik ez daukat baina trena daukat, hasten da seiretan)*

**pastikue, pastikune:** 1. ikutu eta mun egiteko erabiltzen zen irudi baten izena. 2. Ostiak egikeran sobratzen ziren hondakinak

*"Len mesan euen oitturie, e, pastikuen emote ben, pastikuen bakixu ser san ba? antxe da, erakutziko tzut urranguen, parrokidxan an da, ba espiritutu santuen da ser batas, da a, mun eitteko emote san, da gero partitze besan, e, onek, e, formak, e, bertan eitte sien parrokidxan, da arek eskiñetan gelditze san dana satittute, an jute sien, e, katxarrotxo batas, ba danari eskinke, ya suk ori estosu esautu" - (Lehen mezan zegoen ohitura, pastikoan ematen zuten, pastikoan badakizu zer zen*

*ba? hantxe dago, erakutsiko dizut hurrengoan, parrokiaren han dago, ba Espiritutu Santuaren eta zer bategaz, eta hura, muin egiteko ematen zen, eta gero partitzen zituzten, hauek, formak, bertan egiten ziren parrokiaren, eta haiek izkinetan gelditzen zen dena zatituta, han joaten ziren, katxarrotxo bategaz, ba denei eskainka, ja zuk hori ez duzu ezagutu)*

*"Sagrada Familiaren sera, irudi bat, antxe da oin be ori, da, pastikun, pastikun, mun eitteko emote ben elixan ori, danai!" - (Sagrada Familiaren zera, irudi bat, hantxe dago orain ere hori, eta, pastikun, pastikun, muin egiteko ematen zuten elizan hori, denei!)*

*"Bai bañe guk pastikune esate geuntzen, formak, len eiñ eitte sien elixan, da, arek errekortiek ebai, da formie itte ben, da arek, sien onan plaka batzuk, txatalak galtze sienak, gosuek!" - (Bai baina guk pastikoa esaten genion, formak, lehen egin egiten ziren elizan, eta haiek errekorreak ebaki, eta forma egiten zuten, eta haiek, ziren hola plaka batzuk, txatalak galtzen zirenak, gozoak!)*

**punterue:** punteroa, elizaren inguruko harrizko hesia

**sakristeridxie:** sakristia

*"Da gerra ostien ba, lelengo eskoleta juete sien, bañe sakristeridxan ixate san" - (Eta gerra ostean ba, lehenengo eskoletara joaten ziren, baina sakristian izaten zen)*

*"Nik esautu oan denporan sakristeridxan ixen san" - (Nik ezagutu dudana denboran sakristian izan zen)*

**seiretako kanpatxue:** seiretako kanpaitxoa

**sepulturie:** familia bakoitzak elizan kandelak eta jartzeko zeukan lekua

*"Bai sepulturie, bakotxak bere lekue eukitte ban, bakotxak bere sepulturie, da mese nausittera urte gustien" - (Bai sepultura, bakoitzak bere lekua edukitzen zuen, bakoitzak bere sepultura, eta meza nagusitara urte guztian)*

*"Ba, esa eben batzuk etara sittuen, e, se ausunatakuek se baserritakuek eta, sepulturak egote sien nobera, beyen enterraute euesen parien egote sien sepulturak, alan san" - (Ba, esan zuten*



# ZALDIBAR HIZTEGIA

*batzuek atera zituen, ze auzunetakoak ze baserritakoak eta, sepulturak egoten ziren norbera, behean lurpetuta zeuden parean egoten ziren sepulturak, hala zen)*

**sillie:** aulkia

*"Bai, bai, ya aberatzak, e, tersiopelosko sillak, etxekandrak, ixenas gedxenak eukesan, esta? bañe gero orrek, e, ya euki sittuen asule ta granatie ta tersiopelosko sillak" - (Bai, bai, ja aberatsak, belusezko aulkiak, etxeko andreek, izenagaz gehienek zeuzkaten, ezta? baina gero horiek, ja eduki zituzten urdina eta granate eta terziopelozko aulkiak)*

**trapu baltza:** sepulturetako trapu beltza

*"Sepulturak, bakotxak berak ipintte sittuen, sera, familidxa bakotxak bere trapu suridxe, lelengo baltza, suridxe, da gero an gañien ba, ipintte sien kandelero bias, kandelak da abadie mesa ostien jute san" - (Sepulturak, bakoitzak berak ipintzen zituen, zera, familia bakoitzak bere trapu zuria, lehenengo beltza, zuria, eta gero han gainean ba, ipintzen ziren kandelero bigaz, kandelak eta abadea meza ostein joaten zen)*

**trapu surixe:** sepulturetako trapu zuria, zamaua

**txiliñe:** txilina

*"Ba txiliñe esate otze orri, joten dabenoï" - (Ba txilina esaten diote horri, jotzen duten hori)*

**ur bereinkatue:** ur bedeinkatua

**ur bedeinkatu ontzidxe:** ur bedeinkatu ontzia

## 7.2. ERLIJIOA

**aingerue:** aingerua

**aitte gurie:** aita gurea

**amabirjiñie:** Amabirjina

*"Elixan ba bueno, oiñ, elixie total kanbidxaute da oiñ, len, gure epokan san, ba pentzaixu, altaran euesan, San Antonio, San Jose, Amabirjiñie, da Jesusen biotza, orrek altaran godxen, e? gero beyen euesan alan, San Esteban, oin ya ametik aldien dauena, San Esteban, da Errosaridxoko Amabirjiñie, da gero*

*amen, Amabirjiña Doloretakue ta ametik aldien euesan, e, San Juan, Ebanjelistie, pentzau, oiñ orrek danok desaparesidute das, da, imajena gustiek, e, misiñueta erunde, bat es" - (Elizan ba beno, orain, eliza guztiz aldatuta dago orain, gure sasoian zen, ba pentsa ezazu, aldarean zeuden, San Antonio, San Jose, Amabirjina, eta Jesusen Bihotza, horiek aldarean goian, e? gero behean zeuden hala, San Esteban, orain ja hemendik aldean dagoena, San Esteban, eta Arrosarioko Amabirjina eta hemendik aldean zeuden, San Juan Ebanjelista, pentsatu, orain horiek denok desagertuta daude, eta irudi guztiak, misioetara eroanda, bat ez)*

**anjeluse:** angelusa

*"Eguerdidxen, jote san aremaittekue, anjeluse, aremaittekue esate gendun guk" - (Eguerodian, jotzen zen abemarietakoa, angelusa, abemarietakoa esaten genuen guk)*

**arimie:** arima

*"An bertan bixetekuek etorte siela arimak, ta dantzán eitte bela arridxen, ta kandelie ixotute itxitte ban gabien, eskatzien" - (Han bertan bizitakoak etortzen zirela arimak, eta dantzán egiten zutela harrian, eta kandela isiotuta uzten zuen gauean, ezkaratzean)*

**baraue:** baraua

**barau egune:** barau eguna

**bijilidxie, bijilixie:** bijilia

*"Aste santuen be bai, orduen dana san bijilidxie ta baraue ta, orduen ixate sien" - (Aste santuan ere bai, orduan dena zen bijilia eta baraua eta, orduan izaten ziren)*

**buldie, bulie:** bulda

*"Bulak sien, ba, baridxe ku gustietan, e, eitte san ba, barau egune ta bijilixie, baeuen bula bat a pageta bana pa eseuken ainbeste ser ein biarrik" - (Buldak ziren, ba bariku guztietan, egiten zen ba, barau eguna eta bijilia, bazegoen bulda bat hura ordaintzen zuenak ba ez zeukan hainbeste zer egin beharrik)*

**demoniñue:** deabrua

**diabruue:** deabrua

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**dotriñie:** doktrina

"Euskeras esiñ ixate gendun saso baten, e? estoskuen isten, eskolan euskeras eitten, da, erderas ba, droitiñie be erderas ikasi gendun guk, e?" - (Euskaraz ezin izaten genuen sasoi baten, e? ez ziguten uzten, eskolan euskaraz egiten, eta, erdaraz ba, doktrina ere erdaraz ikasi genuen guk, e?)

**erresue:** errezua, otoitza

"Atien eote san abarie, da aurrien andrie umias, erreso batzuk eitte sien da gero barrure" - (Atean egoten zen abadea, eta aurrean andrea umeagaz, otoitz batzuk egiten ziren eta gero barrura)

**errogatibie:** errogatiba

"Errogatibak, eitte sien amen da trumoye itte banien be bai" - (Errogatibak, egiten ziren hemen eta trumoia egiten zuenean ere bai)

**espirittu santue:** Espiritu Santua

**fedie:** fedea

**guardixie:** guardia, elizan aldararen aurrean egiten zena

"Oin be mesie amaitzen danetik gabeko amarrak arte egoten da elixie sabalik, ta gero goixien lelengo orduen sabaltzen da barrido ba jentie bisittak eitten jueteko, bañe len guardixie itte san" - (Orain ere meza amaitzen denetik gaueko hamarrak arte egoten da eliza zabalik, eta gero goizean lehenengo orduan zabaltzen da berriro ba jendea bisittak egiten joateko, baina lehen guardia egiten zen)

**gure jaune:** Gure Jauna

"Amak esate oskun de, akordeta nas mesie ero, abadie etorri bi da gure jaune emoten da suek birien topeta osuenien, belauniko jarri bi osue, e? ta begidxen bistan dekat, eskuetan amen fianbrera orras da belauniko selan eon giñen lurrien jarritte, da negue ta sikin sikiñe inye belaunek eta" - (Amak esaten zigun eta, gomutatzen naiz meza edo, abadea etorri behar da gure jauna ematen eta zuek bidean topatzen duzuenen, belauniko jarri behar duzue, e? eta begien bistan daukat, eskuetan hemen zakutontzi horregaz eta belauniko zelan

egon ginen lurrean jarrita, eta negua eta zikin-zikina eginda belaunak eta)

"Ai! gure jaune emotekue, aixe ixengo da, bai bai olan ipintte ben gausatxo bat, tak tak! gure jaune emoteko, oiñ esta olakoik bañe, aixe da" - (Ai! Gure Jaune ematekoa, huraxe izango da, bai bai hola ipintzen zuten gausatxo bat, tak-tak! Gure Jauna emateko, orain ez dago holakorik baina, huraxe da)

**infernue:** infernua

**jainkue:** Jainkoa, Jaungoikoa

**kandela bereinkatue:** kandela bedeinkatua

**kreduie:** kredoa

**letañie:** letania

**limosnie:** limosna

**misiñue:** misioa

**ni pekataridxe:** ni bekataria, otoitz baten izena

**nire jesukristo jaune:** nire Jesukristo jauna, otoitz baten izena

**patroye:** patroia, eguneko edo lekuko santua

**pekataridxe:** bekataria

**pekatue:** bekatua

**penitensie:** penitentzia

**promesie:** promesa

**prosesiñue:** prozesioa

"Prosesiñu pa ixete sien korpusetik, gero Amabirjiñiena be, Jesusen Biotzena ba altarak ipintte siren kanpuen, or emen, or emen da ba, aretan bedeinkasiñue, Santisimuas ixete siren" - (Prozesioak ba izaten ziren Gorpuztitik, gero Amabirjinarena ere, Jesusen Bihotzarena ba aldarean ipintzen ziren kanpoan, hor-hemen, hor-hemen eta ba, haietan bedeinkazioa, Santisimoagaz izaten ziren)

"Bueltie bai, erri gustiai, estandartias da, bat jute san amabirjiña jantzitte da gero bi aingeruek, da, an estandartien seretik, ta bata erdidxen amabirjiñie ta gero, estandartie, ta estandartien aldemenetik ba bi, tte gero, aingeruek ba lorak botetan, ori bai" - (Buelta bai, herri osoari, estandarteagaz eta, bat joaten zen amabirjina jantzita eta gero bi aingeruak, eta han estandartearen zeretik, eta bata erdian amabirjina eta gero, estandarte, eta estandartearen

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*aldamenetik ba bi, eta gero, aingeruak ba loreak botatzen hori bai)*

**santue:** santua

*"Santue, ekarte ben parrokidxara, da eitte otzen bedeatzi urrune" - (Santua, ekartzen zuten parrokiara, eta egiten zioten bederatzi urruna)*

**serue:** zerua

*"Len ene! aingerutxue dekosue seruen esate san len" - (Lehen ene! aingerutxoa daukazue zeruan esaten zen lehen)*

**txantela:** txantela, bazkotan egin behar zen aitortza justifikatzeko ematen zena

*"Bai tte ori paskuaskue itte banai txantela emote otzen, ta ostantzien txantelik eseban eukitten" - (Bai eta bazkoagazkoa egiten zuenari txantela ematen zioten, eta osterantzean txantelik ez zuen edukitzen)*

## 7.3. ELIZKIZUNAK

**arimen onrak:** arima ondrak

*"Ori da, urte bete ta erdidxen eitte san, ori lutue, aguanteta ban ori, da, iru illabetetik iru illabetera arimen onrak esate san, abadiak iragarte ban da, eitte ban, da barristau eitte san ori einye" - (Hori da, urte bete eta erdian egiten zen, lutu hori, irauten zuen hori, eta, hiru hilabetetik hiru hilabetera arimen ondrak esaten zen, abadeak iragartzen zuen eta, egiten zuen, eta berriztatu egiten zen hori eginda)*

**bautisue, bateue:** bataioa, bateoa

*"Bautisuen be oixe itte san" - (Bataioan ere horixe egiten zen)*

*"Ba esautu ot, eskolako atien itxi be bai, bautisue, sarjentuen semie, ixen sanien, dana ta maistriek es jan! iguel serien da, segiduen esa ban an ausunakuek, aretxen bautisue ixen da gaur, ta aretxena ixengo da" - (Ba ezagutu dut, eskolako atean utzi ere bai, bataioa, Sarjentuaren semea, izan zenean, dena eta maistrak ez jan! beharbada zerean eta, segituan esan zuen han auzunekoak, harexen bataioa izan da gaur, eta harexena izango da)*

**bedeinkasiñue,**  
bedeinkazioa

**bereinkasiñue:**

**bederatzi urrune, bedeatzi urrune:**  
bederatzi urrunak

*"Urte baten, es ei eban eiñ euriik, santu orrek, bedeatzi urrune parrokidxan einye sikutie itzela! ori esakerie da Saldibarren aundidxe" - (Urte baten, ez ei zuen egin euririk, santu horrek, bederatzi urruna parrokian eginda sikate itzela! esaera hori dago Zaldibarren handia)*

**elisan sartzie:** elizan sartzea, ama berriak umearekin egiten zuen lehen irteera umea elizan aurkezteko

*"Elisan sartzie esatakon, elisan sartu, umias jute san ama bakarrik orduen, ta badauke lagunuen bat ero bueno laguntze otzan bañe bestelan ama ixate san bakarrik, da amak, ara sartu, elisan sartu arte, eseban urteten etxetik" - (Elizan sartzea esaten zitzaion, elizan sartu, umeagaz joaten zen ama bakarrik orduan, eta badaukate lagunuen bat edo beno laguntzen zion baina bestela ama izaten zen bakarrik, eta amak, hara sartu, elizan sartu arte, ez zuen irteten etxetik)*

**elisakuek:** elizakoak

**eliskerie:** elizkera

**eliskisune:** elizkizuna

**entierro mesie:** enterru meza

**eruetallie:** bataioa egiteko umea eroaten zuena

**erresarixue, erresaidxue, errosaridxue:**  
arrosarioa

*"Erresaidxue erreseta san orduen, amumak erresaidxue erresau, etartien arto suritzen" - (Arrosarioa errezatzen zen orduan, amamak arrosarioa errezatu, etartean arto zuritzen)*

*"Afaldu aurretik ba errosaridxue erreseta san, protestak egon arren" - (Afaldu aurretik ba arrosarioa errezatzen zen, protestak egon arren)*

**errespontzue, errespontsue:** errespontsua

*"Bota pesetie ta, amar errespontzo, amar aitte gure, jarri serien da, sepulturan da, jesus! bañe es pentzau, e, urte bete oso osuen mantias, kandelak eta mantie, antxe" - (Bota pezeta eta, hamar errespontsu, hamar aita gure, jarri zerean eta, sepulturan eta, jesus! baina ez*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*pentsatu, urte bete oso-osoan mantagaz, kandelak eta manta, hantxe)*

**etxeko bautisue:** etxeko bataioa

*"Etxeko bautisue, nik oixe entzun dot" - (Etxeko bataioa, nik horixe entzun dut)*

*"Nik batiaten saitut aitaren semearen da espiritu santuaren ixenean amen" - (Nik bataiatzen zaitut aitaren semearen eta espiritu santuaren izenean amen)*

**funtziñue, funsiñue:** funtzioa

**iru urrune, iru urrena:** hiru urrunak

*"Lelengo entierrue, urrengo domekako mesie ixeten da dana berena, famelidxiak eta danak entierrora alantxik etorten da, da gero iru urrena eitten da" - (Lehenengo enterrua, hurrengo domekako meza izaten da dena berarena, familiak eta denak enterrura halantxe etortzen da, eta gero hiru urruna egiten da)*

**komuniñue:** komunioa

**konfesiñue:** aitortza

**mesa barridxe:** meza berria, abadeak egin berritan ematen duen lehen meza

*"Mesa barri bat dekau, ene abade in ya ta ba, guk alan esan du beti" - (Meza berri bat daukagu, ene abade egin da ba, guk hala esan dugu beti)*

**mese nausidxe:** meza nagusia

*"Domeka gustietan jutun siñen mese nausittera, ipintten senduen lenengo trapu baltza, gero ori trapu suridxoi, da kandelero bi de kandelak, eta mesa denporan ixotute ta gero, e, errespontzue paseta ban abadiak eta" - (Domeka guztietan joaten zinen meza nagusitara, ipintzen zenuen lehenengo trapu beltza, gero trapu zuri hori, eta kandelero bi eta kandelak, eta meza denboran isiotuta eta gero, errespontsua pasatzen zuen abadeak eta)*

*"Sues aparte? bai, lorak erute sien bereinkatzen mese nausitta, da, lora erramilletie olan, lorak amen, d'amen ipintte akosan, e, kipulie ta berakatza, aren kirtenak, lorakin tapau, da erramilletie dotore dotore erun mese nausitta, bereinkatzen" - (Suaz gainera? bai, loreak eroaten ziren bedeinkatzen meza nagusitara, eta, lore txorta hola,*

*loreak hemen, eta hemen ipintzen zitzaizkion, kipula eta berakatza, haien kirtenak, loreekin tapatu, eta txorta dotore-dotore eroan meza nagusitara, bedeinkatzen)*

**mesie:** meza

*"Bueno esto pa esautuko! latiñien esautu ot mesie" - (Beno ez dut ba ezagutuko! latinean ezagutu dut meza)*

**san gregorion mesak:** San Gregorioren mezak

*"Ori, e, serak, e, San Gregorion mesak, ogetamar mesa, orduen denporan be dirue ixate san, e?" - (Hori, zerak, San Gregorioren mezak, hogeita hamar meza, orduan denboran ere dirua izaten zen, e?)*

*"Da bederatzi urrune es bakarrik, e? San Gregorion mesak, ogetamar mesa, ogetamar mesa, ta segidan, e? egunik, e, utzik ein barik, neu be juenda na, geure aittei eiñ orduen" - (Eta bederatzi urruna ez bakarrik, e? San Gregorioren mezak, hogeita hamar meza, hogeita hamar meza, eta segidan, e? egunik, hutsik egin barik, neu ere joanda nago, geure aitari egin orduan)*

**sermoye:** sermoia

*"Sermoye itte ben euskeras, elixan dana eitte san euskeras, oiñ, e, gerra ostien, orduen proibidu ei eben" - (Sermoiak egiten zuten euskaraz, elizan dena egiten zen euskaraz, orain, gerra ostean, orduan galarazi egin zuten)*

*"Sermoyek elixan eitte sittuen" - (Sermoiak elizan egiten zituzten)*

**suen bedeinkasiñue:** suaren bedeinkazioa

*"Pasku besperan, gabien, orduen bedeinkatzen dabenien, ba, beste egunien be ointxe be bai, ipintten da ta eruten dabe, da len sue be partitze ben an, gabien sue ixotzen danien, e, pasku besperan, lelengo suen bedeinkasiñue ixeten da, da gero ixeten da uren bedeinkasiñue barruen, da kanpuen, an jentiek ixotze basen, da andik artze besan satidxe eta, etxeko sue bedeinkatzeko erute ben" - (Pazko bezperan, gauean, orduan bedeinkatzen dutenean, ba, beste egunean ere oraintxe ere bai, ipintzen da eta eroaten dute, eta lehen sua ere*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*partitzen zuten han, gauean sua isiotzen denean, pazko bezperan, lehenengo suaren bedeinkazioa izaten da, eta gero izaten da uren bedeinkazioa barruan, eta kanpoan, han jendeak isiotzen zituen, eta handik hartzen zituzten zatiak eta, etxeko sua bedeinkatzeko eroaten zuten)*

*"Da antxe ixotze san, elixie be orreaittik egoten da argi barik, an ixotzen da, da aras ixotzen die kandelok, argi barridxe, ta jentie ba kandelakin juten da" - (Eta hantxe isiotzen zen, eliza ere horregatik egoten da argi barik, han isiotzen da, eta haregaz isiotzen dira kandelok, argi berria, eta jendea ba kandlekin joaten da)*

**uren bedeinkasiñue:** uren bedeinkazioa

**urte mesie, urte urrena:** urte meza

*"Gero es, urte urreneko mesie ta ba, urte ta erdi paseta sanien kentze san sepulturie" - (Gero ez, urte meza eta ba, urte eta erdi pasatzen zenean kentzen zen sepultura)*

## 7.4. KLEROA

**abarie, abadie:** abadea

*"Ori Elorridxon da abade" - (Hori Elorriion dago abade)*

*"Abadie bera etorte san da dotriñie, da dotriñera, ayuntamiento sarrera be jueten giñien" - (Abadea bera etortzen zen eta doktrina, eta doktrinara, udaletxe zaharrera ere joaten ginen)*

**fraillie:** fraidea

**jaune:** jauna, abadeari ematen zaion tratamendua

**mojie:** moja

*"Mojak on sien amen, e, gerra ostien, e, eskas txamar ero" - (Mojak egon ziren hemen, gerra ostean, eskas samar edo)*

**monagillue:** meza mutila

*"Gure jaunaz etorte sanien, monagilluas be bai, bañe ostantzien, e, seraas, bañe gure jaunaz etorte sanien monagilluas" - (Gure Jaunagaz etortzen zenean, meza-mutilagaz ere bai, baina osterantzean, zeragaz, baina Gure Jaunagaz etortzen zenean meza-mutilagaz)*

*"Ori bai, bañe ostantzien gaixuekana be bai, monagillue txiliñe joten, juete sien ba, abadie seras sertute" - (Hori bai, baina osterantzean gaixoengana ere bai, meza-laguna txilina jotzen, joaten ziren ba, abadea zeragaz zertuta)*

**parrokue:** parrokoa, erretorea

*"Amen il san parrokue neure akorduen be, e, tapa barik bai, tapau barik egon san elixan be ta, tapau barik" - (Hemen hil zen parrokoa neure gogoan ere, tapa barik bai, tapatu barik egon zen elizan ere eta, tapatu barik)*

*"Amen euen bertako parrokue bertako seme bat" - (Hemen zegoen bertako parrokoa bertako seme bat)*

**praillie:** fraidea

**sakristanie:** sakristaua

**sakristaue:** sakristaua

## 7.5. GAINERAKO SINESKERAK

**anbotoko mari:** Anbotoko Mari

**anbotoko señoie, anbotoko sorgiñe:**  
Anbotoko sorgina

*"Anbotoko señoie ta Anbotoko sorgiñe ta, orrek beti entzu ittu bañe, nik orrek ipuiñek danok ipuintzat artu ittut beti" - (Anbotoko andrea eta Anbotoko sorgina eta, horiek beti entzun ditugu baina, nik horiek ipuinak denok ipuintzat hartu ditut beti)*

*"Okerrak bagiñe, etorko sala Anbotoko sorgiñe, ta erungoskule kuebara, ara, bera dauen lekure" - (Okerrak bagina, etorriko zela Anbotoko sorgina, eta eroango gintuela kobara, hara, bera dagoen lekura)*

*"Da beti olakotxik, gure amak, bildurtzeko, estakixu? lo eitte espaosu, etorriko da Anbotoko sorgiñe" - (Eta beti holakoxeak, gure amak, bildurtzeko, ez dakizu? lo egiten ez baduzu, etorriko da Anbotoko sorgina)*

*"Anbotoko señoiana erungo sailu te, orrek esate oskuesan guri, billurtzeko" - (Anbotoko andreagana eroango zaitu eta, horiek esaten zizkiguten guri, bildurtzeko)*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**konfurue, konjurue:** konjurua

"Len ixate san konfurue, ori abadiiek eitte ben elispian, kandelie ixotu, t'ur bereinkatuas erresuek eitten sittuen, da, geratu daitten, e, tenporale txarra ero olan, e, arriabarra esatakon, arriabarra" - (Lehen izaten zen konjurua, hori abadeek egiten zuten elizpean, kandela isiotu, eta ur bedeinkatuagaz errezoak egiten zituzten, eta, geratu dadin, denborale txarra edo hola, erromako zubia esaten zitzaion, erromako zubia)

"Elispian eitten san konfurue" - (Elizpean egiten zen konjurua)

**gutune, kutune:** kutuna

"Gutune esatakon, ori mojak erregalate ben, emen karmelitik selan euesan, arek erregalate ben" - (Kutuna esaten zitzaion, hori mojek erregalatzeko zuten, hemen karmelitik zelan zeuden, haiek erregalatzeko zuten)

**isue:** isua

"Isue da materidaxala da, egurre ixete san, da aguantau eitte otza, esta erretan, sue esta amatetan, ta aunditxue eruten senduen, da elispian, e, abariek ixotze ben an, euki a ta ixotu, ta ur bereinkatue ta ekarte sien pasko sapatus" - (Isua da materiala eta, egurra izaten zen, eta iraun egiten dio, ez da erretzen, sua ez da amatatzen, eta handia eroaten zenuen, eta elizpean, abadeek isiotzen zuten han, eduki hura eta isiotu, eta ur bedeinkatua eta ekartzen ziren pazko zapatuz)

**lamiñe:** lamina

**Mari Urrike:** Mari Urrika, Anbotoko sorginaren izena da

## 8. HERIOTZA

Atal honetan gizakiaren heriotzagaz lotutako lexikoa batzen dugu.

**alibio lutue:** alibio lutua, luto erdia

"Len len eitte san bederatzi urrunen, da sepulturie ipintte sanien, urte ta erdidixen, e, egote san sepulturie, ipiñitte, urte t'erdidixen, amarratako meseta jute san, e, serien, da, ya gero ba, urte urrena, da

urte t'erdi sanien ba luto moruen, e, urtie paseta sanien, alibio luto ero ba kanbidxau eitte san, da gero, urte ta erdidixen ba kendu, segun se parentesko san klaro! urte basien, baltza, ta ostantzien ba, medio lutue, olan esate genduen eta" - (Lehen-lehen egiten zen bederatzi hurrena, eta sepultura ipintzen zenean, urte eta erdian, egoten zen sepultura, ipinita, urte eta erdian, hamarretako mezatara joaten zen, zerean, eta, ja gero ba, urte hurrena, eta urte eta erdi zenean ba luto moduan, urtea pasatzen zenean, alibio luto edo ba aldatu egiten zen, eta gero, urte eta erdian ba kendu, segun zer artekotasun zen jakina! hurre baziren, beltza, eta osterantzean ba, luto erdia, hola esaten genuen eta)

**andabidie:** andabidea, etxeetatik gorpuan kanposantura oinez eroateko etxe bakoitzak edukitzen zuen bidea

"Andabidiek ixate sien, ametik pasetan san, ametik or, e, Ortxakotik bera, ametik estartatik sier, e, Mendibera" - (Andabideak izaten ziren, hemendik pasatzen zen, hemendik hor, Ortxakotik behera, hemendik estratatik zehar, Mendibera)

**anderue:** andaria, anda-eroalea

**andie:** anda, atautea, zerraldoa

"Andabidie, esate ben, beñ andie pasaeskerero, se etxe dana pe esittuen eukitten, beren, e, bide patxaraskuek, da, beñ andie pasaeskerero ya deretxo gustidxe artze sittuela esate ben" - (Andabidea, esaten zuten, behin anda pasatuz gero, ze etxe denek ere ez zituzten edukitzen, beren, bide patxadazkoak, eta, behin anda pasatuz gero ja eskubide guztiak hartzen zituela esaten zuten)

**atautie:** anda, atautea, zerraldoa

**bixitzie:** bixitza

"Santuen bixitzie misalak ekarte ban, asieran, gaur au santu au da, da onen bixitzie, antxe ekarte ban, da bestie ixete san ba mesa liburu, arek eseuken eguneko mesie" - (Santuen bixitza misala ekartzen zuen, hasieran, gaur santu hau da, eta honen bixitza, hantxe ekartzen

# ZALDIBAR HIZTEGIA

zuen, eta bestea izaten zen ba meza-liburua, hark ez zeukan eguneko meza)

**entierro egune:** lurpetze eguna

**entierrue:** enterrua

"Aren ostien ba illeko kanpaye jote san, oiñ esta joten ba, oin joten da ba, iltten danien, ta gero entierruen, egunien, ordu erdi lena" - (Haren ostean ba hileko kanpaia jotzen zen, orain ez da jotzen ba, orain jotzen da ba, hiltzen denean, eta gero enterruaren, egunean, ordu erdi lehenago)

**funerala:** hileta

"Nik ori Gernikan esautu ot, an ixen gintzesenien funeral baten, amen mesendako dirue botetan da esa eben" - (Nik hori Gernikan ezagutu dut, han izan ginenean hileta baten, hemen mezentzako dirua botatzen da esan zuten)

**gaubellie:** gaubeila

**gorpue:** gorpua

"Len alan ixen da, gero asi san, e, gorpue elixan sartzen" - (Lehen hala izan da, gero hasi ziren, gorpua elizan sartzen)

**il barridxe:** hil berria

"Bakotxa bere ixenaas, da bakotxa bere sille, da a beti aurrekaldien satitxu bat noberena, e, da, etorri, iguel gañera, il barridxen ero urte betera ero etorri abadie errespontzue ta, e, errespontzue, sera, estolias da emote otzun olan da, mun eiñ de dirue bota, e, monagilluek, e, seraas, sestotxuas, da, estaipa nik semat ixeten san erriel bi ero, da ari dirue bota errespontzo botate banien, da semat olako!" - (Bakoitza bere izenagaz, eta bakoitza bere aulkia, eta hura beti aurreko aldean zatitxo bat norberarena, eta, etorri, beharbada gainera, hil berrian edo urte betera edo etorri abadea errespontsua eta, errespontsua, zera, estolagaz eta ematen zizun hola eta, muin egin eta dirua bota, meza-mutilak, zeragaz, otzaratxoagaz, eta, ez dakit ba nik zenbat izaten zen, erreal bi edo, eta hari dirua bota errespontsu botatzen zuenean, eta zenbat holako!)

**ille:** hila

**kanposantue:** kanposantua

"Punterue esate akon, Punterue, atzekaldien orduen bertan euen kanposantue gero amen ein san gurera birien" - (Punteroa esaten zitzaion, Punteroa, atzeko aldean orduan bertan zegoen kanposantua gero hemen egin zen gurera bidean)

"Ba ya an bedeinkatu ero, an sertze ben da gero, kanposanture" - (Ba ja han bedeinkatu edo han zertzen zuten eta gero, kanposantura)

**katefalkue:** katafalkoa, hiletetan gorpu orde ipintzen zen kaxaren izena

"Ba ser bat egote san, sera, ser esango tzu pa, katefalko bat ero alan ser bat ipintte ben" - (Ba zer bat egoten zen, zera, zer esango dizut ba, katafalko bat edo hala zer bat ipintzen zuten)

**lutue:** lutua

"Aitte ta ama sienien urte t'erdi sien, urte bete baltzes da gero ba medio lutue ixete san, da amama sanien, ba amama sanien sei illabete ixete sien, da osabie sanien, ba segun tratue ixete san bañe iru illabete ero, bañe ordun esan ixaten baltza" - (Aita eta ama zirenean urte eta erdi ziren, urte bete beltzez eta gero ba lutu erdia izaten zen, eta amama zenean, ba amama zenean sei hilabete izaten ziren, eta osaba zenean, ba segun hartuemonak izaten zen baina hiru hilabete edo, baina orduan ez zen izaten beltza)

"Da gero ba piskaka ba batzuk neri es ipiñi luturik eta, oiñ, e, semat urte da ba kendu dala lutue? nik neure amai tte aitei tte danai erue notzen lutue" - (Eta gero ba pixkaka ba batzuek niri ez ipini luturik eta, orain, zenbat urte da ba kendu dela lutua? nik neure amari eta aitari eta denei eroan nien lutoa)

## 9. UMEZAROA

Atal honetan umezaroaren gaineko berbak batzen ditugu; azpi-atalak olgetak, umeakaz erabiltzen den lexikoa eta, azkenik, eskolari dagokiona batzen dugu.

# ZALDIBAR HIZTEGIA

## 9.1. UMEEN OLGETAK

**abidxa topetan:** habia topatzen, txori-habiak topatzen egiten den olgeta

**airesko bueltie:** airezko buelta, txirinbuelta  
*"Airesko bueltie, landan bera, irripan, goittik bera, señek gedxa ein bueltak" - (Airezko buelta, landan behera, erripan, goitik behera, zeinek gehiago egin bueltak)*

**alamuska, alamoska:** alamuska, asto-astoka  
*"Alamuska, alamuska bañe neskak eseben eitten ori, neskak gonakiñ juete sien ta orrek gausok esiñ ein len, esiñ eiñ, bestelan gogoaitti bai, bañe esiñ eiñ" - (Alamuska, alamuska baina neskek ez zuten egiten hori, neskak gonekin joaten ziren eta gauza horiek ezin egin lehen, ezin egin, bestela gogoagatik bai, baina ezin egin)*

**alamuskaka, alamoskaka:** alamuskaka  
*"Alamoskaka, ipiñi bat makurtute, bestiek aren gañea idxo, bestiek aren gañea" - (Alamuskaka, ipini bat makurtuta, bestea haren gainera igo, bestea haren gainera)*

**anka bardiñien:** marra batetik salto eginda egiten den olgetaren izena

*"Erradxie iñ, da salto, anka bardiñien esatakon orri, anka bardiñien, ori da ba anka bidxekin batera eittie, salto, ta aundiñe itten dabena ba" - (Marra egin, eta salto, hanka berdinean esaten zitzaion horri, hanka berdinean, hori da ba hanka biekin batera egitea, salto, eta handiena egiten duena ba)*

**ankorkillo, ankurkillo:** 1. hankurkilo, iztertolaka; hankek osatzen duten arkua ere bada. 2. txikoan, kikilian; umea norberaren sorbaldetan jesarrita eroatea

*"Ankorkillo jarteko posturie da ori, asto gañien iguel, asto gañien be, e, alde batera jarri, albora jarritte, ero ankak sabalik, ankorkillo, bañe karo ori ixate san problemie gonak eseben emoten, da frakakin, jeneralien, alde batera, alde batera ero ankorkillo" - (Hankurkilo jartzeko era da hori, asto gainean berdin, asto gainean ere, alde batera jarri, albora jarrita, edo hankak zabalik, hankurkilo, baina jakina hori izaten zen arazoa gonek ez zuten ematen, eta*

*prakekin, gehienetan, alde batera, alde batera edo hankurkilo)*

*"Neuk ebaliko saittut, e, ankurkillo da amen ebalitie, etorri neuk ankurkillo ebaliko saittut eta" - (Neuk erabiliko zaitut, hankurkilo eta hemen erabilita, etorri neuk hankurkilo erabiliko zaitut eta)*

**arretxikue:** arretxikotan, arrelepo

**astoka:** asto-astoka

**atxia motxia:** atxia-motxia, atzamarrekin egiten den olgeta; errezitatu amaitzean ume baten atzamarra hartzen da

**atxia motxia kumilipan:** atxia-motxia kumilipan; atxia-motxia olgetaren errezitatuaren lehen esaldia

**bale-bale:** bale-bale, ezkutaketan esaten da bila hasteko

*"Bale-bale esate san, eskuteta sienien, bale-bale" - (Bale-bale esaten zen, ezkututzen zirenean, bale-bale)*

**baloye:** baloia

**bastarketan:** txanponakaz egiten den olgeta, txanpona marra edo horma bazter batetik ahal denik hurren utzi behar da jaurti ondoren

**enkarnita:** haragieta, tortoloxen alde bat

**erradxie:** arraia, marra

**gartzan, garsan:** txapekin edo diruarekin egiten den olgeta

*"Iños, e, gartzan da, mutillek eta, gartzan esate ben, ba ipiñi bat, e, sera ta, beste txapa batas jo ta, sertu" - (Inoiz, gartzan eta, mutilek eta gartzan esaten zuten, ba ipini bat, zera eta, beste txapa bategaz jo eta, zertu)*

*"Lelengo ormara, señek tiratu lelengo, ba bota dirue ormara, señek resultau onena etate ban, a lelengo" - (Lehenengo hormara, zeinek jaurti lehenengo, ba bota dirua hormara, zeinek emaitza onena ateratzen zuen, hura lehenengo) [Gartza deritzon olgetan dirua ateratzen nor den lehena jakiteko erabiltzen den eraren gainean dabil]*

*"Diruas garsan, ipiñi olako sulo bat einye, an suluen alkarren gañien, txakur txiki bana danak, eta an, resultau onena orman ein yabenak, gero lelengo botaten, urrindik artute, bota, danak aidien iguel" - (Diruagaz gartzan, ipini holako zulo bat*



# ZALDIBAR HIZTEGIA

*eginda, han zuloan elkarren gainean, txakur txiki bana denak, eta han, emaitza onena horman egin duenak, gero lehenengo botatzen, urrundik hartuta, bota, denak airean beharbada)*

**intxaurke:** intxaurka

*"Intxaurke ero, intxaurke pentzetot esaten genduela, pentzetot" - (Intxaurka edo, intxaurka pentsatzen dut esaten genuela, pentsatzen dut)*

**jokue:** jokoa

**kanikaka:** kanikaka

**kanikie:** kanika

*"Kanikakin bai, kanikakin asko, sulo bat, e, topau ikusi nunbaiten da araxe sartzen, olan plantaute" - (Kanikekin bai, kanikekin asko, zulo bat, topatu ikusi nonbaiten eta haraxe sartzen hola paratuta)*

**katamar:** katanar, lau-txakur

**katamarrien:** katanarrean

**kateka:** elkar harrapatzen egiten den jokoa

*"Kateka, ori, e, ekipo bi, eta batek urten aiñeketan, eta beste ekipokuek a arrapau, atzetik, belosidadien" - (Kateka, hori, talde bi, eta batek irten arineketan, eta beste taldekoek hura harrapatu, atzetik, abiadan)*

**kubike:** kuika

*"Orri kubike esatakon, ba, pareta san ormara begire olan bat, da kontau eitte ban arek, ba ogei ero amar ero enas akordetan semat, kontau, bidxen bittartien su or eskutau, da gero ba, a topetan dabillen artien, ba, aiñeketan atza, ormiak ikutu, astute na selan esate san, seoser esate san, ene! antxiñeko gausa(k) die ta, da, arrapetan basinyusen ba seuk geratu bi sendun an, d'ori etxakon gustetan iñoi be an geratzie, olan geratzie an" - (Horri kuika esaten zitzaion, ba, paratzen zen hormara begira hola bat, eta kontatu egiten zuen hark, ba hogei edo hamar edo ez naiz gomutatzen zenbat, kontatu, bien bitartean zu hor ezkutatu, eta gero ba, hura topatzen dabilen artean, ba, arineketan atzera, hormari ikutu, ahaztuta nago zelan esaten zen, zer edo zer esaten zen, ene! antzinako gauzak dira eta, eta,*

*harrapatzen bazintuen ba zeuk geratu behar zenuen han, eta hori ez zitzaion gustatzen inori ere han geratzea, hola geratzea han)*

**kukurruku:** txintxaune deritzon olgetan burteuna altxatzean goian dagoenak esaten duena

*"Kukurruku godxen dauenak, puntara altxeta sanien" - (Kukurruku goian dagoenak, puntara altxatzen zenean)*

**kukurumidxo:** kukulumaiXu, kukulumuxu, kukubilko

**lapurketan:** elkar harrapatzeko egiten den olgeta

**lepoka:** lepoka; tortoloxen alde bat da

**lepueta:** lepoeta, tortoloxen alde bat da

**lisueta:** lisueta, tortoloxen alde bat da

**mokorretatik:** arrelepo, arreputxin, arretxiko

**muñekie:** andrakila, panpina

**olgetie:** olgeta, jolasa

*"Guk olgetie guk, ser eingo gendun, ba batien ori tte bestien a, bakixue mutikuek selakuek ixaten dien" - (Guk olgeta guk, zer egingo genuen, ba batean hori eta bestean hura, badakizue mutikoak zelakoak izaten diren)*

*"Olgetak beko plasan, eskolatik urten orduko, itxa etorri orduko, bagenkixen itxa etorri orduko, bierra geunkena ta, neure lagunekin, oin be, oin be esate otzet, e? batzui an, i akordetas sertzuk? txirikillan, bai plasan Saldibarko plasan, eiñ ori erredonduoi, erdikuoi, da an plantau bat, ta beste batek txirikille jo, da an kristonak eitte gendusen" - (Olgetak beheko plazan, eskolatik irten orduko, etxera etorri orduko, bagenekien etxera etorri orduko, beharra geneukana eta, neure lagunekin, orain ere esaten diet, e? batzuei han, hi gomutatzen haiz zertzuk? txirikilan, bai plazan Zaldibarko plazan, egin biribil hori, erdiko hori, eta han paratu bat, eta beste batek txirikila jo, eta han kristorenak egiten genituen)*

**pelotan:** pilotan

**pelotie:** pilota

**potxie:** potxia, intxaurrak edo kanikak sartzeko behean egiten den zuloaren izena

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Ba olan potxie, da ba, txandan jarri tte bota ta ba, potxolan" - (Ba hola potxia, eta ba, txandan jarri eta bota eta ba, potxolan)

**potxolan:** potxolan, intxaurrek edo kanikak zuloan sartzen egiten den olgeta

"Potxolan ba intxaur sasoyen ero, pentza ixu intxaurrekin potxolan eitten genduen" - (Potxolan ba intxaur sasoiaren edo, pentsa ezazu intxaurrekin potxolan egiten genuen)

"Potxolan, da potxolan, eitte san, banaka be bai, semat gedxa asartetan senduen a san irabastie, da gero bipiri, suk bi emon niri, da lauas, da bi sartzen basendusen da bi kanpora, ba irabasi, da danak sartzen basendusen, danak seuriiek, danak irabasi, olan bueno! asartau olan da dra! bota ta laurek potxola, ba a dana seutako" - (Potxolan, eta potxolan, egiten zen, banaka ere bai, zenbat gehiago aparatzen zenuen hura zen irabaztea, eta gero bipiri, zuk bi eman niri, eta laugaz, eta bi sartzen bazenituen eta bi kanpora, ba irabazi, eta denak sartzen bazenituen, denak zeureak, denak irabazi, hola beno! aparatu hola eta dra! bota eta laurak potxola, ba den hura zeuretzat)

**potxolie:** potxola, intxaurrek edo kanikak sartzeko behean egiten den zuloaren izena

"Da potxolak euesan elispan, da, botxora intxaurrekiñ" - (Eta potxolak zeuden elizpean, eta, botxora intxaurrekin)

**presoka:** presoka

"Presoka, ba, arrapetan dana kastigaute geatze san beti, ba arrapetan" - (Presoka, ba, harrapatzen dena zigortuta geratzen zen beti, ba harrapatzen)

**sokan:** sokan

"Sokan asko soka saltuen, asko asko geixen, soka saltuen" - (Sokan asko soka saltoan, asko-asko gehien, soka saltoan)

**soka saltuen:** soka saltoan

"Ba bakarrik, ba bakarrien, batu batu eiñ, sokaik eta etzan oten orduen da aundixas, batu esku bidxetan olan da, ba, kopetensi ixate san ori, d'atzeraka, aurreraka, ta gero bidxek erainye kontrara sartute, politte ori be, jokue, soka saltuen" - (Ba bakarrik, ba bakarrian, batu-batu egin, sokarik eta ez

zen egoten orduan eta handiagaz, batu esku bietan hola eta, ba, kompetentzia izaten zen hori, eta atzeraka, aurreraka, eta gero biak eraginda kontrara sartuta, polita hori ere, jokoa, soka saltoan)

**suloka:** zuloa, tortoloxen alde bat da

"Sei ala estakitt amar sien ba ipiñi tte, bota kanikie gora ta buelta, lepo ta suloka" - (Sei ala ez dakit hamar ziren ba ipini eta, bota kanika gora eta buelta, lepo eta zuloa)

**sulueta:** zuloeta, tortoloxen alde bat da

**tiragomie:** tiragoma

**tortolosa:** tortoloxa

"Tortolosak, tabak es, tortolosak eta kanikak" - (Tortoloxak, tabak ez, tortoloxak eta kanikak)

"Olan eskuen artu, lau, sei ero lau, olan, adaridxenak basiren, arek ederrak, bañe orrek ya, orrek erosi ero eitte sittun dirue eukenak, guk, e, billotxa, billotxenak, karo labanauk ixate sien, d'olan eiñ, eskuen nastau nastau, kartak nastetan dien moruen, ra! bota olan, da ba, arek lau ser dekos, lepueta sulueta, astu oiñ ori be, enkarnieta, da lisueta ero ixate san, a, a paretan da olan, esta? da lepueta da potxolie dekon aldie, sulueta esate akon da lepueta, sulueta, enkarnieta, da lisueta ero, kanikie bota gora, t'arek bueltau danak, arrapau a, ondo ipintten senduen a" - (Hola eskuan hartu, lau, sei edo lau, hola, ahariarenak baziren, haiek ederrak, baina horiek ja, horiek erosi edo egiten zituen dirua zeukanak, guk, bildotsa, bildotsarenak, jakina labanagoak izaten ziren, eta hola egin, eskuan nahastu-nahastu, kartak nahasten diren moduan, ra! bota holan, eta ba, hark lau zer dauzka, lepoeta zuloeta, ahaztu orain hori ere, enkarnieta, eta lisueta edo izaten zen, hura paratzen da hola, ezta? eta lepoeta da potxola daukan alde, zuloeta esaten zitzaion eta lepoeta, zulueta, enkarnieta, eta lisueta edo, kanika bota gora, eta haiek bueltatu denak, harrapatu hura, ondo ipintzen zenuen hura)

**tortoloxetan:** tortoloxetan

"Ai tortoloxetan, ondio nik tortolosak or goixen badekas nunbaiten, atzenien

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*pinttau, pinttau eitte nittuen, tortolosak, gorri tte pinttau eitte nittuen, garbixau on daittesan, askotan neskak, esta? ta ankak sabal sabal einye, plantau kale baten da an, tortoloska, bañe ori san arri bat fin fin on bi san, tortolosak ondo mogittu deittesan, asko eitte gendun, elispan asko" - (Ai tortoloxetan, oraïndino nik tortoloxak hor goian badauzkat nonbaiten, atzenean pintatu, pintatu egiten nituen, tortoloxak, gorri eta pintatu egiten nituen, garbiago egon daitezen, askotan neskak, ezta? eta hankak zabal-zabal eginda, paratu kale baten eta han, tortoloxka, baina hori zen harri bat fin-fin egon behar zen, tortoloxak ondo mugi daitezen, asko egiten genuen, elizpean asko)*

**tortoloska:** tortoloxka

*"Olgetak? tortoloska, bakixu ser diren tortolosak? bueno ba tortoloska, sasoyen tortoloska" - (Olgetak? tortoloxka, badakizu zer diren tortoloxak? beno ba tortoloxka, sasoian tortoloxka)*

**tronpaka:** tronpaka, zibaka

*"Asko, amen, euen barres, e, elispïen euesan, e, bueno dana arridxe da beyen, orduen, euesan arri batzuk losa batzuk, e, ya, potxolie inye barrurutz, uekue inye, tronpaka ekitten, da an ekitte geuntzen, e, tronpaka" - (Asko, hemen, zegoen berriz, elizpean zeuden, beno dena harria eta behean, orduan, zeuden harri batzuk, lauza batzuk, ja, potxola eginda barrurantz, hutsunea eginda, tronpaka ekiten, eta han ekiten genion, tronpaka)*

**tronpan:** ziban, tronpatan

**tronpie:** ziba, tronpa

*"Tronpa pai, sokias batute eraittekue bai" - (Tronpak bai, sokagaz batuta eragindakoa bai)*

**trukamena:** trukamena, txantxurrika

*"Baitte sera trukamena, trukamena, ori seuok eitte senduen" - (Baita zera trukamena, trukamena, hori zeuok egiten zenuten)*

**txantxurrike:** 1. txantxurrika, trukameraka.  
2. hanka baten gainean ibili

*"Txantxurrike, eitte sien erradxak, erradxak olan elispïen, seras, tïsias, da an eitte sien numeruek, da txantxurrike anka*

*baten gainen" - (Txantxurrika, egiten ziren marrak, marrak holan elizpean, zeragaz, klarionagaz, eta han egiten ziren zenbakiak, eta txantxurrika hanka baten gainean)*

**txapaka:** txapaka

**txapie:** txapa

**txinbili txanbulue, txibili txanbulue:**  
txinbili-txanbulua, txinboa

*"Bai, ori, e, orretarako piskat nausitxuauek ein bi otzun ori, ya etxe ondoko intxaurrien da olan ipintte ben ori tte, saku bat ipinttakon ari, sokiai, da bultz ein ye, txinbili txanbulue" - (Bai, hori, horretarako pixka bat nagusitxoagoak egin behar zizun hori, ja etxe ondoko intxaurrean eta hola ipintzen zuten hori eta, zaku bat ipintzen zitzaion hari, sokari, eta bultza egin eta, txinbili-txanbulua)*

*"Sokie bota, ta kamaran or trabesetan, ta txibili txanbuluen, txibili txanbuluen asko eitte gendun, bañe asko, or elisan be bai, aterpien, asko eitte genduen" - (Soka bota, eta ganbaran hor trabesetan, eta txinbili-txanbuluan, txinbili txanbuluan asko egiten genuen, baina asko, hor elizan ere bai, aterpean, asko egiten genuen)*

**txintxaune:** txintxauna, txilin-txalanka, gurdïaren burteun puntan hankurkilo paratuta egiten zen olgeta

*"Burtaune ixete san susena, da olan eukitte ban, laakue, esatakon, ari ebatu ari laakuai, da burdidxen mordo bat, da gora ta bera txintxaune, gora ta bera" - (Burteune izaten zen zuzena, eta hola edukitzen zuen, larakoa. esaten zitzaion, hari oratu larako hari, eta gurdian mordo bat, eta gora eta behera txintxauna, gora eta behera)*

**txirikillan:** txirikilan

*"Da beste ba pe itten gendun, txirikillan, ori da olako makilla bat, bat, onako tamañoko makilla bat, ta bestie olako at, da arek, orrek txikidxorrek dekos puntak sorrostute, bidxek dotore dotore sorros sorrotz ipiñitte, da, jo olan, da semat urriña bota, ori san merittue, da gero an, astute da ori be, e? an aras makillias eitte akon, jo olan puntie, da arek salto*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*eitte ban, da salto eitte banien, makillias atzera urrin bota, ai! bañe gero, gero aras makillias neurtu eitte san, neurtu beras, señek gedxen ero señek urriñen eitte ban da, politte ixate san ori be, neuretako politte" - (Eta beste bat ere egiten genuen, txirikilan, hori da holako makila bat, bat, honako tamainako makila bat, eta bestea holako bat, eta hark, txiki horrek dauzka puntak zorrozuta, biak dotore-dotore zorrotz-zorrotz ipinita, eta, jo hola, eta zenbat urrinago bota, hori zen meritua, eta gero han, ahaztuta dago hori ere, e? han makila haregaz egiten zitzaion, jo hola punta, eta hark salto egiten zuen, eta salto egiten zuenean, makilagaz atzera urrin bota, ai! baina gero, gero makila haregaz neurtu egiten zen, neurtu beragaz, zeinek gehien edo zeinek urrinen egiten zuen eta, polita izaten zen hori ere, niretzat polita)*

**txirikillie, txirikille:** txirikila

*"Txirikillie da olako palotxo bat, ertzak, e, ori dekosena ta, jo olan da tiki! eitten dabena, txirikillie, ta olan bota ta, txirikillie" - (Txirikila da holako makilatxo bat, ertzak, hori dauzkana eta, jo hola eta tiki! egiten duena, txirikila, eta hola bota eta, txirikila)*

*"Txirikillie da, bueno ba, egur bat lusie ba, da beste bat, e, egur bat laburre, e, punta batzukin, puntak sorrostute, bueno ba, akillo batek dekon moruen, bueno es, es untzias ero puntias, eurek, puntie etarata" - (Txirikila da, beno ba, egur bat luzea ba, eta beste bat, egur bat laburra, punta batzuekin, puntak zorrozuta, beno ba, akuilu batek daukan moduan, beno ez, ez iltzeagaz edo puntagaz, eurak, punta aterata)*

*"Txirikille bakixu ser san? palo bat olan, alde bixetatik, e, sertute, puntak sorrostute, da gero ori joteko, ba palo lisu eder bat, bestie, ta bota txirikilloi da aintxe, erredonduen sartu bier, a txirikille" - (Txirikila badakizu zer zen? makila bat hola, alde bietatik, zertuta, puntak zorrozuta, eta gero hori jotzeko, ba makila leun eder bat, bestea, eta bota*

*txirikil hori eta hantxe, biribilean sartu behar, txirikil hura)*

**txirrinkolie:** txirritola

*"Kajetolie esaten geuntzen guk ari, ori dendariak erregalau eitte ban, ixete san, e, egurreko olakoxe kaja biribil bat, me meye, e? erregalua ixate san da, me meye, gorri gorridxe, goso gosue, da presintaute etorte san a, untze txiki txikidxeekin jositte, ta gero, a kajetolie, aren txirrinkolias, tirriiin! erabiltteko, txirrinkolie" - (Kaxatola esaten genion guk hari, hori dendariak erregalatu egiten zuen, izaten zen, egurrezko holakoxe kaxa biribil bat, mehe-mehea, e? erregalua izaten zen eta, mehe-mehe-mehea, gorri-gorria, gozo-gozoa, eta prezintatuta etortzen zen hura, iltze txiki-txikiekin josita, eta gero, kaxatola hura, haren txirrinkolagaz, tirriiin! erabiltzeko, txirrinkola)*

**txopie:** elkar harrapatzen olgetan denean bata bestea harrapatuz gero, esaten den berba

**txopike:** elkar harrapatzen egiten den olgeta

**txorro-morro:** txorro-morro

## 9.2. UMEEN LEXIKOA

**apapa:** apapa, ibiltzeko esaten da

*"Apapa bakixu ser dan?" - (Apapa badakizu zer den?)*

**apatxein, apatxin:** apatxe, jesartzeko esaten da

*"Apatxe ixu ointxe" - (Apatxe egizu oraintxe)*

*"Igor apatxiñ or!" - (Igor apatxe egin hor!)*

**fu:** fu, sua; erretzeko arriskua dagoenean ere esaten da

*"Fu ixu" - (Fu egizu)*

*"Fu, putz eitteko suei, fu ixu" - (Fu, putz egiteko suari, fu egizu)*

**et:** ez

**et et et:** ez, ez, ez

**guaguau:** txakurra

**koko:** txokolatea

**lolo:** lo

**lolo eiñ:** lo egin

*"Ala lolo eitten jun bi au" - (Tira lolo egiten joan behar dugu)*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**maa:** behia

**mama:** ura

*"Urai mama da papa ogidxai, guk estu euki ori oitturioi" - (Urari mama eta papa ogiari, guk ez dugu eduki ohitura hori)*

**miau:** katua

**nanan:** jan

*"Nanan eingau oiñ" - (Jan egingo dugu orain)*

*"Nanan ein biau" - (Jan egin behar dugu)*

**nene:** esnea

**otzoko:** otsoko, ipuinen pertsonaia baten izena

**papa:** ogia

**patxo:** patxoa, musua

**paunbala eiñ:** jausi

*"Paunbala ingosu, e!" - (Punbala egingo duzu, e!)*

**pio-pio:** txoria

**pitxixe:** pitxi, jostailua

**plisti-plasta:** plisti-plasta

**pupu:** mina

*"Pupu da min, seose itten badau be, pupu ei osu" - (Pupu da min, zer edo zer egiten badu ere, pupu egin duzu)*

**pupu eiñ:** min egin, min hartu

**sakamantekasa:** umeak ikaratzeko berau etorriko zela eta eroango zituela esaten zitzaien

*"Sakamantekasa ba gixon okerren bat, nire buruen aixe san orduen! gixon okerra, erute bana ero olako seoser" - (Sakamantekasa ba gizon okerren bat, nire buruan huraxe zen orduan! gizon okerra, eroaten zuena edo holako zer edo zer)*

**tato:** saltoa

*"Emen jarritte ero iguel da, tato!" - (Hemen jarrita edo beharbada eta, tato!)*

**txasta eiñ:** bustikoa egin, basi egin, txasta egin

**txasta-txasta:** bustikoa egin, basi egin

*"Txasta-txasta! urdaixxe ta koipie an, an txasta einye" - (Txasta-txasta! urdaia eta koipea han, han txasta eginda)*

**txatxa:** sagarra, makatza, fruta

**txatxurre:** txatxurra, lehen haginaren irteeran esaten da

*"An txatxurrek urte otze!" - (Han txatxurrek irten diote!)*

**txin txin:** dirua

*"Txin-txin dekat nik" - (Txin-txin daukat nik)*

**txipli-txapla:** txipli-txapla, ur azalean kolpeak emanda egiten den zarata

**txitxi:** okela

**txotxo:** umea

## 9.3. ESKOLA

**errekreue:** atsedenaldea, eskolen arteko etena

*"Gero errekreora bialtzen giñuesan, bua! elispjen, ointxe be bada ba, kultur etxie esta, ser da? oixe san gure eskolie, da oin be an bada, atias, barruen sertxo bat, kuartotxo at, axe san ayuntamentue" - (Gero atsedenaldira bidaltzen gintuzten, bua! elizpean, oraintxe ere badago ba, kultur etxea ez da, zer da? horixe zen gure eskola, eta orain ere han badago, ateagaz, barruan zertxo bat, gelatxo bat, huraxe zen udaletxea)*

**esamiñie:** azterketa

**eskola mutikue:** eskola mutikoa

**eskola sasi:** eskola sasi, sasi eskola

*"Eskola sasi nere semiek ser eitte ban bakixu? granujie okerra san, oin formala da bañe, da, i eskolara jun ari esate notzan, e? Kosme izena, Kosme eskolara jun ari gero! eta bai gaur jun bi ot, jun bi ot, jun bai eskolara, ateraño beraño buelta ein da eskutau, beste batas, da maixuek egun baten errekaue" - (Eskola-sasi nire semeak zer egiten zuen badakizu? granuja okerra zen, orain formala da baina, eta, hi eskolara joan hadi esaten nion, e? Kosme izena, Kosme eskolara joan hadi gero! eta bai gaur joan behar dut, joan behar dut, joan bai eskolara, ateraino beraino buelta egin eta ezkutatu, beste bategaz, eta maisuak egun baten errekadua)*

*"Ei basen sortzi egun bai, tanda baten eskolaa, urten etxetik eskolaa doyen moruen, da eskola sasi" - (Egin zituen zortzi egin bai, txanda baten eskolara, irten etxetik eskolara doan moduan, eta eskola-sasi)*

**eskola umie:** eskola umea

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**eskolie:** eskola

"Ortxe bertan das eskolak oin be, lenguen segidan einye da ta" - (Hortxe bertan dagoz eskolak orain ere, lehengoan segidan eginda dago eta)

"Guk estekau eskola modui pe, esta oin gure moruen, e, eskolatik urten bestabe itten" - (Guk ez daukagu eskola modurik ere, ez da orain gure moduan, eskolatik irten ere ez dute egiten)

"Eskolara ba, ona, da lelenguen, e, emen erriko eskolak barik abade bi euesan ordun, iru, oiñ abadiak faltan das bañe, oin baño, saspireun abitante eukesan ordun Saldibarrek, e, gerra aurrien, da oiñ, e, iru bat mille ero, iru pasau ero estakitt, olakomat deko" - (Eskolara ba, hona, eta lehenengoan, hemen herriko eskolak barik abade bi zeuden orduan, hiru, orain abadeak faltan daude baina, orain baino, zazpiehun bizilagun zeuzkan orduan Zaldibarrek, gerra aurrean, eta orain, hiru bat mila edo, hiru pasatu edo ez dakit, holakoren bat dauka)

**estudidxue:** estudioa

"Bai ori bai bañe, jakittie dok bat eta beste bat dok i, olan, e, asko moruen nik estudidxo gitxi ekat eta, selan jakingo dxoa pa nik, e, enteniu, dana neuk ikasi otena, ero erakutzi osten apurtxo bat besteik es, ser esango pa?" - (Bai hori bai baina, jakitea duk bat eta beste bat duk hi, hola, asko moduan nik estudio gutxi zaukaat eta, zelan jakingo diat ba nik, ulertu, dena neuk ikasi dudana, edo irakatsi didaten apurtxo bat besterik ez, zer esango dut ba?)

**kartoye:** alfabetoa ikasteko erabiltzen zen materialaren izena

**kastigue:** zigorra

"Da korda batas samatik lotu, da errekreora bialdu ginyusen beste bat, bi, ba guk, an, egon sa Saldibarko elispieen iños? bueno goiko elispie ta beko esatakos, ba goikue san eskillaren kontra dauena, gorako, jarri an bankuen, a bankue oin be iguela da, jarri an bankuen basterren kontran, karo tiratu eitte ban, da miñ emote ban arek, da burle be itte ben da aras ibili be esiñ eiñ, denpora gustidxen jarritte egon gu bidxok aintxe ta ala! da gero

errekreorako ordue pasetan sanien gora, atzera, kartel orras" - (Eta korda bategaz samatik lotu, eta atsedenaldira bidali gintuen beste bat, bi, ba guk, han, egon zara Zaldibarko elizpean inoiz? beno goiko elizpea eta beheko esaten zaizkio, ba goikoa zen eskailleraren kontra dagoena, gorako, jarri han jarlekuan, jarleku hura orain ere berdina da, jarri han jarlekuan bazterraren kontra, jakina tiratu egiten zuen, eta min ematen zuen hark, eta burle ere egiten zuten eta haregaz ibili ere ezin egin, denbora guztian jarrita egon gu biok hantxe eta tira! eta gero, atzera, kartel horregaz)

**kuadernue:** koaderno

**letrie:** letra

"Da emosten alako, ixeni parik euen, da alako bat emosten, e, letrak eitteko" - (Eta eman zidan halako, izenik barik zegoen, eta halako bat eman zidan, letrak egiteko)

**liburue:** liburua

"Estot ekarri liburu bape" - (Ez dut ekarri liburu bat ere)

**numerue:** zenbakia

"Amairu es genduesen ipiñiko se amairu beti ixen da amen numero txarra" - (Hamahiru ez genituen ipiniko ze hamahiru beti izan da hemen zenbaki txarra)

**maistrie:** maistra

"Ba, gu eskolan normal, da gure maistrie ixate san geitxua ekidxena, aunke piskat, e, edadien iguel etzan ongo alde aundiik, bañe jakittuntxuauek sienak, arek ixate sien gure maistrak, gure maistrias, guk maistrias biar gutxi eitten genduen, maistriek berak ipintten sittun maistrak" - (Ba, gu eskolan normal, eta gure maistra izaten zen gehitxoago zekiena, nahiz eta pixka bat, edadean beharbada ez zen egongo alde handirik, baina jakituntxoagoak zirenak, haiek izaten ziren gure maistrak, gure maistragaz, guk maistragaz behar gutxi egiten genuen, maistrak berak ipintzen zituen maistrak)

**maisue, maixue:** maisua

"Grupo baten, maistra batas oten giñien neskak eta maisu batas mutillek" - (Talde

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*baten, maistra bategaz egoten ginen neskak eta maisu bategaz mutilak)*

*"Da or juen da kastillanue maixue ta guk eskeuntzen, e, aittu be eseben eitten esateko, gausa batzuk, bañe gero denporias bakixu, sartu giñesan" - (Eta hor joan eta Gaztelakoa maisua eta guk ez genion, aditu ere ez zuten egiten esateko, gauza batzuk, baina gero denboragaz badakizu, sartu ginen)*

**numerue:** zenbakia

**papela:** papera

**tintie:** tinta

## 10. DENBORA

Denboraren gaineko berbak aurkezteko atal hau ondoko azpi-ataletan banatuta emango dugu: urtaroak, hilak, astegunak, denboraren banaketa, egunaren banaketa eta egunen arteko erlazioak

### 10.1. URTAROAK

**negue:** negua

*"Sagar asko ganbaran eote san negu gustien" - (Sagar asko ganbaran egoten zen negu gustian)*

*"Neguen ba, txoridxe eta asten dienien pasetan, onek berus doyesenak, seguru" - (Neguan ba, txoriak eta hasten direnean pasatzen, hauek beherantz doazenak, seguru)*

*"Arek burdidxe negu partien eitte ban osoik ardas da gusti" - (Hark gurdia negu partean egiten zuen osorik ardatz eta guzti)*

**urebarridxe, udabarridxe:** udaberria

*"Amentxe, trenak jota erueuen, da gero, egurrek pasa dan, e, neguen, es, urebarridxen, ortxe sarraparrak kentzen ibili ga ta umie berarena ilye euen bertan" - (Hementxe, trenak jota eroan zuen, eta gero, egurrak pasatu den, neguan, ez udaberrian, hortxe zarraparrak kentzen ibili gara eta umea berarena hilda zegoen bertan)*

**udegodxena, udegona, udaguena, uregona:** udagoiena, udazkena

*"Nik entzunde dekat aittei, nik estot esautu ori bañe, idie ebateko sasoye etorte sanien sera, udaguenien da, etxe askotan, etorte siela, ba karo idie ebai biar!" - (Nik entzunda daukakiot aitari, nik ez dut ezagutu hori baina, ira ebakitzeko sasoia etortzen zenean zera, udagoienean eta, etxe askotan, etortzen zirela, ba jakina ira ebaki behar!)*

**udie, urie:** uda

*"Uran ba bedarrak etara, urebarridxen eraiñ, eta gero uran ba landarie jadxoten danien, ba arek bedarrak etara eskuas" - (Udan ba belarrak atera, udaberrian erein, eta gero udan ba landarea jaiotzen denean, ba belar haiek atera eskuz.)*

### 10.2. HILAK

**abendue:** abendua

**agostue:** abuztua

*"Aurten be agostuen arekin beruekin lorak eta, bueno!" - (Aurten ere abuztuan bero haiekin loreak eta, beno!)*

**aprille:** apirila

*"Aprillen lenengo ixaten da en jeneral amen" - (Apirilean lehenengo izaten da gehienetan hemen)*

**enerue:** urtarrila

*"Ilbera baño, nik, ilberiei beti beittu otzat bañe gedxa, e, febrerue, orduko, eneruen ya amaitute on bi da egurre ebatie" - (Ilbehera baino, nik, ilbeherari beti begiratu diot baina gehiago, zezeila, orduko, urtarrilean ja amaituta egon behar da egurra ebakitzea)*

**febrerue:** otsaila, zezeila

**julidxue:** uztaila, garagarrila

**junidxue:** bagila, ekaina

**martidxe:** martia, martxoa

*"Altza dok martiko ilbarridxen" - (Haltza duk martiko ilberrian)*

**mayatza, mayetza:** maiatza

**nobienbre:** zemendia, azaroa

**otubre:** urria

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*"Orduen eseuen astiik, oingo moruen ala? bixi ala? orduen? ura sasoyen otubretik, setienbre otubre, nobienbre, ire ebaten basora" - (Orduan ez zegoen astirik, oraingo moduan ala? bizi ala? orduan? uda sasoiari urritik, iraila urria, zemendia, ira ebakitzen basora)*

**setienbre:** iraila

*"Gero setienbrien beste ogetabost ero" - (Gero irailean beste hogeita bost edo)*

**urridxe:** urria

## 10.3. ASTEGUNAK

**astelena:** astelehena

*"Badakitt astelena dana" - (Badakit astelehena dena)*

**barixekue, baridzekue:** barikua, ostirala

*"Il ye ba porejnplo urrengo astien, e, aste bittartien asartetan bada baridzekue ero asartetan bada, ba urrengo astelena, martitxena ta eguastena, da asartetan bada astien martitxena ero, ba eguastena, baridzekue ta sapatue" - (Hil eta ba esate baterako hurrengo astean, aste bitartean suertatzen bada barikua edo suertatzen bada, ba hurrengo astelehena, martitzena eta eguaztena, eta suertatzen bada astean martitzena edo, ba eguaztena, barikua eta sapatua)*

**domekie:** domeka, igandea

*"Domekan etorriko nas" - (Domekan etorriko naiz)*

**eguen:** eguena, osteguna

**eguastena:** eguaztena, asteazkena

**martitxena, martitzena:** martitzena, astearte

*"Abadiak eurek etorte akusen, da martitxena ta eguena ero" - (Abadeak eurak etortzen zitzaizkigun, eta martitzena eta eguena edo)*

**sapatue:** sapatua, larunbata

## 10.4. DENBORAREN BANAKETA

**afalostie:** afalostea

**amabosta:** hamabosta, hamabostaldia

**astegune:** asteguna

**astie:** astea

*"Ementik lau astera jun biar dot" - (Hemendik lau astera joan behar dut)*

*"Lau astien eo nas gaixoik" - (Lau astean egon naiz gaixorik)*

**astidxe, astixe:** astia

*"Trumo saparrara bat etorri orduko ba biskor ein biar eta sarritten ba eseban astirik emoten" - (Trumoi zaparrada bat etorri orduko ba bizkor egin behar eta sarritan ba ez zuen astirik ematen)*

*"Baeuen astiik ala kontetako?" - (Bazegoen astirik ala kontatzeko?)*

**beskalordue:** bazkalordua

**beskalostie:** bazkalostea

*"Ortako bananguen entzuten da beskaloste baten" - (Horretarako bananguen entzuten eta bazkaloste baten)*

**bider:** bider

**besperie:** bezpera

*"Len, e, karo eseu, e, frigorifikoik, da, ollue ta iltte sien besperan, da eskeitte sien bentanan, freskuran eoteko" - (Lehen, jakina ez zegoen, hozkailurik, eta, oiloa eta hiltzen ziren bezperan, eta eskegitzen ziren leihoan, freskuran egoteko)*

**bolarie:** bolada

**denporie:** denbora

*"Denporan larreidixen eukittie be esta ixaten ona, e? asko sikatzen die ta, denpora askuen eukittie be" - (Denboran larregian edukitzea ere ez da izaten ona, e? asko sikatzen dira eta, denbora askoan edukitzea ere)*

**egun erdidxe:** egun erdia

**egune:** eguna

*"Andik iru egunera barrido ikusi nabem" - (Handik hiru egunera berriro ikusi nuen)*

*"Bueno San Blas, neure egune ixaten da gañera" - (Beno San Blas, neure eguna izaten da gainera)*

**epie:** epea, tartea

**epokie:** sasoi, aldia

**gabon ostie:** gabon ostea

**gaste denporie:** gazte denbora

*"Len asko, e? len gure gaste denporan da asko ikuste san" - (Lehen asko, e? lehen gure gazte denboran eta asko ikusten zen)*

**gerra denporie:** gerra denbora



# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Or gerra denporan eskutatute eon sien" -  
(Hor gerra denboran ezkutatuta egon ziren)

"Gerra denpoan ilten ibilli sienien, nik amar urte euki nebasan da" - (Gerra denboran hiltzen ibili zirenean, nik hamar urte eduki nituen eta)

**gerra ostie:** gerra ostea

"Guk gerran baño gerra ostien billur aundidxaue pasau gendun, geu pe" -  
(Guk gerran baino gerra ostean bildur handiagoa pasatu genuen geuk ere)

**gose sasoye:** gose sasoa

**gripe denporie:** gripe denbora

**illabetie:** hilabetea

"Ori ixengo da ba, illabetekue, ille bikue, iru illabete, iru, erroko txala, da ori erroko txala erosten dabe baserritarrak" - (Hori izango da ba, hilabetekoa, hil bikoa, hiru hilabete, hiru, erroko txahala, eta erroko txahal hori erosten dute baserritarrek)

"Gero etxien ego nitzen ba illabete inguru, amabost egunerako bialdu ninyuen da, illabete baño gedxa ei naban da" - (Gero etxean egon nintzen ba hilabete inguru, hamabost egunerako bidali ninduten eta, hilabete baino gehiago egin nuen eta)

**illie:** hila

**jai besperie:** jai bezpera

**lora sasoye:** lore sasoa

**minutue:** minutua

"Beti araxe jute san, ametik orra amar bat minutu ero da, landa baten" - (Beti haraxe joaten zen, hemendik horra hamar bat minutu edo dago, landa baten)

**momentue:** momentua

**negu denporie:** negu denbora, negu sasoa

"Amen negu denporan, ba feridxa gustietara jute sien" - (Hemen negu denboran, ba azoka guztietara joaten ziren)

**ordue:** ordua

"Ordu bete daroyet itxeitten" - (Ordu bete daroat itxaroten)

**ordu erdidxe:** ordu erdia

"Ordu erdire juen san" - (Ordu erdira joan zen)

**ordu larena:** ordu laurena

"Eibarti pe bai ordu launien sas amen" -  
(Eibartik ere bai ordu laurenean zaude hemen)

**ordu t'erdidxe:** ordu eta erdia

**sartzarue:** zahartzaroa

**sasoye:** sasoa

"Bueno, e, ganaue setarako dan, busterrireko ixen ero esnerako ixen ero, ero okelatzeko ixen ero, ba or be aldie dau" - (Benoa, ganadua zertarako den, buztarrirako izan edo esnerako izan edo, edo, okelatzeko izan edo, ba hor aldea dago)

**urte erdidxe:** urte erdia

**urtie:** urtea

"Abastosek, e, euren partie kentze otzuen da orduen dana deklaratan basenduen, ba urtie amaittu orduko gari barik geatzen siñen da uruni parik" - (Abastosek euren partea kentzen zizuten eta orduan dena deklaratan bazenuen, ba urtea amaitu orduko gari barik geratzen zinen eta irinik barik)

"Ogetaka urtiek ixengo dire ikusi estotela" -  
(Hogeitaka urteak izango dira ikusi dudala)

"Larogetaka urtiek dekos arek" -  
(Laurogeitaka urteak dauzka hark)

**urte t'erdidxe:** urte eta erdia

## 10.5. EGUNAREN BANAKETA

**arratzaldie, atzaldie:** arratsaldea

"Gurien etxekue san, e, ni jute nitzen goxien, eta, ebate naban, gois gustie ebaten eitte naban, biarra da, e? ebaten eitte neban, eta etorte nitzen etxera, beskaldu, da ondio biarra eote san etxien, ganauai emon ero dana dalakue, biarra, eta gero, beskalostien siesta apurtxo bat eitte san, da urtete san, burdidxas aitte, da ni amas da, besten batas, a nik ebai nabana batzen, eta gero kargau burdidxe, lotu, da etxera ekarri, goxien ebaten dana arratzaldien ekarri etxea" - (Gurean etxekoa zen, ni joaten nintzen goizean, eta, ebakitzen nuen, goiz guztia ebakitzen egiten nuen, beharra da, e? ebakitzen egiten nuen, eta etortzen nintzen etxera, bazkaldu, eta oraindino beharra egoten zen etxean, ganaduari eman edo dena delakoa, beharra, eta gero, bazkalostean

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*siesta apurtxo bat egiten zen, eta irteten zen, gurdiagaz aita, eta ni amagaz eta, besteren bategaz, hura nik ebaki nuena batzen, eta gero kargatu gurdia, lotu, eta etxera ekarri, goizean ebakitzen dena arratsaldean ekarri etxera)*

**bart:** bart

**eguerdidxe, eberdidxe, egurdixe:** eguerdia  
*"Ta esate ban gure aitek, gaur dan, e, garixe joteko moruko, garixe sabaldu xonau, beti neri, ba ni eo nitzen etxien da, ba or, e, sastaixen da or, sabaltze genduen, da egurdi egurdixen, amabixetatik ordu bixetara gari jotzen, tejamanan, tejamanan, a bai bierra!" - (Eta esaten zuen gure aitak, gaur zagon, garia jotzeko moduko, garia zabaldu dinagu, beti niri, ba ni egon nintzen etxean eta, ba hor, sastegian dago hor, zabaltzen genuen, eta eguerdi-eguerdian, hamabietatik ordu bietara gari jotzen, tejabanan, tejabanan, hura bai beharra!)*

**gaba:** gaua

*"Oin gabeko amaiketan da urten one pe, eitten dabe ta goxien itxera, da olantxik, oiñ esta billurrik gabien" - (Orain gaueko hamaiketan eta irten hauek ere, egiten dute eta goizean etxera, eta holantxe, orain ez da bildurrik gauean)*

**gaberdixe:** gau erdia

**goixaldie:** goizalde

*"Etorrikata indultue, indultue bai, goixaldien diarra, ta berak esate ban, lepue, etara ebela ateraño" - (Etorriko zait indulto, indulto bai, goizaldean deiarra, eta berak esaten zuen, lepoa, atera zutela ateraino)*

**goixe:** goiza

*"Domeka goixetan anbulante ibiltte san bat" - (Domeka goizetan ibiltari ibiltzen zen bat)*

**illuntabarra:** ilunabarra

*"Ordue goixien da, eguerdidxen da illuntabarrien" - (Ordua goizean eta, eguerdian eta ilunabarrean)*

**illuntzie, illuntzidxe:** iluntzea

*"Gure aitek eukitte ban goixien ill ye illuntzirartien" - (Gure aitak edukitzen zuen goizean hil eta iluntzera arte)*

## 10.6. EGUNEN ARTEKO ERLAZIOAK

**areñeun, arañeun:** herenegun

**atzo:** atzo

*"Atzotik estot ikusi" - (Atzotik ez dut ikusi)*

**bixamonien, bidxamonien, bidxagonien:** biharamunean

*"Eitte sittuen or saprastada batzuk eta, atzera be bidxamonien lengo moruen, esebes" - (Egiten zituen hor zaprastada batzuk eta, atzera ere biharamunean lehengo moduan, ezer ere ez)*

**bidxar, bixar, bidxer:** bihar

*"Umen bat etorriko da bidxer" - (Umeren bat etorriko da bihar)*

*"Bixar etorten danien akabetan eongo nas" - (Bihar etortzen denean amaitzen egongo naiz)*

**etzi :** etzi

**etzidamu:** etzidamu

**gaur:** gaur

*"Au gaurko ixen da" - (Hau gaurko izan da)*

*"Selako egun txarra eitten daben gaur!" - (Zelako egun txarra egiten duen gaur!)*

## 11. METERELOGIA

Metereologiari dagokion atal hau honako azpi-ataletan banatuta aurkezten dugu: eguraldia, euria, ekaitza, elurra-leia, haizea, lainoa-hedoia eta tenperatura.

### 11.1. EGURALDIA

**arue:** aroa

*"Aro ona ba, nik gaur ei ot goldaketan, bidxar euriik espada, da, asala einye, siketute, a goldaketan gaur eiñ, eta euridxe arrapetan badau aro txarra" - (Aro ona ba, nik gaur egin dut goldaketan, bihar euririk ez bada, eta, azala eginda, sikatuta, hura goldaketan gaur egin, eta euriak harrapatzen badu aro txarra)*

**denporie:** eguraldia

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Denpora ona eiñeskero juen leike basora" -  
(Eguraldi ona eginez gero joan liteke  
basora)

"Ardidzek gora igoten dabenien illuntzidxen  
denpora ona" - (Ardiek gora igotzen  
dutenean iluntzean eguraldi ona)

"Ardidzek eta gora badoyes denpora ona" -  
(Ardiak eta gora badoaz eguraldi ona)

"Ganauek estakitt, bañe ardixek eta bai,  
ardixek eta bajatu eitten die danak,  
nobedade txarra datorrenien, euren  
tokire, da orrek ganau gorriko pe bai,  
orre pe igerte otze" - (Ganaduek ez dakit,  
baina ardiak eta bai, ardiak eta baxatu  
egiten dira denak, berri txarra  
datorrenean, euren tokira, eta horiek  
ganadu gorriok ere bai, horiek ere  
ihartzen diote)

**kuarta denporak:** karta-denborak

"Beren aurrekuek ero esate ban kuarta  
denporak, e, martitzenetik eguastenerako  
gauben amabidxetan se aixek jote ban, e,  
bañe gero ori, karo, or iretargidxen gora  
beratan, nik pentzetot ori aitzen dabenak  
oso jente gutxi dauela, e?" - (Beraren  
aurrekoak edo esaten zuen karta-  
denborak, martitzenetik eguastenerako  
gauean hamabietan ze haizek jotzen zuen,  
baina gero hori, jakina, hor iretargiaren  
gora beheetan, nik pentsatzen dut hori  
aditzen dutenak oso jende gutxi dagoela,  
e?)

"Gure aittek esate ban, beren sera, Oisera  
jute siela, lasta eskutak an isotze sittuela,  
Oisera jun da an, e, isotze sittuela, sue  
emote otzela, ekusteko aixiek, e, se  
martxa daruen, da ori ixate san,  
martitzenetik eguastenerako gauben" -  
(Gure aitek esaten zuen, beraren zera,  
Oitzera joaten zirela, lasto eskutak han  
isiotzen zituztela, Oitzera joan eta han,  
isiotzen zituztela, sua ematen zietela,  
ikusteko haizeak, ze martxa daroan, eta  
hori izaten zen, martitzenetik  
eguastenerako gauean)

"Arek esate ban urtien lelengo amabi egunek  
eukitten dabela, markaute eukitten  
dabela, urte gustireko illek" - (Hark  
esaten zuen urtearen lehenengo hamabi  
egunek edukitzen dutela, markatuta  
edukitzen dutela, urte guztirako hilak)

**sikutie:** sikatea

"Eibertik badator, Arrateko kanpayek  
entzuten badie sikutie" - (Eibarretik  
badator, Arrateko kanpaiak entzuten  
badira sikatea)

"Iferra ortik badator, ortik, e, Bergara ero  
ortik, Eiberko kanpaye ta orrek entzuten  
badie, sikutie seguru" - (Iparra hortik  
badator, hortik, Bergara edo hortik,  
Eibarko kanpaia eta horiek entzuten  
badira, sikatea ziur)

## 11.2. EURIA

**afrontue:** afrontua

"Gaur etxiostien afrontuak datok" - (Gaur  
etxe-ostean afrontuagaz zatorrek)

**arkoirixe:** ostarkua, ostadarra

"Guk arkoirixe esa otzau" - (Guk uztarkua  
esaten diogu)

"Arkoirixek bai urtenten dau, ori danien beti  
arkoirixek urteten dau" - (Ostarkuak bai  
irteten du, hori denean beti ostarkuak  
irteten du)

"Arkoirixe errekatik erre kara oten da" -  
(Ostarkua errekatik erre kara egoten da)

**arriabarra:** euria eta txingorra batera

**asarue:** azarua, lurrerako onuragarria den  
euria da

"Normalmente denpora txarra dauenien  
esaten da, asarue dak" - (Normalean  
eguraldi txarra dagoenean esaten da,  
azarua zagok)

"Au dok asaruen ederra!" - (Hau duk  
azaruaren ederra)

"Erromolatxak etara bi die ero, ero bestie  
ta, buf! asaro txarra dak gaur" -  
(Erromolatxak atera behar dira edo, edo  
bestea eta, buf! azaro txarra zagok gaur)

"Lurre siketute eoneskero, ta euridxe iñ,  
asarue" - (Lurra sikatuta egonez gero,  
eta euria egin, azarua)

**aterri:** ateri

**aterrunie:** aterrunea

**euridxe, eurixe:** euria

"Nik Anbotoi, Anbotoko txapela, Anbotoko  
puntiek txapela badeko, bixamonien  
eurixe da, eurixe ero lanbrue ero txarra"  
- (Nik Anbotori, Anbotoko txapela,

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*Anbotoko puntak txapela badauka, biharamunean euria da, euria edo lanbroa edo txarra)*

**euri gogorra:** euri gogorra

**euri lanparra:** euri lanparra, euri lanbroa

**euri mardule:** euri mardula

**euri sendue:** euri sendoa

**euri ugerra:** euri ugerra

**garbiunie:** garbiunea, garbi unada

**lanbrue:** lanbroa, lanparra

*"Da karo, eitte ban untxe eitten daben morukue, egunero egunero egunero, lanbrue lanbrue lanbrue, ta jota! euesan terrenuek danak jota ures gañeska euesan" - (Eta jakina, egiten zuen oraintxe egiten duen modukoa, egunero-egunero-egunero, lanbroa-lanbroa-lanbroa, eta jo eta! zeuden terrenoak denak jo eta urez gainezka zeuden)*

**lanparra:** lanparra

**lupetzie:** lupetza, basatza

**puspillue:** pustila, burbuila

*"Puspilluek eitten dabenien esaten dabe ba euridxai diarres" - (Burbuilak egiten dutenean esaten dute ba euriari deiadarrez)*

**saparrarie:** zaparrada

*"Oin saparrarie bota dau" - (Orain zaparrada bota du)*

*"Pillo batzuk eiñ, olan, e, apur bat ba saparrara, ta ori ba saparrara aundixe espada, pasau eitte san da gero sabaldu eta siketu, siketu bat artu eta ixate san" - (Pilo batzuk egin, hola, apur bat ba zaparrada, eta hori ba zaparrada handia ez bada, pasatu egiten zen eta gero zabaldu eta sikatu, sikatu bat hartu eta izaten zen)*

**sirimiridxe:** zirimiria

*"Ugerra da sirimiridxe, lanbrue ta ori" - (Ugerra da zirimiria, lanbroa eta hori)*

**tangie:** tanga, txiztila

*"Tangak asten danien jausten, gero euridxe botala" - (Tangak hasten denean jausten, gero euria bota-ahala)*

**txipristiñe, sipristiñe:** txilipristada, zipriztina

**ufala, ujala:** uriola

*"Oñes giñoyesela, erreka bi pasau gendusen, da guk pasau te ensegida,*

*enbaltzie ero aginyu otzen, da egon giñen iru egunien eser jatekoik eta eser be barik, suminstruek esien pasau, errekek, ujalak" - (Oinez gindoazela, erreka bi pasatu genituen, eta guk pasatu eta behingoan, aintzira edo agindu zioten, eta egon ginen hiru egunean ezer jatekorik eta ezer ere barik, suministroak ez ziren pasatu, errekek, uriolak)*

**umedadie:** hezetasuna, umeltasuna

**uridxolie:** uriola, uholdea

**ur golpie:** ur kolpea

## 11.3. EKAITZA

**denporalie:** denboralea, ekaitza

**oñestarridxe:** oinaztarria

*"Oñestarridxe nik pentzetot, e, esatakola, e, jausi danien nunbaittera" - (Oinaztarria nik pentsatzen dut, esaten zaiola, jausi denean nonbaitera)*

**oñestue:** oinaztua

*"Ganaue, oñestue eta datosenien asustau, ganaue argidxe da ortan" - (Ganadua, oinaztua eta datozenean ikaratu, ganadua argia da horretan)*

*"Oñestuek das" - (Oinaztuak dagoz)*

**tenporala:** denboralea

**trumonadie:** trumonada

**trumo denporie:** trumoi denbora

**trumonotza:** trumoi-hotsa

*"Urriñ entzun de, ene! trumonotza dak" - (Urrun entzun eta, ene! trumoi-hotsa zagok)*

**trumo saatie:** trumoi zarata, trumoi-hotsa

**trumo saparrarie:** trumoi zaparrada

*"Entzun guresuai tte asko lupue ta, lenako denporan, e, trumo saparrarie itte banien da, aren atzien, e, gana jatekuen bille, sekularren bille ero jutie txarra sala esate ben lenakuk, se gurien, e, aittitte ortxe godxen baserridxen, ortxe bixi sien goiko kamiño eskiñan, oin be an da baserridxe da, beiñ, e, pasau ei dxakien, sekule bedarra ekarri, trumo saparrarien atzien, eta bedxek, e, ser? axatu, txarto, da ibilttie sala ona, da ona goiko baserrirañoko, e, goitti bera ekarri tte bertan, e, ill eiñ ei dxakuen, e,*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*errementaute, bedxe" - (Entzun gurasoei eta asko lupua eta, lehenagoko denboran, trumoi zaparrada egiten zuenean eta, haren atzean, ganadu jatekoaren bila, sekularen bila edo joatea txarra zela esaten zuten lehenagokoek, ze gurean, aitaita hortxe goian baserrian, hortxe bizi ziren goiko kamino izkinan, orain ere han dago baserria eta, behin, pasatu ei zitzaien, sekula belarra ekarri, trumoi zaparradaren atzean, eta behiak, zer? haizatu, txarto, eta ibiltzea zela ona, eta hona goiko baserriraino, goitik behera ekarri eta bertan, hil egin ei zitzaien, errementatuta, behia)*

**trumoye:** trumoi

*"Arixena, e, sala, trumo ostien ekarri ebela ta ba, ba estakidxela, orduen lupue ta esate ben, trumo ostien, e, subie be, trumoyas, e, asko ibiltzen da, e? trumo denporie dauenien" - (Harexena, zela, trumoi ostean ekarri zutela eta ba, ba ez dakitela, orduan lupua eta esaten zuten, trumoi ostean, sugea ere, trumoiagaz, asko ibiltzen da, e? trumoi sasoi dagoenean)*

*"Nire aittittek, e, entzunde nik, e, olan trumoye euenien ero, artze bala askorie ta, estakitt, e, kanpuen, e, ortuen ero nunbaitten, ipintte bala, ara jun daitten ero" - (Nire aitaitak, entzunda nik, hola trumoi zegoenean edo, hartzen zuela aizkora eta, ez dakit, kanpoan, ortuen edo nonbaiten, ipintzen zuela, hara joan dadin edo)*

*"Konjurue ba, aste sanien, e, trumoyek eta, etzienien sertzzen ba, konjuru eitte ben, trumoyorrek itxi deidxen jotiei, da kanpora urten ba, farolas da, erresau eitte ban abadiak eta" - (Konjurua ba, hasten zenean, trumoiak eta, ez zirenean zertzzen ba, konjuru egiten zuten, trumoi horiek utzi diezaioten jotzeari, eta kanpora irten ba, farolagaz eta, erreztatu egiten zuten abadeak eta)*

## 11.4. ELURRA-LEIA

**arridxe:** harria, txingor handia

**edur bustidxe:** elur bustia

**edur matasie:** elur-mataza, elur-metxa, elur maluta

**edurre:** elurra

*"Edurre ona da lurrentzako" - (Elurra ona da lurrentzat)*

**edur sikue:** elur sikua

**edurtie:** elurtea

*"Edurte luse bat ei ban, edurte bat estakit nik illabete ero gedxa semat ei ban" - (Elurte luze bat egin zuen, elurte bat ez dakit nik hilabete edo gehiago zenbat egin zuen)*

**edurtzie:** elurtza

**edur seye:** elur xehea

*"Ointxe in yau amen, lengo baten, e, ni kasuen arrapau niñuen edur seyek ganera" - (Oraintxe egin du hemen, lehengo baten, ni kasuan harrapatu ninduen elur xeheak gainera)*

**edur ure:** elur ura

**freskurie:** freskura, ihintza

**iruntze, iluntze:** ihintza

**ixos baltza:** izotz beltza

**ixotza:** izotza

**kandelie:** kandela, elur kandela

**karrayue:** karroina, kristala; ur potxingoetan ura elur bihurtzea

*"Ure gogortzen danielen karrayue" - (Ura gogortzen denean karroina)*

**leidxe:** leia

**lei baltza:** lei beltza

**lei suridxe:** lei zuria

**matasie:** mataza, metxa, maluta

**surdeidxe:** zurdeia

**txingorra:** txingorra

## 11.5. HAIZEA

**airie:** airea

**aixie:** haizea

**bekue, beko aixie:** beheko haizea, mendebaldeko haizea

*"Bai iferra amengue iferra au otzau, orras esta lumbagoik, oin dabillanas, oiñ, oiñ, da bekue beste bat, eurixe ekarten dabena, Durangotik datorren oi, ori, bekue da" - (Bai iparra hemengoa iparra hotz hau, horregaz ez da lumbagorik,*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*orain dabilenagaz, orain, orain, eta behekoa beste bat, euria ekartzen duena)*

*"Bai tte burrukan ekitte otze, gure aittek esate ban, beittu jun kanpora burrukan dabixen aixiek, iferra da bekue, aber señek irabasten daben, ori beti esate ban, beti" - (Bai eta borrokan ekiten diote, gure aitak esaten zuen, begiratu joan kanpora borrokan dabiltzan haizeak, iparra eta behekoa, ea zeinek irabazten duen, hori beti esaten zuen, beti)*

**egoye, ego aixie:** hego haizea

*"Egoye ortik, Elorrio or gero iferra ortik Mallabia aldetik eta au mendebala" - (Hegoa hortik, Elorrio hor gero iparra hortik Mallabia aldetik eta hau mendebala)*

*"Ego aixiek jotzen badau, arek egun bat ero bi onak eta, seguruek emote ittu irugarrenien iguel, e, sera eurixe etorriko da, ego aixie ori ixaten da, esta? sarritten, da arek gañera, selan laguntzen daben sera, e, bedarra sikatzen erres, a egun eta gabes sikatzen da, aritxi begittu, da kontus ibilli, esta? se beti ixaten da ba, karo! ego aixie iguel egun askotan esta eoten ta kasik seguru seguru arek, e, jotiei isten baotza eurixe etorriko dala" - (Hego haizeak jotzen badu, hark egun bat edo bi onak eta, ziurrak ematen ditu hirugarrenean beharbada, zera euria etorriko da, hego haizea hori izaten da, ezta? sarritan, eta hark gainera, zelan laguntzen duen zera, belarra sikatzen erraz, hura egun eta gauez sikatzen dago, harexeri begiratu, eta kontuz ibili, ezta? ze beti izaten da ba, jakina! hego haizea beharbada egun askotan ez da egoten eta kasik ziur-ziur hark, jotzeari uzten badio euria etorriko dela)*

*"Aixie ta, atzo esa notzan nik, ai nere mokorrak, da nere mokorrak, e! esa notxan bai, ego aixie daton" - (Haizea eta, atzo esan nion nik, ai nire mokorrak, eta nire mokorrak, e! esan nioan bai, hego haizea zatorren)*

**frantzi iparra:** frantzi-iparra

*"Aprillien jo dxoan onek Arrate osteko onek, e, frantzi iparra ero esaten otzaun frantzi iparra" - (Apirilean jo zian honek Arrate*

*osteko honek, frantzi-iparra edo esaten diogun frantzi-iparra)*

**gallegue:** mendebal haizea

*"Guk, e, ortik denporalie datorrenien gallegue esate otzau" - (Guk, hortik denborala datorrenean gailegoa esaten diogu)*

**ifarra, iferra:** ekialdeko haizea

*"Alan da gusti be, nik txikitten eta ikusitte eta ba! bueno! sarritten ixaten san ba, al dan moruen or gaur ona badak eta bixar estakit ser ero iferrak jotzen badau uda partien iferrak jotzen dabenien denpora segurutxuau eoten da, esta?" - (Hala eta guztiz ere, nik txikitan ikusita eta ba! beno! sarritan izaten zen ba, ahal den moduan hor gaur ona bazagok eta bihar ez dakit zer edo iparrak jotzen badu uda aldean iparrak jotzen duenean eguraldi ziurtxoagoa egoten da, ezta?)*

**ifer aixie:** ekialdeko haizea

*"Illuntzien, e, ifer aixie bada, piskat, trankil, oiñ, gogor bada, bidxamonien euridxe o leike, bañe trankil bada, atzo t'arañaun da, egon dan morun, gaur estakitt selan eongo dan, egon dan moruen, bidxamonien denpora ona" - (Iluntzean, ipar haizea badago, pixka bat, trankil, orain, gogor badago, biharamunean euria egon liteke, baina trankil badago, atze eta herenegun eta, egon den moduan, gaur ez dakit zelan egongo den, egon den moduan, biharamunean eguraldi ona)*

**itxoso aixie:** itsaso haizea

*"Oistik datorrena be bai, a itxoso aixie da, itxoso aixie, denpora otza" - (Oiztik datorrena ere bai, hura itsaso-haizea da, itsaso haizea, eguraldi hotza)*

**korrientie:** korrontea

*"Korrientie ongo san a amatetako posporue" - (Korrontea egongo zen hura amatatzeko posporoa)*

**mendebala:** mendebala

*"Guk aixiek beittu, mendebala, iferra eta egoye" - (Guk haizeak begiratu, mendebala, iparra eta hegoa)*

**nafar egoye:** nafar hegoa, neguko haize hotza

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Nafar egoye beti osaba Dionisiok esaten dxuen ori dok otza, neguen otza dabillenien, neguen da, egoye barik esaten dxuen arek, au da nafar egoye" - (Nafar hegoa beti osaba Dionisiok esaten zian hori duk hotza, neguan hotza dabilenean, neguan da, hegoa barik esaten zian hark, hau da nafar hegoa)

**naparra:** nafar hegoa, neguko haize hotza

**nortie:** iparra

## 11.6. LAINOA-HEDOIA

**belañue:** behe-lainoa

"Belañue bajatzen da, esate osu ya bidzar lanparra, iguel denpora ederra ta, asten da arratzaldien belañue belañue, Santa Maiñe Sarrien" - (Behe-lainoa baxatzen da, esaten duzu ja bihar lanparra, beharbada eguraldi ederra eta, hasten da arratsaldean behe-lainoa behe-lainoa, Santa Marina Zarrean)

"Belañue da ba beyen dauenien bañe" - (Behe-lainoa da ba behean dagoenean baina)

**laño gorridxe:** laino gorria

**lañue:** lainoa, hodeia

"Anbotoko puntie lañuas dauenien urrengo egunien, txapela euenien, urrengo egunerako seoser kanbidxue" - (Anbotoko punta lainoagaz dagoenean hurrengo egunean, txapela zegoenean, hurrengo egunerako zer edo zer aldaketa)

**trumo lañue:** trumoi lainoa

## 11.7. TENPERATURA

**berue:** beroa

"Bero aundidxeidxe itten dau" - (Bero handiegi egiten du)

**freskue:** freskoa, hoztxoa

**gabarue:** gauaroa

"Gabaru ona dak gaur" - (Gauaroa zagok gaur)

**girue:** giroa

**osberue:** hotz-beroa

**otza:** hotza

"Amen otz aundixe itten dau" - (Hemen hotz handia egiten du)

"Aprille ixengo da sikue ta otza" - (Apirila izango da sikua eta hotza)

**sargoridxe:** sargoria

"Sargori da gaur" - (Sargori dago gaur)

**temperaturie:** temperatura

## 12. ZERUA-ASTROAK

Atal honetan zerua eta astroen gaineko berbak batzen ditugu.

**argittasune:** argitasuna

"Persianie piskat bajatu, se argittasunek kalte ittesta" - (Pertsiana pixka bat baxatu, ze argitasunak kalte egiten dit)

**eguski begidxe, euski begidxe:** eguzki begia

"Bueno au da berue, itzela! oiñ euski begidxe be bai, e? sagarra ta emengo, len guk, e, reinetie ta oin be badekaus, bañe len asko, sagar asko eukitten genduen, da amengo sagarrak estimasiño bat eukitte ban, itzela!" - (Beno hau da beroa, itzela! orain eguzki begia ere bai, e? sagarra eta hemengo, lehen guk, e, erraineta eta orain ere badauzkagu, baina lehen asko, sagar asko edukitzen genuen, eta hemengo sagarrak estimazioa edukitzen zuen, itzela)

"Euski begidxe da, euskittara dauen, terrenue, euski begidxe" - (Eguzki begia da, eguzkitara dagoen, terrenoa, eguzki begia)

**eguskixe, euskidxe, euskixe:** eguzkia

"Euskidxe pikantie dak" - (Eguzkia larria zagok)

"Ixen da baserri bat, e, da, euskidxe asko joten dabena" - (Izan da baserri bat, da, eguzkiak asko jotzen duena)

**euski suridxe:** eguzki zuria, disdira handikoa baina gutxi berotzen duena da

"Euski suridxe saso onetan, olan, e, kolore suridxe euskidxe eukienien gure aittek esate ban, euski suridxe, denpora gitxireko sera ixate sala" - (Eguzki zuria sasoi honetan hola, kolore zuria eguzkiak

# ZALDIBAR HIZTEGIA

zeukanean gure aitak esaten zuen, eguzki zuria, denbora gutxirako zera izaten zela)

**idargidxe, itargidxe:** iretargia, ilargia

"Idargidxeas, e, ibiltten da, idargidxe badau, e, beteta, uri parik egoten da, egurre, ure bajaute eukitten dau, ori piñue pe bai, e? piñue pe erretxiñas be bai, se piñuei igertzen geuntzen guk, e, trontzias, e, jaurtze sien orduen, da, ekiñ, e, trontzetan da erretxiñe ilbarridxe basan, dana erretxiñe, da egurrek paguek eta one pe iñausteko, ilberan, saltzeko es, saltzeko egurre basan, ilbarridxen bota, gedxa pisetan dau te, ure gatzako ta, ure barruen gatzako ta gedxa pisetan dau te, or be, bañe egurre sue itteko, ilberakue, su ona eitteko, e?" - (Iretargiagaz, ibiltzen da, iretargia badago, beteta, urik barik egoten da, egurra, ura baxatuta edukitzen du, hori pinuak ere bai, e? pinuak ere erretxinagaz ere bai, ze pinuei igartzen genien guk, trontzagaz, jaurtitzen ziren orduan, eta, ekin, trontzetan eta erretxina ilberria bazen, dena erretxina, eta egurrak pagoak eta hauek ere inausteko, ilbeheran, saltzeko ez, saltzeko egurra bazen, ilberrian bota, gehiago pisatzen du eta, ura geratzeko eta, ura barruan geratzeko eta gehiago pisatzen du eta, hor ere, baina egurra sua egiteko, ilbeherakoa, su ona egiteko, e?)

**iretargixe:** iretargia, ilargia

**ilbarridxe, ilbarrixe:** ilberria, iretargi berria

"Ostien, ilbarridxen botetan baosu dana ure daridxola oten ei da egurre, su eitterakuen be bai" - (Ostean, ilberrian botatzen baduzu dena ura dariola egoten ei da egurra, su egiterakoan ere bai)

"Ilbarrixe da, dana loratzen dana, da ori sainyu ein bi da, se alperrik eitte osu ori saintzen esposu, ipintte osu ortun be eroseiñ orduten da, arek badoyes gero, ilbera da, ilbera da eraittekue, podetakue arbolak, lorak, danak ilberan podau bi dabe" - (Iretargi berria da, dena loratzen dena, eta hori zaindu egin behar da, ze alperrik egiten duzu hori zaintzen ez baduzu, ipintzen duzu ortuan ere edozein ordutan eta, haiek badoaz gero, ilbehera da, ilbehera da ereitekoa, inaustekoa

arbolak, loreak, denek ilbeheran inausi behar dute)

**ilbera:** ilbehera

"A, bai, ilberan ebai bi da ulie, asi esitteko, gutxi asteko, asteko, il barridxen" - (A, bai, ilbeheran ebaki behar da ilea, ez hazteko, gutxi hazteko, hazteko, ilberrian)

**ilberie:** ilbehera

"Nik etxakitt pague esate dxuek badekola goraberie, paguen, bestela guk geuk sekule etxuau inportansiik emoten, iñausteko ta podetako be bai, batzuk ilberie esate otze, onena" - (Nik ez zakiat pagoa esaten ditek badaukala gorabehera, pagoan, bestela guk geuk sekula ez diagu garrantzirik ematen, inausteko eta podatzeko ere bai, batzuek ilbehera esaten diote, onena)

**ilbete:** ilbetea, iretargi betea

"Ilbete, ilbarri, da orrek danok, ilbarri da, txarra, ilbarrixen ipintte osune loratu eitten da, kipulie be, urtetotza sillek, porruei bardin" - (Iretargi betea, iretargi berria, eta horiek denok, iretargi berria da, txarra, iretargi berrian ipintzen duzuna loratu egiten da, kipula ere, irteten dio zilak, porruei berdin)

**ilgora:** ilgora

**ixarra, ixerra:** izarra

"Izar banekie dak" - (Izar banaka zagok)

**ixarratue:** zeru izarratua

"Asko badas ixarratue dak, bañe, ixarratue, ba, da ba ixar asko ikusten danien ba, gaur sekuleko ixarratue dak" - (Asko badaude izarratua zagok, baina, izarratua ba, eta ba izar asko ikusten denean ba, gaur sekulako izarratua zagok)

**karrue:** karro handia, hartz handia

**keispie:** gerizpea

"Au sikatu, batu, eta gero eukiñ, e, serien, keispien sikatu" - (Hau sikatu, batu, eta gero eduki, zerean, gerizpetan sikatu)

**serue:** zerua

## 13. INGURUNEA

Inguruneari dagozkion berbak aurkezten dira atal honetan. Azpi-atalak herria,



# ZALDIBAR HIZTEGIA

eraikinak, mendia, lurra-soroa, bideak, errekek eta itsasoa izango dira.

## 13.1. HERRIA

**alkatie:** alkatea

"Alkatetzako artu dabe" - (Alkatetzat hartu dute)

"Parrokuai, alkatiai, da orretan etxiotan diferente kanteta san" - (Parrokoari, alkateari, eta horietan etxeotan desberdin kantatzen zen)

"Alkatie or godxen bixi san, da lelengo ba alkatien etxera jun bixaten da" - (Alkatea hor goian bizi zen, eta lehenengo ba alkatearen etxera joan behar izaten da)

**aserie:** espaloia

**ausunie:** auzunea

"Saldibarren, badeko or, e, ausouna bat, Eitza, estaitt esautzen baosun, Ermutik bueltan jueten dana, ba angoxie san ama" - (Zaldibarren, badauka hor, auzune bat, Eitzaga, ez dakit ezagutzen duzun, Ermutik bueltan joaten dena, ba hangoxea zen ama)

**autoridadie:** autoritatea

"Aurrien euesan, iru ero lau banko ta bueno, autoridadiendako da euren serak, diferentiekkin euesan aurrien" - (Aurrean zeuden, hiru edo lau jarleku eta beno, autoritateentzat eta euren zerak, desberdinekin zeuden aurrean)

**barriadie:** auzategia, auzunea

"Amen euesan, oiñ yala, berrogetamar urte, nik esautu otena neure etxien da bueno or inguruko etxietan, da or godxen dauen barriadan, bañe kamioyek" - (Hemen zeuden, orain dela, berrogeita hamar urte, nik ezagutu dudana neure etxean eta beno hor inguruko etxeetan, eta hor goian dagoen auzunean, baina kamioiak)

**barridxue, barrixue:** auzategia, auzunea

"Ba Olakueta san, barridxo txikitxo bat, da gero erridxe euen, ayuntamentue ta parrokidxie, godxen, oin bat ein yabe danak, bidxen bittarteko gustidxen, or basuek eta markesien palasidxue ta orrek suen, d'orrek danok oin bat ein yabe, etxiek eittue ta, bañe len sien goittiarrak

eta beetarrak, esate otzen, da beetarrak ixate sien asarre, goittiarrak beyen eukitteittuela jadxe danak da godxen eser be etzan egoten" - (Ba Olakueta zen, auzune txikitxo bat, eta gero herria zegoen, udaletxea eta parrokia, goian, orain bat egin dute denak, bien bitarteko guztian, hor basoak eta markesaren jauregia eta horiek suan, eta horiek denok orain bat egin dute, etxeak egin dituzte eta, baina lehen ziren goitiarrak eta behetarrak, esaten zieten, eta behetarrak izaten ziren haserre, goitiarrak behean edukitzen dituztela jaiak denak eta goian ezer ere ez zen egoten)

**erbestie:** erbestea

"Eitza estakitt entzun bosu, Saldibarko partie da bañe, oso da geutako erbestie" - (Eitza ez dakit entzun duzun, Zaldibarko aldea da baina, oso da geuretako erbestea)

**erridxe, errixe:** herria

"Errikue ixen arren estot esautzen" - (Herrikoa izan arren ez dut ezagutzen)

"Baten eo nitzen sure erridxen" - (Baten egon nintzen zure herrian)

"Ermutik pasaute barriro Saldibar da" - (Ermutik pasatuta berriro Zaldibar da)

"Utzik geatu san erridxe, tristurie emote ban bai" - (Hutsik geratu zen herria, tristura ematen zuen bai)

**kalie:** kalea

"Kaleik kale ibili die" - (Kalerik kale ibili dira)

"Inguruen etxe bat euen, kaleko etxie san, bañe alan da gusti be baeukesan iguel ganau bi ero iru" - (Inguruan etxe bat zegoen, kaleko etxea zen, baina hala eta guztiz ere bazeuzkaten beharbada ganadu bi edo hiru)

**konsejala:** zinegotzia

**plasia:** plaza

"San Martingo frontoye ero San Martingo plasia errittik aparte euen" - (San Martingo frontoia edo San Martingo plaza herritik aparte zegoen)

# ZALDIBAR HIZTEGIA

## 13.2. ERAIKINAK

**abadetxie:** abadetxea

"Saldiberren, esate ben Punteruen ero, amen Saldiberren, ba gero, abadetxie ein san, da Punteruen morun sala bañe, ni beti ortxe akordeta nas" - (Zaldibarren, esaten zuten Punteroan edo, hemen Zaldibarren, ba gero, abadetxea egin zen, eta Punteroaren moduan zela baina, ni beti hortxe gomutatzen naiz)

**aparkalekue:** aparkalekua

**ayuntamentue,** **ayuntamientue:** 1. udaletxea. 2. udala

"Ayuntamentuek kentze ban" - (Udalak kentzen zuten)

"Ba ayuntamentuen be seoser, e, emototzen, arrapetiarren, ba estaitt ori, e, selan ixe leiken, e?" - (Ba udaletxean ere zer edo zer, ematen zioten harrapatzearren, ba ez dakit hori, zelan izan litekeen, e?)

**balnearidxue:** bainu-etxea

"Da errekie, errekie, euen, or, amen beratxua, or balnearidxue in san lekuen errekie" - (Eta erreka, erreka, zegoen, hor, hemen beheratxoago, hor bainu-etxea egin zen lekuan erreka)

**bañu etxie:** bainu-etxea

**barberidxie:** bizartegia

**baserri etxie:** baserria

**baserrixe, baserridxe, basarridxe:** baserria

"Baserri gustien, atie pe, sabalik gabien da danien, kortakuek eta danak, e?" - (Baserri guztian, atek ere, zabalik gauean eta denean, kortakoak eta denak, e?)

"Gure baserridxe pe lena euken olan, e, aurrekaldien, e, etarata olan ser bat" - (Gure baserriak ere lehenago zeukan hola, aurreko aldean, aterata hola zer bat)

"Saldibar baño aunditxuau, bañe orrek, Ermuk baserri ba pesteko gero, e! dosena erdi bat ero eukiko ittu" - (Zaldibar baino handitxoagoa, baina horrek, Ermuak baserri bat ere ez dauka gero, e! dozena erdi bat edo edukiko ditu)

**dendie:** denda

"Gaur goixien dendan estot dirurik euki" - (Gaur goizean dendan ez dut dirurik eduki)

"Plasa onduen euesan, denda bi, da, elixien alde batetik eta bestetik beste denda bi, e, euesan, e, iru taberna, elixie, pelota lekue, elispie, dana antxe konsentreta san" - (Plaza ondoan zeuden, denda bi, eta, elizaren alde batetik eta bestetik beste denda bi, zeuden, hiru taberna, eliza, pilota-lekua, elizpea, dena hantxe kontzentratzen zen)

**erriko tabernie:** herriko taberna, herriaren taberna

"Bakixu ermandadekuek seintzuk sien, erriko tabernan ixete san ori" - (Badakizu ermandadekoak zeintzuk ziren, herriko tabernan izaten zen hori)

"Ganau gustiek bajatze sien onatxe frontoi, erriko tabernie, ori frontoyen kontran euen len, oiñ, e, serraute da bañe, beste arri aundi bat euen, e, au erdidxe ingurukue ero kuadrue" - (Ganadu guztiak baxatzen ziren honaxe frontoi, herriko taberna, hori frontoiaren kontra zegoen lehen, orain, itxita dago baina, beste harri handi bat zegoen, hau erdia ingurukoa edo karratua)

**estankue:** estankoa

"Estanku sarra da Plasakue, len antxe euen estankue San Juango baserridxen" - (Estanko zaharra da Plazakoa, lehen hantxe zegoen estankoa San Juango baserrian)

**etxaldie:** etxaldea, baserri etxea

**fabrikie:** fabrika, lantegia

"Lelengo fabrikie ixengo san ainbaten forjje" - (Lehenengo fabrika izango zen hainbatean forja)

**ferreteridxie:** burdindenda, burdindegia

"Ba arek ferreteridxie ipiñi otzen, da, e, amak, e, gu eskolara, armosue eruten geuntzen, fianbreratxu baten, kafetesnie sopakin" - (Ba hark burdindenda ipini zioten, eta, amak, gu eskolara, armozua eroaten genion, jaki ontzitxo baten, kafesnea zopekin)

**fondie:** ostatua

**frontoye:** frontoia

"Ortze da frontoyen, fronto sarra, oiñ, frontoye da, bañe esan gutena ordun ba, frontoyen ortxe ixate san, da jente asko ganera, dana betete san ordun" - (Hortxe

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*eta frontoian, frontoi zaharra, orain, frontoia dago, baina esan gura dudana orduan ba, frontoian hortxe izaten zen, eta jende asko gainera, dena betetzen zen orduan)*

**granjie:** granja

*"Diputasiñuek ekarte ban Suisati, da or, e, Samudidxon ero deko granjie, oin be badeko" - (Aldundiak ekartzen zuen Suizatik, eta hor, Zamudion edo dauka granja, orain ere badauka)*

**karnaseridxe, karneseridxe, karnaseidxie:** harategia

**komentue:** komentua

**labaderue:** garbitokia, ikuztegia

**mataderue, mataerue:** hiltegia

*"Otzittu te gero pisetan dabe itxurie mataderuen" - (Hoztu eta gero pisatzen dute itxura hiltegian)*

**mojen etxie:** mojen etxea, mojen komentua

**otela:** hotela

*"Emen otelien eote sien militar batzuk" - (Hemen hotelean egoten ziren militar batzuk)*

**palasidxue:** jauregia

**panaderidxie:** okindegia

**peskaeridxie:** arrandegia

**sanatoridxue:** erietxea

**sapateridxie:** zapata-denda

**serrie:** zerrategia

**soroetxie:** zoroetxea

**tabernie:** taberna

*"Kalien da estankue esate otzen taberna bat, jaten da emote ben orduen" - (Kalean dago estankoa esaten dioten taberna bat, jaten eta ematen zuten orduan)*

**tallerra, tellerra:** tailerra

*"Orduen emen euen kale kalien industria bat, len esa otzutena amar amabost lagunak bierrien ebixenak, gero beste taller batzuek, lau bost sei lagunak, bañe, autonomuek, bakotxa beren aldetik, eitte benak bañe leku baten konsentraute, da gero, baseridxe, esniek, da ortuko jeneruek Eiberra, bates be Eiberrera" - (Orduan hemen zegoen kale kalean industria bat, lehen esan dizudana hamar hamabost lagunagaz beharrean zebiltzanak, gero beste tailer batzuk, lau bost sei lagunegaz, baina, autonomoak,*

*bakoitza beraren aldetik, egiten zutenak baina leku baten batuta, eta gero, baserria, esneak, eta ortuko jeneroak Eibarrera, batez ere Eibarrera)*

**tejamanie:** tejabana

*"Ba ondo esanda da, geuk tejamanie esate geuntzen" - (Ba ondo esanda dago, geuk tejabana esaten genion)*

*"Bai, bai, gero metak eitten die, da gero arek metetan eoten da ba, amabost egunien ero, biguntzen garixe, da gero etorte san makiñie, etxeik etxe ibiltze san makiñie, eskus be jote genduen, e? eskus, ipiñi tejamanan or, ona losak da aintxe losetan, eskus be bai" - (Bai, bai, gero metak egiten dira, eta gero meta haietan egoten da ba, hamabost egunean edo, biguntzen garia, eta gero etortzen zen makina, etxerik etxe ibiltzen zen makina, eskuz ere jotzen genuen, e? eskuz, ipini tejabanan hor, hona lauzak eta hantxe lauzetan, eskuz ere bai)*

**txabolie:** txabola

*"Ortxe txabolan da mordotxo bat" - (Hortxe txabolan eta mordotxo bat)*

## 13.3. MENDIA

**aldapie:** aldapa

*"Aldapie da gorutz" - (Aldapa da gorantz)*

**aldasberie:** aldats-behera

**aldasgorie:** aldats-gora

*"Se pentzete ben ba onek? aldasgoriek esebala ekarriko aldasperie?" - (Zer pentsatzen zuten ba hauek? aldats-gorak ez zuela ekarriko aldats-behera?)*

**aldatza:** aldatsa

*"Terrenue eskas txamarra, aldatza ta orrek, lau lauen ero, esautu bai, angallie esaten da" - (Terrenoa eskas samarra, aldatsa eta horiek, lau-lauan edo, ezagutu bai, angara esaten da)*

**añubie:** ainubea, kontrasola

**are arridxe:** harea-harria

**arridxe:** harria

**atxa:** haitza

*"Iguel, e, egoye dauenien da mendabala sartze sanien, mendabala sartzen danien, segiduen jausten die lañuek atxien bera"*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

- (*Beharbada, hegoa dagoenean eta mendebala sartzen zenean, mendebala sartzen denean, segituan jausten dira lainoak haitzean behera*)

**barrankue:** troka, sakana

**basue:** basoa

"*Basue suten egon da*" - (*Basoa sutan egon da*)

"*Basuen ibili danien agertu da*" - (*Basoan ibili denean agertu da*)

"*Bueno ni neu gitxi, gure aitte sana ba ibiltte soan piskat, bañe ni neu es, basuen enok ibili, bueno etxeko basuetan da bai bañe bestela es*" - (*Beno ni neu gutxi, gure aita zena ba ibiltzen zuan pixka bat, baina ni neu ez, basoan ez nauk ibili, beno etxeko basoetan eta bai baina bestela ez*)

**beresidxe, beesidxe:** beresia

"*An osabien etxien da beresidxe esate otze olako baso, deskamanau bati*" - (*Han osabaren etxean dago berezia esaten diote holako baso, gobernaturako bati*)

**esingurie, ixengurie:** zingira

**espaldie:** malda

"*Ori espalda baten or, ortxe in san iketza gu mutikuek giñenien*" - (*Hori malda baten hor, hortxe egin zen iketza gu mutikoak ginenean*)

**gallurre:** tontorra

**irripie:** erripa

**jardiñe:** lorategia

**kanterie:** harrobia

**karabidxe:** karobia

"*Karabidxeek egon sien amen*" - (*Karobiak egon ziren hemen*)

"*Karie ba, lena eitte ben, e, karabidxe itte ben sabalaue, da iste otzen onako, deja bat, eskiñan saliente, da arridxe koloketan aste sien aintxe, arkuen, da barruen iste otzen, e, bobeda bat, seinye laba batek eukitten daben moruen, da gero ba, lelengo orrek karabidxi, aurretik sartze otzen gero ara uekora, aurretik sartze otzen, egurre ta, otie ta arrapate bena ba, dana sartze otzen, da, gero ba, sortzi egunien ero eukin biar ori orreta itxurie, sartzen, da a ba biar eskasa san da gero asi sien, e, dana goittik botaten, egurre, arridxe, pago*

*buruek eta dana, arrapate ben egurre, egur, aundidxaue, e? betik sartzeko egur txikidxaue bañe goittik botateko gero asi sienai, or lelengo betik eitte sanai ba orrek, e, otie ta arrapate besanak danak"*

- (*Karea ba, lehenago egiten zuten, karobia egiten zuten zabalagoa, eta uzten zioten holako, deja bat, izkinan irtenune, eta harria ezartzen hasten ziren hantxe, arkuan, eta barruan uzten zioten, bobeda bat, zeinda labe batek edukitzen duen moduan, eta gero ba, lehenengo horiek karobi hori, aurretik sartzen zioten gero hara hutsunera, aurretik sartzen zioten, egurra eta, otea eta harrapatzen zutena ba, dena sartzen zioten, eta, gero ba, zortzi egunean edo eduki behar hori horretara itxura, sartzen, eta hura ba behar eskasa zen eta gero hasi ziren, dena goitik botatzen, egurra, harria, pago buruak eta dena, harrapatzen zuten egurra, egur, handiagoa, e? behetik sartzeko egur txikiagoa baina goitik botatzeko gero hasi zirenari, hor lehenengo behetik egiten zenari ba horiek, otea eta harrapatzen zituztenak denak)*

"*Bueno, nik, a, nik askenien Foruatik kamioikara bat ekarri naban bañe, emen, aittas iños junda na orra, e, Iruleik eukin, a, or, e, karabi bat eta iños aratxe burdidxas junda na ni aittas, lau urtas ero bostas ero, bai*" - (*Beno, nik, hura, nik azkenean Forutik kamioikada bat ekarri nuen baina, hemen, aitagaz inoiz joanda nago horra, Iruleik zeukan, hor, karobi bat eta inoiz haraxe gurdiagaz joanda nago ni aitagaz, lau urtegaz edo bostegaz edo, bai*)

**karatxa:** kare-harria, karea egiteko harria

"*Ori karatxa esate ako bañe, amen Saldiberren, e, ortxe beta bat da bakarrik, metro bi ingurukue, antxe etate ben, antxe betan etate ben*" - (*Hori kare-harria esaten zaio baina, hemen Zaldibarren, hortxe beta bat bakarrik, metro bi ingurukoa, hantxe ateratzen zuten, hantxe betan ateratzen zuten*)

**kontrasola:** kontrasola, ainubea

"*Kontrasolien dasek orrek*" - (*Kontrasolean zaudek horiek*)

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**kuebie:** koba

"Jentie egon san kueban" - (Jendea egon zen koban)

**lautadie:** lautada

"Amen ba txarto, txarto, eta leku gutxitten eitten da ori biarroi, se esta, esta eraik, sera aldapa gutxien dekenak eta sera, lautada eta arlo aunditxuenak dekesenak eta orrek eitten dabe" - (Hemen ba txarto, txarto, eta leku gutxitan egiten da behar hori, ze ez dago, ez dago erarik, zera aldapa gutxien daukateneak eta zera, lautada eta arlo handitxoagoak dauzkateneak eta horiek egiten dute)

**lekue:** lekua

"Egon ga leku baten" - (Egon gara leku baten)

"Amen esta egon olako serik, amen es, amen es, nik ikusi ittuas leku askotan orrek, bañe amen es" - (Hemen ez da egon holako zerik, hemen ez, hemen ez, nik ikusi ditut leku askotan horiek, baina hemen ez)

"Alakuk useta sittuen leku askotan" - (Halakoak erabiltzen zituzten leku askotan)

**lexa sulue:** leize-zuloa

**lexie:** leizea

"Lexie? bai lexie, guk lexie esate geuntzen, olako sulo bat ero, sera euenien, ba ñños esate san, ba bota ixue lexara, ero bota ixue sulora, ganaue il dxaku ero, lexara" - (Leizea? bai leizea, guk leizea esaten genion, holako zulo bat edo, zera zegoenean, ba inoiz esaten zen, ba bota ezazue leizera, edo bota ezazue zulora, ganadua hil zaigu edo, leizera)

**lur jausidxe:** lur jausia

**mendidxe:** mendia

"Gu geure denpora gustin mendidxen ibili ga, e?" - (Gu geure denbora guztian mendian ibili gara, e?)

**munteidxe:** mintegia

**motie:** mota, altakurra

"Motan da olan solo eskiñetan da, motie talusien jausi estaitten" - (Altakurran eta hola soro izkinetan eta, altakurra talusean jausi ez dadin)

"Eoten die motak, amen esatetzau motak" - (Egoten dira motak, hemen esaten diogu motak)

**parajie:** ingurua

"Orrek lurrok eote ittuk leku batzuetan, amen parajien gitxi dak ori, bañe leku batzuetan eoteittuk orrek gausok" - (Lau horiek egoten dituk leku batzuetan, hemen inguruan gutxi zagok hori, baina leku batzuetan egoten dituk gauza horiek)

**selaidxe, selaixe:** zelaia

"Nik amen oin yala, iru urte ixengo dire, amairu arrapau nittuen, negu baten, selaidxen, da, ortuen amen, e, etxaspidxen, soluen, bi, bestiek danak selaidxen" - (Nik hemen orain dela, hiru urte izango dira, hamahiru harrapatu nituen, negu baten, zelaian, eta, ortuan hemen, etxe-azpian, soroan, bi, besteak denak zelaian)

"Oin be, selai das oin geixenak, esta? len ortuek ixenikuek" - (Orain ere, zelai daude orain gehienak, ezta? lehen ortuak izanikoak)

**sonie:** ingurunea

**taluse:** troka

**terreplena:** troka

**tontorra:** tontorra

**trokie:** troka

**txarie:** txara, beresia

"Txarie, bertan jadxoko serak, plantaubako serak, beres urtenikuek eta serratu, ba txarie" - (Txara, bertan jaiotako zerak, landatubako zerak, berez irtenikoak eta zarratu, ba txara)

**unie:** unada, lur zati edo ingurua

## 13.4. LURRA-SOROA

**arbela:** arbela, arbel-lurra

**arbel arridxe:** arbel-harria

**are lure, arie lure:** harea-lurra

"Bueno arie, are lur asko dak, e, gure munteidxetan arie asko dak, lur askok arie, asko dxekok" - (Beno harea, harea-lur asko zagok, gure mintegietan harea asko zagok, lur askok harea, asko zaukak)

**arlue:** arloa

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Gu pai, bañe es olan moru aundixen es, batzuk, sera, ortu eskiñetan, solo eskiñetarako baneka bat bai bañe, selan arlo aundixe pe estausen eiñ orretan ba" - (Guk bai, baina ez hola modu handian ez, batzuk, zera, ortu izkinetan, soro izkinetarako banaka bat bai baina, zelan arlo handiak ere ez ditugun egin horretan ba)

**artotzie:** artotza

**babatzie:** babatza

**barrena:** barren, beheko aldeko zedarria soloetan

**bedartokidxe:** belar tokia, belar lekua

**bedartzie:** belartza, belardia

**bustin lurre:** buztin-lurra

"Aurrekuek, e, bueno erresauek, guk lur erresa olan, e, arie lurre esate geuntzenak, e, erres apurtze sienak, eta bestiek bustin lurrek" - (Aurrekoak, beno errazagoak, guk lur erraza hola, harealurra esaten genienak, erraz apurtzen zirenak, eta besteak buztin-lurrak)

**bustiñe:** buztina

**fruta arloe:** fruta arloa, fruta-arbolekin dagoen arloa

**garitzie:** garitza

**guena, gona:** goiena, soro burua

"Gure ausunan, e, nik eneuken kableik, bañe ni lurretan ibili nas, sestuas be bai, aittek bete ta nik altzau, illaran, iru lagun ero lau ero, nere arreba pe bai, lepuen sestuek artu, aittek bete alan, da ba atzalde gustien, altzetako satidxe, barrenetik gonera, lepuen" - (Gure auzunean, nik ez neukan kablerik, baina ni lurretan ibili naiz, otzaragaz ere bai, aitak bete eta nik altxatu, ilaran, hiru lagun edo lau edo, nire arrebak ere bai, lepoan otzarak hartu, aitak bete ahala, eta ba arratsalde guztian, altxatzeko zatia, barrenetik goienera, lepoan)

**irutxurre:** irutxurra, txantela; hiru puntako soroa

"Irutxurre ok, e, terreno sati txikitxo bat" - (Irutxurra duk, terreno zati txikitxo bat)

**kadxuelie:** kaiuela, lur mota bat

"Bai kadxuelie eskasa ok, kadxuelie be dok ona, leku batzuetan kadxuelie ona ok" -

(Bai kaiuela eskasa duk, kaiuela ere duk ona, leku batzuetan kaiuela ona duk)

**kanala:** ubidea

**karkabie:** karkaba

**landie:** landa

"Or landak emote otzesan, e, pastoriei, da pastoriek etorte sien, eukitte besan ba, nik estai nos etorte sien udegonien ala estakit nos bañe, urtien, e, saso bat ixete san ba pastoriek ibiltte siena etxeik etxe" - (Hor landak ematen zizkieten, artzainei, eta artzainak etortzen ziren, edukitzen zituzten ba, nik ez dakit noiz etortzen ziren udagoienean ala ez dakit noiz baina, urtean, sasoi bat izaten zen ba artzainak ibiltzen zirena etxerik etxe)

"Landie esate otzau, ba, bedarra dauen, e, landai" - (Landa esaten diogu, ba, belarra dagoen, landei)

**larrie:** larrea, landa

"Larrara etaten da, ori beti ixaten da larrara etatie" - (Larrera ateratzen da, hori beti izaten da larrera ateratzea)

"Ganauek larran das" - (Ganaduak larrean daude)

"Larrie ixte leike sera, selai bat estana asko saintzen eta iguel ebai be estana eitten da" - (Larrea izan liteke zera, zelai bat ez dena asko zaintzen eta beharbada ebaki ere ez dena egiten eta)

"Orrek larran oin be badas, orrek asko" - (Horiek larrean orain ere badaude, horiek asko)

**lugana, luana:** lubana

"Luganak markau eitten dau altura bat" - (Lubanak markatu egiten du altuera bat)

"Luanak, gure aittek esate ban luanak karkabie berie ixete bala, suk emen etaten bosu karkabie, e, lurre seiñ aldetara botata dauen, a lurre, a karkabie berie ixete bala, lurre ona botata bada, au karkabie berie da" - (Lubanak, gure aitak esaten zuen lubanak karkaba berea izaten zuela, zuk hemen ateratzen baduzu karkaba, lurra zein aldetara botata dagoen, lur hura, karkaba hura berea izaten zuela, lurra hona botata badago, karkaba hau berea da)

**luperidxie:** luperia, lurjausia

"Luperidxe in ya an godxen da ene! aber birie sarratze askun de, aber birie itxitte

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*geatzen garien, luperidxie" - (Luperia egin da han goian eta ene! ea bidea ixten zaigun eta, ea bidea itxita geratzen garen, luperia)*

**lupetzie:** lupetza, lokatza

**lur ariñe:** lur arina

*"Lur ariñe ixate ok beti ona, lur ariñe, ariñe, lur onek astunok, e, etxuek eitten" - (Lur arina izaten duk beti ona, lur arina, arina, lur hauek astunok, ez ditek egiten)*

**lur asala:** lur azala

*"Gure parajien, e, lur asalak die danak, lur meyek ero" - (Gure inguruan, lur azalak dira denak, lur meheak edo)*

**lur astune:** lur astuna

**lur baltza:** lur beltza

**lur barridxe, lur barrixe:** lur berria

*"Lur barridxen ba, sesango pa nik onek, e, piñue forestala lur barridxen en jeneral ixate ok onduen, basuen, eitten dok eta gero basuen ba, mobidu lurre, lena atxurras be bai ganauas be bai, eta klaro selan ixate sien aldapak en jeneralien, orrek eitteko munteidxe piñue itteko" - (Lur berrian ba, zer esango dut ba nik hauek, pinua forestala lur berrian gehienetan izaten duk ondoen, basoan, egiten duk eta gero basoan ba, mugitu lurra, lehenago aitzurragaz ere bai ganaduagaz ere bai, eta jakina zelan izaten ziren aldapak gehienetan, horiek egiteko mintegiak pinua egiteko)*

**lur meye:** lur mehea

*"Or serien be da ba, onenbestien, beti, goldie, beti beti arridxe arrapetan, lur meyek" - (Hor zerean ere eta ba, honenbestean, beti, goldea beti-beti harria harrapatzen, lur meheak)*

**lurrartie:** lur-artea

**lurre:** lurra

*"Mendi askotako lurre esta ona" - (Mendi askotako lurra ez da ona)*

*"Ango lurrek, e, antzerakuek die danak" - (Hango lurrak, antzerakoak dira denak)*

**lur salle:** lur saila

*"Geixa ixeten da, libre, nos dauen sera, lur salle, ba an eiñ ori, esta?" - (Gehiago izaten da, libre, noiz dagoen zera, lur saila, ba han egin hori, ezta?)*

**lur sendue:** lur sendoa

*"Ori ixen da se gure parajie goi samarrien da, eta an lurre naiko asala da, eta an, e, jenerue artzeko apurtxo bat, e, eskastxue da, obak die onek beko, erreka ondoko lur senduauok" - (Hori izan da ze gure ingurua goi samarrean dago, eta han lurra nahiko azala da, eta han, jeneroa hartzeko apurtxo bat, eskastxoagoa da, hobeak dira hauek beheko, erreka ondoko lur sendoagook)*

**mujoye, mojoye:** munarria

**munarridxe:** munarria

*"Gero badas, e, munarridxe" - (Gero badaude, munarriak)*

**munie:** muna

**ortue:** ortua

*"Da etxaonduen amen, e, pasa dan urtien be bai, bi ero seu pe bai bat, e, senaoridxak etaraten sabixela ortuen be bai, b'orrek subok, e, estabe seik eitten" - (Eta etxe ondoan hemen, pasatu den urtean ere bai, bi edo zeuk ere bai bat, azenarioak ateratzen zabiltzala ortuan ere bai, ba horiek sugeok, ez dute zerik egiten)*

*"Ortxe, ekarri notzesan, Inasiok sartute dekos ortxe ortun" - (Hortxe, ekarri nizkion, Inaziok sartuta dauzka hortxe ortuan)*

**ota lurre:** ote-lurra

*"Otie erres asten dan parajie da, a da ota lurre" - (Otea erraz hazten den ingurunea da, hura da ote-lurra)*

**salle:** saila

**sangie:** zanga, erretena, lubakia

**señalie:** munarriaren azpian jartzen da teila zati bat eta hori da jabetzaren seinalea

**solue:** soroa

*"Solue, ganaue eta ortue eta olako sera ixen da geixa" - (Soroa, ganadua eta ortua eta holako zera izan da gehiago)*

*"Emen ori eitte san, e, serien, erramu egunien erute san, erute sien, e, kurutziek, elixara ta gero arek sartze sien soluetan" - (Hemen hori egiten zen, zerean, erramu egunean eroaten zen, eroaten ziren, gurutzeak, elizara eta gero haiek sartzen ziren soroetan)*

**solo arlue:** soro-arloa

**solobarrena:** soro barrena

**solo eskifñie:** soro-ertza

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**sologuena:** soro guena, soro goiena

"Posuek ganauentzako, da arek urtien beñ baxotxien, e, baserri batek, arek lurrek etaratzesan, sologuenera ekarri" - (Putzuak ganaduarentzat, eta haiek urtean behin bakoitzean, baserri batek, hark lurrak ateratzen zizkien, soro goienera ekarri)

**terrenue:** terrenoa

"Saldibarrek esteko terreno asko, e?" - (Zaldibarrek ez dauka terreno asko, e?)

**toskie:** toska, lur mota bat

"Gause askontzako, se piñu, landara aundixe etaatako toski orrek obiek die, lur gogorak" - (Gauza askorentzat, ze pinu, landare handia ateratzeko toska horiek hobeak dira, lur gogorak)

**txatala:** txantela, soro txikia

## 13.5. BIDEAK

**aldarra:** aldarra, bideetako aldatsa edo inklinazioa

"Aldarra dak or" - (Aldarra zagok hor)

"Artik arri bat or, se or, e, sekuleko aldarra dak eta" - (Har ezak harri bat, ze hor, sekulako aldarra zagok eta)

**atajue:** laster-bidea

"Gu beti Eibarra, goixeko seiretako merkansian, e? juen, da ametik goittik be atajue euen trenbidea orra, estasiñora, da artu, e, neri beti aitek laguntze ostan, kantiñek eruten da bakixu, te otzara aundi bat artu nik eta ortik goittik bera, seiretako merkansiara, da amabixetakuen etorri" - (Gu beti Eibarrera, goizeko seietako merkantzian, e? joan, eta hemendik goitik ere laster-bidea zegoen trenbidera horra, geltokira, eta hartu, niri beti aitik laguntzen zidan, kantinak eroaten eta badakizu, eta otzara handi bat hartu nik eta hortik goitik behera, seietako merkantziara, eta hamabietakoan etorri)

**atramarie, atramadurie:** atramadura, erromada

**bidegintzie:** bidegintza

**bidie, birie:** bidea

"Ori da etxerako bidie" - (Hori da etxerako bidea)

"Geure basuek, e, garbittu te ondio irie erosi eitte genduen, da, juen iridxeekin ordu biko birien" - (Geure basoak, garbitu eta oraindino ira erosi egiten genuen, eta, joan idiekin ordu biko bidean)

**bire eskiñie:** bide-ertza

**birekurutzie, bidekurutzie:** bidegurutzea

**bire sidxorra, bire siurre:** bidezidorra

"Bañe or goiko etxeko andratxo bat, Elorridxokue, amama bueno! ametixik gora, len bire sidxorra amendik gora, oingo moruko kamiñoik eta kotxei pe eseuen da" - (Baina hor goiko etxeko andretxo bat, Elorriokoa, amama beno! hemendixik gora, lehen bidezidorra hemendik gora, oraingo moduko kaminorik eta autorik ere ez zegoen eta)

"Bire siurre da oñes ibiltteko, orri esatako, ori da bai" - (Bidezidorra da oinez ibiltzeko, horri esaten zaio, hori da bai)

**burdi birie:** gurdi bidea

**erri birie:** herri bidea

"Amen bertan Saldibarren ixendaute das, nondik nora dien erri biriek" - (Hemen bertan Zaldibarren izendatuta dagoz, nondik nora diren herri-bideak)

**estartie:** estrata

"Orma bidxen barruen dausan bire, serrauek die estartak" - (Horma bien barruen dauden bide, zerratuak dira estratak)

**kalsadie:** galtzada

"Amen euen kalsadie esatakona" - (Hemen zegoen galtzada esaten zaiona)

**kamiño eskiñie:** kamino ertza

"Iru baserri das an kamiño eskiñan, eskerretatik, oiñ abandonaute das, bat bai beintzet, errotie" - (Hiru baserri daude han kamino izkinan, ezkerretatik, orain utzita daude, bat bai behintzat, errota)

**kamiñue:** kaminoa

"Kotxiek, ba kamiñuen erdidxen, e, fubolien eitten genduen, da, i, automobille datok! ba bai, tte bastartu te bai, ondio fubolien" - (Kotxeak, ba kamino erdian, futbolean egiten genuen, eta, hi,



# ZALDIBAR HIZTEGIA

*automobila zatorrek! ba bai eta baztertu eta bai, oraindino futbolean)*

**kaskie:** koska, tramadak poste batean daukana ixteko

*"Batak sulue eukitten dau, eta bestiek kaska bat" - (Batak zuloa edukitzen du, eta besteak koska bat)*

**pistie:** pista, baso bidea

**sordanbidie, sordanbirie:** zordenbidea, ezin itxi daitekeen bide publikoa

*"Sordanbidie ixete san, ba sordanbidie ori errespeto biarrekue, orrek, e ba sordanbidiek" - (Zordenbidea izaten zen, ba zordenbidea hori begirune beharrekoa, horiek, ba zordenbideak)*

**sulue:** zuloa

*"Intxaurrek sulo batera, olan artu te, lau artu te bota, sartzen basien laurek, ba seuretako, bestiek gitxia sartzen baban, ba noberandako dana" - (Intxaurrak zulo batera, hola hartu eta, lau hartu eta bota, sartzen baziren laurak, ba zeuretzat, besteak gutxiago sartzen bazuen, eta norberarentzat dena)*

*"Orretarako ixan bi dau, e, egon daittela sulo aundidxe" - (Horretarako izan behar du, egon dadila zulo handia)*

*"Gurien lubarrixen an, lubarrixen, ta an, sulue, ba a geure aittitek einye da, sulue an goixen deko landa baten, t'ara ekarte basen otak eta arek" - (Gurean luberrian han, luberrian, eta han, zuloa, ba hura gure aitaitak eginda dago, zuloa han goian dauka landa baten, eta hara ekartzen zituen oteak eta haiek)*

*"Da esaten dabe Eitzarañoko sulue daula an, an, e, sera" - (Eta esaten dute Eitzarainoko zuloa dagoela han, han, zera)*

**tranguie:** trangoa, bideetako zuloa

*"Bire eskasak, tranguiek badas an birien" - (Bide eskasak, trangoak badaude han bidean)*

## 13.6. ERREKA-ITSASOA

**arie:** harea

*"Neri es, ni neskie nitzen da, gero gure aittek eta amak, beste gausa bat akordau*

*aken, ya arie, estakitt, arie, akorta sayen, e? kanteran etaten dan arie, eskillarie ta, garbitzeko areentako, estakixu orrek? ori are surixoi, gure aittei akordau akon, antxe goxen gure partien daula kantera bat, da aintxe ikusi bi dabela, aber arie daun da efetibamente arie eon, da urte asko gurien aittek eta amak ei eben, arie ekarri, ona tejamanara, irixek gendukesan ordun guk, bolantias, ekarri andik, de nik eta beste, mutille, nebie il san, kanserras a be, orrek joten goixaldien jaiik tejamanan, ipiñi sakuuk kargaute, ta gure ama ta aitte juete sien, Bergarara, Elgoiberrera, Eiberra, danera, karrue ta kaballue geunkesan gurien, kaballo at soragarrixe ta karrue, karrue kargetan genduen besperan or tejamanan, da bixamonien aitte t'ama, ekarte ban diruten! ekarte ben diruten! maixe, olan txontxorra, ordun dirue bakixu selakue san? siderra ta, sakutuetan, sakutuetan ekarte besan" - (Niri ez, ni neska nintzen eta, gero gure aitik eta amak, beste gauza bat gomutatu zitzaien, ja harea, ez dakit, harea, gomutatzen zaren, e? harrobian ateratzen den harea, eskailera eta, garbitzeko, hareatzeko, ez dakizu horiek? harea zuri hori, gure aitari gomutatu zitzaion, hantxe goian gure aldean dagoela harrobi bat, eta hantxe ikusi behar dutela, ea harea dagoen eta horixe harea egon, eta urte asko gurean aitik eta amak egin zuten, harea ekarri, hona tejabanara, idiek geneuzkan orduan guk, bolanteagaz, ekarri handik, eta nik eta beste, mutila, neba hil zen, bizienagaz hura ere, horiek jotzen goizaldean jagirik tejabanana, ipini zakuak kargatuta, eta gure ama eta aita joaten ziren, Bergarara, Elgoiberrera, Eiberrera, denera, karroa eta zaldia geneuzkan gurean, zaldi bat zoragarria eta karroa, karroa kargatzen genuen bezperan hor tejabanana, eta biharamunean aita eta ama, ekartzen zuen dirutan! ekartzen zuten dirutan! mahaia, hola piloa, orduan dirua badakizu zelakoa zen? zilarra eta, zakutoetan, zakutoetan ekartzen zituzten)*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**askie:** aska

"Leku soraaridxe, itturidxe, askias be eiñ, an ure artu, da aguen ure dala iru buelta eiñ, ta askenengo bueltan bota ure ta aiñeko miñik estala etorten" - (Leku zoragarria, iturria, askagaz ere egin, han ura hartu, eta ahoan ura dela hiru buelta egin, eta azkenengo bueltan bota ura eta hagineko minik ez dela etortzen)

"Ori bai, ori kontakotzut, or esaban euriik eitten ordun itxurie, da, ara daruela ermittara, or euen, e, aska bat, fronto onduen, fronto sarren onduen, da, euriik estabela eitten, amentxe sartu bi dxuau uretan, sartu te gero euridzek ein sittuen" - (Hori bai, hori kontatuko dizut, hor ez zuen euririk egiten orduan itxura, eta, hara daroatela baselizara, hor zegoen, aska bat, frontoi ondoan, frontoi zaharraren ondoan, eta, euririk ez duela egiten, hementxe sartu behar diagu uretan, sartu eta gero euriak egin zituen)

"Bakarrik, e, erropa garbitzen ero, ixate san, sera, aska bat euen etxe onduen eta an arrixe" - (Bakarrik, e, arropa garbitzen edo, izaten zen, zera, aska bat zegoen etxe ondoan eta han harria)

"Gure etxe aurreko askan, aska bat? sera, erropak eitteko sera euken, arrixe" - (Gure etxe aurreko aska, aska bat? zera, arropak egiteko zera zeukan, harria)

**eridxue:** jarioa

"Eridxue da, bueno onek tuberidxonek eridxue deko, sulotute dauela ero" - (Jarioa da, beno hodi honek jarioa dauka, zulotuta dagoela edo)

**erreka ertza:** erreka-ertza, erreka bazterra

**erreka eskiñie:** erreka-izkina, erreka bazterra

"Politte gero txoridxe, e? ba ortxe ies ikusi neban, ganauekin juen, da urte ostan erreka eskiñatik, d'aurrera pi-pik, pi-pik, eta atzera buelta eiñ, da bertara etorri san, gero eneban ukusi gedxau, e, bakarrik ibili tte atzera martxau ero, estai pa ser eingo ban" - (Polita gero txoria, e? ba hortxe iaz ikusi nuen, ganaduekin joan, eta irten zidan erreka izkinatik, eta aurrera pi-pik, pi-pik, eta atzera buelta egin, eta bertara etorri zen, gero ez nuen ikusi gehiago, bakarrik ibili

eta atzera joan edo, ez dakit ba zer egingo zuen)

**erreka sulue:** erreka zuloa, erreka uharka

**errekie:** erreka

"Da onek, e, bestiok, e, selan esatake? erreka ondun ibiltten dire ba orrek, e, egas, sera, adar andidxe kiñ ye ibiltten dienak" - (Eta hauek, besteok, zelan esaten zaie? erreka ondoan ibiltzen dira ba horiek, hegaz, zera, adar handiekin eta ibiltzen direnak)

"Amen oiñ, tallerrak eta dausen lekuen errekatxo bat, ni ortxe, lelengo baserrikue nas da, gu beti errekan ibilte giñien" - (Hemen orain, tailerrak eta dauden lekuan errekatxo bat, ni hortxe, lehenengo baserrikoa naiz eta, gu beti errekan ibiltzen ginen)

"Bere kontratik paseta san errekie, axe Saldiberkue" - (Bere kontratik pasatzen zen erreka, huraxe Zaldibarkoa)

**erreka siurre:** erreka zidorra

**erreka txikidxe:** erreka txikia

**errekatxue:** errekatxoa, errekastoa

**itturidxe, itturixue:** iturria

"Uretan juen die itturire" - (Uretan joan dira iturrira)

"Nere sasoyen baeuen itturri bat etxetik urrien, gero autopistie pasau sanien galdu san seroi, itturixoi" - (Nire sasoiaren bazegoen iturri bat etxetik hurrean, gero autobidea pasatu zenean galdu zen zer hori, iturri hori)

**itxosue:** itsasoa

**kanala:** ubidea, erretena

**kostaldie:** kostaldea

**manantiala:** iturburu

"Grifoti pe esi osus, e, busti tte tratoras, e, or dekus soluen depositu aundi batzuk plastikoskuek eta, or manantial ba tekau itturidxe da askie ta, da andik ekarri tte, astien iru lau bat bider busti ein biar ostantzien es loraik eta es inguruik, au da, neguen be epela da, e?" - (Txorrotik ere ezin dituzu, busti eta traktoreagaz, hor dauzkagu soroan depositu handi batzuk plastikozkoak eta, hor iturburu bat daukagu iturria eta aska eta, eta handik ekarri eta, astean hiru lau bat bider busti egin behar osterantzean ez lorarik eta ez

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*ingururik, hau da, neguan ere epela da, e?)*

**patĩe:** patina

**playie:** hondartza

**posue, potzue:** putzua

**presie:** uharka, presa

*"Da gero eitte san, e, errekan presie itte san, da gero an galbara baten, a presie, da presiai ba apur bat ure jausten iste akon, presatik, da an galbaran ya ser ustela, da apartau eitte san, asidxe aparteta san, gero eraitteko" - (Eta gero egiten zen, errekan uharka egiten zen, eta gero han galbahe baten, uharka hura, eta uharkari ba apur bat ura jausten uzten zitzaion, uharkatik, eta han galbahean ja zer ustela, eta apartatu egiten zen, hazia apartatzen zen, gero ereiteko)*

**subixe:** zubia

**urbirie:** ubidea

**ur atza:** ur mineral mota bat, medikamentutzat erabiltzen da

*"Ori amen, e, euen beste, ur klase bat eridetarako ta, ur atza esate geuntzena, amen bueno balnearidxue pe baeuesan, amen Saldibar beye dana da, ori ur klasioi" - (Hori hemen, zegoen beste, ur mota bat zaurietarako eta, ur atza esaten geniona, hemen beno bainu-etxeak ere bazeuden hemen Zaldibar behea dena dago, ur mota hori)*

**ur gasidxe:** ur atza edo ur gazia erabiltzen da osagarri den ur mineralari esateko

**ur posue:** ur putzua

## 14. LANDARERIA

Landareria alorreko berbak ondoko azpi-ataletan banatuta aurkezten ditugu: arbolak, basa-landareak, perretxikoak, ortuariak, fruituak, garia, artoa, belarrak, zekaleak, landareen atalak, eta azkenik, jaso ditugun berba konposatuakaz, gainerakoak.

### 14.1. ARBOLAK

**abetue:** izeia

*"Bueno amen gedxen gedxena ixaten dok auxe sesango pa nik au, abetue, piñue emen, forestala bertan basuen sartzen dana gedxen gero frutie piskat eitte dxuau bañe, frutie gitxi, frutal gitxi sartzen dok amen, da gero oiñ epoka bat, b'oiñ untxe untxe atzen atzen atzenien, ba sesango pa nik gabonetan abetuek fuidxe artu dxok eta ba selan dekusen terrenuek asko, ba or ipintte ittues" - (Beno, hemen gehien gehiena izaten duk hauxe zer esango dut pa nik hau, izeia, pinua hemen, forestala bertan basoan sartzen dena gehien gero fruta pixka bat egiten diagu baina, fruta gutxi, fruta arbola gutxi sartzen duk hemen, eta gero orain aldi bat, ba orain oraintxe-oraintxe atzen-atzen-atzenean, ba zer esango dut ba nik gabonetan izeiak ospea hartu dik eta ba zelan dauzkagun terrenoak asko, ba hor ipintzen dituzte)*

**agiñe:** hagina

*"Es au esta agiñe, e? agiñek olako kolorie deko ala? agiñe, agiñe da beste forma baten eoten dana, agiñe" - (Ez hau ez da hagina, e? haginak holako kolorea dauka ala? hagina, hagina da beste forma baten egoten dena, hagina)*

**alersie:** alartzea, laritza

**altza:** haltza

*"Guk estau sekule altzik amen euki" - (Guk ez dugu sekula haltzik hemen eduki)*

*"Nik dakittena dok gause at gure aitte sanak ei dxoan altza, altza, altza dok gause bat, bota erosein sasotan da usteldu eitten dana, konpleto usteldu, e? eta martiko ilbarridxen esausten gure aitte sanak, antxe geunkesen erreka eskiñien, da, onexekin altzokin ebei, da burdidxek len esate soan olak ipiñi, satza irateko ta, eta, onexek bota ta ipiñi bittu, eta gaur be onyio antxe dasek" - (Nik dakidana duk gauza bat gure aita zenak egin zian haltza, haltza, haltza duk gauza bat, bota edozein sasoitana eta usteldu egiten dena, guztiz usteldu, e? eta martiko ilberrian esan zidan gure aita zenak, hantxe geneuzkan erreka-izkinan, eta, hauexekin haltzokin ebaki, eta gurdiak lehen esaten zuan oholak ipini, satsa iragateko eta,*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*eta, hauexek bota eta ipini behar ditugu, eta gaur ere oraindino hantxe zaudek)*

**ametza:** ametza

*"Ametza da, atxan moruko orridxe bardiñe deko bañe gero urtetotze olako bola batzuek" - (Ametza da, haritzaren moduko orria berdina dauka baina gero irteten diote holako bola batzuek)*

**arbola arrue:** arbola harroa

**arbolie:** arbola

*"Arbola baten ixena, iru klasetara esango tzue" - (Arbola baten izena, hiru erataria esango dizute)*

*"Amen, e, serien, e, Gasan asko da amen nere ausuen es ainbeste, or gutxia, or esta, or, e, batzuk badekes, e, oin be ba gabonetako arbola batzuk sartute eta baten batzuk artzen sittuen serien, e, basuetan eta ba muntai batzuetan, e, ser batzuk, e, landara batzuk, bañe gutxia" - (Hemen, zerean, Gazan asko dago hemen nire auzoan ez hainbeste, hor gutxiago, hor ez dago, hor, batzuek badauzkate, orain ere ba gabonetako arbola batzuk sartuta eta baten batzuek hartzen zituzten zerean, basoetan eta ba mintegi batzuetan, zer batzuk, landare batzuk, baina gutxiago)*

**aritze, atxa:** haritza

*"Tantadxe atxa be ixa leike, atx amerikanue be bai, bañe tantadxe atxa ero pague ixaten da en jeneralien, pague ero atxa" - (Tantaia haritza ere izan liteke, haritz amerikarra ere bai, baina tantaia haritza edo pagoa izaten da gehienetan, pagoa edo haritza)*

*"Au sera atxa, atxa normala bertako atxa dok" - (Hau zera haritza, haritz normala bertako haritza duk)*

**arkasidxe:** arkazia

*"Arkasidxe iertu eitten dau, e?" - (Arkazia ihartu egiten du, e?)*

**artie:** artea

*"Gero euen bertan goixen Goyerrixen, ba jaiyek eta eitte sien lekuen, arta batzuen eta onduen, bolatoki bat einye ba, boletan eitteko" - (Gero zegoen bertan goian Goierrin, ba jaiak eta egiten ziren lekuan, arte batzuen eta ondoan, bolatoki bat eginda ba, boloetan egiteko)*

**atx amerikanue:** haritz amerikarra

**eukalittue, ukalittue:** eukaliptoia

*"Eukalittue ereitten dok eta, iguel iru illabetien eitten dok neikue, basuen sartzeko" - (Eukaliptoia ereiten duk eta, beharbada hiru hilabeteen egiten duk nahikoa, basoan sartzeko)*

**gastaña arrue:** gaztaina harroa

*"Ba arrapau, e, arbola arro baten, gastaña arro baten, jaurtitteuen, e, aixiek ero botaiko gastaña arro baten barrun, suluen da antxe, arrapau gendun" - (Ba harrapatu, arbola harro baten, gaztaina harro baten, jaurtita zegoen, haizeak edo botariko gaztaina harro baten barruan, zuloan eta hantxe, harrapatu genuen)*

*"Arbola arrue, ba gastaña arrue esaten da ori, nik pentzetot arbolien, e, gerridxe, arrotu, arrotzen danien ero, sartute dauenien, gastaña arrue" - (Arbola harroa, ba gaztaina harroa esaten da hori, nik pentsatzen dut arbolaren, gerria, harrotu, harrotzen denean edo, zahartuta dagoenean, gaztaina harroa)*

**gastañie:** gaztaina

*"Egurre ba danak, iketza obie ba paguek ero, gastañie ba eskasa, txamarra da" - (Egurra ba denak, iketza hobea ba pagoak edo, gaztaina ba eskasa, samarra da)*

*"Gedxena gastañie, atxa ta gastañie euesan, gedxena gastañie euen or" - (Gehiena gaztaina, haritza eta gaztaina zeuden, gehiena gaztaina zegoen hor)*

**goostidxe:** gorostia

*"Guk goostidxe erabilte genduen, e, burtaunen puntan, e, laakue itteko" - (Guk gorostia erabiltzen genuen, bureunaren puntan, larakoa egiteko)*

**lixarra:** lizarra

*"Suen aittittek, lixarrak ipintte sittuen beti, an tabernako atien beti, lixar andi batzuk, bañe, oitura sarra da elorridxe, bentana gustietan, da serien, entradako atien be bai" - (Zuen aitaitak, lizarrak ipintzen zituen beti, han tabernako atean beti, lizar handi batzuk, baina, ohitura zaharra da elorria, leiho guztietan, eta zerean, sarrerako atean ere bai)*

**pago motza:** pago motza

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Pago motza len, e, pago motza, pago motza ixate soan ba, pago langie ixate soan pago sera, da bestie pago motza ba burue, ordun, egurretako" - (Pago motza lehen, pago motza, pago motza izaten zuan ba, pago langa izaten zuan pago zera, eta bestea pago motza ba burua, orduan, egurretarako)

**pagoe:** pagoa

"Guretako pague san ona" - (guretzat pagoa zen ona)

"Tantadxek, ba gora doyesenak, paguek" - (Tantaiak, ba gora doazenak, pagoak)

**piñue:** pinua

"Bueno gu asi giñien pague(k) botaten lenengo, onek pago motzak ondio piñue amen, e, txikidxe euen orduen, e, lenengo asi giñienien, beuesan olako txatal batzuek bañe, jeneral bat, e, pague ta atxa" - (Beno gu hasi ginen pagoak botatzen lehenengo, pago motz hauek oraindino pinua hemen, txikia zegoen orduan, lehenengo hasi ginenean, bazeuden holako txatal batzuk baina, gehien bat, pagoa eta haritza)

**saatza:** sahasa

"Da gero guk, sera be bai eitte genduen, e, basuen egurrek eta lotze gendusienien, saatzakin lotze gendusien" - (Eta gero guk, zera ere bai egiten genuen, basoan egurrak eta lotzen genituenean, sahatsekin lotzen genituen)

"Guk, e, biurtute, bueno guk, e, narrari sartze geuntzesan, e, saatzak" - (Guk, bihurtuta, beno guk, narrari sartzen genizkion, sahasak)

**tantadx:** tantaia

"Tantadx, ba tantadxek, e, asko das, tantadx klasie ba paguen be badekosus tantadxek, paguei be motza bada godxe jota eukitten dau, da gero aste ako adar burue, paguei be, pago motza, esatakona, da gero bestie(k) die sekule mostubakuek, tantadxek, da aritxien be iguel, seinye piñuen moruen oten die orrek tantadxo pe, se onek pago motzak eta ixaten die, puntie jotakuai, da andik dator gero adar burue, gero iñausi eitten die, egurre geu pe itten genduen or, e, Konde paadidxe esatakona, e, Morgena, an, e, ba selako baso arluek, e, euesan pague, eta urtien,

e, artzen gendun b'olako, e, sati bat, iru ero lauen artien ero, eta iñausi egurre, askorias, igon gañera, ba adarrik sarrenak ero, olan, gastiek itxi" - (Tantaia, ba tantaiak, asko dagoz, tantaia mota ba pagoan ere badauzkazu tantaiak, pagoari ere motza bada goia jota edukitzen du, eta gero hasten zaio adar burua, pagoari ere, pago motza, esaten zaiona, eta gero besteak dira sekula moztubakoak, tantaiak, eta haritzean ere berdin, zeinda pinuaren moduan egoten dira horiek tantaiok ere, ze pago motz hauek eta izaten dira, punta jotakoari, eta handik dator gero adar burua, gero inausi egiten dira, egurra geuk ere egiten genuen hor, Konde pagadia esaten zaiona, Morgena, han. ba zelako baso arloak, zeuden pagoa, eta urtean, hartzen genuen ba holako, zati bat, hiru edo lauren artean edo, eta inausi egurra, aizkoragaz, igo gainera, ba adarrik zaharrenak edo, hola, gazteak utzi)

**txopue:** makala

"Ori arbolandako txarra, sagarrai bakarrik estako eitten, ori arkasidxei tte txopuei be bastante" - (Hori arbolarentzat txarra, sagarrari bakarrik ez zaio egiten, hori arkaziari eta makalari ere nahikoa)

**urkidxe, urkixe:** urkia

"Urkidxe be esate seben, e? tanborra eitteko, urkidxe, urkidxe pe badeko itxurie beran sasoyen botata ori efetuoi, e?" - (Urkia ere esaten zuen, e? danborra egiteko, urkia, urkiak ere badauka itxura beraren sasoiari botata ondorio hori, e?)

## 14.2. BASA LANDAREAK

**anis bedarra:** anis belarra

**aran okana:** aran okarana, elorri beltza

"Guk aran okana esate otzau batai tte bestiai elorridxe esate otzau" - (Guk aran okarana esaten diogu eta besteari elorriari esaten diogu)

**asari bustena:** aseri buztana

"Au sera ok aseri bustena" - (Hau zera duk aseri buztana)

**asune:** asuna

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**baso larrosie:** baso arrosa, sasi arrosa

**baso makatza:** baso makatza

**baso okana:** baso okarana

**batana:** batana

*"Usain ona batanak eukitten dau" - (Usain ona batanak edukitzen du)*

**belarriko miñen bedarra:** belarriko minaren belarra, ainubeetan dauden hormetan hazten den belar biribil eta mamitsua; belarriko mina kentzeko erabiltzen da berorren ura

**berbena bedarra:** berbena belarra

**berbenie:** berbena

**biurie:** biguria, mihura

*"Antxe aurrien, txaleta aurrien, e, ibiltten die gure biorrak, eta antxe euesan arkasidxe bastante ta, ori asi akenien ori biurioi eitten, arek biurie euketak danak galdu die, ta orretzek galduko sittun, sagarrai be inyarra kentze otza ta danai kentze otza orrek" - (Hantxe aurrean, txaleta aurrean, ibiltzen dira gure behorrak, eta hantxe zeuden arkaziak nahiko eta, hori hazi zitzaizenean biguri hori egiten, haiek biguria zeukatenak denak galdu dira, eta horrexek galduko zituen, sagarrari ere indarra kentzen dio eta denari kentzen dio horrek)*

**elorrIDXe:** elorria

*"ElorrIDXe, normalak elorrIDXe tie, gure aitek elorrIDXe ipintte sittuen" - (Elorriak, normalak elorriak dira gure aitak elorriak ipintzen zituen)*

**epai bedarra:** ebaki belarra, gainean daukan mintza kenduta zaurietan ipintzen da osatzeko

*"Guk, e, nik esautu otena, gurien eon sienak sien epai bedarrak esate geuntzenak" - (Guk, nik ezagutu dudana, gurean egon zirenak ziren epai belarrak esaten genienak)*

**erauntze:** ereinotza

*"Erauntze bai, erauntze be, amen be botate otxek batzuk erauntze, batzuk, e?" - (Ereinotza bai, ereinotza ere, hemen ere botatzen ziotek batzuek ereinotza, batzuek, e?)*

**erbi belarriDXe:** erbi belarria, karduari irteten dion belarraren izena

*"Karduek urtetotzan, guk ari bedarrai erbi belarriDXe esate geuntzen" - (Karduek irteten dioten, guk belar hari erbi belarriak esaten genion)*

**erraixo bedarra:** arraio belarra, txirri-txirriak harrapatzeko erabiltzen den belarra

**erramue:** erramua

*"Ba orko eguneko, e, erramue ta erauntze gorde itten dabe, da guri parrokiDXan ba karmelitak eitte oskue" - (Ba horko eguneko, erramua eta ereinotza gorde egiten dute, eta guri parrokiDXan ba karmeldarrek egiten digute)*

**erre bedarra:** erre belarra, erredurak osatzeko erabiltzen den belarra

*"Ori erre bedarra, ori ona ixen bi dau, gure arrebiek oniño ointzu usau dau ori" - (Hori erre belarra, hori ona izan behar du, gure arrebak oraindino oraintsu erabili du hori)*

**espatie:** ezpata belarra

**giñarrie:** ginarra

**guntzurrun bedarra:** guntzurrun belarra, beronen ura edanda gernuko gaixoak osatzen dira

**idie, irie:** ira

*"Iguel aldar baten juteko, ya burdidxe lotute, gero, sera, bedarras ero irias ero dana dalakue, sartzakon godxen, da sera goikaldetik, ba, sera, palanka moruen sertzeko" - (Beharbada aldar baten joateko, ja gurdia lotuta, gero, zera, belarragaz edo iragaz edo dena delakoa, sartzan zitzaien goian, eta zera goi aldetik, ba, zera, planka moduan zertzeko)*

*"Eta ba oixe idias ba, aspaldi, txikitten ikusiko nittuen, baneka bat, oiñ arte ba ikusten dienak ba danak bedarras" - (Eta ba horixe iragaz ba, aspaldi, txikitan ikusiko nituen, banaka bat, orain arte ba ikusten direnak ba denak belarragaz)*

*"Beteta erridxe! bai dana! gero, ba orrek, serak, kuartelak eta, erriko nausitxuauek eta be, e, emo tzesan, e, fusillek ero, fusille, estakitt eskopetakin esien ibiltten, e? ba erridxe saintzen da ibiltte sien, e, amen egon san kueba bat, da ori kuebiau san, gure basuen, mugan, da gu, ure ona*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

san, da irie genduken an, da eskus ebate san irie orduen, intaidxeas, da ni, nere anaye gastiaue, da beste lengosu bat genduken etxien, irurok, irie ebaten, ba aitte etorte akun goixien, da aittek buelta itte ban eguerdireko, guk besperan preparu eitten geuntzen burkadie, da kargau, da gero atzera be geurie iñ, etorri akun goixien aitte, da ireik es, buf! selako bronkie entzun genduen! bañe bronkie, e! entzun genduen, klaro ganauekin etorri arañoko, urriñ ya bastante, da irie ta ba, aixiek estau erun esatoskun aittek, nun da ba irie, aixiek estau erun, da eruskuen kuebakuek" - (Beteta herria! bai dena! gero, ba horiek, zerak, kuartelak eta, herriko nagusitxoak eta ere, eman zizkieten, fusilak edo, fusila, ez dakit eskopetekin ez ziren ibiltzen, e? ba herria zaintzen eta ibiltzen ziren, hemen egon zen koba bat, eta koba hau zen, gure basoan, mugan, eta gu, uda ona zen, eta ira geneukan han, eta eskuz ebakitzen zen ira orduan, igitaiagaz, eta ni, nire anaia gazteagoa, eta beste lehengusu bat geneukan etxean, hirurok, ira ebakitzen, ba aita etortzen zitzaigun goizean, eta aitak buelta egiten zuen eguerdirako, guk bezperan prestatu egiten genion gurrada, eta kargatu, eta gero atzera ere gurea egin, etorri zitzaigun goizean aita, eta irarik ez, buf! zelako agirika entzun genuen! baina agirika, e! entzun genuen, jakina ganaduekin etorri haraino, urrun dago nahiko, eta ira eta ba, haizeak ez du eroan esaten zigun aitak, non dago ba ira, haizeak ez du eroan, eta eroan ziguten kobakoek)

**indi gastañie:** indi-gaztaina

**kañaberie:** kanabera

"Au esta kañaberako sonie ixen be, e?" - (Hau ez da kanaberako ingurua izan ere, e?)

**kardue:** kardua

**kardu latza:** kardu latza

"Bat ixate ok kardu latza dana piketan dabena, piketan dabena, da beste kardu bat, ba konejuei tte ganauek eta gustora jaten dabena" - (Bat izaten duk kardu latza dena pikatzen duena, pikatzen

duena, eta beste kardu bat, ba konexuei eta ganaduak eta gustura jaten duena)

**kardu lorie:** kardu lorea

**karraskillie:** karraskila

"Karraskillie, guk karraskillie esate geuntzen, e, gurien etxeostien egon san arbola bat, eta galdu san, artien antzerakue, urte gustien eukitte ban orridxe, artien antzerakue bañe, piskat sikuauero seraue" - (Karraskila, guk karraskila esaten genion, gurean etxe ostean egon zen arbola bat, eta galdu zen, artearen antzerakoa, urte guztian edukitzen zuen orria, artearen antzerakoa baina, pixka bat sikuagoa edo zeragoa)

**kiñarrie:** ginarra

"Kiñarrie, amen kiñarra asko, angora jun biar ixete san da, asorridxekin be bai, segun, asorridxekin be iguel" - (Ginarra, hemen ginarra asko, hangora joan behar izaten zen eta, azorriekin ere bai, segun, azorriekin ere beharbada)

**kuku frakie:** kuku praka

"Lelengo etorten dienak kuku frakak eta" - (Lehenengo etortzen direnak kuku prakak eta)

"Ori esta kuku frakie?" - (Hori ez da kuku praka?)

**kuku sagarra:** kuku sagarra, haritzari egiten zaion sagar antzekoa

"Atx arboliai, e, sagarren morun godxen eitte ako, e, a kuku sagarra, ari esate geuntzen guk kuku sagarra" - (Haritz arbolari, sagarraren moduan goian egiten zaio, hura kuku sagarra, hari esaten genion guk kuku sagarra)

**larrosie:** arrosa

**liñue:** lihoa

**malbie:** mamukioa

**malluki bedarra:** mailuki belarra

"Malluki bedarra guk, e, bueno euki be asko eitten du soluetan" - (Mailuki belarra guk, beno eduki ere asko egiten dugu soroetan)

**mansanillie, mansaniñie:** kamamila

"Len len len iños mansaniñie bañe mansaniñie eskasa da, ur epela" - (Lehen-lehen-lehen inoiz kamamila baina kamamila eskasa da, ur epela)

**margaritie:** margarita

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**masustrie, masustie:** masusta

**mispillue, mispillie:** mizpira

"Au sera dok, mispillie dok au" - (Hau zera duk, mizpira duk hau)

**odolgidxe:** odolgia, goroldioa

"Orrek, e, jeneral, serak, arbolakue, au, e, odolgidxe ero ori berdioi, aras eitten dau orrek abidxie be" - (Horiek, gehienetan, zerak, arbolakoa, hau, odolgia edo berde hori, haregaz egiten du horrek habia ere)

**oreganue:** oreganoa

"Oreganue gedxa amen kanpo jentiek botate otxek serai, ollaskuei" - (Oreganoa gehiago hemen kanpo jendeak botatzen ziek zerei, oilaskoei)

**ota bedarra:** ote-belarra

**otie:** otea

"Jentie beuen, ebatu, eta buelta emon, da sarritten iguel aspigarridxe, otie ta, d'ari ebatzeko ta" - (Jendea bazegoen, oratu, eta buelta eman, eta sarritan beharbada azpigariak, otea eta, eta hari oratzeko eta)

**pasmo bedarra:** pasmo belarra

**patana:** batana

**pitxilorie:** bitxi lorea

"Pitxilorie ointzu urtenda dauena oixe, orritxe esate geuntzen guk" - (Bitxi lorea oraintsu irtenda dagoena horixe, horrixe esaten genion guk)

**pulmonidxa bedarra:** pulmoi belarra

"Bai bedarrak asko es, bañe, pulmonidxa bedarra esautze ot bat, pulmonidxa bedarra, katarrue ta daonien, artu goixien ori baraurik, iru bat egunien da, ba, piskat orrek gustatas" - (Bai belarrak asko ez, baina, pulmonia belarra ezagutzen dut bat, pulmonia belarra, katarroa eta dagoenean, hartu goizean hori baraurik, hiru bat egunean eta, ba, pixka bat horiek gustatu zaizkiz)

**san bedarra:** zain-belarra

**san jose lorie:** san jose lorea

**sapartue:** zapartua

"Sapartue guk esate otzau, ori eukitte ittue, a, gastañie, patatie, artue, askenengo puntan eukitten dau, danak illaran eukitte ittus" - (Zapartua guk esaten diogu, hori edukitzen dute, gaztaina, patata, artoa,

azkenengo puntan, edukitzen du, denak illaran edukitzen ditu)

**sapedarra:** sapelarra

"Sapedarra diferentie da, sapedarra oin ya ugeri" - (Sapelarra desberdina da, sapelarra orain dago ugari)

**sapo porrue:** zapo porrua

**sasiartie:** sasi artea

**sasidxe, sasixe:** sasia

"Au seguramente etorriko da, sera iguel, selan, e, garbitzen sauesenien sasixek ebatu te bata da bestie" - (Hau ziurrenik etorriko da, zera beharbada, zelan, garbitzen zaudenean sasiak oratu eta bata eta bestea)

"Bai eoten die batzuk, oiñ selakue, se ainbat olan, e, sera, sasi inguruko abixak eta ikusi tte bai, bañe se txori klase oten dan bertan" - (Bai egoten dira batzuk, orain zelakoa, ze hainbat hola, zera, sasi inguruko habiak eta ikusi eta bai, baina ze txori mota egoten den bertan)

**saukue:** saukua, traustekia

**siñie:** zia, ihia

"Xenguran urtetan dabe gurien ori potzuoio eote san lekuen ote sien asko, siñak, da, arekin lotze sien porruak eta" - (Zingiran irteten dute gurean putzu hori egoten zen lekuan egoten ziren asko, zia, eta, haiekin lotzen ziren porruak eta)

**suba bedarra:** suge belarra

**sumie:** zumea, mihimena

"Da gero, e, sumie, ya, sumie, aundidxaue, sumie erabilte san" - (Eta gero, zumea, ja, zumea, handiagoa, zumea erabiltzen zen)

**txarri okana:** txerri okarana

"Txarri okanak orrek dies ba, mentabako okanak" - (Txerri okaranak horiek dira ba, mentatubako okaranak)

**txikoridxe:** txikoria

**txori kardue:** txori kardua

"Ba karduek klase pillo bat, txori kardue esaten geuntzena beste bat, ori dana lora suridxe urtetotzana urebarridxen, txori kardue esate geuntzena, eser botabako lurretan urteta ban orrek, txori karduek" - (Ba karduek mota pilo bat, txori kardua esaten geniona beste bat, hori dena lore zuriak irteten diona udaberrian, txori



# ZALDIBAR HIZTEGIA

*kardua esaten geniona, ezer botabako lurretan irteten zuen horrek, txori karduak)*

**txori matza:** txori mahatsa

*"Nik estot usau arto bixarrik bañe ori bai, txori matza bai" - (Nik ez dut erabili arto bixarrik baina hori bai, txori mahatsa bai)*

**untze:** huntza

**usain gosue bedarra:** usain gozoa belarra

*"Orrek etxe ondun urtete dxuek en jeneralien, usain gosue bedarra esate otxau guk" - (Horiek etxe ondoan irteten ditek gehienetan, usain gozoa belarra esaten zioagu guk)*

**yodo bedarra:** iodo belarra

## 14.3. PERRETXIKOAK

**astaputze, astoputze:** astaputza

*"Astoputze emon eitte dxok" - (Astaputza eman egiten dik)*

**errotaridxe:** errotaria

**gibel urdiñe:** gibel urdina

*"Ortxe, ortxe, perretxikuekiñ, e, gurien gastiek gedxa die, bai, or liburue ta gusti tte, orrek, e, da artu dabe iges da aurten, e afan bat, e, bueno! ni enas sekule ixen prretxikolaridxe, gustau gutxi tte perretxikotan ba, dakiasen batzuek, e, gibelurdiñe, urritxe, da ongue be, sekule estot ekarri, da oin be jan bes, e? ongue ekarri ttuenien be, estot jaten nik, da urebarriko susie" - (Hortxe, hortxe, perretxikoekin, gurean gazteak gehiago dira, bai, hor liburua eta guzti eta, horiek, eta hartu dute iaz eta aurten, zaletasun bat, beno! ni ez naiz sekula izan perretxikolaria, gustatu gutxi eta perretxikotan ba, dakizkidan batzuk, gibelurdina, hurritza, eta onddoa ere, sekula ez dut ekarri, eta orain ere jan ere ez, e? onddoa ekarri dituztenean ere, ez dut jaten nik, eta udaberriko ziza)*

**kuletrue:** kuletoa

**lanpernie:** lanperna

**ongue:** onddoa

*"Nik olakoik, neuk ekarritekuek, badie, esautze ittuanak ekarriko ittut nik, e? nik*

*estot badaespadakoik ekarriko, da arek jan be iguel bañe, oin be mutillek ekarrittu bai, bai Urkiolatik, Oletatik, ainbat ongo ekarri dabe, mordue, ekarri dabe bai, eta, nik estot jan" - (Nik holakorik, neuk ekarritakoak, badira, ezagutzen ditudanek ekarriko ditut nik, e? nik ez dut badaezpadakorik ekarriko, eta haiek jan ere beharbada baina, orain ere mutilak ekarri ditu bai, bai Urkiolatik, Oletatik, hainbat onddo ekarri dute, mordoa, ekarri dute bai, eta, nik ez dut jan)*

**perretxikue:** ziza orokorrean

**saltza perretxikue:** saltsa perretxikoa

**senderuela:** senderuela

**susie:** ziza

**txanpiñoie:** txanpinoia

**urebarriko susie:** udaberriko ziza

**urritxe, urritxe:** hurritza

## 14.4. ORTUARIAK

**alkatxofie:** alkatxofa

**aranbarre:** patata mota bat

*"Aranbarre ero ori goxako at ixate soan ori" - (Aranbarre edo hori goizagoko bat izaten zuan hori)*

**asa lisue:** aza lisoa

**asa risaue:** aza kizkurra

**aselgie:** azelga, zerba

*"Lekak eukitten dabe, aselga pe bai" - (Lekek edukitzen dute, zerbek ere bai)*

**asie:** aza

*"Neguen, e, porruiek, asak, gero intxaur, ur, orrek neguko jeneruek eta, da udakue pa, udabarriko jenerue lekak, iderrak, e, eta orrek ya apur bat, e, biskorra etorten dien jeneruek, kipulak eta olako serak" - (Neguan, porruak azak, gero intxaur, ur, horiek neguko jeneroak eta, eta udakoak ba, udaberriko jeneroa lekak, ilarrak, eta horiek ja apur bat, bizkorrago etortzen diren jeneroak, kipulak eta holako zerak)*

**baba baltza:** baba beltza, baba

*"Baba baltzak eta suridxe eta gorridxe danak deke ori, danak deke begidxe, aundidxaue batzuk, beste batzuk txikidxaue" - (Baba baltzak eta zuriak eta gorriak denek daukate hori, denek*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*daukate begia, handiagoa batzuek, beste batzuek txikiagoa)*

**baba gorridxe:** baba gorria, indaba gorria

**baba suridxe:** baba zuria, indaba zuria

**baba txikidxe:** baba txikia, indaba txikia

*"Amen tolosanie ixate soan, bañe oin tolosanie barik baba asko dak, e, onak, tolosanien obie baba txikidxe eta, bueno, gu gurien beintzet asko obie, d'emoten be bai, gero baba suridxe" - (Hemen tolosarra izaten zuan, baina orain tolosarra barik baba asko zagok, onak, tolosarrean hobea baba txikiak eta, beno, gure-gurean behintzat askoz hobea, eta ematen ere bai, gero baba zuria)*

**babie:** baba, indaba

*"Babie ekarten dabenak eitten ei dau ausnar, babie, ori esaerie ixengo da" - (Baba ekartzen duenak egiten ei du hausnar, baba, hori esaera izango da)*

**bañie:** leka

**berakatza, berekatza:** berakatza

*"Silyu bai tte berakatza be bai siltzen da ta, orrek danok" - (Zildu bai eta berakatza ere bai ziltzen da eta, horiek denok)*

**berako babie:** beherako baba

**berako iderra:** beherako ilarra

**berakue:** beherakoa

*"Geixenetan amen ba, beraku ba gutxi, baneka batek bai, ni neuk, e, es, se bestelan beti, gurien, eraitten daniel da, artuas eta, ba oixe, makilla biarra eñ eitten, beti gorakue, gorakue" - (Gehienetan hemen ba, beherakoa ba gutxi, banaka batek bai, nik neuk, ez, ze bestela beti, gurean, ereiten denean eta, artoagaz eta, ba horixe, makila beharra egin egiten, beti gorakoa, gorakoa)*

**berdurie:** berdura

**bitoridxa:** patata mota bat

**erromalatxie, erremolatxie:** erremolatxa

*"Egosidxen sartzen die, ba, erremolatxie ta, egosieskeo dana ona" - (Egosian sartzen dira, ba, erremolatxa eta, egosiz gero dena ona)*

*"Oñ, e, askenengo urtietan esta erremolatxaik eta olan eraitten, e, sera, ganauei emoteko, bañe sasoi baten bai, bai gordiñik eta bai egositte, sera, emote akon" - (Orain, azkenengo urteetan ez da*

*erremolatxarik eta hola ereiten, zera, ganaduari emateko, baina sasoi baten bai, bai gordinik eta bai egosita, zera, ematen zitzaion)*

**esparrague:** esparragoa, zainzuria

**gallego asie:** txakur aza

*"Gure onduen, e, galleguek bixi die, eta bere sasoyen, euren aittek eta ortue euken gallego asak ekarte sittuen da alakotziek trukutze aundixe, altu altuek" - (Gure ondoan, gailegoak bizi dira, eta bere sasoiaren euren aitak eta ortua zeukaten txakur azak ekartzen zituzten eta holakoxeak trukutza handia, altu altuak)*

**goixakue:** goizakoa

*"Bai beti beti beti, da diru asko, oiñ estakitt semat, oin be ingo dabe baba baltzak eta barrixe oin dausenak, bueno! altzotxo bete baba baltza semat diru? bai ba esan oten daniel da, goixa erain bier da klasie erain bier, goixakue ta etor daittesan biskor" - (Bai beti-beti-beti, eta diru asko, orain ez dakit zenbat, orain ere egingo dute baba beltzek eta berria orain daudenek, beno! altzotxo bete baba baltza zenbat diru? bai ba esan dudan denean dago, goiza erein behar eta mota erein behar, goizekoa eta etor daitezen bizkor)*

*"Ba iru klase ero badas oin be, e? nik oin be, goixakue erainye xekenuk, es ba? bai goixakue erainye dekau, da atzo batu nittuen, ondio berotu ein bi dau asko babak ondo eitteko" - (Ba hiru mota edo badaude orain ere, e? nik orain ere, goizekoa ereinda zaukanagu guk, ez ba? bai goizekoa ereinda daukagu, eta atzo batu nituen, oraindino berotu egin behar du asko babak ondo egiteko)*

**gorako babie:** gorako baba

**gorako iderra:** gorako ilarra

**gorakue:** gorakoa

*"Ni neuk beintzet beti, gorakuek eraitte ittu, gero parrak ipiñi eta, sabaldu daittesan" - (Nik neuk behintzat beti, gorakoak ereiten ditugu, gero parrak ipini eta, zabaldu daitezen)*

**gorriñe:** gorrina, ugerra, landareen gaisoa

*"Gorriñe itte akon asko gure parajien" - (Gorrina egiten zitzaion asko gure inguruan)*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Gorriñe da ba, guk gorriñe esate geuntzen, au, mastidxetan, mildu ero orren ixena, gorriñe" - (Gorrina da ba, guk gorrina esaten genion, hau, mahastietan, mildu edo horren izena, gorrina)

**goxakue:** goizetiko baba

**idarra, iderra:** ilarra

"Lekie guk bañiai esate otxau en jeneralien da lekie be bai, idarrai be bai lekie, baba baltza pe bai lekie" - (Leka guk bainari esaten zioagu gehienetan eta leka ere bai, ilarrari ere bai leka, baba beltzak ere bai leka)

"Gañera nik uste dot geixen jango sala iderra, ixengo san, e, bera bakarrik igul patatakin eta, ba olan lapikue eiñes" - (Gainera nik uste dut gehien jango zela ilarra, izango zen, bera bakarrik beharbada patatekin eta, ba hola lapikoa eginez)

**kalabasi:** kalabaza

**kipula gorridxe:** kipula gorria

"Kipula gorrixe, kipula orixe, ta kipula surixe, iru die orrek" - (Kipula gorria, kipula horia, eta kipula zuria, hiru dira horiek)

**kipula orixe:** kipula horia

**kipula suridxe:** kipula zuria

**kipulie:** kipula

"Kipulak asko ongo ittuk klasiek, gorridxe ta suridxe ni neuk beste kipulas etxuat sertzzen olan" - (Kipulak asko egongo dituk motak, gorria eta zuria nik neuk beste kipulagaz ez diat zertzzen hola)

**koniflora:** azalorea

"Da koniflora ta etxeko gausie, asak, asie be beti, babakin asak, gero baba baltzak, sasoyen, bañe baba gorridxe asko" - (Eta azalorea eta etxeko gauza, azak, aza ere beti, babekin azak, gero baba beltzak, sasoiaren, baina baba gorria asko)

**lekia:** leka

"Lekie be bai, lekie bañiai esate otxau, eta lekie dok ori gañien dauena" - (Leka ere bai, leka bainari esaten zioagu, eta leka duk hori gañean dagoena)

"Au negukuau da porrua, asie, ba oixe, negukue, bañe oiñ, ya ametik aurra lekak, da olakotxiek barrixek, urebarririkuek, iderrak eta, baba baltza ta, oiñ, oiñ

ametik aurrera" - (Neguko hau eta porrua, aza, ba horixe, negukoa, baina orain, ja hemendik aurrera lekak, eta holakoxeak berriak, udaberrikoak, ilarrak eta, baba beltza eta, orain, orain hemendik aurrera)

**letxugie:** letxuga, uraza

"Iru urte segidan patatak erain dittu amen, bueno ba eurten, e, sati bat patatie eon barik ba letxugie ero ipiñi biau" - (Hiru urte segituan patatak erein ditugu hemen, beno ba aurten, zati bat patata egon barik ba letxuga edo ipini behar dugu)

**nabue:** arbia

"Nabue ta patatie be bai dana, suk kanbidxau eitte su lurretik lurrera, eta obeto etorten da" - (Arbia eta patata ere bai dena, zuk aldatu egiten duzu lurretik lurrera, eta hobeto etortzen da)

"Nabo klase bat dak itxurie, ori lorioi jateko obie dana itxurie, da saltzen dok ori Ermuan da leku askotan saltzen dok ori" - (Arbi mota bat zagok itxura, lore hori jateko hobea dena itxura, eta saltzen duk hori Ermuan eta leku askotan saltzen duk hori)

**ortuarixe:** ortuaria

**otxandidxo:** patata mota bat

**patata gorridxe:** patata gorria

**patata suridxe:** patata zuria

**patatie:** patata

"Len patatie be, len patatie gerra ostien ixate sanien ordun, e, patatie kanbidxau bixate soan sarri, obeto etorte soan, da gero igual iru lau urtien eukiñ, de gero beste batena ero, beste ausuna bateko, beste lur batekue kanbidxaute" - (Lehen patata ere, lehen patata gerra ostean izaten zenean orduan, patata aldatu behar izaten zuan sarri, hobeto etortzen zuan, eta gero beharbada hiru lau urtean eduki, eta gero beste batena edo, beste auzune bateko, beste lur batekoa aldatuta)

"Ar aundi bat, lodi bat patata artien ero agertzen dana" - (Har handi bat, lodi bat patata artean edo agertzen dena)

**perejille:** perrexila

**pintanie:** pintaduna

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Gorrixen da? esan gurosu, baba gorrixen da? ba tolosanie, pinttanie da bakixu? beste bat da, e, baltza esatetzena, ori txiki txiki baltzoi, ori gosuoi? bi, ye beste bat da gorrixe bañe pikaik eta esebe estekona, ari ixen raro bat esatotze, orrek irurok badakias beintxet" - (Gorrian eta? esan gura duzu, baba gorrian eta? ba tolosarren, pintaduna eta badakizu? beste bat dago, beltza esaten diotena, txiki-txiki beltz hori, gozo hori? bi, eta beste bat dago gorria baina oreztarik eta ezer ez daukana, hari izen arraro bat esaten diote, horiek hirurok badakizkit behintzat)

**piper berdie:** piper berdea

"Bai orrexek iru klase, bañe batzuk berdetan jatekuek eta bestiek, txoriserue ero piperra, piper berdie esate otzema, piper gorridxe" - (Bai horiexek hiru mota, baina batzuk berdetan jatekoak eta besteak, txorizeroa edo piperra, piper berdea esaten diotena, piper gorria)

**piper gorridxe:** piper gorria

"Piper gorridxe esatetzau gu pa gero eldu te gero gorritu eitten dana da bestie piper berdie ixaten da ba olan berdetan jaten dana" - (Piper gorria esaten diogu guk ba gero heldu eta gero gorritu egiten dena eta bestea piper berdea izaten da ba hola berdetan jaten dena)

**piperra:** piperra

**piper sikue:** piper sikua

**piper txoriserue:** piper txorizeroa

**porrue:** porrua

"Porruek eta eukitten dabe sarritten, e, ori, ar moruko bat" - (Porruek eta edukitzen dute sarritan, hori, har moduko bat)

**sebolletie:** kipulina

"Guk oin be etateko moruen dekaus bañe, sebolletak, e?" - (Guk orain be ateratzeko moduan dauzkagu baina, kipulinak, e?)

**senaoridxe:** azenarioa

**tolosanie:** indaba mota bat

"Tolosanie len eseuen amen, len pinttana bakarrik" - (Tolosarra lehen ez zegoen hemen, lehen pintaduna bakarrik)

**tomatie:** tomatea

## 14.5. FRUITUAK

**anpolaidxe:** anpolaiia, gerezi mota bat

"Keixie be bai, keixie, anpolaidxek eta olan tipo asko dasek" - (Gerezia ere bai, gerezia, anpolaiak eta hola mota asko zaudek)

**beanduko keixie:** beranduko gerezia

**boskantoye:** bost-kantoia, sagar mota bat

**brebie:** breba, piko mota bat

"Gero goxakuek brebak, bañe brebak amen baño, onei aldamenekuei, andikuenei, suridxek eitte akues" - (Gero goizekoak brebak, baina brebak hemen baino, aldameneko hauei, handikoenei, zuriak egiten zaizkie)

**erresil sagarra:** errezil-sagarra; sagar mota bat

**etxegu sagarra:** sagar mota bat

**frutie:** fruitua

**gabon madaridxe:** gabon madaria

**gasa sagarra:** gaza sagarra, sagar mota bat

**gasa txikidxe:** gaza txikia, sagar mota bat

**gasie:** gaza, sagar mota bat

**gastañie:** gaztaina

"Gero gastañai ero oskolien egote sien pilluek eta aren, e, gero neguen etatzen gendusen gastañak da a be ara boteta san" - (Gero gaztainai edo oskolean egoten ziren piloak eta haien, gero neguan ateratzen genituen gaztainak eta hura ere hara botatzen zen)

**goixako keixie:** goizetiko gerezia

**gorri garratza:** gorri-garratza, sagar mota bat

**intxaurre:** intxaurrea

"Nitzet eskabidioi da lau intxaur de bost, lau intxaur, da gastañak, estakitt semat, da sagarrak, bañe astute dekot" - (Niretzat eskabide hori da lau intxaur eta bost, lau intxaur, eta gaztainak, ez dakit zenbat, eta sagarrak, baina ahaztuta daukat)

"Intxaurrek, etxe inguruen euesan bakarrak, eta dekaun sagarra, ba esebe, sagar, a se klase ete dan, aittek eta amak eta be estakixe se klase dan da sagar bakar bat gañera, eskasa aixe aprobetxau be esi leikena eiñ" - (Intxaurrek, etxe inguruan zeuden bakarrak, eta daukagun sagarra, ba ezer ere ez, sagar, hura ze mota ete den, aitag eta amak eta ere ez dakite ze

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*mota den eta sagar bakar bat gainera, eskasa, huraxe aprobetxatu ere ezin litekeena egin)*

*"Bai nik esautu ot, e, gure etxe aurrien eongo da bat ointxe, da estakitt iños emon badau fruto mat ero, bañe estau ixek sekule emon intxaur bat" - (Bai nik ezagutu dut, gure etxe aurrean egongo da bat oraintxe, eta ez dakit inoiz eman badu fruituren bat edo, baina ez du ia sekula eman intxaur bat)*

**keixa baltza:** gerezi beltza

*"Guk anpolaidxe esate otxau beti keixiei, anpolaidxe ero keixa baltza ta olantxik" - (Guk anpolaiia esaten zioagu beti gereziari, anpolaiia edo geriza beltza eta holantxe)*

**keixie:** gerezia

*"Ixenak badxekesak keixak" - (Izenak bazauzkatek gereziak)*

**klaudia:** klaudia, okaran mota bat

*"Okanatan badak, e, amen klaudia ixaten dok en jeneralien gedxen sartzen dana" - (Okaranetan, hemen klaudia izaten duk normalean gehien sartzen dena)*

*"Klaudia asko dak gero okana asko dak" - (Klaudia asko zagok gero okarana asko zagok)*

**kordantzie:** kordantza, sagar mota bat

**limoye:** limoia

*"Es, limoye orduen eseuen limoirik amen" - (Ez, limoia orduan ez zegoen limoirik hemen)*

**maas baltza:** mahats beltza

**maas suridxe:** mahats zuria

**matza, maatza, maratza:** mahatsa

*"Klaro, ori ba maatza ik, eutzi bitzek, bestela maatza jausi eitten da bera" - (Jakina, hori ba mahatsak hik, eutsi behar diok, bestela mahatsa jausi egiten da behera)*

*"Maatza guk eukitte gendun, e, gaste denporan da gorriñe" - (Mahatsa guk edukitzen genuen, gazte denboran eta gorrina)*

**madaridxe:** neguko makatzari esaten zaio

*"Makatzak en jeneral txikitxuek ixate ittuk, urakuk, gu geuk esate otxau olan, eta gero, negukuk ixate ittuk madari aundidxauek ixate ittuk orrek asal*

*sendotxuauek" - (Makatzak normalean txikitxoak izaten dituk, udakoak, guk geuk esaten zioagu hola, eta gero, negukoak izaten dituk madari handiagoak izaten dituk azal sendotxoago horiek)*

**makatza:** makatza

*"Orrek ekarri ttu makatzak da bedorren aittek danak ja otzas" - (Horrek ekarri ditu makatzak eta berorren aitak denak jan dizkio)*

*"Ori eraitten da urteko, asidxe, bai makatzai, bai okanai, bai gurosune, suk eraitte osu, berekatza eraitten dan moruen, ta gero urteko landarie eiñ, eukiko tzue ta eurek, ba gero mentau eitten dabe" - (Hori ereiten da urteko, hazia, bai makatzari, bai okaranari, bai gura duzuna, zuk ereiten duzu, berakatza ereiten den moduan, eta gero urteko landarea egin, edukiko dizute eta eurek, ba gero mentatu egiten dute)*

**mallukixe, mallubidxe:** mailukia

*"Amen euen, e, or goiko landa bat, etaria bat ingurukue, mallubidxe" - (Hemen zegoen, hor goiko landa bat, hektaria bat ingurukoa, mailukia)*

**melokotoye:** mertxika, preskua

**mutur lusie:** mutur luzea, sagar mota bat

**okana:** okarana

*"Sagarra, okana ta keixie ta orrek meidara, kalibrera eitte soasen" - (Sagarra, okarana eta gerezia eta horiek neurrira, kalibrera egiten zituan)*

**ondarribi suridxe:** hondarribia zuria, mahats mota bat

*"Bueno maatza klase asko dekosak, ba txakoliñien da bai, e, oiñ amen modan dauena dok sera, ondarribi suri" - (Beno mahatsa mota asko dauzkak, ba txakolinean eta bai, orain hemen modan dagoena zera, hondarribia zuri)*

**piko baltza:** piko beltza

**piko berdie:** piko berdea

**pikue:** pikoa, ikoa

*"Amen eongo die pikuek iguel bosteun urte deukesenak or, oiñ, e, podau te itten die ta barristau bañe, gure amamak esate ban bera etorri sanien be olan euesela" - (Hemen egongo dira pikoak beharbada bostehun urte dauzkatena hor, orain,*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*inausi eta egiten dira eta berritu baina, gure amamak esaten zuen bera etorri zenean ere hola zeudela)*

**piko gorridxe:** piko gorria

**piko suridxe:** piko zuria

**reinetie, raiñetie:** erraineta, sagar mota bat

*"Amen raiñetie ixaten dok, da gasa txikidxe ta bueno sagarrak asko! eta gero urdin sagarra, boskantoye, urte betie da orrek"*  
*- (Hemen erraineta izaten duk, eta gaza txikia eta beno sagarrak asko! eta gero urdin sagarra, bost kantoia, urte betea eta horiek)*

**sagarra:** sagarra

*"Sagar asko, sagar asko dekosak"* - (Sagar asko, sagar asko dauzkak)

*"Ni neuk es asko se, ya sagarra emen nik esautu oten denporetan, bañe oiñ ainbeste esta artzen"* - (Nik neuk ez asko ez, ja sagarra hemen nik ezagutu dudan denboretan, baina orain hainbeste ez da hartzen)

**san juan makatza:** san juan makatza

**san juan sagarra:** san juan sagarra

*"San juan sagarra bai, san juan sagarra suri bat dok"* - (San juan sagarra bai, san juan sagarra zuri bat duk)

**san pedro makatza:** san pedro makatza

**san pedro sagarra:** san pedro sagarra

**urdin sagarra:** urdin sagarra

*"Urdin sagarra, lelengorako ixete san bai, bein san blasak pasaueskero pasau itte san a, atzotu ero"* - (Urdin sagarra, lehenengorako izaten zen bai, behin san blasak pasatuz gero pasatu egiten zen hura, atsotu edo)

**urre, urritxe:** hurra, hurritza

*"Se orrek, e, gastañie, urre, intxaurre, da ori janaridxoi, len basuen, oin be asko ei dabix, e? basuen, lengun Anderrek ikusi eban or, e, birie atrabesetan"* - (Ze horiek, gaztaina, hurra, intxaurra, eta janari hori, lehen basoan, orain ere asko ei dabilta, e? basoan, lehengoan Anderrek ikusi zuen hor, bidea pasatzen)

*"Urrek, e, urrek eta, oin be, an ausuen baten batzuk badekes"* - (Hurrak, hurrak eta, orain ere, han auzoan baten batzuek badauzkate)

**urtebete sagarra:** urte bete, sagar mota bat

**urtebetie:** urte bete, sagar mota bat

## 14.6. GARIA

**arotza:** arotza, galautsa

*"Sadxe ta birriñe ta orrek aparte die, orrek idxotako gausak die bañe gari jotietan, nik estot esautu eskuz, esautu bai ausuetan bañe etxien es, makiñan, da makiñiek botaten dau garidxe, e, garbittu barik, soltetotza galburuai, da lastue alde batera, da gero ori, kamara altzeta san garidxe, eta gero garidxe garbitzeko makiñie, ori etxe gustietan ote san, denpora txarra eitte banien ero eitte san, da orri esatakon arotza"* - (Zahia eta birzahia eta horiek aparte dira, horiek ehotako gauzak dira baina gari jotzeetan, nik ez dut ezagutu eskuz, ezagutu bai auzoetan baina etxean ez, makinan, eta makinak botatzen du garia, garbitu barik, soltatzen dio galburuari, eta lastoa alde batera, eta gero hori, ganbarara altxatzen zen garia, eta gero garia garbitzeko makina, hori etxe guztietan egoten zen, eguraldi txarra egiten zuenean edo egiten zen, eta horri esaten zitzaion arotza)

**artakusue:** txori jagolea, txorimaloa

**asidxe:** hazia

*"Asidxe erosi, erosi en jeneral eitten giñuan beti"* - (Hazia erosi, erosi gehienetan egiten genian beti)

**birriñe:** birzahia

**bixarbakue:** bixarbakoa, gari mota bat

**bixardune:** bixarduna, gari mota bat

**bixerra:** gari bizarra

**burue:** galburua

**eskutie:** eskuta, txola

**galburue:** galburua

*"Galburuek, san juen, san juen serien ipiñitte, berakatza ta, berakatza, artue be bai, artasidxe kiñ, arta landarie da galburuek, ipintte akosan ari, sorbie esatakon ari"* - (Galburuak, san jua, san jua zerean ipinita, berakatza eta, berakatza, artoa ere bai, artaziekin, arto landara eta galburuak, ipintzen

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*zitzazkion hari, sorba esaten zitzaion hari)*

**galondue:** galondoa

**galtzue:** galtzua

*"Galtzue es, galtzue ebaitte geatzen dan sera da" - (Galtzua ez, galtzua ebakita geratzen den zera da)*

**garaue:** garaua, alea, bihia

*"Bai ba garauen barruen deko, asala, d'ari esatakon sera arotza" - (Bai ba garauaren barruan dauka, azala, eta hari esaten zitzaion zera arotza)*

**gari asidxe:** gari hazia

**garidxe:** garia

*"Garidxe, orduen be itten genduen orduentxe atzenengo urtiek ixengo sien, se aittek kalien eitte ban bierra ta morroi bat eukitte genduen da" - (Garia, orduan ere egiten genuen orduantxe atzenengo urteak izango ziren, ze aitak kalean egiten zuen beharra eta morroi bat edukitzen genuen eta)*

*"Garidxe, berrogeta sortzi bat urte baño ereiñ estala, berrogetabos bat, oixe" - (Garia, berrogeita zortzi bat urte baino erein ez dela, berrogeita bost bat, horixe)*

*"Lelengo danak ipiñi, ilaran, ebai alan, da gero beste bat atzetik lotu lotu, garidxe ser batzuk artu, da lotu" - (Lehenengo denak ipini, ilaran, ebaki hala, eta gero beste bat atzetik lotu-lotu, garia zer batzuk hartu, eta lotu)*

**gari eskutie:** gari eskuta, gari txola

**gari jorrie:** gari jorra

*"Guk estu gari jorraik sekule iñ" - (Guk ez dugu gari jorrik sekula egin)*

**gari jotie:** gari jotzea

*"Gari jotiek, be, ausuetan eitten sien" - (Gari jotzeak ere, auzoetan egiten ziren)*

*"Gari jotietan laguntzera juen da, ori bai, esautu ot ori" - (Gari jotzeetan laguntzera joan eta, hori bai ezagutu dut hori)*

**gari metie:** gari meta

*"Nik gari ebaten ein yot eta gari eraitten be bai tte, gari metetan da gari joten da danien ein yot" - (Nik gari ebakitzen egin dut eta gari ereiten ere bai eta, gari metetan eta gari joten eta denean egin dut)*

**gari mutxurre:** gari pilo txikia

**gari sakue:** gari zakua

**garitzie:** garitza

*"Onek len garitzan asko egote sien patata artien be bai" - (Hauek lehen garitzan asko egoten ziren patata artean ere bai)*

**goixakue:** goizetiko garia

**lasta eskutie, lasto eskutie:** galtzu eskuta

*"Edurre egote san beti, da lasto eskutakin sue erute ben" - (Elurra egoten zen beti, eta lasto eskutekin sua eroaten zuten)*

**lastue:** galtzua

*"Olesko bat da, ara botate osu lastue, eta ur berue, eta urune ero ganiien da, nastau, axe da ori" - (Oholezko bat da, hara botatzen duzu lastoa, eta ur beroa, eta irina edo gainean eta, nahastu, huraxe da hori)*

**sai sabala:** zahi zabala

**saidxe, saixe:** zahia

*"Saidxe orduen eruten sanien, e, garidxe, seuri toketatzun saidxe be, ekarri itten senduen, onenbeste kilo saidxe" - (Zahia orduan eroaten zenean, garia zeuri tokatzen zitzaizun zahia ere, ekarri egiten zenuen honenbeste kilo zahia)*

*"Urune ondo einye bada sairik esteko" - (Irina ondo eginda badago zahirik ez dauka)*

## 14.7. ARTOA

**artaberdie:** artaberdea

**artaburue, artoburue:** artaburua

*"Artoburuei urtetotza arto bixerrak" - (Artaburuari irteten dio arto bizarrak)*

**arta landarie:** artalandarea

**artalastue, arto lastue:** arta-lastoa

**artalie:** arto alea, arto garaua

**arterrie:** arto-errea

**arto bixarra, arto bixerra, arta bixerra:** artabizarra

*"Bixerra, artabixerra, alde batetik eta, a be aprobetxeta san gausa batzutarako" - (Bizarra, artabizarra, alde batetik eta, hura ere aprobetxatzen zen gauza batzuetarako)*

**arto bittartie:** arto bitartea

**artolorie, artalorie:** artalorea

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Ta gero ori artalorie kendu eta bai ganauei emoteakue jaten bai" - (Eta gero artalorie hori kendu eta bai gabaduei ematen zaie jaten bai)

**artomaidxe:** arto enborra

**arto malutie:** arto maluta, arto sapa

**arto puntie:** arto punta

**artotzie:** artotza

**artue:** artoa

**bixarra, bixerra:** artobizarra

"Ganauei eta emoteko, e, mansanillie moruen, arto bixerras eiñ ure, eta aren ure emon ba, sera, txixe itten eta ba laguntzeko" - (Ganaduari eta emateko, kamamila moduan, arto bizarragaz egin ura, eta haren ura eman ba, zera, txiza egiten eta ba laguntzeko)

**burue:** burua

**eskutie:** eskuta, txola

**galiñe:** galina

"Lelengo artalorie, ta gero galiñe kentzako, burue gero" - (Lehenengo artalorea, eta gero galina kentzen zaio, burua gero)

**garaue:** garaua, alea

**kanpartue:** kanpo artoa

**lasta seye:** lasta xehea

**lasto eskutie:** lasto eskuta

**lastue:** lastoa

**maidxe:** enborra, lastoa

"Burue kendu eskero maidxe, arto maidxe" - (Burua kenduz gero lastoa, arto lastoa)

**malutie:** maluta, sapa

"Artuen asalak malutie deko ixena" - (Artoaren azalak maluta dauka izena)

"Gero ori bestie esa osune a arto malutie geratzen dana, sera, e, burue kendu te gero" - (Gero beste hori esan duzuna hura arto maluta geratzen dena, zera, burua kendu eta gero)

**txorokille:** txorokila, burutxa

"Beti, artu te, bata bestias, txorokilles, e, urkuldu" - (Beti, hartu eta, bata besteagaz, txorokilagaz, urkuldu)

## 14.8. BELARRA-ZEKALEAK

**alfafie:** alfalfa

"Galeperra emen alfafie ta eraitte sanien, alfafetzetan da, galeperra, umie pe etate

sittuen" - (Galeperra hemen alfafa eta ereiten zenean, alfafetzetan eta, galeperra, umeak ere ateratzen zituen)

**ailorba asidxe:** ailorba hazia

"Durangon ixek nok eta, allorbie erosten, allorba asidxe biar da, ba Durangora ta, an etorri ok estaperlista bat" - (Durangon izan nauk eta, ailorba erosten ailorba hazia behar da, ba Durangora eta, han etorri duk estraperlista bat)

**ailorbie:** ailorba

"Bai allorbie ta sekule bedarra ta orrek danok berdie ta, allorbie, sekule bedarra ta berdie" - (Bai ailorba eta sekula belarra eta horiek denok berdea eta, ailorba, sekula belarra eta berdea)

**bedarra, berarra:** belarra

"Eskondu te laster topau neban, e, segan, bedarra ebaten nabillela, estotzat iñori esan, e? semiai bes, es, da es gure mutillek jungo dielako ara bille, orraittik es, baye, sekretue" - (Ezkondu eta laster topatu nuen, segan, belarra ebakitzen nabillela, ez diot inori esan, e? semei ere ez, ez, eta ez gure mutilak joango direlako hara bila, horregatik ez, baina, sekretua)

**bedarrartie:** belar-arte, belartzia

**berdie:** berdea, belar mota bat

"Berdie da lora gorri batek urtete otza, poli politte da bera be politte da, suabe suabie" - (Berdea da lora gorri batek irteten dio, polit-polita da bera ere polita da, suabe-suabea)

**elbitze:** albitza

"Elbitze asko dak or, Santa Miñen aldien da, elbitze dok ori, bedar basto bat, kaballuei eta gusteta dxakuek ori, elbitze" - (Albitza asko zagok hor, Santa Marinaren aldean eta, albitza duk hori, belar latz bat, zaldiei eta gustatzen zaiek hori, albitza)

"Apur bat bedarra eta, elbitze esate akon, e, bedar ori seroi, bañe ya elbitze sakartu eitten dana" - (Apur bat belarra eta, albitza esaten zitzaion, belar hori zer hori, baina ja albitza zakartu egiten dena)

**lekeitio bedarra:** lekeitio belarra, txomin belarra



# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Lekeittio bedarra, orrek badeko ixenetan, orreaittik esate ben, atxurtu bai, da nobera etxa orduko, atzera, bestiek urteten dabela, amen be, amen urtete osten neuri be orrek, ene! lekeittio bedarra" - (Lekeitio belarra, horrek badauka izenetan, horregatik esaten zuen, aitzurtu bai, eta norbera etxera orduko, atzera, besteak irteten duela, hemen ere, hemen irteten zidaten neuri ere horiek, ene! lekeitio belarra)

**lurruntz bedarra:** lurruntz belarra

**lurruntze:** lurruntza

"Orri lurruntze esate akon lurruntz bedarra, dana lasau eitten dabena bastarra gustietan, lurruntz bedarra, ori alperrik etako su, susterretik laster topauko dau, beste puntan baten urtengo dau" - (Horri lurruntza esaten zitzaion lurruntz belarra, dena lasatu egiten duena bazter guztietan, lurruntz belarra, hori alperrik aterako duzu, zuztarretik laster topatuko du, beste puntaren baten irtengo du)

**muitte bedarra:** arrosario belarra

**muittie:** arrosario belarra

"Ori da muittie esaten geuntzan, muittie bedarra, ene! astute euki ot, erresaidxo moruen, txarra ori! ene ori be orre pe batu eitte sien, atxurran sabisala be urteten beben, orrek batu itte sien" - (Hori da arrosario belarra esaten genion, arrosario belarra, ene! ahaztuta eduki dut, arrosario moduan, txarra hori! ene hori ere horiek ere batu egiten ziren, aitzurran zabilzala ere irteten bazuten, horiek batu egiten ziren)

**olue:** oloa

"Olue, olue da bedarra, garitzan urteten dabena, bañe ori eta eitte ben, olue da garitzan urteten daben bedar bat, ori apartau eitte akon se bestelan garidxe paño inyar andidxaue artze ban" - (Oloa, oloa da belarra, garitzan irteten duena, baina hori eta egiten zuten, oloa da garitzan irteten duen belar bat, ori apartatu egiten zitzaion ze bestela gariak baino indar handiagoa hartzen zuen)

**sekule bedarra:** sekula belarra

"Sekule bedarra ekarri bi dxuau" - (Sekula belarra ekarri behar diagu)

**txiderra:** txidarra

"Txiderra, eta orrek bai, orrek asko dekosak" - (Txidarra, eta horiek bai, horiek asko dauzkak)

**txomin bedarra:** txomin belarra

**uste bedarra:** uzta-belarra

"Bai uste bedarra beste bat txarra, orregaittik esate ben, e, busterra iridxai baño, kapeladun aguriei billur aundidxaue dotzala, orrek gure aittek laidxias etaaten sittuen, da sarara batu, sabaldu, se asidxe eukitten dau orrek! bueno! orrei asidxe isten botzasue bedar dana jaten dau bedorrek, ustie, uste bedarra" - (Bai uzta-belarra beste bat txarra, horregatik esaten zuten, buztarri idiari baino, kapeladun agureari bildur handiagoa diola, horiek gure aitak laiagaz ateratzen zituen, eta zaranera batu, zabaldu, ze hazia edukitzen du horrek! beno! horri hazia uzten badiozu belar dena jaten du berorrek, uzta, uzta-belarra)

**ustie:** uzta-belarra

## 14.9. LANDAREEN ATALAK

**aidxena:** aihena

"Aidxena jutun dana dana ok aidxena" - (Aihena joaten dena-dena duk aihena)

**adar burue:** adar burua

**adarra:** adarra, abarra

"Adarrak dekon egurre, a txikidxe kendu, onek, txortak eitteko, ta a egur sendue an gelditze akona, arakidxe ori da" - (Adarrak daukan egurra, txiki hura kendu, hauek, txortak egiteko, eta egur sendo hura han gelditzen zaiona, arakia hori da)

"Adar danak deke erdidxen sulo bat, gidxa bat, txikidxaue aundidxaue, eta an ure gelditzen bada, eitten da, gero sulue, gerua aundidxaue, an ure eukitten dau ta arek eridie itte otza barrure" - (Adar denek daukate erdian zulo bat, gia bat, txikiagoa handiagoa, eta han ura gelditzen bada, egiten da, gero zuloa, geroago handiagoa, han ura edukitzen du eta hark zauria egiten dio barrura)

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**alie:** alea

"Amenguek txikitxuauek die, bai ales eta bai lekas be" - (Hemengoak txikitxoagoak dira, bai alez eta bai lekaz ere)

"Aren sera, aliek eta batze sien ba bueno sasoyen ba casualidades seoser egositte jateko ero" - (Haren zera, aleak eta batzen ziren ba beno sasoiaren ba kasualitatez zer edo zer egosita jateko edo)

**allena:** aila

"Allenas formaten dok, allena eukitte dxok, sagarra berak" - (Ailagaz formatzen duk, aila edukitzen dik sagarrak berak)

**arantzie:** arantza

**arapue:** arapoa

"Arapotik ausi, arapotik ausi ba, olien be bai, ola be arapotzue bada, orreaittik esaten da ba, piñuei gastetatik kargu ein bi akola, eta adarra jo, arapoik euki estaidxen, olai ero tabloyai paste ako, arapuek aundidxek baukos, andik ausi eitten da" - (Arapoa hautsi, arapotik hautsi ba, oholean ere bai, ohola ere arapotsua bada, horregatik esaten da ba, pinuari gaztetatik kargu egin behar zaiola, eta adarra jo, araporik eduki ez dezan, oholari edo tabloiari pasatzen zaio, arapoak handiak badauzka, handik hautsi egiten da)

**arbola burue:** arbola burua

**asala:** azala

"Etorre ittuk, e, bai batzuk asala jatotxek, ta beste batzuk tronguen barrure sartze ittuk" - (Etorren dituk, bai batzuek azala jaten ziotek, eta beste batzuk enborraren barrura sartzen dituk)

**asburue:** haritz burua

**asidxe:** hazia

**astillie:** ezpala

"Arakotxe prepareta sien, astillak eta prepareta sien ba, metro bat eta amar bat sentimetro ingurukuk, labie ba danien iguel berotu daitten ba lusiauek, se egur motza es, ta pillo baten es, danien, bardin berotu daitten" - (Harakoxe prestatzen ziren, ezpalak eta prestatzen ziren ba, metro bat eta hamar bat zentimetro ingurukoak, labea ba denean berdin berotu dadin ba luzeagoak, ze egur motza

ez, eta pilo baten ez, denean, berdin berotu dadin)

**begidxe:** 1. begia arrama bien arteko lotura gunea. 2. baba garaua lekari edo zerukari lotzekoa

"Babiek eukitte dxok begi bat olan, begi txikitxu bat, danak eukitte dxuek ori" - (Babak edukitzen dik begi bat hola, begi txikitxu bat, denek edukitzen ditek hori)

**besangie:** besanga

"Besangie dok ba arrama bat urteten dabena arbola bati" - (Besanga duk ba arrama bat irteten duena arbola bati)

**burue:** burua

"Ai amen es, e? amen es, amen, e, asie buruas ensegida eitten da, sabal sabala, baju bajue, amen asak ederrak oten die, e?" - (Ai hemen ez, e? hemen ez, hemen, aza buruagaz behingoan egiten da, zabal-zabala, baxu-baxua, hemen azak ederrak egoten dira, e?)

**egurre:** egurra

"Egurra, sera, ebei da sue itteko ordun pago motzak ixate soasen" - (Egurra, zera, ebaki eta sua egiteko orduan pago motzak izaten zituan)

**egur txatala:** egur txatala

**ernamue:** ernakatza

**erramie, arramie:** arrama

"Etxe eskiñetan, oin be ipintte ittue leku batzutan ementxe be, e, altza, altza es, lizarra, lizar erramak, gure, nire neure etxien ointxe be ipintten dabe" - (Etxe izkinetan, orain ere ipintzen dituzte leku batzuetan hementxe ere, haltza, haltza ez, lizarra, lizar adarrak, gure, nire neure etxean oraintxe ere ipintzen dute)

**erramilletie:** lore txorta

**erretxiñe:** erretxina

**estakie:** loreari edo landareari irteten dion kirtena edo zila

**frutie:** fruta

"A frutan bertan eoten dana, maratzan be bai, sagarrien be bai, danien eitten da ori" - (A frutan bertan egoten dena, mahatsean ere bat, sagarrean ere bai, denean egiten da hori)

**frutue:** fruitua

**garaune, garune, garaue:** garaua

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Ori bertan ernetan da ta ba, matza dekosun moruen, e, junta junta oneta dekos, berak erramiek, matzan morun iguel iguel da ba, garune be itte ako txiki txiki txikidxe, mas morduen moruen iguel iguela eukitten dau, oin garaun se seye da gu mutikotan ori, fumetan ibiltte giñien gu" - (Hori bertan ernetzen da eta ba, mahatsa daukazun moduan, batu-batu honetara dauzka, berak adarrak, mahatsaren moduan berdin-berdin eta ba, garaua ere egiten zaio txiki-txiki-txikia, mahats mordaren moduan berdin-berdina edukitzen du, orain garau xehe-xehea da gu mutikotan hori, erretzen ibiltzen ginen gu)

**gerridxe:** arbolaren enborra

**gidxabi:** adar bikoa

**ipurdidxe:** ipurdia, arbolak botata lurrian lotzen dena

**iskurre:** ezkurra

**kaskarie:** eskola

**kirtena:** landareen kirtena, zila

"Bai, kirtena eukitten dau, kipuliek eta berakatzak kirtena eukitten dabe berdetan, tente tente eukitten dabe kirtena, da a kirtena sartze ako olan, ipintte san, beti amen arek bistan, buru bidxek, berakatzta ta kipulie, da gero amen artue ta galburuek, berdiek ondiño, berdiek, san juenetan ondio garidxe berde da, da, artue, ba txikitxue ixaten da ta, artasidxas ebai arek jaustakosan puntak, arto landariai, ta arek lora artien ipiñitte" - (Bai, kirtena edukitzen du, kipulak eta berakatzak kirtena edukitzen dute berdetan, tente-tente edukitzen dute kirtena, eta kirten hura sartzan zaio hola, ipintzen zen, beti hemen haiek bistan, buru biak, berakatzta eta kipula, eta gero hemen artoa eta galburuak, berdeak oraindino, berdeak, san juenetan oraindino garia berde dago, eta, artoa, ba txikitxoa izaten da eta, artaziarekin ebaki haiek jausi zitzaizkion puntak, arto landareari, eta haiek lore artean ipinita)

**landarie:** landarea

"Bedarrak, ba, gutxi urteneskeo, obeto, landariai obeto, bedarrak mogidu eitte dxok landarie, ikutu eitte txak bedarrak

eta jan bedarrak" - (Belarrak, ba, gutxi irtenez gero, hobeto, landareari hobeto, belarrak mugitu egiten dik landarea, ikutu egiten zioke belarrak eta jan belarrak)

**lastrie:** lastra, ezpal txikia

**lekie:** leka, zeruka

"Amenguek txikitxuauek die, bai ales eta bai lekas be" - (Hemengoak txikitxoagoak dira, bai alez eta bai lekaz ere)

**lorie:** lorea

"Sagarrak loran das" - (Sagarrak loretan dagoz)

**makillie:** makila

**mas mordue:** mahats-mordoa, mahats morda

**maspillue:** mailatua

**matxokue:** mentaubakoa arbola

**mingotza:** mingotsa, berdamina; ortuari batzuek daukaten gustu mingotsa

**mootza:** morda

**mordue:** mordoa, morda

"Morduek, bai, oiñ olako gantxo batas sertez itue bañe orduen ba, eseuen olakoik eta" - (Mordak, bai, orain holako gantxo bategaz zertzen dituzte baina orduan ba, ez zegoen holakorik eta)

**moskana:** moskana, intxaurrak uzten duen zikinaren izena

"Moskana intxaurrek eukitte dxok" - (Moskana intxaurrak edukitzen dik)

"Guri mutikotan esate oskuen ori eukitte giñunien esate oskuen, frailliek atzamarrak mostukoskusela, intxaur lapurretan da, etxera etorte giñian da gero kendu esuan eitten a moskana ta, ene! oin frailliek, atzamarrak mostuko tzues" - (Guri mutikotan esaten ziguten hori edukitzen genuenean esaten ziguten, fraideak atzamarrak moztuko zizkigula, intxaur lapurretan eta, etxera etortzen gintuan eta gero kendu ez zuan egiten moskan hura eta, ene! orain fraideak, atzamarrak moztuko dizkizue)

**mukurre:** mukurra

**mutxikiñe:** mutxikina, muskila

"Mutxikiñe esate otxeu guk, sagar mutxikiñe esate otxeu" - (Mutxikina esaten zioagu guk, sagar mutxikina esaten zioagu)

**ondue:** ondoa, landarea

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"*Pague ba trontzias, lenengo pague, ondue, askorias, e, joten geuntzen, jausi bi eban aldera, jausteko, alde bittatik jarten giñien askorakiñ, ni eskerra ixate nitzen, beste lagune eskumetik, ba askoriaittik, kentzen geuntzen olan, e, sati bat, ara artu daidxen, e, jausikerie ero beran, e, sera*" - (*Pagoa ba trontzagaz, lehenengo pagoa, ondoa, aizkoragaz, jotzen genion, jausi behar zuen aldera, jausteko, alde bietatik paratzen ginen aizkorekin, ni ezkerria izaten nintzen, beste laguna eskumatik, ba aizkoragatik, kentzen genion hola, zati bat, hara hartu dezan, jausiera edo beraren, zera*)

**orbela:** orbela

"*Usau usau guk gitxi bañe orbela ona ok*" - (*Erabili erabili guk gutxi baina orbela ona duk*)

**orridxe, orrixe:** orria

"*Orridxe onek berus berus dxekok*" - (*Orria honek beheruntz-beheruntz zaukak*)

**oskola:** eskola

"*Oskola dok kanpuen dauena, da gero kaskarie, ba kaskarie asala, barruen dekona*" - (*Oskola duk kanpoan dagoena, eta gero azala, ba azala, barruan daukana*)

**ostrue:** ondoa

**palue:** makila

**pintxue:** arantza

**piñubolie:** pinu bola

**pujie:** kima

"*Iños entzun ein yot, e, beruskuas ero dauenien, lengo betunaidxuai tte arantzien pujie, oiñ urabarridxen botaten daben onako puja arek barri barridxek, aitxek sikatzen dabela ganaue*" - (*Inoiz entzun egin dut, beherazkoagaz edo dagoenean, lehengo albaiteroari eta arantzaren kima, orain udaberrian botatzen duten holako kima haiak berri-berriak, haiexek sikatzen dutela ganadua*)

**sagar mutxikiñe:** sagar mutxikina

**sarmientue:** xirmendua, mahatsaren aihena

**sespala:** ezpala

**sille:** zila, gara

"*Gora urtetotza sillek, berakatzai tte kipulai, bidxei*" - (*Gora irteten dio zilak, berakatzari eta kipulari, bie*)

**sorbie:** lora txorta

**sotza:** zotza

**susterra, sustradxe:** zuztarra, sustraia

"*Arbola danak botate dxuek arramie, beyen susterra botaten dabeni, arrama danak, oin mentau te gero be botako dxo pa arramak eta gero euk itxiko tzak ba guruan moruen*" - (*Arbola denek botatzen ditek arrama, behean zuztarra botatzen dutenean, arrama denak, orain mentatu eta gero ere botako dik ba arramak eta gero heuk utziko diok ba gura duan moduan*)

"*Kardu latza beste bat, kardu latza sustradxe bera eukitten dabena, lusie!*" - (*Kardu latza beste bat, kardu latza sustraia behera edukitzen duena, luzea!*)

**susterrekue:** zuzterrekoa, zuzterretako gaixoa

**trongue, tronkue:** enborra

"*Ba ori, gastaña arrue ori da, e, usteltzera doyen, e, arrotute materidxela, bai, tronkuek, or gerritik ero orridxetatik bera oten dana, sustarretik bittarte ori arrotu, arrotute, ori dekot*" - (*Ba hori, gaztaina harroa hori da, usteltzera doan, harrotuta materiala, bai, enborrak, hor gerritik edo orrietatik behera egoten dena, zuztarretik bitarte hori harrotu, harrotuta, hori daukat*)

"*Bai tronguek, e, beren sera eruen daidxen*" - (*Bai enborrek, beren zera eroan dezaten*)

**trukutze:** trukutza

"*Trukus bat sesango pa nik, iguel ba, ik egur bati ebate otzak eta ba trukus bat*" - (*Trukutz bat zer esango dut ba nik, beharbada ba, hik egur bati ebakitzen diok eta ba trukutz bat*)

"*Gero beste trukus bat emoten da, da a geratzen da gero, serien*" - (*Gero beste trukutz bat ematen da, eta hura geratzen da gero, zerean*)

**ure:** arbolen ura, sapa, izerdia

**urkillie:** urkulua

## 14.10. GAINERAKOAK

**ais burue:** haritz burua

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**arbola landarie:** arbola landarea

**asaburue:** azaburua

"Asaburuei saiñ eoten dana ba, saltzeko asaburue, gora eittie ori da askena, maldisiñue, esta?" - (Azaburuei zain egoten dena ba, saltzeko azaburua, gora egitea hori da azkena, maldizioa, ezta?)

**asa landarie:** aza landarea

**asaorridxe, asorridxe:** azorria

**babalastue:** baba lastoa

"Txibittias jo, da gero geatzen dana babalastue" - (Jibitagaz jo, eta gero geratzen dena baba lastoa)

**babalorie:** baba lorea

**berakas txortie:** berakatz txorta

**egur txatala:** egur txatala, egur zatia

"Ba oixe sikiñek, dauesenak beyen, alan sien beintzet, egur txatalak eta ba, danekue" - (Ba horixe zikinak, daudenak behean, hala ziren behintzat, egur txatalak eta ba, denekoa)

**egur trukutze:** egur trukutza

**erauntzorridxe:** ereinotza orria

**erremolatxa asala:** erremolatxa azala

**fruta landarie:** fruta landarea

**gastaña arbolie:** gaztaina arbola

"Amen biarretik urtete banien, atzaldien, bostetan ero ba, ortxe, len, porteridxie amentxe euen, oin be bada porteridxie baitte, manikomidxoko porteridxie, gastaña arbola bat euen, kanpuen, da aretxen aspidxen, berak urtete banien, mutikuek or ote giñen, itxaitten" - (Hemen beharretik irteten zuenean, arratsaldean, bostetan edo ba, hortxe, lehen, atea hementxe zegoen, orain ere badago atea baita, zoroetxeko atea, gaztaina arbola bat zegoen, kanpoan, eta harexen azpian, berak irteten zuenean, mutikoak hor egoten ginen, itxaroten)

**gastaña oskola:** gaztaina oskola

**gidxabiko arbolie:** adar biko arbola

**kinpula asixe:** kipula hazia

**koniflor landarie:** azalore landarea

**letxuga asixe:** letxuga hazia

**letxuga burue:** letxuga burua

**lixarra erramie:** lizar adarra

**lora txortie:** lore txorta

"San Juen, e, erute san lora txortie, serera, bereinkatzen elixa" - (San Juanen,

eroaten zen lore txorta, zerera, bedeinkatzen elizara)

**nabo asixe:** arbi hazia

**nabolorie:** arbi lorea, arbigara

"Jentientzako bai, jate dxuek ori, neuk etxakitt ixena selan dekon arek, bañe jentiek jaten dxok a nabolorie" - (Jendearentzat bai, jaten ditek hori, neuk ez zakiat izena zelan daukan hark, baina jendeak jaten dik arbigara hura)

**naborridxe:** arbi orria

**patata ostrue:** patata ondoa

**pagadarra:** pago-adarra

**pagoasidxe, pagaasidxe:** pago hazia

**pago burue:** pago burua

"Erretakuek betik etara, orrek die ba modernuauek, onek, ointzuakuek die, bota lelengo, e, kamioi erdi bat egur ero, ainbeste bes, bañe barrure, pago buruek eta arrapatzen sittuena" - (Erretakoak behetik atera, horiek dira ba modernoagoak, hauek, oraintsuagokoak dira, bota lehenengo, kamioi erdi bat egur edo, hainbeste ere ez, baina barrura, pago buruak eta harrapatzen zutena)

**pago egurre:** pago egurra

**pago langie:** pago langa

**piku esnie:** piko esnea

**piñu orridxe:** pinu orria

**piñu landarie:** pinu landarea

**piper landarie:** piper landarea

**piper ostrue:** piper ondoa

**porru asixe:** porru hazia

**tomate landarie:** tomate landarea

"Sera, udabarridxen eitte san sera, tomatie ta, tomate landarie artzeko, da piper landarie ta artzeko, sementerie, a beteta genduen, e, otias" - (Zera, udaberrian egiten zen zera, tomatea eta, tomate landarea hartzeko, eta piper landarea eta hartzeko, mintegia, hura betetzen genuen, otaz)

**tomate ostrue:** tomate ondoa

## 15. ANIMALIAK

Atal honetako animaliei dagokien hiztegia aurkezteko honako azpi-atalak egin

# ZALDIBAR HIZTEGIA

ditugu: ugaztunak, txoriak, narrastiak eta anfibioak, arrainak eta intsektuak.

## 15.1. UGAZTUNAK

**animalidxie:** animalia

"Nik estot ukusi olako, e, animalidxeik, amen, e, ba basakatue pe bai" - (Nik ez dut ikusi holako, animaliarik, hemen, ba basakatuak ere bai)

**arratoye:** arratoia

"Arratoye bai, arratoyek, e, ba paño gedxa klasiak, neuk esautu ittut, len gañera ganbaran esa otzutena, etxe arratoyek esate akuen illunauek sien arek, baltzauek, bestelan arratoye gorridxaue ixaten da" - (Arratoia bai, arratoiak, bat baino gehiago motak, neuk ezagutu ditut, lehen gainera ganbaran esan dizudana, etxe arratoiak esaten zitzaien ilunagoak ziren haiek, beltzagoak)

**artza:** hartza

**aserixe, aseridxe:** azeria

"Aseridxe agertu sanien, erbidxe pe danak galdu siren amen, se erbidxe egon san amen asko" - (Azeria agertu zenean, erbiak ere denak galdu ziren hemen, ze erbia egon zen hemen asko)

"Gaixue esa ben euki bala aseridxe" - (Gaixoa esan zuten eduki zuela azeriak)

**askonarra:** azkonarra

"Askonarrak, e, soluen, e, artue, babie ta daun lekuen, e apurtu eitten dau" - (Azkonarrak, soloan, artoa, baba eta dagoen lekuan, apurtu egiten du)

"Amen estot, e, askonarrak estot nik, e, gure soluetan, e, estot sekule olan ukusi, askonarrak nik, baye ibili bai, e? ibili badabix, oin be bai" - (Hemen ez dut, azkonarrak ez dut nik, gure soroetan, ez dut sekula hola ikusi, azkonarrak nik, baina ibili bai, e? ibili badabiltza, orain ere bai)

**basakatue:** basakatuak

"Basakatue pai, basakatuik geuk arrapau estau ein bañe, gure osaba bat, e, or godxen baserrixen, gure aitten anaidxie, da arek asko arrapeta sittuen, papar suridxas da, arek, e, orduen denporan

paseta, e, pageta otzen bosteun peseta, narrue, pentzaxu semat urte dien, nik irurogeta bederatzi urte in bi ttut, da orduen euko nittuen nik ba, sortzi amar bat urte ero" - (Basakatuak bai, basakaturik geuk harrapatu ez dugu egin baina, gure osaba bat, hor goian baserrian, gure aitarean anaia, eta hark asko harrapatzen zituen, papar zuriagaz eta, hark, orduan sasoian pasatzen, ordaintzen zioten bostehun pezeta, narrua, pentsa ezazu zenbat urte diren, nik hirurogeita bederatzi urte egin behar ditut, eta orduan edukiko nituen nik ba, zortzi hamar bat urte edo)

**basautze:** basahuntza

"Ba, basautzek, e, lengun ukusi dabe gurien semiek eta, amen, e, bestekaldeko etxekuek, ortxe godxen, mendixen, perretxikutara urtenda, oin yala semat denpora, oin yala illabete ero, gedxa iguel, da txakurre ukusi banien itxurie, ba juen san, e, da biskor gañera, e? biskor martxau bi otzen" - (Ba basahuntzak, lehengoan ikusi dute gurean semeek eta, hemen, beste aldeko etxekoek, hor goian, mendian, perretxikoetara irtenda, orain dela zenbat denbora, orain dela hilabete edo, gehiago beharbada, eta txakurra ikusi zuenean itxura, ba joan zen, eta bizkor gainera, e? bizkor joan behar zien)

**basurdie:** basurdea

"Basurdie ba danien, e, basurdie da aseridxe be bai" - (Basurdea ba denean, basurdea eta azeria ere bai)

**erbidxe, erbixe:** erbia

"Gure gaste denporan egon san erbitten, baye mordo bat, e!" - (Gure gazte sasoian egon zen erbitan, baina mordo bat, e!)

"Ni mutikue nitzela ta berak erbi bi ekarriko sittuela ta bai ekarri amarretako ekarri sittuen erbi bi" - (Ni mutikoa nintzela eta berak erbi bi ekarriko zituela eta bai ekarri hamarretarako ekarri zituena erbi bi)

**etxe arratoye:** etxe arratoia

"Bai, arratoyek, etxe arratoyek esate akuena lena, ganbaran, e, artue ta jate oskuenak, ordun" - (Bai, arratoiak, etxe arratoiak)

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*esaten zitzaiena lehenago, ganbaran, artoa eta jaten zigutenak, orduan)*

**katamixerra:** katamixarra

*"A semiek, e, Asierrek sertu eban, topau eban da esa notzan, katamixerran umie da ori, bertan eingo ban ero, trenak jota topau neban, baye normal normal, e? aixiek botata ero estai pa ser eiñe ongo san, eseuken iñun be golpe ba pe" - (Hura semeak, Asierrek zertu zuen, topatu zuen eta esan nion, katamixarraren umea da hori, bertan egingo zuen edo, trenak jota topatu nuen, baina normal-normal, e? haizeak botata edo ez dakit ba zer egina egongo zen, ez zeukan inon ere kolpe bat ere)*

**kirikidxue, kirikixue:** kirikinoa, kirikolatza

*"Orrek ba, orrek sagarra, barie be jaten dau orrek, barie be asko jaten dau orrek, sagarra dauen lekuen barris, ba amentxe badabill amen geure etxaspidxen oin be, kirikidxue, ibili, biriek eitte ittu orrek, ori en jeneral gabas ibiltten da ori, iños amentxe umie pe topa otzaus etxe ostien, da urpien, umiek einye kirikidxue, baten baño gedxatan topau ot, da orre pe, kalteik ba estakitt kalteik, e, etxako ukusten" - (Horiek ba, horiek sagarra, barea ere jaten du horrek, barea ere asko jaten du horrek, sagarra dagoen lekuan berriz, ba hementxe badabil hemen geure etxe-azpian orain ere, kirikinoa, ibili, bideak egiten ditu horrek, hori gehienetan gauzez ibiltzen da hori, inoiz hementxe umeak ere topatu dizkiogu etxe ostean, eta urpean, umeak eginda kirikinoa, baten baino gehiagotan topatu dut, eta horrek ere, kalterik ba ez dakit kalterik, ez zaio ikusten)*

**konejue:** konexua, untxia

**lobue:** otsoa

**lur pillue:** lur piloa, satorrak egiten duenari esaten zaio

**ogigastaye:** ogigaztaia

*"Ori ogigastaye, e, bono tripie be suridxe deko euki, e?" - (Hori ogigaztaia, beno tripa ere zuria dauka eduki, e?)*

*"Ogigastaye etxaonduen, batzuei entzu otzegu sarri, e, arratoye, ogigastaye dabillen lekuen estala ibiltten" - (Ogigaztaia etxe ondoan, batzuei entzun*

*diegu sarri, arratoia, ogigaztaia dabilen lekuan ez dela ibiltzen)*

*"Bai aginkadie bañe ogigastaye, suk, e, olantxeik, e, nonbaitten bedarratien egon da eskuekiñ ebatu ero eitten espaotzesu, e, bestelan nun sertu bi osu se arek martxau eitten dau" - (Bai haginkada baina ogigaztaia, zuk, holantxe, nonbait belar-artean egon eta eskuekin oratu edo egiten ez badiozu, bestela non zertu behar dizu ze hark ihes egiten du)*

*"Ya ogigastaye bueno! beneno konpletu, a inguruen basenduken akabo ba!" - (Ja ogigaztaia beno! pozoi hutsa, hura inguruan bazeneukan akabo ba!)*

**otzue:** otsoa

**sague:** sagua

*"Satutxue sague baño txikidxaue" - (Satotxoa sagua baino txikiagoa)*

**sagusarra:** saguzarra

*"Bai sagusarrak arrapetan be ibiltte giñien, illuntabarretan da, ya udan, sertzen dienien, e, sera, txapela botata, esate ben ba txapel aspire sartzen diela ta" - (Bai saguzarrak harrapatzen ere ibiltzen ginen, ilunabarretan eta, ja udan, zertzen direnean, zera, txapela botata, esaten zuten ba txapel azpira sartzen direla eta)*

**sator pillue:** sator piloa, satorrak altxatzen duen lurrari esaten zaio

**satorra:** satorra

*"Ainbeste gausa entzittu, oridxo sikiñe be bai, sulora jaurti tte, gero oin botikak ainbestek urten dabe, eta nik aprobie in yot, botika klase bias be, amentxe etxien, etxaspidxen, orrek ortuen eitten dabe kalteik gedxen, ortuen, asidxe ero ernetan bada ero, ero porrue ipintte dekosun lekuen ero, ointxe gaur eguerdidxen be ibili nas, saintzen atzera, busteko be billur billurretan, e, ortuen, e, sera bustieskero, or dator satorra" - (Hainbeste gauza entzun ditugu, olio zikina ere bai, zulora jaurti eta, gero orain botikak hainbestek irten dute, eta nik proba egin dut, botika mota bigaz ere, hementxe etxean, etxe-azpian, horiek ortuan egiten dute kalterik gehien, ortuan, hazia edo ernetzen badago edo, edo porrua ipinita daukazun lekuan edo, oraintxe gaur eguerdian ere ibili naiz,*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*zaintzen atzera, bustitzeko ere bildur bildurretan, ortuan, zera bustiz gero, hor dator satorra)*

*"Satorrak, e, ba, segie dabillen lekuen, emoten dau amorrue, bestelan basuen da, ba estakitt segie estabillen lekun arek esteko kalteik, baye segan bedarra ebaten ero sekule bedarra, lena ote san moruen da, sarri ebaten ibiltten basiñien satorras, segiai ague segirun atakon, e? segiruen! lurre txarra da" - (Satorrak, ba, sega dabilen lekuan, ematen du amorrua, bestela basoan eta, ba ez dakit sega ez dabilen lekuan hark ez dauka kalterik, baina segan belarra ebakitzen edo sekula belarra, lehenago egoten zen moduan eta, sarri ebakitzen ibiltzen bazinen satorragaz, segari ahoa segituan ateratzen zitzaion, e? segituan! lurra txarra da)*

*"Satorra siku bada, juten da, selaidxen, asal asal, etaraten lurre, ganauseiñ iguel, lena ganauseiñ egoten giñien ba, pastoreik eseuen da ba, ganaue saintzen da, ikusten gendusen satorrak selan jute sien, da, amendik badxoyen, an andikaldien, amen librau, da gero, asi, e, eskuas astertzen, satorrak estau esebe itten" - (Satorra siku badago, joaten da, zelaian, azal-azal, ateratzen lurra, ganaduzain beharbada, lehengo ganaduzain egoten ginen ba, artzainik ez zegoen eta ba, ganadua zaintzen eta, ikusten genituen satorrak zelan joaten ziren, eta, hemendik bazihoan, han handiko aldean, hemen libratu, eta gero, hasi, eskuagaz aztartzen, satorrak ez du ezer ere egiten)*

*"Goxien amarrak, bueltan, fenomenue, eguerdidxen be bai, da gero esaten dabe euskidxen eskutaueran, be bai" - (Goizean hamarrak, inguruan, itzela, eguerdian ere bai, eta gero esaten dute eguzkiaren izkutatueran, ere bai) [Satorrak jotzeko edukitzen dituen orduen gainean dabil]*

**satutxue:** satotxoa

*"Sague baño txikidxaue dana, satutxue piskat mustur gorridxas egoten da a be, e?" - (Sagua baino txikiagoa dena, satotxoa pixka bat mustur gorriagaz egoten da hura ere, e?)*

*"Baye ain lusie, alako bustenik eta estau eukitten satutxuek, e?" - (Baina hain luzea, halako buztanik eta ez du edukitzen satotxoak)*

*"Satutxu gutxi ikusten da, e?" - (Satotxo gutxi ikusten da, e?)*

**turoye:** ipurtatsa

*"Ori, esta, katuen antzera buru txikidxaue, e, ba katu baño txikitxaue, baño ba, katakuma desentie morukue, turoye" - (Hori, ez da, katuaren antzera buru txikiagoagaz, ba, katua baino txikiagoa, baina ba, katakume dezentea modukoa, ipurtatsa)*

*"Guk arrapau baten turoye in genduen" - (Guk harrapatu baten ipurtatsa egin genuen)*

**ur arratoye:** ur arratoia

*"Entzun bai, entzun bai baye, amengo erreketan, e, arratoye pai oin be, ur arratoye" - (Entzun bai, entzun bai baina, hemengo erreketan, arratoiak bai orain ere, ur arratoia)*

*"Ur arratoik, e, or aurrien eta birien be, gero a pe sagarra, sagarra egoten da an be ta, or aurrien, e, seladxek ganauek guk batze ittun lekuen, sagarra an, e, erreka eskiñan, sagar illarie da ta, sagarra jaten dau, e, asko, bueno sagarra estauenien beste seoser jan biko dau" - (Ur arratoiak, hor aurrean eta bidean ere, gero hark ere sagarra, sagarra egoten da han ere eta, hor aurrean, zelaiak ganaduak guk batzen ditugun lekuan, sagarra han, erreka bazterrean, sagar ilara dago eta, sagarra jaten du, asko, beno sagarra ez dagoenean beste zer edo zer jan beharko du)*

*"Orrek len, e, jateko arrapetan sittuela esate ben ur arratoye" - (Horiek lehen, jateko harrapatzen zituztela esaten zuten ur arratoia)*

**urtxakurre:** urtxakurra

## 15.2. TXORIAK

**abidxie, abixie:** habia

*"Sekule txontiei, amen ikusi ttut nik urebarridxen da be, udan da be txontak*



# ZALDIBAR HIZTEGIA

*eta sekule abidxaik estotzet topau" - (Sekula txontari, hemen ikusi ditut nik udaberrian eta ere, udan eta ere txontak eta sekula habiarik ez diet topatu)*

*"Sekule estaku akordau, e, arrikara bat emotie ta es, e, abidxie apurtzie ta es, mutikotan bes" - (Sekula ez zaigu bururatu, harrikada bat ematea eta ez, habia apurtzea eta ez, mutikotan ere ez)*

**amie:** amea, txoriena edo beste animalia-aren batena adierazteko mugatu singularra erabiltzen da

*"Nik gure kaballo nausidxe, amie, estot ikusi etzunde, estakitt nos be" - (Nik gure zaldi nagusia, ama, ez dut ikusi etzanda, ez dakit noiz ere)*

**antzarra:** antzarra

**araba sosue:** araba zozoa

*"Bai, pasien emen bai, leku bat da, ba naiko pase, e, egoten dana, usuek, e, araba sosuek, serak, e, antzarrak, e, egaberak, e, beste batzuk, e, seintzuk ixen die? usuek eta geixen, esta? bañe, sera, e, paseko mirue" - (Bai, pasean hemen bai, leku bat dago, ba nahikoa pase, egoten dena, usoak, araba zozoak, zerak, antzarrak, hegaberak, beste batzuk, zeintzuk izan dira? usoak eta gehien, ezta? baina, zera, paseko mirua)*

*"Araba sosue, ori, peka suridxe dekosen" - (Araba zozoa, hori, espil zuriak dauzkana)*

**arranue:** arranoa

*"Arranue ixetes andidxe da, bañe orrek atxarranuek die txikidxe" - (Arranoa izatez handia da, baina haitz-arrano horiek dira txikiak)*

**artatxoridxe:** artatxoria

*"Artatxoridxe errekan inguruen es, artatxoridxe jeneralien, e, arbola gañien" - (Artatxoria errekan inguruan ez, artatxoria gehienetan, arbola gainean)*

*"Artatxoridxe beste bat da, kurrilloye da gausa bat eta beste, artatxoridxe da beste klase bat" - (Artatxoria beste bat da, kurloia da gauza bat eta beste, artatxoria da beste mota bat)*

**atxetako arranue, atxarranue:** haitz-arranoa

*"Atxetako arranue, orrek, atxetan dabixen onek txikidxe, miau einye, atxetan*

*ibiltten die bueltaka, orrek txikidxe die" - (Haitz-arranoak, horiek, haitzetan dabiltzan txiki hauek, miau eginda, haitzetan ibiltzen dira bueltaka, horiek txikiagoak dira)*

**basollarra:** basoilarra

*"Basollarra, basollarra, au ixte leike amengo basollarra, basollarra len asko ibiltte san amen, oiñ esta ikusten, basollarra, len ganauek ibiltten gendusenien or godxen, da ganauetara udegodxenien da asko etorte san basollarra, ganauek dabixen inguruen, ba estakitt iguel, e, pekotzeko seoser jaten ero etorriko sien, estakitt, bestelan, e, basollarrik oiñ esta ikusten, e?" - (Basoilarra, basoilarra, hau izan liteke hemengo basoilarra, basoilarra lehen asko ibiltzen zen hemen, orain ez da ikusten, basoilarra, lehen ganaduak erabiltzen genituenean hor goian, eta ganaduetara udagoienean eta asko etortzen zen basoilarra, ganaduak dabiltzan inguruan, ba ez dakit beharbada, bekorotzeko zer edo zer jaten edo etorriko ziren, ez dakit, bestela, basoilarrak orain ez da ikusten e?)*

**bela sarra:** beletzarra

*"Bela sarra ero esate otzau guk" - (Beletzarra edo esaten diogu guk)*

**bela txikidxe:** bele txikia

*"Bela txikidxe, orrek batzuk esate akuena bela txikidxe, belatxiñe, amen, e, klase ba paño besteik esta ibiliko, e? bela txikidxe iguel, e, mendi aldien ero ibili leike, amen beyen es" - (Bele txikia, horiek batzuk esaten zitzaiena bele txikia, belatxina, hemen, mota bat baino besterik ez da ibiliko, e? bele txikia beharbada, mendi aldean edo ibil liteke, hemen behean ez)*

**belatxiñe:** belatxina

**belie:** belea

*"Onek belak, belak, e, karraskara dabixenien, belie egarri, da euridxe itten dabela" - (Bela hauek, belak, karraskada dabiltzanean, belea egarri, eta euria egiten duela)*

*"Onek txoridxe estabe eruten, belak ibiltten die, belak eta mirue ta, ibiltten die bañe, ilye espada estau eruten" - (Txori hauek ez dute eroaten, beleak ibiltzen dira,*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*beleak eta mirua eta, ibiltzen dira baina, hilda ez badago ez du eroaten)*

**berdeloye:** berdeloia

**bidegarrue, birigarroe:** birigarroa

*"Seoser ba ansueluek eruten gendusen, ansuelo txikidxe pe, baye orrek sien, e, neguen eruten gendusenak, soso bidegarrue arrapetako, bestelan, e, sepuek, alanbrasko sepuek eruten gendusen, e, artatxoridxe be asko egote san, ta artatxoridxei, e, olako kardu lorie ero gustaakon asko ta, edurre ero eitten badau artatxoridxe arrapetie fasilie da" - (Zer edo zer ba amuak eroaten genituen, amu txikiak ere, baina horiek ziren, neguan eroaten genituenak, zozo birigarroa harrapatzeko, bestela, zepoak, alanbrezko zepoak, eroaten genituen, artatxoria ere asko egoten zen, eta artatxoriari, holako kardu lorea edo gustatzen zitzaion asko eta, elurra edo egiten badu artatxoria harrapatzea erraza da)*

**brentzajue:** sorbeltza

*"Arek brentzajuek eukitten dabena lurre joten badau, gero altzau esiñik geratzen da, eguekiñ ye, beye joten dau, da altzau esiñik geratzen da" - (Sorbeltz hark edukitzen duena lurra jotzen badu, gero altxatu ezinik geratzen da, hegoekin eta, behea jotzen du, eta altxatu ezinik geratzen da)*

*"Es baye bestie esan gure dau onek brentzajue, brentzajue aundixau da one paño, e, tellatupietan da, abidxak eitte ittuena" - (Ez baina bestea esan gura du honek sorbeltza, sorbeltza handiagoa da hauek baino, teiltupeetan eta, habiak egiten dituen)*

**busten bikotxa:** mirua izendatzeko era

**bustenikerie:** buztanikara

*"Gero, e, amen dekosu, e, au, e, bustenikerie, beti ixen dana txoridxe, ba bustenikera pe, onek, e, asulek ikusiko sus batzuek, oridxe, nuunun bat, oridxe nuunun bat ikusten da" - (Gero, hemen daukazu, hau, buztanikara, beti izan dena txoria, ba buztanikarak ere, hauek, urdinak ikusiko dituzu batzuk, horia, non edo non bat, horia non edo non bat ikusten da)*

**durdurie:** durdura

**egaberie:** hegabera

*"Egaberie baño aunditxuaue da" - (Hegabera baino handiagoa da)*

**egakerie:** hegakera

*"Arek eukitten dau burue txikitxuaue ta sapillaue, beste egakera klase bat deko arek" - (Hark edukitzen du burua txikiagoa eta zapalagoa, beste hegakera mota bat dauka hark)*

*"Diferentiek bañe, egakeran da danien die diferentiek" - (Desberdinak baina, hegakeran eta denean dira desberdinak)*

**eperra:** eperra

*"Eperrak ikusi ttut Araba aldien da, lastotan da juenda ta bañe, amen, e, pospoliñe bai, pospoliñe asko" - (Eperrak ikusi ditut Araba aldean eta, lastotan eta joanda eta baina, hemen, pospolina bai, pospolina asko)*

**erlaye, erleye:** elaiia

*"Orrek, e, amen estosus ikusiko, erleik dabixenien, gero, doyesan, e, sasoyen ero erleik, e, iges ein bi daben sasoyen pentzetot etorten diela, len ganauseñ ibiltten giñela gedxa, e, sertzten gendusen bañe, estakitt selan dien" - (Horiek, hemen ez dituzu ikusiko, elaiak dabiltzanean, gero, doazen, sasoiian edo elaiak, ihes egin behar duten sasoiian pentsatzen dut etortzen direla, lehen ganaduzain ibiltzen ginela gehiago, zertzen genituen baina, ez dakit zelan diren)*

**eskillasue:** eskinosoa

*"Eskillasue, okille, eskillasue bai, eskillasue nik ikusi olan, e, gutxitten, entzun bai sarritten, da, sera, eskapau eitten dabenien, e, igesixen doyenien, sasi artien da, gañera karraskarie selan etaaten daben ba ordun bai" - (Eskinosoa, okila, eskinosoa bai, eskinosoa nik ikusi hola, gutxitan, entzun bai sarritan, eta, zera, eskapatu egiten duenean, ihesean doanean, sasi artean eta, gainera karrakada zelan ateratzen duen ba orduan bai)*

**gabeko mosolue:** gaueko mozoloa

*"Gabeko mosoluek, orrek, e, etxe barruen, e, ikusitte na, or aurreko etxien, Torrie*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*esate otzen lekuen umiek asten barruen, da gabeko mosolue oin be badabill amen, e? gabeko mosolue bai" - (Gaueko mozoloak, horiek, etxe barruan, ikusita nago, hor aurreko etxean, Torrea esaten zioten lekuan umeak hazten barruan, eta gaueko mozoloa orain ere badabil hemen, e? gaueko mozoloa bai)*

**gabillarie, gabilleye:** gabiraia

*"Amen esta olako txoriik ikusi, e, gabilleye, mirue, da miro txikidxe" - (Hemen ez da holako txoririk ikusi, gabiraia, mirua, eta miru txikia)*

**galeperra:** galeperra

*"Oñ amen landatu esta eitten eser, da galeperrak oñ amen egoera eskasa deko" - (Orain hemen landatu ez da egiten ezer, eta galeperrak orain hemen egoera eskasa dauka)*

*"Galeperra bañe len sasoyen, bueno! mayetzien etorte sien" - (Galeperra baina lehen sasoiaren, beno! maiatzean etortzen ziren)*

*"Mayetzien San Isidro aurretik, San Isidro aurreko astien, or etorte sien, nik galeperra segias be ebaitte na" - (Maiatzean San Isidro aurretik, San Isidro aurreko astean, hor etortzen ziren, nik galeperra segagaz ere ebakita nago)*

**kardantxillue:** kardantxiloa

*"Ori baye ori kardantxillo arrapetan ibiltte ben amen, kardantxillue oñ estabill amen iñor kardantxilluek arrapetan" - (Hori baina hori kardantxiloa harrapatzen erabiltzen zuten hemen, kardantxiloa orain ez dabil hemen inor kardantxiloak harrapatzen)*

**karraskarie:** karraskada, txoriek egiten duten zarata

**kollariñe:** idunekoa, samakoa; samaren inguruan txori batzuek daukaten luma multzoa

*"Tortolatan klase bi das, lelengo etorten die txikidxe, saman kollariñik estekenak, eta usu nausittan be bardin, pasien lelengo etorten dienak ixaten die, txikidxauek, seoser txikidxauek, eta kollariñik estekenak, da orrek etorten die lelungen, da askenien, da gero pase normala ixaten da ori, tortola sera, kollariñe eukitten dabena" - (Tortoletan mota bi daude,*

*lehenengo etortzen dira txikiak, saman koilartxorik ez daukatenak, eta uso nagusitan ere berdin, pasean lehenengo etortzen direnak izaten dira, txikiagoak, zer edo zer txikiagoak, eta koilartxorik ez daukatenak, eta horiek etortzen dira lehenengoan, eta azkenean, eta gero pase normala izaten da hori, tortola zera, koilartxoia edukitzen duena)*

**kukue:** kukua

*"Ni txepetxan abidxan arrapaute na, kukue" - (Ni txepetxaren habian harrapatuta nago, kukua)*

*"Gure osabiek esate ban, e, Madrillen, e, makiña at dausela kukue sekule entzun estabena eta diru pilla galanta dekenak" - (Gure osabak esaten zuen, Madrilen, makina bat daudela kukua sekula entzun ez dutenak eta diru pilo galanta daukatenak)*

*"Lelengos entzute sanien, dirue poltzikuen eukieskero urte gustie aberatza" - (Lehenengoz entzuten zenean, dirua poltsikoan edukiz gero urte guztia aberatza)*

**kuliskie:** kurlinka

**kurrilloye:** kurloia

*"Kurrilloye, kurrilloye be, badabill, len saso baten gutxia egon san, bañe badabill atzera be gedxa, da estakitt ser jaten daben, orrek, e, bedarra, elbitzen asidxe eta ba danak, iderrak eta ba soluen, e, artue, artaberdie, gu pe or euki au te, artaberdie be, bueno! burue ei akonien, e, segiduen" - (Kurloia, kurloia ere, badabil, lehen sasoi baten gutxiago egon zen, baina badabil atzera ere gehiago, eta ez dakit zer jaten duten, horiek, belarra, albitzaren haziak eta ba denak, ilarra eta ba soroan, artoa, artaberdea, guk ere hor eduki dugu eta, artaberdea ere, beno! burua egin zitzaionean, segituan)*

**larratxoridxe:** larretxoria

*"Beste batzuk, serien seladxetan, motetan, da etaraten dabena, larratxoridxe" - (Beste batzuk, zerean zelaietan, altakurretan, eta ateratzen dutena, larretxoriak)*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Bai txikidxe da larratxoridxe, ori baño txikidxaue espada" - (Bai txikia da larretxoria, hori baino txikiagoa ez bada)

**marti sosue:** marti zozoa

**mikie:** mika

"Mikiek fama txarra deko" - (Mikak ospe txarra dauka)

**miro txikidxe:** miru txikia

**mirue:** mirua

"Ba mirue txikidxaue, txikidxaue da mirue" - (Ba mirua txikiagoa, txikiagoa da mirua)

"Da miruek, e, batzuek, e, esaten dabe miruek, e, denporaliai be igarri itte otzala, estaitt, ni ainbesterañoko enas sertu, bañe, leku baten, e, geatzen bada, mirue serien, a datorrenien, e, a alan dauenien, andik laster kanbidxauko dabela, e, denporie, esaten dabe" - (Eta miruak, batzuek, esaten dute miruak, denboralari ere igarri egiten diola, ez dakit, ni hainbesterañoko ez naiz zertu, baina, leku baten, geratzen bada, mirua zerean, hura datorrenean, hura hala dagoenean, handik laster aldatuko duela, eguraldia, esaten dute)

"Ni ikusitte ba, mirue, bañe subie terriblie ankan, egaran dabilela ankan" - (Ni ikusita ba, mirua, baina sugea itzela hankan, hegaran dabilela hankan)

**mosolue:** mozoloa

**okil aundidxe:** okil handia, okil nagusia

**okille:** okila

"Batzuk, e, gorritxuauek beste batzuek, baño, baye okille, amen, e, burue, dotorie eukitten dau okillek, seinye kardantxilluen antzera, bueno kolore, andidxaue tire ta" - (Batzuk, gorritxoagoak beste batzuk, baino, baina okila, hemen, burua, dotorea edukitzen du okilak, zein da kardantxiloen antzera, beno kolore, handiagoak dira eta)

"Okille bada, bastante" - (Okila badago, nahiko)

"An, okille egarri da! euridxe dator, a kantuen dabillenen, euridxe dator" - (Han, okila egarri da! euria dator, hura kantuan dabilenean, euria dator)

**okil txikidxe:** okil txikia

"Okil txikidxe da bat, bañe txikidxek, e, pintten gutxi deko, bestiek pintten berdie

deko" - (Okil txikia da bat, baina txikiak, pintan gutxi dauka, bestiek pintan berdea dauka)

**ollogorra, ollagorra:** oilagorra

"Amen bati pasau ei dxakon, e, gixon bati, kasorie bere denpora gustien, ixenikuei, beti, e, ollogorra, egunero ekarten ei dxeban jute san gustien ollogorra" - (Hemen bati pasatu ei zitzaion, gizon bati, ehiztaria bere denbora guztian, izanikoari, beti, oilagorra, egunero, ekartzen ei zuen joaten zen guztian oilagorra)

"Es preguntau nun dauen ollogorra se gabien itxi badabe an, e, Berrisko serien, bueno, estotzu esango, esta, beste puntara esango tzue, an, bai, an itxi dxuat" - (Ez itaundu non dagoen oilagorra ze gauean utzi badute han, Berrizko zerean, beno, ez dizu esango, ezta, beste puntara esango dizute, han, bai, han utzi diat)

"Olan beittute ollagorra dala esa leike, es? ero ser da au?" - (Hola begiratuta oilagorra dela esan daiteke, ez? edo zer da hau?)

"Itte gendun ollagor pillo bat" - (Hiltzen genuen oilagor pila bat)

**paseko durdurie:** paseko durdura

"Gero oten da paseko durdurie ta bertokue be bai" - (Gero egoten da paseko durdura eta bertokoa ere bai)

**paseko mirue:** paseko mirua

**pasie:** pasea

**pospoliñe:** galeperra

**saidxe:** saia

**sasitxoridxe:** sasitxoria

"Sasitxoridxek, e, ba estakitt, sasitxoridxe lena beuen amen, ori be galdu da, e?" - (Sasitxoriak, ba, ez dakit, sasitxoria lehenago ba zegoen hemen, hori ere galdu da, e?)

**sosue:** zozoa

"Ni neuk, e, ori pasetata sarritten, e, txori eta olako seretan, esautu eitte ittut batzuk, da oiñ, e, geixen dabixenak etxe inguruen, txantxangorrixek, e, serak, e, kurrilloyek, e, sosuek, e, sera, olakuek, usuek, e, belak, miruek, olakuek" - (Nik neuk, hori pasatzen zait sarritan, txori

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*eta holako zeretan, ezagutu ditut batzuk, eta orain, gehien dabilzanak etxe inguruan, txantxangorriak, zerak, kurriloiak, zozoak, zera, holakoak, usoak, beleak, miruak, holakoak)*

**suritie:** zurita, uso mota bat

*"Suritak ero esate otzena, usu nausidxen morukue bañe, kollariñik bakue, usu nausidxek kollariñe eukitten dau" - (Zuritak edo esaten diotena, uso nagusiaren modukoa baina, koilartxorik bakoa, uso nagusiak koilartxoa edukitzen du)*

**tariñe:** tarina

**torkasa:** uso nagusia

**tortolie:** tortola, uso mota bat

*"Basollarra, orrek oiñ etorten die, tortolakin batera" - (Basoilarra, horiek orain etortzen dira, tortolekin batera)*

**txantxangorridxe, txantxangorridxe, txantxagorrix:** txantxangorria

*"Txantxagorrix lagune ok, ori seoseaittik etorte ok" - (Txantxangorria laguna duk, hori zer edo zergatik etortzen duk)*

*"Apur bat aunditxuauek die, are pe, etxe inguruetan ikusten die, txantxagorrix moruen olako, e, sera, papar ingurue, kolore marroskako moruko sera, bai, olan aunditxuauek die, gero kurrilloyek eta orrek, e, asko, e, bustenikerak eta orrek" - (Apur bat handitxoagoak dira, haiek ere, etxe inguruetan ikusten dira, txantxangorria moduan holako, zera, papar ingurua, kolore marroixkako moduko zera, bai hola handitxoagoak dira, gero kurriloiak eta horiek, asko, buztanikarak eta horiek)*

*"Orrek Amabirjiñiei, e, begidxe siketu otzala, ori baten baño sarridxa entzu otzat nik andraskuei, e, negarres on sanien, txantxagorridxek, ba txori ain da ona, txantxagorridxe, txantxagorridxe, ni, kaballuei, e, negu gustien egunero goixien jute nasenien, ogidxe erute otzat, gero bedar asko dekonien da, ba enas juten iguel beti, bañe negu gustien, oin be, gaur be bai, de atzo be bai tte beti, era bat euki ban txantxagorridxek, basotik etorritte oten da txantxagorridxe, etxe onduetan, neguen, edurre ero otz daunien, da aurten be inbernaderure,*

*sartu an lo eiñ, goixien ni noyenien, ba ni emen bana txantxagorridxe or, da jaurti ogidxe, jan, bañe an, da bidxagonien be iguel, taka! allegautekuen an dator bestie" - (Horrek Amabirjinari, begia sikatu ziola, hori baten baino sarriago entzun diot nik andrazkoari, negarrez egon zenean, txantxangorriak, ba txori han da ona, txantxangorria, txantxangorria, ni, zaldiei, negu guztian egunero goizean joaten nazenean, ogia eroaten diot, gero belar asko daukanean eta, ba ez naiz joaten beharbada beti, baina negu guztian, orain ere, gaur ere bai, eta atzo ere bai eta beti, era bat eduki zuen txantxangorriak, basotik etorrita egoten da txantxangorria, etxe ondoetan, neguan, elurra edo hotz dagoenean, eta aurten ere berotegira, sartu han lo egin, goizean ni noanean, ba ni hemen banago txantxangorria hor, eta jaurti ogia, jan, baina han, eta biharamunean ere berdin, taka! ailegatutakoan han dator bestea)*

**txepetxa:** txepetxa

*"Da txepetxa be gutxi ikusten da, e? badau bañe gutxi, e? kontaute ikusten die, e? gutxi" - (Eta txepetxa ere gutxi ikusten da, e? badago baina gutxi, e? kontatuta ikusten dira, e? gutxi)*

*"Urtero kukue, da umiek txepetxai asi eraitte otzas" - (Urtero kukua, eta umeak txepetxari hazi eragiten dizkio)*

**txinbo erriela:** txinbo erreala

*"Txinbo erriela ixate san oso txori gosue jateko" - (Txinbo erreala izaten zen oso txori gozoa jateko)*

**txinbotxa:** txinbotxa

*"Txinbotxa, ormasuluetan da, abidxak eitte ittuena" - (Txinbotxa, horma zuloetan eta, habiak egiten dituen)*

**txinbue:** txinboa

*"Bueno txinbue bada beste bat, e, agostuen etorten dana, ori, e, pasien ero etorten dana ero, txinbue esatotzen txoridxe, ori, txori fiñe esaten dabe dana koipie eukitten dabela, txori gixena jeneralien" - (Beno txinboa bada beste bat, abuztuan etortzen dena, hori, pasean edo etortzen dena edo, txinboa esaten dioten txoria,*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*hori, txori fina esaten dute dena koipea edukitzen duela, txori gizena gehienetan)*

**txirtie:** txirta

**txiue:** txioa

**txontie:** txonta

*"Txontie gutxi ikusten da, ori udebarridxen or lora sasoyen ero, e, agertzen da, e, txontie" - (Txonta gutxi ikusten da, hori udaberrian hor lore sasoiaren edo, agertzen da, txonta)*

**txori abidxie:** txori habia

**txori amie:** txori ama, txori amea

**txorikumie:** txorikumea

**txoridxe:** txoria

*"Bueno begire jarri be eska eñ orretako, txoridxei tte olan" - (Benoa begira jarri ere ez gara egin horretarako, txoriei eta hola)*

**txulingie:** kurlinka

**umealdidxe:** umaldia

**umie:** umea, kumea

*"Serien, orma suluetan da, orrek umiek eta etaate ittu, baye gutxi ikusten da, e? txoridxe galdu da, gedxen gedxen galdu dana, artatxoridxe ixengo da iguel" - (Zerean, horma zuloetan eta, horrek umeak eta ateratzen ditu, baina gutxi ikusten da, e? txoria galdu da, gehien-gehien galdu dena, artatxoria izango da beharbada)*

**urkille bikotxa:** mirua izendatzeko era

*"Guk, e, mirue, urkille bikotxa esate geuntzen" - (Guk, mirua, urkulu bikoitza esaten genion)*

**ur martiñe:** ur martina

*"Aspaldiko urtietan, e, iguel ogei urte baño gedxauen ikusi estotena ies ikusi neban ur martiñe" - (Aspaldiko urteetan, beharbada hogeitau urte baino gehiagoan ikusi ez dudana iaz ikusi nuen, ur martina)*

**usue:** usoa

*"Oin ba onek gastioak eta ba, usue, pasien, ba, tiruek, e, asko eittie gustau oingo gastiei, jeneral bati, e? danai es bañe jeneral bati bai, e, diru faltaik es ero, lengo kasoriek danai beittu bikotzen, da, kartutxue erretie, ba, ixengo san, e, pekatue segurutik" - (Orain ba gazte hauek eta ba, usoa, pasean ba, tiroak,*

*asko egitea gustatu oraingo gazteei, gehien bati, e? denei ez baina gehien bati bai, diru faltarik ez edo, lehengo ehiztariek denari begiratu beharko zioten, eta, kartutxoa erretzea, ba, izango zen, bekatua segurutik)*

**usu nausidxe:** uso nagusia, uso mota bat

*"Da gero suritie etorten da, usu nausidxen aurretik etorten da, e, leleno etorten dienak suritak ixaten die" - (Eta gero zurita etortzen da, uso nagusiaren aurretik etortzen da, lehenengo etortzen direnak zuritak izaten dira)*

## 15.3. NARRASTIAK-ANFIBIOAK

**benenue:** pozoia

*"Bai sepuek eta ipintte besan, da benenue bota, benenue bota, ondio botate au arratoyendako benenue geu pe" - (Bai zepoak eta ipintzen zituzten, eta pozoia bota, pozoia bota, oraindino botatzen dugu arratoientzat pozoia geuk ere)*

**biborie:** larrasugea

*"Ari pikau otzan olantxik, e, serak subiek, da itxurie, au biborie ero, ori san, da eruen Galdakanora ta txarto ibili san, bañe gero be ardaorik esi leiken eran" - (Hari pikatu zion holantxe, zerak sugeak, eta itxura, larrasuge hau edo, hori zen, eta eroan Galdakaora eta txarto ibili zen, baina gero ere ardaurik ezin zezakeen edan)*

**ispidxe:** izpia, eztena

*"Ispidxe, ispidxe etaraten dabena, nik agiñek eta estzeas sekule ikusi, bueno il ye gero bai, bañe bestelan, e, aoik olan sabaldute, baye ispidxe etara da txistue pe bai jote ittue, subiek, e, txistue pe jote ittu" - (Izpia, izpia ateratzen duena, nik haginak eta ez dizkiot sekula ikusi, beno, hil eta gero bai, baina bestela, ahorik hola zabaldua, baina izpia atera eta txistuak ere bai jotzen dituzte sugeak, txistuak ere jotzen ditu)*

**muskerra:** muskerra

*"Muskerraitti pe esan da ori baten baño gedxatan, muskerraitti pe, muskerran ainkadie be, arek eltzen baotzu estabela*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*aintzen gedxau, arik ill artien, estabela agiñekiñ aintzen arek eltzen daben lekutik" - (Muskerragatik ere esan da hori baten baino gehiagotan, muskerragatik ere, muskerraren haginkada ere, hark heltzen badizu ez duela agintzen gehiago, harik hil artean, ez duela haginekin agintzen hark heltzen duen lekutik)*

*"Muskerra ta subie burrukan ikusitte gas, da subie txikidxe es, e? txikidxe es, metro erdi baño gedxako subie" - (Muskerra eta sugea borrokan ikusita gaude, eta sugea txikia ez, e? txikia ez, metro erdi baino gehiagoko sugea)*

*"Gure, ama difuntiek esate ban, or, e, ba irugarren etxien gas amen, berengo etxien, Maria Selaiko, baserridxen, e, seladxen ebixela muskerrak, gerriraño idxon ei otzan, da otza, a san gausa otza, otza" - (Gure, ama defuntuak esaten zuen hor, ba hirugarren etxean gaude hemen, beherengo etxean, Maria Selaiko, baserrian, zelaian zebiltzala muskerrak, gerriraino igo ei zion, eta hotza, hura zen gauza hotza, hotza)*

*"Olako gausemat ixen esien, ba muskerrak anka eitten dau, e, segiruen, da bai, subie pe bai, e? oiñ, e, emote otzu ikarie lenengun ukuste osunien ero" - (Holako gauzaren bat izan ezean, ba muskerrak hanka egiten du, segituan, eta bai, sugeak ere bai, e? orain, ematen dizu ikara lehenengoan ikusten duzunean edo)*

*"Ai! muskerrak amen atien eukitte ittu sarritten, ointxe estekaus, katuek dekuseneskero estekaus, bañe amen muskerra? kantidadie, bañe muskerrak estabe eser eitten, keba! muskerra politte da ganera, e? politte" - (Ai! muskerrak hemen atean edukitzen ditugu sarritan, oraintxe ez dauzkagu, katuek dauzkagunez gero ez dauzkagu, baina hemen muskerra? kantitatea, baina muskerrek ez dute ezer egiten, keba! muskerra polita da gainera, e? polita)*

*"Muskerrak, e, inbernaderuen, arrotza pe, muskerrak arrotzak, e, iste ittu, e" - (Muskerrak, berotegian, arrautzak ere, muskerrak arrautzak, uzten ditu)*

**sapaburue:** zapaburua

*"Sapaburutik estau urtengo onek, e, sapaburutik urgerixuek?" - (Zapaburutik ez du irtengo honek, zapaburutik urgerixoak?)*

**sapue:** zapoa

*"Ori, e, soloko sapue, soluen oten dan sapor andidxi gorridxi, lena gure, aittek, difuntuek euken sera, one pe kalteik estai pa ser eingo ban soluen, garitzan be bai, garitzan moruen sapo andidxauek ikuste sien, eta artze ban makilla bat, eta sartu makillie da gero lurrien sartu bestekaldetik eta, an makillan ipintte ban, iru bat egunien egote sien, bixiik, ankai eraitten" - (Hori, soroko zapoa, soroan egoten den zapo hori handi hori gorri hori, lehenago gure, aitag, defuntuak zeukan zera, honek ere kalterik ez dakit ba zer egingo zuen soroan, garitzan ere bai, garitzan moduan zapo handiagoak ikusten ziren, eta hartzen zuen makila bat, eta sartu makilari eta gero lurrean sartu besteko aldetik eta, han makilan ipintzen zuen hiru bat egunean egoten ziren, bizirik, hankei eragiten)*

**siraune:** zirauna

*"Amen siraun asko egote san" - (Hemen ziraun asko egoten zen)*

**suba berdie:** suge berdea

*"Klase asko da amen bertan be, aurten be il yau bat, e, subi onek suba berdiok, aundidxek, d'orrek benenoik estekela esaten dabe, bañe estakitt" - (Mota asko dago hemen bertan ere, aurten ere hil dugu bat, suge hauek, suge berdeok, handiak, eta horiek pozoirik ez daukatela esaten dute, baina ez dakit)*

**suba nabarra:** larrasugea, suge nabarra

**subie:** sugea

*"Tente baño nei baten, e, ikarie emostan, e, sera biribilyu sanien, pelota bat eiñ, eta bueltaka bedarren gañien, ba, berue euen egon be, orrek, e, goxien iruntzas bada ta bedarra ebaten sabis de, iruntze dauenien, baye beruas, subie, biskorra, biskorra ori!" - (Tente baino niri baten, ikara eman zidan, zera biribildu zenean, pilota bat egin, eta bueltaka belarraren gainean, ba, beroa zegoen egon ere, horiek, goizean iluntzeagaz badago eta*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*belarra ebakitzen zabiltza eta, iluntzea dagoenean, baina beroagaz, sugea, bizkorra, bizkorra hori!)*

*"Guk or goiko seladxetan, oin ganaue tabixen lekuen, ba len bedarra ebaten genduen, da, an be subie ta ori, benenosue, e?" - (Guk hori goiko zelaietan, orain ganaduak dabiltzan lekuan, ba lehen belarra ebakitzen genuen, eta, han ere sugea eta hori, pozoitsua, e?)*

*"Ta beñ etara eban, eskallumat ero salakuen, olako suba bat, errekako suba bat eskuen" - (Eta behin atera zuen, ezkailuren bat edo zelakoan, holako suge bat, errekako suge bat eskuan)*

*"Gu ire ebaten ero bedarra ebaten, uran, agostuen da bedarra sikue batzen da, da gure amak, e, i subie ortxe euena lenguen subie, ikusi naixonan subie, da kontus, or da, juten giñen bedarra batzen, onaño botiñekin, estakixu orrek botiñek gomaskuk, da prakak, prakak, gixoneskun prakak ni pe, ta dana tapaute, mangak danak tapaute, suben billurraittik, ori agostuen, e? bedarra batzen, e? ixerdi baten, subakaittik olantxik" - (Gu ira ebakitzen edo belarra ebakitzen, udan, abuztuan eta belarra sikua batzen eta, eta gure amak, hi sugea hortxe zegoena lehengoan sugea, ikusi ninan sugea, eta kontuz, hor dago, joaten ginen belarra batzen, honaino botinekin, ez dakizu botin horiek gomazkoak, eta prakak, prakak gizonezkoen prakak nik ere, eta dena tapatuta, mahukak denak tapatuta, sugeen bildurratik, hori abuztuan, e? belarra batzen, e? izerdi baten, sugeengatik holantxe)*

*"Ni nobidxias Santaufemia juen, setienbrien ixeten da, Santaufemia, ta bueltan natorrela an baserri etxe baten onduen, goittik bera Markiña bajetan, e, an ataju batetik, e, genkidxen birie, ta andik bajetan baserri etxe baten onduen, bueno ikusi naben sube bat terriblie, metro bat pasaukie ero olaku, bañe gero euken, onako, e, sera, tripie, eta makille andidxe, e, gendukesan, jota makillias di-da! akabau gendun, eta an baserrikuei intai bat eskatu notzan, sabaldu notzan*

*aber ser euken, arrotzak ero ser eukesan, eta, sapo bi eukesan, bañe sapo onek txikidxe es, e? onakoxiek, sapoak, osoik eukesan barrun" - (Ni andregaiagaz Santa Eufemiara joan, irailean izaten da, Santa Eufemia, eta bueltan natorrela han baserri etxe baten ondoan, goitik behera Markinara baxatzen, han laster-bide batetik, genekien bidea, eta handik baxatzen baserri etxe baten ondoan, beno ikusi nuen suge bat itzela, metro bat pasatukoa edo holakoa, baina gero zeukan, holako, zera, tripa, eta makila handiak, geneuzkan, jota makilagaz di-da! akabatu genuen, eta han baserrikoari igitai bat eskatu nion, zabaldu nion ea zer zeukan, arrautzak edo zer zeuzkan, eta zapo bi zeuzkan, baina zapo hauek txikiok ez, e? holakoxeak, zapoak, osorik zeuzkan barruan)*

*"Ni subie ikusitte na, arrotzak, e, serien, e, olantxik, mutikue nintzela, Eitzara errotara, noyela astuas, akabaute, tripie sabaldute, batan batek, eta arrotzak etata" - (Ni sugea ikusita nago, arrautzak, zerean, holantxe, mutikoa nintzela, Eitzara errotara, noala astoagaz, akabatuta, tripa zabaldua, baten batek, eta arrautzak aterata)*

**subilandarie, subillandarie:** sugelandarea, sugandila

*"Subilandarie ba, jo ta apurtu ero, ill ero dana dalakue, ori bai" - (Sugelandarea ba, jo eta apurtu edo, hil edo dena delakoa, hori bai)*

*"Es, es, subilandarie esta ori, subilandarie da beste lusie, a txikixe, ori a muskerra onan, au tamañukuau ero, berde berdiek, eta batzuk, beste batzuk orixek, polittek das, polittek" - (Ez, ez, sugelandarea ez da hori, sugelandarea da beste luzea, txiki hura, hori musker hura hola, hau tamaina hau edo, berde-berdeak, eta batzuk, beste batzuk horiak, politik daude, politik)*

**urgaxue, urgerixue:** ugaraxoa, igela

*"Ba lenengos entzutot ointxe, sapaburutik urgerixuek urteten dabenik" - (Ba lehenengoz entzun dut oraintxe, zapaburutik ugaraxoak irteten duenik)*



# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Orduen, e, amentxe euen, nos egon san, e, untxe dala urte bi ala iges, urte bi, esta? da gero galdu san, kantau be selan kanteta ban, ba len amen etxe aspidxen be asko egote sien, urgerixuek, d'orrek gero kanpora urteten dabe, motara ta olan serien da gero, iñor ukusi ero sertzzen danien atzera ureta salto" - (Orduan, hementxe zegoen, noiz egon zen, oraintxe dela urte bi ala igez, urte bi, ezta? eta gero galdu zen, kantatu ere zelan kantatzen zuen, ba lehen hemen etxe azpian ere asko egoten ziren, ugaraxoak, eta horiek gero kanpora irteten dute, motara eta hola zerean eta gero, inor ikusi edo zertzzen denean atzera uretara salto)

## 15.4. ARRAINAK

**angillie:** aingira

**arrankaridxe:** arrankaria

"Amen dau erreka bat, or frontotik gora dauena, bai tte arrapaute be bai, anaidxiek eta bidxok, bein baño sarridxa, e, amar dosena bat arrankari" - (Hemen dago erreka bat, hor frontoitik gora dagoena, bai eta harrapatuta ere bai, anaiak eta biok, behin baino sarriago, hamar dozena bat arrankari)

**arrañe:** arraina

"Arraño len, e, sarbu eskallue" - (Arraina lehen, zarbo-ezkailua)

**barbue:** barboa

**eskallue:** ezkailua

"Eskallue ote san, e, posu aundi txamarrak euesan lekuen, an egote sien eskallu moltzuek, da sarbue erreka danien, e? sarbue tenedorras arrapetan genduen guk ta onek piper potiek, lena piper potiek, arek, e, eruten gendusen da piper potiek eta ba gero bota ero, gurien, guresuek nik estotes sekule olako arrain klaseik, e, ipintten etxien ikusi" - (Ezkailua egoten zen, putzu handi samarrak zeuden lekuan, han egoten ziren ezkailu multzoak, eta zarboa erreka denean, e? zarboa sardexkagaz harrapatzen genuen guk eta piper pote

hauek, lehenago piper poteak eta ba gero bota edo, gurean, gurasoak nik ez ditut sekula holako arrain motarik, ipintzen etxean ikusi)

**eskamie:** ezkata

**kangrejue:** karramarroa

"Kangrejue, politto, es olan asko baño, erreka txikidxe ixen dire onek eta, baye erreka garbidxe" - (Karramarroa, polito, ez hola asko baina, erreka txikiak izan dira hauek eta, baina erreka garbiak)

**sarbue:** zarboa

"Amen sarbue ta eskallue baño besteik esta egon, da kangrejue" - (Hemen zarboa eta ezkailua baino besterik ez da egon, eta karramarroa)

## 15.5. INTSEKTUAK

**amaraune:** amarauna, aramu sarea

**ar berdie:** har berdea

"Orrek ixengo die, ixena gu pa, arrak, ar berdiek ero ar baltzak" - (Horiek izango dira, izena guk ba, harrak, har berdeak edo har beltzak)

**ar baltza:** har beltza

**ardidxe:** ardia, arkakusoa

"Len ardidxe ensegida eitte san" - (Lehen ardia behingoan egiten zen)

**ar gorrixe:** har gorria

**arkue:** harrak jo, harjoa

"An eitte akuena, iguel gañera, gañetik iguel igerri es eta gero, barruen agertzen da, arkue esate tzau, arkue" - (Han egiten zaiena, beharbada gainera, gainetik beharbada igarri ez eta gero, barruan agertzen da, harjoa esaten diogu, harjoa)

**arra:** harra

"Esaten dabe sertueskero, e, arra be formatakueta eta estakit ser, odola etaeskero, larrei ebayeskero" - (Esaten dute zertuz gero, harra ere egiten zaiela eta ez dakit zer, odola atereaz gero, larregi ebakiz gero)

**ar surixe:** har zuria

**barie:** barea

"Bueno orrek, e, bitxo danak iltten daus se lena bareik etzan esistitzen beintzet, da

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*orrek galduko ban barie, oin barie bada, botikeik espalau esebe esileike artu" - (Beno horrek, mamarro denak hiltzen ditu ze lehenago barerik ez zen existitzen behintzat, eta horrek galduko zuen barea, orain barea badago botikarik ez balego ezer ere ezin liteke hartu)*

**bartza:** bartza

**bitxue:** mamarroa

**eltxue:** eltxoa

**erlamiñue:** erlaminoa, urubioa

**eskarabajue:** eskarabajoa

**espatie, espadie:** ezpada

**euli aundidxe:** ezpata urdina, urdinxkak diren euli handiak

**eulidxe:** eulia

**euli mandue:** euli mandoa

*"Euli manduek die, aundidxauek, erlamiñuen moruko orrek" - (Euli mandoak dira, handiagoak, erlaminoaren moduko horiek)*

**iputargidxe:** ipurtargia

**kakalardue:** kakarraldoa

*"Beste orren antzeko bat galdu dana emen parajien, kakalardue, ori esta, len ori asko oten san emen da" - (Beste horren antzeko bat galdu dena hemen inguruan, kakarraldoa, hori ez dago, lehen hori asko egoten zen hemen eta)*

**kaparrie:** kaparra

*"A txarto on san kaparrie sartute gorputzien" - (Hura txarto egon zen kaparra sartuta gorputzean)*

*"Ardidxe dabillen lekuen kaparrie beti da" - (Ardia dabillen lekuan kaparra beti dago)*

**karakola:** barraskiloa

**kokue:** kokoa

*"Bai ori etxakitt nik selan dan kokotxue ero, ori itxurie, jan eitte dxok berak seoser" - (Bai hori ez zakiat nik zelan den kokotxoa edo, hori itxura, jan egiten dik berak zer edo zer)*

*"Kokuek arboliek eukitteittun morukuek, onakoxiek, bañe potoluek! onakoxiek, begi bal baltzakin" - (Kokoak arbolak edukitzen dituen modukoak, holakoxeak, baina potoloak! holakoxeak, begi beltz-beltzekin)*

**kukaratxie:** labe zomorroa

**lupue:** lupua

*"Lupue, emen, matzetan da, e, mas parrak eta, etxe ormetan da, lena argitze san lupue, onakoxe bitxo bat, onek arrak, txikidxen oten dien moruen, axe iguela, berdie, onakoxe katxarrue, oiño urte asko estala akabau ot nik lupue" - (Lupua, hemen, mahatsetan eta, mahats parrak eta, etxe hormetan eta, lehenago agertzen zen lupua, holakoxe bitxo bat, har hauek, txikian egoten diren moduan, huraxe berdina, berdea, holakoxe katxarroa, oraindino urte asko ez dela akabatu dut nik lupua)*

*"Okela asko deko lupuek" - (Okela asko dauka lupuak)*

**lur txakurre:** lur txakurra

*"Lur txakur bai, lur txakurrek, e, sulo txikidxe itten dau, au atzamarra, bestekue, lur txakurre amen be, satza dauen lekuen asko, lur txakurre ibiltten da, satz asko dauen lekuen" - (Lur txakur bai, lur txakurrak, zulo txikia egiten du, atzamar hau, bestekoa, lur txakurra hemen ere, satsa dagoen lekuan asko, lur txakurra ibiltzen da, sats asko dagoen lekuan)*

**mamorrue:** mamarroa

*"Bai mamorruek asko dasek, e, olan, ixenas estoat esango nik baña mamorruek asko, bueno!" - (Bai mamarroak asko zaudek, hola izenagaz ez diat esango nik baina mamarroak asko, beno!)*

**mandaulidxe, mando eulidxe:** mandeulia

*"Guk mandaulidxe esate otzau orri" - (Guk mandeulia esaten diogu horri)*

*"Mandaulidxe, esate otzau ori beste kaparra morukuoi, anka bittartien, ta pegaute, ori bañe" - (Mandeulia, esaten diogu beste kaparra modukoari, hanka bitartean, eta itsatsita, hori baina)*

**marigorridxe,**

**marigorringo:**

marigorringoa

**mariposie:** txirpilotatximeleta

**matxisaltue:** matxinsaltoa

**miermie, miarmie:** armiarma, aramua

**patata kokue:** patata kokoa

**pikarie:** ziztada

**sagar arra:** sagar harra

**saltamatxiñe:** saltamatxinoa, matxinsaltoa

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**sapaterue:** zapateroa, ur azalean ibiltzen den mamarro bat

**sastarie:** pikada

**sitze:** sitsa

"Ene! ba ontxe ala urte bete ero, ganbaran euen da, dana sitzek janda bota neban" - (Ene! ba oraintxe ala urte bete edo, ganbaran zegoen eta, dena sitsak janda bota nuen)

"Bai erropakuei tte bai egurrekuei sitze esate otzau" - (Bai arropakoari eta bai egurrekoari sitsa esaten diogu)

**sorri arrotzie:** zorri arrautza

**sorri baltza:** zorri beltza

"Sorri baltza, normalien, estotzu eitten olako aberidxaik, bañe onek, e, sorri beste gorriska bat eta berdie, orrek eitte otzue aberidxie, arboliei rakitikotu, da sera be bai, e? ortuaridxe be bai" - (Zorri beltza, normalean, ez dizu egiten holako aberiarik, baina hauek, zorri beste gorriska bat eta berdea, horiek egiten dizute aberia, arbola endekatu, eta zera ere bai, e? ortuariari ere bai)

**sorri berdie:** zorri berdea

**sorridxe, sorrixe:** zorria

"Sorrixe beste gausa bat, sorrixe, barruen barik, kanpuen agertzen dana, e, orri artien eta olan" - (Zorria beste gauza bat, zorria, barruan barik, kanpoan agertzen dena, orri artean eta hola)

**sorri gorridxe:** zorri gorria

**surkulue:** mari artazia, mari urkulua

"Surkulue, olako pintxo bat, urkillo bat, ipurdidxen, da ori kerixan oten da ori bastante, iguel kerixak jaten da ra! tokate atzu ori tte, ba gañea mingotxa" - (Mari artazia, holako arantza bat, urkulu bat, ipurdian, eta hori gerezian egoten da hori nahiko, beharbada gereziak jaten eta ra! tokatzen zaizu hori eta, ba gainera mingotsa)

**txinyurridxe:** inurria

**txirri txirridxe:** txiri-txirria

"Txirri txirridxe bai! ori bai, bai, olako lasto luse bat iñardu te suluen, e, da etara kanpora ta arrapau" - (Txirritxirria bai! hori bai, bai, holako lasto luze bat jardun eta zuloan, eta atera kanpora eta harrapatu)

"Beste bat galtzen dauena au, e, txirri txirridxe, ori be galtzen doye total" - (Beste bat galtzen dagoena hau, txirri-txirria, hori ere galtzen doa guztiz)

"Oñ, ori bedarroai esta ikusten asko, selaidxetan, bera be txirri txirridxe galdu da ta bedarra be galdu da, se ori san bedar bat, e, fiñe" - (Orain, belar hori ez da ikusten asko, zelaietan, bera ere txirri-txirria galdu da eta belarra ere galdu da, ze hori zen belar bat, fina)

**ulebixue:** urubioa, erlaminoa

## 16. BEHARRA

Atal honetan nekazaritza eta abelazkuntza ez diren garaiteko ogibideen gainerako berbak emango ditugu. Horretarako, ogibideak eta ogibideetako lanabesak izeneko azpi-atalak bereiziko ditugu.

### 16.1. OGIBIDEAK

**abarketerue:** abarketerua

"An ote san olako abarketero bat, da ari eroste notzan beti" - (Han egoten zen holako abarketeru bat, eta hari erosten nion beti)

**abogaue:** abokatua

"Militar inportantiek on sien, or, da abogauek eta, olako, olako jentie on san or" - (Militar garrantzitsuak egon ziren, hor, eta abokatuak eta, holako jendea egon zen hor)

**afiladorie:** zorrotzailea

**aguasille:** udaltzaina

**aiñie:** inudea

**albaiterue:** albaiteroa, albaitaria

**albañela:** igeltseroa

**aministradorie:** administratzailea

**argiñe:** hargina

"Berrisko argin batas ibilli nitzen ni an tellatuen" - (Berrizko hargin bategaz ibili nintzen ni han teilatuan)

**arotza:** arotza

**arotzeridxie:** arotzeria

**armerue:** armagina

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Armero moruen, bierra ta ba tallarretaa jute sienien, Eibarra be bai bierrera, oin be jungo die ta lena be bai" - (Armagina moduan, beharra eta ba tailerretara joaten zirenean, Eibarrera ere bai beharrera, orain ere joango dira eta lehenago ere bai)

**arrainyune:** arrainduna, arrain saltzailea

**asur konpontzaillie:** hezur ipintzailea, hezur hausturaz arduratzen den sasi medikua

"Beittu pasatan dana, egon ixen dire, olako, asur konpontzaillak esate otzenak, afesiñauk, bañe nik orrei fedeik es, onei sekule bes" - (Begiratu pasatzen dena, egon izan dira, holako, hezur konpontzaileak esaten zietenak, zaleak, baina nik horiei federik ez, hauei sekula ere ez)

**barberue:** barberua, bizargina

"Barberue pai baserriik baserri ibiltte sienak, astien beiñ ebaitte ben bixerra ta jute sien baserrire, astien beiñ" - (Bizarginak bai baserririk baserri ibiltzen zirenak, astean behin ebakitzen zuten bizarra eta joaten ziren baserrira, astean behin)

**barrenadorie:** barrenadorea

**baskulagiñe:** baskulagina

"Gastiek ba asko biarra be, an gure ausuen, mutillek, e, aitte san baskulagiñe esatako ta, kanpoko jentie, da bei bi ero eukitte sittuen, aren ganajatekue in ye, biarra, ofisiue ikastera, pagau barik eta uesaba pe kobrau barik, ba antxe baserridxen lagundu te, ofisiue ikasi" - (Gazteak ba asko beharra ere, han gure auzoan, mutilak, aita zen baskulagina esaten zaio eta, kanpoko jendea, eta behi bi edo edukitzen zituen, haren ganadu-jatekoa egin eta, beharra, lanbidea ikastera, ordaindu barik eta ugazabak ere kobratu barik, ba hantxe baserrian lagundu eta, lanbidea ikasi)

**basurerue:** zabor biltzailea

**baserrittarra:** baserritarra

"Baserrittarrak esate ban, txarridxe il bi ot gaur" - (Baserrittarrak esaten zuen, txerria hil behar dut gaur)

**beteinadxue, betunaidxue:** albaiteroa, albaitaria

"Bañe txal txikidxei tte akordeta nas, Eibarko beteinadxuek esate ban emon bedar sikue ausnar ein daidxen, eitten dau ausnar? lenengo preguntie" - (Baina txahal txikia eta gomutatzen naiz, Eibarko albaiteroak esaten zuen eman belar sikua hausnar egin dezan, egiten du hausnar? lehenengo itauna)

"Aitte eseuen etxien da aittitte ba beti ortantxe ibiltte sana ixen san bañe, ya irurotamabost urtetik gora euen da, aittitte pa eseban jakiñ, nik ordun saspi urte ero da, betunaidxo ekarri gendun da arek sartu otzan" - (Aita ez zegoen etxean eta aitaita ba beti horretantxe ibiltzen zena izan zen baina, ja hirurogeita hamabost urtetik gora zegoen eta, aitaitak ba ez zuen jakin, nik orduan zazpi urte edo eta, albaitaria ekarri genuen eta hark sartu zion)

**biargiñe, biergiñe:** behargina

"Gero kalien euesan industria aunditxuauek, iguel amabost ogei lagun, biergiñ eukesenak" - (Gero kalean zeuden industria handitxoagoak, beharbada hamabost hogeia lagun, behargin zeuzkatenak)

**bustergiñe, busterrigiñe:** buztargina, buztarri egilea

"Busterrigiñe ixate san ibiltte sana etxeik etxe, busterridxe itten" - (Buztargina izaten zen ibiltzen zena etxerik etxe, buztarria egiten)

**diretorie:** zuzendaria

**enpresa gixona:** enpresa gizona

**enterradorie:** enterradorea, lurpetzailea

**errementaridxe, errementaidxe:** errementaria

"Txapa bat uste ot eukitte bela beyen ipiñitte, orduen errementaridxe eta beyen lurre euen, lurre ondo sapaldute, esta? bañe lurrekue san, aren gañien ipiñi txapa bat da an gañien, bueno lelengo suteidxen ein brasie, ipiñi an, da gero ari gedxa botaten jun, da eskuko auspuas, gori gori burdiñie berotu arte, ba olan" - (Txapa bat uste dut edukitzen zutela behean ipinita, orduan errementariak eta behean lurra zeukan,

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*lurra ondo zapalduta, ezta? baina lurrezkoa zen, haren gainean ipini txapa bat eta han gainean, beno lehenengo sutegian egin txingarra, ipini han, eta gero hari gehiago botatzen joan, eta eskuko hauspoagaz, gori-gori burdina berotu arte, ba hola)*

**estaperlistie:** estraperloan dabilena

**eulie:** ehulea

*"Eulak eta amai entzunde, eulie estaitt nungo eulie bakitt nungue" - (Ehuleak eta amari entzunda, ehulea ez dakit nongo ehulea badakit nongoa)*

**fruterie:** fruta saltzailea (f)

**fruterue:** fruta saltzailea

**guardie:** basozaina

**jornala:** soldata, alogera

*"Ni tellatuen ibillitte na, jornalien, e, mutikotan, sei nebarreba giñen da" - (Ni teilatuan ibilita nago, alogerean, mutikotan, sei neba-arreba ginen eta)*

**jostune:** jostuna

**jotaille:** errementaritzan mailuketan jarduten duena

**jubilaue:** jubilatua, erretiratua

**kapadorie:** irentzailea

**karniserie:** harakina (f)

**karneserue, karniserue:** harakina

**kartapasa, katapasa:** kapataza

*"A san katapasa, san a eskondu arte, esautze senduen, e? Pasionarixie? Pasionarixien errixen, bakixus, kanterak dausena? angotxek, antxe kolokaute euen gure aitte, kartapas" - (Hura zen kapataza, zen hura ezkondu arte, ezagutzen zenuten, e? Pasionaria? Pasionariaren herrian, badakizkizu, harrobiak daudena? hangoxeak, hantxe sartuta zegoen gure aita, kapataz)*

**karterie:** postari andrazkoa

**karterue:** postari gizonezkoa

**kinkillerue:** kinkileroa

*"Lena kinkilleruek etorte sien" - (Lehen kinkileroak etortzen ziren)*

**kriedie, kridxarie:** neskamea

*"Nere aistie be jun san krieda ta akabo! beti neu etxien aittas ta amas" - (Nire ahizta ere joan zen neskame eta akabo! beti neu etxean aitagaz eta amagaz)*

**kridxau-kridxarak:** morroi-neskameak

**krixau, kridxau:** morroia

**maixue:** errementari maisua

**matarifie:** matarifea, ganadu-hiltzailea

*"Gero, nebe, nausidxe be matarife ibili san, gero karneserue be beste anadxe ba padekat eta urte pillo baten eurek bañe" - (Gero, neba, nagusia ere matarife ibili zen, gero harakina ere beste anaia bat badaukat eta urte pilo baten eurek baina)*

**medikue:** medikua

*"Orras ya medikuana, osatze espasan, orras medikuana jute san amen" - (Horregaz ja medikagana, osatzen ez bazen, horregaz medikuagana joaten zen hemen)*

*"Mediku, lentxo baten euki neban sera ta, esa ostan, e, andik urtengo naberen esperantzaik esebela eukiñ eurek" - (Medikua, lehentxo baten eduki nuen zera eta, esan zidan, handik irtengo nuen esperantzarik ez zutela eduki eurek)*

**morroye:** morroia

*"Morroye genduken urte askuen" - (Morroia geneukan urte askoan)*

**obrerue:** behargina, langilea

**ofisiue:** ogibidea

*"Danak deke ofisio bana danak" - (Denek daukate ogibide bana denek)*

*"Nik ofisio asko dekas monagillue asitte" - (Nik ofizio asko dauzkat meza-laguna hasita)*

**panaderue, panaerue:** okina

**parterie:** emagina

*"Andra bat, bueno sera, baserriko andra bat ibiltte san batzutan, jeneralien ya amen, ni neuk nire serien medikue esautu neban, bañe aurretik konteta ben ba, ori parterie ixandakue da orrek semat ume ekarrikue dan da ori be bai, oiñ, baye arek parteri arek estudidxoik, nik esaute nittuenak es" - (Andre bat, beno zera, baserriko andre bat ibiltzen zen batzuetan, gehienetan ja hemen, nik neuk nire zerean medikua ezagutu nuen, baina aurretik kontatzen zuten ba, hori emagina izandakoa da horrek zenbat ume ekarrikoa den eta hori ere bai, orain, baina emagin haiek estudiorik, nik ezagutzen nituenek ez)*

**pastelerue:** pastelgilea, gozogilea

**pastorie:** artzaina

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Se errittakue da pastorie?" - (Ze herritakoa da artzaina?)

"Nere lagun oi Ameriketean pastore da" - (Nire lagun hori Ameriketean artzain dago)

**perratzallie:** perratzailea

"Ori, e, sera, perratzalliek gastau sienien, ipiñiko ben, emen egon da beti Berrisen" - (Hori, zera, perratzaileak eskastu zirenean, ipiniko zuten, hemen egon da beti Berrizen)

"Perratzallie etorte san bañe Berrisko bat eta bueno il san, ta a il sanien ba geu asi giñen" - (Perratzailea etortzen zen baina Berrizko bat eta beno hil zen, eta hura hil zenean ba geu hasi ginen)

**pintxe:** pintxe, morroia, tailerretako laguntzailea

"Batzokidxe, elisien ondun euen, ba kuarto bat, etxe partikular baten, beno partikularra, Batzokidxek, e, berena, beno berena es, alkillerrien ero dana dalakue, da ara ta jute giñen da gero, ni amalau urtas, amalau urte pasaute, taller baten, pintxe, pintxe, errekauek eiñ ye" - (Batzokia, elizaren ondoan zegoen, ba gela bat, etxe partikular baten, beno partikularra, Batzokiak, berarena, beno berarena ez, alokairuan edo dena delakoa, eta hara eta joaten ginen eta gero, ni hamalau urtegaz, hamalau urte pasatuta, tailer baten, morroi, morroi, mandatuak egin eta)

**pratikantie:** praktikantea

**sapaterue:** zapataria

**sasi medikue:** sasi medikua

"E, or gixon bat, e, oso txarto euen eta, gabien, e, goxeko, ordu bidxetan ero, iruetan ero, etor san, e, bat, e, aren koñatue, txarto euenen koñatue, gure aittana, e, Gipuskuera juteko, sasi mediku batana, ba gure aittek ekidxela bidie ta, bueno, jo dau eskatzeko atie, arek esekidxen, gutxi gora bera jo dau ate bat, e, danba-danba jo dau te, atie sabaldu akon, guk atie eskenduen isten lena, baserridxetan atiek danak sabalik, lapurren billurrik eseuen, atiek danak sabalik, eta, atie sabaldu akon, ta ser ei ban bestiek? pasau barrure, da eskatzien, eskatzen erdi erdidxen esa ban, e, Luis!

da, seiñ as? da ixena etxat akordetan oiñ, sera, bueno, eta ointxe natok, lo eitte ban aittek godxen, ni pe godxen eitte naban lo, da bajatu san bera ta ba, jun sien" - (Hor gizon bat, oso txarto zegoen eta, gauean, goizeko, ordu bietan edo, hiruretan edo, etorri zen, bat, haren koinatua, txarto zegoenaren koinatua, gure aitarengana, Gipuzkoara joateko, sasi mediku batengana, ba gure aitak zekiela bidea eta, beno, jo du ezkaratzeko atea, hark ez zekien, gutxi gora behera jo du ate bat, danba-danba jo du eta, atea zabaldu zitzaion, guk atea ez genuen ixten lehenago, baserrietan ateak denak zabalik, lapurren bildurrik ez zegoen, ateak denak zabalik, eta atea zabaldu zitzaion, eta zer egin zuen besteak? pasatu barrura, eta ezkaratzean, ezkaratzaren erdi-erdian esan zuen, Luis! eta, zein haiz? eta izena ez zait gomutatzen orain, zera, beno, eta oraintxe natorrek, lo egiten zuen aitak goian, nik ere goian egiten nuen lo, eta baxatu zen behera eta ba, joan ziren)

**sesterue:** otzaragilea

**tabernerue:** tabernaria

**txispagiñe:** zizpagina, eskopeta egilea

**txisperue:** zizpagina, eskopeta egilea

"Ori batek eingo ban bakarrik, da gero beste asko euesan, e, txisperuek esate otzen eskopetien txispie itte benak, mekanismue, gatilluena, axe" - (Hori batek egingo zuen bakarrik, eta gero beste asko zeuden, zizpaginak esaten zieten eskopetaren zizpa egiten zutenak, mekanismoa, gatiloarena, huraxe)

**txoferra:** txoferra, gidaria

## 16.2. OGIBIDEETAKO LANABESAK

**agiñe:** zerraren haginak

**alperra:** daratulua esateko modua

**arandelie:** arandela

**arpana:** arpana, zerra mota bat, handia enborrak ebakitzeko

"Sei urte ero, lau ero, estaki pa nik semat eukingo nittuen, ortxe ibilli sien, e, trenbirerako trabiesak eitten, da antxe

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*dekat esautute, eitte ben ba gixon bat beyen kabitzeko morukue, da arpana, bata beyen da bestie godxen ba trabiesak eitteko arbolak antxe bertan ebate besan"*  
- (Sei urte edo, lau edo, ez dakit ba nik zenbat edukiko nituen, hortxe ibili ziren, trenbiderako trabesak egiten, eta hantxe daukat ezagututa, egiten zuten ba gizon bat behean sartzeko modukoa, eta arpana, bata behean eta bestea goian ba trabesak egiteko arbolak hantxe bertan ebakitzen zituzten)

**auspue:** hauspoa, sute giko sua biziagotzeko erabiltzen zena

**barautze:** barautsa

**baskulie:** baskula, eskopeten zati bat

**berbikiñe:** birbikina, egurra zulatzeko erabiltzen dan laratro berdingo antzekoa

**berune:** beruna

**brokie:** broka, barautsa

**burille:** burila

*"Grabau be bai, grabau, bueno grabaue geruakue da, grabaue da gerra ostekue, e, eitte ben burillas grabau"* - (Grabatu ere bai, grabatu, beno grabatua geroagokoa da, grabatua da gerra ostekoa, egiten zuten burilagaz grabatu)

**burue:** iltzearen burua

**enpresie:** enpresa

**entramadora:** entramadorea

*"Au, e, sera, entramadora, entramie emoteko agiñei"* - (Hau, zera, entramadorea, entrama emateko haginei)

**entramie:** entrama

**errematxie:** errematxea

**errementaridxie:** errementaria

*"Or errementaridxan estekat akorduen selan euken"* - (Hor errementarian ez daukat gogoan zelan zeukaten)

**erremintta kirtena:** erremintta kirtena

**erreminttie:** erremintta

*"Ba segun, bakoitxak se bier alako erreminttie, esta?"* - (Ba segun, bakoitzak ze behar halako erremintta, ezta?)

**eskuadrie:** eskuadra

**esterie:** estera, zorrozteko harria

*"Esterie uste ot esatakola, arridxe sorrostekue"* - (Esteria uste dut esaten zitzaiola, harria zorroztekoa)

**forjie:** forja

**formoye:** formoia

**fundisiñue:** fundizioa

**galtzairue:** galtzairua, altzairua

*"Eta karbonuas da burdiñias eitten da galtzairue"* - (Eta karbonoagaz eta burdinagaz egiten da altzairua)

**garlopie:** garlopa

**garlopiñe:** garlopina

**gidxie:** gida

*"Ba au, e, bidan luserara ebate san, sartzte otzen emen, gorittute, emen sulo bat einye ote san bañe sulo txikidxaue, gidxa moruen"* - (Ba hau, behar den luserara ebakitzen zen, sartzten zioten hemen, gorituta, hemen zulo bat eginda egoten zen baina zulo txikiagoa, gida moduan)

**gillamie:** gilama

**gorri illune:** galtzairuak berotzean hartzen dituen koloreetariko bat tenperatura zehatz batera helduz gero

**grabaue:** grabatua, eskopetei egiten zaiena

**gramille:** gramila

**inguleta:** inguleta

**jungurie:** jungudea, ingudea

*"Jungurie gañera bat, e, erabiltten da orretarako eta beste jungura ba pe bai sera ganaue ta, perrak bi dienien, perrak eta, formie emoteko"* - (Jungudea gainera bat, erabiltzen da horretarako eta beste jungude bat ere bai zera ganadua eta, perrak behar direnean, perrak eta, itxura emateko)

*"Jungurie pa eukitte ban olako larogei bat sentimetro ero, altura, onen madxen antzera ero, esta?"* - (Jungudeak ba edukitzen zuen holako laurogei bat zentimetro edo, altuera, mahai honen antzera edo, ezta?)

**kañoye:** kainoia

*"Da beste batzuk eitte ben, ori txispioi be artu, da baskulie, kañoyas ajustau"* - (Eta beste batzuek egiten zuten, zizpa hori ere hartu, eta baskula, kainoiagaz doitu)

**kimeleta:** ginbaleta

*"Kimeleta esatotzau guk orri, kimeleta"* - (Ginbaleta esaten diogu guk horri, ginbaleta)

**konpasa:** konpasa

**kulatie:** kulata

**kutxillie:** kutxila, xafla

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**latrue, laatrue:** laratroa, daratulua

**lijie:** lixa

"*Da eitte akon lijie pasau suritzeko*" - (Eta egiten zitzaion lixa pasatu zuritzeko)

**limie:** lima

**mallukie:** mailua

**masetie:** mazeta

**metrue:** metroa, neurtzekoa

**narrusko amantala:** narruzko amantala, sutegiko beharginek janzten dutena

**ojie:** erreminten ahoa

**otxandidxo untzie:** otxandio iltzea, iltze mota bat

**perratokidxe:** perratokia

"*Es ga perratzalliek bañe gure etxeko beixek eta ba, perratoki bat dekau etxe onduen*" - (Ez gara perratzaileak baina gure etxeko behiak eta ba, perratoki bat daukagu etxe ondoan)

**plomadie:** plomada

**plomue:** beruna

"*Plomue be bai bañe, askok, lengo sarrak eta ba berune*" - (Plomoa ere bai baina, askok, lehengo zaharrek eta ba beruna)

**poleiye:** polea

**porrie:** porra, mailu mota bat

"*Siridxe biar ixaten dau onek porriek*" - (Ziria behar izaten du honek porrak)

**pujamantie:** pujamanta

"*Pujamantias ba ebai eitten da kutxillo baten moruen, e, aspixe ebai, bardinyu eitte ako aras, ta gero ba tenasa batzukin ba sera*" - (Pujamantagaz ba ebaki egiten da aizto baten moduan, azpia ebaki, berdindu egiten zaio haregaz, eta gero ba tenaza batzuekin ba zera)

**rebolberra:** errebolberra

"*Leku gutxitten bañe, bat ero bi, uste dot bat ainbaten, rebolberrak, eitte sien*" - (Leku gutxitan baina, bat edo bi, uste dut bat hainbatean, errebolberrak, egiten ziren)

"*Rebolberrak bakixu ser dien, tanbordunek, ser eitte san, asi tte amaittu esan eitten, arek artze ben, e, mekanisaute ekarte otzen, Eibertik, ta gero eitte otzen ajuste ta montajie, barriri erute ben Eiberra ta Eiberren, eurek erute sittuen, pruebako bankora*" - (Errebolberrak badakizu zer diren, danbordunak, zer egiten zen, hasi eta amaitu ez zen egiten, haiek hartzen

*zuten, mekanizatuta ekartzen zieten Eibertik, eta gero egiten zieten ajuste eta muntaia, berriro eroaten zuten Eibarrera eta Eibarren, eurek eroaten zituzten, probetako bankura)*

**saldie:** burdina urtua

"*Ori fundisiñue da, fundisiñuen eitten da ori, fundisiñue, burdiñie urtu ein bi da urtu, da, an arias eitten da, einye eoten die, modelau uekuekin, ba uekuek, da a saldie, bebederue esatako, bebederue? andik botaten da a saldie, arie dauen lekure, da a saldie, ba ueku danak betete ittu arek, da gero soltau a ta fundidute, plakie esatako orri, da bero berue, sabaldu de piesie kanpora eta*" - (Hori fundizioa da, fundizioan egiten da hori, fundizioa, burdina urtu egin behar da urtu, eta, han hareagaz egiten da, eginda egoten dira, moldeatu hutsuneeekin, ba hutsuneak, eta salda hura, edanlekua esaten zaio, edanlekua? handik botatzen da salda hura, harea dagoen lekura, eta salda hura, ba hutsune denak betetzen ditu hark, eta gero askatu hura eta fundituta, plaka esaten zaio horri, eta bero-beroa, zabaldu eta pieza kanpora eta)

**sarjentue:** sarjentoa

**serra arkue:** zerra arku

**serra kortie:** zerra kortea

**serra kutxillie:** zerra xafla

**sepillue:** arrabota

**serrie:** zerra

**serrriñe:** zerrautsa

**serrotie:** zerrota

"*Matxinbra moruen lena, serrotas ebate sana*" - (Matxinbre moduan lehenago, zerrotagaz ebakitzen zena)

**sintzela:** zintzala

**suteidxe:** sutegia

"*An euken orman irutxur baten, au basan tallerra, olan euken, forma onetaku san, emen euen, suteidxe da suteidxen parien, godxen, auspo aundi bat, soka batas*" - (Han zeukan hormaren bazter baten, hau bazen tailerra, hola zeukan, forma honetakoa zen, hemen zegoen, sutegia eta sutegiaren parean, goian, hauspo handi bat, soka bategaz)



# ZALDIBAR HIZTEGIA

**taladrue:** daratutua

**tenplie:** tenplea, altzairuari ematen zaion tratamendua

"Tenplerako ero estaipa, tenpletako ero, oiñ, e, eletrikue eitten dabe dana, bañe ordun, e, iketza be bai" - (Tenplerako edo ez dakit ba, tenplerako edo, orain, elektrikoa egiten dute dena, baina orduan, iketza ere bai)

**tornillue:** torlojua

**tronsie:** trontza

**txapie:** txapa, xafla

**txatarra:** txatarra

**txirlorie:** txirlora

**txispie:** 1. eskopetaren mekanismoa. 2. eskopeta bera

**ugerra:** ugerra

**untza burue:** iltze burua

**untzie:** iltzea

"Otxandixon eitte sien barkuetarako ta be, untzak, esta? ta egurrerako be ba ingo sien" - (Otxandion egiten ziren ontzietarako eta ere, iltzeak, ezta? eta egurrerako ere ba egingo ziren)

## 17. ABELAZKUNTZA

Abelazkuntzaren gaineko berbak aurkezteko, abere mota bakoitzaren arabera ondoko sailkapena egin dugu: ganadua, ardiak eta ahuntzak, ekinoak, txerria, oiloak, erleak, txakurra, katua eta gainerakoak; azken azpi-atal honetan arteragokoetan ezin sartu izan ditugun berbak agertuko dira.

### 17.1. GANADUA

**adar apala:** adar apala

**adarra, aarra:** adarra

**agin txikidxe:** hagin txikia

"Agiñek, agin txikidxe eukitte ittu, e, bei gastie bada, lau urtas botate ittu agin txikidxe, da lenengo eukitte ittue, sortzi agin txiki, gero sei, gero lau, gero bi, da botate ittue lau urte, inyertzu bada, e, bedxe ero iridxe bardin ya, e, lau urte baño len botako ittue, oin ba desgobernau ero olan bada, piskat argal

ero, ule sarra bota esiñ eta, lena urtie txarrak basien da, oiñ, e, ganaue obetotxua gobernetan da" - (Haginak, hagin txikiak edukitzen ditu, behi gaztea bada, lau urtegaz botatzen ditu hagin txikiak, eta lehenengo edukitzen dituzte, zortzi hagin txiki, gero sei, gero lau, gero bi, eta botatzen dituzte lau urte, indartsu badago, behia edo idia berdin da, lau urte baino lehen botako dituzte, orain ba desgobernau edo hola badago, pixka bat argal edo, ile zaharra bota ezin eta, lehenago urteak txarrak baziren eta, orain, ganadua hobetotxoago gobernatzen da)

**aida:** aida, ganaduari aurrera arinago egiteko esaten zaio

**anketako gaixue, anketako miñe:** apatxetakoa

"Peligosue da, baten pasau ata nii etxien, e, ordun be erresultau eskasa euki neban, jun betunaidxuana ta ekarri tte, or anketako miñe egon, andik kortatik etorri gure kortara ta, kontajiue berak ekarri" - (Arriskutsua da, baten pasatu zait niri etxean, orduan ere ondorio eskasa eduki nuen, joan al baitariagana eta ekarri eta, hor hanketako mina egon, handik kortatik etorri gure kortara eta, kutsua berak ekarri)

**anka lekue:** ganadua perratzean perratokian hanka lotzeko dagoen lekua

"Bai, bai, bai da olako ser bat poste batzuekin gero an txingiliske lau poste, eta ganaue jaso eitten da ta gero anka lekuek dekos atzeko partien, aurrien be bai, anka lekue belaun parien ixaten dana" - (Bai, bai, bai da holako zer bat poste batzuekin gero han dingilizka lau poste, eta ganadua jaso egiten da eta gero hanka-lekuak dauzka atzeko aldean, aurrean ere bai, hanka lekua belaun parean izaten dena)

**ankie:** hanka

**antzue:** antzua

**apala:** apala, adarrak beheantze dauzkana

"Apala ba, olan, adarra(k) dekosena, apala au formie au dekona, jeneral ori eukitte ben asturianuek iri asturianuek eukitte ben au, onetako formie, baye au be, olan, urreatzen basien bidxe, etzan ona

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*ixaten, se erie pasetako, lotzeko, erie pasetako a beti traba eitte ben da, adar puntak ebaitte ta, bai geuri iños pasa aku etxien be" - (Apala ba, holan, adarrak dauzkana, apala itxura hau daukana, gehienetan hori edukitzen zuten asturiarrek idi asturiarrek edukitzen zuten hau, hauetako itxura, baina hau ere, hola, hurreratzen baziren biak, ez zen ona izaten, ze hedea pasatzeko, lotzeko, hedea pasatzeko hura beti traba egiten zuten eta, adar puntak ebakita eta, bai geuri inoiz pasatu zaigu etxean ere)*

**apatxa:** apatxa

*"Es, es, ori apatxekue, apatxien, e, formetan da, apatxa eta, da neu pestakitt sekule estata suertau olakoik, entzunde bai" - (Ez, ez, hori apatxekoa, apatxean, egiten da, apatxa eta, eta, neuk ere ez dakit sekula ez zait suertatu holakorik, entzunda bai)*

**armera onekue:** armera onekoa

**armerie:** armera, adarrak izendatzeko erabiltzen da berba hau

**arrana:** arrana

**aspidxe:** azpia

**aspigarridxe:** azpigarria

*"An ibiltten giñien gu aspigarritten" - (Han ibiltzen ginen gu azpigarritan)*

*"Aspigarridxe ixete san, e, idie ta aspigarridxe, idie ebate san basuen, e, urte danetan, aspigarridxe ebate san urte birik bat, ba idie san obie bañe aspigarridxe ona san" - (Azpigarria izaten zen, ira eta azpigarria, ira ebakitzen zen basoan, urte denetan, azpigarria ebakitzen zen urte birik bat, ba ira zen hobea baina azpigarria ona zen)*

**asturianue:** asturiarra, ganadu enda

**atzestue:** behien kalidadea, atze estua

*"Pisureko atzestue obie bañe" - (Pisurako atze estua hobea baina)*

**atzera, atzerutz:** atzera; ganaduari esaten zaio atzera egiteko

**atze urridxe:** atze urria, atze eskasa daukan ganadua

*"Bai setako dan, esne bedxetan, kuadruek, kuadro askoko beirik estosu topauko, es, bei pinttan, esne bedxetan, jeneral atze*

*urridxe, atze estuek, okelarako danien begiratu bi ako kuadruei, pisu gedxa artzeko ta dana, gero anketan be bai, iños euki ttu, etxera ekarri tte bedxek, e, kaskuek, e, eskasak, da kojue sarri tte, orrek danok" - (Bai zertarako den, esne behietan, atzeak, atze askoko behirik ez duzu topatuko, ez, behi pintan, esne behietan, gehienetan atze urriak, atze estuak, okelarako denean begiratu behar zaio asko atzeari, pisu gehiago hartzeko eta dena, gero hanketan ere bai, inoiz eduki ditugu, etxera ekarri eta behiak, kaskoak, eskasak, eta koxua sarri eta, horiek denak)*

**aurrie:** aurea

**ausnarra:** hausnarra

*"Bedxe txarto dauenien be dana eingo ako bañe, iños kontau otzas da, ogetamaseittik gora be itte ittu, e? oiñ ogetamairu eitten baittu ba, a ondo da" - (Behia txarto dagoenean ere dena egingo zaio baina, inoiz kontatu dizkiot eta, hogeita hamaseitik gora ere egiten ditu, e? orain hogeita hamahiru egiten baditu ba, hura ondo dago)*

*"Ausnarra, bueno, ausnarra galduko ako jeneralien ba, jan be, goseik dauenak, e, biskorra eitten dau te, aretxek baye, esan gurot, e, olako bear eskasa ero golpien ero sartu ero ta baitte, jan os bate pe geatu ledxo ausnarra, e?" - (Hausnarra, beno, hausnarra galduko zaio gehienetan ba, jan ere, goserik dagoenak, bizkorrago egiten du eta, harexek baina, esan gura dut, holako behar eskasa edo kolpean edo sartu edo eta baita, jan hotz batek ere geratu liezaioke hausnarra, e?)*

**baso bedxe:** basa behia

*"Baso beirik eskenduen euki sekule, kortan euki gendusen beti, da kortakuek esin yau jan, esin yau arrapau, lotute da ta" - (Baso behirik ez genuen eduki sekula, kortan eduki genituen beti, eta kortakoak ezin du jan, ezin du harrapatu, lotuta dago eta)*

**baso ganaue:** baso ganadua

**bei arra:** behi arra, umeak egiten ez dituen behia da

**bedxe, beidxe, beixe:** behia

*"Beidxeekin nabill, e?" - (Behiekin nabil, e?)*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Guk iri bi eukitte gendusen ta iru bei" -  
(Guk idi bi edukitzen genituen eta hiru behi)

"Beixek ba normalien, ixeten die batzuk ba apatx aundikuek bañe" - (Behiak ba normalean, izaten dira batzuk ba apatx handikoak baina)

**bekotza, pekotza:** bekorotza

"Bañe bestiek, e, bedxei atzetik sartu ei otzen, dana libre ixeteko probalekue soan ba, da bedxei sartu te, ta pekotza ta libre ixeta san probie inye, ta sartu te ba, probalekurartien aguantau bota barik bedxek eta, sebue ero, jaboye ero, arridxek ba, oridxuen da ba, arridxe esta inketan da" - (Baina besteek, behiari atzetik sartu egin zioten, dena libre izateko probalekua zuan ba, eta behiei sartu eta, eta bekorotza eta libre izaten zen proba eginda, eta sartu eta ba, probalekura arte iraun bota barik behiak eta, seboa edo, xaboia edo, harriak ba, olioan eta ba, harria ez da inkatzen eta)

**besaka:** besaka, buztarrian batak besteari zama botatzen dionean

**besatireka, besotiraka:** besatiraka; buztarrian indarra kanporantz egitea ganaduak

"Kanpora eitten dabenien besatireka" -  
(Kanpora egiten dutenean besatiraka)

**besatirekie:** besatiraka, besatira

"Kamiñorako besatirekie, txarra, orren, e, koñatue, bueno nerie be koñatue da bañe, orren aistias eskondute euen da, serien an Trañien bixi san, Urkiolatik Mañarire bajatzen sortzi ordu tardau bi sittuen baten, asi ortaxe, asi besatireka da, Mañarire allegau sanien soltau, ta gedxa iriik altzau bes, mataerora" -  
(Kaminorako besatiraka, txarra, horren, koinatua, beno nirea ere koinatua da baina, horren ahiztagaz ezkondata zegoen eta, zerean han Trañian bizi zen, Urkiolatik Mañarira baxatzen zortzi ordu egin behar zituen baten, hasi horretaraxe, hasi besatiraka eta, Mañarira ailegatu zenean askatu, eta gehiago idirik altxatu ere ez, hiltegitara)

**biaye:** begia, bigantxa

"Txaletik paseikuen, esta? biaye" -  
(Txahaletik pasaturikoan, ezta? begia)

**botaka:** besaka, buztarrian batak besteari zama botatzen dionean

"Bidxek die txarrak botaka bai besatireka" -  
(Biak dira txarrak botaka bai besatiraka)

**buelta:** buelta egiteko esaten zaie

**bultzeka:** bultzaka, buztarrian batak besteari zama botatzen dionean

**burrukie:** borroka, murruka

**bustena:** buztana

"Bustena be laburraue deke arek" -  
(Buztana ere laburragoa daukate haiek)

"Bai, bustena? ganauei be bai arek, arregleta otzen, beste itxura bat xekenen ganaue pe, bustena arregleta, larran ibiltteko be esate ban, ta egixe euken, e? errasoye euken, e?" - (Bai, buztana? ganaduei ere bai hark, konpontzen zien, beste itxura bat zeukatenan ganaduek ere, buztana konponduta, larrean ibiltzeko ere esaten zuen, eta egia zeukan, e? arrazoia zeukan, e?)

**dunbie:** dunba, arran handia

**enpajadie:** enpajada, ganaduaren jatekoa

"Bai enpajadie, enpajadie esate ako, or serrau, lastue, da lasta seye eroste sana, lasto farduetakue nastau itte ben, da botate otzen gañia, pulpie esate akon, olako, kuadrau batzuk ixeten sien da arei botate otzen ur irakiñe gañera, pentzontzidxek ipiñi illaran da, gero tapau, da gero arek biguntze sienien danak nastau atxurras, ori neguen emote otzen, e, enpajadie, ganauai" - (Bai enpajada, enpajada esaten zaio, hor zerratu, lastoa, eta lasto xehea erosten zena, lasto fardoetakoa nahastu egiten zuten, eta botatzen zioten gainera, pulpa esaten zitzaion, holako, lauki batzuk izaten ziren eta haiei botatzen zioten ur irakina gainera, pentsu ontziak ipini illaran eta, gero tapatu, eta gero haiek biguntzen zirenean denak nahastu aitzurragaz, hori neguan ematen zioten, enpajada ganaduari)

**ernari, ernai:** ernari

"Bai ori, sikiñ asko deko ta, ernari eongo da ta, olan dudan dauenien, aixe ixaten da muestrie" - (Bai hori, zikin asko dauka eta, ernari egongo da eta, hola dudan dagoenean, huraxe izaten da proba)

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**errapie:** errapea

"Gero ba, beti, e, errape formiai, da gero ba, jun dan, e, urte mordo baten beti euki ttu ba kursilluek eta au, e, serien asi sanien onek, siluek eta eitten asi giñienien da orduen beti emote oskuesan da, e, ba errape formiai" - (Gero ba, beti, errape formari, eta gero ba, joan den, urte mordo baten beti eduki ditugu ba ikastaroak eta hau, zerean hasi zenean hauek, siloak eta egiten hasi ginenean eta orduan beti ematen zizkiguten eta, ba errape formari)

**erri bedxe:** herri behia

"Esta on gurien erri beirik, se orrek esne gitxi deke, ona bai esnie, sendue" - (Ez da egon gurean herri behirik, ze horiek esne gutxi daukate, ona bai esnea, sendoa)

**erri ganaue:** herri-ganadua, ganadu gorriaren enda bat

"Gurien eote sien jeneralien erri iridxe ixate sien, aittittek eukitte ban axe famie lendik eta, gure aittittek beti erri ganauek eukitte sittuen, erri ganauek" - (Gurean egoten ziren gehienetan herri idiak izaten ziren, aitaitak edukitzen zuen huraxe ospea lehendik eta, gure aitaitak beti herri ganaduak edukitzen zituen, herri ganaduak)

"Erri ganaue esatako, ba, rubidxuek eta polittek die erri ganauek" - (Herri ganadua esaten zaio, ba, gorriak eta politak dira herri ganaduak)

**erri iridxe:** herri-idea, idi gorrien enda bat

**erri iskue:** herri idiskoa

"Da gero erri iskue esatakon, or, Aremadxo aldetik ekarte sittuen" - (Eta gero herri idiskoa esaten zitzaion, hor, Aramaio aldetik ekartzen zituzten)

**erro galdue:** erro galdua, gaixoak eraginda erroren bat galdu duena

**erroimena, erroibena:** erroibena, mamitisa

"Ori, e, esne gutxi dekenien etxakue etorten ori, erroibenik, ori, e, txala ein barridxetan da, errapie beteta ta badau, gero otzak ero, otz apurren bat artu ero bestie ta, erroibena" - (Hori, esne gutxi daukatenean ez zaie etortzen hori, erroibenik, hori, txahala egin berrietan eta, errapea beteta eta badago, gero

hotzak edo, hotz apurren bat hartu edo bestea eta, erroibena)

**erroko txala:** erroko txahala, txahal jaioberria oraindino esnearekin bakarrik bizi dena

"Erroko txala da ba, jadxoparridxe, sera esnie emote ako ba, berak, bera juten da bedxana, eta erate otza errapetik" - (Erroko txahala da ba, jaioberria, zera esnea ematen zaio ba, berak, bera joaten da behiagana, eta edaten dio errapetik)

**errue:** erroa

"Errue ba, erro bat galtzie bañe, arek, egunek txarrak pasetaittu, an maminyute, an geratze ako ta" - (Errua ba, erro bat galtzea baina, hark, egunak txarrak pasatzen ditu, han maminduta, han geratzen zaio eta)

**esne bedxe, esne beixe:** esne behia

"Ba guk, ba, perra ipintte ta orrek ba gutxitten eitte ou se, ba selan, e, gañera len esne beixek gendukesenien kortan eote sien denpora gustien, da bueno sarritten ba, kojotu eitte sien, eta ba orduen konpondu biarra euen" - (Ba guk, ba, perra ipintzea eta horiek ba gutxitan egiten dugu, ba zelan, gainera lehen esne behiak geneuzkanean kortan egoten ziren denbora guztian, eta beno sarritan ba, koxotu egiten ziren, eta ba orduan konpondu beharra zegoen)

"Pentzue emototze piskat esne bedxei danai beti, babie, ta birriñe ta" - (Pentsua ematen diete pixka bat esne behiei denei beti, baba, eta birrina eta)

**esne golpie:** esne kolpea

"Es ori esne golpie etorte akonien, e, txala einye gero ba, se onei esne bei andidxei ba golpe andidxe etorte ake ta" - (Ez esne kolpe hori etortzen zaionean, txahala egin eta gero ba, ze esne behi handi hauei ba kolpe handia etortzen zaie eta)

**esnerako beidxe:** esnerako behia

"Esnerako bedxe ba, beittu bi tzasu ba, lenengo se sasotakue dan be bai berai be" - (Esnerako behia ba, begiratu behar diozu ba, lehenengo ze sasoitakoa den ere bai berari ere)

**esne sikiñe:** esne lohia, txahala egin ondoren behiak ematen duen lehen esnea

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**etena:** ganaduari apatxetan egiten zaien zauria

"Etena gero gerua ta ba txarra, txarrera jueten da eta, txarrera juneskero ba ari ein bi akon etena garbittu ondo, are arrixte bota" - (Etena gero geroago eta ba txarrago, txarrera joaten da eta, txarrera joanez gero ba hari egin behar zitzaion etena garbitu ondo, hare-harria bota)

**gabarrue:** ganaduen apatxetako zoldunea

**ganajatekue:** ganadu jatekoa, bazka

"Normalien, baserridxetan euen etartie, lenengo, eta eskatzien ba eseben euko, iño pe igual, estakitt, gurien bai, bañe gu, sartze giñen etarteti pe, bañe kanpotik direto, gausa bat esan bi otzut gañera, e, sabaldu atie eskatzekue, atie sabaldu te eskatza san, eta ba, jateko serak, bedarra ta eruten genduen, ba, lepuen eruten genduen orduen eta, sabaldu atie ta eskatzien bota ta, bere lekue euken eskatzak, e? sera ganajatekuendako, an iste genduen" - (Normalean, baserrietan zegoen etartea, lehenengo, eta ezkaratzean ba ez zuten edukiko, inork ere beharbada, ez dakit, gurean bai, baina gu, sartzin ginen etartetik ere, baina kanpotik zuzen, gauza bat esan behar dizut gainera, zabaldu atea ezkaratzekoa, atea zabaldu eta ezkaratza zen, eta ba, jateko zerak, belarra eta eroaten genuen, ba, lepoan eroaten genuen orduan eta, zabaldu atea eta ezkaratzean bota eta, bere lekua zeukan ezkaratzak, e? zera ganadu jatekoendako, han uzten genuen)

**ganaue:** ganadua

"Kanpora sein barrure, batzuk ba, barrurutz, beste batzuk kanporutz, esibako ganaue" - (Kanpora zein barrura, batzuk ba, barrurantz beste batzuk kanporantz, hezibako ganadua)

"Ogetamabost urterartien ganauas ibilli nas" - (Hogeita hamabost urtera arte ganaduagaz ibili naiz)

"Gure ganauek asi die orrueka" - (Gure ganaduak hasi dira orroka)

**ganau gorrix:** ganadu gorria, baso ganadua

**gatzarridxe:** gatz-harria

**gerrimeye:** gerri mehea, gerri gutxiko ganadua

**iridxe, irixe:** idia

"Ni, e, amasaspi urtekin urten naban basora biarrien, arbolak botaten da ba, biarrien aitte iridxe kiñ ibiltte san karreteridxan, da" - (Ni, hamazazpi urterekin irten nuen basora beharrean, arbolak botatzen eta ba, beharrean aita idiekin ibiltzen zen karreterian, eta)

**iri kalbue:** idi kalboa, idi enda bat

"Iri kalbue, entzun, da, ikusi be bai, ba ori, iridxe kalbue, kokuek ulie jan dotza, ulie jan, ikusi ot iri pareja bat eta bidxek, iridxek, e sera, ulie jan, eta barrido urten da suridxe gero, dana suri suridxe, urtenda, ja otzen lekuen ulie" - (Idi kalboa, entzun, eta, ikusi ere bai, ba hori, idia kalboa, kokoak ilea jan dio, ilea jan, ikusi dut idi pare bat eta biak, idiak, zera, ilea jan, eta berriro irten eta zuria gero, dena zuri-zuria, irtenda, jan zieten lekuan ilea)

**iri parejie:** idi pareia

**iri parie:** idi pareia

**iskue, iiskue:** idiskoa, zekorra

"Guk, e, esaten genduen, iskue esaten gendun bata, e? arra, emiai esaten geuntzen, biaye" - (Guk, esaten genuen, idiskoa esaten genuen bata, e? arra, emeari esaten genion, begia)

"Ausue esatako barriadi, eta, igual, e, bost sei bat, e, ausunatan, barriadatan, ba, isko bat eongo san, etxe baten" - (Auzoa esaten zaio barriadari, eta, beharbada, bost sei bat, auzunetan, barriadetan, ba, idisko bat egongo zen, etxe baten)

"Orduen jabondu eitte ben iskue, eta plasara" - (Orduan xaboitu egiten zuten idiskoa, eta plazara)

**ispille:** espila

**jeurt:** jeurt, eurt, ganaduari esaten zaio buelta egin dezan

**kaskue:** kaskoa

**korotza:** gorotza

**lanparoye:** tisia ganaduaren gaixoa

"Gaixoik, e, txarrena lanparoye ixango san" - (Gaixorik txarrena tisia izango zen)

**lasto seye:** lasto xehea

**lepo asurre:** lepo hezurra

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**lepogañe:** lepagaina

"Ori, e, sera, lepogañe, ori esta ona" -  
(Hori, zera, lepagaina, hori ez da ona)

**loidxe:** behia txahala egin eta ostein  
botatzen duen lohia

**marrue:** marrua, murrusa

**matxorra:** matxorra, behi-arra umerik  
egiten ez duena da

**mayestue:** lasto enborra

"Mayestue ekarri bi da ganauei emoteko ta"  
- (Lasto enborra ekarri behar da  
ganaduari emateko eta)

**miintxie:** bigantxa

"Oin be ointxe ei osku an godxen, e, miintxa  
bate pañe, gu eska eon an da goxien jun  
sanien ba, einye topau ban orduntxe,  
orduntxe jadxota" - (Orain ere oraintxe  
egin digu han goian, bigantxa batek  
baina, gu ez gara egon han eta goizean  
joan zenean ba, eginda topatu zuen  
orduante, orduante jaiota)

**miñe:** mina, hanketako gaixoa

**mintze:** mintza

**musturre, muturre:** musturra, muturra

"Ba arrokerixie ta bai, bera baño gexa iñor  
estaittela ixen, da selako lepuek ganauek  
eta! selako brillue ganauek eta! da euli  
bapes musturretan da, e? orduen be,  
ordun be botate otzen seose guriek" - (Ba  
harrokeria eta bai, bera baino gehiago  
inor ez dadila izan, eta zelako lepoak  
ganaduek eta! zelako dirdira ganaduek  
eta! eta euli bat ere ez musturretan eta,  
e? orduan ere, orduan ere botatzen zien  
zer edo zer gureak)

**nafarreidxe, napparreidxe:** nafarrerria

**narrue:** larrua

**narru meye:** narru mehea, narru eskasa  
daukan ganadua

**negurri lekue:** neurri lekua, neurri  
kordelagaz neurtzeko lekua

**o:** o, ganaduari geratzeko esaten zaio

"Nobera jun artien beintzet ganaue ba, esta  
aurrera juten, o esaneskeo, o entzuten  
dau ganauek" - (Norbera joan artean  
behintzat ganadua ba, ez da aurrera  
joaten, o esanez gero, o entzuten du  
ganaduak)

"O geratzeko, eta buelta, o buelta, eta  
ganauek berak jakitte ban, e, susen etzan

geatzen, geatu orduko erdi buelta artute  
geatze san" - (O geratzeko, eta buelta, o  
buelta, eta ganaduak berak jakiten zuen,  
zuzen ez zen geratzen, geratu orduko erdi  
buelta hartuta geratzen zen)

**orroye:** orroa

**ostikadie:** ostikada

**palak:** aurreko hagin handiak

"Agin txikidxe jaurtzen dienien, urtetotze  
palak, askenenguek, eta ya orduen  
bardintzen da" - (Hagin txikiak jaurtitzen  
direnean, irteten diote palek,  
azkenengoak, eta orduan berdintzen da)

**paradako iskue:** paradako idiskoa, umeak  
egiteko idiskoa

"Guk eskenduen, e, billurrik euki, gurien  
ganaue eote san asko, ta paradako iskue  
be bai, arratzalde gustidxen, milisianuek  
etorri tte etorri, preparau ganaue ta  
urteteko, da gure aitte eseuen, e, da nere,  
ordun, e, ondiño eskondu barik gengosan  
da noa! es, onek dakarren martxias,  
ertzañan on san nire gixona gero, ordun  
be bai, esate ban arek, emen ikusten da  
gausie, estatorrena launtasunik, beti  
itxaitten launtasunai, bañe beti itxaitten  
da allegau es sekule be, "aguero" esaten  
geuntzen a, ron-ron, ron-ron, olako abioi  
sar bat etorte san aundi bat, sarata  
baten, esebes, se eingo ban ba arek  
bakarrik?" - (Guk ez genuen, bildurrik  
eduki, gurean ganadua egoten zen asko,  
eta paradako idiskoa ere bai, arratsalde  
guztian, milizianoak etorri eta etorri,  
prestatu ganadua eta irteteko, eta gure  
aita ez zegoen, eta nire, orduan,  
oraindino ezkondu barik geunden eta  
nora! ez, honek dakarren martxagaz,  
ertzaintzan egon zen nire gizona gero,  
orduan ere bai, esaten zuen hark, hemen  
ikusten da gauza, ez datorrena  
laguntasunik, beti itxaroten  
laguntasunari, baina beti itxaroten eta  
ailegatu ez sekula ere, "aguero" esaten  
genion hura, ron-ron, ron-ron, holako  
hegazkin zahar bat etortzen zen handi  
bat, zarata baten, ezer ere ez, zer egingo  
zuen ba hark bakarrik?)

**partue:** erditzea

**pekotza:** bekorotza

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**pentzontzidxe:** pentsu-ontzia

"Or ipintte sittun lastuek pentzontzidxetan, da, erromalaxie ero nabue ero egoste san galdaretan" - (Hor ipintzen zituen lastoak pentsu-ontzietan, eta, erremolatxa edo arbia edo egosten zen galdaretan)

**pentzue:** pentsua

"An gero ba, serak saltze dxuesan, e, pentzuek" - (Han gero ba, zerak saltzen ziaten, pentsuak)

**perrie:** perra

**pinttie:** 1. pinta, espila. 2. behi enda da, espilduna

"Esnerako bai bañe esne gutxi emote ben, esne ona bai, sendue, oso esne ona, da pinttak emote ben ba, esne asko, bañe meye" - (Esnerako bai baina esne gutxi ematen zuten, esne ona bai, sendoa, oso esne ona, eta pintek ematen zuten ba, esne asko, baina mehea)

**pulpie:** pulpa

"Ganauek gustora jate ban pulpie" - (Ganaduak gustora jaten zuen pulpa)

**sankarroye:** zankarroia

**san sulue:** zain zuloa

"Gero, sanak, aspidxen tripepien eukitte ittun sanetan, ba atzamarra sartu te, ba sanak aundidxek baukos, esne bedxe aundidxaue da, san suluek, da or ibiltten giñien beti gero narruei be, ukutu" - (Gero, zainak, azpian tripapean edukitzen dituen zainetan, ba atzamarra sartu eta, ba zainak handiak badauzka, esne behia handiagoa da, zain zuloak, eta hor ibiltzen ginen beti gero narruari ere, ikutu)

**sardie:** beheranzko armeraduna

"Sardie esaten geuntzen guk, olan bera begire baeuken, gero au formiau sarda formie" - (Sarda esaten genion guk, hola behera begira bazeukan, gero forma hau sarda forma)

**satza:** satsa

"Olluek ibilte sien an ganién, kanpuen be bai, bañe an ganién be bai, orduen ollo satzik eseuen gurien se eitte ben, e, satzen ganera, bedxen satzen ganera" - (Oiloak ibiltzen ziren han gainean, kanpoan ere bai, baina han gainean ere bai, orduan

oilo satsik ez zegoen gurean ze egiten zuten, satsaren gainera, behien satsaren gainera)

"Ni baten, e, osabiek deittu ostan, satza etaten jungo ga ta? etorriko nas, ju nitzén, eskue pe danak apurtu, urte betien eta barik" - (Ni baten, osabak deitu zidan, satsa ateratzen joango gara eta? etorriko naiz, joan nintzen, eskuak ere danak apurtu, urte betean atera barik)

"Satza moruen esan gurosu, esta?" - (Satsa moduan esan gura duzu, ezta?)

**sikiñe:** zikina, txahala egin aurretik naturatik dariola egoten dena

**silloye:** idi mota bat, galtze handia daukana lepo aldean

**siorra:** idi estua

**sirridxe:** zirria, idiak kinatzean egiten zaiena zirria da

**sitze:** behia txahala egin eta ostean botatzen duen karena edo plazenta

"Sitze derrigor bota bi dau" - (Karena derrigor bota behar du)

"Sitze daridxola da gure bedxe" - (Karenak dariola dago gure behia)

**soinkurutze, suinkuutze:** soingurutzea

"Errapie ba atzeko soinkurutze ta, soinkurutze esaten geuntzen orrek, e, atzeko belaunek, andik bera estabela pasau biar, errapie, errapie godxen egon bi dabela" - (Errapea ba atzeko soingurutzea eta, soingurutze esaten genion horiek, atzeko belaunak, handik behera ez dutela pasatu behar, errapeak, errapeak goian egon behar duela)

**suinkuutze sabalakue:** soingurutze zabalekoa

"Suinkuutzien sera, amen goiko, suinkuutzien, e, batzuk ixaten die, suinkuutze sabalakuek eta beste batzuek siorra eukitten dabenak, estuaue, ori txaletan be, siorra da estue" - (Soingurutzean zera, hemen goiko, soingurutzean, batzuk izaten dira, soingurutze zabalekoak eta beste batzuek ziorra edukitzen dutenak, estuagoa, hori txahaletan ere, ziorra da estua)

**suisie:** suitzarra, ganadu arraza

"Gure etxea etorte san, e, esne bille, emen kaleko at, eta, ba orduen euen, pinttie

# ZALDIBAR HIZTEGIA

euen, e, txala eitteko, eta, ba esneik eseuken, orduen bota akon suisiena, da gero, e, pinttiak ei eban txala, eta, gero, pinttiena emoten asi giñen, da suisiei, e, gastau bi akon txala eitteko euen da, txala, txala ein baño len ba mordue aurretik ba, sertu eitte sien, antzutu, eta au, a, pinttien esnie emon geuntzen da, jo! orra dator bidxamonien, e, deskuiduen bat euki gendula ta, se deskuido ta ba esniek, e, ure deukala arek, oiñ artien aiñ esne ederra erun dau berak, eta, sera, e, an egunien ure bota geuntzela ta ba es, bedxen esnie kanbidxau ein yau oin beste bei batena dekосу te bedxe erakutzi te dana ein geuntzen bañe, e, etxakon buruen sartzen berai ori, ure eukela, ba, ba bidxar be iguala ekosu, da urrengo egunien be iguala guk geuk estekau beste esneik" - (Gure etxera etortzen zen, esne bila, hemen kaleko bat, eta, ba orduan zegoen, pinta zegoen, txahala egiteko, eta, ba esnerik ez zeukan, orduan bota zitzaion suitzarrarena, eta gero, pintak egin zuen txahala, eta, gero, pintarena ematen hasi ginen, eta suitzarrari, amaitu behar zitzaion txahala egiteko zegoen eta, txahala, txahala egin baino lehen ba mordoa aurretik ba, zertu egiten ziren, antzutu, eta hau, pintaren esnea eman genion eta, jo! horra dator biharamunean, deskuiduren bat eduki genuela eta, ze deskuidu eta ba esneak, ura daukala hark, orain artean hain esne ederra eroan du berak, eta, zera, egun hartan ura bota geniola eta ba ez, behiaren esnea aldatu egin dugu orain beste behi batena daukazu eta behia erakutsi eta dena egin genion baina, ez zitzaion buruan sartzen berari hori, ura zeukala, ba, ba bihar ere berdina daukazu, eta hurrengo egunean ere berdina guk geuk ez daukagu beste esnerik)

**suisue:** suitzarra, idi mota bat

**sulderra:** zuldarra

"Sulderra bai, sulderra, a be olakoxe arra san, esate ben, au arridxe, eitten dabenien, saparrarie, oiñ a be gutxi eitten dau, orren golpiek eitten dabela" -

(Zuldarra bai, zuldarra, hura ere holakoxe harra zen, esaten zuten, harri hau, egiten duenean, zaparrada, orain hura ere gutxi egiten du, horren kolpeak egiten duela)

**susa:** susara

"Guk emen esate geuntzen bedxei tte, susa" - (Guk hemen esaten genion behiari eta, susara)

**tripepie:** tripapea

**txala:** txahala

"Ta txal txikidxai arrotzie, arrotza gorringue, agora, seoser bintzie ero estai pa ser, amen aguen, e, atzamarras igurtze aken da arrotzie gora" - (Eta txahal txikiari arrautza, arrautza gorringoa, ahora, zer edo zer mintza edo ez dakit zer, hemen ahoan, atzamarragaz igurzten zitzaien eta arrautza gora)

"Ori ikusitte bana, beres, oiñ ogetamar urte baño geixa ero, aittek, e, baeuken bat eta aras, e, neurtzen sittuen ba txalak eta, il bisienien ero, sera, ba gutxi gora bera jakitteko, semat erralde euki leikesan ero" - (Hori ikusita banago, berez, orain hogeita hamar urte baino gehiago edo, aitak, bazeukan bat eta haregaz, neurtzen zituen ba txahalak eta, hil behar zirenean edo, zera, ba gutxi gora behera jakiteko, zenbat erralde eduki litzakeen edo)

"Ta gero emototzen, gibel sati bat emototzen, da a gibela, pañolue, erute ben pañolue, da, pañolo garbidxe erute ben orretarako, baserritararak pañolo kuadraue, da akillue ta pañolue, lau, lotu olan lau puntetan gibelo tte, gibela ta akillue ta diruas etxea, gabien afaitteko gibela, txala iltte sanien" - (Eta gero ematen zioten, gibel zati bat ematen zioten, eta gibel hura, zapia, eroaten zuten zapia, eta, zapi garbia eroaten zuten horretarako, baserritarrek zapi karratua, eta akuilua eta zapia, lau, lotu hola lau puntetan gibel hori eta, gibela eta akuilua eta diruagaz etxera, gauean afaltzeko gibela, txahala hiltzen zenean)

**txalontzidxe:** txahal-ontzia, umetokia

**umetokidxe:** umetokia

"Umetokidxe iguel, txala ondorenen urten eitte ban" - (Umetokiak beharbada, txahala ondorenean irten egiten zuen)



# ZALDIBAR HIZTEGIA

**une:** adarraren barruko arbia edo ueña

**urumarie:** urrumada, morrosa

"Guk urumarie, urumarie erabiltten dau en jeneral ganauetan" - (Guk urrumada, urrumada erabiltzen dugu gehienetan ganaduetan)

**ur sorrue:** ur zorroa, umetokia

## 17.2. ARDIAK-AHUNTZAK

**adaridxe:** aharia, aharitua

**akarra:** akerra

**ardidxe, ardixe:** ardia

"Amen ardiak esta egon da" - (Hemen ardirik ez da egon eta)

"Erri onetan bastante ardi da" - (Herri honetan nahikoa ardi dago)

**ardi mordue, ardi errebañue:** ardi mordoa, artaldea

"Amen bai ardixek euki batzuk, bañe es, es, gure ausuen eta be, ardixek eta eukitten eta ixen die Eitza aldien, an bai, an oin be bai badas, ardi errebañue dekona, Goyerrire be etorten da bat" - (Hemen bai ardiak eduki batzuek, baina ez, ez, gure auzoan eta ere, ardiak eta edukitzen eta izan dira Eitza aldean, han bai, han orain ere bai badaude, artaldea daukana, Goierriera ere etortzen da bat)

**arkumie:** arkumea

**aumie:** ahumea, antxumea

**auntze:** ahuntza

**bilyotxa, billotxa:** bildotsa

"Orri il dxako billos bat" - (Horri hil zaio bildots bat)

**errebañue:** artaldea, artegia

"Ni neuk esautu ittut batzuk olan, e, sera, e, selai batzuk ero libre geratu dienak eta iguel baten batzuk, e, sera, errebañuek ekarri, bañe gutxi, e?" - (Nik neuk ezagutu ditut batzuk hola, zera, zelai batzuk edo libre geratu direnak eta beharbada baten batzuek, zera, artaldeak ekarri, baina gutxi, e?)

**urte billotxa:** urte bildotsa

## 17.3. EKINOAK

**arrantzie:** arrantza

**astarra:** astarra

"Astuei astarra esate dxakok" - (Astoari astarra esaten zaiok)

**astoemie:** astemea

**astue:** astoa

"Astue beti euki u guk len bañe" - (Astoa beti eduki dugu guk lehen baina)

"Orduen ba astuas ero lepuas ero al dan moruen, len" - (Orduan ba astoagaz edo lepoagaz edo ahal den moduan, lehen)

"Eibarra, amendik Eibarra ixete san da, asto gañien jute sien" - (Eibarrera, hemendik Eibarrera izaten zen eta, asto gainean joaten ziren)

"Ori bai, Eiberrera ta jute san, da bueno jentie astuas ibilte san asko, ba lelengo kotxiek agertu arte" - (Hori bai, Eibarrera eta joaten zen, eta beno jendea astoagaz ibiltzen zen asko, ba lehenengo autoak agertu arte)

**biorkie:** behorka

"Biorkie ixaten do pa txikitxua ero gastetxua" - (Behorka izaten duk ba txikitxoago edo gaztetxoagoa)

**biorra:** behorra

"Or, e, Katikeko serien, e, gure biorrak ibiltten die an da, arkasidxe asko euen da, orrek dana galdu dau, ori eukenak danak galdu die" - (Hor, Katikeko zerean, gure behorrak ibiltzen dira han eta, arkazia asko zegoen eta, horrek dena galdu du, hori zeukatenak denak galdu dira)

**burreñue, burriñue:** burriñoa

"Burreñue dok, kaballuek eitten dabena" - (Burrinoa duk, zaldiak egiten duena)

**gríñie.** grina, girna

**irrintzidxe:** irrintzia; zaldi-behorrek egiten duten zarata

**kaballeridxe:** zalditeria

"Amen kaballeridxas, e, gitxi ein dok bierra, e? ori or kanpuetan da bai eitten dok ori olako serakin" - (Hemen zalditeriagaz, gutxi egin duk beharra, e? hori hor kanpoetan eta bai egiten dik hori holako zerekin)

**kaballokumie:** zaldikumea

**kaballue:** zaldia

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Ori ixate soan kaballuek eta albue ikusi estaidxen" - (Hori izaten zuan zaldia eta alboak ikusi ez dezan)

"Ta gero beste kordel bat euken, ba gure aittek jarritte jueteko manejetako kaballue, nundik jun bi san da, frenuek esate otzena, tiretu te bestera, bestera, bestera" - (Eta gero beste kordel bat zeukan, ba gure aitak jarrita joateko maneiatzeko zaldia, nondik joan behar zen eta, galgak esaten ziena, tiratu eta bestera, bestera, bestera)

"Neri iges kaballue jarri atan ba, gaixoik, bueno gaixoik, etzunde, da kaballuek etzunde denpora gutxi eitten dau, kaballo nausidxe, umie pai, umiek etzunde oten die asko bañe, kaballo nausidxe esta oten etzunde" - (Niri iaz zaldia jarri zitzaidan ba, gaixorik, beno gaixorik, etzanda, eta zaldia etzanda denbora gutxi egiten du, zaldi nagusiak, umeek bai, umeak etzanda egoten dira asko baina, zaldi nagusia ez da egoten etzanda)

**mandue:** mandoa

**mulie:** mandoa (f.)

**mulue:** mandoa

**ostikadie:** ostikada

**saldidxe, salidxe:** zaldia

"Saldixek es, astue, amen san, e, bere sasoyen ibilli sana, salidxe eta baten batzuk eukesan bañe, geixena astue san" - (Zaldia ez, astoa, hemen zen, bere sasoiaren ibili zena, zaldia eta baten batzuek zeuzkaten baina, gehiena astoa zen)

"Saldiik eskenduen eukitten, ointxe artien estau eukiñ" - (Zaldirik ez genuen edukitzen, oraintxe arte ez dugu eduki)

## 17.4. TXERRIA

**apue:** apoa, txerri arra

**arkillie:** arkela, txerri emea

**baresarie:** baresarea

"Sarie tripien gañien, ero estien gañien egoten da, baresarie, ero mantille" - (Sarean tripiaren gainean, edo hestean gainean egoten da, baresarea, edo mantila)

**barruek:** barruak, errainak

"Barruek tripak eta orrek kentze otzes da, odolostiek eta eitteko" - (Barruak tripak eta horiek kentzen dizkiote eta, odolosteak eta egiteko)

**egosidxe:** egosia, txerrien jatekoa

"Egosidxe emote akuen txarriidxei, txarriidxei emote akuen egosidxe, guk geuk txarriidxe bat asi genduen bakarrik" - (Egosia ematen zitzaie txerriei, txerriei ematen zitzaie egosia, guk geuk txerri bat hazi genuen bakarrik)

"Egosidxe emototzan mordo bat, txarriidxe, e, egosidxe jaten dau gustora" - (Egosia ematen zion mordo bat, txerriak, egosia jaten du gustura)

**estegorridxe:** hestegorria

"Odolostie pa, estegorridxe ixete san me me meye, da gero iru lau tamañu ta sendoerie eukitte ben" - (Odolosteak ba, hestegorria izaten zen mehe-mehe-mehea, eta gero hiru lau tamaina eta sendoera edukitzen zuten)

**este meye:** heste mehea

**este nausidxe:** heste nagusia

**este sendue:** heste sendoa

**estie:** hestea

"Gero estie buelta emote tzasunien, sos batas buelta emoten geuntzen askan, da a mintze, da, likiñe, da kollara kirtenaas ra-ra! kendu, da me me me einye" - (Gero hestea buelta ematen diozunean, zotz bategaz buelta ematen genion askan, eta mintz hura, eta, likina, eta koilara kirtenagaz ra ra! kendu, eta mehe-mehe-mehe eginda)

**gantxue:** gantxoa, txerria hiltzeko sasoiaren oratzeko erabiltzen dena

"Gantxue inkau, e, samapetik, eta tatarraz, ba kurriskas, ara mai ganera, da gero ebatu ba lau ero iru, ero lau lagun ero dausenak ebatu te an, gero bixidxen sartze otzen kutxillue ta ba, odolostu artien" - (Gantxoa sartu, samapetik, eta tatarrez, ba kurriskaz, hara mahai gainera, eta gero oratu ba lau edo hiru, edo lau lagun edo daudenak oratu eta han, gero bizian sartzen zioten aiztoa eta ba, odolostu arte)

**gantzie:** gantza

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**kurriskie:** kurrina, txerriaren zarata

"Ba nik, e, entzute naidxoasen kurriskak, e, txarridxen kurriskak, orrek jota" - (Ba nik, entzuten nizkian kurrinak, txerrien kurrinak, horrek jota)

**makerie:** txerri emea kumak egin eta ostean

**mantillie:** mantila

**mintze:** mintza

**pulmoye:** biria

**puxikie:** puxika

**samapie:** samapea, okozpea

**tripie:** tripa

"Tripie beteta san" - (Tripa betetzen zen)

**txarri amie:** txerrama, txerri ama

**txarri askie:** txerri aska

**txarridxe, txarrixe:** txerria

"Txarridxe iltteko estakitt, guk estou euki sekule txarriik eta" - (Txerria hiltzeko ez dakit guk ez dugu eduki sekula txerririk eta)

"Txarridzek amen sanatoridxuen ote siren" - (Txerriak hemen sanatorioan egoten ziren)

"Esin yosu esan etxe gustietan txarrixe topauko suela, es oin ero esan gurot len be, len be, es, es" - (Ezin duzu esan etxe guztietan txerria topatuko duzuela, ez orain edo esan gura dut lehen ere, lehen ere, ez, ez)

"Da arek txarridxe iltte banien guk ondo, odolostiek eta ekarte sittusen da guk jan, etxien etzuan egoten naikue ta" - (Eta hark txerria hiltzen zuenean guk ondo, odolosteak eta ekartzen zituen eta guk jan, etxean ez zuan egoten nahikoa eta)

**txarriemie:** txerri emea

**txarri koipie:** txerri koipea

"Gure aittek, e, txarri koipie erabilte ban, e, serai emoteko, e, neguen, e, eriei emoteko, iridxen eriei tte emoteko erabilte ban, a gordete ban" - (Gure aitak, txerri koipea erabiltzen zuen, zerari emateko, neguan, hedeei emateko, idien hedeei eta emateko erabiltzen zuen, hura gordetzen zuen)

**txarri kortie:** txerri korta

"Lelengo txarri kortatik etara, gantxue sartu, da bueno, prestaute ipintte san, e, mai bat, mai bat, karnaseruek, ba, biarra ein daidxen, lagun batzuen artien ba,

eldu txarridxai, eutzin selan ero alan da gero ba, odolostu" - (Lehenengo txarri-kortatik atera, gantxoa sartu, eta beno, prestatuta ipintzen zen, mahai bat, mahai bat, harakinak, ba, beharra egin dezan, lagun batzuen artean ba, heldu txerriari, eutsi zelan edo hala eta gero ba, odolostu)

"Gurien gutxi, ni neuk esautu neban, txarri kortie eta txarrixe, bat ero bi esautu nittuen" - (Gurean gutxi nik neuk ezagutu nuen, txerri korta eta txerria, bat edo bi ezagutu nituen)

**urteko txarridxe:** urteko txerria

## 17.5. OILOAK

**abidxa sarie:** 1 abizaria, habian ezartzen den gezurrezko arrautza oiloak egiten bertara joan daitezen. 2. usteldutako arrautza

**abidxie, abixie:** habia

**arrotza lokie:** arrautza loka, abisaria

"Arrotza lokie da txittaik estekona barruen, erein ye loka" - (Arrautza loka da txitarik ez daukana barruan, eragin eta loka)

**birue:** biroa

**egue:** hegoa

**gangarra:** gangarra

**gantzie:** gantza

**ingles ollarra:** ingeles oilarra, burrukarako oilar mota bat

"Da orrek ingles ollarrak, burrukakuk eta, gure osaba batek, Eibarren bixi sanak ekarten sittuen" - (Eta ingeles oilarrak, borrokakoak eta, gure osaba batek, Eibarren bizi zenak ekartzen zituen)

**kaasie:** karaxa, oiloak egiten duen zarata

**kadxolie:** kaiola

"Bai, bai, txirri txirridxek beti, tenporadan, etxien beti txirri txirrimat beti, kadxola maten" - (Bai, bai, txirri-txirriak beti, denboraldian, etxean beti txirri-txirriren bat, kaiolaren baten)

**kapoye:** kapoia

**kikadie:** kikada, pipitea, oiloen gaixoa

"Kikadie! kikadie deko orrek ollorrek esate ako, kikadie" - (Kikada! kikada dauka oilo horrek esaten zaio, kikada)

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**kukurrue:** kukurruku, oilarraren hotsa

**kurra:** kurra, urra, oiloei deitzeko erabiltzen den berba, gehienetan errepikatuta erabiltzen da

**loka:** loka, oiloen zela

**lumie:** luma

**minpekue:** oiloen gaixoa; mihiaren azpian egiten zaien mintza

**mintze:** mintza, mokoaren barruan mihiaren azpian egiten zaiena da

**ollandie, ollendie:** oilanda

**ollarra:** oilarra

**ollaskue:** ollaskoa

**ollo baltza:** oilo beltza, oilo mota bat

**ollo gorridxe:** oilo gorria, oilo mota bat

**ollo lokie:** oilo loka

**ollo lumie:** oilo luma

**ollo suridxe:** oilo zuria, oilo mota bat

**ollotokidxe:** oilo-tokia

**ollue:** oiloa

**otarie:** oilo-tokiko otara

**pikue:** moko

*"Da gogorra, e? txoridxe, e, pikue gogorra, txikidxe dala, e, selan suritzen dau, e, arto malutie" - (Eta gogorra, e? txoria, moko gogorra, txikia dela, zelan zuritzen du, arto maluta)*

**sama gorridxe:** sama gorria, sama urratua, oilo mota bat

*"Sama gorridxek ixate sien batzuk, lumaik estabentak eukitten saman" - (Sama gorriak izaten ziren batzuk, lumarik ez dutenak edukitzen saman)*

**siriñe:** zirina

*"Siriñe batzutan eukitten dabe, sirinyu eitten die ba, seosegattik, ori gaixue da, bai, siriñe" - (Zirina batzuetan edukitzen dute, zirindu egiten dira ba, zer edo zergatik, hori gaixoa da, bai, zirina)*

**sukue:** zukua txitentzat egiten zen jatekoa

*"Estai pa nik, sukue, sukue esate otzen txittai emote akena, arto urunas eitte san sukue" - (Ez dakit ba nik, zukua, zukua esaten zioten txitei ematen zitzaiena, arto irinagaz egiten zen zukua)*

**txittie:** txita

*"Da ikusi be asko gedxa, e? aurretik ikusi bela ta bestie ta eikeran da ba, gero txittie falta sala, ta anditxuek einye be bai txittak, e? es txikidxek bakarrik" - (Eta*

*ikusi ere asko gehiago, e? aurretik ikusi zutela eta bestea eta egikeran eta ba, gero txita falta zela, eta handitxoak eginda ere bai txitak, e? ez txikiak bakarrik)*

## 17.6. ERLEAK

**abie:** abaoa, sappa

**argisarixe:** argizaria

**erlauntzixe:** erlauntza

**erlie:** erlea

*"Esta egon erleik amen, oin bai, oiñ urte pillo baten bai bañe gure umetan da erleik esan egon" - (Ez da egon erlerik hemen, orain bai, orain urte pilo baten bai baina gure umetan eta erlerik ez zen egon)*

**estena:** eztena

**estidxe:** eztia

**kajie:** kaxa, erlauntza

## 17.7. TXAKURRA

**aiba:** deitzeko erabiltzen den berba

**alta:** txakur emearen zela

**amurrue, amorrue:** amorrua

**arramuskarie:** txakurrak eraso egiterakoan egiten duen zarata

**arrato txakurre:** arratoi txakurra

*"Arrato txakurrek eitteben, frente itte otze, arek saatie etaa ta, baye, a baño andidxae da au" - (Arratoi txakurrek egiten dute, aurre egiten diote, haiek zarata atera eta, baina, hura baino handiagoa da hau)*

**axaxa:** txakurrari esaten zaio eraso egin dezan

**kasa txakurre:** ehiza txakurra

**pixitxo:** txakurrari etortzeko esaten zaio

**saunke:** zaunka, ahausia

**toma:** txakurrari joateko esaten zaio

**txakurkumie:** txakurkumea

**txakurrarra:** txakur-arra

**txakurre:** txakurra

*"Txakurre amorratu esitteko, ogi kuskurre gorde" - (Txakurra amorratu ez egiteko, ogi kurruskua gorde)*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**txakurremie:** txakur-emea

**ulue:** ulua, erosta

*"Batzuk ulue itten dabe, uluaka" - (Batzuek ulua egiten dute, uluka)*

*"Ointxe da gure, egunetan, gure txakurre uluaka" - (Oraintxe dago gure, egunetan, gure txakurra uluka)*

**urrumarie:** urrumada

*"Urrumarie in dxok eta kontus" - (Urrumada egin dik eta kontuz)*

## 17.8. KATUA

**erpie:** erpa

**katakumie:** katakumea

**katarra:** katarra

**katue:** katua

*"Txakurras bai katuekin be bai tte danaas, biibilyu, burue barruen sartzen dau te pelotie itten da" - (Txakurragaz bai katuekin ere bai eta denagaz, biribildu, burua barruan sartzen du eta pilota egiten da)*

**katuemie:** katu-emea

**miauke:** miauka

**mis:** katuari esaten zaio deitzeko

**mitxina:** mitxina, katuari deitzeko erabiltzen da

**sapi:** katua uxatzeko erabiltzen den berba

## 17.9. GAINERAKOAK

**animalidxie:** animalia

**antzarra:** antzarra

**arra:** arra

**emie:** emea

**etxe usue:** etxe usoa

**konejue:** konexua, untxia

*"Batzuk ik esate oana eukitte dxuek serentzako konejuentzako orridxe, bañe beste batzuk ixate ittuk seana, intxaurre baño aunditxuauek" - (Batzuek hik esaten duana edukitzen ditek zerentzat, konexuentzat orria, baina beste batzuk izaten dituk zerarena, intxaurra baino handitxoagoak)*

**usue:** usoa

**paittie:** ahatea

**pistidxe:** piztia

**umie:** umea, kumea

## 18. NEKAZARITZA

Nekazaritza alorreko berbak banatzeko, jarduera bakoitzaren arabera sailkatzeko, ondoko azpi-atalak egin ditugu: lurra lantzeko tresnak, soro lanketa, basoa, egurra, belarra, otzarak, errota, labea, gurdia, asto garraioa eta korta.

### 18.1. LURRA LANTZEKO TRESNAK

**arabarie:** araba-area, kakarraldoa

*"Da goldie pasau te gero, arabarie esatakon bati, beste are klase bat san" - (Eta goldea pasatu eta gero, araba-area esaten zitzaion bati, beste are mota bat zen)*

**are subille:** are-subila, arearen armazoa egiteko makila bakoitza, makila hauetan hortzak egoten dira sartuta

**arie:** area

*"Lelengo ladxatu, da gero arias apurtu, arek mokillek" - (Lehenengo laiatu, eta gero areagaz apurtu, mokil haiek)*

**arto burdiñarie:** arto burdinarea

**arue:** arearen uztaia

**burdiñarie, burriñarie:** burdinarea

**ego bakarra:** hego bakarra

**egue:** goldearen edo makinaren hegoa

**eldulekue:** areak daukan kirtena oratzeko

**erraille:** subilen artean batetik bestera doan makila

**eskuko goldie:** eskuko goldea

*"Ori eskuko goldie ero, ori golda txikidxe, beuen gurien olakue, ondio an ongo da gurien, ganbaran alako goldie, olan eutzitte, suk estosu esautuko" - (Hori eskuko goldea edo, hori golde txikia, bazegoen gurean holakoa, oraindino han egongo da gurean, ganbaran halako goldea, hola eutsita, zuk ez duzu ezagutuko)*

**franses arie:** frantses area, are mota bat

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Arie bai, da gero franses arie ta burriñarie" - (Area bai, eta gero frantses area eta burdinarea)

**garidxe garbitzeko makiñie:** garia garbitzeko makina

"Guk makiñas eitten genduen, makiñie beti euki du guk, garidxe garbitzeko makiñie" - (Guk makinagaz egiten genuen, makina beti eduki dugu guk, garia garbitzeko makina)

**golda nausidxe:** golde nagusia

**golda txikidxe:** golde txikia

**goldie:** goldea

**itxutxunen, itxusunen, inttaurren:** itaurrean; lurra lantzeko unean ganaduen aurretik joatea bidea gidatzeko

"Bueno bai, ene! ori, esta? d'ori in bi san, e, piskat aurrerau erre daitten lurre, gero a apurtu in bi san, arias, arie esate otzena, badekau or sar bat, arias da ganauekin, de ni beti ganauen aurrien, itxusunen ni beti, beti, de egun baten aittek, e, gora ta bera, ta akilluas emongo nas, esa notzan se, a bai? ondo da, bota akilluoi d'etxera anka nik, da amak esa ostan ser? da auxe ta auxe, neu jungo non, jun san bera ta aras be asarratu san" - (Beno bai, ene! hori, ezta? eta hori egin behar zen, pixka bat aurrerago erre dadin, areagaz, area esaten ziotena, badaukagu hor zahar bat, areagaz eta ganaduekin, eta ni beti ganaduen aurrean, itaurren ni beti, beti, eta egun baten aitak, gora eta behera, eta akuiluagaz emango naiz, esan nion ze, a bai? ondo dago, bota akuilu hori eta etxera hanka nik, eta amak esan zidan zer? eta hauxe eta hauxe, neu joango naun, joan zen bera eta haregaz ere haserretu zen)

"Ni eskola jun barik eote nitzen, iguel amabost egunien ordun denporadan, itxusunen" - (Ni eskolara joan barik egoten nintzen, beharbada hamabost egunean orduan sasoian itaurrean)

**katie:** katea, lantzeko tresnak lotzeko erabiltzen dena

**laidxie, laixie:** laia

**makiñie:** makina, aho biko makinari esaten zaio

**markue:** markadorea

**narra:** narra, estoa

"Ori gedxen bat erabilte san, lur gogorra ero euenien ba, arek, karo narrak esabasen apurtzen orrek mokillok, orduen arek, urundu eitte basen" - (Hori gehien bat erabiltzen zen, lur gogorra edo zegoenean ba, hark, jakina narrak ez zituen apurtzen horiek mokilok, orduan hark, irindu egiten zituen)

"Umiek ibiltte sien an, nar gañien" - (Umeak ibiltzen ziren han, nar gainean)

**ortza:** hortza; hau erremintena baino ez da

"Bueno ori betik sartzekoai, e, sarda bat, e, ors bikue, egurrei tte bultz eitteko ba, bakixu, laukuek eta ba, trabau eitten da gedxa ta, bikue" - (Beno hori behetik sartzekoari, sarda bat, hortz bikoia, egurrari eta bultza egiteko ba, badakizu, laukoak eta ba, trabatu egiten da gehiago eta, bikoia)

**subille:** subila, arearen armazoiaren makila zuzenak

**trabesa:** subilen artean dauden makilak, subil batetik bestera

**tratorie, tratora:** traktorea

"Goldatze gendunien gero a apurtzen, bueno! tratorak amaittu sittuen orrek" - (Goldatzen genuenean gero hura apurtzen, beno! traktoreak amaitu zituen horiek)

**trilladorie:** txilindroa, makina honek dauzkan txilindroak horzdunak izaten dira

**txilindrue:** txilindroa, alper harria

"Albokera, bueltaka bueltaka, txilindruen moruen goittik beraño bai" - (Albokera, bueltaka-bueltaka, txilindroaren moduan goitik beheraino bai)

**untzenarra:** iltze narra

## 18.2. SORO LANKETA

**abonue:** abonua, ongarria

**alanbra postie:** taketa

**alanbrie:** alanbrea, burdin haria

**angallie, angillie:** angarila, satsa eta garraiatzeko erabiltzen zen oholezko armazoa, txerria eskegitzeko ere erabiltzen zen

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Erre ta gero, serien, sartze ben, sartu te, angallan ero sartze ben" - (Erre eta gero, zerean, sartzen zuten, sartu eta, angarilan edo sartzen zuten)

"Angallan ero lagun bien artien? bai ori, ba mutil bi ero fuerte txamarrak etxien eoneskero ba" - (Angaran edo lagun bien artean? bai hori, bai hori, ba mutil bi edo indartsu samarrak etxean egonez gero ba)

**aratzurre, arratzurre:** arraitzurra, aitzur handia basorako erabiltzen dena

"Aratzurre ixaten dok estuaue, da gero jorrazurre ixaten da beste bat sabalaue, ariñaue, eta gero beste bat osbikue atxurren eitteko, eta gero ba beste atxur txikitxu batzuk, ba jorrazurako landara txikitxuek eitteko beste sera, atxurkillatxuek esaten dxakosena" - (Arraitzurra izaten duk estuagoa, eta gero jorrazurra izaten da beste bat zabalagoa, arinagoa, eta gero beste bat horzbikoa aitzurren egiteko, eta gero ba beste aitzur txikitxo batzuk, ba jorrazurako landare txikitxoak egiteko beste zera, aitzurkilatxoak esaten zaienak)

**arrike:** ereiteko era, haziak botatzen dira non jausiko diren kontrolatu barik

"Guk, e, illeran ero arrike, arrike da ba bota, bota serien" - (Guk, ilaran edo harrika, harrika da ba bota, bota zerean)

**asal ona:** azal ona, lurrari landutakoan eguzkiak erreta egiten zaion azal ona

**asal txarra:** azal ona, lurrari landutakoan euriak bustita egiten zaion azal txarra

**asatza:** azatza; soroan ereiten ibiltzen denean, hazia non bota den jakiteko ezagungarri batzuk jartzen dira, horiexek dira azatzak

"Asatza pai, asatzak die garixe eraitteko, garixe eraitteko olan, guk sasixen topau gendusen, gure aittek sasittik ekarte basen, arramatxo batzuk, bai niri esate ostasen" - (Azatzak bai, azatzak dira garia ereiteko, garia ereiteko hola, guk sasia topatu genituen, gure aita sasitik ekartzen zituen, arramatxo batzuk, bai niri esaten zizkidan)

**asittigidxe:** hazitegia

**aspela:** aspela

"Eta bat egote san burdi ganién, aitte ixete san da, arek, batzuk eitte ben, besakarie, guk besakarie esate geuntzen, sardias, batzuk esin kargau, derrigor ixen bi ban, e, sera einye aspela einye, aspela ixete san, e, eskuarias, estutu, pillue inye, eta a artze ben da aras ipintte ben burdidxe bada itxurosoa ipintteko, gurien ori esijentzioi eseuen, gurien aittai edosein moruta bota, ta ak, e, ondo kargeta ban burdidxe, sardias" - (Eta bat egoten zen gurdi gainean, aita izaten zen eta, hark, batzuek egiten zuten, besakada, guk besakada esaten genion, sardagaz, batzuek ezin kargatu, derrigor izan behar zuen, zera eginda aspela eginda, aspela izaten zen, eskuareagaz, estutu, piloa eginda, eta hura hartzen zuten eta haregaz ipintzen zuten gurdia bada itxurosoago ipintzeko, gurean exijentzia hori ez zegoen, gurean aitari edozein modutara bota, eta hark, ondo kargatzen zuen gurdia, sardagaz)

**atxur burue:** aitzur burua

**atxurkillatxue:** aitzurkilatxoa, aitzur txikia

**atxurre:** aitzurra

"Baye atxurras, da fasilie da, eskuas arrapau ittut nik baten baño gedxatan, eskuas" - (Baina aitzurragaz, eta erraza da, eskuagaz harrapatu ditut nik baten baino gehiagotan, eskuagaz)

**atxur txikidxe:** aitzurtxoa, aitzur txikia

**begidxe:** begia, begizta; sokari muturrean egiten zaion mingila lotu ahal izateko

**botikie:** 1. botika, ongari kimikoaren gainean esaten da. 2. mamarroak hiltzeko erabiltzen den hilgarri kimikoa

"Botika pe esaten dabe botikie be asko soluetan da, ortue dauen lekuen da, bañe nik pentzetot, e, jatekoik esak iguel gedxa galduko bala" - (Botika ere esaten dute botika ere asko soroetan eta, ortua dagoen lekuan eta, baina nik pentsatzen dut, jatekorik ezak beharbada gehiago galduko zuela)

"Oñ es, se oñ, oñ, e, tratamentu batzuekin, botika batzuekin kentzen dxuau" - (Orain ez, ze orain, orain, tratamendu batzuekin, botika batzuekin kentzen diagu)

**detanue:** detanoa, ddt, botika mota bat da

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*"Detanue euen, patatako kokuek iltte sien bañe nobera il barik etorte giñenien, ondo" - (Detanoa zegoen, patatako kokoak hiltzen ziren baina norbera hil barik etortzen ginenean, ondo)*

**erreturie:** erratura, soroko belarrak eraitsita erre egitea ongari moduan erabiltzeko

**gari jorran:** gari jorran

**illaran:** ilaran, ereiteko era da

**illarie:** ilara

*"Sartu danak illara baten, da ankias bultze inye, da gero, sartu ankias aspire, da gero buelta emon" - (Sartu denak ilara baten, eta hankagaz bultza eginda, eta gero, sartu hankagaz azpira, eta gero buelta eman)*

**irran:** irran, ereiteko era da, haziak bota egiten dira aidean

*"Da garidxe ba diferente ereitten da ala? artue da ereitten dana, sulora, sulora batzuk eta ostien irran be bai" - (Eta garia ba desberdin ereiten da ala? artoa eta ereiten dena, zulora, zulora batzuek eta ostean irran ere bai)*

**jorraidxe, jorraixe:** jorraia, jorrazeko erabiltzen den aitzur txikerra

*"Atxurrek, arratxurre ta beste atxur normaltxue da gero, sera jorraixe atxur txikixe" - (Aitzurrak, arraitzurra eta beste aitzur normaltxoa eta gero, zera joarria aitzur txikia)*

**jorratxurre:** jorraitzurra, jorrazeko aitzurra

**jorrie:** jorra

**kablie:** kablea, lurra solo barrenetik solo guenera eroateko erabiltzen zen

*"Len lurrek, e, ganauekin, piskat aldapak dauesen lekuen korridu beti bera, korridu te gonien tramadie ba gelditze san arridxe bakarrik, ori or bealdien da gutxia da, lau dauselako bañe emen, e, Saldibarren da asko, baitte kablias, gero kablie argittu sanien, kablie ipiñi, polea bat eta, bedxek berus tireka eta karruek gorutz, altzau" - (Lehen lurrak, ganaduekin, pixka bat aldapak dauden lekuan korritu beti behera, korritu eta guenean tramada ba gelditzen zen harria bakarrik, hori hor behe aldean eta gutxiago da, lau daudelako baina hemen, Zaldibarren eta asko, baita kableagaz,*

*gero kablea agertu zenean, kablea ipini, polea bat eta, behiak beherantz tiraka eta karroak gorantz, altxatu)*

**kakue:** kakoa

**kare bixidxe:** kare bizia

*"Aurretik eitte san kariena, kare bixidxas nastaute" - (Aurretik egiten zen karearena, kare biziagaz nahastuta)*

**kargie:** karga, egur txola

*"Batek emetik eldu te beste bat, e, arus begire, da erdidxen erute san ba, kargie" - (Batek hemendik heldu eta beste bat, harantz begira, eta erdian eroaten zen ba, karga)*

**kirtena:** kirtena

*"Kirtena be olan gertau bi da" - (Kirtena ere hola gertatu behar da)*

**loturie:** lotura

**lukotza:** sastegiko satsa

**lurrontzixe:** lur-ontzia

**masparrie:** mahats-parra

**masue:** mazona, mokilak hausteko erabiltzen zena

*"Lurre apurtzeko da masue" - (Lurre apurtzeko da mazona)*

**mentue:** mentua

*"Guk len olan, ebei, kortie, da bittartien sartu, bañe oiñ asaleti pe itten dok, da forma askotara eitten dok oiñ, bañe jeneralien, asaletik eta oiñ asalas danak, lastrara barik, len lastrara ixate soan, kaso batesko, sagar bat artze soan eta ba onenbesteko sera ta ra! ebei sagarra, da gero sartzoan ik guruan mentue" - (Guk lehen hola, ebaki, ebakia, eta bitartean sartu, baina orain azaletik ere egiten duk, eta forma askotara egiten duk orain, baina normalean, azaletik eta orain azalagaz denak, lastrara barik, lehen lastrara izaten zuan eta ba honenbesteko zera eta ra! ebaki sagarra, eta gero sartzen huen hik gura duan mentua)*

**mokille:** mokila

**mokillostie:** mokiluskia, mokilak hausteko erabiltzen zen mazuto antzekoa

**mokil masue:** mokiluskia, mokilak hausteko erabiltzen zen mazuto antzekoa

*"Mokil masue, sera, eskuas noberak joteko, kirten batas, da egur, olako, da aras" - (Mokil mazona, zera, eskuagaz norberak*



# ZALDIBAR HIZTEGIA

*jotzeko, kirten bategaz, eta egur, holako, eta haregaz)*

**motorra:** motorra

**ollo satza:** oilo satsa

*"Ollo satza esa osu, da ollo satza gurien, e, ba eseuen aparte, sera, olluek euesan, e, satza eukitten genduen lekuen, len esa un, e, bedxen aspittik etara da erute genduen tejamanara, da bota gendun satza an" - (Oilo satsa esan duzu, eta oilo satsa gurean, ba ez zegoen aparte, zera, oiloak zeuden, satsa edukitzen genuen lekuan, lehen esan dugun, behien azpitik atera eta eroaten genuen tejabanara, eta botatzen genuen satsa han)*

*"Bueno ollo satza, e, oiñ, se gurien ollo satza ba, etzan egon sekule, bañe ori leku batzutan eongo san, ollo satza, e, ona da" - (Beno oilo satsa, orain, ze gurean oilo satsa ba, ez zen egon sekula, baina hori leku batzuetan egongo zen, oilo satsa, ona da)*

**olasidxe:** ohol-hesia, taketa

**osbikue:** hortz-bikoa, aitzur mota bat

**parrie:** parra

*"Parrak eta einye ta, bai etxe ondun da bai, parra batzuk bañe, es bestelan arluen" - (Parrak eta eginda eta, bai etxe ondoan eta bai, parra batzuk baina, ez bestela arloan)*

**podasie:** inaus artazia

*"Podasakin beti, oiñ, oin makiñak badasek" - (Inaus artaziekin beti, orain, orain makinak bazaudek)*

**postie:** taketa, ohol-hesia

*"Gero an postien gelditze san a" - (Gero han taketan gelditzen zen hura)*

**sakue:** zakua

**saspillue:** sastegia, sats-piloa

**sasteidxe:** sastegia, sats-lekua

**satza:** satsa

**satz seye:** sats xehea

**serradun iintaixe:** zerradun igitaia

**simenterie:** mintegia

**soidxe, sodxe, soixe:** zohia

*"Sodxe ta ba, sodxe ixaten san, e gero, goldiek etate bana be bai, sodxe" - (Zohia eta ba, zohia izaten zen, gero, goldeak ateratzen zuena ere bai, zohia)*

*"Bueno nik eiñ estot ein ye bañe ba selan eitte san egurre, ebaten dabe ba bueno, eun kilokue be iguel da, aundidxaue be iguel da danak, ondo toloste ittue, da gero, e, lurras ondo tapetan dabe, ondo! da gero onek, e, sodxek ero esate otzau, seladxen etara, da arekin askenien ondo ta, eskillara bat ero eukitten dabe gaberako, a, inyarra ondo artzen dabenien, sulue pe iguel eitte akos da arek, atza egurras bete a, da tapau bestelan ba, bestela erre itten da ta" - (Beno nik egin ez dut egin eta baina ba zelan egiten zen egurra, ebakitzen dute ba beno, ehun kilokoa ere beharbada eta, handiagoa ere beharbada eta denak, ondo tolesten dituzte, eta gero, lurragaz ondo tapatzen dute, ondo! eta gero hauek, zohiak edo esaten diogu, zelaian atera, eta haiekin azkenean ondo eta, eskailera bat edo edukitzen dute gauerako, indarra ondo hartzen duenean, zuloak ere beharbada egiten zaizkio eta haiek, atzera egurragaz bete hura, eta tapatu bestela ba, bestela erre egiten da eta)*

*"Bai dana batera jo bier, da dana batera, altzau ein bier soixe ta dana bestela esaban balio" - (Bai dena batera jo behar, eta dena batera, altxatu egin behar zohia eta dena bestela ez zuen balio)*

**sokie:** soka

*"Ba, serak, onek emen eukitte ban ser bat, e, ontariko ser bat, sos bat, or sotzien, e, sartzen da, botate ban sera, e, sokie bera, aittek botako sokie gora, batute ote san, sera einye, madejie ero, sokie olan egoten da, eta orduen, an, e, serien, sotzien sartze osu a, eta gero jute sa bestekaldera, da bestekaldien, aittek botate ban da ba, sokie pasata san beste ser bat, e, lau, taketillo, eta batetik bestera, estutu, eta gero askenien godxen, e, koapillo bat eiñ" - (Ba, zerak, honek hemen edukitzen zuen zer bat, hauetariko zer bat, zotz bat, hor zotzean, sartzen da, botatzen zuen zera, soka behera, aitak botariko soka gora, batuta egoten zen, zera eginda, mataza edo, soka hola egoten da, eta orduan, han, zerean,*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*zotzean sartzen duzu hura, eta gero joaten zara besteko aldera, eta besteko aldean, aitak botatzen zuen eta ba, soka pasatzen zen beste zer bat, lau, taketatxo, eta batetik bestera, estutu, eta gero azkenean goian, korapilo bat egin)*

**solue:** soroa

**sulfatue:** sulfatoa, landareei egiten zaien botika

*"Bueno tomatiai sulfatue beti, ori beti, da garidxe eraitte sanai be, gari asidxai, sulfatue nastate otzen, etartien botate ben brau! gari sakue, da sulfatue botate otzen da, nastau itte ben dana eskuekin eraiñ orduko" - (Benotomateari sulfatoa beti, hori beti, eta garia ereiten zenari ere, gari haziari, sulfatoa nahasten zioten, etartean botatzen zuten brau! gari zakua, eta sulfatoa botatzen zioten eta, nahastu egiten zuten dena eskuekin erein orduko)*

*"Baldetan ipintte ben gure amak eta aittek sulfatue ur epelas, urtu daitten, ta gero aintxe uretan pasau garixe, olan berde berde ipintte ben da a eraiñ" - (Baldetan ipintzen zuten gure amak eta aitak sulfatoa ur epelagaz, urtu dadin, eta gero hantxe uretan pasatu garia, hola berdeberde ipintzen zuten eta hura erein)*

**sulora:** zulora, ereiteko modua

*"Artue babias ereitten baosu ba, sulora" - (Artoa babagaz ereiten baduzu ba, zulora)*

*"Eta uste dot lena be eraitte sala baitte nabue eta beste jenero batzu pe sulora" - (Eta uste dut lehenago ere ereiten zela baita arbia eta beste gauza batzuk ere zulora)*

**txibittie:** jibita, indabak jotzeko eta lekatzeko erabiltzen zen erreminta. Uhal batek lotutako makila bik osatzen dute.

*"Txibittie, ori txibittie dok narru satitxo batas makilla bi ipiñi, da babie joteko eta, orrek gausok" - (Jibita, jibita hori duk narru zatitxo bategaz makila bi ipini, eta baba jotzeko eta, gauza horiek)*

**txorimalue:** txoriak uxatzeko erabiltzen dena

**txortie:** txorta

**urontzidxe:** ur ontzia

## 18.3. BASOA

**ague:** ahoa, aizkora-ahoa

**anporra:** anporra

*"Anporra guk esate otxau pago buruai, anporra esate otxau" - (Anporra guk esaten zioagu pago buruari, anporra esaten zioagu)*

**aparajue:** aparejua

*"Aparteko aparajuek, ba, gausa asko, das, e, lenengo, karatxue, iridxe lotzeko, gero katiek, katantxuek, batzuk esate akunak, individualen lotzekuek, e, bakoitza berie lotzekuek ba, orrek ixate sien motzauek, da eukitte ban alde batien, e, olako aro bat, eta bestekaldien puntie iguel ero gantxue, da an, e, sartzeko bakoitza berie, lotzeko, bakoitza berie lotute ogoto ibiltte san, se eukitten gendusen iguel, katiek lusiek, eta iguel, e, trongo bi ero iru artzen gendusen, da gero soltetako allegetan giñien lekuen, eitten gendusen, e, itzelak eitten gendusen, e, karo! bidxurtu eitte sien tronguek, da gero katias soltau esinye ba palankakiñ ebatute, ba, da gero bursaldidxe, tronguek eruteko" - (Aparteko aparejuak, ba gauza asko, dagoz, lehenengo, karatxoa, idiak lotzeko, gero kateak, katantxoak, batzuk esaten zaienak, bakarka lotzekoak, bakoitza berea lotzekoak ba, horiek izaten ziren motzagoak eta edukitzen zuen alde batean, holako aro bat, eta besteko aldean punta beharbada edo gantxoa, eta han, sartzeko bakoitza berea, lotzeko, bakoitza berea lotuta hobeto ibiltzen zen, ze edukitzen genituen beharbada, kateak luzeak, eta beharbada, enbor bi edo hiru hartzen genituen, eta gero soltatzeko ailegatzen ginen lekuan, egiten genituen, itzelak egiten genituen, jakina! bihurtu egiten ziren enborrak, eta gero kateagaz soltatu ezinda ba palankakin oratu eta, ba, eta gero burzaldia, enborrak eroateko)*

**apea:** apea

**arakidxe:** arakia

*"Arakidxe da, egur meetik apartetan dan, sera, sendue bes, da meye, sendue barik*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*meye, arakidxe ori da" - (Arakia da, egur mehetik bereizten den, zera, sendoa ere ez, eta mehea, sendoa barik mehea, arakia hori da)*

**ari onekue:** hari oneko egurra

**arue:** eraztuna, aizkorarena da

**askora begidxe:** aizkora begia

**askora burue:** aizkora burua

**askorie:** aizkora

*"Orretako ba, ba estakitt, preparaute egon bi da, a askorie be euki bi osu a egurre itteko ero, ero aurretik eruen ero" - (Horretarako ba, ba ez dakit, prestatuta egon behar da, aizkora hura ere eduki behar duzu egur hura egiteko edo, edo aurretik eroan edo)*

*"Askorie be ipintte ben, pentzetan dxoat" - (Aizkora ere ipintzen zuten, pentsatzen diat)*

*"Orduen askorie da ori beste, parie, para moruko bat" - (Orduan aizkora eta hori beste, para, para moduko bat)*

**astillie:** zozpala, ezpala; zozpal hau handia izaten da

**astue:** astoa, basoan enborrak ebakitzeko egiten den armazoia; beronen gainean enborrak ipintzen dira

*"Astue eukitte ban arek gañien, da asto bat, ibiltte san jiratoridxue, eitte ban astuek, e, bueltetan da, berak, e, sertze ban" - (Astoa edukitzen zuen hark gainean, eta asto bat, ibiltzen zen giratorioa, egiten zuen astoak, bueltatzen da, berak, zertzen zuen)*

**baldue:** baldoa, enbor handia

*"Baldue, baldue onek ais buruek, egurrek, ais buruek onek egurrerako ta dausenak, an da baldotzie an, esaten da olan, ais buru mordo bat botata iguel, da abandonaute, atxak erridxe eta erun serrara ero, eta ba, orri baldue esate ako" - (Baldoa, baldoa hauek haritz buruak, egurrak, haritz buruak hauek egurrera eta daudenak, han da baldotza han, esaten da hola, haritz buru mordo bat botata beharbada, eta bertan behera utzita, haritzak herriak eta eroan zerrategira edo, eta ba, horri baldoa esaten zaio)*

**bardie:** barda

*"Bardie, bai ba bardie ba, sera, saatzas ero ba, bardie itten da, e, bueno ei leike ba pagadarras be bai eiñ, bardie, pague pe adar elegantie eukitten dau, e, bardie itteko" - (Barda, bai ba barda ba, zera, sahotsagaz edo ba, barda egiten da, beno egin liteke ba pago adarragaz ere bai egin, barda, pagoak ere adar dotorea edukitzen du, barda egiteko)*

**basoarlue:** baso arloa

**begidxe:** aizkora begia

**bidxurre:** bihurra

*"Ba ori, e, ixate san, e, gabon ostien, iñausi, ba, aprillien ero iguel ori ixango san ero iguel lentxua, gero juten giñien, aste santuen beintzet, e, gu gastetan ixaten giñienien, e, ba erromeridxa barik eta, ba arako asi barik ondiok eta, basora, e, txortak eitten, egur txortak eitten, egur meyas, da bestelako arakidxe, apartau, da aparte ipiñi, egur txortak eitten gendusen da gero, bidxurrek, bidxurrekin lotu, bidxurrekiñ, e, lotu basuen ba saatzas, beste batzuk esate otze, guk bidxurre esaten geuntzen da, jeneral ixaten die orrek, ba, serak, aritxe ero, e, sera be bai, kurutzekidxe pe bai" - (Ba hori, izaten zen, gabon ostean, inausi, ba, apirilean edo beharbada hori izango zen edo beharbada lehentxoago, gero joaten ginen, aste santuan behintzat, gu gaztetan izaten ginenean, ba erromeria barik eta, ba harako hasi barik oraindino eta, basora, txortak egiten, egur txortak egiten, egur mehegaz, eta bestelako arakia, bereizi, eta aparte ipini, egur txortak egiten genituen eta gero, bihurak, bihurreakin lotu, bihurreakin, lotu basoan, ba sahotsa beste batzuek esaten diote, guk bihurra esaten genion eta, gehienetan izaten dira horiek, ba, zerak, haritza edo, zera ere bai, gurutzekiak ere bai)*

**burdin siridxe:** burdin-ziria

**bursaldidxe, bursaldixe:** burzaldia, basoan enborrak eta garraiatzeko erabiltzen zen gurdi berezia

*"Bai ori be bere sasoyen, e, sertuko san, e, sera, an bursaldittik eta solteta sanien ba, a aurrera juten basan, ba iguel ixengo san ondo kargaute euen a esta? se*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*ara jausi bi san, bañe atzeko kargie aundixaue basan ero larrei atzera kargau te gero altzau eingo ban" - (Bai hori ere bere sasoién, zertuko zen, zera, han burzalditik eta soltatzen zenean ba, hura aurrera joaten bazen, ba beharbada izango zen ondo kargatuta zegoena ezta? ze hara jausi behar zen, baina atzeko karga handiagoa bazen edo larregi atzera kargatu eta gero altxatu egingo zuen)*

*"Gurien baeuen ondio, lentxo baten, a, apurtu genduen, bursaldidxe esate geuntzan guk" - (Gurean bazegoen oraindino, lehentxoago baten, hura, apurtu genuen, burzaldia esaten genion guk)*

**burue:** dorua, aizkora edo aitzurraren atzeko aldea

*"Es, es, es ague ta burue dok ori" - (Ez, ez, ez ahoa eta burua duk hori)*

**egurre:** egurra

*"Ori egurroi se basotakue da?" - (Egur hori ze basotakoa da?)*

**egur txortie:** egur txorta

*"Panaderidxak erosi eitte oskun guri, e, basuetan atxai tte paguei tte, kendu adarrak eta ein pakatie, txortak eiñ, eta panadeidxa sue ixotzeko" - (Okindegiak erosi egiten zigun guri, basoetan haritzei eta pagoei eta, kendu adarrak eta egin pakatea, txortak egin, eta okindegira sua isiotzeko)*

**gantxue:** gantxoa, enborrak ateratzeko erabiltzen dena

**garrotie:** egur zamak lotzeko erabiltzen den egurra, katea estutzeko balio du

*"Garrotie, bai, katie lotzeko, katiek estutzeko, garrotie bai" - (Garrota, bai, katea lotzeko, kateak estutzeko, garrota bai)*

**jiretoridxue:** burzaldiak okertu ahal izateko erdian edukitzen zuen pieza

*"Ori san, e, selan esplikauko tzut nik? ni ibillitte na, mutikotan, bañe euken, burdi bat ixatie moruen bañe olako sabalera bat euken, eta gero ganien euken, e, olako sulo bat katie pasetako, bañe a san, jiretoridxue eukitte ban, e, tronguek sertu daidxen, tronguek, e, beren bierra ein daidxen, a san, e, jiretoridxue ixate san" -*

*(Hori zen, zelan azalduko dizut nik? ni ibilita nago, mutikotan, baina zeukan, gurdi bat izatea moduan baina holako zabalera bat zeukan, eta gero gainean zeukan, holako zulo bat katea pasatzeko, baina hura zen, giratorioa edukitzen zuen, enborrek zertu dezaten, enborrek, beren beharra egin dezaten, hura zen, giratorioa izaten zen)*

**kakue:** matxetak doru aldean edukitzen duen kakoa

**karatxue:** enborra ateratzeko erabiltzen den katea

**kargie:** karga

**katantxue:** enborrak basoan ateratzeko erabiltzen den katea

**katie:** katea

*"Katiek ipintte akosan, e, burkada egurrai iguel, botata da, seretan, e, burdidxei eskiñetako, e, gantxuetan ero, lotu katie da gero garrotan, sartze san garrotie, katie olan beuen, total aldrebés, artze san garrotan, e, sera, sokie ta, sokias gero burtalbora ero, tiratu te, a onena ixate san, olao loturaik esta, esta olako, e, sokaik eta" - (Kateak ipintzen zitzaizkion, gurtada egurrari beharbada, botata eta, zeretán, gurdiari izkinetako, gantxoetan edo, lotu katea eta gero garrotean, sartzen zen garrotea, katea hola bazegoen, guztiz aldrebés, hartzen zen garrotean, zera, soka eta, sokagaz gero gurtalbora edo, tiratu eta, hura onena izaten zen, holako loturarik ez dago, ez dago holako, sokarik eta)*

**kirtena:** kirtena

**kopetie:** kopeta

*"Sepak jotén gendusen da ba aritxekiñ eiñ, e, bidxurtu, bestekaldien, e, sera eiñ, e, kopetie, alde batien, da bestekaldien gero bidxurtu eitten geuntzen, e, da kargie in ye ba aretxas lotu, b'orduen amen eseuén alanbraik eta sokaik eta eser ba" - (Zepak jotzen genituen eta ba haiexekin egin, bihurtu, besteko aldean, zera egin, kopeta, alde batean, eta besteko aldean gero bihurtu egiten genion, eta karga egin eta ba harexegaz lotu, ba orduan hemen ez zegoen alanbrerik eta sokarik eta ezer ba)*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**kortie:** ebakia

**lastrie:** lastra, ezipal txikia

**matxeta:** matxeta

**mukurre:** mukurra, esate baterako sutarako egiten den enborra

"Mukurre serai esaten geuntzen guk, e, pagoburuai ero, pagoburue, mukurre ba, pagoburuek aundidxe ero asburuek ero basien da ba, sulotute oten die b'arek jeneral, lenako adarra jaurtittekie ba andik sulotu eitten die, da mukurre ari esaten geuntzen guk" - (Mukurra zerari esaten genion guk, pago buruari edo, pago burua, mukurra ba, pago buruak handiak edo haritz buruak edo baziren eta ba, zulotuta egoten dira ba haiek gehienetan, lehenagoko adarra jaurtitakoa ba handik zulotu egiten dira, eta mukurra hari esaten genion guk)

**ola:** ohola

**pagegurre:** pago egurra

**palankie:** palanka

"Palankie ba, guk basuen be trongotan eitten genduenien, palankie ixate san, e, egurresko palankak, or, e, metro t'erdi ingurukuek, aritxe, goorrena a ixate san, arkasidxe be bai" - (Palanka ba, guk basoan ere enborretan egiten genuenean, palanka izaten zen, egurrezko palankak, hor, metro eta erdi ingurukoak, haritza, gogorrena hura izaten zen, arkazia ere bai)

**podie:** inausketa

**sabarra:** abar txikiak

**samie:** gurdirako egiten den egur karga

"Arek, e, beittu, basuen, kargetan san samie esatakon, e, adar batzun gañien, ba lepoka ibili biarrien gora ta bera, ta gero goittik bera arrastraute, akordau aku burdidxe beyen ipiñi parien, burdi utze olan, da ara gañera botatie ta, bera, gixon andidxe balitze moruen, mutikue san ondio, burten puntan parau, da karo! guk bota gendunien goittik bera kargie, jota inpulsuen bota ban gora goraka ta, berba barik egon san" - (Hark, begiratu, basoan, kargatzen zen sama esaten zitzaion, adar batzuen gainean, ba lepoka ibili beharrean gora eta behera, eta gero goitik behera narratuta, gomutatu zaigu

gurdi behean ipini parean, gurdi hutsa hola, eta hara gainera botatzea eta, behera, gizon handia balitz moduan, mutikoa zen oraindino, burteun puntan paratu, eta jakina! guk bota genuenean goitik behera karga, jota indarrean bota zuen gora-goraka eta, berba barik egon zen)

**siridxe:** ziria, enborrari sartzen zaizkio ziri bi eta porragaz jota erdibitu egiten da

"Siridxeekin ba oin be eitte ittut nik, e, oin be aurten be nik poste mordue in yot, e, etxien, olasidxe, olasidxe pe esaten geuntzen ba oin postie, ba estakitt ixen fasillaue ero, olasidxe da, e, alanbra postiek ero, aurten be nik mordo bat ein yot, burdin siridxeikiñ, astilletu, serran ebaikue baño obie da ori asko be, ariik estako ebaten da, serran aridxe ebai eitte ako egurrai, da gero bidxurtu ero apurtu eitten die andik ensegida, da astilletikue a aridxen selan juten dan, bidxurre bada, bidxur jungo da, bañe ari onekue bada, e, da fasill astilletu, e? siridxeikiñ" - (Ziriekkin ba orain ere egiten ditut nik, e, orain ere aurten ere nik poste mordo egin dut, etxean, ohol-hesiak, ohol-hesiak ere esaten genien ba orain postea, ba ez dakit izen errazagoa edo, olazia da, alanbre postea edo, aurten ere nik mordo bat egin dut, burdina ziriekkin, arrakalatu, zerran ebakikoa baino hobea da hori asko ere, haririk ez zaio ebakitzen eta, zerran haria ebaki egiten zaio egurrari, eta gero bihurtu edo apurtu egiten dira handik behingoan, eta arrakalaturikoa hura harian zelan joaten den, bihurra bada, bihur joango da, baina hari onekoa bada, eta erraz arrakalatu, e? ziriekkin)

**tabloye:** tabloia, ohol luzea eta sendoa

**trangadera:** egurra txikitze enborra, trongila, trangadera

**trongille:** egurra txikitze enborra, trongila, trangadera

"Trongil moruen auxe erabilli bi ok" - (Trongil moduan hauxe erabili behar duk)

**trontzie:** trontza, trontza-zerra

"Da gero trontzias, e, da egurre, sendue basan ba, lauen artien be iguel, gerrikue,

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*orrek gerriko baltzok, e, lotu, trontziaz kirtenetatik eta lauen artien, e, ekiten geuntzen" - (Eta gero trontzagaz, eta egurra, sendoa bazen ba, lauen artean ere beharbada, gerrikoa, horiek gerriko beltzok, lotu, trontzari kirtenetatik eta lauen artean, ekiten genion)*

**txortie:** txorta

## 18.4. BELARRA

**aginyun intaidxe:** hagindun igitaia

**agiñe:** segari ahoan egiten zaiona txarto pikatuta edo kolperen bat hartuta

**ague:** segaren ahoa

**alakie:** alaka, sega ahoari egiten zaizkion akatsak txarto pikatuta

**bedar berdie:** belar berdea

**bedarra:** belarra

**bedar sikue:** belar sikua

**bibedarra:** bibelarra, bigarren ebakiko belarra

*"Lengo bedar, bibedarras ero olakue, esta? bueno lenengo kortekue ero bigarren korteko bedarra, bañe" - (Lehenengo belarra, bibelarragaz edo holakoa, ezta? beno lehenengo ebakikoa edo bigarren ebakiko belarra, baina)*

**eskobarie, eskuarie:** eskuarea

**fardue:** fardoa

*"Ya ikusten basan ondo ero batu te erun, ba ointxe be itten dana bañe beste era batera, eta beste ser baten, olan eitten dana, aparte gero ba, farduek eta eitte ittuna" - (Ja ikusten bazen ondo edo batu eta eroan, ba oraintxe ere egiten dena baina beste era batera, eta beste zer baten, hola egiten dena, aparte gero ba, fardoak egiten dituen)*

*"Da oiñ Saldiber gustien ba estakit jente askok eingo ittun farduek, eitten die oin geixa bolak" - (Eta orain Zaldibar guztian ba ez dakit jente askok egingo dituen fardoak, egiten dira orain gehiago bolak)*

*"Farduek, al danik eta sikuen, esaten dabenes, ni neuk neure etxien estittut eiñ, nik dekaten apurrek oso txikixek die ta, gañera es ain leku ona makiñak eta*

*sartzeko eta farduek eitteko" - (Fardoak, ahal denik eta sikuen, esaten dutenez, nik neuk neure etxean ez ditut egin, nik dauzkadan apurak oso txikiak dira eta, gainera ez hain leku ona makinak eta sartzeko eta fardoak egiteko)*

**intaidxe, intaixe, itaixe:** zerra, igitaia

*"Etorri illuntzixen ama ta bixok, egun gustin ire ebaten, intaixas isterrera batzen, e? egun gusti santuen, bueno, etorri, ta aitte beti etxien amen, da aittek artu te ekarritte eukitte basen kortan, surittu ein bier ganauei emoteko, amak seose eitteko afaixe, ta ni aittas, arto suritten kortan gabeko amaikak arte ta, oingo moruen ala?" - (Etorri iluntzean ama eta biok, egun guztian ira ebakitzen, igitaiagaz izterrera batzen, e? egun guzti santuan, beno, etorri, eta aita beti etxean hemen, eta aitak hartu eta ekarrita edukitzen zituen kortan, zuritu egin behar ganaduei emateko, amak zer edo zer egiteko afaria, eta ni aitagaz, arto zuritzen kortan gaueko hamaikak arte eta, oraingo moduan ala?)*

*"Intaixe bakixu ser dan? intaixas, intaixas, olan artu, olan, intaixas, ta olan esku bete eindekuen, beyen bota, beste bat, a beyen bota, gero arek danak lotu ein bi sien, da lotzie gatxa san, txarra" - (Igitaiia badakizu zer den? igitaiagaz, igitaiagaz, hola hartu, hola, igitaiagaz, eta hola esku bete egindakoan, behean bota, beste bat, hura behean bota, gero haiek denak lotu egin behar ziren, eta lotzea gaitza zen, txarra)*

**jungurie:** jungada txikerra, kodaina pikatzeke lurrean sartuta erabiltzen dena

*"Lurrei golpie emote ako gañera, lurrien sartute jungurie, eta gero mallukie dan-dan-dan sega piketan" - (Lurrari kolpea ematen zaio gainera, lurrean sartuta jungada, eta gero mailukia dan-dan-dan sega pikatzen)*

**kaskie:** segari ahoan egiten zaiona txarto pikatuta edo kolperen bat hartuta

**kirtena:** kirtena

**kortie:** ebakia

**lasto fardue:** lasto fardoa

**lau ortzekue, lauortza:** lauortza

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Iru ortzekue pe iguel, lau ortza jeneralmente, lau ortza, orrek ixen lau ortzekuek die, aldie eo leike, lau ortzekue ero iru ortzekue, esan ba lauortza, lauortza" - (Hiru hortzekoak ere beharbada, lau hortza gehienetan, lau hortza, horiek izan lau hortzekoak dira, aldea egon liteke, lau hortzekoa edo hiru hortzekoa, esan ba lauortza, lauortza)

**lelengo bedarra:** lehenengo belarra, lehen ebakiko belarra

**meta tontorra:** meta tontorra

"Gero aspixen ba, beste egur, e, trongo ero adar ero olakuekin apur bat ser bat ipiñi, aspi bat ipiñi, al danik eta ba jaikixen, estaitten lurras busti, ta gero ba oixe bera bueltan bueltan, apurke apurke, amaitzen juen meta tontorreraño" - (Gero azpian ba, beste egur, enbor edo adar edo holakoekin apur bat zer bat ipini, azpi bat ipini, ahal denik eta ba jaikien, ez dadin lurragaz busti, eta gero ba horixe bera bueltan-bueltan, apurka-apurka, amaitzen joan meta tontorreraino)

**metie:** meta

"Nik esautu ittut idias, e, aspigarrixe eitteko, idias eta bedarras, beste jenerues estot esautu nik metaik, orrekin bai" - (Nik ezagutu ditut iragaz, azpigarrria egiteko, iragaz eta belarragaz, beste jeneroagaz ez dut ezagutu nik metarik, horiekin bai)

**mutxurre:** mutxurra, pilo

"Askotan esan eoten esta astiri pe erretiretako ba, erresaue san ba pillo batzuk eiñ, mutxur batzuk ein eta ba, mutxurrek" - (Askotan ez zen egoten ezta astirik ere erretiratzeko ba, errazagoa zen ba pilo batzuk egin, mutxur batzuk egin eta ba, mutxurrak)

"Bedarra sikatze sanien eta deskuiduen eurixe datorrena ero erdi, ain sikue espada, pillue itte sana mutxurre" - (Belarra sikatzen zenean eta ustekabeen euria datorrena edo erdi, hain sikua ez bada, pila egiten zena mutxurra)

**ondarra:** hondarra, belarra ebakita, geratzen dena

**pikamallue:** pika mailuak, kodaina pikatzeko erabiltzen diren mailu eta jungada

"Aras pikau, e, jungura gañien sera, e, pikamalluas, eta, e, gero sorrostarrixas, aras emon, e, apur bat bixittasune serai" - (Haregaz pikatu, jungude gainean zera, pika mailuagaz, eta, gero zorroztarriagaz, haregaz eman, apur bat bizitasuna zerari)

**pillue:** pila

**potie:** zorroztarria eroateko erabiltzen den potea

**sardie:** sarda

"Sardie esate gendun, oneta bultz eitteko, etzan giro ongo an, e, arek euken berotasunas bañe" - (Sarda esaten genuen, honetara bultza egiteko, ez zen giro egongo han, hark zeukan berotasunagaz baina)

**sastrakie, saskarie:** sastraka

**segadorie:** segadorea

**segapotie:** sega-potea

**segie:** sega, kodaina

"Segias ebate sanien ba illaran geratze san, sabaldu ein bi san, ba, atzetik jute san bat, ba ari sabaldu bat emoten, sabaldu ero sardias ero eskuas ero intaixias ero selan ero alan sabaldu, ero buelta emon" - (Segagaz ebakitzen zenean ba ilaran geratzen zen, zabaldu egin behar zen, atzetik joaten zen bat, ba hari zabaldu bat ematen, zabaldu edo sardagaz edo eskuagaz edo igitaiagaz edo zelan edo hala zabaldu, edo buelta eman)

"Etxe ondoko selaixe ba, an iguel gana jatekue itten dana, sera segias ebai, eta bat, etxera ekarten bedarra" - (Etxe ondoko zelaia ba, han beharbada ganadu jatekoa egiten dena, zera segagaz ebaki, eta bat, etxera ekartzen belarra)

**siridxe:** zirria, sega kirtenari eusteko erabiltzen da

**sorrostarridxe, sorrostarrixe:** zorroztarria, kodaina zorrozteko erabiltzen dena

"Sorrostarridxe ebaltekue da ori" - (Zorroztarria erabiltzeko da hori)

**txontxorra:** txuntxurra, pila

## 18.5. OTZARAK

**balie:** bala, zaran mota bat

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Asto bi tte, buruen balie, balie ba alako, espartusko ser, goidxen egoten san gero galdu san bañe, balie tapias, olako kanpaso moruko bat bañe, kaja, e, buruen erabiltte ben" - (Asto bi eta buruan bala, bala ba halako, espartozko zer, goian egoten zen gero galdu zen baina, bala tapagaz, holako otzara moduko bat baina, kaxa, buruan erabiltzen zuten)

**besoko sestue:** besoko otzara

**otzarie:** otzara

**sarie:** zarana

**sestue:** otzara

"Sesto baten eruate sien da bakotxak ipintte ban bere sepulturie" - (Otzara baten eroaten ziren eta bakoitzak ipintzen zuen bere sepultura)

**sumitze:** zumitza, otzarak egiteko erabiltzen den materiala

"Sumitze da, e, preparautekue, gastañias eitte san ori" - (Zumitza da, prestatutakoa, gaztainagaz egiten zen hori)

## 18.6. ERROTA

**amarrena:** hamarrena, errotariak bere lanaren truke kobratzen zuena, menda

**andaparie:** andapara, errotaren ur depositua

**arridxe:** harria

"Da ara, arridxen, e, arridxek sulue eukitten dau an, da bekue geldi eoten da ta goikue ibiltten da, da an neurtu ein bi da, e, fiñe itteko ba, arek arridxek, bekuek eta goikuek olan, e, an erdire olan eukitten dabe, da granue erdire juten da ta, andik konuen selan dauen sera, apurke apurke, goittik erdire jausten da ta, arek arridxek, barrure sartzan dau" - (Eta hara, harrian, harriak zuloa edukitzen du han, eta behekoa geldi egoten da eta goikoa ibiltzen da, eta han neurtu egin behar da, fina egiteko ba, harri hark, behekoak eta goikoak hola, han erdira hola edukitzen dute, eta garaua erdira joaten da eta, handik konoan zelan dagoen zera, apurka-apurka, goitik erdira jausten da eta, harri hark, barrura sartzan du)

**baye:** bahea

**ejie:** ardatza

**errotaridxe:** errotaria

"Errotaridxe baño txarra ixate soan bidxen bittarteko guardasebillek orduen kendu eitte otzuesan" - (Errotaria baino txarragoa izaten zuan bien bitarteko goardiazibilak orduan kendu egiten zizkizuten)

**errotie:** errota

"Errotie bai, egon soan or, Egaña dauen serien" - (Errota bai, egon zuan hor, Egaña dagoen zerean)

"Oin nik esautu otena dok gause bat, garidxe, e, serien txarri arkan, dana arridxas, da mallukias jo, jo, jo eiñ, garidxe, eta, amak, e, urune laban sartu, eta ogidxe itteko, ogidxe iñ eta etara, da jateko, ori soan ba, gu txikidxek giñenien, bañe jote giñuan guk artue, garidxe, ik, e, setu, apurtzeko, se errotara eruen da kendu eittoskuen ordun, da se itte giñuan guk? olako aska bat, arriskue, da mallukias jo, taka-taka! urune iñ, da gero aittek ekarri oskuan, ser bat, olako makiñatxo bat olan, e, eraiñ, esku batas, da bota goittik eta eitteko da apurtzeko, da bueno! ordun a grande ei soan! se errotara erute giñuan da errotan kendu eitte oskuen erdidxe baño gedxa ta" - (Orain nik ezagutu dudana duk gauza bat, garia, zerean txerri askan, dena harriagaz, eta mailukiagaz jo, jo, jo egin, garia, eta, amak, irina labean sartu, eta ogia egiteko, ogia egin eta atera, eta jateko, hori zuan ba, gu txikiak ginenean, baina jotzen genian guk artoa, garia, hik, zertu, apurtzeko, ze errotara eroan eta kendu egiten ziguten orduan, eta zer egiten genian guk? holako aska bat, harrizkoa, eta mailukiagaz jo, taka-taka! irina egin, eta gero aitag ekarri ziguan, zer bat, holako makinatxo bat hola, eragin eskuATEGAZ, eta bota goitik eta egiteko eta apurtzeko, eta beno! orduan hura handia ei zuan! ze errotara eroaten genian eta errotan kendu egiten zigutean erdia baino gehiago eta)

"Gu mutikotxuek giñela gu Tomas Txikidxas jute giñian Elorridxora gabas, guk semat urte eukingo giñuasen? bost sei urte ta



# ZALDIBAR HIZTEGIA

*astuas da Elorridxora jute giñian" - (Gu mutikotxoak ginela gu Tomas Txikiagaz joaten gintuan Elorriora gauetz, guk zenbat urte edukiko genitian? bost sei urte eta astoagaz eta Elorriora joaten gintuan)*

*"Amen beyen ba, errotie, ba bakarrik bat eon da ortxe, oin bota dabena, antxe euen sera, errota bat" - (Hemen behean ba, errota, ba bakarrik bat egon da hortxe, orain bota dutena, hantxe zegoen zera, errota bat)*

**galbarie:** galbahea

*"Guk unikamente eitten genduen, edurre itte banien, galbarie esate akona, ipiñi olan, da jatekue ipiñi, tte, edurre itte banien txoridxe sartze sien, galbarie jausi bera, ta arrapau" - (Guk bakarrik egiten genuen, elurra egiten zuenean, galbahea esaten zaiona, ipini hola, eta jatekoa ipini, eta, elurra egiten zuenean txoriak sartzen ziren, galbahea jausi behera, eta harrapatu)*

**kajie:** kaxa

**konportie:** konporta

*"Konportie bai, ure sartzeko konportie da urteteko bañe, serien es, ure doyen serien, esta konportaik, konportie da, itxi ero sabaldu eitteko" - (Konporta bai, ura sartzeko konporta dago irteteko baina, zerean ez, ura doan zerean, ez dago konportarik, konporta da, itxi edo zabaldu egiteko)*

**mendie:** menda, errotariak bere lanaren truke kobratzen zuena, hamarrena

*"Batzuk alde batera bestiek bestera, bai mendie be bai" - (Batzuk alde batera besteak bestera, bai menda ere bai)*

*"Amar kilo arto erun badittusu beratzi, e, emon, diru barik" - (Hamar kilo arto eroan badituzu bederatzi, eman, diru barik)*

**sakue:** zakua

**sakutue:** zakutoa

*"Ointxe be alantxe ekarten da sakutuetan" - (Oraintxe ere halantxe ekartzen da zakutoetan)*

**tolberie:** tolbera

**turbinie:** turbina

*"Gurien modernue ego san, errotak lengo sarrak, e, olako erruera bat, e, katillu moruen ero serien da ba, ure presiñuen, axe, onek patiñek eta etaten daberen moruen, e, orrek bestiek selan die? astuas bueltaka ibili itte ittuenak, axe estilokuek, gurien bat eo san, gurien turbinie euen" - (Gurean modernoa egon zen, errotak lehengo zaharrak, holako txirrinka bat, katillu moduan edo zerean eta ba, ura presioan, huraxe, patin hauek eta ateratzen duten moduan, beste horiek zelan dira? astoagaz bueltaka erabili egiten dituztenak, huraxe estilokoak, gurean bat egon zen, gurean turbina zegoen)*

**txingeleta:** txingeleta

**txoridxe:** txoria

*"Txoridxe da, olan, sulo bat, sulue ero, antxe, ejie, an bueltaka ibiltten dana, axe beko sera" - (Txoria da, hola, zulo bat, zuloa edo, hantxe, ardatza, han bueltaka ibiltzen dena, huraxe beheko zera)*

**urbidie:** urbidea, ubidea

**urun sakue:** irin zakua

*"Ba arek, e, orduen gerra ostien or berrogetabidxen da gu neskatie giñenien, ni berrogeidxen jadxo nitzen da or berrogeta iruen lauen da, e, orduen ogidxas da falta itzela euen da kaletik ekarte otzesan, e, tallerrak eta eukesenak eta, urun sakuek ekarte otzesan da berak ogidxe itte otzen" - (Ba haiek, orduan gerra ostean hor berrogeian eta gu neskatoak ginenean, ni berrogeian jaio nintzen eta hor berrogeita hiruan lauan eta, orduan ogiagaz eta falta itzela zegoen eta kaletik ekartzen zizkioten, tailerrak eta zeuzkatena eta, irin zakua ekartzen zizkioten eta berak ogia egiten zien)*

## 18.7. LABEA

**ixopue:** irakaz egiten zen erratza modukoa, berau bustita labea garbitzeko erabiltzen zen

**labasue:** labasua, labatsua

**labie:** labea

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Txorokille kendu eskus dana, sikatze sanien, kaso batesko artue lelungotan, e, artue sertzeko iguel laban sartu bixate soan, sikatzeko orduen jan ein bixate soan seoser da, eta bañe bestela es" - (Txorokila kendu eskuz dena, sikatzen zenean, kasu baterazkero artoa lehenengotan, artoa zertzeko beharbada labean sartu behar izaten zuan, sikatzeko orduan jan egin behar izaten zuan zer edo zer eta, eta baina bestela ez)

"Nik labie esautu neban, bai, ogixe ittekue, eitten es" - (Nik labea ezagutu nuen, bai, ogia egitekoa, egiten ez)

"Labie ba, labie ixaten da, e, or amabi amalau bat ogi, kilo bikuk eitteko morukue ixaten da labie, bueno gu-geuk euki genduen ta alakuk ikuste sien beste leku batzutan be, amabi bat ogi, bueno gero arto batzu pe bai, da, lelengo ba egurre, ona eukitte osu preparaute, ondo siketute, pague ero astilletute ta sartze akos aretxek, arin berotzen da, e?" - (Labea ba, labea izaten da, hor hamabi hamalau bat ogi kilo bikoak egiteko modukoa izaten da labea, beno guk geuk eduki genuena eta halakoak ikusten ziren beste leku batzuetan ere, hamabi bat ogi, beno gero arto batzuk ere bai, eta, lehenengo ba egurra, hona edukitzen duzu prestatuta, ondo sikatuta, pagoa edo astilatuta eta sartzen zaizkio haiexek, arin berotzen da, e?)

**labaputxiñe:** irakaz egiten zen erratza modukoa, berau bustita labea garbitzeko erabiltzen zen

**parie, palie:** para

"Parie beti esaten san bai, ta parie ba, bat burdiñaskue, biribille, oin be bada, da, egurreskue, lusiaue, artuentzako biribille eta ogidxentzako lusie" - (Para beti esaten zen bai, eta para ba, bat burdinazkoa, biribila, orain ere badago, eta, egurrezkoa, luzeagoa, artoarentzat biribila eta ogientzat luzea)

## 18.8. GURDIAK

**agie:** habea, zurruna

"Agie sertzeko esan gurosu, agiek, koloketakuk, gañien ipintte akon agie eusteko, ari ipintte akon siri bat" - (Habea zertzeko esan gura duzu, habeak, ezartzekoak, gainean ipintzen zitzaion habea eusteko, hari ipintzen zitzaion ziri bat)

"Ori, e, sertze san, e, aurrien burdidxek, ba euken, e, espatie, esatakona, espatie lusie, da onek agionek euken, e, bittarte batas, sartu eitte sana amen, da gero atzien, atzeraño ekarri, ta atzien beyen ba sokatxo batas ero dana dalakue ba, beko burtaunera, lotzen san" - (Hori, zertzen zen, aurrean gurdiak, ba zeukan, ezpata, esaten zaiona, ezpata luzea, eta habe honek zeukan, bitarte bategaz, sartu egiten zena hemen, eta gero atzean, atzeraino, ekarri, eta atzean behean ba sokatxo bategaz edo dena delakoa ba, beheko burteunera, lotzen zen)

**akilgañe:** akuilu gaina; akuiluak puntan daukan iltzea

**akillue, akullue:** akuilua

"Sirri da akilluas, e, sirriketu" - (Zirri da akuiluagaz, zirrikatu)

**aldemena:** aldamera, gurkamaren alboetako makilak

**ardatza:** ardatza

"Ardatzien erabilte ban, e, normalien urkidxe" - (Ardatzean erabiltzen zuen, normalean urkia)

"Arek eseban erabiltten altza, arek urkidxe erabilte ban ardatza eitteko" - (Hark ez zuen erabiltzen haltza, hark urkia erabiltzen zuen ardatza egiteko)

**aspiola:** azpi ohola, garraio batzuetarako gurkamaren azpiko aldean ipintzen diren oholak

**astue:** astoa, ardatzari eusteko aldamenen azpiko zatia

**atzeko espatie:** atzeko ezpata, atzakarra, gurkamaren atzeko makila

**atzera kargie:** atzera karga

**aurrera kargie:** aurrera karga

**aurreko espatie:** aurreko ezpata, gurkamaren aurreko aldean tente ipintzen den makila

**bolantie:** gurdi bolantea

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"*Bolantie san, bolantie san, e, errubera aundidun sera, radidxuekin, e, burdi aundidxe*" - (*Bolantea zen, bolantea zen, txirrinka handidun zera, arraioekin, gurdi handia*)

"*Guk es genduen euki bolanteik*" - (*Guk ez genuen eduki bolanterik*)

**burdi bolantie:** gurdi bolantea

**burdidxe, burdixe, gurdidxe:** gurdia

"*Gurdi bete bedarra ekarri ou*" - (*Gurdi bete belarra ekarri dugu*)

"*Gero beste gausa bat, e, burdidxe eusten beti, leku txarretan, ero sokie ebatu bañe jeneralmente, sardie ero seoser egur bat ero sartu, punta sorrotza ta, ta barrure ta, andik ba*" - (*Gero beste gauza bat, gurdia eusten beti, leku txarretan, edo soka oratu baina gehienetan, sarda edo zer edo zer egur bat edo sartu, punta zorrotza eta, eta barrura eta, handik ba*)

"*Orduen euen, e, bai arrastaka da bai euesan beste, e, burdi moruko txikitxo batzuk*" - (*Orduan zegoen, bai arrastaka eta bai zeuden beste, gurdi moduko txikitxo batzuk*)

**burdi sokie:** gurdi soka, karga lotzeko erabiltzen den soka

"*Burdi sokie, espesiala san berendako, ortakoxe*" - (*Gurdi soka, berezia zen berarentzat, horretarakoxe*)

**burdi txirrinkie, burdi txirringie:** gurdi txirrinka

**burkamie:** gurrkama

"*Burkamiek eukesan albueta erruerak sertzeko, babesteko erruerak*" - (*Burkamak zeuzkan alboetan txirrinkak zertzeko, babesteko txirrinkak*)

**burtalbue:** aldamera, gurrkamaren alboetako makilak

"*Orrek burtalbueta ipintte ittuk ori kartola, ra! sartzen dok satza eitteko, bedarra ta irateko, olan makillak ipintte dxakosak bi ero iru*" - (*Horiek burtalboeta ipintzen dituk kartol hori, ra! sartzen duk, satza egiteko, belarra eta iragateko, hola makilak ipintzen zaizkiok bi edo hiru*)

**burtaldemena, burtaldemena:** aldamera, gurrkamaren alboetako makilak

**burtaune, burteune:** burteuna, partika

"*Eta a be etzan ona, gero, e, burdidxen, burtaune, an burterie sartze akona, an be ba, katiatu ei leikela, se geure lagun bati ortxe, bueno lagune ero gu baño sarrau, baye alkarras basuen ibilitakuai, e, pasa akon, itzuldu burdidxe, eta burtaunen aspidxen artu adarra iridxe eta bota il san*" - (*Eta hura ere ez zen ona, gero, gurdian, burteune, han burtedea sartzen zitzaiona, han ere ba, kateatu egin litekeela, ze geure lagun bati hortxe, beno laguna edo gu baino zaharragoa, baina elkarregaz basoan ibilitakoari, pasatu zitzaion, itzuli gurdia, eta burteunaren azpian hartu adarra idiak eta bota hil zen*)

**burtaun puntie:** burtaun punta

"*Ainbat bider ibillite bai, bat jarri burtaun puntan, seretik eldute ta beste batzuk atzetik, gora ta bera*" - (*Hainbat bider ibilita bai, ba jarri burteun puntan, zeretik helduta eta beste batzuk atzetik, gora eta behera*)

**burterie:** gurtedea

"*Burterie sekule apurtu betxakun eñ*" - (*Gurtedea sekula apurtu ere ez zitzaigun egin*)

"*Nik esautu ittuas danak, nik burterie be itten nekidxen*" - (*Nik ezagutu ditut denak, nik gurtedea ere egiten nekien*)

"*Burterie da burtaune, sartzen dan sera*" - (*Gurtedea da burteuna, sartzen den zera*)

**burtetza:** gurtetza

**burtola:** gurtola

"*Burtolak dies kaso bateraskero, e, onixe amen godxen ipintte dxakosan moruen olan kartolak esate dxaken morun*" - (*Burtolak dira kaso baterazkero, horixe hemen goian ipintzen zaizkion moduan hola kartolak esaten zitzaien moduan*)

**busterri bakarra:** buztarri bakarra

"*Busterri bakarras be bai, bakarras, arto bittartie jorrazeko, bañe gero ostera parejientzako burdiñarie, da beste arto burdiñarie ori ik guroana, txikitxuaue, barakin ipiñitte bakarras eitteko, astuas be bai biorras be bai, da ganauas be bai*" - (*Buztarri bakarragaz ere bai, bakarragaz, arto bitartea jorrazeko, baina gero ostera bikotearentzat burdinarea, eta beste arto burdinarea*)

# ZALDIBAR HIZTEGIA

hori hik gura duana, txikitxoagoa, partikekin ipinita bakarragaz egiteko, astoagaz ere bai behorragaz ere bai, eta ganaduagaz ere bai)

**busterridxe, busterrixe:** buztarria, uztarria  
"Da busterridxe be bai batekue, gurien godxen ongo da, a, amairu busterri ero estaitt semat euesan, iridxe eta euesan emen da" - (Eta buztarria ere bai batekoa, gurean goian egongo da, hamahiru buztarri edo ez dakit zenbat zeuden, idiak eta zeuden hemen eta)

"Bueno busterridxe, guk, e, busterridxe geunkesan, e, ser bi, narruskuek, e, lusiek, estakitt semat euko besan, bi, ganau bata ta bestie lotzeko" - (Beno buztarria, guk, buztarriak geneuzkan, zer bi, narruzkoak, luzeak, ez dakit zenbat edukiko zituzten, bi, ganadu bata eta bestea lotzeko)

"Guri tokau akusen ganauek onak, irixe pe bai, e? gurien busterrixek or das, bat amen da, ipiñitte" - (Guri tokatu zitzaizkigun ganaduak onak, idiak ere bai, e? gurean buztarriak hor daude, bat hemen dago, ipinita)

**dragegurre:** draga-egurra

"Dragegurre, dragegurre, amen onena bakixu ser san? dragegurre itteko? e, sera, jesus! selan dekos or, e, Urtuk or, e, jarlekue dekon, e, ondun iru sartute? au do pa! bueno akordekota, akordekota, urkidxe! dauenik fiñena dragie itteko urkidxe, nekesen gasteta sana urkidxe, baye orduen be ixate san, e, ba aurrien arrapeta sana piñuas be iguel da, arrapeta sanas, e, se, gu basuen ibiltte gas, e, ba urte mordo baten" - (Draga-egurra, draga-egurra, hemen onena badakizu zer zen? draga egurra egiteko? zera, jesus! zelan dauzka hor, Urtuk hor, jarlekua daukan, ondoan hiru sartuta? hau duk ba! beno gomutatuko zait, gomutatuko zait, urkia! dagoenik finena draga egiteko urkia, nekezen gastatzen zena urkia, baina orduan ere izaten zen, ba aurrean harrapatzen zena pinuagaz ere beharbada eta, harrapatzen zenagaz, ze, gu basoan ibilita gaude, ba urte mordo baten)

**dragie:** draga, galga

"Dragie gero frenetakue" - (Draga gero balaztatzeko)

**erie:** hedea, uhala

"Ta busterridxenei erie esate aken busterridxen narruei" - (Eta buztarrienei heda esaten zitzaien buztarriaren hedeei)

**erraille:** erraila, aldamen batetik bestera doazen makilak gurdama osatzeko

**erruerie, erruberie:** txirrinka

"Eta gero ein suan, a kendu sanien ipiñi suasen, burdidxen ero gomasko erruberak, eta orduen bu! orduen abioye bestekue suan" - (Eta gero egin zuan, hura kendu zenean ipini zituan, burdian edo gomazko txirrinkak, eta orduan bu! orduan hegazkina bestekoa zuan)

**espatie:** ezpata, gurdamaren aurreko aldean tente ipintzen den makila

"Espatie atzien, da onek taketak, bittartien dausenak taketak" - (Ezpata atzean, eta hauek taketak, bitartean daudenak taketak)

**gañagie:** hagea, zurruna; aurreko ezpatatik atzekora zama lotzeko ipintzen den egurra

**goltzie:** gurdiaren alboetan kartolatzen egiten zen bihurrezko armazioa

"Batzuk ixeten siren sereskuek gañera, giñarrias einyekuek, guk es genduen euki bañe, goltzie esate akon ari, goltzie ari giñarrias einyekuai" - (Batzuk izaten ziren zerezkoak gainera, ginarragaz egindakoak, guk ez genuen eduki baina, goltza esaten zitzaion hari, goltza hari ginarragaz egindakoari)

**kamie:** kama

**kargie:** zama, karga

**karreteridxie:** karreteria

**kartola:** kartola, gurtola

**katalotue:** egur kargak lotzeko katea

**laakue, lakue:** larakoa

"Bat atzien fijue, ta gero aurrien sartze akon, laakue" - (Bat atzean fixoa, eta gero aurrean sartzen zitzaion, larakoa)

"Bai urten estaidxen, e, ipintte akon bai, laakuek urten estaidxen" - (Bai irten ez dezan, ipintzen zitzaion bai, larakoak irten ez dezan)

"Ori bai, ori asko eitte ben gure mutillek, or tejamanan da, plantau an, burtaunen

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*puntan, da arek lakue deko an, lakue, da ari lakoi eldu olan, da beste batzuk bera ta gora ebali" - (Hori bai, hori asko egiten zuten gure mutilek, hor tejabanen eta, paratu han, burteunaren puntan, eta hark larakoa dauka han, larakoa, eta larako hari heldu hola, eta beste batzuek behera eta gora erabili)*

**latigue:** latigoa, ganadua kintzeko ematen zaiena

**sapie:** sapa, frontera; ganaduari kopetan ipintzen zaiona buztartzeko

*"Iridxai aintze neutzen nik kortan, da jute sien, busterridxe egote san etartien, jute sien busterrire da parien geldi geatze sien, orduen artze naban busterridxe, ainyu iridxai tte ni baño lena jute sien, geo, e, jute nitzen, artze naban busterridxe, ganién botate neutzen sama ganera, botate neutzen da gero, lotu, sapie be ipiñi, sapie esatako da, gero ba lotu antxe sera" - (Idiei agintzen nien nik kortan, eta joaten ziren, buztarria egoten zen etartean, joaten ziren buztarrira eta parean geldi geratzen ziren, orduan hartzen nuen buztarria, agindu idiei eta ni baino lehenago joaten ziren, gero, joaten nintzen, hartzen nuen buztarria, gainean botatzen nien sama gainera, botatzen nien eta gero, lotu, sapa ere ipini, sapa esaten zaió eta, gero ba lotu hantxe zera)*

**siridxe:** ziria, ardatza txirrinkagaz eusteko erabiltzen zirenak

*"Bai, bueno materidxalak eukitte sittuen preparaute, ta gero ba, neguen denporias, e, suluek eta eskus eitte otzasen, eta siridxe eta danak egurras eitte otzasen, e? lotu betik, untzeik, untzeik etxuan erabiltten" - (Bai, beno materialak edukitzen zituen prestatuta, eta gero ba, neguan denboragaz, zuloak eta eskuz egiten zizkion, eta ziriak eta denak egurragaz egiten zizkion, e? lotu barik, iltzerik, iltzerik ez zian erabiltzen)*

**taketa:** taketa, belarra eroateko aldamenetan sartzen zirenak

**taketillue:** taketatxoa, belarra eroateko aldamenetan sartzen zirenak

**tanborra:** danborra, txirrinkaren danborra

**tornillue:** torlojua; orrazi edo orratzaren orde ez erabiltzen dena gurtetzari eusteko

*"Bai arek soasen, arek soasen, egurras oten sanien, egurre egurras eitte sanien, bañe gero es, gero onek, etorri soasen ba, olan sertu da tornilluekin" - (Bai haiek zituan, haiek zituan, egurragaz egoten zenean, egurra egurragaz egiten zenean, baina gero ez, gero hauek etorri zituan ba, hola zertu eta torlojuekin)*

**trabesak:** trabesak, errailak, aldamen batetik bestera doazen makilak

*"Orrek ixengo die serak, e, trabesak ero esate otzena berak" - (Horiek izango dira zerak, trabesak edo esaten ziena berak)*

**txirrinkie, txirringie:** txirrinka

*"Iguel ibilliko sien, ba txirrinka bat eitten ba, iru gixon batera" - (Beharbada ibiliko ziren, ba txirrinka bat egiten ba, hiru gizon batera)*

**ugela, uela:** uhala

## 18.9. ASTO GARRAIOA

**albaldie, arbaldie:** arbalda, basta

*"Arbaldie lotute etzan jueten, arbaldie bota lepotik eta gero, lotze sana san, sillakin aspidxen, sillen, e, sokakin" - (Arbalda lotuta ez zen joaten, arbalda bota lepotik eta gero, lotzen zena zen, silekin azpian, silen, sokekin)*

**albotzarie:** asto-otzara

**aparejue:** aparejua

*"Aparejuek, e, guk lelengo arbaldie, arbaldie ta gero, beren manta bat eta gero, otzarak" - (Aparejuak, guk lehenengo arbalda, arbalda eta gero, beraren manta bat eta gero, otzarak)*

**astosarak:** asto sarak

**astosillie:** urkea, txalma

**astotzarie:** asto-otzara

*"Goixien eruen astotzaran sartute, da gero, bueltan sabalik" (Goizean eroan asto-otzaran sartuta, eta gero, bueltan zabalik)*

**kabeserie:** kabezera

*"A bueno! ori astuai ipintte dxakuen, ero kaballuai ipintte dxakuen ba, sera, kabeserak, e, serakin" - (A beno! hori*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*astoei ipintzen zitzaiean, edo zaldiei ipintzen zitzaiean ba, zera, kabezerek, zerekin)*

**karrue:** gurdia; karroa zaldi edo astoekin erabiltzen dena da; ganaduekin erabiltzen dena, oster, gurdia da

*"Amen be karrue esaten gontzan gedxena, e, karrue ba, burdidxen estilora karrue" - (Hemen ere karroa esaten genion gehiena, karroa ba, gurdiaren erakoa karroa)*

*"Karruen juen sien, an astue atzien" - (Karroan joan ziren, han astoa atzean)*

*"Nik astuen karroik estot esautu" - (Nik astoaren karrorik ez dut ezagutu)*

**kollariñe:** koilarra

*"Kollariñek jeneralien ixate ittuk" - (Koilarrak normalean izaten dituk)*

*"Kollariñe bai esatakon, e, biskerrien erute banai astuek" - (Koilarra bai esaten zitzaion, bizkarrean eroaten zuenari astoak)*

*"Ser? ba kollarin bat, bat kollariñe, kaballuena bakixu? kollariñe ta arek kollariñek eukesan, olan ertzetik artute, olan soka bi ero kordel bi, atzera, karrora, arek ori sostenitteko karrue, esta? da gero eukesan, ya, ya soka paño fuertiaue, olan olesko gausa batzuk, are pe bi, karruei, e, bai ba karruek bier asko ein bier ba! da arek sostenitte ben karrue" - (Zer? ba koilarin bat, bat koilarina, zaldiarena badakizu? koilarina eta hark koilarinak zeuzkan, hola ertzetik hartuta, hola soka bi edo kordel bi, atzera, karrora, haiek horri eusteko karroa, ezta? eta gero zeuzkan, ja, ja sokak baino gogorragoa, hola oholezko gauza batzuk, haiek ere bi, karroari, bai ba karroak behar asko egin behar ba! eta haiek eusten zioten karroari)*

**sapie:** sapa, zaldiaren belarriak estaltzekoei esaten zaie

*"Buruen belarritteko, belarrixe pe tapaute, sapaikin, sapak, esatakon an, tapaute olan" - (Buruan belarrietako, belarriak ere tapatuta, sapekin, sapak, esaten zitzaion han, tapatuta hola)*

**sille:** jibita, astoak eta zaldiak kinatzeko erabiltzen zen tresna

*"Bai ori, e, makilla bati ipintte otzesu ba, sille, sille, narru sati bat eta ba joteko" - (Bai hori, makilla bati ipintzen diozu ba, zila, zila, narru zati bat eta ba jotzeko)*

**sillie:** urkea, txalma

**sokie:** soka, petralaren ordeaz erabiltzen da

*"Guk sokias pasetan geuntzan guk, e, sokiei eitten geuntzan buelta bi" - (Guk sokagaz pasatzen genion guk, sokari egiten genion buelta bi)*

**trintxie:** zintxa

**ugela:** uhala

*"Ugela bueno, bai gañien jute mas ya orduen manejetako" - (Uhala beno, bai gainean joaten bahaiz ja orduan maneiatzeko)*

## 18.10. KORTA

**albatie:** albatea, kortako atea

*"Gurien kortara jute sien, e, iru bixitza sien, iru bixitzok paseta giñen etarte batetik, kortara, etartetik, bañe albatie san, e, gu bixi giñena, se gu, frentien eskiñen bixi, baserriek frentien deko, e, etartie, eta an bixi sien bi, da, gu bixi giñen, e, albatien" - (Gurean kortara joaten ziren, hiru bixitza ziren, hiri bixitzok pasatzen ginen etarte batetik, kortara, etartetik, baina albatea zen, gu bizi ginena, ze gu, aurrean ez ginen bizi, baserriak aurrean dauka, etartea, eta han bizi ziren bi, eta, gu bizi ginen, albatean)*

**askaurrie:** askaurrea

*"Da ontxe be, obrak ei ttue bañe askaurrie errespetau in yabe, lengo moruen aska pe bai, itxi deittue lengo moruen" - (Eta oraintxe ere, beharrak egin dituzte baina askaurrea errespetatu egin dute, lehengo moduan askak ere bai, utzi dituzte lehengo moduan)*

*"Guk eskatzetik barrure ganauai emoten geuntzena askaurrie san" - (Gu ezkaratzetik barrura ganaduari ganaduari ematen geniona askaurrea zen)*

*"Ori berori estot ikusi, es gurien esta on ori, bañe eon dana da, e, antzekue, gurien eote san ganajatekue, eskatzien, eskatzien*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*madxe euen alde batién, eta bestekaldien sera, e, selan esa ot? au, e, sera, ganauendako jatekue bedarra ero dana dalakue, eskatzien, eta se askaurrien, len esan dotzuen askaurrie? eskatzetik jute san askaurrera, eta askaurrien eseuen lekuik, da eskatzien, eskatze andidxe san, ba eskatzien, eta eskatzetik artu, da pasta giñen askaurrera ta bota geuntzen ganauai, bedxei" - (Hori berori ez dut ikusi, ez gurean ez da egon hori, baina egon dena da, antzekoa, gurean egoten zen ganadu jatekoa, ezkaratzean, ezkaratzean mahaia zegoen alde batean, eta besteko aldean zera, zelan esan dut? hau, zera, ganaduendako jatekoa belarra edo dena delakoa, ezkaratzean, eta ze askaurrean, lehen esan dizudan askaurrea? ezkaratzetik joaten zen askaurrera, eta askaurrean ez zegoen lekurik, eta ezkaratzean, ezkaratz handia zen, ba ezkaratzean, eta ezkaratzetik hartu, eta pasatzen ginen askaurrera eta botatzen genion ganaduari, behiei)*

**askie:** aska

*"Askaurrie da, e, ori esta, askaurrie da, e, bedxek das kortan, askatik alde batera kortie da, eta bestie da askaurrie, askaurrien eoten da jateko gausie, ganajatekue, bedarra, pentzue, eta andik emote ako, bedxek eukitten dau, e, ba, ser batas, tapa batas ba sabaldu te askie, berak jaten dabena askie esaten geuntzen guk, orduen ba, askaurretik ba, sabaldu a tapie ta, artu jana ta, bedxei jaten emote ako, askara" - (Askaurrea da, hori ez da, askaurrea da, behiak dagoz kortan, askatik alde batera korta dago, eta bestea da askaurrea, askaurrean egoten da jateko gauza, ganadu jatekoa, belarra, pentsua, eta handik ematen zaio, behiak edukitzen du, ba, zer bategaz, tapa bategaz ba zabaldu eta aska, berak jaten duena aska esaten genion guk, orduan ba, askaurretik ba, zabaldu tapa hura eta, hartu jana eta, behiari jaten ematen zaio, askara)*

*"Egote san, e, ganauen asken aurrekaldien ero serien" - (Egoten zen, ganaduen asken aurreko aldean edo zerean)*

**aspigarridxe:** azpigarria

**aurkidxe:** behiak batzeko erabiltzen den aulkia

*"Aurkidxek die orrek, orrek aurkidxek die, korta gustietan eongo san aurkidxe orduen denporan" - (Aulkiak dira horiek, horiek aulkiak dira, korta guztietan eongo zen aulkia orduan denboran)*

**burtxoye:** karretila

**eskobillie:** eskobila, ganadua garbitzeko erabiltzen dena

*"Da eskobillias ba, eskobillie ixete san ba, serak, sendo samarrak euesan" - (Eta eskobilagaz ba, eskobila izaten zen ba, zerak, sendo samarrak zeuden)*

**karretillie:** karretila

**kiñarresko eskobie:** ginarrazko erratza

**kortie:** korta

*"Kortie danendako, bai, oin bere lekue, baten lekue, estakitt, baten lekue, etxat akordauko, bestelan, e, danendako, lokal bat, ba kortie" - (Korta denendako, bai, orain bere lekua, baten lekua, ez dakit, baten lekua, ez zait gomutatuko, bestela, denendako, lokal bat, ba korta)*

*"Gurien kortan da olakue" - (Gurean kortan dago holakoa)*

*"Kortak eta garbitze sien jeneralien danak, e, nabue eraitteko" - (Kortak eta garbitzen ziren gehienetan denak, arbia ereiteko)*

*"Poleakin ipiñitte ote san, euren dako kortie euen espesiala, nere etxien" - (Poleekin ipinita egoten zen, eurentzat korta zegoen berezia, nire etxean)*

**kutxillie:** lastoa txikitzeko erabiltzen zen tresnaren izena

**satz etatie:** sats ateratzea

*"Satz, e, es, es, ganaue egote san, ganaue bedxe da, ganaue egote san, e, bueno pekotza eitte ban, eta ganera botakon idie ero, aspigarridxe, botaakon, eunien iru bider ero, eitte san, aspidxe, aspidxe itte akon serei, ganauai, eta, sendotze san ba igual metro erdi, olan, eta gero an, metro erdidxen an aspidxe euen, da gero satz etatie ixete san, arratzalde gustikue, beredxendie espesiala eitte san, neke aundikue san da, serea etara in bi san, da gero kargau ein bi san, e, burdidxen, eta neke aundidxe san da arratzalde gustie,*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*ixete san, a kentzen da artze san burdidxas, batzuk eingo ben, e, burtxoyas ero seras, guk burdidxas eitte genduen, kargau, da eruen tejamanana da an ustu" - (Satsa, ez, ez, ganadua egoten zen, ganadua behia da, ganadua egoten zen, beno bekorotza egiten zuen, eta gainera botatzen zitzaion ira edo, azpigarria, botatzen zitzaion, egunean hiru bider edo, egiten zen, azpia, azpia egiten zitzaion zerari, ganaduari, eta, sendotzen zen ba beharbada metro erdi, hola, eta gero han, metro erdian han azpia zegoen, eta gero sats ateratzea izaten zen, arratsalde guztikoa, askaria berezia egiten zen, neke handikoa zen eta, zerera atera egin behar zen, eta gero kargatu egin behar zen, gurdian, eta neke handia zen eta arratsalde guztia, izaten zen, hura kentzen eta hartzen zen gurdiagaz, batzuek egingo zuten, gurdixilagaz edo zeragaz, guk gurdiagaz egiten genuen, kargatu, eta eroan tejobanara eta han hustu)*

**serrie:** zerra, lastoa txikitzeko erabiltzen zena

**sepillue:** eskobila

**txarrantxie:** txarrantxa, ganadua garbitzeko erabiltzen den burdinazko tresna

## 19. GIZARTEA

Gizarte bizimoduaren gaineko atal honetako lexikoa merkatu-azoka, dirua, neurriak, jendea, kortesia formulak, jabetza erlazioak, auzoen erlazioak-elkarteak, ezkontza, musika-dantza, kirola, karta jokoak, ehiza-arrantza, jaiegunak, euskara, eta gerratea-soldaduska izeneko azpi-gaietan banatuta ematen dugu.

### 19.1. MERKATU-AZOKA

**balantzie, balansie:** balantza, plazan pisatzeko erabiltzen zena

*"Orduen pisuek sien balantzan" - (Orduan pisuak ziren balantzan)*

**baskulie:** baskula

**beratzi urrena:** azokatik etxera ganadu berriren bat ekartzen zenean bederatzi egunean edukitzen zen ezustekorik ez badauka epe hori pasatuta ordaindu egiten zen

*"Ori eitte san, e, beratzi urrena paseta sanien, beratzi urrena paseta sanien, ba konforme basengosan ba, eser eroste sanien, beidxe gurien, nik beidxe esautu ot beti, eta eser esustekoik espaban argitzen ba beratzi urrena ixate san, beratzi, egunen barruen ero, eser argitze espaakon ba orduen juete san pagetan, da ba beskaidxe ero, beskaidxe ixate san en jeneral, nee denporan" - (Hori egiten zen, bederatzi hurrena pasatzen zenean, bederatzi hurrena pasatzen zenean, ba konforme bazeunden ba, ezer erosten zenean, behia gurean, nik behia ezagutu dut beti, eta ezer ezustekorik ez bazuen argitzen ba bederatzi hurrena izaten zen, bederatzi, egunen barruan edo, ezer argitzen ez bazitzaion ba orduan joaten zen ordaintzen, eta ba bazkaria edo, bazkaria izaten zen gehienetan, nire sasoian)*

**bendejie:** bendeja, plazara saltzeko eroaten den jeneroa

**beserue:** bezeroa

*"Eta len beserue beserue ixate san, da suk jakitte sendun se kopuru saldute seunken, bañe asken baten jute siñen eun litrokin, e ba, saltze sendusen irurogei tte bestiai ser eitten tzasu?" - (Eta lehen bezeroa bezeroa izaten zen, eta zuk jakiten zenuen ze kopuru salduta zeneukan, baina azken baten joaten zinen ehun litroekin, ba, saltzen zenituen hirurogei eta besteari zer egiten diozu?)*

**esne beserue:** esne bezeroa

*"Esne beseruek plasara etorte sien" - (Esne bezeroak plazara etortzen ziren)*

**feridxie:** azoka

*"Euskaldun tratanteik, e, ba, bat ero estakitt selan egote san feridxa gustien be" - (Euskaldun trataririk, ba, bat edo ez dakit zelan egoten zen azoka guztian ere)*

*"Abariño ixan da feridxie, ganaue, kaballeridxie ta ganaue, da ba, oiñ, landarak eta saltze ittue da saltze ittue gastai tte olako gausa pe, da frutak,*



# ZALDIBAR HIZTEGIA

Saldibarren, e, ori oittura andidxe da, arbolak, landarak, bueno orrek landarok ortan dediketan dienak, piñu landarie fruta landarak, orretan dediketan dienak etxe asko das Saldibarren, ortixik bixi dienak, e? d'orrek juten die landarakiñ, ori be beti erun da Abariñora, d'oin be bai, da erremintie, kaballeridxiendako, da kollariñek eta onek, estakixu? orrek gausok, orrek beti esautu ittut saltzen, da politte ixate san bañe gero dana galdu eban orrek asi sienien, bañe kendu ein yabe atza, kendu ittue orrek, oin sestogiñek eta olan, onek esku, eskuko gausak eta orrek saltze ittue, bañe kendu dabe ori, mantak eta saltzie ta ori, kinkilleridxe oi kendu dabe" - (Abadiño izan da azoka, ganadua, zalditeria eta ganadua, eta ba, orain, landareak eta saltzen dituzte eta saltzen dituzte gazta eta holako gauzak ere, eta frutak, Zaldibarren, ohitura hori handia da, arbolak, landareak, beno landare horiek horretan dedikatzen direnak, pinu landarea fruta landareak, horretan dedikatzen direnak etxe asko dagoz Zaldibarren, hortixik bizi direnak, e? eta horiek joaten dira landareekin, hori ere beti eroan da Abadiñora, eta orain ere bai, eta erreminta, zalditeriarendako, eta koilarinak eta hauek, ez dakizu? gauza horiek, horiek beti ezagutu ditut saltzen, eta polita izaten zen baina gero dena galdu zuen horiek hasi zirenean, baina kendu egin dute atzera, kendu dituzte horiek, orain zestoginak eta hola, hauek esku, eskuko gauzak eta horiek saltzen dituzte, baina kendu dute hori, mantak eta saltzea eta hori, kinkaileria hori kendu dute)

"Kortara beste ganauek dausen lekure, eseben sartzen feridxan erosiko ganaue basan" - (Kortara beste ganaduak dauden lekura, ez zuten sartzen azokan erosiko ganadua bazen)

**fielatue:** fielatua

**ganau feridxie:** ganadu azoka

**jenerue:** jeneroa

"Sarritten suertetan da urte batzutan leku bardiñien jenero bardiñe sartzie" -

(Sarritan suertatzen da urte batzuetan leku berean jenero bera sartzea)

**martxanterie:** martxantera, erre kardaria, erosi eta saldu egiten duena plazan edo azokan

"Martxanterak, eurek partitzen dabe, eurek irabasten dabe gexen gero arek, e?" - (Martxanterak, eurek partitzen dute, eurek irabazten dute gehien gero haiek, e?)

**pisue:** pisua, plazan jeneroa pisatzeko erabiltzen zena

"Olaku pa asko pisaten dau bañe meida gitxi tte, gero etorri san, e, proban be etorri san pisue, ta danak pisue" - (Holakoak ba asko pisatzen du baina neurria gutxi eta, gero etorri zen, proban ere etorri zen pisua, eta denak pisua)

**plasia:** plaza, azoka

"Gu Eibarra juten giñen, ni amaika urteas asi nitzen plasara jueten se ama estaduen euen, da, ba eskolie orduen asi be nos eitten siñen? ba sei urte inye, asi be, amaikaas ya itxi notzan eskolara juetiai, da, goixeko saspiretan Eibarra esniek partidu etxeik etxe, kantiñekin de gero plasara" - (Gu Eibarrera joaten ginen, ni hamaika urtegaz hasi nintzen plazara joaten ze ama seindun zegoen, eta, ba eskola orduan hasi ere noiz egiten zinen? ba sei urte eginda, hasi ere, hamaikagaz ja utzi nion eskolara joateari, eta, goizeko zazpitan Eibarrera esneak partitu etxerik etxe, kantinekin eta gero plazara)

**presidxue:** prezioa, salneurria

**puetue:** postua, merkatuko saltokia

"Eiberko plasan ba, amengo jente askok ba, puetue, plasan puetue" - (Eibarko azokan ba, hemengo jende askok ba, postua, azokan postua)

**romanie:** erromana, pisu mota bat

**tokixe:** tokia

"Pagau bai, e, plasia guk, a, tokixe, urtien estakitt semat pageta san, urtien bein pageta genduen, bañe gero trankil ote siñen, gero berandua jueten basiñen be seoseaittik, an esan iñor oten, e? a libre itxi bi ben danak" - (Ordaindu bai, plaza guk, hura, tokia, urtean ez dakit zenbat

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*ordaintzen zen, urtean behin ordaintzen genuen, baina gero trankil egoten zinen, gero beranduago joaten bazinen ere zer edo zergatik, han ez zen inor egoten, e? hura libre utzi behar zuten denek)*

**tratantie:** tratularia

*"Arek erabagitte ben ero, tratante bati eskiñi, ero ermandarara emon ero" - (Haiek erabakitzen zuten edo, tratulari bati eskaini, edo ermadadara eman edo)*

*"Tratantie pe jitanuek ixate sien, narru meye basan eurek ebatuko tzen segiduen" - (Tratulariak ere ijitoak izaten ziren, narru mehea bazen eurek oratuko zioten segituan)*

**tratue:** 1. tratua. 2. bendeja

*"Elgoibarra, astien bein jute san, ordun trature eguenetan" - (Elgoibarrera, astean behin joaten zen, orduan tratura eguenetan)*

**tratularidxe:** azokara saltzen joaten dena tratuagaz, bendeja saltzailea edo esne saltzailea gehienetan

## 19.2. DIRUA

**dirue:** dirua

*"Ori diruattik ein yabe" - (Hori diruagatik egin dute)*

**erresibue:** erreziboa, ordainagiria

**erriela:** erreala

**erriel bikue:** erreal bikoa

**gastue:** gastua

**ogerlekue:** ogerlekua

**pague:** ordaina

**pesetie:** pezeta

*"Ollaskue eun pesetan da" - (Oilaskoa ehun pezetan dago)*

**sentimue:** zentimua

**sorra:** zorra

**sueldue:** soldata, alogera, lan-saria

**txakur txikidxe:** txakur txikia

**txakurandidxe, txakur aundidxe:** txakur handia

*"Orduen san ba sentimue ero, txakur aundidxe, txakur aundidxe ixate sien" - (Orduan zen ba zentimua edo, txakur handia, txakur handiak izaten ziren)*

## 19.3. NEURRIAK

**aldie:** aldea

*"Saspi nebarreba ta txikidxenak alde aundidxe deuke, nausiñe Afrikan soldau euen txikidxe jadxo sanien" - (Zazpi neba-arreba eta txikienek alde handia daukate, nagusiena Afrikan soldadu zegoen txikia jaio zenean)*

*"Selako aldie dauen!" - (Zelako aldea dagoen!)*

*"Or diferentzie aundidxe, an euki leikes, e, eun kilon aldie be bai" - (Hor desberdintasun handia, han eduki litezke, ehun kiloren aldea ere bai)*

**alturie:** altuera, garaiera

*"Sartu neban soluen da sekule gedxa esta galdu, ta aurten be oniño, e, nabotzan amen ikusi ot bat, onako alturie artzen dau, bueno ondo bada onakue beintzet, orridxe deko danera iguel, illaretan, lau illara ero betik gora" - (Sartu nuen soroan eta sekula gehiago ez da galdu, eta aurten ere oraindino, arbitzan hemen ikusi dut bat, holako altuera hartzen du, beno ondo badago holakoa behintzat, orria dauka denera berdin, ilaretan, lau ilara edo behetik gora)*

**anega erdidxe:** anega erdia

**anegie:** anega

*"Eraik onena amak eitte ban moruen, e, ipiñi urune, oiñ eralgitte etorten da, lena ba etxeko garidxe, garidxe, pillo bat artzen genduen guk, bueno iruroei anega ta, arka beteta garis de, selan urune ittekue, bañe ori, ixengo die iguel berroetamar bat urte, ero berroeta sortzi bat bai amen, e, es ainbeste bes" - (Erarik onena amak egiten zuen moduan, ipini irina, orain eralgita etortzen da, lehenago ba etxeko garia, garia, pilo bat hartzen genuen guk, beno hirurogei anega eta, arka beteta gariz eta, zelan irina egitekoa, baina hori, izango dira beharbada berrogeita hamar bat urte, edo berrogeita zortzi bat bai hemen, ez hainbeste ere ez)*

**arrie:** arra, zehea

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Bueno, iños, e, arrak asko euki arren, ganauek pisu gutxi ein yabe, atziek estue badaus, aurre ganauek aurre asko, neurri lekue aundidxe, da amar arra t'erdiko neurri kordelak artu es iguel, e? eta pisue gutxi" - (Beno, inoiz, arrak asko eduki arren, ganaduek pisu gutxi egin dute, atzeak estuak badaude, aurre ganaduak aurre asko, neurri lekua handia, eta hamar arra eta erdiko neurri kordelak hartu ez beharbada, e? eta pisua gutxi)

**arrobie:** arroa

"Txarridxe onenbeste arrobako txarridxe" - (Txerria honenbeste arroako txerria)

**asunbre erdidxe asunbre erdixe:** azunbre erdia

**asunbre erdiko txoleta:** azunbre erdiko txoleta, esnea neurtzeko erabiltzen zen txoleta

**asunbrie:** azunbrea

**atza:** hatza, neurtzeko denean berba hau erabiltzen da

**dosena erdidxe:** dozena erdia

"Bueno oiñ erresa sartze otze, ikusi ot, ibilli na or Katiken, buelta eraitte otze bedxei, ankan gora ipintten dabe ta, piskat atzie gora dauela, ba buruas bera antzien da, bañe guk, e, sartu geuntzenien ba ixen san ba an dosena erdi bat gixon, ni umie nitzen ordun da, dosena erdi bat gixon plantau, da oneta ta ba betunaidxue sartzen bañe" - (Beno orain errazago sartzen diote, ikusi dut, ibili naiz hor Katiken, buelta eragiten diote behiari, hanken gora ipintzen dute eta, pixka bat atzea gora dagoela, ba buruagaz behera antzean eta, baina guk, sartu genionean ba izan zen ba han dozena erdi bat gizon, ni umea nintzen orduan eta, dozena erdi bat gizon paratu, eta honetara eta ba al baitaria sartzen baina)

**dosenie:** dozena

"Dosenak, dosenaka, dosena porru, ba porrue dosena bat, asa bi, aselga beste dosena bat ero olan, ba kiloka saltzen dana da babie" - (Dozenak, dozenaka, dozena porru, ba porrua dozena bat, aza bi, zerba beste dozena bat edo hola, ba kiloka saltzen dena da baba)

**erdikiñe:** erdikina

**erdidxe:** erdia

**erraldie:** erraldea

"Erraldie, bos kilo erraldie" - (Erralde, bost kilo erraldea)

**etarie:** hektarea

**estatue:** estatua, gizelana

**esteriue:** estereoa

"Esteriuek dittuk ya egurre aundidxen, ori ya basuen eitten dana dok ori, guk esterioik estxu ibiltten" - (Esterioak dituk egur handian, hori basoan egiten dena duk hori, guk esterioik ez diagu erabiltzen)

**gradue:** gradoa

"Arek ekidxen semat berotu, kolorietan igerte ako, e, bein beratziun gradutik, esate baterako, pasetan basu, erre i leike" - (Hark zekien zenbat berotu, koloretan igartzen zaio, behin bederatzi ehun gradutik, esate baterako, pasatzen baduzu, erre egin liteke)

**gramue:** gramoa

**imillaune:** imina, imilauna

"A neurridxe ixate san imillaune, ta babie ta, seleminiñe ta" - (Neurri hura izaten zen imilauna, eta baba eta, zelemina eta)

**kana erdidxe:** kana erdia

**kanie:** kana, ehunak neurtzeko erabiltzen zen

"Bueno ba, gitxi gora bera, lenako sarren esanetatik, ba arrak onenbeste, ba, sortzi arrakuek ba, saspit'erdireskero, ba oin be, or ibiltten die, e? saspit'erdireskero berrogetabost, berrogetamarrera bittartien erraldiek, or ibiltten die, bein kana bi, kana bi esate ako sortzi arrakuei, kana bi, guk esatotzau, kana bi, ba kana bireskero ba, berrogetamabost irurogeire urreatzen, juten die, txala normala bada, e? txala ero bedxe ero dana dalakue" - (Beno ba, gutxi gora behera, lehenagoko zaharren esanetatik, ba arrak honenbeste, ba, zortzi arrakoak ba, zazpi eta erdirazkero, ba orain ere, hor ibiltzen dira, e? zazpi eta erdirazkero berrogeita bost, berrogeita hamarrera bitartean erraldeak, hor ibiltzen dira, behin kana bi, kana bi esaten zaio zortzi arrakoari, kana bi, guk esaten diogu, kana bi, ba kana birazkero ba, berrogeita

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*hamabost hirurogeira hurreratzen, joaten dira, txahala normala bada, e? txahala edo behia edo dena delakoa)*

**kana t'erdidxe:** kana eta erdia

**kantara erdidxe:** kantara erdia

**kantarie:** kantara, 16 litroko neurria

**kilo erdidxe, killo erdidxe:** kilo erdia

**kilue, killue:** kiloa

*"Killoko egun erdi gatzetan ero olakue san"*

*- (Kiloko egun erdi gatzetan edo holakoa zen)*

**kuartie:** kuarta

**kuartillue:** kuartiloa

**larena:** laurena, laurdena

**liberdidxe:** libra erdia

**liber larena:** libra laurena

**librie:** libra

*"Librie be etzan kilo erdidxe" - (Libra ere ez zen kilo erdia)*

*"Nik ori estot esautu bañe, enorrena bai, libra bat txokolate ero" - (Nik hori ez dut ezagutu baina, enorrena bai, libra bat txokolate edo)*

**litro erdidxe:** litro erdia

**litru:** litroa

*"Barrikara artu te ba, burdidxen etxera erun da, eitte gendusen ba or, laureun bat litro, ero bosteun bat ero" - (Barrikara hartu eta ba, gurdian etxera eroan eta, egiten genituen ba hor, laurahun bat litro, edo bostehun bat edo)*

**mallie:** maila

*"Eukitte ittu ba malla mallak, beste ari bat sartute an malletan eukitten dau" - (Edukitzen ditu ba maila-mailak, beste hari bat sartuta han mailetan edukitzen du)*

**medidie, meidie:** neurria

*"Proban da be, len ibilli san meidie, da ori be galdu in san, se meidan eitte otzen, e, juen orduko, probara ero neurtzen jun orduko ba, botate otzen sintta bat, oneta onen sabalerakue da aras, estutu a, da gero ba momentuen, neurtu bi osunien soltau te, bajau eitten da" - (Proban eta ere, lehen ibili zen neurria, eta hori ere galdu egin zen, ze neurrian egiten zioten, joan orduko, probara edo neurtzen joan orduko ba, botatzen zioten zinta bat, honetara honen zabalerakoa eta haregaz,*

*estutu hura, eta gero ba momentuan, neurtu behar duzunean askatu eta, baxatu egiten da)*

**metro erdidxe:** metro erdia

*"Batzuk dekosak, ba, sesango pa nik, piñue ta, asko urtias, beste asko urte bi, da beste askok iru lau, bost be bai, bost onek gabonetako abetuek eta bai, bost da sei be bai, da sortzi be bai, ba orrek saltze ittuk ya metro bat eitteko, metro bat eitten danien, ero metro t'erdi bi, ero olan" - (Batzuk dauzkak, ba, zer esango dut ba nik, pinua eta, asko urteagaz, beste asko urte bi, eta beste askok hiru lau, bost ere bai, bost gabonetako izei hauek eta bai, bost eta sei ere bai, eta zortzi ere bai, ba horiek saltzen dituk ja metro bat egiteko, metro bat egiten denean, edo metro eta erdi bi, edo hola)*

**metrue:** metroa

*"Sinttie ba, metrue ixaten dok jeneralien" - (Zinta ba, metroa izaten duk normalean)*

*"Ori depositue iñ ye, etxie altzau ei eben, metro bi altzau dxuen dana etxie" - (Depositu hori egin eta, etxea altxatu egin zuten metro bi altxatu ziaten dena etxea)*

**moltzue:** multzoa

**mordue:** mordoia

*"Batzuetan, ori ikusieskeo bai, bañe txalak mordue jaxo sien gu lo trankil eitten gausela" - (Batzuetan, hori ikusiz gero bai, baina txahalak mordoia jaio ziren gu lo lasai egiten gaudela)*

**negurridxe, neurridxe:** neurria

*"Gurien euena negurri bikue" - (Gurean zegoena neurri bikoa)*

*"Alde batetik iru esekesan? negurri bi eukesan" - (Alde batetik hiru ez zeuzkan? neurri bi zeuzkan)*

**negurri kordela, neurri kordela:** neurri kordela, ganaduaren pisua kalkulatzeko erabiltzen den kordela

*"Neurri kordelak eukesan arrak" - (Neurri kordelak zeuzkan arrak)*

**ontzie:** ontza

*"Nik ontzie ikusi ei ot bañe ibili estot eiñ" - (Nik ontza ikusi egin dut baina erabili ez dut egin)*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**oñe:** oina, neurri mota moduan erabiltzen zen

"Oñe be neurridxe san, onenbeste oiñ" - (Oina ere neurria zen, honenbeste oin)

**parie:** para

**parejie:** bikotea

"Aurten ikusi ot pareja bat, da aspaldixen estabill ori be galdute da" - (Aurten ikusi dut bikote bat, eta aspaldian ez dabil hori ere galduta dago)

**pillo bat:** pilo bat

**pillue:** piloa

**pisue, pixue:** pisua

"Pisue da seguruaue, e?" - (Pisua da segurua, e?)

**pulgadie:** pulgada

**satidxe:** zatia

**selemiñie, selemiñe:** zelemina

"Imillaune tekos bos kilo, pentzetot, ta selemiñiek sei, selemiñie kaja aunditxua bat, ta asalaue, da imillaune ixate san kuadraitxo at" - (Imilaunak dauzka bost kilo, pentsatzen dut, eta zeleminak sei, zelemina kaxa handitxoago bat, eta azalagoa, eta imilauna izaten zen karratutxo bat)

**siento erdixe:** ehuneko erdia

**sientue:** ehunekoa, landareak salerosteko erabiltzen den neurria

"Oin be bai sientue, piñue, piñue ta gause asko sientoka" - (Orain ere bai ehunekoa, pinua, pinua eta gauza asko ehunka)

**tamañue:** tamaina, tamainua

"Tamaño askotakuek, olakoxe txikitxue pe bai, da olakoxe tamañokuek, jeneralien" - (Tamaina askotakoak, holakoxe txikitxoak ere bai, eta holakoxe tamainakoak, gehienetan)

**tramadie, tramarie:** tramada, zatia

"Ladxiak onako tramarie buelta emoten tza" - (Laiak holako tramada buelta ematen dio)

**txatala:** txatala

"Sati txikidxe dienien, orrek txatalok batu esate ben da, eskobias ero ba batu" - (Zati txikiak direnean, txatal horiek batu esaten zuten eta, erratzagaz edo ba batu)

**txolota:** txoleta, esnea neurtzeko erabiltzen zena

"Txolota, txolota litrokue, gurien beti on da, aixe, ondo neurtute emon bier da, Eiberren plasetan andrak eta, bota ein gexa, gexa ori eston ondo meidute, de piskat erregalue bota bier ixilyu daittesan, bai, ori bai asko" - (Txoleta, txoleta litrokoa, gurean beti egon da, huraxe, ondo neurtuta eman behar eta, Eibarren plazetan andreak eta, bota ezan gehiago, gehiago hori ez dun ondo neurtuta, eta pixka bat erregaloo bota behar isildu daitezen, bai, hori bai asko)

**txortie:** txorta

## 19.4. JENDEA

**jauntxotie:** jauntxotea

"Eukiko ben iguel baten batzuk egongo sien, orduen be danerako egote sien, jauntxotetxuek eta ostantzekuek, eukiko sittuen iguel" - (Edukiko zuten beharbada baten batzuk egongo ziren, orduan ere denerako egoten ziren, jauntxotetxoak eta osterantzekoak, edukiko zituzten beharbada)

**jauntxue:** jauntxoa

**jentie:** jendea

"Orrek apartetxue itten die gutako, oin bai kotxie, asko dekoselako jentiek juten da orretara bañe, len esta jun orretara" - (Horiek apartetxo egiten dira guretako, orain bai kotxea, asko dauzkalako jendeak joaten da horietara baina, lehen ez da joan horietara)

"Amen otelien esate ben ipintte bela ta ba jentie, ona etorte sien" - (Hemen hotelean esaten zuten ipintzen zutela eta ba jendea, hona etortzen ziren)

**jitanue:** ijitoa

**kanpo jentie:** kanpo jendea, kanpotarrak

**kuadrillie:** lagun taldea

"Ba gari ebaten sabisenien gari ebatallak eta gero irebatallak eta esate gendun, kuadrillie ta gero ba askenien afaridxe ta ba" - (Ba gari ebakitzen zabiltzanean gari-ebakitzailleak eta gero ira-ebakitzailleak eta esaten genuen, taldea eta gero ba azkenean afaria eta ba)

**lagune:** 1. laguna. 2. pertsona

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Orren lagune beti dator berandu" -  
(Horren laguna beti dator berandu)

"Amen ba asko jun da, jente asko jun, igual  
ba, jungo sien egunero, ba igual dosena  
bat lagun" - (Hemen ba asko joan da,  
jende asko joan, beharbada ba, joango  
ziren egunero, ba beharbada dozena bat  
lagun)

**lapurre:** lapurra

"Lapurra bai, ba artue eta olan, e, jaten dau  
bai" - (Lapurra bai, ba artoa eta hola,  
jaten du bai)

**personie:** pertsona

"Itzelien loditzen da personie" - (Itzelean  
loditzen da pertsona)

"Bai, bai, esaten da eta guk geuk, e,  
igerritte, eta geure artien erabilite bai,  
eta, ori, e, txorixoi olako, e, personan  
laguntzat dekau beintzet" - (Bai, bai,  
esaten da eta guk geuk, igarrita, eta  
geure artean erabilite bai, eta, hori, txori  
hori holako, pertsonaren laguntzat  
daukagu behintzat)

## 19.5. KORTESIA FORMULAK

**agur:** agur

"Basoyes? bueno agur, eskerrik asko, bai" -  
(Bazoaz? beno agur, eskerrik asko, bai)

**arratzaldeon, atzaldeon:** arrasti on

**auxe be bereinkatue:** hauxe ere  
bedeinkatua, ume txikiei esaten zaien  
esaera

**bidzar arte:** bihar arte

**egunon:** egun on

**eskerrik asko:** eskerrik asko

**gabon:** gau on

**ikusi arte:** ikusi arte

**jainkoak gure badau:** jainkoak gura badu;  
agurren erantzuna

**Jainkok bereinkatu daidxela:** Jainkoak  
bedeinka dezala; ume txikiei esaten zaie

**lagundu atzekabien:** hau hiletetan  
hildakoaren familiari esaten zaio

"Lagundu tzuat atzekabien" - (Lagundu  
dizuet atsekabeen)

"Ori, bai oixe da atzekabien ero esbearrien  
be esaten da bañe amen atzekabien" -  
(Hori, bai horixe da atsekabeen edo

ezbeharrean ere esaten da baina hemen  
atsekabeen)

"Laguntzotzut atzekabien" - (Laguntzen  
dizut atsekabeen)

**mesedes:** mesedez

"Are pe neri deittu ostan, i etorteko moruen  
ao, ba, berak eskopetan eitte ban orrek,  
eta, bera tellatuen esi leikela ibilli tte  
aber mesedes, eta bueno!" - (Hark ere  
niri deitu zidan, hi etortzeko moduan  
hago, ba, berak eskopetan egiten zuen  
horrek, eta, bera teilatuan ezin zitekeela  
ibili eta ea mesedez, eta beno!)

**ola:** kaixo

**ondo etorri daittela:** ondo etorri dadila;  
ama izango denari esaten zaio ekarriko  
duen umea dela eta

**on egiñ, on eiñ:** on egin

**ondo lo eiñ:** ondo lo egin

**ordu labor bat euki deixule:** ordu labor bat  
eduki dezazula; ama izango denari  
oputzen zaio

**soridxonak:** zorionak

**urte askotako:** urte askotako;  
aurkezpenetan esaten da

**urte askotako, ta ba seuk ikusteko:** urte  
askotako, eta ba zeuk ikusteko;  
aurrekoaren erantzuna izaten da hau

## 19.6. JABETZA ERLAZIOAK

**alkar poderoso, alkar poderosue:** elkar  
poderosoa

"Inyar aundiko legie da ori alkar  
poderosue" - (Indar handiko legea da  
hori elkar poderosoa)

**deretxue:** eskubidea

"Berak landu bier badau, e, berendako  
jatekue itteko, arek lur sati bat, lur sati  
bat eta tellie, esaten da, deko deretxue  
etxien geratzen danak, eskondu barik" -  
(Berak landu behar badu, berarentzako  
jatekoa egiteko, hark lur zati bat, lur zati  
bat eta teila, esaten da, dauka eskubidea  
etxean geratzen denak, ezkondu barik)

**errenterue:** errenteroa, errentadorea

"Saldu, e, guk lena eskenduen saltzen se, gu  
errenteruek ixen giñien da bañe egurre  
botatie libre eukitte gendun etxeako" -

# ZALDIBAR HIZTEGIA

(Saldu, gu lehenago ez genuen saltzen ze, gu errenteroak izan ginen eta baina egurra botatzea libre edukitzen genuen etxerako)

**errentie:** errenta

**etxanderie, etxekandrie:** etxeko andrea

**etxaune:** etxeko jauna

"Da gu es ga ixan etxaunek, etxaunen sepulturie esate akon ari, etxaunen sepulturera erute san ogidxe, ogidxe ote san an, ta gero a ogidxe estaitt noendako ixate san, sakristauendako ero, ero abariendako" - (Eta gu ez gara izan etxagunaj, etxagunen hobia esaten zitzaion hari, etxagunen hobira eroaten zen ogia, ogia egoten zen han, eta gero ogi hura ez dakit norendako izaten zen, sakristauarendako edo, edo abadearendako)

**gosamena:** gozamena

**jabie:** jabea

"Ixena apuntetan da, da gero a emote ako etxeko jabiai, ya iru urrena amaitzen dabenien" - (Izena apuntatzen da, eta gero hura ematen zaio etxeko jabeari, ja hiru hurrena amaitzen dutenean)

**medeliñe:** medelina, bizitza biko etxeetan teilatuan bakoitzaren propietatea markatzen duen horma

**propiedadie:** propietatea

**propietaridxue:** etxaguna, etxe jauna

**tella sarra:** munarrien azpian ipintzen den teila zatia seinaleztat

**usaba, uesaba:** ugazaba

"Beren usabak il yau beidxe" - (Beraren uzabak hil du behia)

"San Esteban famaue san, uesabak etortze sien, e, errentie kobreta, da orduen ba danak juete sien da ba, batzuk kapoyek erute sittuen, da eurek, e, makillaue ekartze otzen, e, seroi, ba errentak kobrate sien, da beskaidxe emote otzen" - (San Esteban ospetsua zen, ugazabak etortzen ziren, errenta kobratzera, eta orduan ba denak joaten ziren eta ba, batzuek kapoiak eroaten zituzten, eta eurek, bakailaoa ekartzen zieten, zer hori, ba errentak kobratzen ziren, eta bazkaria ematen zieten)

## 19.7. AUZO ERLAZIOAK-ELKARTEAK

**amistadie:** adiskidantza

**artuemona:** hartuemona

**ausokue, eusokue:** auzokoa

**ausolana:** auzolana

**ausue, eusue:** 1. auzoa, azukoa. 2. auzotegia

**bestekaldekue:** beste aldekoa, auzokoa

**ermandarako gixonak:** ermandadako gizonak

"Kortatara ta etorte sien ba, eote sien ermandarako gixonak, lantzien batzuk egote sien" - (Kortetara eta etortzen ziren ba, egoten ziren ermandadako gizonak, lantzean batzuk egoten ziren)

**ermandarie:** ermandadea, baserritarren arteko elkarte ganadua aseguratzeke

"Gatza einye eukitte ban, narrue olan ganaurik ero, akabeta basan, artzen sittuen ermandarie esate akon, ta baten batei ganaue sertzen basan, ba, erosi itte san" - (Gatza eginda edukitzen zuen, narrua hola ganadurik edo, akabatzen bazen, hartzen zituen ermandada esaten zitzaion, eta baten bati ganadua zertzen bazen, ba, erosi egiten zen)

"Ermandaran egote sien, e, bi ero iru ero, urtien kanbidxate sien" - (Ermandadan egoten ziren, bi edo hiru edo, urtean aldatzen ziren)

**erregalue:** erregalao, oparia

"Bueno erregaluek eitte sittuen batzuek, neu pe ba, muñeka bat erregalau osten, da bañe ba esan gurot, ori ixete san segun sein, da gero ba suri jantzitte ta ba, arek jute sien dotoria, ba urtien ba ser? bi iru, lau, guk ein genduenien, iruk ei eben, betenaidxuenak da gure Maitek, orrek ei eben suri jantzitte, luse" - (Beno opariak egiten zituzten batzuek, neuk ere ba, andrakila bat opaldu zidaten, eta baina ba esan gura dut, hori izaten zen segun zein, eta gero ba zuri jantzita eta ba, haiek joaten ziren dotoreago, ba urtean ba zer? bi-hiru, lau, guk egin genuenean, hiruk egin zuten, albaitariarenak eta gure Maitek, horiek egin zuten zuri jantzita, luze)

**errematie:** erremata, enkantea

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Errematie itte ben, an ixate san gedxen pageta bana gero ba, eroste ban, ta gero, a, pentzot gatz a einye eukitteuela kuret an, ate sarren baten ero jositte" - (Erremata egiten zuten, han izaten zen gehien ordaintzen zuena gero ba, erosten zuen, eta gero, pentsatzen dut gatz a eginda edukitzen zutela ontzen, ate zaharren baten edo josita)

"Gero errematie itte san, eruen plasara ganauoi" - (Gero erremata egiten zen, eroan plazara ganadu hori)

**euso laguntzie:** auzo laguntzea, auzolana

"Bai iridxeekin etorri, eusoko jentie, eta danak egun baten eta, ori be bai, da lurre altzetan be bai, solo barrenetatik gora lurre altzetan be, e, euso laguntzie, ta basotik egurre ekarten be bai, basuunetan egurrek preparaute ta jun burdixekin, deittu, i etorrikas mesedes ero, bai bidxar, ba bost ero sei ero" - (Bai idiekin etorri, auzoko jendea, eta denak egun baten eta, hori ere bai, eta lurra altxatzen ere bai, solo barrenetik gora lurra altxatzen ere, auzo laguntzea, eta basotik egurra ekartzen ere bai, basouneetan egurrak prestatuta eta joan gurdiekin, deitu, hi etorriko haiz mesedez edo, bai bihar, ba bost edo sei edo)

**kinto batzie:** kinto batzea

**listerue:** listeroa, ermandadan kontuak eroaten dituen a

"Listerue ba bertan, e, kuardenuas ebillena ba a listerue" - (Listeroa ba bertan, koadernoagaz zebilena ba hura listeroa)

**mokotza:** mokotza

"Da eguen santu, aste santun mokotza eitte san, amapuntekok beren besuetakuei, mokotza esatak on, ixate san gosuaue! olako panderue lako, aundixae panderue baño, da arrotzias pinttau ero eitte ben, baju bajue, nik ekarto pa oiñ opille, sapatuetan, alaku bañe andixae, da, ba piskat aberatza ero dirudune ero basan, amapunteko, arrautza bi olan, da txoridxe, abidxan, ori ori kategoridxakue!" - (Eta eguen santua, aste santuan mokotza egiten zen, amapuntakoak bere besoetakoari, mokotza esaten zitzaion, izaten zen gozoagoa! holako panderoa lako,

handiagoa panderoa baino, eta arrautzagaz pintatu edo egiten zuten, baxu-baxua, nik ekartzen dut ba orain opila, zapatuetan, halakoa baina handiagoa, eta, ba pixka bat aberatsa edo diruduna edo bazen, amapuntakoa, arrautza bi hola, eta txoria, habian, hori hori kategoriakoa!)

"Ba ixeten da, jeneralmentien, alan, ogi erredondo bat, ta opill ori erdidxen, txori moruko bat eitte otze, da batzuk juten die arrautzie ta, txorixuas barruen da beste batzu pa, ogidxe bakarrik" - (Ba izaten da, gehienetan, hala, ogi biribil bat, eta opil hori erdian, txori moduko bat egiten diote, eta batzuk joaten dira arrautza eta, txorizoagaz barruan eta beste batzuk ba, ogia bakarrik)

**mondxorra, montxorra:** monjorra, teila boda, teilatua egikeran egiten den jatordua

"Ba mondxorra in bi otzau te, ba makillaue" - (Ba monjorra egin behar diogu eta, ba bakailaoa)

"Ori bai, ori oin be bai, montxorra amen, montxorra" - (Hori bai, orain ere bai, monjorra hemen, monjorra)

"Ni akordeta nas ori deposittue ei benien, len esa otzuan deposittue ei benien, eta ba montxorra, da montxorra itteko ba bueno berak ilgo sittuela, da, erbi bi, egun baten urte ban da, ba urte asko, e, dies, e?" - (Ni gomutatzen naiz depositu hori egin zutenean, lehen esan dizudan depositoa egin zutenean, eta ba monjorra, eta monjorra egiteko ba beno berak hilko zituela, eta, erbi bi, egun baten irten zuen eta, ba urte asko, dira, e?)

**mutue:** errematetan kandela amatatzen denean mutua esaten da, orduan ezin gehiagorik jo daiteke.

"Auxe da mutue" - (Hauxe da mutua)

**pujie:** enkantea, erremata

**sindikatie:** sindikatua

**sosidxo kuetie:** bazkide kuota

"Ba pagau eitte san seoser, illien, sosidxo kuetie pageta san" - (Ba ordaindu egiten zen zer edo zer, hilean, bazkide kuota ordaintzen zen)

**sosidxue:** bazkidea



# ZALDIBAR HIZTEGIA

**sosiedadie:** elkarte, txokoa

**txokue:** txokoa

## 19.8. EZKONTZA

**alargune:** alarguna

"Ori esate ben, e, alargune, eskondu bi banien, ba ixilik ote san bañe beiñ ero beiñ aklaretan basan, aren bentanapera jun de tapak jototzesela" - (Hori esaten zuten, alarguna, ezkondu behar zuenean, ba isilik egoten zen baina behin edo behin argitzen bazen, haren leihopera joan eta tapak jotzen zizkiotela)

"Da gero amentxe beste alargun bat, alargun batas juntau san, da eskondu ein san" - (Eta gero hementxe beste alargun bat, alargun bategaz elkartu zen, eta ezkondu egin zen)

**andragedxe:** andregai

**arriue:** arreo, ezkondukeran etxe berrira eroaten dena

"Gure amak, e, aittentzako, arriuen ekarri sittuen arkondara pe bai" - (Gure amak, aitarentzat, arreoan ekarri zituen alkondarak ere bai)

"Bai burdidxe bai, antxe ikusi neban ba, orretxena, danok, ene arriue etorrela, ta ba, umiek, gastien kontuek ya gero" - (Bai gurdia bai, hantxe ikusi nuen ba, horrexena, denok, ene arreo zetorrela, eta ba, umeak, gazteen kontuak ja gero)

"Ba arek ba bueno estakitt selako arriue eukela ta, danok an da, umien kontuk, eta gero seoser jausten basan" - (Ba hark ba beno ez dakit zelako arreo zeukala eta, denok han eta, umeen kontuak, eta gero zer edo zer jausten bazen)

**bixi alargune:** bizi alarguna

"Bai bueno! banaka bat baño gedxa, bixi alargune" - (Bai beno! banaka bat baino gehiago, bizi alarguna)

"Bat, e, bixi alargunas dabil" - (Bat, bizi alargunagaz dabil)

**bodie:** ezkontza, boda

"Bodie deke or, esate ben" - (Boda daukate hor, esaten zuten)

"Ori ixete san ba aberatzak, kontratue ta or ixete sien, e, serok, basarrikuk eskontze

sienien da ba, bati au da bestiei ori tte, konpontze sienien, a, bodie ya aurrera itte otzenak" - (Hori izaten zen ba aberatsak, kontratua eta hor izaten ziren, zerok, baserrikoak ezkontzen zirenean eta ba, bati hau eta besteari hori eta, konpontzen zirenean, boda ja aurrera egiten ziotenak)

**dotie:** dotea

"Ba errekadue, aittek alabaiittik, ba, beste aitte batana juen da ba, alan da alan ta, dotie be badeko, ta bata ta bestie" - (Bai errekadua, aitak alabagatik, ba, beste aita batengana joan eta ba, hala eta ala eta, dotea ere badauka, eta bata eta bestea)

**elistidxe:** eliztiak, deierak, deionak

"Guk beti elistidxe esate genduen" - (Guk beti eliztak esaten genuen)

**errondie:** erronda

**errekadue:** errekadua

**estegue:** eztegua

"Estegue eskontzie, estegue jeneralien eskontzien sera esate san, estegue deke an, baten bat eskontze sanien" - (Eztegua ezkontza, eztegua gehienetan ezkontzaren zera esaten zen, eztegua daukate han, baten bat ezkontzen zenean)

**eskontzie:** ezkontza

"Sei ta erdidxetan be ikusitte na ni eskontza bat, da gero lelengo trenu artu te ba, Donostia jute sienak eta ba, arek aberatzak" - (Sei eta erdietan ere ikusita nago ni ezkontza bat, eta gero lehengo trenu hartu eta ba Donostiara joaten zirenak eta ba, haiek aberatsak)

**gixongedxe:** gizongaia

**matrimoniñue:** andre-gizonak

**mutil sarra:** mutil zaharra

**neska laguntzie:** neska laguntzea

"Mallabidxen entzunde dekat, ametik Saldibartik jute sien orra, Mallabire, neskatan laguntzen ero, alan ibili tte, bueltan arrike" - (Mallabian entzunda daukat, hemendik Zaldibartik joaten ziren horra, Mallabira neskatan laguntzen edo, hala ibili eta, bueltan harrika)

"Neska laguntzie, amen ori ixen da, gu be kuadrillan jute gintzesan da ba gero etorte sien mutillek eta ba, batan ero

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*bestien atzien ebillena ba inguratu te ba, dantzan be alkarras einye ba ortik, alan ixete sien" - (Neska laguntzea, hemen hori izan da, gu ere taldean joaten ginen eta ba gero etortzen ziren mutilak eta ba, bataren edo bestearen atzean zebilena ba inguratu eta ba, dantzan ere elkarregaz eginda ba hortik, hala izaten ziren)*

**neska sarra:** neska zaharra

**nobidxie, nobixie:** andregaiia, emaztegiaia

*"Nobidxiak ipintte ban, da lagunei tte baitte, ausokuei tte, amistadie euken danai, alantxe ixate san ori" - (Andregaiak ipintzen zuen, eta lagunei eta baita, auzokoei eta, adiskidantza zeukan denei, halantxe izaten zen hori)*

**nobidxue, nobixue:** gizongaia

**santzerradie:** zentzerrada

*"Santzerradak, santzerradak esate ben, nik estot esautu ori, e? bañe nik amamai entzu tzat ori santzerradak, tapak, lapiko tapak eta, artute santzerradak jototzesela bentanapien, nobidxiak etxien" - (Zentzerradak, zentzerradak esaten zuten, nik ez dut ezagutu hori, e? baina nik amamari entzun diot hori zentzerradak, tapak, lapiko tapak eta, hartuta zentzerradak jotzen zizkiotela leihopean, andregaiari etxean)*

**sirridxe:** zirria

**solterie:** ezkonbakoa (f.)

*"Arek, e, solteratan, Mallabixen frutie asko, sagarrak eta, Bilbora astien iru biaje, astuas, asto bias" - (Haiek, ezkobakotan, Mallabian fruta asko, sagarrak eta, Bilbora asteen hiru bidaia, astoagaz, asto bigaz)*

*"Bueno, ara, e, soltera bate pe erun seiken da ba suk jun bi sendun ara, ta an artzen sendun umie suk estakixu iguel, a, ama sein yan bes iguel ero estaitt nik" - (Beno, hara, ezkongee batek ere eroan zezakeen eta ba zuk joan behar zenuen hara, eta han hartzen zenuen umea zuk ez dakizu beharbada, ama zein den ere ez beharbada edo ez dakit nik)*

**solterue:** ezkonbakoa (m.)

*"Nik oixe in bi dxoa pa, aitten anaye san, solterue san ondio" - (Nik horixe egin*

*behar diat ba, aitaren anaia zen, ezkonbakoa zen oraïndino)*

**tratue:** tratua

*"Ba bayetz esate ben, ni neuk ya orrek estittuas esautu bañe, nik etxien entzunde ba, selan tratue ei eben da, sera, esautu barik idxe eskontze siela ta, oin ni neuk estot esautu ori, e?" - (Ba baietz esaten zuten, nik neuk ja horiek ez ditut ezagutu baina, nik etxean entzunda ba, zelan tratua egin zuten eta, zera, ezagutu barik ea ezkontzen zirela eta, orain nik neuk ez dut ezagutu hori, e?)*

## 19.9. MUSIKA-DANTZA

**albokie:** alboka

**atzeskue:** atzeskua, auresku-kordaren azkena

**aureskue:** aureskua

*"Aureskue ba banakue, banakue bai, bañe sokako aureskue, ikasi ein bi da" - (Aureskua ba banakoa, banakoa bai, baina sokako aureskua, ikasi egin behar da)*

**baltziue:** baltzigoa, dantza lotua

**banako aureskue:** banako aureskua

**banakue:** banako aureskua

**bersolaridxe:** bertsolaria

**bersue, bertzue:** bertsoa

*"Berak botate sittun bersuek, basora doyenien da, birien ekuste ban gustie barres iste bana ta bai ori" - (Berak botatzen zituen bertsoak, basora doanean eta, bidean ikusten zuen guztia barrez uzten zuena eta bai hori)*

**dantzan:** dantzan

*"Afiñe bakarrak es, e? jakiñ ein bi dau bera pe dantzan" - (Zalea bakarrak ez, e? jakin egin behar du berak ere dantzan)*

**dantzaridxe:** dantzaria

*"Neure nebie be ixan san dantzaridxe, bi, bidxek das ilye oin bañe bidxek ixan sien dantzaridxek" - (Neure neba ere izan zen dantzaria, bi, biak dagoz hilda orain baina biak izan ziren dantzariak)*

*"Ba, maixuek es, bañe dantzaridxe ixanikue beti, da sarrenetaiko bat, amen be, onen aitte be dantzaridxe da, ixanikue, da ari*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*be erakutzi otzen bera dantzari-dantza ixan san batek" - (Ba, maisuak ez, baina dantzaria izanikoa beti, eta zaharrenetariko bat, hemen ere, honen aita ere dantzaria da, izanikoa, eta hari ere erakutsi zion bera dantzaria izan zen batek)*

*"Arek, e, gu ibili giñenien, irurotaka urteak, irurogei bat urte eukiko suttuen, dantzari ixenekue ero ixengo san bera" - (Hark, gu ibili ginenean, hirurogeitaka urteak, hirurogei bat urte edukiko zituen, dantzari izenekoa edo izango zen bera)*

**dantzie:** dantza

*"Amen frontoyen ixete san, guesan dantzara frontora esate san da" - (Hemen frontoian izaten zen, goazen dantzara frontoira esaten zen eta)*

**dulsaiñerue:** dultzaineroa

*"Dulsaiñeruek seretik etorte sien, beñ ero beñ, e, Estellatik, Eibarrera urte gustietan san juanetan" - (Dultzaineroak zeretik etortzen ziren, behin edo behin, Lizarratik, Eibarrera urte guztietan san juanetan)*

*"Amen Estellatik etorri die beti, e, urte baten ona, e? Saldibarrera urte baten Eibarrea, sera deke einye, estasiñora, ointxe be bai, ointxe oitturie esta galdu Eibarren, estasiñoa urtete otza jentiek, ta autoridadiek ero urtete otza ta trenien, etorte sien len, Estellako dulsaiñeruek, iru ero ixate sien" - (Hemen Lizarratik etorri dira beti, urte baten hona, e? Zaldibarrera urte baten Eibarrera, zera daukate eginda, geltokira, oraintxe ere bai, oraintxe ohitura ez da galdu Eibarren, geltokira irteten dio jendeak, eta autoritateak edo irteten dio eta trenean, etortzen ziren lehen, Lizarrako dultzaineroak, hiru edo izaten ziren)*

**erromeidxe, erromeixe:** erromeria

*"Gero erromeixa moruen juten giñen Urkiolara" - (Gero erromeria moduan joaten ginen Urkiolara)*

*"Erromeridxa pai, Goyerritten da Gasan be bai tte, Eitzan be bai" - (Erromeriak bai Goierrian eta Garzan ere bai eta, Eitzagan ere bai)*

**espatadantzari-dantza:** espatadantzaria

*"Bai dantzari-dantza pañe ori espatadantzari-dantza eitte ben, aurrekue, da gero arek neskie etate ben, e, sokara, danai, aurrekue ta atzeskue, arek laurek an, aparte eitte ben, da bestiek sokan, sokakuek, danak gero dantzari" - (Bai dantzariak baina hori espatadantzari-dantza egiten zuten, aurrekua, eta gero haiek neska ateratzen zuten, sokara, denei, aurrekua eta atzeskua, haiek laurak han, aparte egiten zuten, eta besteek sokan, sokakoak, denak gero dantzari)*

**espatadantzie:** espatadantza

**gittarrie:** gitarra

**gorularidxe:** gorularia, neska dantzaria

*"Bai gero gorularidxe esataken neska gerra aurreti pe, ilanderak esaten dana len gorularidxe esataken orrei, gorularidxe guk esaten geuntzen" - (Bai gero gorulariak esaten zitzaizen neska gerra aurretik ere, hilanderak esaten dena lehen gorulariak esaten zitzaizen horiei, gorulariak guk esaten genien)*

**gramolie:** gramola

*"Bai gramolie dirudunek eukitte ben, gurien Antzuan, eibartar batzuk akordeta nas, e, ekarri eben gramolie, egun batzuk pasetan etorri, esnie, amendik esnetaa Eibarrea, dirue Eibartik ekarri da amen, bai e, tallerretatik, da baserritik, baserritarra pe ba, danak, tratue, esnie, danak, da artze osu amastade andidxe, urte askoko, e, beserue esate aken, da etor sien egun batzuk pasetan, arek ekarri eben gramolie" - (Bai gramola dirudunek edukitzen zuten, gurean Antzuan, eibartar batzuek gomutatzen naiz, ekarri zuten gramola, egun batzuk pasatzen etorri, esnea, hemendik esnetara Eibarrera, dirua Eibartik ekarri da hemen, bai, tallerretatik, eta baserritik, baserritarra ere ba, denak, tratua, esnea, denak, eta hartzen duzu adiskidantza handia, urte askoko, bezeroa esaten zitzaizen, eta etorri ziren egun batzuk pasatzen, haiek ekarri zuten gramola)*

**jasbana, jasmana:** jazbana, erromerietan erabiltzen zena musika jotzeko

*"Baten bat jasbanas da, bestie, amen albuen bixi sana, gu gastiek giñenien"*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*Saldibarren egote san da, au Arturo bestekaldien bixi san, ointxe, aurten il ya larotamar urtas ero jun dan urtien, jun dan urtien il san, ta ori eibertarra san bañe emen plasetan ba, beti ibillitekue ori" - (Baten bat jazbandagaz eta, bestea, hemen alboan bizi zena, gu gazteak ginenean Zaldibarren egoten zen eta, hau Arturo besteko aldean bizi zen, oraintxe, aurten hil da laurogeita hamar urtegaz edo joan den urtean, joan den urtean hil zen, eta hori eibartarra zen baina hemen plazetan ba, beti ibilitakoa hori)*

**ilanderie:** neska dantzaria

**kanta papela:** kanta papera

*"Bai bañe, nik bersuek danak ikaste nittun burus, erosi eitte nittun kanta papelak, afesiño andidxe nik, san blasetan Abariñon da, saldu eitte sittuen kanta papelak, da erosi, danak, mordo bat" - (Bai baina, nik bertsoak denak ikasten nituen buruz, erosi egiten nituen kanta paperak, zaletasun handia nik, san blasetan Abadiñon eta, saldu egiten zituzten kanta paperak, eta erosi, denak, mordo bat)*

**kantue:** kanta

*"Bai kantuek polittek ote sien, orduen nik astuek dekas" - (Bai kantuak politik egoten ziren, orduan nik ahaztuak dauzkat)*

*"Ori be politte san kantue" - (Hori ere polita zen kantua)*

**kordie:** korda, dantzan egiten dena

**korue:** korua

**musikie:** musika

**panderue:** panderoa

*"Da panderue semat gustau atan neri ori, ori erremintttoi jotie bañe" - (Eta panderoa zenbat gustatu zitzaidan niri hori, erreminta hori jotzea baina)*

**sokako aureskue:** sokako aureskua

**sokie:** soka, dantzan egiten dena

**soñue:** soinua

*"Bañe neuri gustau panderue jotie niri, soñue pentzau bes, bañe panderue, bañe panderori pes da eakustaillei pes da eseibes, da oiñ, e, neure loiba sarrena dabil panderue ikasten" - (Baina neuri gustatu panderoa jotzea niri, soinua*

*pentsatu ere ez, baina panderoa, baina panderorik ere ez eta irakaslerik ere ez eta ezer ere ez, eta orain, neure loba zaharrena dabil panderoa ikasten)*

**sueltue:** dantza soltea

**tanboliñe:** danbolina

**tanborra:** danborra

**txapligue:** txapliegoa, bolandera

*"Ni akordeta nas, e, emen San Andres, bidxagonien, lena jai aundidxe ixete san Saldibarren patroye San Andres da, txapligu botetan, eta Elorridxoko maixu bat genduken, espliketan gerrateko sera" - (Ni gomutatzen naiz, hemen San Andres, biharamunean, lehenago jai handia izaten zen Zaldibarren patroia San Andres da, txapliego botatzen, eta Elorrioko maisu bat geneukan, azaltzen gerrateko zera)*

**txistue:** txistua

*"Bai abadie aurrien erresetan, da txistuas da tanboliñas" - (Bai abadea aurrean errezatzen, eta txistuagaz eta danbolinagaz)*

**urte barri batzen:** urte barri batzen

## 19.10. KIROLA

**asto probie:** asto proba

**atzera:** atzera

**aurrelaridxe:** aurrelaria idi-probetan

**baskulie:** baskula

**bat parra bi bayetz:** bat parra bi baietz; postura mota bat

**bat parra bi esetz:** bat parra bi ezetz, postura mota bat

**baten parra bi:** baten parra bi, postura mota bat

**bidxek bat esetz:** biak bat ezetz, postura mota bat

**bidxekin bi esetz:** biekin bi ezetz, postura mota bat

**bolaridxe:** bolaria

**bolatokidxe, bolatokixe:** bolatokia

*"An ausuen esautu ot nik bolatokixe, an egon san, ausoko tabernie euen lekuen an euken" - (Han auzoan ezagutu dut nik bolatokia, han egon zen, auzoko taberna zegoen lekuan han zeukaten)*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**bolie:** bola  
**bolue:** boloa  
**bote ona:** bote ona  
**bote txarra:** bote txarra  
**botie:** botea  
**bultzalaridxe:** idi probetako bultzalaria edo atzelaria  
**burdiñ autze:** burdina hautsa; probalekuan tranpa eginda botatzen dena harriak gehiago korritzeko  
**desapidxue, desafidxue:** desafioa, erronka  
**errebotera:** errebotera  
**eskerreko ormie:** ezkerreko horma frontoian  
**falta, faltie:** falta pilota jokoan  
**fuera:** pilota jokoan huts eginda jokalaria kanporatzeko egiten dena  
**gora:** gora pilota joatea  
**iri probie:** idi proba  
*"Normala da bi mille killoko arridxe iri probetan, bañe amen euen iru mille killoko arri bat, ori ba, iridxe ixen bixeta sien, pisu libreko iridxe ero, amen Antzua, probalaridxe sana, aritxek, aritxek apurtu, bueno or da ondio apurtute, sati bat apurtute" - (Normala da bi mila kiloko harria idi probetan, baina hemen zegoen hiru mila kiloko harri bat, hori ba, idiak izan behar izaten ziren, pisu libreko idiak edo, hemen Antzua, probalaria zena, harexek, harexek apurtu, beno hor dago oraindino apurtuta, zati bat apurtuta)*  
**irukue:** hirukoa  
**kanpora:** kanpora pilota jokoan  
**kargie:** zama idiei kargatzen zaion gainkarga  
**karrajue:** karrajua, idiak ibiltzen diren lekua  
**karreterue:** karreterua  
**kontrakantxie:** kontrakantxa  
**korredorie:** postura korredorea  
**limautze:** lima hautsa, harriari eusteko erabili da inoiz probalekuan tranpa egiteko  
*"Nik limautzas, e, orras, eldu eitte otza" - (Nik lima hautsagaz, horregaz, heldu egiten dio)*  
**orma bidxek:** horma biak  
**parra:** parra

**parrien:** parran  
**partidue:** partidua  
**pasa:** pasa pilota jokoan  
**pelota ariñe:** pilota arina  
**pelota astune:** pilota astuna  
**pelota bixidxe:** pilota bizia  
**pelota lekue:** pilota lekua  
**pelota motela:** pilota motela  
**pelota partidue:** pilota partidua  
**pelotaridxe:** pilotaria  
**pelotie:** pilota

*"Arrapaute be, iños arrapau ou kortan da, mutikotan da arrapetan gendusen, posik ibiltten giñien orrek arrapau, te gero eskatzara ekarri tte, sera gomie ero estakitt ser deukela eguek eta pelotie itteko morukue sala, bueno orrek entzuten gendusen da, asko, baye klaseik estaitt ibil leiken amen, e, bertan" - (Harrapatuta ere, inoiz harrapatu dugu kortan eta, mutikotan eta harrapatzen genituen, pozik ibiltzen ginen horiek harrapatu, eta gero ezkaratzera ekarri eta, zera goma edo ez dakit zer daukatela hegoak eta pilota egiteko modukoa zela, beno horiek entzuten genituen eta, asko, baina motarik ez dakit ibil litekeen hemen, bertan)*

**pisu librie:** pisu librea, pisu askea

**posturie:** postura, apustua

**premidxue:** saria

**probalaridxe:** probalaria

*"Bati esatotzen Elorridxokue, estaitt il bada, txikitxo bat, Lagarto, Lagarto esatotzen ba oixe beti probetan da jokatzten, dirue jokatzten da Lagarto, a, jaboye Lagarto" - (Bati esaten zioten Elorrikoa, ez dakit hil den, txikitxo bat, Lagarto, Lagarto esaten zioten ba horixe beti probetan eta jokatzten, dirua jokatzten eta Lagarto, hura, xaboia Lagarto)*

**probalekue:** probalekua

*"Ainbeste jente batu san ese, orduntxe berotu sien, San Martiñen probalekue itteko, da orrexek, Salduko Plasan ein san probiek ekarri eban San Martingo, karrejue ittie" - (Hainbeste jente batu zen eze, orduantxe berotu ziren, San Martinen probalekua egiteko, eta horrexek, Salduko Plazan egin zen*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*probak ekarri zuen San Martingo, karrajua egitea)*

**probie:** proba

*"Bai eitte san amen, e, probak egote siren, San Esteban egunien" - (Bai egiten zen hemen, probak egoten ziren, San Esteban egunean)*

*"Lelengo probie Saldibarren plasan ein san" - (Lehenengo proba Zaldibarren plazan egin zen)*

*"Bai gurien irixek euesan da, Berrisa ta juete san gure aitte probara, bai tte Elorrixora be asko" - (Bai gurean idiak zeuden eta, Berrizera eta joaten zen gure aita probara, bai eta Elorriora ere asko)*

**sabalera:** zabalera

**sakie:** sakea

**sobrekargie:** gainkarga

*"Emen sobrekargie ipintte ako arridxai" - (Hemen gainkarga ipintzen zaio harriari)*

**sulora:** txokora

**tantue:** tantoa

**tiradie:** botaldia bolo jokoan

**tokebako pelotie:** pilota motela

**txapapera:** txapapera pilota jokoan

**txapie:** txapa pilota jokoan

**txirlue:** txirloa

*"An ibiltte sien ba illaran, iru txirluek ipiñi eta gero ba, birie euen einye ta olan" - (Han ibiltzen ziren ba ilaran, hiru txirloak ipini eta gero ba, bidea zegoen eginda eta hola)*

*"Txirlo bata bestien atzien, da gero ba botetako lekuen, oin be bada bolatokixe, barrixe einye ba, jaixetan eta eitteko, ausoko txokuen onduen, eta aretxen morukue euen bañe, beste leku baten arta batzuen artien eta, sera selaixe dauen, sera, erminnta ondoko selaixen eta dauena" - (Txirlo bata bestearen atzean, eta gero ba botatzeko lekuan, orain ere badago bolatokia, berria eginda ba, jaietan eta egiteko, auzoko txokoaren ondoan, eta harexen modukoa zegoen baina, beste leku baten arte batzuen artean eta, zera zelaia dagoen, zera, baseliza ondoko zelaian eta dagoena)*

*"Senbat eta geixen bota ixaten da, senbat eta txirlo geixa bota" - (Zenbat eta gehien*

*bota izaten da, zenbat eta txirlo gehiago bota)*

**txokora:** txokora pilota jokoan

**txosta, txost:** pilotak hormen eskuadrak jotzea

**untzie:** iltzea

**ustela:** ustela, harriak karrajutik irteten duenean ustela egiten da

**utze:** hutsa

## 19.11. KARTA JOKOAK

**aspixe:** azpia, azpikoa

*"Olan, bai kartak da aspire bota bat bistan, da gero ganien danak ipiñi" - (Hola, bai kartak eta azpira bota bat agirian, eta gero gainean denak ipini)*

**aundidxe:** handia musean

**bastue:** bastoa

**bateko bastue:** bateko bastoa

*"Bateko bastue bada amen, i, bai bateko bastue amen bada, i, estekon bastoik? bastue bota eiden" - (Bateko bastoa badago hemen, hi, bai bateko bastoa hemen badago, hi, ez daukan bastorik? bastoa bota iezadan)*

**bateko espatie:** bateko ezpata

**bateko kopie:** bateko kopa

**bateko talue:** bateko urrea

*"Ixena bai kartak asko bateko bastue ta, bateko talue ta, espatie, bateko espatie ta, orrek estosus esautzen ala?" - (Izena bai kartak asko bateko bastoa eta, bateko urrea eta, ezpata, bateko ezpata eta, horiek ez dituzu ezagutzen ala?)*

**batekue:** batekoa

**bikue:** bikoa

**bostekue:** bostekoa

**briskan:** briskan

*"Ene ixilyu bes! ixilyu bes briskie ene!" - (Ene isildu ere ez! isildu ere ez briska ene!)*

**briskie:** briska

**erregie:** erregea

**espatie:** ezpata

**fue:** fua, azpia

*"Fuek die aundixek" - (Fuak dira handiak)*

**irukue:** hirukoa

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**irutxurre:** iruzurra, jokoan apropos galtzea edo irabazten uztea

**jokue:** jokoa

"*Nei etxatan gustetan orduen be jokuen, es gustau sekule nei jokue, da eraitte osten ba lagune falta basan*" - (Niri ez zitzaidan gustatzen orduan ere jokoan, ez gustatu sekula niri jokoa, eta eragiten zidaten ba laguna falta bazen)

**kaballue, saldidxe:** zaldia

**karta jokue:** karta jokoa

"*Karta jokuen, e, ba bidien eitte ben, karo lau, lau te lau, jarlekuek, esta? ta erdidxen bittartie, da an erdidxen ipintte sittun iru kantin da kantiñek ixate sien, tapie gora barik, barrure eukenak tapie, kantiñ aundidxe ebalte gendusen gu pe, da ipintte otzen ari sakuas doblaute, da jarte sien bi, da karta danak partitze sittun, amar lagunek eitte ben jokuen*" - (Karta jokoan, ba bidean egiten zuten, jakina lau, lau eta lau, jarlekuak, ezta? eta erdian bitartea, eta han erdian ipintzen zituzten hiru kantina eta kantinak izaten ziren, tapa gora barik, barrura zeukatenak tapa, kantina handiak erabiltzen genituen guk ere, eta ipintzen zioten hari zakuagaz tolestuta, eta paratzen ziren bi, eta karta denak banatzen zituzten, hamar lagunek egiten zuten jokoan)

**kartie:** karta

**kiñue:** keinua

"*Kiñue irukue irukuai, begixe, batekuai miñe, batekuai miñe, guk, gu pai, da erregiai, espana okertu, da kaballuai bai, orrek laurok bai beintxet*" - (Keinua hirukoa hirukoari, begia, batekoari mihia, batekoari mihia, guk, guk bai, eta erregeari, ezpaina okertu, eta zaldiari bai, lau horiek bai behintzat)

**kopie:** kopa

**laukue:** laukoa

**muse:** musa

"*Ai! museik estakitt nik, ori estakitt, andrak estabe museik eitten, e? tutien da musien, orrek gixonak*" - (Ai! musik ez dakit nik, hori ez dakit, andreek ez dute musik egiten, e? tutean eta musean, horiek gizonek)

**musien:** musean

**ordago:** hordago, musean

**saspikue:** 1. zazpikoa. 2. joko baten izena

"*Saspikue da ba, por ejemplo, saspikue, saspi urre, saspi basto, saspiku beti saspikuek irabasten dau, filan ipiñi, filan filan filan, da saspikue atzenien badekosu saspiko bat, arexek irabaste otzu*" - (Zazpikoa da ba, esate baterako, zazpikoa, zazpi urre, zazpi basto, zazpikoa beti zazpikoak irabazten du, ilaran ipini, ilaran-ilaran-ilaran, eta zazpikoa atzenean badaukazu zazpiko bat, harexek irabazten dizu)

**seikue:** seikoa

**sotie:** txanka

**subastaue:** karta joko baten izena

**tomatie:** karta joko baten izena

"*Briskan be bai, tte tomatien be bai, tomatie estakixu? ba kartaik aundiñek, e, iltten dabena ta, diruas, e? amabost, ordun pentza ixe amabost pesetako tomatie einye gendun guk, orduen, e? kontue estaixu, danak, e, plasako dirue sarritten, morristute itxa, bai morristute itxa, or andra bat da, bueno il san, or ermittien onduen, axe san danan dominantie, are pai jokuen, arek beti irabasi, altzue sabal sabala ta andra ederra san bera ta, amantal asul batzuk ipintte basen, bixar be esatose? esate oskun guri tte, ba estaki pa, etorri bixar be ta, arek lagunek gure basen jokuen eitteko*" - (Briskan ere bai, eta tomatean ere bai, tomatea ez dakizu? ba kartarik handienak, hiltzen duena eta, diruagaz, e? hamabost, orduan pentsa ezazu hamabost pezetako tomatea eginda genuen guk, orduan, e? kontua ez dakizu, denak, plazako dirua sarritan, murriztuta etxera, bai murriztuta etxera, hor andre bat dago, beno hil zen, hor baselizaren ondoan, huraxe zen denen menderatzailea, hark bai jokoan, hark beti irabazi, altzoa zabal-zabala eta andre ederra zen bera eta, amantal urdin batzuk ipintzen zituen, bihar ere ez zatozte? esaten zigun guri eta, ba ez dakit ba, etorri bihar ere eta, hark lagunak gura zituen jokoan egiteko)

**tutie:** tutea

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**txankie:** txanka

**txikidxe:** txikia musean

**urrie:** urrea

## 19.12. EHIZA-ARRANTZA

**agiñesko sepue:** haginezko zepoa

"*Ta sepue, agiñesko sepue egote san geurien be arrapetako, karo! ordun selan botikeik eta eser eseuen, ba sepuekiñ orduen, agiñesko sepuek*" - (Eta zepoa, haginezko zepoa egoten zen geurean ere harrapatzeko, jakina! orduan zelan botikarik eta ezer ez zegoen, ba zepoekin orduan, haginezko zepoak)

**alanbrasko sepue:** alanbrezko zepoa

"*Sarritten, e, sepuek, or, alanbrasko sepue pe, sarritten ero ugertu ero ta urrengo urterako ba, karguik ein barik iguel da, atza barridxe erosteko ta dirue ta nun?*" - (Sarritan, zepoak, hor, alanbrezko zepoak ere, sarritan edo ugertu edo eta hurrengo urterako ba, kargurik egin barik beharbada eta, atzera berriak erosteko eta dirua eta non?)

**amue:** amua

"*Ori da estakie dekona amuen moruen, e, sera es? ori da baso larrosie, es?*" - (Hori da kirtena daukana amuaren moduan, zera ez? hori da baso arrosa, ez?)

**ansuelue:** amua

**errastue:** zidurria, arrastoa

**eskopetie, eskupetie:** eskopeta

"*Nik estekat eskupetaik, gurien esta on eskupetaik sekule be, sekule be, nik estot afesiñoik euki*" - (Nik ez daukat eskopetarik, gurean ez da egon eskopetarik sekula ere, sekula ere, nik ez dut zaletasunik eduki)

"*Bai nere aitte pe eskopetan eitte ban, eskopetan eitte ban, e, bierra eta gero ba bueno baserridxe erute ban*" - (Bai nire aitak ere eskopetan egiten zuen, eskopetan egiten zuen, beharra eta gero ba beno baserria eroaten zuen)

"*Nik eitte neban sera, kulatie ipiñi eskopetai*" - (Nik egiten nuen zera, kulata ipini eskopetei)

**kartutxue:** kartutxoa

**kasan:** ehizan

**kasie:** ehiza

"*Da ollogorretan, e, txakur ona badekosu, kasa batzuendako, entretenigarri olako, ona dala esaten dabe, estakit nik, gurien esta kasoriek egon, e? baye ikusi ttut nik eta ollogorretik oiñ, topetan esposu egun batien bes da bestien bes da ordun, e, baye ollogorra, kasie ona*" - (Eta oilagorretan, txakur ona badaukazu, ehiza batzuendako, entretenigarri holako, ona dela esaten dute, ez dakit nik, gurean ez da ehiztaririk egon, e? baina ikusi ditut nik eta oilagorretik orain, topatzen ez baduzu egun batean ere ez eta bestean ere ez eta orduan, baina oilagorra, ehiza ona)

**kasaridxe, kasorie:** ehiztaria

"*Amen, e, egon dien kasoriek ollogorra*" - (Hemen, egon diren ehiztariak oilagorra)

"*Gure aittek, e, nik iños etxien esautu oanetan arek, e, kasie, bera kasorie san da kasie ipintte ban jateko*" - (Gure aitak, nik inoiz etxean ezagutu dudanetan hark, ehiza, bera ehiztaria zen eta ehiza ipintzen zuen jateko)

**kontrapasie:** kontrapasa

**lasue:** lazoa

"*Lasue pai, ipintten jakiñeskero lasuekiñ, e, be bai, arrapeta ittue, aseridxe pe bai, aseridxe, askonarra, orrek, e, lasuas*" - (Lazoak bai, ipintzen jakinez gero lazoekin, ere bai, harrapatzen dituzte, azeriak ere bai, azeriak, azkonarra, horiek, lazoagaz)

**likie:** miskela, lika

"*Likie, bai baye ori, erosi bixate san da dirue nun egon ba erosteko?*" - (Lika, bai baina hori, erosi behar izaten zen eta dirua non egon ba erosteko?)

"*Bixiik artzeko esaten dau, likie*" - (Bizirik hartzeko esaten du, lika)

**lorrotza:** lorratza

"*Ondio lorrotza pe badas orrenak*" - (Oraindino lorratzak ere badaude horrenak)

"*Batek, e, pasetan dan lekuen ero, lorrotza isten dau*" - (Batek, pasatzen den lekuan edo, lorratza uzten du)

**pasie:** pasea



# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Lelengo pasien etorten dienak onek ixeten die, ta gero atzien etorten da torkasa, da, tortolatan be bardiñ, tortola pe das klase bi" - (Lehenengo pasean etortzen direnak hauek izaten dira, eta gero atzean etortzen da uso nagusia, eta, tortoletan ere berdin, tortolak ere daude mota bi)

**sarie:** sarea

**sepue:** zepoa

**tirue:** tiroa

## 19.13. JAIEGUNAK

**andramari martikue:** andramari martikoa, martxoko andramaria, sasoi honetarako kukua etortzen ei da

**aratostie:** aratustea

"Aratostiek, or, e, jan, disfrasau, andrak sienak prakak jantzi tte, ba ori, piskat pekatue be basan bañe bueno, disfrasau te pinttau, de bigotiek eta gausak eta etxeik etxe ibili tte, dirue batu te" - (Aratusteak, hor, jan, mozorratu, andreak zirenek prakak jantzi eta, ba hori, pixka bat bekatua ere bazen baina beno, mozorrotu eta pintatu, eta biboteak eta gauzak eta etxerik etxe ibili eta, dirua batu eta)

**arimen egune:** arimen eguna

"Arimen egune, ya orduen iru, abade bakotxak iru mesa emote sittuen" - (Arimen eguna, ja orduan hiru, abade bakoitzak hiru meza ematen zituen)

"Arimen egunien gabien, kandelie ipintte ban arek ixotute eskatzien" - (Arimen egunean gauean, kandela ipintzen zuen hark isiotuta ezkaratzean)

"Arimen egunien iru mesa entzute genduen, nik, e, Eibarra juen orduko, amen be bai iños sei tt'erdittako ta gero Eibarren be bai, segidan emoten sittuen da, iru mesa, ori neu be einyekue na" - (Arimen egunean hiru meza entzuten genuen, nik, Eibarrera joan orduko, hemen ere bai inoiz sei eta erdietarako eta gero Eibarrera ere bai, segituan ematen zituen eta, hiru meza, hori neu ere egindakoa naiz)

"Arimen egunien gero abade bakotxak irune mesa emote ban" - (Arimen egunean gero abade bakoitzak hiru meza ematen zuen)

**asentzidxo:** igokundearen eguna

**asentzidxo egune:** igokundearen eguna

**astegune:** asteguna

"Astegune ixate san" - (Asteguna izaten zen)

**aste santue:** aste santua

"Kanpani pe etzan joten aste santuen" - (Kanpairik ere ez zen jotzen aste santuan)

**autzen egune:** hautsen eguna

**baridxeke santue:** bariku gurena

**baridxeke santu egune:** bariku santu eguna, bariku gurena

**baso koipetzu:** baso koipetsu, basatostea, txitxiburruntzia

"Ba orrek die baso koipetzu te orrek, ba kalendaridxotik ero estakitt nik selan, ero abariek iragarritte ero" - (Ba horiek dira baso koipetsu eta horiek, ba egutegitik edo ez dakit nik zelan, edo abadeak iragarrita edo)

**bisperie:** bezpera

**domusantue:** domu santua

"Bañe ori bai, e, domusantuetan, domusantu egunien, kanpaye jote san, da sagraue, e? ya domusantu egunien eliskerie iñ, de etxera" - (Baina hori bai, domu santuetan, domu santu egunean, kanpaia jotzen zen, eta sakratua, e? ja domu santu egunean elizkera egin, eta etxera)

**domusantu egune:** domu santu eguna

"Domu santu egunien, il kanpaye jotzen arratzalde gustin, se ixete san a? bueno!" - (Domu Santu egunean, hil kanpaia jotzen arratsalde osoan, zer izaten zen hura? beno!)

**eguen santue:** eguen santu eguna

**eguen santu egune:** eguen santu eguna

"Ori ixete san, e, sera, guardixa eitte san elixan, eguen santu egunien" - (Hori izaten zen, zera, guardia egiten zen elizan, eguen santu egunean)

**eguen suri:** eguen zuria

"Gero, eguen suri tte urrengo baso koipetzu izango da, gero karnabalak" - (Gero, eguen zuri eta hurrengo baso koipetsu izango da, gero aratusteak)

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Arek erakutzi oskun guri, eguen suri oin kantatzen dana, da geuk ikasi gendun a, da geuk lelengo eiñ, estrenau genduen amen" - (Hark irakatsi zigun guri, eguen zuri orain kantatzen dena, eta geuk ikasi genuen hura, eta geuk lehenengo egin, estrenatu genuen hemen)

**erramu egune, erremu egune:** erramu eguna

"Ori aurretik eitten da, ori, e, gordetan die, erramu eguneko, e, erauntze ta erramue bidxek, da arek, e, erre, da arek isten daben autze, sartzen da ta ordun, bedeinkatu, ta aras eitten dabe ori" - (Hori aurretik egiten da, hori, gordetzen dira, erramu eguneko, ereinotza eta erramua biak eta haiek, erre, eta haiek uzten duten hautsa, sartzen da eta orduan, bedeinkatu, eta haregaz egiten dute hori)

"Erramu egunien, ba baserridxetatik eta gure banak, kurutzetxo batas, erute ittu erramue ta erauntze, bakoitxak, e, semat eta polittau eta ederrau ba, danak, e, lepuen, ume gustik jute sien, ba, elixara, da artze ben a, da gero a erute ben, baserridxen, soluetara, bañe eseben ipintten, pasku gabien, e, ur bedeinkatu arte, da a ur bedeinkatue boteta san da kurutzioak ipintte sien orduen" - (Erramu egunean, ba baserrietatik eta gure zuenak, gurutzetxo bategaz, eroaten ditu erramua eta ereinotza, bakoitzak, zenbat eta politago eta ederrago ba, denak, lepoan, ume guztiak joaten ziren, ba, elizara, eta hartzen zuten hura, eta gero hura eroaten zuten, baserrian, soroetara, baina ez zuten ipintzen, pazko gauean, ur bedeinkatu arte, eta ur bedeinkatu hura botatzen zen eta gurutzeok ipintzen ziren orduan)

"Soluetan ipintte san kurutzie, erremu egunien, erute sien, mutillek erute ben ori, ba txortie, aundidxek, kurutziek, da suk, e, basotan edo solotan gañe kurutze, suri suri einye, dotorie! kurutziek einye, puntak eta sorrostute, suri suri suri, asala suritzako orri materidxal orri, da gero erremue ta ereuntze sartu, da mutillek erute ben bereinkatzen, da gero, pasko sapatus, issue esatakon, sue itte ben

elixan, elispian, da ur bereinkatue ta issue, etxetik erute san, e, issue, da sue ari, brasie, bueno sue ekarte san etxea, da ur bereinkatue, da gero, arek, e, a txortie soltau, ta kurutziek ipintte sien, solo bakoitxien, da bota bereinkasiño oi, noberak ori, e? ori oitturie" - (Soroetan ipintzen zen gurutzea, erramu egunean, eroaten ziren, mutilek eroaten zuten hori, ba txorta, handiak, gurutzeak, eta zuk, basoetan edo soroetan gaina gurutze, zuri-zuri eginda, dotorea! gurutzeak eginda, puntak eta zorrozuta, zuri-zuri-zuri, azala zuritzeko material horri, eta gero erramua eta ereinotza sartu, eta mutilek eroaten zuten bedeinkatzen, eta gero, pazko zapatus, izua esaten zitzaion, sua egiten zuten elizan, elizpean, eta ur bedeinkatua eta izua, etxetik eroaten zen, izua, eta sua hari, txingarra, beno sua ekartzen zen etxera, eta ur bedeinkatua, eta gero, haiek, txorta hura askatu, eta gurutzeak ipintzen ziren, soro bakoitzean, eta bota bedeinkazio hori, norberak hori, e? ohitura hori)

"Bai erremu egune, erremu eguneko bedeinkasiñuen, bedeinkatuko erremuekin eitten dabe itxurie ori autzoi" - (Bai erramu eguna, erramu eguneko bedeinkazioan, bedeinkatuko erremuekin egiten dute itxura hauts hori)

**erregen egune:** erregeen eguna

"Orre pai, bañe erregeetan batzen eskiñen ibili es, urte barri egunien, etxeik etxe ibiltte san, mutillek eguen suri ibiltten dien moruen, ori esta galdu" - (Horiek bai, baina erregeetan batzen ez ginen ibili ez, urte barri egunean, etxerik etxe ibiltzen zen, mutilak eguen zuri ibiltzen diren moduan, hori ez da galdu)

**gabonak:** gabonak

"A danerako, berakatza ta gausa, intxaurrak apurtzeko, gabonetan, intxaur saltzie itteko, danerako gure amak" - (Hura denerako, berakatza eta gauza, intxaurrak apurtzeko, gabonetan, intxaur saltsa egiteko, denerako gure amak)

**gabon egune:** gabon eguna

**gabon gaba:** gabon gaua

**gabon sar egune, gabon sarra:** gabon zahar eguna

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Gero gabon sarrak, bueno ba gabon sar egunien, eitte ben, burditten esate san, da ni orras ondo akordeta nas, gabien jute sien, ba, arrapetan sittuen erreminttak baserri etxietan, kanpuen oten die, jeneralien kanpuen, andik artu te plasara erute sittuen, selako asto biarrak! burdidxe be iguel" - (Gero gabon zaharrak, beno ba gabon zahar egunean, egiten zuten, gurdietan esaten zen, eta ni horregaz ondo gomutatzen naiz, gauean joaten ziren, ba, harrapatzen zituzten erremintak baserri etxeetan, kanpoan egoten dira, gehienetan kanpoan, handik hartu eta plazara eroaten zituzten, zelako asto beharrak! gurdia ere beharbada)

**garisumie, garixumie:** garizuma

"Saspi aste garixumie, erromeridxa esin juen, dantzai pe esiñ eiñ, estasiñora trenak ikusten, barkillerue etorte san, Durangotik, da, sera barkilleruai eraiñ olako serok eta, dirue nun ongo san, da mutillek ero ote sien an da, arei pagau eraiñ, pesetie ero, pesetias amar buelta ero ixate san, txakur andidxe bueltie" - (Zazpi aste garizuma, erromeriara ezin joan, dantzarik ere ezin egin, geltokira trenak ikusten, barkileroa etortzen zen, Durangotik, eta, zera barkileroari eragin holako zerok eta, dirua non egongo zen, eta mutilak edo egoten ziren han eta, haiei ordaindu eragin, pezeta edo, pezetagaz hamar buelta, edo izaten zen, txakur handia buelta)

**gorpustidxe, korpustidxe:** gorpuztia

"Gorpustidxe jai andidxe ixate san" - (Gorpuztia jai handia izaten zen)

**iñusentadie:** inuzentada, inuzente egunean egiten den txantxa

"Iñusentadie eraittie, al dosuen danai, bai, oin be esta ala ori? oin be, len gedxa iguel ongo san oin baño" - (Inuzentada eragitea, ahal duzuen denei, bai, orain ere ez da ala hori? orain ere, lehen gehiago beharbada egongo zen orain baino)

**iñusente egune:** inuzente eguna

"Nobidxuek eitten nobidxai tte eraitte otzesan, faena txarrak eitte sittuen gañera, e? arek esan dabela ta juen da ser? da ene ba! au pasau dxatzule ta ori

ei atzule ta, se egun dan estakixu, iñusente egune" - (Gizongaiak egiten andregaiei eta eragiten zizkieten, faena txarrak egiten zituzten gainera, e? hark esan duela eta joan eta zer? eta ene ba! hau pasatu zaizula eta hori egin zaizula eta, ze egun den ez dakizu, inuzente eguna)

**jadxe, jaixe:** jai

"Orretan jadxotan danetan ipintte san sepulturie, da kandela aundi bi laso baltzakiñ" - (Jai horietan denetan ipintzen zen sepultura, eta kandela handi bi lazo beltzekin)

"Abariñon ixaten da ori jadxe, san blas besperie dalako" - (Abadiñon izaten da jai hori, san blas bezpera delako)

**jadxegune:** jai eguna

"Gu baño aurrerau ixango san, jadxegunetako, guri egunero emote oskuen bañe" - (Gu baino aurrerago izango zen, jaiegunetarako, guri egunero ematen ziguten baina)

**jai erdidxe:** jai erdia

"Ogidxe? es, entierruen eseben eruten, amen eseben eruten, domeketan, da jai erdidxetan, kandelaridxo, asentzidxo, da orretan" - (Ogia? ez, enterruan ez zuten eroaten, hemen ez zuten eroaten, domeketan, eta jai erdietan, kandelario, igokundea, eta horietan)

**kandelaridxo egune, kandelaridxo egune:** kandelario eguna

"Kandela bereinkatuek, e, paskuetan bereinkatze san kandelie, eo, kandelaridxo egunien" - (Kandela bedeinkatuak, pazkoetan bedeinkatzen zen kandela, edo, kandelario egunean)

"Kandelaridxo egunien ba, bedeinkatu eitten die kandelak eta bakotxak eruten dau te ba, alan trumoyek eta dienien ba ixotu" - (Kandelario egunean ba, bedeinkatu egiten dira kandelak eta bakoitzak eroaten du eta ba, hala trumoiak eta direnean ba isiotu)

**karnabala:** aratuste

**kontzesiñue:** kontzesio eguna

**natibittate egune:** natibitate eguna

"Lenako sarrak esate ben natibittate ase ta bete, da Sanestebantxo beti beselantxo" - (Lehenagoko zaharrek esaten zuten

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*Natibitate ase eta bete, eta San Estebantxo beti bezelantxo)*

**pasko sapatue:** pazko zapatua

**pasko egune, pasku egune:** pazko eguna

*"Soluetan, e, sera, kurutziek, garixuman, pasku egunien erute siren kurutziek, kurutziek bereinkatzen, palo batzuk, e, kurutzetxuas, ta seras, erramuas" - (Soroetan, zera, gurutzeak, garizuman, pazko egunean eroaten ziren gurutzeak, gurutzean bedeinkatzen, makila batzuk, gurutzetxoagaz, eta zeragaz, erramuagaz)*

*"Ori ixeten da, e, pasku egunien, mokotza, ba mokotza, guk beti mokotza esan du" - (Hori izaten da, pazko egunean, mokotza, ba mokotza, guk beti mokotza esan dugu)*

**pasku besperie:** pazko bezpera

**paskue:** pazkoa

**san andres egune:** San Andres eguna

*"Bueno San Andres, neguko San Andres egunien, kanpora eskondute dauesen seme alabak, etorte sien ba mesie etaratzera, segaittik ese eurek euesen lekuen ba, domu santu egunien da ba, an eukitte ben euren erridixen da arek danak etorten die, neguko San Andres egunien etorte sien, mesie etaratzera" - (Beno San Andres, neguko San Andres egunean, kanpora ezkondata dauden seme-alabak, etortzen ziren ba meza ateratzera, zergatik eze eurak zeuden lekuan ba, domu santu egunean eta ba, han edukitzen zuten euren herrian eta haiiek denak etortzen dira, neguko San Andres egunean etortzen ziren, meza ateratzera)*

**san blas egune:** San Blas eguna

**san juen besperako sue:** San Juan bezperako eguna

*"Aurreko urtekue erre in bixaten da, san juen besperan" - (Aurreko urtekoa erre egin behar izaten da, san juan bezperan)*

**san juen egune:** San Juan eguna

*"Lapurrek eta sorgiñek erre erre, esate san, e, san juanetan sue itte sanien" - (Lapurrak eta sorginak erre-erre, esaten zen, san juanetan sua egiten zenean)*

**san juen sue:** San Juan sua

**santa ageda egune:** Santa Ageda

*"Santa Ageda beste ba ta, Santa Ageda bespera gabien kanteta san, ori be beti esautu ot Santa Ageda kantetan" - (Santa Ageda beste bat da, Santa Ageda bezpera gauean kantatzen zen, hori ere beti ezagutu dut Santa Ageda kantatzen)*

*"Santageda etxata akordetan neri selan san" - (Santa Ageda ez zait gomutatzen niri zelan zen)*

**santu egune:** santu eguna

**sapatu santue:** zapatu guren eguna

**sorbie:** san juanetan ipintzen diren lore txortzen izena; loreak ez eze berakatza, kipula eta abar ere ipintzen dira

**txarribodie:** txarriboda

**txitxiburduntxi:** txitxiburduntxi

**urtebarri:** urteberria

*"A, urtebarri batzen, gastetxuek giñenien etxeik etxe" - (Hura, urteberri batzen, gaztetxoak ginenean etxerik etxe)*

**urtebarri egune:** urteberri eguna

## 19.14. EUSKARA

**berbetie:** berbeta

*"Bastotxuaue da Berrisko berbetie be, gogorraue da" - (Bastotxoagoa da Berrizko berbeta ere, gogorraagoa da)*

**berbie:** berba

*"Semat denporan pentzeta osu berba barik?" - (Zenbat denboran pentsatzen duzu berba barik?)*

*"Ori berbioi ebaltzen da" - (Hori berbaori erabiltzen da)*

**beroi:** berorika tratamendua

*"Etorri beroi etxera" - (Etorri berori etxera)*  
*"Bedorrek gure badau etorri leike" - (Berorrek gura badu etor liteke)*

**erderie:** erdara

*"Amen erderie sartu da bai asko, d'orrek galdu ein yie danok" - (Hemen erdara sartu da bai asko, eta horiek galdu egin dira denok)*

**estok eta bai dok:** ez duk eta bai duk, gizonen arteko hika tratamenduaren izena

**eston eta bai don:** ez dun eta bai dun, gizonen arteko hika tratamenduaren izena

**euskerie:** euskara

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Gañera euki gendun epoka bat, e, euskeras esiñ ixate san" - (Gainera eduki genuen sasoi bat, euskaraz ezin izaten zen)

"Selan da au? Saldibar baten larogetabost urte dekas da, sekula euskeraik estan gausaik estot entzun da oin dana, ba, bilingue ta dana kendute dana, mesa ba barik itxi gaittue euskeras" - (Zelan da hau? Zaldibar baten laurogeita bost urte dauzkat eta, sekula euskararik ez den gauzarik ez dut entzun eta orain dena, ba, elebidun eta dena kenduta dena, meza bat barik utzi gaituzte euskaraz)

"Ta maistriek esekidxen jakin be euskeras" - (Eta maistrak ez zekien jakin ere euskaraz)

"Oñ enas akortan, esate ben gure aurreko maistriek, olao anillo bat erabiltte bala, da euskeras eitten deskuidetan sanai, a emototzala kastigutzet, guk estou olako, olakoik es" - (Orain ez naiz gomutatzen, esaten zuten gure aurreko maistrak, holako eraztun bat erabiltzen zuela, eta euskaraz egiten deskuidatzen zenari, hura ematen ziola zigortzat, guk ez dugu holako, holakorik ez)

"Estaki pa gutxi gora bera danok bardin samar, amen dauena da aldie, sera, berba eitten aldie, Eitzakuek eta guk, orretan bai" - (Ez dakit ba gutxi gora behera denok berdin samar, hemen dagoena da aldea, zera, berba egiten aldea, Eitzakoek eta guk, horretan bai)

"Amendixik eta Berrisera kanbidxau eitten da, ta Durangora be bai" - (Hemendixik eta Berrizera aldatu egiten da, eta Durangora ere bai)

## 19.15. GERRATEA-SOLDADUSKA

**abioye:** hegazkina

"Nik estakitt an ser ego san bañe, kanposantue dana aidien, e, desaparesidu ein san, e, Teruel, an, e, idxa egunero ta, atakias, irunan-irunan etorte sien, e, orrek abiok Junkerrak ero, Junkerrak eta, orrek alemanak sien, da bestiek, e, Saboyas ero, italianuek, dana astinyu, jota! egun gustien, etorri tte etorri, etorri tte etorri, bota ta, bañe illadak, e? egun

gustien, kañoye pe bai, Teruel dana apurtute" - (Nik ez dakit han zer egon zen baina, kanposantua dena airean, desagertu egin zen, Teruel, han, ia egunero eta, erasoagaz, hirunan-hirunan etortzen ziren, hegazkin horiek Junkerrak edo, Junkerrak eta, horiek alemaniarrak ziren, eta besteak, Saboiak edo, italiarrak, dena astindu, jota! egun guztian, etorri eta etorri, etorri eta etorri, bota eta, baina ilarak, e? egun guztian, kainoiak ere bai, Teruel dena apurtuta)

"Ene! Bilbo, artu bi dabe gaur Bilbo, ostrabe egunes, egunes kendu, gabas kentze otzen da egunes atzea be abioyekin dana kendu, olan ibili sien lusero, e?" - (Ene! Bilbo, hartu behar dute gaur Bilbo, ostera ere egunez, egunez kendu, gauetz kentzen zieten eta egunez atzera ere hegazkinekin dena kendu, hola ibili ziren luzaro, e?)

**ametralladorie:** metrailadorea

"Barkuk eta allegetan dien lekun, antxe bajatu te, ordun ametralladoretan nengun, ametralladorie enplausu te, an euesan da estakit nik ogei mille ero ogetamar ero, amen eo sien moruen barkuei itxaitten, anka eitteko, danak arrapau, orren osaba ba pe antxe euen" - (Ontziak eta ailegatzen diren lekuan, hantxe baxatu eta, orduan metrailadoretan nengoen, metrailadorea ezarri eta, han zeuden eta ez dakit nik hogeia mila edo hogeita hamar edo, hemen egon ziren moduan ontziei itxaroten, hanka egiteko, denak harrapatu, horren osaba bat ere hantxe zegoen)

**armie:** arma

**bakie:** bakea

**batallie:** bataila, gudua

"Gabon egun baten, afariri pe estoskuen ekarri, eta, seinye erritxo bat, an estoskusan itxi, es korreajeik eta, surik eitten bes, urrien da, bata bestiai, han kristonak ein ye, sortzi egun, eta andik, e, batallie euen lekure sartu kamioyetan da araxe erute giñuesan" - (Gabon egun baten afaririk ere ez ziguten ekarri, eta, zeinda herritxo bat, han ez zizkiguten utzi, ez uhaleriarik eta, surik egiten ere

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*ez, hurbil eta, bata besteari, han kristorenak egin eta, zortzi egun, eta handik, bataila zegoen lekura sartu kamioietan eta haraxe errotan gintuzten)*

## **batalloye:** batailoia

*"Batalloye, Batallón Ibaizabal da Durangon on sien, da or Saldibarkuk, e, on sien, orren pariente bat, il san, illabete, gerriek urten, ta ensegida, Donostin ero nun ill eben sera?" - (Batailoia, Ibaizabal batailoia eta Durangon egon ziren, eta hor Zaldibarkoak, egon ziren, horren arteko bat, hil zen, hilabete, gerrak irten, eta berehala, Donostian edo non hil zuten zera?)*

## **boluntaridxue:** boluntarioa

*"Bai, bai gero sera, mojak euesan amentxe beyen, da arek saintzen be amen boluntaridxuek be, asturianuek eta be ego sien amen, batalloyek, gero etorri sien, frentiek abansau banien da" - (Bai, bai gero zera, mojak zeuden hementxe behean, eta haiek zaintzen ere hemen boluntarioak ere, asturiarrak eta ere egon ziren hemen, batailoiak, gero etorri ziren, frentea aurreratu zenean eta)*

*"Boluntaridxo be mordue jun sien bai, boluntaridxo be jun sien" - (Boluntario ere mordoa joan ziren bai, boluntario ere joan ziren)*

## **bonbardeue:** bonbardaketa

*"Durangoko, sera, bonbardeue ixen sanien, nik, e, Saldibarren denda baten nenguen plasan, errekauek eitten juenda, da bakixu noa jun giñen? esan ei oskuen araxe juteko, kanpantorrea, jun giñien, a errefujidxue, kanpantorra, da olantxik kanpantorrie jentes beteta" - (Durangoko, zera, bonbardaketa izan zenean, nik, Zaldibarren denda baten nengoen plazan, mandatuak egiten joanda, eta badakizu nora joan ginen? esan egin ziguten haraxe joateko, kanpandorrera, joan ginen, hura aterpea, kanpandorrera, eta holantxe kanpandorrera jendez beteta)*

## **bonbie:** bonba

## **delegae:** ordezkaria

*"Eseuen, e, selan geldi ego san, abioyek buelta bat ero eitte ben da bonba batzuk botate sittuen bañe, bestelan esan amen,*

*serik, komitie ero amentxe, beko otela, otelien ego san, komitie ero seoser delegau moruen ero, ementxe ego san, bat" - (Ez zegoen, zelan geldi egon zen, hegazkinak buelta bat edo egiten zuten eta bonba batzuk botatzen zituzten baina, bestela ez zen hemen, zerik, batzordea edo hementxe, beheko hotela, hotelean egon zen, batzordea edo zer edo zer ordezkari moduan edo, hementxe egon zen bat)*

## **errepublikanue:** errepublikarra

*"Amen, e, guk, e, pentzau bes, euesan iru ero lau, ba nere gixonen osaba batek euen sentrue errepublikanuena, da Batzokidxe" - (Hemen, guk, pentsatu ere ez, zeuden hiru edo lau, ba nire gizonen osaba batek zeukan txokoa errepublikarrena, eta Batzokia)*

## **esku bonbie:** esku bonba

*"Billurre eukitte ben, neuri be, gerra denporan frentien erretirada bat euki gendun, baten, e? gengosan posesiñue bastante aurrien da bueltan, e, idxa serkaute, serak, ordun gorridxek bestiek sien, erretiradan, moro batek selan, esku bonbie eskun ebala olantxik, arek bota balosta niri ba karo! desaparesidu, da esostan bota" - (Bildurra edukitzen zuten, neuri ere, gerra denboran frentean erretirada bat eduki genuen, baten, e? geunden posizioa nahiko aurrean eta bueltan, ea inguratuta, zerak, orduan gorriak besteak ziren, erretiradan, mairu batek zelan, esku bonba eskuan zuela holantxe, hark bota balit niri ba jakina! desagertu, eta ez zidan bota)*

## **frentie:** frentea

*"Ori mendidxe ortxe aurrien dauena, Santa Maina Sar da ori, da gerriek urte banien, gero Arraten be ego san frentie, orra mendire jun giñen, e, tiruek, gerran tiruek eta, aretxek entzutera, orra mendire" - (Mendi hori hortxe aurrean dagoena, Santa Marina Zar da hori, eta gerrak irten zuenean, gero Arraten ere egon zen frentea, horra mendira joan ginen, tiroak, gerraren tiroak eta, haiexek entzutera, horra mendira)*

*"Bai amen geldi geldi egon sien da, ortxe frentie bastante denporan eo san, Arrate,*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*ori danoi, Intxortaruntz ero, Elgetatik, e, Markiñera, nere, bueno lagune es, anai bat ortxe Markiñen il san, bi euesan, bata sapadorie ta bestie, infanteridxie ero, da antxe il san, ta bestela amen jentiek normal eitte ban, lantzien beiñ, e, botate sittuen, e, bonba txikidxe eta botate sittuen, baserriidxen, biarrien eon soluen, jentie ikuste ben lekuen" - (Bai hemen geldi-geldi egon ziren eta, hortxe frentea nahiko denboran egon zen, Arrate, hori denori, Intxortaruntz edo, Elgetatik, Markinara, nire, beno laguna ez, anaia bat hortxe Markinan hil zen, bi zeuden, bata zapadorea eta bestea, infanteria edo, eta hantxe hil zen, eta bestela hemen jendeak normal egiten zuen, lantzean behin, botatzen zituzten, baserrian, beharrean egon soroan, jendea ikusten zuten lekuan)*

*"Ni frentera eru ninyuen bañe, Teruela, bañe Francok, e? illabete iñ, e, Laredon, gero gerran akabau arte" - (Ni frentera eroan ninduten baina, Teruelera, baina Francok, e? hilabete egin, Laredon, gero gerran amaitu arte)*

*"Da karo, ori frentien, frentien, iguel, fusillas etzan ibiliko" - (Eta jakina, hori frentean, frentean, beharbada, fusilagaz ez zen ibiliko)*

*"Frentie egon san Arraten, beratzi illabetien" - (Frentea egon zen Arraten, bederatzi hilabetean)*

**gerratie:** gerratea

**gerrie:** gerra, gerla

*"Gerra aurreti pe beintzet baeuesan etxe batzuk ori eukenak" - (Gerra aurretik ere behintzat bazeuden etxe batzuk hori zeukatenak)*

*"Ni akordeta nas, nik gerriek urte banien, amasortzi urte neukesan, juniuen, nik juniuen amarrien eitte ittut urtiak, da juliun, eta amasortzi urte" - (Ni gomutatzen naiz, nik gerrak irten zuenean, hamazortzi urte neuzkan, bagilean, nik bagilaren hamarrean egiten ditut urteak, eta garagarrilean, eta hamazortzi urte)*

*"Aitte, da, ni baño urte bi gastiaue dan anai bat, da irurok, iru bedxas, ebakuau giñen amendik, sera, gabeko amabidxetan, au,*

*Saldibarren librau besperan, estaitt agostue, agostue ero ixengo san, ba, urrengo egunien artu ben au, jun giñen Ibarrurire, da an euen, e, gurien euen, orduen amendik esnias da, bendejias da, Eibarra jute sien, gure amama da ama be bai, da an jenerue eroste ben, e, Undabeitiak, e, Eibarren, komersiue ta ba, esnie be erute otzen eurei tte, an be ba jenerue erosi, garbansuek eta alakuek eta, a san, Ibarruriko semie, da aren andrie, Eibartik amen refujiau eon sien, baserri danak, da gurien euen, e, Undabeitien arrebie ero andrie, da jun giñen Ibarrurire, iru bei de, gero andik urrengo egunien, akordeta nas, kortan ei gendun lo, bueno kortan ero, ganauen, e, ganaue barruen da ba geu be an, da urrengo goxien andik urten da, estakit nundik jun giñen, Mungidxaldetik ero, Berangora, da an be lo ei genduen" - (Aita, eta, ni baino urte bi gazteagoa den anaia bat, eta hirurok, hiru behiagaz, ebakuatu ginen hemendik, zera, gaueko hamabietan, hau, Zaldibarren sartu bezperan, ez dakit abuztua, abuztua edo izango zen, ba, hurrengo egunean hartu zuten hau, joan ginen Ibarrurira, eta han zegoen, gurean zegoen, orduan hemendik esneagaz eta, bendejagaz eta, Eibarrera joaten ziren, gure amama eta ama ere bai, eta han jeneroa erosten zuten, Undabeitiak, Eibarren, merkataritza eta ba, esnea ere eroaten zien eurei eta, han ere ba jeneroa erosi, garbantzuak eta halakoak eta, hura zen, Ibarruriko semea, eta haren andrea, Eibartik hemen errefuxiatu egon ziren, baserri denak, eta gurean zegoen, Undabeitiaren arreba edo andrea, eta joan ginen Ibarrurira, hiru behi eta, gero handik hurrengo egunean, gomutatzen naiz, kortan egin genuen lo, beno kortan edo, ganaduaren, ganadua barruan eta ba geu ere han, eta hurrengo goizean handik irten eta, ez dakit nondik joan ginen, Mungialdetik edo, Berangora, eta han ere lo egin genuen)*

*"Da andi badakixu noa jun giñen? gure aitte, guk lengosuk geunkesan, e, ortxe geure etxe onduen panaderidxie? gu*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*lengosuk giñen da, gure aitte jute san, e, gerrie asi tte gero, porture, urune ta garidxe ta, kanpotik ero estakit nik, nundik estakitt, e, Gobierno Baskuek ero dana dalakuek, ekarte ban a, da an esautu eban, Deridxoko bat, ba biarra eitte ban serien, portuen, da bixi sien Deridxon, Deridxotik, e, Santo Domingora? da Santo Domingora orduko, eskerreko, baserri bat da, olantxeik, ta, andik, esniekin ye bertako andrie, astuas jute san, e, serara Bilbora, are pai, e, sera eitte ban, balda sabal bat ipiñi, da patiñe euken, e, orduen, ori patiñe? doble ero gedxa eitte ban arek esnie, dana nastau ein ye, bañe obatuau be bai, e? da arek, e, aguasillek eta itxurie, arei obie emote otzen, da an juntau giñen, aitte ta anai bidxok jun giñen Bilbora ta, beste eseun bat, beste errotari bat, e, Elorridxokue, juntau giñen, da ni ondiñok jun barik iñoa be ta, konbersasiñue aittek eta eta ben eta, neuk erungo saittut su, e, ontxe jungo ga, da erun ninyuen, apunteta, gerrarako, Solidaridxueta, Solidaridad de Trabajadores Vascos, oiñ, e, ELA dana, antxe apuntau te urrengo egunien, e, Euban euen batalloye, ero konpañia, bat bai beintzet, Batallón San Andres, da urrengo egunien Eubara, beno egunien es, gabes, trintxerak eitten, ta serako pentzaixu orduen, e, oiñ amairu urtekuek, amasortzi urtas, kendu txaketie, da, sangie itteko aspikaldien itxi txaketie da askenien lurras tapaute, da euridxe, busti busti einye" - (Eta handik badakizu nora joan ginen? gure aita, guk lehengusuak geneuzkan, hortxe geure etxe ondoan okindegia? gu lehengusuak ginen eta, gure aita joaten zen, gerra hasi eta gero, portura, irina eta garia eta, kanpotik edo ez dakit nik, nondik ez dakit, Euskal Gobernuak edo dena delakoak, ekartzen zuen hura, eta han ezagutu zuen, Derioko bat, ba beharra egiten zuen zerean, portuan, eta bizi ziren Derion, Deriotik, Santo Domingora? eta Santo Domingora orduko, ezkerreko, baserri bat dago, holantxe, eta, handik, esneekin eta bertako andrea, astoagaz joaten zen,*

*zerera Bilbora, hark bai, zera egiten zuen, balde zabal bat ipini, eta patina zeukan, orduan, patin hori? bikoitza edo gehiago egiten zuen hark esnea, dena nahastu egin eta, baina hobetxoagoa ere bai, e? eta hark, udaltzainak eta itxura, haiei hobe ematen zien, eta han elkartu ginen, aita eta anaia biok joan ginen Bilbora eta, beste ezagun bat, beste errotari bat, Elorriokoa, elkartu ginen, eta ni oraindino joan barik inora ere eta, elkarrizketa aitag eta atera zuten eta, neuk eroango zaitut zu, oraintxe joango gara, eta eroan ninduen, apuntatzera, gerrarako, Solidarioetara, Solidaridad de Trabajadores Vascos, orain, ELA dena, hantxe apuntatu eta hurrengo egunean, Euban zegoen batailoia, edo konpainia, bat bai behintzat, Batallón San Andres, eta hurrengo egunean Eubara, beno egunean ez, gauez, trintxerak egiten, eta zereko pentsa ezazu orduan, orain hamahiru urtekoak, hamasortzi urtegaz, kendu jaka, eta, lubana egiteko azpiko aldean utzi jaka eta azkenean lurtegaz tapatuta, eta euria, busti-busti eginda)*

*"Gero, ortik, e, sera Areta bakixu nun dauen? Llodion, an ei gendusen, e, amabost bat egun ero, gero andik, bonbie bota ben gañera, an euen, e, anis frabrika bat, Tejada, gero andik, andik seraa jun giñen, Castillo Elejabeitiara be jun giñen da, gero or kanpo d'abiasñue ero lengue, gerra denporakue, Diman, Diman, ara parajeta trintxerak eitten, gero Balmasedara be bai, Balmasedatik ero aurretik ero, Las Barrietas barridxo bat, Sopuertara ero, altu baten, minak eonikue, askenien, askenien es, gero Cerniego Castro Urdiales baño aratxua, Santander dala pentzetan dot a, andik Limpiasera da Limpiasen, antxe arrapau ginyuesan, e, italianuk" - (Gero, hortik, zera Areta badakizu non dagoen? Laudion, han egin genituen, hamabost bat egun edo, gero handik, bonba bota zuten gainera, han zegoen, anis fabrika bat, Tejada, gero handik, handik zerera joan ginen, Arteara ere joan ginen eta, gero hor aireportua edo lehengoa, gerra denborakoa, Diman, Diman, hara*



# ZALDIBAR HIZTEGIA

inguruetara lubanak egiten, gero Balmasedara ere bai, Balmasedatik edo aurretik edo, Las Barrietas auzo bat, Sopuertara edo, altu baten, meategiak egonekoa, azkenean, azkenean ez, gero Cerniego Castro Urdiales baino haratxoago, Santander dela pentsatzen dut hura, handik Limpiasera eta Limpiasen, hantxe harrapatu gintuzten, italiarrek)

"Suk estakitt entzunde dekosun, e, amen Berrisen alkate sera euen ordu, Berdugue, frankistie gogorra, arek gastiek, e, etara eitte seittuen, gero frentera bialtzeko da sarrak barrure sartu" - (Zuk ez dakit entzunda daukazu, hemen Berrizen alkate zera zegoen orduan, Borreroa, frankista gogorra, hark gazteak, atera egiten zituen, gero frentera bidaltzeko eta zaharrak barrura sartu)

"Gerriek urten espaleu au manikomidxuau araxe eruteko asi sien eitten, gero eibertarrak eta eon sien an, makiñak ara eruenda" - (Gerrak irten ez balu zoroetxe hau haraxe erroteko hasi ziren egiten, gero eibartarrak eta egon ziren han, makinak hara eroanda)

"Suluek bai, suluek ero, amen be, amentxe geu be, errekatxu bat eta kamiñuen subipera, da olakoxe serak, e, aprobetxate ba, entradai ero, sakuekin ero arias ero, lurras ero" - (Zuloak bai, zuloak edo, hemen ere, hementxe geu ere, errekatxo bat eta kaminoan zubipera, eta holakoxe zerak, aprobetxatuta ba, sarrerari edo, zakuekin edo hareagaz edo, lurragaz edo)

"Huescan euen, e, an buruik esin seikien eta, espillue olan ipiñitte, aurrie saintzeko ta, ba amendik orraxe, alkarras berba be bai San Jose egun baten, amentxe berba eiñ, de, alde bakotxetik frentien, tabakue kanbidxau ben, ni enitzen jun bañe, ordu erre be enaban eitten gañera, da bost minutuen ero amar minutuen ero on alkarras da, da bakotxa bere lekure, obligatekuek gedxenak, soldauek" - (Huescan zegoen, han bururik ezin zenezakeen atera, ispilua hola ipinita, aurrea zaintzeko eta, ba hemendik

horraxe, elkarregaz berba be bai San Jose egun baten, hementxe berba egin, eta, alde bakoitzetik frentean, tabakoa trukatu zuten, ni ez nintzen joan baina, orduan erre ere ez nuen egiten gainera, eta bost minutuan edo hamar minutuan edo egon elkarregaz eta, eta bakoitza bere lekura, behartukoak gehienak, soldaduak)

"Ba gerrie akabau naban, aurretik eridute be ego nitzen" - (Ba gerra amaitu nuen, aurretik zaurituta ere egon nintzen)

"Sartu giñuesan, gerrako barkuen, da andik, e, onuntz etorri san, andik sera Alicantera" - (Sartu gintuzten, gerrako ontzian, eta handik, honuntz etorri zen, handik zera Alicantera)

**gorridxe:** gorria, alde errepublikarrean eta abertzalean egon zirenen izena

"Ori alkatie ixen san, gorridxen denporan" - (Hori alkatea izan zen, gorriek sasoian)

**gudaridxe:** gudaria

"A ba guk irebastie gerrie! bueno! gudaridxe gendusen guk lagunak, guk gudaridxei, laguntze geuntzen orduen, emen be egon sien ango komentue euen emen karmelitena, emen beyen, gero an godxen ei eben, oin bota dabe an be, bañe amen euen, ba kendu sittuen mojak da ei eben kuartel, bañerie euen, bañerie ur atzas, bueno orrena, da ori be kuartel ipiñi eben, da amen milisiano asko eon san, etorte sien arrautzatan da, ba danetan, bueno guk asko estimeta gendusen milisianuek, asko!" - (A ba guk irabaztea gerra! beno! gudariak genituen guk lagunak, guk gudariei, laguntzen genien orduan, hemen ere egon ziren hango komentua zegoena hemen karmeldarrena, hemen behean, gero han goian egin zuten, orain bota dute han ere, baina hemen zegoen, ba kendu zituzten mojak eta egin zuten kuartel, bainuontzia zegoen, bainuontzia ur atzagaz, beno horrena, eta hori ere kuartel ipini zuten, eta hemen miliziano asko egon zen, etortzen ziren arrautzetan eta, ba denetan, beno guk asko estimatzen genituen milizianoak, asko!)

**kapitana:** kapitaina

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Nire kapitana, kontratistie ei san" - (Nire kapitaina, kontratista ei zen)

**karlistadie:** karlistada

"Karlistadetako gausak eta orduko, da, guardasebillek etorritte bost aistak, da ama, eskuek lotu atzera ta, eskopetias aurrien da, aber aitte nun euen da, ill ein bi sittuela ta, guk, e, euki genduen estuasune ta, guk es genkiñan nun san da, gu ixilik, es genkiñan, e, klaro esan be esotzen eingo aitte badaspadan da, guardasebillek etorritte, ormien kontra etxe ostien ipiñitte, guk pasau genduen estuasune ta, semat olako kontu! esate ban arek" - (Karlistadetako gauzak eta orduko, eta, goardazibilak etorrita bost ahiztak, eta ama, eskuak lotu atzera eta, eskopetagaz aurrian eta, ea aita non zegoen eta, hil egin behar zituztela eta, guk, eduki genuen estutasuna eta, guk ez genekinan non zen eta, gu isilik, ez genekinan, jakina esan ere ez zieten egingo aita badaezpadan eta, goadazibilak etorrita, hormaren kontra etxe ostean ipinita, guk pasatu genuen estutasuna eta, zenbat holako kontu! esaten zuen hark)

**karselie, kartzelie:** kartzela

"Ba mordue erun sittuen karselara, da orduen egon san Larrinaga, karselie, bañe goratxua Karmeloko komentuen, dana ipiñi eben sala A, be, de, dana, e, karsela, da gure aitte egon san gorenguen, saspireun lagun esate ban, e, sutunik iñon eon es itteko lekuen, kamarotien eon siela, da lurrien eitte ben lo, olan, e, amen bestien ankak eta emen bestien burue jotzen, da onenbeste, onenbeste, e, negurriko koltxoye ein geuntzen sakuas, da malutias, aretxen gañien lo ein daidxen lurren gañien barik, Karmelon eon san, da ote giñien kolan semat denporan!" - (Ba mordoa eroan zituzten kartzelara, eta orduan egon zen Larrinaga, kartzela, baina goratxoago Karmeloko Komentuan, dena ipini zuten A aretoa, B, D, dena, kartzela, eta gure aita egon zen gorengoan, zazpiehun lagun esaten zuen, zutunik inon egon ez egiteko lekuan, kamaran egon zirela, eta lurrean egiten zuten lo, hola,

hemen bestearen hankak eta hemen bestearen burua jotzen, eta honenbeste, honenbeste, neurriko koltxoia egin genion zakuagaz, eta malutagaz, harexen gainean lo egin zezan lurraren gainean barik, Karmelon egon zen, eta egoten ginen ilaran zenbat denboran!)

**kinttie:** kinta

**kinttue:** kintoa

**milisianue:** milizianoa

**morterue:** morteroa

"Taller bi egon sien, batek eitte ban, forjiek, serak eitte sittuen, Esperantza Markiñakuai, morteruendako ba, bola batzuk, gero amen jo eitte sittuen da ara mekanisetako" - (Tailer bi egon ziren, batek egiten zuen, forjak, zerak, egiten zituen, Esperantza Markinakoari, morteroendako ba, bola batzuk, gero hemen jo egiten zituzten eta hara mekanizatzeko)

**presue:** preso

"Saldibarren olakoik esan eon, bai preso, e, Antzuako sera be eru ben bañe, ba iru lau egun ainyu, sera eon san, seras, pena de muertias, eta serien ixen san, Puerto Santa Marian ero, bañe eseben il" - (Zaldibarren holakorik ez zen egon, bai preso, Antzuako zera ere eroan zuten baina, ba hiru-lau egun agindu, zera egon zen, zeragaz, heriotz zigorragaz, eta zerean izan zen, Puerto de Santa Marian edo, baina ez zuten hil)

"Santoñan on san preso" - (Santoñan egon zen preso)

**propagandie:** propaganda

"Propagandie te bai, ori neu be ibilitte na, da nire moruen, e, mordue, gastiek" - (Propaganda eta bai, hori neu ere ibilita nago, eta nire moduan, mordoa, gazteak)

"Ni eonda na birriten, e, da nire morun ba beste batzuk, badakixu Arrasola ta orrek, Atxondo nun dauen? ba, an, oiñ iru erri ero bat einye das bañe, askenengo etxien, tabernie euen, an, minetako trenbirie ero eon san itxurie, da an serien, erretiraute, Anbotopien, an birriten eonda na ni, bakotxien eote giñen ero ogei ero ogeta bat, Ajuriagerras da, Ajuriagerra da bestie Artetxe sala pentzeot gixon aundi bat bilbotarra ero, ba propagandie eta" -

# ZALDIBAR HIZTEGIA

(Ni egonda nago birritan, eta nire moduan ba beste batzuk, badakizu Arrazola eta horiek, Atxondo non dagoen? ba, han, orain hiru herri edo bat eginda daude baina, azkenengo etxean, taberna zegoen, han, meategietako trenbidea edo egon zen itxura, eta han zerean, erretiratuta, Anbotopean, han birritan egonda nago ni, bakoitzean egoten ginen edo hogeit edo hogeita bat, Ajuriagerragaz eta, Ajuriagerra eta bestea Artetxe zela pentsatzen dut gizon handi bat bilbotarra edo, ba propaganda eta)

**republikie:** errepublika

"Nik gerrien usai pes, republikiek urte ban, or republikiek, e, bastatnte urte batzuk lena urte ban" - (Nik gerraren usainik ere ez, errepublikak irten zuen, hor errepublikak, nahiko urte batzuk lehenago irten zuen)

**soldaue:** soldadua

"Ni be ba, asi, e, amalau urte ta ogeire artien ero ogetabi, ogetabat artien, soldau jun artien, beti ibili nas olantxe baserridxetan" - (Ni ere ba, hasi, hamalau urte eta hogeira arte edo hogeita bi, hogeita bat arte, soldadu joan arte, beti ibili naiz holantxe baserrietan)

**soldau lagune:** soldadu laguna

**soldautzie:** soldaduska

"Beste ba pe bai gero, sarjento esatakon, soldautzan sarjento ein sala ta" - (Beste bat ere gero, sarjentu esaten zitzaion, soldaduskan sarjentu egin zela eta)

**txapel gorridxe:** erreketek

## 20. OROKORRA

Atal honetako berbak ezin sartu izan ditugu arteragoko ataletan, izan ere, batekoak baino gehiagokoak izan daitezke; halandaze, hona hemen denak jarraian.

**aberidxie:** aberia, matxura

**abertzalie:** abertzalea

**abidxadie:** abiada

"Asi da trena abidxadie artzen" - (Hasi da trena abiada hartzen)

**abisena:** abizena, deitura

**adelantue:** aurrerapena

**afana:** afana, antsia

**ainbaten:** hainbatean, aurki, beharbada, hurrean

"Lelengo fabrikie ixengo san ainbaten forjje" - (Lehenengo fabrika izango zen hainbaten forja)

"Leku gutxitten bañe, bat ero bi, uste dot bat ainbaten, rebolberrak, eitte sien" - (Leku gutxitan baina, bat edo bi, uste dut bat hainbaten, errebolberrak, egiten ziren)

**akaso:** akaso, beharbada

**akordue:** akordua, gomuta

"Ori nire akorduen ein ya" - (Hori nire gogoan egin da)

"Amen esta on arrisko mairik, es, nire akorduen" - (Hemen ez da egon harrizko mahairik, ez, nire gomutan)

"Batek, ba iskue ipiñi ban da bee denpora gustien, e, Antzuakuek euki ban, nere akordu gustien beti batek euki ban" - (Batek, ba idizkoa ipini zuen eta bere denbora guztian, Antzuakoak eduki zuen, nire gomuta guztian beti batek eduki zuen)

**alegiñe:** ahalegina

**amarrie:** lotura, lokarria

**amenasue:** mehatxua, zemaia

**antza:** antza

**antzerkidxe:** antzerkia

**aparatue:** aparatua, aparailua

**apellidue:** abizena, deitura

"Maisue ixen san, e, amen, manikomidxuen eitte ban biar da, serien, labetan ba, kalefasiñue ero, iketzas eitte ben dana, sera, ba axe san, Blas, apellidue ta dana dakias bañe" - (Maisua izan zen, hemen, zoroetxean egiten zuen behar eta, zerean, labeetan ba, kalefakzioa edo, ikatzagaz egiten zuten dena, zera, ba huraxe zen, Blas, abizena eta dena dakizkit baina) [eurek eduki zuten dantza maisuaren gainean dabil]

**apopillue:** apopiloa

**aprobie:** aproba, proba

**apurre:** apurra

"Emen, emen gañera dauesen apurrek, e, nor ibiliko da ba olako sereiñek eitten, se olan lotute, es, es, kendu eitten die ta

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*kitto*" - (Hemen, hemen gainera dauden apurrak, nor ibiliko da ba holako zereginik egiten, ze hola lotuta, ez, ez, kendu egiten dira eta kito)

**ardurie:** ardura

"Ardura gedxa deko olako ume okerrak" - (Ardura gehiago dauka holako ume okerrak)

**arramuskarie:** arramuskada, haserre jaurtakada

**asto bierra:** asto beharra

**asuntue:** gorabehera, arazoa

**aterpie:** aterpea

"Gu frontoyen pelotan, bueno eskolan be euesan ba, ser bakoitxak, eskola bakoitxak eukesan aterpetxo batzuk eta bueno, or pelotan eitten gendun da frontoyen" - (Gu frontoian pilotan, beno eskolan ere zeuden ba, zer bakoitzak, eskola bakoitzak zeuzkan aterpetxo batzuk eta beno, hor pilotan egiten genuen eta frontoian)

**autobuse:** autobusa

"Durangorako autobuse artu du" - (Durangorako autobusa hartu dugu)

**bai:** bai

**bajadie:** jaitsiera

**bakie:** bakea

**bakotxa:** bakoitza

"Bakotxa bere etxien bixi da" - (Bakoitza bere etxean bizi da)

"Bakotxak berak gure dauena eitten dau" - (Bakoitzak berak gura duena egiten du)

"Bakotxak irune dekou" - (Bakoitzak hiruna daukagu)

**balidxue:** balioa

**bañue:** bainua

**barkue:** ur-ontzia

**barridxe:** berria, albistea

"Egun bitten ero iruen ero eon giñen, ortik, gero estakitt, e, seras asi giñen gu, an, e, Araba orduko, bakixu ango barri?" - (Egun bitan edo hiruan egon ginen, hortik, gero ez dakit, zeragaz hasi ginen gu, han, Araba orduko, badakizu hango berri?)

**barrie:** barra

**batzokidxe:** Batzokia

"Abertzale itzela san, arek, e, ba aratxe be jute giñen, e, sapatutan da domeketan da,

gero radidxue be entzun de, partidue entzun de orrek eitten, Garita or, suk, e, esautuko sendun bera be, ba antxe, da espatadantzardixe be ixen nintzen, da on nintzen, espatadantzari, Elorridxoko Batzokidxe, lengue, e? an gero karlistak on sien, e, oin ser da an? Sirkulue esate otzen a, Sirkulue an, antxe euen Batzokidxe, da a inagurau sanien be, espatadantzan ei genduen, da Ermukun be bai" - (Abertzale itzela zen, hark, ba haraxe ere joaten ginen, zapatuetan eta domeketan eta, gero irratia ere entzun eta, partidua entzun eta horiek egiten, Garita hor, zuk, ezagutuko zenuen bera ere, ba hantxe, eta ezpata-dantzaria ere izan nintzen, eta egon nintzen, ezpata-dantzari, Elorrioko Batzokia, lehengoa, e? han gero karlistak egon ziren, orain zer dago han? Zirkulua esaten zioten hura, Zirkulua han, hantxe zegoen Batzokia, eta hura zabaldu zenean ere, ezpata-dantzan egin genuen, eta Ermukoan ere bai)

**bayetz:** baietz

"Pentzetot bayetz" - (Pentsatzen dut baietz)

"Nik baies pentzetot, olan esate san beintzet" - (Nik baietz pentsatzen dut, hola esaten zen behintzat)

**bayetza:** baietza

**bentajie:** abantaila

**berbie:** berba

**bestie:** bestea

"Etxien esta ama baño besteik" - (Etxean ez dago ama baino besterik)

"Amen Atien ipintte san bat, beste bat ipintte san ortxe frontoko serien" - (Hemen Atean ipintzen zen bat, beste bat ipintzen zen hortxe frontoiko zerean)

**biajie:** bidaia

**biarra, bierra:** beharra

"Bierra eiñes seoser eingo dabe" - (Beharra eginez zer edo zer egingo dute)

"Itxela bañe, oiñ estot ikusten nik bierrri pe, niitako itxeko bierrak eta estie bierrak, e? ni baserrixen usaute bai, tte ba, oin baserrixen gutxi eitte ot, kendute dekat medikuek bierra olan atxurras da eitteko ta, da, esa otzat nik semiei be itxeko bierrak, itxeko bierra niitako estok

# ZALDIBAR HIZTEGIA

bierra, bai, selan usetan dan da personie" - (Itzela baina, orain ez dut ikusten nik beharrik ere, niretako etxeko beharrak eta ez dira beharrak, e? ni baserrian usatuta bai, eta ba, orain baserrian gutxi egiten dut, kenduta daukat medikuak beharra hola aitzurragaz eta egiteko eta, eta, esan diot nik semeari ere etxeko beharrak, etxeko beharra niretako ez duk beharra, bai, zelan usatzen den da pertsona)

**biarlekue:** 1. beharlekua. 2. beharra

"Ontxe biarleku ederra artuko leuke banantzen dien bakotxai, e, santzerrada jo biar baotze" - (Oraintxe beharleku ederra hartuko lukete banatzen diren bakoitzari, zentzerrada jo behar badiote)

**bilyurre, billurre:** bildurra

"Billurre dekat" - (Bildurra daukat)

"Jausteko billurre deko" - (Jausteko bildurra dauka)

"Ixilik, etxietan bentanapietan eta ibiltten ei die, ta berba eitten etxien be billurre" - (Isilik, etxeetan leihopeetan eta ibiltzen ei dira, eta berba egiten etxean ere bildurra)

**bikotie:** bikotea

**bisikletie:** bizikleta

"Itxiotzan bisikletie berai, ta bera etorri san bisikletan" - (Utzi zion bizikleta berari, eta bera etorri zen bizikletan)

**bisittie:** bisita

**biximodue:** bizimodua

"Gu Eibartik bixi ixen ga beti amendik, amendik biximodue eon da Eibarren dana, bai, plasan, baserritarrak plasatik da kaletarrak, industriati, trenkarie jute san, bai, trenien an godxen, trenien jute sien, esniek einye tratuas be, egote san goxien merkansia, ipinttotzan ari merkansiai, kotxe bi, da ba faturau te traste gustiek antxe jute sien da biargiñek eta tratularidzek eta jute sien ba, geo biargiñendako beste ser bat atzeatxua ote san, trena, da, baserritarrak atzea, gu bederatziatako atza Saldibarren oten giñien, esniek danak partidute" - (Gu Eibartik bizi izan gara beti hemendik, hemendik bizimodua egon da Eibarren dena, bai, plazan, baserritarrak plazatik eta kaletarrak, industriatik, trenkada

joaten zen, bai, trenean han goian, trenean joaten ziren, esneak eginda tratuagaz ere, egoten zen goizean merkantzia, ipintzen zion merkantzia hari, kotxe bi, eta ba fakturatu eta traste guztiak hantxe joaten ziren ba, gero beharginentzat beste zer bat atzeratxoago egoten zen, trena, eta, baserritarrak atzera, gu bederatziatarako atzera Zaldibarren egoten ginen, esneak denak banatuta)

**borondatie:** borondatea

**brillue:** distira, dirdira

**bueltie:** buelta

"Ori gurien or kanpuen egote san, buelta osuen, amen, or bueltan" - (Hori gurean hor kanpoan egoten zen, buelta osoan, hemen, hor bueltan)

"Buruas parau beyen olan, da ra! bueltie osue iñ" - (Buruagaz paratu behean hola, eta ra! buelta osoa egin)

**burlie:** burla, trufa

**burrukie:** borroka

**damue:** damua

**deidxe:** deia

**demandie:** demanda, eztabaida, istilua

**derrigorra:** derrigorra, premia

**deskuidue:** ustekabea, ezustea

**deskontue:** deskontua

**diarra:** deiadarra

**dudie:** duda, ezbaia

**egidxe, egixe:** egia

"Egixe esaneskero naikue da" - (Egia esanez gero nahikoa da)

"Egidxak ero gusurrek bañe siñeste gendusen danak" - (Egiak edo gezurrak baina sinesten genituen denak)

**ei:** ei

"Dirue artute juen ei san" - (Dirua hartuta joan ei zen)

**enkargue:** enkargua, mandatua

**entradie:** sarrera

**entzutie:** entzutea

"Aiñ entzute aundikue da ganea!" - (Hain entzute handikoa da gainera!)

**epuiñe:** ipuina

**erasue:** eraso, jazarpena

**erie:** era

**erradxie:** arraia, marra

**errasoye:** arrazoia

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**erregalue:** erregalua, oparia

**erregie:** erregea

**errekaue:** errekadua, mandatua

**erremesie:** erremesa

**erreparue:** erreparoa

**erresoye:** arrazoia

**erresultaue:** ondorioa, emaitza

**errespetue:** begirune

*"Oso euken ser aundidxe, arimen egunek, errespeto andiko egune, ixate san da domusantue alegrie, bañe illuntzire aste sien, kanpai joten, il kanpayek" - (Oso zeukan zer handia, arimen egunak, begirune handiko eguna, izaten zen eta domu santua alaia, baina iluntzera hasten ziren, kanpai jotzen, hil kanpaiak)*

**errestue:** hondarra, arrastua

**erretratue:** argazkia

**errue:** errua

*"Sure erruaittik berandu allegau ga" - (Zure erruagatik berandu ailegatu gara)*

**ertza:** ertza

**es:** ez

**esana:** esana

**esetz:** ezetz

*"Selako esetz!" - (Zelako ezetz)*

**esetza:** ezetza

**eskamie:** ezkata

**esku biarra:** esku beharra

**eskutue:** ezkutua

**esperantzie:** esperantza

**estilue:** estiloa, moldea

**estrasako papela:** estratzako papera

**estudidxue:** estudioa, ikasketa

*"Olako basarri aundidxe pai, gitxi, iru ero lau bei, da gasteridxie ba tallerretan da, oingo moruen estudidxoik eta es beintzet, ordun Saldibarren, gu gastiek giñenien ni baño gastetxauu bañe, dirudunen semiek, estudidxora, oin danak joten die" - (Halako baserri handiak bai, gutxi, hiru edo lau behi, eta gazteria ba tallerretan eta, oraingo moduan ikasketak eta ez behintzat, orduan Zaldibarren, gu gazteak ginenean ni baino gaztetxoagoa baina, dirudunen semeak, ikasketetara, orain denak joaten dira)*

**esturie:** estura, estutasuna

**esustekue:** ezustekoa

**ete:** ete, ote

*"Jo! denpora ona nos ete datorren begire gu" - (Jo! eguraldi ona noiz ote datorren begira gu)*

*"Semat urte te deko arek?" - (Zenbat urte ete dauka hark?)*

**faltie:** falta

**famie:** fama, ospea

*"Kukue, fama txarra, txori alperra" - (Kukua, ospe txarra, txori alperra)*

**fetxie:** data

**firmie:** sinadura

**formie:** itxura, moldea

*"Jeneralien ba, lena beitze otzasu se formatakue dan, da gerridxen meidie ta, diferensi aundidxe eta leike or" - (Gehienetan ba, lehenago begiratzan diozu ze itxuratakoa den, eta gerriaren neurria eta, desberdintasun handia atera liteke hor)*

**fotografidxie:** argazkia

*"Etxie garbitzen dabillenak, ekarri dxok orra fotografidxie, Juanitok emonda" - (Etxea garbitzen dabilenak, ekarri dik horra argazkia, Juanitok emanda)*

**ganorie:** ganora

**gasoliñie:** gasolina

**gasteridxie:** gazteria

**gausie:** gauza

*"Gerua gausa geixa da" - (Geroago gauza gehiago dago)*

*"Politte ixate san gausie" - (Polita izaten zen gauza)*

*"Ori umiai eitte aken gausie da umiek txikidxe dienien" - (Hori umeei egiten zitzaien eta umeak txikiak direnean)*

**gogue:** gogoa

*"Gogue dxekat bañe lengo kontuek ittuk orrek" - (Gogoa zaukaat baina lehengo kontuak dituk horiek)*

**gomie:** goma

**goraberie:** gora-behera

**grasie:** grazia

**guardasebille:** guardia zibila

**gusurre:** gezurra

*"Gusurre esan dau umiek da amak jo in yau" - (Gezurra esan du umeak eta amak jo egin du)*

**ideye:** ideia

**iguel, igul:** igual, beharbada

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Gero bañe, esta akordetan be, esta gero, e, ser ein yosun bes iguel" - (Gero baina, ez da gomutatzen ere, ez dago gero, zer egin duzun ere ez beharbada)

"Bueno estakit beste leku batzutan se kontauko tzuen bañe iguel leku askotan antzera ixengo da, esta?" - (Beno ez dakit beste leku batzuetan zer kontatuko zizuten baina beharbada leku askotan antzera izango da, ezta?)

**igurdidxe:** igurdia, igurtzia

**ikarie:** ikara

**ikurriñie:** ikurrina

"Olan, e, ori, e, ikurriñaoi dauen moruen ipintte ben tente" - (Hola, hori, ikurrina hori dagoen moduan ipintzen zuten tente)

**ikusmirie:** ikusmira

**ipoiñe, ipuiñe:** ipuina

**itxurie:** itxura

"Ba seoser itxurie, esate ben moruen" - (Ba zer edo zer itxura, esaten zuten moduan)

**ixena:** izena

"Ixenak esango neukesak bañe esanenak, e, ixenak sesango pa nik, gu geuk dekusen ixenakin esi leikesak orrek" - (Izenak esango nitizkek baina esanenak, izenak zer esango dut ba nik, guk geuk dauzkagun izenekin ezin litezkek horiek)

**jakitturidxe:** jakituria

**jenerue:** jeneroa, gauza

"Jenero batzuk erresa jate ittue beste batzu paño" - (Jenero batzuk errazago jaten dituzte beste batzuk baino)

**jun etorrix:** joan etorria

**kalendaridxe:** egutegia

**kamioye:** kamioia

"Es esterio eitten dok kaso bat papeleriek, serrak, da orrek eitte dxuek esterio, esterio ixate do pa kaso batesko kamioye kargeta dxuek, eta esterio ipintte dxue pa ba, esango pa nik, kamioyei ba, neurtzen dok kamioye da gero ainbeste esterio" - (Ez esterioa egiten duk kasu bat paper fabrikak, zerrategiak, eta horiek egiten ditek esterioa, esterioa izaten duk ba kasu baterazkero kamioia kargatzen ditek, eta esterioa ipintzen ditek ba, esango dut ba nik, kamioia ba, neurtzen duk kamioia eta gero hainbeste esterio)

**kanbidxe:** aldaketa

**kapelie:** kapela

**kargue:** kargua

**kategoridxe:** kategoria

**kinkallie:** kinkaila

"Meseta jute nas da ba, gero, bueltatxo bat eitten da bañe, jente larrei oten da oiñ, da oiñ oiñ atza politto ipiñi dabe bañe saso bat euki dau Abariñok, dana galdu ebana, dana, ixerak eta erropak, eta ba danetik saltzen, dana kinkallie" - (Mezatara joaten naiz eta ba, gero, bueltatxo bat egiten eta baina, jende larregi egoten da orain, eta orain-orain atzera polito ipini dute baina sasoi bat eduki du Abadiñok, dena galdu zuena, dena, izarak eta arropak, eta ba denetik saltzen, dena kinkaila)

**klasie:** mota

"Artatxoridxe dok ba, txinbuen moruen da bestien moruen da bueno dok klase bat" - (Artatxoria duk ba, txinboaren moduan eta besteen moduan eta beno duk mota bat)

**kolorie:** kolorea

"Bueno lurrek, e, kolorie suridxe eukiñ arren ixate ittuk, e, onak, lur gosuek ixate ittuk" - (Beno lurrak, kolorea zuria eduki arren izaten dituk, onak, lur gozoak izaten dituk)

"Ori gero kolorie artzeko ta bañe, ori saldu bi banak eta eingo tzan bañe guk etxeako gastayei estotzau eiñ" - (Hori gero kolorea hartzeko eta baina, hori saldu behar zuenak eta egingo zion baina guk etxerako gaztaiari ez diogu egin)

**komentaridxe:** iruzkina

**konfiantzie:** konfiantza

"Bauken konfiantzie itxurie, etxeuokin ero geugas ero, ori esa ban" - (Bazeukan konfiantza itxura, etxeuokin edo geugaz edo, hori esan zuen)

**kontue:** kontua

"Afalostien ba, urtete genduen kanpora, etxiostera, ta ba, ixarrak ikusi tte, abioyek ikusi ero ba, orrek godxen ikusten sienak mobimentuen da axe ixate san eta kontuek kontau te orixe" - (Afalostean ba, irteten genuen kanpora, etxe-ostera, eta ba, izarrak ikusi eta, hegazkinak ikusi edo ba, horiek goian

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*ikusten zirenak mugimenduan eta huraxe izaten zen eta kontuak kontatu eta horixe)*

**kopurue:** kopurua

**kortxue:** kortxoa

*"Urtetotze olako bola batzuek, da kortxo morukue, apurtueskero" - (Irteten diote bola batzuek, eta kortxo modukoa, apurtuz gero)*

**kostunbrie:** ohitura, ekandua

*"Guk dekau kontunbrie esateko" - (Guk daukagu ohitura esateko)*

**kotxie:** autoa

*"Es, da gañea kotxien be etxoat ekarri se neuk etxoat ekarri neure kotxie ta" - (Ez, eta gainera autoan ere ez diat ekarri ze neuk ez diat ekarri neure autoa eta)*

**kuadrue:** laukia

**lastimie:** lastima

**legie:** legea

**likidue:** likidoa

**loturie:** lotura

**lotzie:** lotsa

**manejue:** moldaera

**mañie:** abilezia, trebezia

**materidxala:** materiala, gaia

**memoridxe:** oroimena

**merittue:** meritua

**mesedie:** mesedea

**morue, modue:** modua

*"Bai nik orrek ikusi ittuas, e, modu askotara, ori, e, orta erueten, da baserridxen ba ganajatekue itteko, eruete ben, es asko, e?" - (Bai nik horiek ikusi ditut, modu askotara, hori, horretara eroaten, eta baserrian ba ganadu jatekoa egiteko, eroaten zuten, ez asko, e?)*

*"Modu askotara, lena astuekin, gero trena ipiñi ebenien trenien, da gero bidxetara be bai" - (Modu askotara, lehenago astoekin, gero trena ipini zutenean trenean, eta gero bietara ere bai)*

**mostradora:** mostradorea

*"Pisue geuk genduken, geuk erute genduen pisue, pisu txiki txiki bat, nik, guk gendukena, olan puntatik eldu te balansie, estakixu? txiki txiki bat, bañe fiñe pisue! beste batzuk barres eukesan, e, olan epiñi, olan mostradorien eukesan lekuen, da or, e, dendakuen antzerakuek, dendakue, platuekin, e? platuekin" -*

*(Pisua geuk geneukan, geuk eroaten genuen pisua, pisu txiki-txiki bat, nik, guk geneukan, hola puntatik heldu eta balantza, ez dakizu? txiki-txiki bat, baina fina pisua! beste batzuk barrez zeuzkaten, hola ipini, hola mostradorean zeuzkaten lekuan, eta hor, dendakoen antzerakoak, dendakoa, platerekin, e? platerekin)*

**mundue:** mundua

**nastie:** nahastea

*"Estaitt selan ixengo san, patatakin nastie ixengo da, esta?" - (Ez dakit zelan izango zen, patatekin nahastea izango da, ezta?)*

**nobera:** norbera

*"Ori da gatxa noberentzat" - (Hori da gaitza norberarentzat)*

*"Noberak ei leike ori" - (Norberak egin lezake hori)*

*"Bai, bai noberendako ba lena oin baño, fasilla artzen sien, e, bi eukesanak iguel beste bat artze ban da bañe" - (Bai, bai norberarendako ba lehenago orain baino, errazago hartzen ziren, bi zeuzkanak beharbada beste bat hartzen zuen eta baina)*

*"Ori olluei emondakue ixengo da, ori noberak jateko da ori?" - (Hori oiloei emandakoa izango da, hori norberak jateko da hori?)*

**notisixe:** berria, albistea

**obrie:** obra, beharlekua

**oitturie:** ohitura

*"Onek oitturok nos amaittu biar ete dabe, onek oitturok" - (Hauek ohiturok noiz amaitu behar ete dute, hauek ohiturok)*

**ordie:** ordea

*"Goldatu lenengo, da laixatu, laixie bakixu? laixie sartute, laixatu asko, ortik, e, beste baserri batetik etorte sien, da andik etorte sien andra gixon batzuk, gero geuk ein bier eurei ordie, e? da sei lagun ero plantetan giñen filan, da laixatu" - (Goldatu lehenengo, eta laiatu, laia badakizu? laia sartuta, laiatu asko, hortik, beste baserri batetik etortzen ziren, eta handik etortzen ziren andre-gizon batzuk, gero geuk egin behar eurei ordea, e? eta sei lagun edo plantatzen ginen ilaran, eta laiatu)*

**pague:** ordaina



# ZALDIBAR HIZTEGIA

**paketie:** paketea

**parie:** pareia

**partidue:** alderdia

"Geo, gerotxua, gu peneubien sartu, besteik eseuen eon be orduen, orduen be beuen, e, asion baskie ero esatakona, bañe olakoik eseuen ontan erri txikidxotan da, Bilbon da bai, asion baskakuek, bañe gutxi sien orrek, nik pentzetot ori, ongo, eskerreko moruku sala ori, neuk pentzau, e? estakitt ori olan dan" - (Gero, gerotxoago, gu PNV-n sartu, besterik ez zegoen egon ere orduan, orduan ere bazegoen, ANV edo esaten zitzaiona, baina holakorik ez zegoen hauetan herri txikiotan eta, Bilbon eta bai, ANV-koak, baina gutxi ziren horiek, nik pentsatzen dut hori, oraingo, ezkerreko modukoa zela hori, neuk pentsatu, e? ez dakit hori hola den)

**partie:** aldea

"Egaña tallerra ein yaben lekuen, axe Saldiberko partien axe euen barren" - (Egaña tailerra egin duten lekuan, huraxe Zaldibarko aldean huraxe zegoen barren)

**peligrue:** arriskua

**penie:** pena, tristura, mina

**plantie:** planta, itxura

**politikie:** politika

**posa:** poza

"Txalak ori biau errapekue biau, eta bedxe bera be psik eoten da txalai emonda posa, bedxe bera be, bedxek txalai, e, gustora emote otza, e?" - (Txahalak hori behar du errapekoa behar du, eta behia bera ere pozik egoten da txahalari emanda poza, behia bera ere, behiak txahalari, gustura emoten dio, e?)

**posturie:** egokera

**preguntie:** itauna, galdera

**premiñie:** premia

**problemie:** arazoa

**puntie:** punta

**radidxue:** irratia

**segun:** segun

"Ori segun se landarantzako obie ok" - (Hori segun ze landararentzat hobea duk)

**seguru:** ziur

**segurue:** aseguruia

**señalie, sendallie:** seinalea, aztarna

"Denpora txarra laster etorren sendallie ixate san" - (Eguraldi txarra laster zetorren seinalea izaten zen)

**sera:** zera

**sereiñe:** zeregina

**sigarrue:** zigarroa

**sobrie:** hondarra, sobra

**suertie:** zortea

**sustue:** ikara, izua

**tabakue:** tabakoa

**tajue:** taxua, itxura

"Onek atx amerikanuen tajue deko" - (Honek haritz amerikanoaren taxua dauka)

**tapie:** tapa, estalkia

**telefonue:** telefonoa

**tipue:** era, molde, itxura

**trabesa:** trabesa

**trabie:** traba

"Euskidzek gaur seose, trabie deko" - (Eguzkiak gaur zer edo zer, traba dauka)

**tranpie:** tranpa, treta

"Iños abadieie atzien ipiñi, aurrekuk estakidxeneie erakusteko, gastien tranpak, bakixu an sakristeridxen, an bentanie, ba atzien ipiñi alan da ba" - (Inoiz abadeari atzean ipini, aurrekoek ez dakiteneie erakusteko, gazteen tranpak, badakizu han sakristerian, han leihoa, ba atzean ipini hala eta ba)

**trena:** trena

"Trena be bai, amen bealdekuek eta bueno egokixe euken trena artu amen eta jueteko, an gure parajekuek ba karo trenera etorteko apur bat gatxa, eta ba, astuekin eitte ben jun etorrixoi" - (Trena ere bai, hemen behe aldekoek eta beno egokia zeukaten trena hartu hemen eta joateko, han gure ingurukoak ba jakina trenera etortzeko apur bat gaitza, eta ba, astoekin egiten zuten joan-etorri hori)

**trenbidie, trenbirie:** trenbidea

"Nik, e, lau bei erute nittuen basora, etxetik urten, bakarrik, e? bedeatzi urtas, e? da paste naban trenbidie" - (Nik, lau behi eroaten nituen basora, etxetik irten, bakarrik, e? bederatzi urtegaz, e? eta pasatzen nuen trenbidea)

**txandie:** txanda

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**txupetie:** txupetea

**uekue:** hutsunea

"*Bai gabien be bai se, arek, e, uekomat eitten badau, salide artzen badau inyarra artzen dau te, ba ari isten batzazu erre ensegida, gero ara esi leike juen*" - (Bai gauean ere bai ze, hark, hutsunereren bat egiten badu, irteera hartzen badu indarra hartzen du eta, ba hari uzten badiozu erre behingoan, gero hara ezin liteke joan)

**unie:** unekada, unea, gunea

## 21. ADJEKTIBOAK

Atal honetan adjektibo bakunak biltzen ditugu, noizean behin eratorriren bat ager daitekeen arren, hauetariko gehienak berba eratorrien atalean agertuko dira. Bestalde, adjektibo konposatuak eta adjektibotzat erabiltzen direnak esakunen atalean agertuko dira. Azkenik, koloreak adierazteko berbak azpi-atal berezian agertuko dira amaieran.

### 21.1. ADJEKTIBO BAKUNAK

**aberatza:** aberatsa

"*Orrenbeste es bañe aberatza pai, arek suri jantzitte ta gu ba, bakotxa bere serien, nii pasau atan ba familidxan, ba arek, alkarras, ba alkarras artu gendun gure jaune, da, gure etxien eseuen, e, seoser bai, diferentie bañe, da are pa eurek, e, jai andidxe euken da ba guk es, bakotxak ba al dabena*" - (Horrenbeste ez baina aberatsak bai, haiek zuri jantzita eta gu ba, bakoitza bere zerean, niri pasatu zitzaidan ba familian, ba haiek, elkarregaz, ba elkarregaz hartu genuen Gure Jauna, eta, gure etxean ez zegoen, zer edo zer bai, desberdina baina, eta haiek ba eurek, jai handia zeukaten eta ba guk ez, bakoitzak ba ahal duena)

**afisiñaue, afesiñaue:** zalea

"*Beittu pasatan dana, egon ixen dire, olako, asur konpontzaillak esate otzenak, afesiñauek*" - (Begiratu pasatzen dena,

*egon izan dira, holako, hezur konpontzaileak esaten zietenak, zaleak)*

**ajille:** bizkorra

"*Ankak ajillek eukesanak ba arek irabaste ban beti*" - (Hankak bizkorrak zeuzkanak ba hark irabazten zuen beti)

**ala olakue:** hala-holakoa

"*Ala olakue, bai, beti esautu ot argixe*" - (Hala-holakoa, bai, beti ezagutu dut argia)

**alegrie:** alaia

"*Errespeto andiko egune, ixate san da domusantue alegrie*" - (Begirune handiko eguna, izaten zen eta domu santua alaia)

**alperra:** alperra

"*Alperra ba, txepetxai umiek asi eraitte otzaselako*" - (Alperra ba, txepetxari umeak hazi eragiten dizkiolako)

**altie:** altua (f)

**altue:** altua

"*Ori naikue altue da*" - (Hori nahikoa altua da)

**alue:** alua

"*Alue, da lupue neetako antzerakuek die*" - (Alua, da lupua niretako antzerakoak dira)

**amerikanie:** amerikarra edo Amerikan bizi izanekoa (f)

**amerikanue:** amerikarra edo Amerikan bizi izanekoa

**andidxe, aundidxe:** handia

"*Semat eta andidxaue ta txarra*" - (Zenbat eta handiagoa eta txarragoa)

"*Ori aundi aundidxe da*" - (Hori handi-handia da)

**antxiñekue:** antzinakoa

"*Astute na selan esate san, seoser esate san, ene! antxiñeko gausa(k) die ta*" - (Ahaztuta nago zelan esaten zen, zer edo zer esaten zen, ene! antzinako gauzak dira eta)

**antzerakue:** antzekoa

"*Ba, antzerakue beti, e, istoria sagrada ero, ori ixate san, egun baten, da bestiotan, e, estakitt, dana dana antzerakue beti, antzerakue*" - (Ba, antzerakoa beti, historia sakratua edo, hori izaten zen, egun baten, eta besteotan, ez dakit, dena dena antzerakoa beti, antzerakoa)

**antzue:** antzua

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**apartekue:** apartekoa

"Apartekoik etxakon eitten" - (Apartekorik ez zitzaion egiten)

**argala:** argala

"Oin ba desgobernau ero olan bada, piskat argal ero" - (Orain ba desgobernatu edo hola badago, pixka bat argal edo)

"Famosue, emen Intxortan da ibilittekue san a, argal bat" - (Ospetsua, hemen Intxortan eta ibilitakoa zen hura, argal bat)

**argidxe, argixe:** argia

"Beres argidxe bada, tontue bada sekule etxok ikasten" - (Berez argia bada, inuzentea bada sekula ez dik ikasten)

**ariñe:** arina

"Lur ariñe ixate ok beti ona" - (Lur arina izaten duk beti ona)

**arra:** arra, fruiturik ematen ez duten landare eta antzuak diren animalien gainean esaten da

"Arra ixengo da se, estot pentzetan klasien gora beraittik dana, se a da, bere albokuk eta emoten dabe da berak es da guretako a arra da" - (Arra izango da ze, ez dut pentsatzen motaren gora beheragatik dena, ze hura da, bere albokoek eta ematen dute eta berak ez eta guretzat hura arra da)

**arrarue:** arrarua

**arrue:** harroa

**asala:** azala, sakona ez dena

**askena:** azkena, atzena

"Gora eittie ori da askena, maldisiñue, esta?" - (Gora egitea hori da azkena, maldizioa, ezta?)

**askenengue:** azkenengoa, atzenengoa

"Askenengo urtietan kanpuen ego nas" - (Azkenengo urteetan kanpoan egon naiz)

"Askenengue nos ikusi ete neban? buf! oiñ ogetaka urtiak" - (Azkenengoa noiz ikusi ete nuen? buf! orain hogeitaka urteak)

**aspaldikue:** aspaldikoa

**aspijana:** azpi-jana, petrala

"Lupue da piskat, e, aspijana ero olan" - (Lupua da pixka bat, azpijana edo holan)

**astune:** astuna

"Arinyu eitte sala, astuneixe jarri estakixon umiai" - (Arindu egiten zela, astunegia jarri ez dakion umeari)

**atrebidue:** ausarta

"Oso paraje txarra euen da, piskat atrebidutxuaue san lengosue" - (Oso inguru txarra zegoen eta, pixka bat ausartxoagoa zen lehengusua)

**atzena:** atzena, azkena

"B'oiñ untxe untxe atzen atzen atzenien, ba se esango pa" - (Ba orain oraintxe oraintxe atzen-atzen-atzenean, ba zer esango dut ba)

**atzenengue:** atzenengoa, azkenengoa

"Orduentxe atzenengo urtiak ixengo sien" - (Orduantxe atzenengo urteak izango ziren)

**aundixe, andixe:** handia

"Gero bentana aundi bat etara dabe len txiki bat euen lekuen" - (Gero leiho handi bat atera dute lehen txiki bat zegoen lekuan)

**babalastue:** babalastoa

**babalorie:** babalorea

**bajue:** baxua

"Aundidxaue panderue baño, da arrotzias pinttau ero eitte ben, baju bajue" - (Handiagoa panderoa baino, eta arrautzagaz pintatu edo egiten zuten, baxu-baxua)

**bakarra:** bakarra

"Bakarra, il barridxen, eta dasek, bañe ointxe be olak, an goiko gure txabolan, artu t'ariñ ariñek" - (Bakarra, ilberrian, eta zaudek, baina oraintxe ere oholak, han goiko gure txabolan, hartu eta arin-arinak)

**baltzingue:** baltzingoa, beltzarana

**bardiñe:** berdina

"Beti eitten dabe bardiñe" - (Beti egiten dute berdina)

**barrabasa:** barrabasa, barrabana

**barridxe:** berria

"Atza barridxe erosteko ta dirue ta nun?" - (Atzera berriak erosteko eta dirua eta non?)

**bastue:** latz, lakatz, dorpe

"Elbitze dok ori, bedar basto bat" - (Albitza duk hori, belar latz bat)

**begi bakarra:** begi bakarra

**benetakue:** benetakoa

**berue:** beroa

"Gausa berue bi dau" - (Gauza beroa behar du)

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**betikue:** betiko

"Ori bai, ori betikue, sorgiñak eta lamiñak eta bueno!" - (Hori bai, hori betikoa, sorginak eta laminak eta beno!)

**biargiñe, biergiñe:** behargina

**bidxurre:** bihurria

"Au ume bidxurre!" - (Hau ume bihurria!)

**bigune:** biguna

"Ori bestioi asten dauenien ba bigun oten da bañe gero gogortutakuen a gogorra ixaten da" - (Beste hori hazten dagoenean ba bigun egoten da baina gero gogortutakoan hura gogorra izaten da)

"Garidxe bigunaue dala pentze dot garidxe bera be artue baño, fasillaue ero" - (Garia bigunagoa dela pentsatzen dut garia bera ere artoa baino, errazagoa edo)

**biribille:** biribila

"Egurresko olakoxe kaja biribil bat, me meye, e? erregalue ixate san da" - (Egurrezko holakoxe kaxa biribil bat, mehe-mehea, e? erregalua izaten zen eta)

**biskorra:** bizkorra

"Batzuei erretotxek espana ba biskorra beste batzuei bapes iguel" - (Batzuei erretzen zietek ezpain ba bizkorrago beste batzuei bat ere ez beharbada)

**bixidxe, bixixe:** bizia

**brinkue:** brinkoa, zurruna, hauskorra

**delikaue:** delikatua, ahula

**demasa:** itzela

"Amatau ei dxakon, ba umedade demasa euen, e?" - (Amatatu egin zitzaion, ba hezetan itzela zegoen, e?)

**desbardiñe:** desberdina

"Ta ordun be, gertau eitte ben gure jaune artzeko, oin desbardiñe da bañe" - (Eta orduan ere, gertatu egiten zuten Gure Jauna hartzeko, orain desberdina da baina)

**desentie:** dezentea

"Ba katu baño txikitxuaue, bañe ba, katakuma desentie morukue, turoye" - (Ba katua baino txikiagoa, baina ba, katakume dezentea modukoa, ipurtatsa)

**diferentie:** desberdina

"Amen be erri batetik bestera, ametik Berrisa be diferentie, antzerakue bañe

diferentie, Ermuen diferentie" - (Hemen ere herri batetik bestera, hemendik Berrizera ere desberdina, antzerakoa baina desberdina, Ermuan desberdina)

**difuntie:** defuntua (f.)

"Gure, ama difuntiek esate ban" - (Gure, ama defuntuak esaten zuen)

**difuntue:** defuntua

"Lena gure, aittek, difuntuek euen sera" - (Lehenago gure, aitak, defuntuak zeukan zera)

**dotorie:** dotorea

"Al diren eta dotorienak" - (Ahal diren eta dotoreenak)

**dultzie:** gozoa

**edadekue:** edadekoa, adinekoa, zaharra

**ederra:** ederra

"Suten erretan bai, ama iños ikusi ot, usaiñ ederra etaten dau" - (Sutan erretzen bai, ama inoiz ikusi dut, usain ederra ateratzen du)

**egokixe:** egokia

"Trena be bai, amen bealdekuek eta bueno egokixe euen" - (Trena ere bai, hemen behe aldekoek eta beno egokia zeukaten)

**elegantie:** dotorea

"Pague pe adar elegantie eukitten dau" - (Pagoak ere adar dotorea edukitzen du)

**eletrikue:** elektrikoa

"Oñ, e, eletrikue eitten dabe dana" - (Orain, elektrikoa egiten dute dena)

**epela:** epela

"Neguen be epela da, e?" - (Neguan ere epela da, e?)

"Kukurrukue itten estabena ixengo da epela" - (Kukurrukua egiten ez duena izango da epela)

**erredondue:** biribila

**errena:** herrena

**erresa:** erreza

"Ori da asko be erresaue" - (Hori da asko ere errazagoa)

"Orrek gausa gustiek oñ akordetie esta erresa, e?" - (Gauza horiek guztiak orain gomutatzea ez da erraza, e?)

**errisaue, risaue:** kizkurra

**esesaune:** ezezaguna

**eseune, esaune:** ezaguna

**eskasa:** eskasa

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Jatune ba, ain nas eskasa gañera" -  
(Jatuna ba, hain naiz eskasa gainera)

**eskerra:** ezkertia

"Alde bittatik jarten giñien askorakiñ, ni eskerra ixate nitzen, beste lagune eskumetik" -  
(Alde bietatik paratzen ginen aizkorekin, ni eskerra izaten nintzen, beste laguna eskumatik)

**especiala:** berezia

"Sumie da klase bat especiala" - (Zumea da mota bat berezia)

**estimaue:** estimatua

"Emen len terrenue oso, oso estimaue san, bata bestiai al bada ba, piskat arrapau ero" - (Hemen lehen terrenoa oso, oso estimatua zen, batak besteari ahal bada ba, pixka bat harrapatu edo)

**estue:** estua

"Orrek ixaten sien, e, beyen sabalauek, da gora estuauek, untzidxe eta ekusitte dekas bañe amen bertan es" - (Horiek izaten ziren, behean zabalagoak, eta gora estuagoak, ontziak eta ikusita dauzkat baina hemen bertan ez)

**faltzue:** faltsua

**famaue:** ospetsua

"San Esteban famaue san" - (San Esteban ospetsua zen)

**fasille:** erraza

"Surretatik sartu ser bat, estaitt selan esatakon orri, e, piesiorri, eta andik, tietute ba, fasil manejetan da, e, ortik, e, ortik manejete ben, da begidxe tapaute" - (Sudurretatik sartu zer bat, ez dakit zelan esaten zitzaion horri, pieza horri, eta handik, tiratuta ba, erraz maneiatzen da, hortik, hortik maneiatzen zuten, eta begiak tapatuta)

**fijue:** fixoa

"Oĩñ etorte siena bai, bañe, olan, e, fijoik es" - (Orain etortzen zirena bai, baina, hola, fixorik ez)

**fiñe:** fina

"Gausa fiñek ontzaka pisetan sien" - (Gauza finak ontzaka pisatzen ziren)

**formala:** formala

**freskue:** freskoa

**fuertie:** indartsua

"Bai aurrien balde bi, da eskun beste bat, ama fuertie san da" - (Bai aurrean balde

bi, eta eskuan beste bat, ama indartsua zen eta)

**galanta:** galanta

"Su tekosu katarrue galanta, esta?" - (Zuk daukazu katarroa galanta, ezta?)

**garbidxe, garbixe:** garbia

"Erreka txikidxe ixen dire onek eta, baye erreka garbidxe" - (Erreka txikiak izan dira hauek eta, baina erreka garbiak)

**garratza:** garratza

**gasidxe, gasixe:** gazia

"Jatekue gasidxe da" - (Jatekoa gazia dago)

**gastie:** gaztea

"Ori gaste gastie da" - (Hori gazte-gaztea da)

**gatxa:** gaitza

"Ori da asko be gatxaue" - (Hori da asko ere gaitzagoa)

"Bestelan ba gatxa da amen olakuek ikustie" - (Bestela ba gaitza da hemen holakoak ikustea)

**gilberie:** kilikabera, kilibera

**giputze:** giputza

**gisajue, gixajue:** gizajoa

**gixena:** gizena

"Artaxoridxe gixena ote san en jeneral" - (Artaxoria gizena egoten zen gehienetan)

**gogorra, goorra:** gogorra

"Ori gedxen bat erabiltte san, lur gogorra ero euenien" - (Hori gehien bat erabiltzen zen, lur gogorra edo zegoenean)

**gordine:** gordina

"Dana ispittu, ispittu, da oridxuas, oridxo gordinas" - (Dena izpitu, izpitu, eta olioagaz, olio gordinagaz)

**gorra:** gorra

"Satorra gorra ixengo da segurutik" - (Satorra gorra izango da ziurrenik)

**gosue:** gozoa

"Amamak eiñiko tostadak gosuek ixaten ei die" - (Amamak egineko tostadak gozoak izaten ei dira)

**goxakue:** goizetikoa

"Gero goxakuek brebak, bañe brebak amen baño, onei aldamenekuei, andikuenei, suridxe eitte akues" - (Gero goizetikoak brebak, baina brebak hemen baino, aldameneko hauei, handikoenei, zuriak egiten zaizkie)

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**guapie:** polita, galanta

**guapue:** polita, galanta

**gurixe:** guria

"Ori ganaue pe jaten dabe, ori jaten dabe bai, txarrena, asko siketuskeru, gogortu eta eiñeskeru ba, apur bat, e, gusto eskastxua deke ero, bañe, senbat eta, e, bigunaue ta gurixaue geixa jaten dabe, bañe jaten emote akue" - (Hor ganaduek ere jaten dute, hori jaten dute bai, txarrena, asko sikatuz gero, gogortu eta eginez gero ba, apur bat, gustu eskastxoagoa daukate edo, baina, zenbat eta, bigunagoa eta guriagoa gehiago jaten dute, baina jaten ematen zaie)

**igerra:** igerra

"Bedarra sikue, sartu bi bada, bestela sartzeko, ba estotza ainbesteko ardura, ainbeste inportantziik esteko, al danik eta sikuen eta igerren euki ero, es ain sikue bada be" - (Belarra sikua, sartu behar bada, bestela sartzeko, ba ez dio hainbesteko ardura, hainbeste garrantzirik ez dauka, ahal denik eta sikuen eta igerren eduki edo, ez hain sikua bada ere)

**iguela:** berdina

"Mas morduen moruen iguel iguela eukitten dau" - (Mahats mordaren moduan berdin-berdina edukitzen du)

**illune:** iluna

"Etxe arratoyek esate akuen illunauek sien arek" - (Etxe arratoiak esaten zitzaizen ilunagoak ziren haiek)

**inportantie:** garrantzitsua

**inyargie:** indargea

"Inyargie dekau au" - (Indarge daukagu hau)

**iñusentie:** inuzentea, ergela

**iñutille:** ezgauza

"Satorra da iñutille, ori segiruen ibiltten da ori" - (Satorra da ezgauza, hori segituan ibiltzen da hori)

**irola:** irola

"Gastaña irolak, irola da ba, sikatzen dienak, e, iroltzen sien gastañak eta, eta gastaña oskolak eta boteta sien ara, satza itteko ta gero a, apurtzen sanien, landarak eraitteko ta, asittigidxen" - (Gaztaina irolak, irola da ba, sikatzen

direnak, iroltzen ziren gaztainak eta, eta gaztaina oskolak eta botatzen ziren hara, satsa egiteko eta gero hura, apurtzen zenean, landareak ereiteko eta, hazitegian)

**irukotxa:** hirukoitza

**itzela, itxela:** itzela

"Sarate itzela etate ben egurras egurre" - (Zarata itzela ateratzen zuen egurragaz egurra)

**itzue, itxue:** itsua

**jenerala:** orokorra

**kafeterie:** kafezalea (f.)

**kafeterue:** kafezalea

**kalbue:** burusoila

**karue:** garestia

"Intxaurre karue san" - (Intxaurra garestia zen)

**kategoridxekue,**

**kategoridxakue:**

kategoriakoa

"Kategoridxakue itte ban, se, edoseñek estaki ogidxe ondo itten" - (Kategoriakoa egiten zuen, ze, edozeinek ez daki ogia ondo egiten)

**kiskorra:** kizkorra

**koittae:** koitadua

**kojue:** herrena

"Ori, e, beti esan eitte osku arek, serak, anketatik txarto bada bedxe, estau esneik, e? bedxe kojo bada, esne gutxi euko dau" - (Hori, beti esan egiten digu hark, zerak, hanketatik txarto badago behia, ez dago esnerik, e? behia herren badago, esne gutxi edukiko du)

**kokolie:** mamala

**kokolue:** kokoloa

"Peru kokolue san, ta Maridxe ba andra on bat, bañe bastante koittae" - (Peru kokoloa zen, eta Maria ba andre on bat, baina nahikoa koitadua)

**kontrakue:** kontrakoa

"Belaunen kontrakue da ori" - (Belaunaren kontrakoa da hori)

**koskorra:** koskorra

**kuadraue:** karratua

"Eta sulue eukitte ban, e, kuadraue" - (Eta zuloa edukitzen zuen, karratua)

**labana:** labaina

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*"Billotxenak, karo labanauek ixate sien" - (Bildotsarenak, jakina labanagoak izaten ziren)*

**laburre:** laburra

*"Da beste bat, e, egur bat laburre, e, punta batzukin" - (Eta beste bat, egur bat laburra, punta batzuekin)*

**larridxe:** larria

*"Momentu larridxe ixen san arik eta sartu arte" - (Momentu larria izan zen harik eta sartu arte)*

**latza:** latza

**laue:** laua

*"Selai ba, lau lau ipintten dabe bestelan alde batera eingo leuke, da ba lau lau lauen" - (Zelai ba, lau-lau ipintzen dute bestela alde batera egingo luke, eta ba lau-lau-lauean)*

**lelie:** mamala

**lelue:** leloa

**librie:** librea, askea

**likiñe:** likina

**listue:** azkarra, argia

**lisue:** lisoa

**lodidxe, loridxe:** lodia

*"Ori bastante lodidxe da" - (Hori nahiko lodia da)*

**lupue:** lupua

*"Lupue edoselan be beintzet gausa ona esta" - (Lupua edozelan ere behintzat gauza ona ez da)*

*"Lupue da piskat, e, aspijana ero olan, e, lupue, alue, da lupue neetako antzerakuek die" - (Lupua da pixka bat, azpijana edo hola, lupua, alua, da lupua niretako antzerakoak dira)*

**lusenkie:** luzanga

**lusenkiñe:** luzanga

**lusie:** luzea

*"Kardu latza beste bat, kardu latza sustradxe bera eukitten dabena, lusie!" - (Kardu latza beste bat, kardu latza sustraia behera edukitzen duena, luzea!)*

**majje:** jatorra, galanta

**majue:** jatorra, galanta

**makala:** makala

**mamalie:** mamala

**mankue:** mankua, besamotza

**mardule:** mardula

**merkie:** merkea

**meye:** mehea

*"Bedar metxo bat sartu, suluen sartze san da aritxas, ero kili kili ero, ero dana dalakue inye ba aritxas" - (Belar mehetxo bat sartu, zuloan sartzen zen eta harexegaz, edo kili-kili edo, edo dena delakoa eginda ba harexegaz)*

**minbera:** minbera

**mingotza, mingotxa:** mingotsa

**morenie:** beltzarana (f.)

**morenue:** beltzarana

**mosolue:** mozoloa, ergela, inuzentea

*"Ori mosolotzat artu dabe" - (Hori mosolotzat hartu dute)*

**motela:** motela

**motza, motxa:** 1. motza, laburra. 2. motza, zatarra. 3. motza, amotza

*"Orrek ixate sien motzauek" - (Horiek izaten ziren motzagoak)*

**mutue:** mutua

**nagidxe:** nagia

**narrasa:** narrasa

**nasaidxe:** 1. lasaia. 2. laxoa

*"Askorie be nasai gelditzen bada sirittu ein bi da" - (Aizkora ere laxoa gelditzen bada ziritu egin behar da)*

**nausidxe, nausixe:** nagusia

*"Nire aista nausiñek be josten ondo ikasi eban" - (Nire ahizta nagusienak ere josten ondo ikasi zuen)*

**normala:** arrunta

*"Au sera atxa, atxa normala bertako atxa dok" - (Hau zera haritza, haritz normala bertako haritza duk)*

**oba:** hobe

*"Oba da oin juen saittesan" - (Hobe da orain joan zaitezen)*

**obie:** hobe

*"Nabo klase bat dak itxurie, ori lorioi jateko obie dana itxurie" - (Arbi mota bat zagok itxura, lore hori jateko hobe dena itxura)*

**okerra:** okerra

*"Eskuetako ospelak gañera okerrak ixaten die" - (Eskuetako ospelak gainera okerrak izaten dira)*

**ona:** ona

*"Berak ori esaban ontzat artzen" - (Berak hori ez zuen ontzat hartzen)*

**osberie:** hozbera

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**osokue:** osokoa

**osue:** osoa

"Iru egun osuen eon dire Durangon" - (Hiru egun osoan egon dira Durangon)

**otza:** hotza

**pikie:** pika, aldats handia

**pinttue:** pintaduna

"Topau iguel, se, sartu, e, bedar fin bat, sartu sulora, da urtetze ban kanpora ta pinttue bada, artu te etxera" - (Topatu beharbada, ze, sartu, belar fin bat, sartu zulora, eta irteten zuen kanpora eta pintoa bada, hartu eta etxera)

**pobrie:** pobrea, txiroa

**politte:** polita

"Oixe dana politte!" - (Horixe dena polita!)

"Bai bañe astute dekas, ta banekidxesan nik danak, ta oso polittek die!" - (Bai, baina ahaztuta dauzkat, eta banekizkien nik denak, eta oso politak dira!)

**potolie:** potoloa (f)

**potolue:** potoloa

"Bestie da ba, apurtze (...), beste, tronko bat, beste ol bat, olan potolo-potolue bera, bai ori asko ebalte gendun, asko asko, asko" - (Bestea da ba, apurtze (...), beste, enbor bat, beste ohol bat, hola potolo-potoloa bera, bai hori asko erabiltzen genuen, asko-asko, asko)

**publikue:** publikoa

**risaue:** kizkurra

**rubidxie:** errubioa, ile gorria (f.)

**rubidxue:** errubioa, ile gorria

**sabala:** zabala

"Jorratxurre ixaten da beste bat sabalaue, ariñaue" - (Jorraitzurra izaten da beste bat zabalagoa, arinagoa)

**sagraue:** sakratua

"Kanpaye jote san, da sagraue, e?" - (Kanpaia jotzen zen, eta sakratua, e?)

**sakarra:** zakarra

"Gero bedar sakarrak eta urtetan dabe" - (Gero belar zakarrek eta irteten dute)

**sakona:** sakona

**sarra:** zaharra

"Ori da gerua sarraue" - (Hori da geroago zaharragoa)

"Uste ot ori dala amen, e, Saldiberreko sarrenetakue ero" - (Uste dut hori dela hemen, Zaldibarko zaharrenetakoa edo)

"Nik eneitzu esan ori ondo se, ori baten batek esango tzu Saldiberren, bañe ni baño sarrauek piskat, amar urte sarrauek badas, da arek, e, ori esautu dabe" - (Nik ez niezazuke esan hori ondo ze, hori baten batek esango dizu Zaldibarren, baina ni baino zaharragoak pixka bat, hamar urte zaharragoak badaude, eta haiek, hori ezagutu dute)

**satarra:** zatarra

"Satarra san, orduen gure ixete san ba, suridxe otie" (Zatarra zen, orduan gura izaten zen ba, zuria egotea)

**segurue:** ziurra

"Segurue da amengotxie sayena" - (Segurua da hemengoxea zarena)

**sekulekue:** sekulakoa

**sendue:** sendoa

"Bai eitten dok makillatxue palillue moruen, ero sendotxua ixatie ta dxast! sartze otzak ari a, da ba serrau eitte dxok arek, da gero andik etara" - (Bai egiten duk makilatxoa zotza moduan, edo sendotxoagoa izatea eta dast! sartzen diok hari hura, eta ba itxi egiten dik hark, eta gero handik atera)

**serixue:** serioa

"Batzuk artze ittue orrek serixo, e?" - (Batzuek hartzen dituzte horiek serio, e?)

**seye:** xehea

"Oin garaun se seye da" - (Orain garau xehe-xehea da)

**sikiñe:** zikina

"Errekie sikiñe da" - (Erreka zikina dago)

**sikue:** sikua

"Olluek, e, kaka ba, eitten badau normal, ba sikue da" - (Oiloak, kaka ba, egiten badu normal, ba sikua da)

"Farduek eitte ittuenak, ausuen eta, ibiltten die beti al danik eta sikuen eta igerren eon daitten" - (Fardoak egiten dituztenak, auzoan eta, ibiltzen dira beti ahal denik eta sikuen eta igerren egon dadin)

**solidxe:** zolia

"Ori solidxe da" - (Hori zolia da)

**soltekue:** solte saltzen zen jeneroa

**soltie, sueltue:** soltea

**sorrotza:** zorrotza



# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Sardie ero seoser egur bat ero sartu, punta sorrotza" - (Sarda edo zer edo zer egur bat edo sartu, punta zorrotza)

**sorue:** zoroa

**suabie:** suabea

"Gastetan erres erakusten dxakok, lotu te piskat erabilli suabe-suabe lelengo da" - (gastetan erraz irakasten zaiok, lotu eta pixka bat erabili suabe-suabe lehenengo eta)

**susena:** zuzena

"Aarrak eta susenak eukitte sittuen, orrek" - (Adarrak eta zuzenak edukitzen zituen, horrek)

**takarra:** gogorra, latza

**terriblie:** itzela, ikaragarria

**tontie:** inuzentea, ergela

**tontue:** inuzentea, ergela

"Gero ba, lau gausa erakutziskero, beres argidxe bada, tontue bada sekule etxok ikasten" - (Gero ba, lau gauza irakatsiz gero, berez argia bada, inuzentea bada sekula ez dik ikasten)

**trankille:** lasaia

**tristie:** tristea

**tunantie:** tunante, parrandazalea

"Tunante bat san, e? atzenien tunantetu ein san, biarrik es ainyu bakarrik obreruei tte" - (Tunante bat zen, e? atzenean tunantetu egin zen, beharrik ez agindu bakarrik beharginei eta)

**tupidue:** tupitua

"Agiñe normala dak, tupidutxuaue, tupiduaue" - (Hagina normala zagok, tupitutxoago, tupitua)

**txarra:** txarra

"Au da ori baño txarraue" - (Hau da hori baino txarra)

"Geuk pentzau, ba denpora txarra etorriko da ta gero esta etorten denpora txarroi" - (Geuk pentsatu, ba eguraldi txarra etorriko da eta gero ez da etortzen eguraldi txar hori)

**txatxarra:** eskasa

**txikidxe, txikixe:** txikia

"Semat eta txikidxaua obe" - (Zenbat eta txikiagoa hobe)

"Estekau, Santiñe, txikiñe ona etorten dana, besteik estekau" - (Ez daukagu,

Santirena, txikiena ona etortzen dena, besterik ez daukagu)

**uekue:** hutsa

**ugerdixe, ugerixe:** ugaria

"Busterri iridxai baño billur aundidxaue dotza kapeladun aguriai, orreaittik esate ben ustiaittik orrek, e, asten da aundidxe, da deko asidxe, bañe ugeridxe asidxe" - (Buztarri idiari baino bildur handiagoa dio kapeladun agureari, horregatik esaten zuten uzta-belarragatik horrek, hazten da handia, eta dauka hazia, baina ugaria hazia)

**unikue:** bakarra

"Etxien unikue burteunien paraute, olan, e, sarteko galantak artu be bai, e?" - (Etxean bakarrik burteunean paratuta, hola, zartako galantak hartu ere bai, e?)

**urrengue:** hurrengoa

**urridxe:** urria

**ustela:** ustela

"An galbaran ya ser ustela, da apartau eitte san" - (Han galbahean ja zer ustela, eta apartatu egiten zen)

**utze:** hutsa

## 21.2. KOLOREAK

**asule:** urdina

"Bañe gero orrek, e, ya euki sittuen asule ta granatie ta tersiopelosko sillak" - (Baina gero horiek, ja eduki zituzten urdina eta granate eta belusezko aulkiak)

**baltza:** beltza

"Da beste bat, gero txikitxua olantxeik baltza, ta an kandelatxo bi" - (Eta beste bat gero txikitxoagoa holantxerik beltza, eta han kandelatxo bi)

**berdeskie:** berdexka

**berdie:** berdea

"Orrek ixengo die, ixena gu pa, arrak, ar berdiek ero ar baltzak" - (Horiek izango dira, izena guk ba, harrak, har berdeak edo har beltzak)

**gorridxe:** gorria

"Nik amen estot, e, sertu beti gorridxe ikusi ou guk amen, bai" - (Nik hemen ez dut, zertu beti gorria ikusi dugu guk hemen, bai)

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**gorriskie:** gorrixka

"Mendi batek eukitte dxok gorriskiaue, beste batek illunaue" - (Mendi batek edukitzen dik gorrixkagoa, beste batek ilunagoa)

**grise:** grisa

**illunkerie:** ilunkara

**marroskie:** marroixka

"Papar ingurue, kolore marroskako moruko sera, bai, olan aunditxuauek die" - (Papar ingurua, kolore marroixkako moduko zera, bai hola handitxoagoak dira)

**marroye:** marroia

**moraue:** morea

**nabarra:** nabarra

**oridxe, orixe:** horia

"Oridxe nuunun bat ikusten da" - (Horia non edo non bat ikusten da)

**oriskie:** horixka

**suridxe:** zuria

"Bai, batzuk fin fiñek ixate sien arkondarak, aurrien, e, satidxe diferentie ipiñi, suridxe"- (Bai, batzuk fin finak izaten ziren alkondarak, aurrean, zatia desberdina ipini, zuria)

**suriskie:** zurixka

"Dendan saltze gendusen orrek orrasidxe, suridxe ixate sien, suriskak, asur kolorekuek" - (Dendan saltzen genituen orrazi horiek, zuriak izaten ziren, zurixkak, hezur kolorekoak)

## 22. ADITZONDOAK

Batu ditugun aditzondoak sailkatzeko euron esangura hartu dugu oinarritzat. Era honetara, atal honetako azpi-atalak denbora aditzondoak, leku eta kokaguneak, modu aditzondoak, maila aditzondoak, zenbatekoak, aditzondo konposatuak eta izenordain konposatuak izango dira.

### 22.1. DENBORA ADITZONDOAK

**antxiñe:** antzina

"Neuk estot probau sekule bañe entzun eitte ot ori, bai ori antxiñe estala" - (Neuk ez

dut probatu sekula baina entzun egiten dut hori bai hori antzina ez dela)

**ariñ:** arin, laster

"Arin berotzen da, e?" - (Arin berotzen da, e?)

**arreskero:** harrezkero

"Arreskero dana ju ata, dana argittu ata" - (Harrezkero dena joan zait, dena argitu zait)

**askenien:** azkenean

"Irebatallak eta esate gendun, kuadrillie ta gero ba askenien afaridxe ta ba" - (Ira-ebakitzailleak eta esaten genuen, taldea eta gero ba azkenean afaria eta ba)

**aspaldi:** aspaldi

"Aspaldi, txikitten ikusiko nittuen" - (Aspaldi, txikitan ikusiko nituen)

**aspaldixen:** aspaldian

"Jun dan aspaldixen, kanta bat da" - (Joan den aspaldian, kanta bat da)

**atzenien:** atzanean, azkenean

"Esebesan arrapau atzenien, e?" - (Ez zituen harrapatu atzanean, e?)

**atzera, atza:** atzera, berriz

"Atxurtu bai, da nobera etxa orduko, atzera, bestiek urteten dabela" - (Aitzurtu bai, eta norbera etxera orduko, atzera, besteak irteten duela)

**aurten, eurten:** aurten

"Garitzetan, karo! jatekue galdu danien, aurten be jo dau batek, bañe sera, granjakomat iguel txakurrei erakusten da ekarte ittue ba, da alakomat iguel" - (Garitzetan, jakina! jatekoa galdu denean, aurten ere jo du batek, baina zera, etxaldekoen bat beharbada txakurrei erakusten eta ekartzen dituzte ba, eta halakoren bat beharbada)

"Eurtengo urtien estot ikusi da aurreko urtietan be gutxitten" - (Aurtengo urtean ez dut ikusi eta aurreko urteetan ere gutxitan)

**beiñ:** behin

**berandu:** berandu, belu

"Orren lagune beti dator berandu" - (Horren laguna beti dator berandu)

**beti:** beti

"Gurien egurreskue euen, ori beti egurreskue ikusi ot" - (Gurean

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*egurrezkoa zegoen, hori beti egurrezkoa ikusi dut)*  
"Jateko guk bedarra ta, berdurie emote genduen beti" - (Jateko guk belarra eta, berdura ematen genuen beti)  
**bider:** bider  
"Iru bider eonas or" - (Hiru bider egon naiz hor)  
**birriten:** birritan  
"Itxaiñ ei oskuen birriten" - (Itxaron egin ziguten birritan)  
**en jeneral:** gehienetan  
"Onek urakuok en jeneral asala fiñe eukitte dxuek" - (Udako hauek normalean azala fina edukitzen ditek)  
**ensegida:** berehala  
"Ensegida kantauko neukes" - (Berehala kantatuko nituzke)  
**gero, geo:** gero  
"Gero esa eben seaittik estun geuk danon artien eitten da alantxik grupuk ein sien, da oin ba sei grupu das, da astero ba, diferentiek, bakotxai emote ako bere listie ta, alan eitten da" - (Gero esan zuten zergatik ez dugun guk denon artean egiten eta halantxe taldeak egin ziren, eta orain ba sei talde daude, eta astero ba, desberdinak, bakoitzari ematen zaio bere zerrenda eta, hala egiten da)  
**iges:** iaz  
"Esiren iges ero etorri?" - (Ez ziren iaz edo etorri?)  
**lantzien:** lantzean, noizean behin  
"Birekurutzie, ba, birien lantzien lantzien, ba eitte san ser bat, estasiño bat, ba bastante urrin, da gero kantue bidxen bittartien" - (Bidegurutzea, ba, bidean lantzean-lantzean, ba egiten zen zer bat, estazio bat, ba nahiko urrun, eta gero kantua bien bitartean)  
"Orrek lantzien, guk, e, geure etxien, ointxe urte bi kendu geuntzesan orrek, eta txikidxaue ipiñi" - (Horiek lantzea, guk, geure etxean, oraintxe urte bi kendu genizkion horiek, eta txikiagoa ipini)  
**lantzien beñ:** lantzean behin, noizean behin  
**laster:** laster  
"Susterretik laster topauko dau" - (Zuztarretik laster topatuko du)  
**lelengo:** lehenengo

"Tortolatan klase bi das, lelengo etorten die txikidzek" - (Tortoletan mota bi daude, lehenengo etortzen dira txikiak)  
**lelengos:** lehenengoz  
**len:** lehen  
"Bai, len itte sittuen norabaitta, berbetan atzerak sienak" - (Bai, lehen egiten zituzten norabait, berbetan atzerak zirenak)  
**lenguen:** lehengoan  
"Lenguen alkarras eon giñen" - (Lehengoan elkarregaz egon ginen)  
**ointzu:** oraintsu  
"Gure arrebiek oniño ointzu usau dau ori" - (Gure arrebak oraindino oraintsu erabili du hori)  
**oiñ, on:** orain  
"Oiñ urte bete o nitzen amen" - (Orain urte bete egon nintzen hemen)  
"Guk selan esaten genduen? jo! ori etxat akordauko nei oiñ" - (Guk zelan esaten genuen? jo! hori ez zait gomutatuko niri orain)  
**ondiñok, oniñok, oniñoko, ondio, onyio:** oraindino  
"Aridxek ongo die ondio gurien, amak itxittekuek ero" - (Hariak egongo dira oraindino gurean, amak utzitakoak edo)  
"Ondio Sumarran eon soan, orrek gausok eitten" - (Oraindino Zumarragan egon zuan, gauza horiek egiten)  
**orduén, ordun:** orduan  
"Ordutik esta etorri" - (Ordutik ez da etorri)  
"Ordun sei urte, oixe ixate san be, eskenkidxen guk, euskeras bakarrik orduen" - (Orduan sei urte, horixe izaten zen ere, ez genekien guk, euskaraz bakarrik orduan)  
**ostien:** ostean  
"Orren ostien etorrikok seoser" - (Horren ostean etorriko duk zer edo zer)  
**sarri:** sarri  
"Ori sarri etorten da" - (Hori sarri etortzen da)  
"Ori sarri etorten ixen da" - (Hori sarri etortzen izan da)  
**sarritten:** sarritan  
"Sarritten ba, mutikuen biarra ixate san" - (Sarritan ba, mutikoen beharra izaten zen)

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**sekule:** sekula

"Sekule enas egon or" - (Sekula ez naiz egon hor)

"Enaban sekule ikusi itten" - (Ez nuen sekula ikusi egiten)

**untxe:** oraintxe

"Maratza goiku asko, untxe be bai" - (Mahatsa goikoa asko, oraintxe ere bai)

**urrenguen:** hurrengoan

"Antxe da, erakutziko tzut urrenguen" - (Hantxe dago, erakutsiko dizut hurrengoan)

## 22.2. LEKUA-KOKAGUNEAK

**albue:** alboa

"Bueno burus etaten dxuesan, e, burus, gure albuen eon san, e, tratante bat, e, Eusebio, euk esautukoan, arek burus dana, dana, e?" - (Beno buruz ateratzen zizkiaten, buruz, gure alboan egon zen, tratulari bat, Eusebio heuk ezagutuko huen, hark buruz dena, dena, e?)

**aldemena, aldamera:** aldamera

"Ta estandartien aldemenetik ba bi, tte gero, aingeruek ba lorak botetan, ori bai" - (Eta estandartearen aldamenetik ba bi, eta gero, aingeruak ba loreak botatzen hori bai)

**aldie:** alde

"Orrek egon die nire eskerraldien" - (Horiek egon dira nire ezker aldean)

"Alde bata deko, e, askoriek bastante txikidxaue bestie baño" - (Alde bata dauka, aizkorak nahiko txikiagoa bestea baino)

**aparte:** aparte

"San Martingo plasie errittik aparte euen" - (San Martingo plaza herritik aparte zegoen)

**aspidxe:** azpia

"Esate ben ba txapel aspire sartzen diela ta" - (Esaten zuten ba txapel azpira sartzen direla eta)

**atzie:** atzea

"Gero anka lekuek dekos atzeko partien" - (Gero hanka-lekuak dauzka atzeko aldean)

**aurrie:** aurea

"Andandaka, e, nik, bakitt ori ixenoi tte, dana, bañe andandaka, ba atzien doyena ta aurrien doyena" - (Andandaka, nik badakit izen hori eta, dena, baina andandaka, ba atzean doana eta aurrean doana)

"Entzunde badekat, bañe gure aurretiko gausak die orrek" - (Entzunda badaukat, baina gure aurretiko gauzak dira horiek)

"Aittitteandik aurrera ena pasau ni" - (Aitaitagandik aurrera ez naiz pasatu ni)

**barrena:** barrena

**barrue:** barrua

"Kanpora sein barrure, batzuk ba, barrurutz, beste batzuk kanporutz, esibako ganaue" - (Kanpora zein barrura, batzuk ba, barrurantz beste batzuk kanporantz, hezibako ganadua)

**beye:** behea

"Da gero klaro! atza eitte otzasunien a bera doye" - (Eta gero jakina! atzera egiten diozunean hura behera doa)

"Orrek beyen eitten dabe beti" - (Horiek behean egiten dute beti)

**bittartie:** bitartea

"Busterri bakarras be bai, bakarras, arto bittartie jorratzeko" - (Buztarri bakarragaz ere bai, bakarragaz, arto bitartea jorratzeko)

**erdidxe:** erdia

"Ta opill ori erdidxen, txori moruko bat eitte otze" - (Eta opil hori erdian, txori moduko bat egiten diote)

**eskutue:** ezkutua

**gañe, gane:** gaina

"Jarri gañien nobera da andixik eitte giñen" - (Jarri gainean norbera eta handixik egiten ginen)

**godxe:** goia

"Oin be badas etxiek, e? beyen dekenak dana, da beste atzuk godxen dekenak" - (Orain ere badaude etxeak, e? behean daukatenak dena, eta beste batzuk goian daukatenak)

**goitti bera:** goitik behera

"Goitti bera olan sartze otzasen lau aldietatik" - (Goitik behera hola sartzen zizkion lau aldeetatik)

**ingurue:** ingurua

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Nik entzutie dekat, amen saso baten, Berrisen ta Elorridxo, or etxe bat ikusiko su suk kolore bi dekosena, etxe bat an, erdi inguruen, Sumetara, Elorridxoako bidien, Elorridxotik, Berristik Elorridxora soyesela, erdi inguruen etxe ba ta eskumetara, bata gorridxe ta bestie suridxe, seaittik ete da ori tte? ba, berak ipiñi ban arek, a etxie, bata Berris san da bestie Elorridxo, da amen sartu jenerue ta ona pasau gero, ta akabo! inpuetue pagau biarri pes!" - (Nik entzunda daukat, hemen sasoi baten, Berrizen eta Elorrio, hor etxe bat ikusiko duzu zuk kolore bi dauzkana, etxe bat han, erdi inguruan, Zumetara, Elorriorako bidean, Elorriotik, Berriztik Elorriora zoazela, erdi inguruan etxe bat dago eskumatara, bata gorria eta bestea zuria, zergatik ete da hori eta? ba, berak ipini zuen hark, etxe hura, bata Berriz zen eta bestea Elorrio, eta hemen sartu jeneroa eta hona pasatu gero, eta akabo! zerga ordaindu beharri ere ez!)

**kanpue:** kanpoa

"Txakurre kanpuen da" - (Txakurra kanpoan dago)

"Lenau ollue kanpuen asko ibiltte san" - (Lehenago oiloa kanpoan asko ibiltzen zen)

**ondue:** ondoa

"Gelien onduen euen, orman, aremidxo aundi bat" - (Gelaren ondoan zegoen, horman, armairu handi bat)

**ostie:** ostea

"Elixe onen ostien euen kanposantue" - (Eliza honen ostean zegoen kanposantua)

**parien:** parean

"Parien egote sien sepulturak, alan san" - (Parean egoten ziren sepulturak, hala zen)

**puntie:** punta

"Askenengo puntan eukitten dau, danak illaran eukitte ittus" - (Azkenengo puntan, edukitzen du, denak ilaran edukitzen ditu)

**urrien:** hurrean

"Semat eta urrea sauesan obeto entzungo siñuke" - (Zenbat eta hurrago zauden hobeto entzungo zenuke)

**urriñ:** urrun

"Baye jeneral baten ganaue normala bada, e, andik, e, estosu urriñ ibiliko, estosu urriñ ibiliko" - (Baina gehienetan ganadu normala bada, handik ez duzu urrun erabiliko, ez duzu urrun erabiliko)

## 22.3. MODU ADITZONDOAK

**aidien:** airean

"Alde batetik, e, sera, e, ser bat, sinttura baten moruen, goittik bera oten da ta bedxe sartzen da, poste bidxen bittartien, justo justuen, barrure, ari uelai tirtzeko lotzeko, e, beste ser bati, a bueltaka ebalten da, a bueltaka batzerakuen, ganaue gora doye, da aidien ipintte osu ganaue, a geldi da" - (Alde batetik, zera, zer bat, gerriko baten moduan, goitik behera egoten da eta behia sartzen da, poste bien bitartean, justu-justuan, barrura, uhal hari tiratzeko lotzeko, beste zer bati, hura bueltaka erabiltzen da, hura bueltaka batzerakoan, ganadua gora doa, eta airean ipintzen duzu ganadua, hura geldi dago)

**aiñiketan, aiñeketan:** arineketan

"Bajatu eitte ittuk bañe aiñiketa baten" - (Baxatu egiten dituk baina arineketa baten)

**akaso:** akaso

**albokera:** albokera

**aldrebes, alrrebes:** aldrebes

"Gero ipiñi dxuen alrrebes, e, burdiñie egurras, da gause grande ei suan a" - (Gero ipini ziaten aldrebes, burdina egurragaz, eta gauza handia ei zuan hura)

**amesetan:** amesetan, ametsetan

**antzera:** antzera

"Gure aittek eta ba normal, oingo antzera" - (Gure aitak eta ba normal, oraingo antzera)

"Onen madxen antzera ero, esta?" - (Mahai honen antzera edo, ezta?)

**antzien:** antzean

**apenas:** apenas, ez dirudi, ez antza

**apropos:** apropos, gurata, nahita

**ariñeketan:** arineketan

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Ene! orrek kanpayok erre kanpayek die ta ariñeketan kubuek artute" - (Ene! horiek kanpaiok erre kanpaiak dira eta arineketan baldeak hartuta)

**asal:** azal, sakon berbaren kontrakoa

**asarre:** haserre

"Beetarrak ixate sien asarre" - (Behetarrak izaten ziren haserre)

**auspes:** ahozpeza

**bakarrien:** bakarrean

"Ba bakarrik, ba bakarrien, batu batu eiñ, sokaik eta etzan oten orduen" - (Ba bakarrik, ba bakarrean, batu-batu egin, sokarik eta ez zen egoten orduan)

**banan:** banan

**banan-banan:** banan-banan

"Eskuas bedarra etara in biar, asidxe ernetan danien, landarie ernetan danien ba bedarra etara in biar, banan banan" - (Eskuz belarra atera egin behar, hazia ernetzen denean, landarea ernetzen denean ba belarra atera egin behar, bana-banan)

**barriketan:** berriketan

"Ba antxe egon barriketan familidaxas, da ba kafetxo bat artu te ba" - (Bai hantxe egon berriketan familiagaz, eta ba kafetxo bat hartu eta ba)

**baskulagiñen:** baskulaginan, baskulak egiten

**beintzet, beintxet:** behintzat

"Orduen segiduen, ogetalau orduen induljensiak irabaste siela ta, ori be oitturie euen, gure famelidaxan beintzet!" - (Orduan segituan, hogeita lau orduan induljentziak irabazten zirela eta, hori ere ohitura zegoen, gure familian behintzat!)

**belauniko, belauneko:** belauniko

"Eniskio emongo belauniko eskatute be" - (Ez nioke emango belauniko eskatuta ere)

**benetan:** benetan

**berbetan:** berbetan

"Nik estakitt oingo morun berbetan" - (Nik ez dakit oraingo moduan berbetan)

**beres:** berez

"Orrek, orrek sagarro, gero esautu ittut beste sagar batzuk, e, dienak, e, estakit nik arek se ixen, sera, beres asiko moruko olako, sasi, sagar moruko batzuk, e sera,

estakit nik, iguel ixaten die arbolak beres geratu dienak, nik esautunikuek oiñ askenengo urtietan, bere sasoyetan iguel sagastixek sien lekuetan eta or, geatu sienak, esta? eta ixena be ni neuk estakitt" - (Horiek, horiek sagarro, gero ezagutu ditut beste sagar batzuk, direnak, ez dakit nik haiek zer izen, zera, berez haziko moduko holako, sasi, sagar moduko batzuk, zera, ez dakit nik, beharbada izaten dira arbolak berez geratu direnak, nik ezaguturikoak orain azkenengo urteetan, bere sasoieta beharbada sagastiak ziren lekuetan eta hor, geratu zirenak, ezta? eta izena ere nik neuk ez dakit)

**biarrien, bierrien:** beharrean

"Len esa otzutena amar amabost lagunas bierrien ebixenak" - (Lehen esan dizudana hamar hamabost lagunagaz beharrean zebiltzanak)

**bire bates:** bide batez

"Bire bates eitte bana san, e ba, beteta genduen a, satza eitteko" - (Bide batez egiten zuena zen, ba, betetzen genuen hura, satsa egiteko)

**biskor:** bizkor

"Biskor juen esettera esi lleike ikusi" - (Bizkor joan ezean ezin liteke ikusi)

**botala:** bota ahala

**burus:** buruz

"Ori burusko kontestasiñue gerua etorri san" - (Buruzko erantzun hori geroago etorri zen)

**burrukan:** borrokan

"Muskerra ta subie burrukan ikusitte gas" - (Muskerra eta subea borrokan ikusita gaude)

**dardaran:** dardaran, dardaraka

**derrigor:** derrigor

"Esta ondo ganaue, ausnar derrigor ein bi dau" - (Ez dago ondo ganadua, hausnar derrigor egin behar du)

"Nik dakittela, orrek ixena derrigor euki bi dau" - (Nik dakidala, horrek izena derrigor eduki behar du)

**diarres:** deiarrez

"Puspilluek eitten dabenien esaten dabe ba euridaxi diarres" - (Burbuilak egiten

# ZALDIBAR HIZTEGIA

- dutenean esaten dute ba euriari deiadarrez)*
- dudan:** dudan, ezbaian  
*"Olan dudan dauenien, aixe ixaten da muestrie" - (Hola dudan dagoenean, huraxe izaten da proba)*
- egaran:** hegadan  
*"Beste bat orren tipue, egaran ibiltten dana" - (Beste bat horren erakoa, hegadan ibiltzen dena)*
- egas:** hegaz
- erara:** erara
- erdera:** erdaraz
- erderas:** erdaraz  
*"Guk erderas gutxi, eta an ibiltten giñien" - (Guk erdaraz gutxi, eta han ibiltzen ginen)*
- erdi bana:** erdi bana  
*"Au erdi bana jango" - (Hau erdi bana jango dugu)*
- ereta:** erataraz, eraz  
*"Au ereta da, ta au alrrebes" - (Hu erataraz da, eta hau aldrebes)*  
*"Ixerak ereta beti" - (Izarak erataraz beti)*
- erresien:** mailan  
*"Lurretik erresien ixate soan, ba bardinyu eitteko" - (Lurretik mailan izaten zuan, ba berdindu egiteko)*
- esato:** 1. justu. 2. zehatz  
*"Esato etarako dau segurutik" - (Zehatz aterako du segurutik)*
- esetzien:** ezetzean
- eskien:** eskean  
*"Es, eskien etortze sien, onek, amen egote sienak, sermoye itten es, etortze sien leko bakotxetik eskien bai, esautu ittuas asko, karmeldarrak, bañe fransiskotarrak eta pasionistak eta esautu ittuas" - (Ez, eskean etortzen ziren, hauek, hemen egoten zirenak, sermoia egiten ez, etortzen ziren leku bakoitzetik eskean bai, ezagutu ditut asko, karmeldarrak, baina frantziskotarrak eta pasionistak eta ezagutu ditut)*
- eskus:** eskuz  
*"Ori itten da sagarra eskus dana apurtze san, eskus bañe" - (Hori egiten da sagarra eskuz dena apurtzen zen, eskuz baina)*
- eskutuen:** ezkutuan  
*"Eskutuen gasek" - (Ezkutuan gaudenak)*
- euskera:** euskaraz
- euskeras:** euskaraz  
*"Orri beorren amak beti euskeras eitte otza" - (Horri berorren amak beti euskaraz egiten dio)*  
*"Ba danak euskeras, amen ordun esta eon kastellanoik, tallerdunik" - (Ba denak euskaraz, hemen orduan ez da egon gaztelerakorik, tailerdunik)*
- faltan:** faltan
- fijo:** ziur
- gabas:** gauez  
*"Ori en jeneral gabas ibiltten da ori" - (Hori gehienetan gauez ibiltzen da hori)*
- ganausaiñ, ganauseiñ:** ganaduzain  
*"Arek esate ben ganausain bialdute, olantxe gorri gorri einye eukitte bela" - (Haiek esaten zuten ganaduzain bidalita, holantxe gorri-gorri eginda edukitzen zutela)*
- geldi:** geldi  
*"Ori esi leikela ixen da, beti esaten, bardiñ ixengo dala ta, bustertu sittuen onek oin dekosen iridxok, sero! an geldi!" - (Hori ezin litekeela izan eta, beti esaten, berdin izango dela eta, buztartu zituen hauek orain dauzkan idiok, zero! han geldi!)*
- goldaketan:** goldaketan
- gora begire:** gora adi, begira  
*"A esaten san sala kardetako, ol baten ipintte olan gora begire, sorros sorrotzak puntak eukesena" - (Hura esaten zen zela kardatzeko, ohol baten ipinita hola gora begira, zorrotz-zorrotzak puntak zeuzkana)*
- gustora:** gustura  
*"Da beste kardu bat, ba konejuei tte ganauek eta gustora jaten dabena" - (Eta beste kardu bat, ba konexuei eta ganaduak eta gustura jaten duena)*
- iesien:** ihesean, ihesi
- illaran:** ilaran  
*"Danak illaran eukitte ittus" - (Denak ilaran edukitzen ditu)*
- intxaur lapurretan:** intxaur lapurretan
- jeneralien:** orokorrean, gehienetan  
*"Piskat igertzera doyenara ero olan, guk, e, kentze sien basuen jeneralien, e?" -*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

(Pixka bat ihartzera doana edo hola, guk, kentzen zien basoan gehienetan, e?)

**justo:** justu

"Etxietan eta sartzeko atiek eta ba justo samar" - (Etxeetan eta sartzeko ateak eta ba justu samar)

**justo justuen:** ozta-ozta

**justuen:** justu

**kantuen:** kantuan

"Orrek kantuen daki" - (Horrek kantuan daki)

"Kantuen normalmentien, txoridxetan da, arra esta ibiltten kantuen?" - (Kantuan normalean, txirietan eta, arra ez da ibiltzen kantuan?)

**konforme:** konforme, ados

"Ori eitte san, e, beratzi urrena paseta sanien, beratzi urrena paseta sanien, ba konforme basengosan" - (Hori egiten zen, bederatzi hurrena pasatzen zenean, bederatzi hurrena pasatzen zenean, ba konforme bazeunden)

**kontrara:** kontrara

"Kopetensi ixate san ori, d'atzeraka, aurreraka, ta gero bidxek erainye kontrara sartute" - (Konpetentzia izaten zen hori, eta atzeraka, aurreraka, eta gero biak eraginda kontrara sartuta)

**kontus:** kontuz

"Aritxi begittu, da kontus ibilli, esta?" - (Harexeri begiratu, eta kontuz ibili, ezta?)

**lasai:** lasai

**lastrara:** lastrara, mentatzeko era baten gainean esaten da

"Oñ asalas danak, lastrara barik, len lastrara ixate soan" - (Orain azalagaz denak, lastrara barik, lehen lastrara izaten zuan)

**lekan:** lekan, zerukan

**lepuen:** lepoan

"Lepuen eruten genduen orduen" - (Lepoan eroaten genuen orduan)

**lapurretan:** lapurretan

"Artu dabe lapurretan" - (Hartu dute lapurretan)

**libre:** libre, aske

"Leku bat libre geratzen bada bueno ba emen eurten auxe ein biau" - (Leku bat

libre geratzen bada beno ba hemen aurten hauxe egin behar dugu)

"Libre ote nitzen askotan" - (Libre egoten nintzen askotan)

**lo:** lo

**lotan:** lotan

**malluketan:** mailuketan

**martxan:** martxan

**narras:** narras

**nastien:** nahastean

"Nere aittek rebolberrak eitte sittuen, da, beste batzuekin nastien" - (Nire aitak errebolberrak egiten zituen, eta, beste batzuekin nahastean)

**nekes:** nekez

"Da orre pe okerrak ixaten die, e? minberak, da osatu be nekes iguel" - (Eta horiek ere okerrak izaten dira, e? minberak, eta osatu ere nekez beharbada)

**neurrire:** neurrira

"Ol bat ipiñi ebai kuadruen, neurrire, gure aittek danontzako eitte sittuen" - (Ohol bat ipini ebaki laukian, neurrira, gure aitak denontzat egiten zituen)

**normalien:** normalean

"Normalien ba, ordu betien etorri bi dau ganauek" - (Normalean ba, ordu batean etorri behar du ganaduak)

**oñes:** oinez

"Bire siurre da oñes ibiltteko, orri esatako, ori da bai" - (Bidezidorra da oinez ibiltzeko, horri esaten zaio, hori da bai)

**osuen:** osoan

"Bañe es pentzau, e, urte bete oso osuen mantias, kandelak eta mantie, antxe" - (Baina ez pentsatu, urte bete oso-osoa mantagaz, kandelak eta manta, hantxe)

**patxaras:** patxadaz

**sasois:** sasoz

**segan:** segan, kodainan

"Lena iguel pare bat orduen, e, segan eitten genduan, e?" - (Lehenago beharbada pare bat orduan, segan egiten genuen, e?)

**segidan:** segituan

"Ortxe bertan das eskolak oin be, lenguen segidan einye da ta" - (Hortxe bertan dagoz eskolak orain ere, lehengoan segidan eginda dago eta)

**segidxen, segixen:** segituan



# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Gero soloako obie da, bestelan, bestie erute osu segiduxen, da euskidxek sikatzen dau segiduen, arro eote san, soluen ganien botata arro arro da, euskidxek sikatu, bestie barres pegau eitte akon lurrei, beste gausa bat da" - (Gero sororako hobea da, bestela, bestea eroaten duzu segidan, eta eguzkiak sikatzen du segituan, harro egoten zen, soroaren gainean botata harro-harro dago, eguzkiak sikatu, bestea barrez itsatsi egiten zitzaion lurrari, beste gauza bat da)

**segiruen, segiduen:** segituan

"Ermandarako gixontzan segiruen das batzuk" - (Ermandadako gizontzan segituan dagoz batzuk)

"Nik pentzetan dot nik segiruen eitte abela" - (Nik pentsatzen dut nik segituan egiten zutela)

**segun:** segun

"Rogatibak ixete sien ba, ermita bakotxeko, segun se egunetan ixete sien" - (Errogatibak izaten ziren ba, baseliza bakoitzeko, segun ze egunetan izaten ziren)

**seguru:** ziur

"Neguen ba, txoridxek eta asten dienien pasetan, onek berus doyesenak, seguru" - (Neguan ba, txoriak eta hasten direnean pasatzen, hauek beherantz doazenak, seguru)

**segurutik:** segurutik, ziurrenik

"Kartutxue erretie, ba, ixengo san, e, pekatue segurutik" - (Kartutxoa erretzea, ba, izango zen, bekatua segurutik)

**sobran, sobra:** sobran

**solte:** solte, soltu

"Batzuk solte ganauek beste batzuk burkarias kargaute, ume txikidxeekin be bai, orrek gure goikue pe" - (Batzuk solte ganaduak beste batzuk gurdagaz kargatuta, ume txikiekin ere bai, horiek gure goikoak ere)

**sur:** zuhur

"Itxaiñ ei oskuen birriten aber noa goyesan, bañe gu geu be sur" - (Itxaron egin ziguten birritan ea nora goazen baina gu geu ere zuhur)

**talusien:** talusean, alboz

"Motan da olan solo eskiñetan da, motie talusien jausi estaitten" - (Altakurran eta hola soro izkinetan eta, altakurra talusean jausi ez dadin)

**tarras:** tarras, narras

**tatarras:** tarras, narras

**tente:** tente

"Ni tente na" - (Ni tente nago)

"Aundidxaue da ta tente oten dana" - (Handiagoa da eta tente egoten dena)

**trabes:** trabes

"Frenetako erabiltte ban, e, sera, e, atzien egurre, egur bat trabes, e, arek urkidxe erabiltte ban" - (Galgatzeko erabiltzen zuen, zera, atzean egurra, egur bat trabes, hark urkia erabiltzen zuen)

**trabesien:** trabesean

**trankil:** trankil

"Batzuetan, ori ikusieskeo bai, bañe txalak mordue jadxo sien gu lo trankil eitten gausela" - (Batzuetan, hori ikusiz gero bai, baina txahalak mordoa jaio ziren gu lo lasai egiten gaudela)

**tutilinklas:** nahastea adierazteko erabiltzen den berba

**txispagiñen:** txispaginan, txispak egiten

"Karo! orrek tallerrok sien autonomuek, iguel ibilliko sien, e, lau ero bost lagun bierrien, esta? len esa otzutena txispagiñen da baskulagiñen da, bañe bakotxa, selan autonomue san, i banadxoyek elispara, esango ban da, jute san, da, pelotan mordo bat ein ye ixerdittute bueltau" - (Jakina! tailer horiek ziren autonomoak, beharbada ibiliko ziren, lau edo bost lagun beharrean, ezta? lehen esan dizudana zizpaginan eta baskulaginan eta, baina bakoitza, zelan autonomoa zen, hi banoak elizpera, esango zuen eta, joaten zen, eta, pilotan mordo bat egin eta izerdituta bueltatu)

**txortaketan:** egur txortak egiten ibili

"Txortak esate geuntzen guk, txortaketan esate gendun" - (Txortak esaten genien guk, txortaketan esaten genuen)

# ZALDIBAR HIZTEGIA

## 22.4. MAILA ADITZONDOAK

**aiñ:** hain

"Ni enas ain lodidxe" - (Ni ez naiz hain lodia)

"Su esa aiñ altue" - (Zu ez zara hain altua)

"Ori esta aiñ argala" - (Hori ez da hain argala)

**ainbat:** hainbat

"Olan bada ainbat obeto suetzako" - (HOLA bada hainbat hobeto zuretzako)

**apur bat:** apur bat

"Umetatik ikasi osun gausa bat da ta estakixu ba, apur bat, e" - (Umetatik ikasi duzun gauza bat da eta ez dakizu ba, apur bat, e)

**bastante:** nahiko

"Ori da bastante aundidxe" - (Hori da nahikoa haundia)

"Ori da bastante txikidxe" - (Hori da nahikoa txikia)

"Ori bastante mutill andidxe da" - (Hori nahiko mutil handia da)

"Ori bastante andra gastie da" - (hori nahiko andre gaztea da)

**idxe, ix:** ea

"Meidan, e, eta leike idxe berreun kilon aldie, bueno ganau batzuk, e, gerri gitxi eukitten dabe ta" - (Neurrian, atera liteke ia berrehun kiloren aldea, beno ganadu batzuek gerri gutxi edukitzen dute eta)

**itzel:** itzel

"Loittu sien, bueno, itzel!" - (Loditu ziren, beno, itzel!)

**konpleto:** guztiz

**naikue, neikue:** nahikoa

"Naikue da" - (Nahikoa da)

**oso:** oso, sano

"Emen len terrenue oso, oso estimaue san" - (Hemen lehen terrenoa oso, oso estimatua zen)

**piskat:** piska bat

"Au da piskat berue" - (Hau dago pixka bat beroa)

"Au da piskat otza" - (Hau dago pixka bat hotza)

"Itxaixu piskaten" - (Itxaron ezazu pixka baten)

**samarra, txamarra:** samarra

"Etxietan eta sartzeko atiek eta ba justo samar eta ba eitteko, orretarako bai" -

(Etxeetan eta sartzeko ateak eta ba justo samar eta ba egiteko, horretarako bai)

"Emen ba geixa ixen da, e, sera ganauas eta sera, ortuarixas eta, Eitzan be antzera samar" - (Hemen ba gehiago izan da, zera ganaduagaz eta zera, ortuariagaz eta, Eitzan ere antzera samar)

**total:** guztiz

"Total kanbidxaute da oiñ" - (Guztiz aldatuta dago orain)

## 22.5. ZENBATEKOAK

**ainbeste:** hainbeste

"Orrek esteko ainbeste bei" - (Horrek ez dauka hainbeste behi)

"Oiñ esta ainbeste ikusten" - (Orain ez da hainbeste ikusten)

**amaika:** hamaika

"Amaika bider kastigaute" - (Hamaika bider zigortuta)

**apur bat:** apur bat

**asko:** asko

"Ekarri dabe askos geidxa" - (Ekarri dute askoz gehiago)

"Erosi dabe asko gutxia" - (Erosi dute askoz gutxiago)

"Orrek lena asko seuen olako sasi medikuek eta" - (Horiek lehenago asko zegoen holako sasi medikuak eta)

"Urte askuen eon da ori Ameriketana" - (Urte askoan egon da hori Ameriketana)

**baneka bat, banaka bat, baneka batzuk:** banaka bat

"Badasek baserridexek batzuk, banekatxubanekatxuek" - (Bazaudek baserriak batzuk, banakatxo banakatxoak)

"Banaka bat bixi be badie gañera" - (Banaka bat bizi ere badira gainera)

**bastante:** nahikoa

"Bastante juen die" - (Nahiko joan dira)

"Orrek bastante daki" - (Horrek nahiko daki)

**batzuk:** batzuk

"Erreso batzuk eitte sien da gero barrure" - (Otoitz batzuk egiten ziren eta gero barrura)

**bitzuek:** bitzuk

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"An gure aurreko espaldan be ardidxek das, bitzuek dekes" - (Han gure aurreko maldan ere ardiak daude, bitzuek dauzkate)

**dana:** dena

"Elixan dana eitte san euskeras" - (Elizan dena egiten zen euskaraz)

**gedxa, geixa:** gehiago

"Semat eta gedxa ekarri obe" - (Zenbat eta gehiago ekarri hobe)

"Estot ekarri bi baño geidxa" - (Ez dut ekarri bi baino gehiago)

**gedxena:** gehiena

"Guk forestala eitten dxuau, e? bueno selan esango pa nik? klasiek ero bierra, ba bierra lena itte soan ba ganauas ero eskus, gedxen olan" - (Guk forestala egiten diagu, e? beno zelan esango dut ba nik? motak edo beharra, ba beharra lehenago egiten zuan ba gadaduagaz edo eskuz, gehien hola)

"Ba gedxen olan euste akon, e?" - (Ba gehien hola eusten zitzaion, e?)

**gustixe, gustie:** guztia

"Nik, e, esautu ot, neure bixi gustien beti jaten" - (Nik, ezagutu dut, neure bizi guztian beti jaten)

**gutxi, gitxi:** gutxi

"Banan banan da gutxi pasetan die, bañe ikusi eitten die asko, se aundixek die eta ba" - (Banan-banan eta gutxi pasatzen dira, baina ikusi egiten dira asko, ze handiak dira eta ba)

**gutxia:** gutxiago

"Len saso baten gutxia egon san" - (Lehen sasoi baten gutxiago egon zen)

**inguru:** inguru, gutxi gora behera

**larrei, lar:** larregi, gehiegi

"Ekarri dabe porru larrei" - (Ekarri dute porru larregi)

"Piper larrei erun dabe" - (Piper larregi eroan dute)

"Ekarri dabe larrei" - (Ekarri dute larregi)

"Orrek deko larrei" - (Horrek dauka larregi)

"Amen da ke larrei" - (Hemen dago ke larregi)

"Okela larrei jan dabe" - (Okela larregi jan dute)

"Ur larrei eran dabe" - (Ur larregi edan dute)

"Lar ebatie etzan ona" - (Lar ebakitzea ez zen ona)

**makiña at:** makina bat

"Esautu, ein be bai makiña at bider" - (Ezagutu, egin ere bai makina bat bider)

**naikue:** nahikoa

"Orrek naikue deko"- (Horrek nahikoa dauka)

"Ori erosteko naikue diru ekarri ot" - (Hori erosteko nahikoa diru ekarri dut)

"Naikue denpora deko" - (Nahikoa denbora dauka)

**onenbeste:** honenbeste

"Txarridxe onenbeste arrobako txarridxe" - (Txerria honenbeste arroako txerria)

**orrenbeste:** horrenbeste

"Nik estekot orrenbeste diru" - (Nik ez daukat horrenbeste diru)

"Suk estekosu orrenbeste urte" - (Zuk ez daukazu horrenbeste urte)

**pare bat:** pare bat

"Lena iguel pare bat orduen, e, segan eitten genduan, e?" - (Lehenago beharbada pare bat orduan, segan egiten genuen, e?)

**pillo bat, pillo at:** pilo bat

"Orrek pasaitut pillo at nik, eta selan etorri olan juen" - (Horiek pasatu ditut pilo bat nik, eta zelan etorri hala joan)

**piskat:** pixka bat

"Gastetan erres erakusten dxakok, lotu te piskat erabilli suabe-suabe lelengo da" - (Gaztetan erraz irakasten zaiok, lotu eta pixka bat erabili suabe-suabe lehenengo eta)

## 22.6. ADITZONDO KONPOSATUAK

**edoselan:** edozelan

"Ori estosu edoselan be ondo eingo" - (Hori ez duzu edozelan ere ondo egingo)

"Lupue edoselan be beintzet gausa ona esta" - (Lupua edozelan ere behintzet gauza ona ez da)

**esetako:** ezertarako

"Ni orra enas jun esetako be" - (Ni horra ez naiz joan ezertarako ere)

**iñon:** inon

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Entierrotako janak eta ixate sien iñon konture len da" - (Enterruetako janak eta izaten ziren inoren kontura lehen eta)

**iños:** inoiz

"Eibarra juen orduko, amen be bai iños sei tt'erdittako ta gero Eibarren be bai" - (Eibarrera joan orduko, hemen ere bai inoiz sei eta erdietarako eta gero Eibarrera ere bai)

"Orre tie atzaskalak! iños anketan da besta? ta ebai ero, gitxitxo ebai ero, orre tire atzaskalak!" - (Horiek dira atzaskalak! inoiz hanketan eta ere ezta? eta ebaki edo, gutxitxo ebaki edo, horiek dira atzaskalak!)

"Anise esate ben aixiendako, nik erosi iños ei neban, e?" - (Anisa esaten zuten haizeentzat, nik erosi inoiz egin nuen, e?)

"Arrapaute be, iños arrapau ou kortan da" - (Harrapatuta ere, inoiz harrapatu dugu kortan eta)

"Egon sa Saldibarko elispian iños?" - (Egon zara Zaldibarko elizpean inoiz?)

**iñoa:** inora

"Iñoa bestie juten" - (Inora ere ez dira joaten)

**iñun:** inon

"Eseuken iñun be golpe ba pe" - (Ez zeukan inon ere kolpe bat ere)

"Estot iñun be topau" - (Ez dut inon ere topatu)

**naiñun:** nahinon, nonahi

"Sartze sien naiñun de edoser eitte ben" - (Sartzen ziren nahinon eta edozer egiten zuten)

**norabaita:** norabait

"Bai, len itte sittuen norabaita, berbetan atzerak sienak" - (Bai, lehen egiten zituzten norabait, berbetan atzerak zirenak)

**nos:** noiz

**noskue:** noizkoa

**nostik:** noiztik

**nunbaitera, nunbaittea:** nonbaitera

"Nunbaittea juen die?" - (Nonbaitera joan dira)

"Orrek nunbaittea doyes" - (Horiek nonbaitera doaz)

"Oñestarridxe nik pentzetot, e, esatakola, e, jausi danien nunbaittera" - (Oinaztarria

nik pentsatzen dut, esaten zaiola, jausi denean nonbaitera)

**nunbaitten:** nonbait

"Ikusi osu nunbaitten?" - (Ikusi duzu nonbait?)

"Alakue pe asko, e? txikixaue pañe, topete besan nunbaitten, e?" - (Halakoak ere asko, e? txikiagoak baina, topatzen zituzten nonbaiten, e?)

**nuunun:** non edo non

"Asulek ikusiko sus batzuek, oridxe, nuunun bat, oridxe nuunun bat ikusten da" - (Urdinak ikusiko dituzu batzuk, horia, non edo non bat, horia non edo non bat ikusten da)

**selan ero alan:** zelan edo hala

"Selan ero alan ei neban, e?" - (Zelan edo hala egin nuen, e?)

**semat:** zenbat

"Onek etxionek semat ate dekos?" - (Etxe honek zenbat ate dauzka?)

**sematekue:** zenbatekoa

## 22.7. IZENORDAIN KONPOSATUAK

**edoseñek:** edozeinek

"Kategoridxakue itte ban, se, edoseñek estaki ogidxe ondo itten" - (Kategoriakoa egiten zuen, ze, edozeinek ez daki ogia ondo egiten)

**edoser:** edozer

"Esaixu edoser gausa" - (Esazu edozer gauza)

**eroseiñ:** edozein

"Orrek eroseiñ lekutara juten die" - (Horiek edozein lekutara joaten dira)

"Eroseiñ etorri leike" - (Edozein etor liteke)

"Erosein moduten be ondo eingou" - (Edozein modutan ere ondo egingo dugu)

"Ori eroseiñ lekuten topau siñeike" - (Hori edozein lekutan topa zenezake)

**eser:** ezer

"Erosi osu eser?" - (Erosi duzu ezer?)

"Esebestot ekarri" - (Ezer ere ez dut ekarri)

"Godxen eser be etzan egoten" - (Goian ezer ere ez zen egoten)

"Ori ekarritte estu eser eitten" - (Hori ekarrita ez dugu ezer egiten)

**iñok:** inork

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Ordun jakingo ben ba, maixuen bat euen ero, abariak ero, iñok estakidxen amen, danak euskeras eitte ben" - (Orduan jakingo zuten ba, maisuren bat zegoen edo, abadeak edo, inork ez zekien hemen, denek euskaraz egiten zuten)

**iñor:** inor

"Ikusi osu iñor?" - (Ikusi duzu inor?)

"Iñobestot ikusi" - (Inor ere ez dut ikusi)

"Oiñ estabill amen iñor kardantxilluek arrapetan" - (Orain ez dabil hemen inor kardantxiloak harrapatzen)

**iñori:** inori

"Eskondu te laster topau neban, e, segan, bedarra ebaten nabillela, estotzat iñori esan" - (Ezkondu eta laster topatu nuen, segan, belarra ebakitzen nabillela, ez diot inori esan)

**seoser:** zer edo zer

"Orrek seoser ekarri dabe" - (Horiek zer edo zer ekarri dute)

"Ta txal txikidxai arrotzie, arrotza gorringue, agora, seoser bintzie ero estai pa ser" - (Eta txahal txikiari arrautza, arrautza gorringoa, ahora, zer edo zer mintza edo ez dakit zer)

"Sagarra estauenien beste seoser jan biko dau" - (Sagarra ez dagoenean beste zer edo zer jan beharko du)

**seosegattik:** zer edo zergatik

"Sirinyu eitten die ba, seosegattik, ori gaixue da" - (Zirindu egiten dira ba, zer edo zergatik, hori gaixoa da)

## 23. ADITZAK

Atal honetan aditz partizipio bakunak eta konposatuak aurkeztu eta ostean, partizipio eta aditz izenen erabileraz jardungo dugu, horretarako partizipio soilen erabilera, partizipioei eransten zaizkienak eta aditz izenen erabileren gainerako adibideak emango ditugu.

### 23.1. ADITZ BAKUNAK

**abandonau:** abandonatu, bertan behera utzi

"Abandonaute dauen, ser bat, muna bat ero"  
- (Utzita dagoen, zer bat, muna bat edo)

**aberastu:** aberastu

**aberidxau:** aberiatu, matxuratu

**abisau:** abisatu

**aburridu:** aspertu, gogaitu

**adornau:** apaindu

"Politte ondo adornaute ta pinttaute ta dotoriek ixete sien" - (Polita edo apainduta eta pintatuta eta dotoreak izaten ziren)

**afaldu:** afaldu, afaria jan

"Afaitten jungo ga amabost bat" - (Afaltzen joango gara hamabost bat)

**afusillau:** fusilatu

"Amen Saldibarren esebes, e, olako serik, e, bai, parrokie, amen kueba bat ego san or mendidxen, iñok estakidxena, ba estakitt, Sabalatarrak ego sien eskutaute, bañe bertan eser esan pasau, da Berrisen lau ero afusillau ei sittuen" - (Hemen Zaldibarren ezer ere ez, holako zerik, bai, parrokoa, hemen koba bat egon zen hor mendian, inork ez dakiena, ba ez dakit, Zabalatarrak egon ziren ezkutatuta, baina bertan ezer ez zen pasatu, eta Berrizen lau edo fusilatu egin zituzten)

"Iru afusillau sittuen Berrisen" - (Hiru fusilatu zituzten Berrizen)

**agertu:** agertu

"Beiñ ero beiñ agertuko die" - (Behin edo behin agertuko dira)

"Piñuri inguruetan eta, segiduen agertzen die" - (Pinudi inguruetan eta, segituan agertzen dira)

"A be agertu atan" - (Hura ere agertu zitzaidan)

**aginyu, ainyu:** 1. bidali. 2. agindu. 3. opetsi, eskaini, agindu

"Bai, da beste batzuk esaten dabe, ganauendako be bai, olan tripako miñe dekesela ero pentzaueskero betunadxuek eta aginyute da" - (Bai, eta beste batzuek esaten dute, ganaduarentzat ere bai, hola tripako mina dauzkatela edo pentsatuz gero albatariak eta aginduta eta)

"Guk eskendun sekule, jateik pentzau bes, an etxe inguruko askara eruen da gero ainyu barrido ta, olan ibiltte giñien" - (Guk ez genuen sekula, jaterik pentsatu ere ez,

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*han etxe inguruko askara eroan eta gero agindu berriro eta, hola ibiltzen ginen)*

**aguantau:** 1. eutsi. 2. iraun

*"Sagarra be bai, sagarra asal sendue bok, gedxa, aguantetan dxok, onek urakuok en jeneral asala fiñe eukitte dxuek ta orrek pasau eitte ittuk biskor" - (Sagarra ere bai, sagarra azal sendoa baduk, gehiago, irauten dik, udako hauek normalean azala fina edukitzen ditek eta horiek pasatu egiten dituk bizkor)*

**aittatu:** aiatu, aipatu

*"Estakitt setako aittatu doten au" - (Ez dakit aipatu dudau hau)*

**aittu:** aditu, ulertu

*"Aitze osu, esta?" - (Aditzen duzu ezta?)*

*"Gausa batzuk estie aittu be itten, gausa baneka batzuk" - (Gauza batzuk ez dira aditu ere egiten, gauza banaka batzuk)*

*"Orrek kaballuetan asko aitze ban itxurie" - (Horrek zaldietan asko aditzen zuen itxura)*

**ajustau:** moldatu, eratu, erregulatu

*"Da beste batzuk eitte ben, ori txispioi be artu, da baskulie, kañoyas ajustau" - (Eta beste batzuek egiten zuten, zizpa hori ere hartu, eta baskula, kainoiagaz doitu)*

**akabau:** 1. amaitu 2. hil

*"Orri akabau erai otze dana" - (Horri amaitu eragin diote dena)*

*"Ori akabau artien batze ixen da beti" - (Hori amaitu arte batzen izan da beti)*

*"Nik kaparrak, e, kaballuei, topau te akabau ittut, bueno!" - (Nik kaparrak, zaldiari, topatu eta akabatu ditut, beno!)*

*"Ni satorra akabaute na, e, sega piketan" - (Nik satorra akabatuta nago, sega pikatzen)*

**aklarau:** 1. akklaratu, xaboa kendu. 2. argitu

*"Nik esi neike ori aklarau, bañe ona esta" - (Nik ezin nezake hori argitu, baina ona ez da)*

**akomodau:** egokitu, eroso egin

**akoplau:** akoplatu

*"Gallurreko egur bidxek akopletan dien lekuen" - (Gailurreko egur biak akoplatzen diren lekuan)*

**akordau:** 1. gomutatu. 2. -ri bururatu

*"Ni enas akordetan" - (Ni ez naiz gomutatzen)*

*"Enas akordetan ixenas oiñ" - (Ez naiz gomutatzen izenagaz orain)*

*"Ori errixas akordau eitten da" - (Hori herriagaz gomutatu egiten da)*

**akostunbrau:** ekandu, ohitu

*"Orrek fiyo, e, oin bidxetatik akostunbraute daunien bidxetatik eitten dau, e?" - (Horiek fiyo, orain bietatik ohituta dagoenean bietatik egiten du, e?)*

*"Len esan ori, emen parajien akostunbretan" - (Lehen ez zen hori, hemen inguruan ohitzen)*

**alargundu:** alargundu

**alboratu:** alboratu

**aleginyu:** ahalegindu

**alkilau:** alokatu

**allegau, alleau:** ailegatu

*"Kotxien jueneskero biskor allegau leike" - (Autoan joanez gero bizkor ailega liteke)*

**alpertu:** alpertu

**altzau:** altxatu

*"Orduen urtien dana altzau euki ninyuen" - (Orduan urtean dena altxatuta eduki nuen)*

*"Lelengo altzau eraiñ, lelengo makillias tak! olan egote san jo amen puntan, da gora altzau eraiñ, da gero aidien euela ba, d'aber nok urrinien bota" - (Lehenengo altxatu eragin, lehenengo makilagaz tak! hola egoten zen jo hemen puntan, eta gora altxatu eragin, eta gero airean zegoela ba, ea nork urrunean bota)*

**amaittu:** amaitu

*"Urtie amaittu orduko gari barik geatzen siñen da uruni parik" - (Urtea amaitu orduko gari barik geratzen zinen eta irinik barik)*

**amasau:** amasatu, oreka egin

**amatau:** amaitu

*"A kandelie amatau orduko ixate san" - (Kandela hura amaitu orduko izaten zen)*

**amorratu:** amorratu

*"Txakurre amorratu eseitteko, ogi kuskurre gorde" - (Txakurra amorratu ez egiteko, ogi kurruskua gorde)*

**andittu:** handitu

*"Ni ego nintzen luseruen oetik jagi be eiñ esiñ anak andittute ospelakiñ" - (Ni*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

egon nintzen luzaroan ohetik jagi ere egin ezin hankak handituta ospelekin)

**antzutu:** antzutu

"Txala ein baño len ba mordue aurretik ba, sertu eitte sien, antzutu" - (Txahala egin baino lehen ba mordoa aurretik ba, zertu egiten ziren, antzutu)

**anunsiau:** iragarri

"Jadzek anunsietan bai, orrek bueltakuk, eta sapatuetan be bai, oin be joten da" - (Jaiak iragartzen bai, horiek bueltakoak, eta zapatuetan ere bai, orain ere jotzen da)

**aparejau:** prestatu, atondu

**aparkau:** aparkatu

**apartau:** apartatu, bereizi, baztertu

"Arakidxe da, egur meetik apartetan dan, sera" - (Arakia da, egur mehetik bereizten den, zera)

**aplastau:** zapaldu, ingatu

**aprobau:** proba egin

"Alan esate ben, nik estot aprobau te estakitt" - (Hala esaten zuten, nik ez dut proba egin eta ez dakit)

**aprobetxau:** baliatu, aprobetxatu

"Klaro olan aprobetxauko san ori bere sasoyen emoteko" - (Jakina hola aprobetxatuko zen hori bere sasoiaren emateko)

**apuntau:** apuntatu

"Ba on be bai, gaur be apuntau eitten da Saldibarren, esta apuntetan semat emote osun oin, len semat eta apuntau eitte san, da gero a listie seuri emote otzuen, nik nire gixonana olan dekot, ondio or dekot gordeta kajoyen" - (Ba orain ere bai, gaur ere apuntatu egiten da Zaldibarren, ez da apuntatzen zenbat ematen duzun orain, lehen zenbat eta apuntatu egiten zen, eta gero zerrenda hura zeuri ematen zizuten, nik nire gizonarena hola daukat, oraindik hor daukat gordeta tiraderan)

**apurtu:** apurtu

"Ori apurtute da" - (Hori apurtuta dago)

"Gu etorri tte etorri arratzalde gustien, da eskeuntzen esaten iñoi eskendueta urtengo, ba sokak preparau te sokak preparau gure aitte an soka sarrak apurtute euesenak" - (Gu etorri eta etorri arratsalde guztian, eta ez genion esaten

inori ez genuela irtengo, ba sokak prestatu eta sokak prestatu gure aita han soka zaharrak apurtuta zeudenak)

**areetu:** areatu, area pasatu; arearekin egiten den beharra

"Areetu aras, ya ondo ipiñi lurre, da gero bota garixe, baldatik, ra-ra-ra! bota, ta gero barriro pasau arias, nastau ein bi osu ak urteteko" - (Areatu areagaz, ja ondo ipini lurra, eta gero bota garia, baldetik, ra-ra-ra! bota, eta gero berriro pasatu areagaz, nahastu egin behar duzu hark irteteko)

**argittu:** 1. argitu. 2. agertu

"Arreskero dana ju ata, dana argittu ata" - (Harrezkero dena joan zait, dena argitu zait)

"Gero trontzie argittu san da ba trontzie bai" - (Gero trontza agertu zen eta ba trontza bai)

**arinyu:** arindu

"Eitte san an piskat tostau a, arinyu eitte sala, astuneixe jarri estakixon umiai, ori bai" - (Egiten zen han pixka bat igertu hura, arindu egiten zela, astunegia jarri ez dakion umeari, hori bai)

**arotu:** arotu, aro ona egin

**arrapau:** harrapatu

"Selan die orrek, e, or etxi ostien arrapau ou, ero, trenak arrapau eban, e, katamixerra" - (Zelan dira horiek, hor etxe ostean harrapatu dugu, edo, trenak harrapatu zuen, katamixarra)

"Ero erbidxe ero, arrapeta bana" - (Edo erbia edo, harrapatzen zuena)

**arraskau:** karrankatu

**arrastrau:** narrastu

"Ta gero goittik bera arrastraute, akordau aku burdidxe beyen ipiñi parien" - (Eta gero goitik behera narrastuta, bururatu zaigu gurdia behean ipini parean)

**arreglau:** konpondu

"Ori esatias esta eser arregletan" - (Hori esateagaz ez da ezer konpontzen)

"Busterrixe estake ondo gelditzen danei, da, jute san estakitt nora be gure aitte, Abadiñora ero, euesela arregletakuek, ikusi selan, e, nun deken fallue, d'arek, e, kentze otzesan" - (Buztarria ez zaie ondo gelditzen denei, eta, joaten zen ez dakit

# ZALDIBAR HIZTEGIA

nora ere gure aita, Abadiñora edo, zeudela konpontzekoak, ikusi zelan, non daukaten hutsa, eta haiek kentzen zizkieten)

**arrimau:** hurreratu, hurbildu

**arroto:** harrotu

"Nik pentzetot arbolien, e, gerridxe, arrotu, arrotzen danien ero, sartute dauenien, gastaña arrue" - (Nik pentsatzen dut arbolaren, gerria, harrotu, harrotzen denean edo, zahartuta dagoenean, gaztaina harroa)

"Otzak ogidxei estotza isten arrotzen, arrotubako ogidxe" - (Hotzak ogiari ez dio uzten harrotzen, harrotu bako ogia)

**artu:** hartu

"Neuk artze naban saso baten asko ta" - (Neuk hartzen nuen sasoi baten asko eta)

**asarratu:** haserretu

"Saldiberre, dana egon san baten lelengo, da gero asarratu ero bakixu, ermandaran, gausa sikin ba(t) ra ta" - (Zaldibar, dena egon zen baten lehenengo, eta gero haserretu edo badakizu, ermandadan, gauza zikin bat da eta)

**asentau:** finkatu

**asertau:** 1. aparatu. 2. igarri, asmatu

**asetu:** asetu, ase

**asi:** 1. hasi, 2. hazi

"Asidxes doye, badoye asidxes" - (Haziz doa, badoa haziz)

"Asi tte il be bai pentzeta dxuat" - (Hazi eta hil ere bai pentsatzen diat)

**asmau:** asmatu

"Mutille etorteko ba laguntzen, bakarrik eseben isten ta ba, seoser asmau bisan" - (Mutila etortzeko ba laguntzen, bakarrik ez zuten uzten eta ba, zer edo zer asmatu behar zen)

**astertu:** aztertu, aztrakatu

"Birrinute gelditzen da bañe barrue astertu barik gelditzen da" - (Birrinute gelditzen da baina barrua aztertu barik gelditzen da)

**astilletu:** arrakalatu

"Aurten be nik mordo bat ein yot, burdin siridxeikiñ, astilletu, serran ebaikue baño obie da" - (Aurten ere nik mordo bat egin

dut, burdina ziriekkin, arrakalatu, zerran ebakikoa baino hobea da)

**astinyu:** astindu

"Urte bii pat beintzet danak astintze sien" - (Urte birik bat behintzat denak astintzen ziren)

**astorau:** aztoratu

**astu:** ahaztu

"Astute na selan esate san" - (Ahaztuta nago zelan esaten zen)

**asustau:** ikaratu, izutu

"Ganaue, oñestue eta datosenien asustau, ganaue argidxe da ortan" - (Ganadua, oinaztua eta datozenean ikaratu, ganadua argia da horretan)

**ata, etara, eta:** atera

"Iri batzuk, e, loittu gendusen sendo, oso iri ederrak etara gendusen, saltzeko genduesan, eta guk ganaue lodi eskenduen eukitten" - (Idi batzuk, loditu genituen sendo, oso idi ederrak atera genituen, saltzeko geneuzkan, eta guk ganadua lodi ez genuen edukitzen)

"Esta setan etara" - (Ez da zertan atera)

**atertu:** atertu

**atrabesau:** zeharkatu, gurutzatu

"Anderrek ikusi eban or, e, birie atrabesetan" - (Anderrek ikusi zuen hor, bidea pasatzen)

**atrebidu:** ausartu

"Atrebidu be esan ein larrei" - (Ausartu ez zen egin larregi)

**atxurtu:** aitzurtu

"Orreaittik esate ben, atxurtu bai, da nobera etxa orduko, atzera, bestiek urteten dabela" - (Horregatik esaten zuen, aitzurtu bai, eta nobera etxera orduko, atzera, besteak irteten duela)

**atzeratu:** atzeratu

"Da irakitten satitxo baten euki, piskat sendotzen esnie, atzeratu, kanelie kendu" - (Eta irakiten zatitxo baten eduki, pixka bat sendotzen esnea, atzeratu, kanela kendu)

**atzotu:** atsotu

"Bein san blasak pasaeskerero pasau itte san a, atzotu ero" - (Behin san blasak pasatuz gero pasatu egiten zen hura, atsotu edo)

**aukeratu:** aukeratu

**aumentau:** gehitu



# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Gutxien idxe kurrilloye da oiñ aumentau dana, sosue, bidegarrue, orrek" - (Gutxien ia kurloia da orain gehitu dena, zozoa, birigarroa, horiek)

**aundittu:** handitu

**aurreratu:** 1. aurreratu. 2. dirua aurreztu, aurreratu

"Dirue aurreratu eitte ben" - (Dirua aurreztu egiten zuten)

**ausi:** hautsi

"Arapotik ausi, arapotik ausi ba, olien be bai, ola be arapotzue bada" - (Arapoa hautsi, arapotik hautsi ba, oholean ere bai, ohola ere arapotsua bada)

**austu:** haustu, hauts egin

"Utzittu te barrixe sartu, barristau dana, se austute ote san a" - (Hustu eta berria sartu, berriztatu dena, ze haustuta egoten zen hura)

**axatu:** haizatu

**babestu:** babestu

"Burkamiek eukesan albuetan erruerak sertzeko, babesteko erruerak" - (Burkamak zeuzkan alboetan txirrinkak zertzeko, babesteko txirrinkak)

**bajatu, bajau:** jaitsi, baxatu

"Bajatu ixu persanie" - (Baxatu ezazu pertsiana)

"Segun selan ipintte osun ero goratxua ero beratxua, suk artu bi tzasu, se karo, asko, bajatzen baosu be, ipintten baosu sera, jota lurre erutosu, da orduen ipiñi biosu, e, seuk emon bitzasu, goratxua ero beratxua" - (Segun zelan ipintzen duzun edo goratxoago edo beheratxoago, zuk hartu behar diozu, ze jakina, asko, baxatzen baduzu ere, ipintzen baduzu zera, jota lurra eroaten duzu, eta orduan ipini behar duzu, zeuk eman behar diozu, goratxoago edo beheratxoago)

"Urtien baten ero bajatze sien danak, e, orra ta gero etxetik pasetan sien" - (Urtean baten edo baxatzen ziren denak, horra eta gero etxetik pasatzen ziren)

**baltzittu:** belztu, beltzitu

"Olakotxe bedarra euen, e, martidxen, e, andra mari martikos len esate gendun moruen jota berde berde berde euen dana kanpue, jota baltzittu ei sittuen! da orduen urtien etzan bedarrik ese be etzan

eiñ" - (Holakoxe belarra zegoen, martian, Andre Mari martikoz lehen esaten genuen moduan jo eta berde-berde-berde zegoen dena kanpoa, jo eta belztu egin zituen! eta orduan urtean ez zen belarrik ezer ere ez zen egin)

**bañau:** bainu hartu

**bardinyu:** berdindu

"Esautute na ni, onen moruko arridxe, askie ta gero au, or askie ixatie les, au, e, arridxe, allegetako, ta gero ba urte betien bakixu, bardinyute bañe, jun saitte gero ara etaten urte betien eon bada" - (Ezagututa nago ni, honen moduko harria, aska eta gero hau, hor aska izatea legez, hau, harria, ailegatzeko, eta gero ba urte batean badakizu, berdinduta baina, joan zaitez gero hara ateratzen urte batean egon bada)

**baretu:** baretu

**barristau:** berriztatu

"A dana barristaute da" - (Hura dena barriztatuta dago)

**baskaldu, beskaldu:** bazkaldu

"Ordu orretan baskaltzen egoten da" - (Ordu horretan bazkaltzen egoten da)

**basotu:** basotu, soroa edo ortua izanekoa baso egin

**bastartu:** baztertu

"Eiñes eiñes akordetan die orrek gausok, bañe suk itxi bosu, ba bastartute ya a juen da, astu da, barristau" - (Eginez-eginez gomutatzen dira gauza horiek, baina zuk utzi baduzu, ba baztertuta ja hura joan da, ahaztu da, berritu)

**batiau:** bataiatu

"Nik entzun bai, parto txarra sanien, ba, etxeko bateue emote otzen ba medikuek ero, an euen sera ebillenak, parteriek ero dana dalakuek arek emote otzan, e, etxe bautismue artute, da gero elixara jute sienien, an esan eitte ben, ba etxien batiaute euela" - (Nik entzun bai, erditze txarra zenean, ba, etxeko bataioa ematen zioten ba medikuak edo, han zegoen zera zebilenak, emaginak edo dena delakoak hark ematen zion, etxe bataioa hartuta, eta gero elizara joaten zirenean, han esan egiten zuten, ba etxean bataiatuta zegoela)

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**batidu:** irabiatu

**batu:** batu

"*Iños geuk batu dxuau*" - (*Inoiz geuk batu diagu*)

**beittandu:** begitandu

**beittu:** begiratu

"*Beittu ei otzat*" - (*Begiratu egin diot*)

"*Ene beittu selako sikinkeridxiak urteta otzan!*" - (*Ene begiratu zelako zikinkeriak irteten dion!*)

**belaunikotu:** belaunikatu

"*Geubes ni partitzea juen da ene, gure jaunak abadie, da, belaunikotu giñien pasau artien, itxi kantiñek serien da belaunikotu eitten giñien*" - (*Gauetz ni banatzera joan eta ene, gure jaunagaz abadea, eta, belaunikatu ginen pasatu artean, utzi kantineak zerean eta belaunikatu egiten ginen*)

**beratu:** beratu

**berdetu:** berdetu

**bereinkatu:** bedeinkatu

"*Amen erute sien, e, orrek, ba, kurutzekidaxas eitteko, serera, elixara, erramu egunien, an bereinkatze sien da gero solo bakotxiak sartze san kurutze bat beren erramuas da erauntzas*" - (*Hemen eroaten ziren, horiek, ba, gurutzekiagaz egiteko, zerera, elizara, erramu egunean, han bedeinkatzen ziren eta gero soro bakoitzean sartzen zen gurutze bat beraren erramuagaz eta ereinotzagaz*)

**berotu:** berotu

**beskaldu:** bazkaldu

**bete:** bete

**bidxaldu, bialdu, bilyu:** bialdu

"*Kridxau bialdu dabe*" - (*Morroi bidali dute*)

**bidxurtu, biurtu:** bihurtu

"*Amen topie badeko ba, esta jausten arbolie, oiñ, au ba, libre badeko biurtzeko ba, jausiko da seuk gurosun lekure*" - (*Hemen topea badauka ba, ez da jausten arbola orain, hau ba, libre badauka bihurtzeko ba, jausiko da zeuk gura duzun lekura*)

**bigundu, biundu:** bigundu

**biibilyu:** biribildu

**billurtu:** bildurtu

"*Piskat kargu euki benak eta billurtu ein sien danak eta jun ein sien aurrera orrek*"

- (*Pixka bat kargu eduki zutenak eta bildurtu egin ziren denak eta joan egin ziren aurrera horiek*)

**birrinu:** birrinu

"*Birrinuete gelditzen da bañe barrue astertu barik gelditzen da*" - (*Birrinuete gelditzen da baina barrua azertu barik gelditzen da*)

**bisitu:** bisitu

**biskortu:** bizkortu

**bonbardeau:** bonbardatu

**bordau:** bordatu

"*Arratzaldetan, nei emosten, e, bordetia gusteta atan asko, da etzan ongo diruik*" - (*Arratsaldeetan, niri ematen zidaten, bordatzea gustatzen zitzaidan, asko, eta ez zen egongo dirurik*)

**bota:** 1. bota. 2. bota, gonbidatu, errebesatu

"*Bere burue bota dau uretara*" - (*Bere burua bota du uretara*)

"*Guk botate gendun orture*" - (*Guk botatzen genuen ortura*)

**bringau:** bringatu

"*Bringau da, e, sartau ero olan egurre astilletu ero eitten danien ero, iños garrotie apurtze akun olan, e, bringau, asko tiratzen ekin ye iguel, e, apurtute*" - (*Bringatu da, zartatu edo hola egurra arrakalatu edo egiten denean edo, inoiz garrota apurtzen zitzaigun hola, bringatu, asko tiratzen ekin eta beharbada, apurtuta*)

**brotau:** erne

**bueltau:** bueltatu

**burutu:** burutu

"*Burutu de ba gero, antxe aste sanien, ensegida paseta sien, ebai esin, Saldibarren jaxek eta gu gari ebaten*" - (*Burutu eta ba gero, hantxe hazten zenean, berehala pasatzen ziren, ebaki ezin, Zaldibarren jaiak eta gu gari ebakitzen*)

**bustertu:** buztartu

"*Danak estabe eukitten patxarasko sera, e? bustertzeko ta*" - (*Denek ez dute edukitzen patxadazko zera, e? buztartzeko eta*)

**busti:** busti

"*Karie aurretik ixaten da, sulfatue segiruen, sulfatotan busti tte ereiñ*" - (*Karea*)

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*aurretik izaten da, sulfatoa segituan, sulfatotan busti eta erein)*

**damutu:** damutu

**dedikau:** dedikatu

*"Orrek orretara dediketan die, beste batzuk ba, estakit nik ero ganauek eta serak dekesenak moruen da orre pa muntaixek eta euki ttue aspaldittik" - (Horiek horretara dedikatzen dira, beste batzuk ba, ez dakit nik edo ganaduak eta zerak dauzkatena moduan eta horiek ba mintegiak eta eduki dituzte aspalditik)*

**defendidu:** defendatu

**deittu:** deitu

*"Lenguen ego nitzen pentzetan deittu biko tzetela" - (Lehengoan egon nintzen pentsatzen deitu beharko diedala)*

**dejenerau:** degeneratu, endekatu

*"Asidxe bera, bera ixaten dok, bañe kaso batesko nik etxaki pa nik lurrek, dejenerau eitten dok itxurie, patatie be bai, babie be bai" - (Hazia bera, bera izaten duk, baina kasu baterazkero nik ez zakiat ba nik lurrak, degeneratu egiten duk itxura, patata ere bai, baba ere bai)*

**deklarau:** deklaratu

**denunsiau:** salatu

*"Are pe denunsiau sittuen orrek danok bañe gure aitte ta orrek danok denunsiau sittuenak sien ausoko jentie" - (Haiek ere salatu zituzten horiek denok baina gure aita eta horiek denak salatu zituztenak ziren auzoko jendea)*

**derrigortu:** derrigortu

*"Derrigorra etorte basan urtetie, bañe eskiñusen iñok derrigortu olan, estotzen emon astiik derrigortzeko" - (Derrigorra etortzen bazen irtetea, baina ez gintuen inork derrigortu hola, ez zieten eman astirik derrigortzeko)*

**desaparesidu:** desagertu

**deseiñ:** desegin

**desfrutau:** gozatu, ondo pasatu

*"A bañe, ontxe, desfrutetan daben moruen desfrutetan gendun orrekin gausokin" - (A baina, oraintxe, gozatzen duten moduan gozatzen genuen gauza horiekin)*

**desgubernau:** desgobernatu

**desiau:** opatu, opa izan

**deskantzau:** deskantsatu

*"Deskantzau eitten da" - (Deskantsatu egiten da)*

**deskargau:** deskargatu

**deskuidau:** deskuidatu

**destakau:** nabarmendu

*"Destakau eitten da, beti poste gañien geatzen da, gero bajetan da lurrera arrato ero seoser, suba ero, bajetan da bañe atzera be gora" - (Nabarmendu egiten da, beti poste gainean geratzen da, gero baxatzen da lurrera arratoi edo zer edo zer, suge edo, baxatzen da baina atzera ere gora)*

**dilatau:** dilatatu, handitu, eman

*"Egurre siketuskeru ba, a, dilatau eitten da, ta, urten eitte otzan ordun klaro! busti apur bat" - (Egurra sikatuz gero ba, hura, dilatatu egiten da, eta, irten egiten zion orduan jakina! busti apur bat)*

**disfrasau:** mozorroto

**diskutidu:** eztabaidatu

**domiñau:** menperatu

*"A esi leike inyarras domiñau, begidkek tapaute" - (Hura ezin liteke indarragaz menperatu, begiak tapatuta)*

**dorau:** doratu

**ebai, ebei:** ebaki

*"Orre tie atzaskalak! iños anketan da besta? ta ebai ero, gitxitxo ebai ero, orre tire atzaskalak!" - (Horiek dira atzaskalak! inoiz hanketan eta ere ezta? eta ebaki edo, gutxitxo ebaki edo, horiek dira atzaskalak!)*

*"Bedarra, ontxe be bai, e, amar urtien, e, estot ebai bañe, se oiñ ya estekou ganaurik eta olako gausaik" - (Belarra, oraintxe ere bai, hamar urtean, ez dut ebaki baina, ze orain ja ez daukagu ganadurik eta holako gauzarik)*

*"Pasau dana da ba, ebai tte ebai tte ebai beti eiñeskero ba apur bat, e, obetotxua geratzen da" - (Pasatu dena da ba, ebaki eta ebaki eta ebaki beti eginez gero ba apur bat, hobetotxoago geratzen da)*

**ebakuau:** ebakuatu

**ebali:** erabili

*"Bueno esten ibiltte giñen, e, esten esaten dotzeu, esi, esi, eta, selan? ba bustertute, batzutan, asieran ganea bustertzen gatxak ixete sien, se estie geldi egoten, da*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*ba, kontus ibilli biar ixete san, se martxe ta eitte ben, da eseben jun gu ixeten da, gausa asko egoten die, da gero ba ebali, besteik esebes, ebali, bueno gausa bat eitte sana san, sastaidxe, baserridxen aurrie ori da sastaidxe, da sastaidxen, bueltaka ebalte sien, bustertu, bustertute, sera, bueltaka ebalte geuntzen, bueltaka, alde batera eta bestera, bera nora gatxa ibiltte san, eskerrera ero eskumara aexen aldera gedxa ebali" - (Beno hesten ibiltzen ginen, hesten esaten diogu, hesi, hesi, eta, zelan? ba buztartuta, batzuetan, hasieran gainera buztartzen gaitzak izaten ziren, ze ez dira geldi egoten, eta ba, kontuz ibili behar izaten zen, ze joan eta egiten ziren, eta ez zuten joan gura izaten eta, gauza asko egoten dira, eta gero ba erabili, besterik ezer ere ez, erabili, beno gauza bat egiten zena zen, sastegia, baserrien aurrea hori da sastegia, eta sastegian, bueltaka erabiltzen ziren, buztartu, buztartuta, zera, bueltaka erabiltzen genituen, bueltaka, alde batera eta bestera, bera nora gaitza ibiltzen zen, ezkerrera edo eskumara harexen aldera gehiago erabili)*

## **ebatu:** oratu

*"Txakurrai ebatu otzat" - (Txakurrari oratu diot)*

*"Da gero daunbadias eitten basendun, ondo ebatute espasas, gora goraka soyas" - (Eta gero daunbadagaz egiten bazenuen, ondo oratuta ez bazagoz, gora goraka zoaz)*

## **egon:** egon

*"Ni ego nasenetan asko es" - (Ni egon naizenetan asko ez)*

## **egosi:** egosi

*"Anise esate ben aixiendako, nik erosi iños ei neban, e? uretan egosi axe ure emon, garantxo batzu tire anisenak, axe emon" - (Anisa esaten zuten haizeentzat, nik erosi inoiz egin nuen, e? uretan egosi ur huraxe eman, garautxo batzuk dira anisarenak, huraxe eman)*

## **egurdi:** igurtzi

## **eiñ, iñ:** egin

*"Ori al dan moruen eingo dabe" - (Hori ahal den moduan egingo dute)*

*"Oin be olantxi da, e? or godxen oin be olantxi da, arek estotze ikutui pe eiñ" - (Orain ere holantxe da, e? hor goian orain ere holantxe da, haiek ez diote ikuturik ere egin)*

*"Saltzeko eitten dabena pa, are pai eingo tza bañe guk es" - (Saltzeko egiten duenak ba, hark bai egingo dio baina guk ez)*

## **ekarri:** ekarri

*"Ori ekarritte estu eser eitten" - (Hori ekarrita ez dugu ezer egiten)*

*"Esa otzut ekarri dotena" - (Esan dizut ekarri dudana)*

## **ekiñ:** ekin

*"Burdi batekin eki tzan basura batzen" - (Gurdi batekin ekin zion zaborra batzen)*

## **ekutu:** ikutu, ukitu

**eldu:** 1. heldu, 2. pertsona heldu. 3. heldu, oratu

*"Bañe beiñ eldutekuen esteko esnerik" - (Baina behin heldutakoan ez dauka esnerik)*

*"Eldu barik, ondo eldu barik jaten danien, erre itte otzu" - (Heldu barik, ondo heldu barik jaten denean, erre egiten dizu)*

## **elejidu:** aukeratu

*"Elejidu arboliai ba, lena etxerako egurre ebateko, e, adarrik senduenak ebate akosan beti, bertan arbolan, paguai idxo, selan oten dien pago motzak eta buru aundixas, oin be badekau guk an goidxen, botatie be estabe isten oin ye" - (Aukeratu arbolari ba, lehenago etxerako egurra ebakitzeko, adarrik sendoenak ebakitzten zitzaizkion beti, bertan arbolan, pagoari igo, zelan egoten diren pago motzak eta buru handiagaz, orain ere badaukagu guk han goian, botatzea ere ez dute uzten orain eta)*

**emon:** 1. eman. 2. itxura eduki, iruditu. 3. handitu, malgutu

*"Orduko berreun emoten dabe" - (Orduko berrehun ematen dute)*

*"Etxeik etxe ibiltten da ta, borondatie dauena, emon borondate gustidixas da" - (Etxerik etxe ibiltzen da eta, borondatea dagoena, eman borondate guztiagaz eta)*

*"Sartze akon egur bat, ba egurre sera, emote ban egurre" - (Sartzen zitzaion egur bat, ba egurra zera, ematen zuen egurra)*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**enamorau:** maitemindu

**endekatu:** endekatu. degeneratu

"Endekatu eitten dok ba kaso batesko arbolien nekes dauenien, personien moruen personie, serak, jate espadau endekatute dak" - (Endekatu egiten duk kasu baterazkero arbolan nekez dagoenean, pertsonaren moduan pertsona, zerak, jaten ez badu endekatuta zagok)

**engañau:** engainatu

**engantxau:** engantxatu

**enkajau:** enkajatu, sartu

"Barrue ixate san egurre, egurrek satike enkajaute" - (Barrua izaten zen egurra, egurrak zatika enkajatuta)

**enpatau:** hainbanatu, parra egin

**entendidu:** aditu, ulertu

**enterau:** enteratu

"Oingo moruen danas enterau be etzan eitten orduen jentie ta" - (Oraingo moduan denagaz enteratu ere ez zen egiten orduan jendea eta)

**enterrau:** lurpetu, ehortzi

"Gure amamak konteta oskun amen, e, ona etorri san Bastida san Askoittikue, da Somorrostron minetara juen bierrera, ta andik etorrela, enterau san baserridxe, giltzek atepien itxitte martxau ebala errentie pagau barik eta, ba, amen paraje eskas samarra ixen be au dana aldapie ta, da orduen etorri sien ona, da aitte ta ama ta sasp nebarreba, e, Madaridxatik, Askoittitik, da aitte ta amak, or peste denporan ero, ill dxakosan, da berak artu, burdidxen eruen Berrisera ta berak enterrau sittuela aitte ta ama, se iñok, e, estaipa nik pestie ero se eongo san, epidemidxamat ero or eongo san, da beti esateban berak eruen sittuela burdidxen, aittittek, da berak enterrau sittuela" - (Gure amamak kontatzen zigun hemen, hona etorri zen Bastida zen Azkoitiakoa, eta Somorrostron meatzetara joan beharrera, eta handik zetorrela, enteratu zen baserria, giltzak atepian utzita joan zela errenta ordaindu barik eta, ba, hemen inguru eskas samarra izan ere hau dena aldapa eta, eta orduan etorri ziren hona, eta aita eta ama eta zazpi neba-

arreba, Madariagatik, Azkoittitik, eta aita eta amak, hor izurrite sasoian edo, hil zitzaizkion, eta berak hartu, gurdian eroan Berrizera eta berak lurpetu zituela aita eta ama, ze inork, ez dakit ba nik izurritea edo zer egongo zen, izurriteren bat edo hor egongo zen, eta beti esaten zuen berak eroan zituela gurdian, aitaita-amamak, eta berak lurpetu zituela)

**entregau:** eman

"Orrek ixate suasen entregau eitten genduasen" - (Horiek izaten zituan, eman egiten genizkian)

**entrenau:** entrenatu

**entzun:** entzun

"Entzunde dekot ori" - (Entzunda daukat hori)

"Olako bat entzunde dekot" - (Holako bat entzunda daukat)

"Emen estot entzun nik bein be ori" - (Hemen ez dut entzun nik behin ere hori)

"Ori kaballuoi estak ondo, beti etzunde" - (Zaldi hori ez zagok ondo, beti etzanda)

**eon, egon:** egon

"Orrek euskitten egon die" - (Horiek eguzkitan egon dira)

"Semat bider eon sara or?" - (Zenbat bider egon zara hor?)

"Burdixe ori bai, apur bat al danik eta sentreta eon daitten, esta?" - (Gurdia hori bai, apur bat ahal denik eta zentratuta egon dadin, ezta?)

**epeldu:** epeldu

**erabagi, erebagi:** 1. erabaki. 2. karta jokoan kartak nahastu

"Erebagi bai bañe nastau te gero, nastau te ipiñi eitte ittue olan" - (Erabaki bai baina nahastu eta gero, nahastu eta ipini egiten dituzte hola)

**erabilli:** erabili

"Ser dabixu or eskuetan?" - (Zer darabilzu eskuetan?)

"Ankie olan ipiñi, ta ankan olan gora ta bera erabilli, ta posik ibiltte san umie, onei be ei tza pa nik ori" - (Hanka hola ipini, eta hankan hola gora eta behera erabili, eta pozik ibiltzen zen umea, honi ere egin diot nik hori)

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Nik, e, guk erabilte itunek, e, beixenak die" - (Nik, guk erabiltzen ditugunak, behienak dira)

**eraiñ:** 1. erein. 2. eragin. 3. eragin faktitiboa  
"Orri barre eraingo tze" - (Horri barre eragingo diote)

"Jan eraingo tze dana" - (Jan eragingo dioten dena)

"Orri etorri eraingo tze" - (Horri etorri eragingo diote)

"Umiai negar erai otze" - (Umeari negar eragin diote)

"Aittai etorri erai otze" - (aitari etorri eragin diote)

"Amak goxa jagi erai osta" - (Amak goizetik jaiki eragin dit)

**erakutzi:** erakutsi

"Nere nebie ta, Berristik etorte san, da arexek erakutzi otzen" - (Nire neba eta, Berriztik etortzen zen, eta harexek erakutsi zien)

**eralgi:** eralgi

**eran:** edan

"Basu bete ur erau" - (Baso bete ur edan dugu)

"Ganauek ure erate ben an" - (Ganaduek ura edaten zuten han)

**eraso:** eraso, meza ematen lagundu

"Mesie eraso da monagilluek eitten dabena, laguntzallie, abarien laguntzallie da mesie erasotie" - (Meza eraso da meza-mutilak egiten duena, laguntzailea, abadearen laguntzailea da meza erasotzea)

**ereiñ, eraiñ:** erein

"Bai tte gero beras batera be ereitte san" - (Bai eta gero beragaz batera ere ereiten zen)

**erne:** erne

"Ta pentzaixu, akordeta nas ereitten genduen artue ta erneta sanien babie ereiñ" - (Eta pentsa ezazu, gomutatzen naiz ereiten genuen artoa eta ernetzen zenean baba erein)

**ernegau:** ernegatu

**eritxi:** iritzi; aditz hau trinkoa da: deitxot, deitxesu, deitxesue

**erosi:** erosi

"Au erosi ot umiai emoteko" - (Hau erosi dut umeari emateko)

**erre:** erre

"Orri etxie erre dxako" - (Horri etxea erre zaio)

"Gero erre, irias, irie erabilten du guk" - (Gero erre, iragaz, ira erabiltzen dugu guk)

**erregalau:** erregalatu, opaldu

"Emen karmelitak selan euesan, arek erregalate ben" - (Hemen karmelitak zelan zeuden, haiek erregalatzan zuten)

**erregutu:** erregutu

"San Ramoni erregutuko tzau" - (San Ramoni erregutuko diogu)

**errekisau:** errekisatu

**errematxau:** errematxatu

"An gorittute jo mallukias, alde batetik bestera paseta ben, danetan, buelta emon da gero beste aldie errematxau" - (Han gorituta jo mailukiagaz, alde batetik bestera pasatzen zuten, denetan, buelta eman eta gero beste alde errematxatu)

**errementau:** errementatu

"Ill eiñ ei dxakuen, e, errementaute, bedxe" - (Hil egin ei zitzaien, errementatuta, behia)

**errepasau:** errepasatu

"Satidxe eta errepasau be bai gero, danetik eitte ban" - (Zatiak eta errepasatu ere bai gero, denetik egiten zuten)

**erresau:** erregutu, erreztatu, otoitz egin

"Ba, elixiai bueltie itte akon, sera, kurutze bakoitxai erresetan" - (Ba, elizari buelta egiten zitzaion, zera, gurutze bakoitzari erreztatzen)

**errespetau:** errespetatu

"Da ontxe be, obrak ei ttue bañe askaurrie errespetau in yabe" - (Eta oraintxe ere, beharrak egin dituzte baina askaurria errespetatu egin dute)

**errestu:** erraztu

**erretirau:** erretiratu, baztertu

"Bañe ori bestioi antxiñe erretirau eben" - (Baina beste hori antzina baztertu zuten)

**eruen, erun:** eroan

"Eskuetan artute erun dabe" - (Eskuetan hartuta eroan dute)

"Antzua suk estosu entzunde euko iguel, emen, e, guk Antzuara eruten genduen, Saldibar dana pe Antzuara, Saldibar osuek, e? Antzuara, ortxe estasiño

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*onduen da" - (Antzua zuk ez duzu entzunda edukiko beharbada, hemen, guk Antzuara eroaten genuen, Zaldibar denak ere Antzuara, Zaldibar osoak, e? Antzuara, hortxe geltoki ondoan dago)*

**esan:** 1. esan. 2. tratatu

*"Ori esanda da" - (Hori esanda dago)*

*"Madarikasiñue esaten dabenak, e, madarikasiñue bakarrik estau esaten, gausa asko esaten dau" - (Madarikazioa esaten duenak, madarikazioa bakarrik ez du esaten, gauza asko esaten du)*

*"Nik esa neban au estoye ametik, da ba or da" - (Nik esan nuen hau ez doa hemendik, eta ba hor dago)*

*"Atxia motxia kumelipan esate san gañera" - (Atxia-motxia kumelipan esaten zen gainera)*

**esarri:** ezarri, oiloak habian txitak ateratzeko jesartzen denean esaten da

*"Ollue da or esarritte" - (Oiloa dago hor ezarrita)*

**esautu:** ezagutu

*"Esautu neuk ein yot ori" - (Ezagutu neuk egin dut hori)*

*"Setatik esautze nosu?" - (Zertatik ezagutzen nauzu?)*

*"Ikusi ttuas, e, jadxetan etate ittuenien bañe ni neuk amen bertan, ni neuk estittuas esautu" - (Ikusi ditut, jaietan ateratzen zituztenean baina nik neuk hemen bertan, nik neuk ez ditut ezagutu)*

**esi:** hezi

**esistiru:** existitu

*"Karatueskero solue ba bareik etzan esistitzen ordun, esistiru bai bañe, es soluen barrun, karie botatako lekuen es" - (Karatuz gero soroa ba barerik ez zen existitzen ordun, existitu bai baina, ez soroaren barruan, karea botatako lekuan ez)*

**eskapau:** ihes egin

*"Entzun bai sarritten, da, sera, eskapau eitten dabenien" - (Entzun bai sarritan, eta, zera, ihes egiten dutenean)*

**eskastu:** eskastu

**eskatu:** eskatu

*"Eskatu barik emon i oskue" - (Eskatu barik eman egin digute)*

**eskegi, eskei:** eskegi

*"Eitte ben ser masa bat, axeas egosi, da gero, eskei" - (Egiten zuten zer ore bat, harexegaz egosi, eta gero eskegi)*

**eskiñi:** eskaini

*"Arek erabagitte ben ero, tratante bati eskiñi, ero ermandarara emon ero" - (Haiek erabakitzen zuten edo, tratulari bati eskaini, edo ermadadara eman edo)*

**eskondu:** ezkondu

*"Amen jeneralien ixete san ba, bakixu, lelengo, serekue estakixu, gero eskondu san da kanpora juen san, Pintxe esate tzen" - (Hemen gehienetan izaten zen ba, badakizu, lehenengo, zerekoa ez dakizu, gero ezkondu zen eta kanpora joan zen, Pintxe esaten zioten)*

**eskutau:** ezkutatu

*"Politikie dala ta estala eskutaute euen" - (Politika dela eta ez dela ezkutatuta zegoen)*

**eskribidu:** idatzi

**esmaltau:** esmaltatu

**esplikau:** azaldu

**estimau:** estimatu

**estrenau:** estreinatu

*"Da geuk ikasi gendun a, da geuk lelengo eiñ, estrenau genduen amen" - (Eta geuk ikasi genuen hura, eta geuk lehenengo egin, estrenatu genuen hemen)*

**estudidxau:** estudiatu

*"Idxe idxe abadie itteko beste estudidxau misaletik" - (Ia ia abadea egiteko beste estudiatu misaletik)*

**estutu:** estutu

*"Asko artzen dau ure, da gero atza estutu a barrido be" - (Asko hartzen du ura, eta gero atzera estutu hura berriro ere)*

*"Intxaurras, e, sera, señek intxaur gogorraue, intxaur, bi ipini alkarras, estutu te apurtzen" - (Intxaurragaz, zera, zeinek intxaur gogorragoa, intxaur, bi ipini elkarregaz, estutu eta apurtzen)*

**etorri:** etorri

*"Esta etorri ume bape" - (Ez da etorri ume bat ere)*

**euki, eukiñ:** eduki

*"Euki dot umie neure besuetan" - (Eduki dut umea neure besoetan)*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Nik urte baten euki ninyun, nik estakitt, e, ser" - (Nik urte baten eduki nuen, nik ez dakit, zer)

**eutzi:** eutsi

"Eutzi bitzek, bestela maatza jausi eitten da bera" - (Eutsi behar diok, bestela mahatsa jausi egiten da behera)

"Buelta eraitteko baño gedxa eusteko erabilte san, goittik sartu egurre, egur bat sartu goittik eta eusteko" - (Buelta eragiteko baino gehiago eusteko erabiltzen zen, goitik sartu egurra, egur bat sartu goitik eta eusteko)

**fallau:** huts egin

"Gu be italianuek arrapau giñuesan da, akordeta nas ni, goxien Laredon, e, dianie, jaiki jaiki euskotarrak oixe jote ben musikie, seras, da gero ba, arek fallau i eben itxurie, prometidutekue eseben eiñ, estakitt italianuk prometidute ala Españako gobiernuk ala señek" - (Gu ere italiarrek harrapatu gintuzten eta, gomutatzen naiz ni, goizean Laredon, diana, Jaiki-Jaiki Euskotarrak horixe jotzen zuten musika, zeragaz, eta gero ba, hark huts egin zuten itxura, agindutakoa ez zuten egin, ez dakit italiarrak aginduta ala Españako gobernuak ala zeinek)

**faltau:** faltatu

**fermentau:** fermentatu, hartzitu

**fijau:** fijatu

"Fijau saitte urrenguen da aintxe deko" - (Fijatu zaitetz hurrengoan eta hantxe dauka)

**filtrau:** irazi

"Bai egosi itten da ta gero filtrau, te aren ure eran" - (Bai egosi egiten da eta gero irazi, eta haren ura edan)

"Ladxaueskero, neguen, euri asko ta edur asko eitte ban, oin baño edur gedxa eitte ban len, eta filtrau eitten da ladxaueskero" - (Laiatuz gero, neguan, euri asko eta elur asko egiten zuen, orain baino elur gehiago egiten zuen lehen, eta irazi egiten da laiatuz gero)

**finyu:** findu

**firmau:** sinatu

**flojotu:** lasaitu

**forjau:** forjatu

"Orrek jeneral ixate sien, e, piesa txikidxauek eitteko, txispak eta berotu te, forjetako junguran da orrek gausok eitteko" - (Horiek gehienetan izaten ziren, pieza txikiagoak egiteko, zizpak eta berotu eta, forjatzeko jungudean eta gauza horiek egiteko)

**formau:** formatu

"Esaten dabe sertueskero, e, arra be formetakuela" - (Esaten dute zertuz gero, harra ere egiten zaiela)

**forrau:** forratu

**frenau:** galgatu, dragatu

"Dragie gero frenetakue" - (Draga gero balaztatzeko)

**frotau:** igurtzi

"Ispirittue, alkola, frotau arexas da beste erremedidxoik, e" - (Espiritua, alkohola, igurtzi harexegaz eta beste erremediorik)

**fumau:** erre

"Orrek ikusi dau bere semie fumetan" - (Horrek ikusi du bere semea erretzen)

**fundidu:** funditu

**funsionau:** funtzionatu

**gaixotu:** gaixotu

**galbaratu:** galbahetu

"Askenengo urtietan selan esan galbaretan, se orrekiñ, e, ser andidxok" - (Azkenengo urteetan zelan ez zen galbahetzen, ze horiekin, zer handiok)

"Bañe makiña txikidxas, orduen esaten geuntzen galbaratu garidxe" - (Baina makina txikiagaz, orduan esaten genion galbahetu garia)

**galdu:** galdu

"Trena galdu dabelako estok etorri" - (Trena galdu duelako ez duk etorri)

"Oñ artatxoridxe ta galdu die" - (Orain artatxoria eta galdu dira)

"Gero ori be galdu san etxietan eittie" - (Gero hori ere galdu zen etxeetan egitea)

**garatu:** garatu

"Garatu es, garatu ya, garatu, batzuk estie sekule garatzen, ta beste batzuk soluen garatzen die etxien esta garatzen esebe, silyu bai" - (Garatu ez, garatu ja, garatu, batzuk ez dira sekula garatzen, eta beste batzuk soroan garatzen dira etxean ez da garatzen ezer ere, zildu bai)

**garbittu:** garbitu



# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Bedxei garbittu ein bi ako, etara ein bi ako" - (Behiari garbitu egin behar zaio, atera egin behar zaio)

"Ori useta soan asko len itxurie, ganaue, e, bedxek txala eitte sabenien, a emon da garbitzeko sala ona esate dxuen, gure aitte sanak eta" - (Hori erabiltzen zuan asko lehen itxura, ganadua, behiak txahala egiten zuenean, hura eman eta garbitzeko zela ona esaten ziaten, gure aita zenak eta)

**garrastu:** garrastu

**gastau:** 1. gastatu. 2. higatu

"Gastau bi akon txala eitteko euen da" - (Gastatu behar zitzaion txahala egiteko zegoen eta)

"Olako, ba se esango tzut nik, e, olako senduera bat eta gero ba, errueriek gastau artien, gasteta sanien ba ebai tte barridxe" - (Holako, ba zer esango dizut nik, holako sendoera bat eta gero ba, txirrinkak higatu arte, higatzen zenean ba ebaki eta berria)

**gastetu:** gaztetu

"Umiek kantau eraitten dau, gure estosule, bai, orreaittik diñot nik umiek asko gastetzen dau personie" - (Umeak kantatu eragiten du, gura ez duzula, bai, horregatik dinot nik umeak asko gastetzen du pertsona)

**geatu, geratu, gatu:** geratu

"Ona etorri die ta emen geatu die" - (Hona etorri dira eta hemen geratu dira)

"Beti ganauai esan bi ako geratzeko, geatuskeo, itxaingo tzu seu jun artien ero dana dalakue" - (Beti ganaduari esan behar zaio geratzeko, geratuz gero, itxarongo dizu zeu joan arte edo dena delakoa)

"Gero lusero bixi ixen sien, e, oin be bixi die, da bertan gatu siena pe bai, Eibarra jun barik" - (Gero luzaro bizi izan ziren, orain ere bizi dira, eta bertan geratu zirenak ere bai, Eibarrera joan barik)

**geittu:** gehitu

"Basurdie bai geittu da" - (Basurdea bai gehitu da)

**geldittu:** gelditu

"Alargun geldittu san, Irungo andra bat euken, neska mutillek umiek" - (Alargun

gelditu zen, Irungo andre bat zeukan, neska-mutilak umeak)

"Bost ero sasaki ero amar urtera an sulue itten da galanta, ure gelditze akolako" - (Bost edo zazpi edo hamar urtera han zuloa egiten da galanta, ura gelditzen zaiolako)

**gertau:** gertatu, prestatu

"Ta ordun be, gertau eitte ben gure jaune artzeko, oin desbardiñe da bañe" - (Eta orduan ere, gertatu egiten zuten Gure Jauna hartzeko, orain desberdina da baina)

**girotu:** altzairua girotu, tenplean ipini

**gixondu:** gizondu

**gobernau:** gobernatu

"Esebes guriek entrenau barik, gobernau ondo, baba baltza ta emon, baba baltza ta, jaten, bueno! danetik" - (Ezer ez gureak entrenatu barik, gobernatu ondo, baba beltza eta eman, baba beltza eta, jaten, beno! denetik)

**gogortu:** gogortu

"Gogortu eta eiñeskero ba, apur bat, e, gusto eskastxua deke" - (Gogortu eta eginez gero ba, apur bat, gustu eskastxoagoa daukate)

**goldatu:** goldatu

"Leku asala da an, e, goldatzen eta ibiltte sanien lena erres agertze san arrixe" - (Leku azala dago han, goldatzen eta ibiltzen zenean lehenago erraz agertzen zen harria)

"Goldatu barik eon da sasoi aundixen, eta gero goldatu eiñekue" - (Goldatu barik egon da sasoi handian, eta gero goldatu eginekoa)

**gorde:** gorde

"Txakurre amorratu eseitteko, ogi kuskurre gorde" - (Txakurra amorratu ez egiteko, ogi kurruskua gorde)

**gorittu:** goritu

"Orrek gorittute dausenien kendu" - (Horiek gorituta daudenean kendu)

**gorrittu:** gorritu

"Piper gorridxe esatotzau gu pa gero eldu te gero gorrittu eitten dana" - (Piper gorria esaten diogu guk ba gero heldu eta gero gorritu egiten dena)

**gortu:** gortu

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**grabau:** grabatu

"Eitte ben burillas grabau" - (Egiten zuten burilagaz grabatu)

**gustau:** gustatu

"Da panderue semat gustau atan neri ori" - (Eta panderoa zenbat gustatu zitzaidan niri hori)

**gutxittu:** gutxitu

**ibili, ibilli:** ibili

"Ibiliko eskiñien ba!" - (Ibiliko ez ginen ba!)

"Gastetan eta bai ibilte nitzen an, e, bedxekin" - (Gastetan eta bai ibiltzen nintzen han, behiekin)

"Iños ibilli die" - (Inoiz ibili dira)

**idxo:** eho

**igarri, igerri, ierri:** igarri

"Erres igertan da" - (Erraz igartzen da)

"Urtiek pasau ala ondio eta geixa ierri da ori" - (Urteak pasatu ahala oraindik eta gehiago igarri da hori)

"Ierri otzut kanpokue sayena" - (Igarri dizut kanpokoa zarena)

"Geuri be igerrikoskue" - (Guri ere igarriko digute)

**igertu, iertu:** ihartu

"Sikutiek joten badau ba, bedarra igertu eitten da" - (Sikateak jotzen badu ba, belarra ihartu egiten da)

**igo, igon:** igon

"Igo dabe goraño" - (Igo dute goraino)

**igualdu:** berdindu

"Oñ igualtzen doyes, bañe errittik errire berba diferentiek euesan" - (Orain berdintzen doaz, baina herritik herrira berba desberdinak zeuden)

**igurtzi, igurdi:** igurtzi

"Ur otzas da jaboyas, e, ondo igurtzi, da, gero, toalla batas ero siketu, e, igurtzi ondo ta, orduntxe berotzen dau" - (Ur hotzagaz eta xaboiagaz, ondo igurtzi, eta, gero, toailaATEGAZ edo sikatu, igurtzi ondo eta, orduantxe berotzen du)

"Ba aretxas igurtzi, da esta olako, kareik eta esebes" - (Ba harexegaz igurtzi, eta ez da holako, karerik eta ezer ez)

**ikasi, ikesi:** ikasi

"Labor oi eitteko ba ikasi neban piskat olako trapu baten da" - (Behar hori egiteko ba ikasi nuen pixka bat holako trapu baten eta)

"Ointxe be badakias nik, ikesi genduen ari be kontestetako" - (Oraintxe ere badakizkit nik, ikasi genuen hari ere erantzuteko)

**ikoldu:** ikoldu

"Ikoldu, ikoldu, ba, ser esango neuke flojotu" - (Ikoldu, ikoldu, ba, zer esango nuke laxotu)

"Ikoldute, sikuei einye" - (Ikolduta, sikuegi eginda)

**ikusi, ukusi:** ikusi

"Ikusi barik esautu ein yot" - (Ikusi barik ezagutu egin dut)

"Onetan egunetan estot ikusi" - (Egun hauetan ez dut ikusi)

"A! bai, bai, da ori neuk ikusitte dekat" - (A! bai, bai, eta hori neuk ikusita daukat)

"Amentxe ikusten da jente asko dabilena" - (Hementxe ikusten da jende asko dabilena)

**ikutu:** ikutu

**ilbandu:** ilbaindu

**ill:** hil

"Orrek bere burue il yau" - (Horrek bere burua hil du)

**illundu:** ilundu

**inbitau:** gonbidatu

"Lelengo inbitau eitte ben jentie, da ba arek juten sien ikustera, da ba gero bueltan ba, ia ba seoser emonda ba, jeneralien txokolatie ixate san" - (Lehenengo gonbidatu egiten zuten jendea, eta ba haiek joaten ziren ikustera, eta ba gero bueltan ba ea ba zer edo zer emanda ba, gehienetan txokolatea izaten zen)

**inguratu:** inguratu

**inkau:** inkatu

**interesau:** interesatu

"Keba! estok interesetan" - (Bai zera! ez duk interesatzen)

**inyartu:** indartu

**inausi:** inausi

**ipiñi, epiñi:** ipini

"Jatekue ipiñi ot su txikidxen" - (Jatekoa ipini dut su txikian)

"Gero atien asi sien ipintten" - (Gero atean hasi ziren ipintzen)

"Amen guk erabilte ousenak, asko estau ipintten bañe, bost bat, e, sulokuek ero ixengo die" - (Hemen guk erabiltzen

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*ditugunak, asko ez dugu ipintzen baina, bost bat, zulokoak edo izango dira)*

**ira:** ieron, garraiatu

*"Amak irate ban jeneralien, gu umiek eta, asko bañe ira bier" - (Amak garraiatzen zuen gehienetan, gu umeak eta, asko baina garraiatu behar)*

*"Orras irate ban gure amak, semat irate ban!" - (Horregaz garraiatzen zuen gure amak, zenbat garraiatzen zuen!)*

**irabasi, irebasi:** irabazi

*"Kontau eitte san da sematek gedxa eiñ, arnasia ta, anakak ajillek eukesanak ba arek irabaste ban beti" - (Kontatu egiten zen eta zenbatek gehiago egin, arnasa eta, hankak bizkorrak zeuzkanak ba hark irabazten zuen beti)*

**iragarri:** iragarri

**irakiñ:** irakin

*"Da ba, boteta osu esnetara ta irakiñ estaidxela gogor eiñ" - (Eta ba, botatzen duzu esnetara eta irakin ez dezala gogor egin)*

**iraotu:** altzairua gogortzeko aplikatzen zaion tratamendua egitean esaten dena

**iraun:** iraun

**iroldu:** iroldu

**iskotu:** idiskotu

**ispittu:** izpitu

*"Da ori tte makillaue be bai auspien erre, auspien erre makillau satidxe, e, txingerran aspidxen, da gero kendu autzek eta, dana ispittu, ispittu, da oridxuas, oridxo gordiñas" - (Eta hori eta makailoa ere bai hauspean erre, hauspean erre bakailao zatia, txingarraren azpian, eta gero kendu hautsak eta, dena izpitu, izpitu, eta olioagaz, olio gordinagaz)*

**itto:** ito

**itxaiñ, itxeiñ:** itxaron

*"Orrei itxai otzat" - (Horri itxaron diot)*

*"Itxaiñ eingo tzut" - (Itxaron egingo dizut)*

*"Itxaitten beti abioyai, ba abioye bai bestiena beti" - (Itxaroten beti hegazkinei, ba hegazkina bai besteena beti)*

**itxartu, etxartu:** itzartu, itzarri

**itxi:** 1. utzi 2. itxi

*"Ori itxixu or piskaten" - (Hori utz ezazu hor piska baten)*

*"Etxera jue nasenien atie itxitte egon da" - (Etxera joan naizenean atea itxita egon da)*

*"Lorrotza itxi dau" - (Lorrotza utzi du)*

**itxundu:** etzan

**itxuratu:** itxuratu

**itzuldu, itzuldi:** irauli

*"Gutxitten guri itzuldi akun burdidxe, e? gutxitten, bañe, aldapak eta leku txarrien ibiltte giñen, e?" - (Gutxitan guri itzuli zitzaigun gurdia, e? gutxitan, baina, aldapak eta leku txarrean ibiltzen ginen, e?)*

**itzutu:** itsutu

**ixan, ixen:** izan

*"Ni lo eittaillie ixa nas" - (Ni lo egitailea izan naiz)*

*"Ori geu, e, eskertidxe ixen ero eskumetidxe ixen igual" - (Hori geu, ezkertia izan edo eskumatia izan berdin)*

**ixendau, ixentau:** izendatu

*"Jeneral ganera, amak berak ixentaute aurretik ipintte ban" - (Gehienetan gainera, amak berak izendatuta aurretik ipintzen zuen)*

**ixerditu:** izerditu

**ixilyu:** isildu

*"Gaur ixilyu da" - (Gaur isildu da)*

**ixon:** igon

*"Etxera ixon dot" - (Etxera igo dut)*

**ixotu, isotu:** isiotu

*"Elixan kanpaye jo, argidxe ixotu, da gero be, ba, sera, abadieie lagundu, mesie emoten dabenien" - (Elizan kanpaia jo, argiak isiotu, eta gero ere, ba, zera, abadeari lagundu, meza ematen duenean)*

**jabetu:** jabetu

*"Nik Elorridxon, e, lagun asko neukesan da, da oin be badekas bañe iguel da, tallerretan da, e, usaba bi iguel ero, iru te, bata, e, billurraittik ero anka eiñ ye gero bestie jabetu te, orrek esaten sittuen" - (Nik Elorrion, lagun asko neuzkan eta, eta orain ere badauzkat baina berdin da, tailerretan eta, ugazaba bi beharbada edo, hiru eta, bata, bildurragatik edo hanka egin eta gero bestea jabetu eta, horiek esaten zituzten)*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**jabondu:** xaboiztatu

"Bertan jabontze san da gero akklarau te jo be bai" - (Bertan xaboitzen zen eta gero akklaratu eta jo ere bai)

**jadxo, jaixo, jaxo:** jaio

"Ni jaxo nitzen momentuen, e, sera, kanpotik etorren ure" - (Ni jaio nintzen momentuan, zera, kanpotik zetorren ura)

**jagi, jaiki:** jaiki

"Ogera juteko beti erresetat san, da goixien jaikitzerakuen be bai" - (Ohera joateko beti errezatzen zen, eta goizean jaikitzerakoan ere bai)

**jakiñ:** jakin

"Ordun jakingo ben ba, maixuen bat euen ero, abariak ero, iñok estakidxen amen, danak euskeras eitte ben" - (Orduan jakingo zuten ba, maisuren bat zegoen edo, abadeak edo, inork ez zekien hemen, denek euskaraz egiten zuten)

"Ori be jakiñ ein biko da eitten" - (Hori ere jakin egin beharko da egiten)

**jan:** jan

"Ori guri umetan esate oskuen ori janeskero estala asten" - (Hori guri umetan esaten ziguten hori janez gero ez dela hazten)

**jantzi:** jantzi

**jarraitu:** jarraitu

**jarri:** jarri

"Asko, len saso baten, bideik eseuenien seras ba, jarri gañien nobera da andixik eitte giñen" - (Asko, lehen sasoi baten, biderik ez zegoenean zeragaz ba, jarri gainean norbera eta handixik egiten ginen)

**jaso:** jaso

**jaurti:** jaurti

"An jaurti garidxe eta erneta san ondo, edurre einye be urik sekule esan argitzen" - (Han jaurti garia eta ernetzen zen ondo, elurra eginda ere urik sekula ez zen agertzen)

**jausi:** jausi

"Ori uretara jausi da" - (Hori uretara jausi da)

"An atzaskala jausi artien, esebes ari, e?" - (Han atzaskala jausi artean, ezer ere ez hari, e?)

"Lurre jausi ok or" - (Lurra jausi duk hor)

**jo:** jo

"Da a bai peligosue dala, anak eta jakiñ ein bi da piskat, se bajatzen danien bera, ba dou! joten dau beye, da suk anak, e" - (Eta hura bai arriskutsua dela, hankak eta jakin egin behar da pixka bat, ze baxatzen denean behera, ba dou! jotzen du behea, eta zuk hankak, e)

"Beren aittek jo dau" - (Beraren aitak jo du)

"Nobera joeskero ba, bakixu, axe txarra" - (Norbera joez gero ba, badakizu, huraxe txarra)

"Jun etxa, bueltan pasau olan atza, beittu, an jota dak" - (Joan etxera, bueltan pasatu hola atzera, begiratu, han jota zagok)

**jokatu:** jokatu

**jorratu:** jorratu

**josi:** josi

**jubilau:** jubilatua, erretiratu

**juen, jun:** joan

"Esi lleike juen kotxie eukiñ esettera" - (Ezin liteke joan autoa eduki ez egitera)

"Eskerrarus jun die orrek" - (Ezkerrerantz joan dira horiek)

"Ni orra enas jun esetako be, bakitt, e, dekona ori" - (Ni horra ez naiz joan ezertarako ere, badakit, daukana hori)

**juntau:** elkartu, batu

"Lena ba, etxien eta egote sien baten batzuk or Arratidxaldetik ona etorte san itxurie, ba oin yala, gerrie, aurretik, e, Saldiberko estasiñuen iruogetamar juntau ei soasen baten, e, kridxau te kridxara amen Mallabialdetik eta estasiñure ba Saldiberra ta, amen bueltan, iruogetamar, Arratidxarus juteko, gabonetan, kridxau-kridxara ba" - (Lehenago ba, etxean eta egoten ziren baten batzuk hor Arratia aldetik hona etortzen zen itxura, ba orain dela, gerra, aurretik, Zaldibarko geltokian hirurogeita hamar elkartu ei zituan baten, morroi eta neskame hemen Mallabi aldetik eta geltokira ba Zaldibarrera eta, hemen bueltan, hirurogeita hamar, Arratiaruntz joateko, gabonetan, morroi-neskame ba)

**kalkulau:** kalkulatu

**kanbidxau:** aldatu

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Erri batetik bestea kanbidatzzen da berbie Biskayaldien" - (Herri batetik bestera aldatzen da berba Bizkaia aldean)

**kantau:** kantatu

"Onei etxake kantau olakoik eta" - (Hauei ez zaie kantatu holakorik eta)

**kantzau:** nekatu

"Len, e, iri bat eta bedxek eta euesan ba, bei bat kantzeta sanien ba beste batas gero ta ba, ordun, e, eroseñ aldetatik iguel, ganau batzuei erakutzi ledxue ori, e? erabiltten baosu" - (Lehen, idi bat eta behiak eta zeuden ba, behi bat nekatzen zenean ba beste bategaz gero eta ba, orduan, edozein aldetatik berdin, ganadu batzuei irakatsi lekieke hori, e? erabiltzen baduzu)

**kapau:** 1. irendu. 2. arbolak kapatu

"Askorias, kapau ero esate ako, ero sati bat kentze otzasu ba erresa botatiaittik eta, andidxe basan ba piskat estutu kortie" - (Aizkoragaz, kapatu edo esaten zaio, edo zati bat kentzen diozu ba errazago botatzeagatik eta, handia bazen ba pixka bat estutu ebakia)

"Larrei itte sanien kapau eitte sittuen, da parejie itte ben etxien, iridxek" - (Larregi egiten zenean irendu egiten zituzten, eta para egiten zuten etxean, idiak)

**karatu:** karatu, kareztatu

"Garidxe eraitteko karatu ein biar ixate san aurretik" - (Garia ereiteko karatu egin behar izaten zen aurretik)

**kardau:** gardatu

"Kardau bai, kardetako katxarruek, olan, e, dana ortz, untzen morukuek, dana untze eukenak" - (Gardatu bai, kardatzeko trasteak, hola, dena hortz, iltzen modukoak, dena iltze zeukatenak)

**kargau:** kargatu, zamatu

"Orduen, e, sera, sardie esate geuntzen, e, sera sartu, da kargau burdidxe" - (Orduan, zera, sarda esaten genion, zera sartu, eta kargatu gurdia)

"Karie itteko ta, esta? badakitt olan kargau kargau einye" - (Karea egiteko eta, ezta? badakit hola kargatu kargatu eginda)

**kastigau:** zigortu

**katietu:** katigatu

"Gero eukena san, gurien bota banak, sitze euken ondo katietute, esaban betunaidxuek ba, normalien esabala eingo arek, sitze, aiñ eukela pegaute, ta ba axe kentzie kostau akon ba" - (Gero zeukana zen, gurean bota zuenak, karena zeukan ondo katigatuta, esan zuen albaitariak ba, normalean ez zuela egingo hark, karena, hain zeukala itsatsita, eta ba huraxe kentzea kostatu zitzaion ba)

**kejau:** kexatu

**kendu:** kendu

"Ta beste bat goixakue ote san, bañe gutxia emote bala ta kendu genduen guk alakue" - (Eta beste bat goizetikoa egoten zen, baina gutxiago ematen zuela eta kendu genuen guk halakoa)

**kiskilyu:** kiskali

**kobrau:** kobratu

"Orrek eun kobretan dabe kiloko" - (Horrek ehun kobratzen dute kiloko)

**kojotu:** koxotu

**kolokau:** ezarri

**komentau:** komentatu

**komulgau:** komulgatu

"Amen komulgetan jute sanai txantela emote otzen, txantel bat esaten, justifikantie moruen esate akona" - (Hemen komulgatzen joaten zenari txantela ematen zioten, txantel bat esaten, justifikante moduan esaten zitzaiona)

**konbidau:** gonbidatu

**konfesau:** aitortu

"Ba konfesau te komulgau, paskoaskue" - (Ba aitortu eta komulgatu, bazkoazkoa)

**konfundidu:** okertu

**konpondu:** konpondu

**konsegidu:** lortu, eskuratu

**konsentrau:** batu

**konserbau:** kontserbatu

**kontau:** kontatu

"Oixe ba, euriik esaban eitten, da uretan sartu ebela, ori esate ben, nik neuk estot esautu, uretan sartu ebela, da sekulako euridxek ein sittuela, kontau alan eitte ben" - (Horixe ba, euririk ez zuen egiten, eta uretan sartu zutela, hori esaten zuten, nik neuk ez dut ezagutu, uretan sartu

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*zutela, eta sekulako euriak egin zituela, kontatu hala egiten zuten)*

**kontestau:** erantzun

*"Bastante gerua etorri da ori kentestetioi, monagilluek kontestete ban" - (Nahikoa geroago etorri da hori erantzute hori, meza mutilak erantzuten zuen)*

**konturetu:** konturatu

*"Konturetu nas orras" - (Konturatu naiz horregaz)*

**korridu:** korritu

*"Limautzan selan korriduko dau ba? eldu eitte otza arek" - (Lima hautsean zelan korrituko du ba? heldu egiten dio hark)*

**koskondu:** koskortu

*"Badoye koskontzen, lenakuauek euken ori oitturie bastante" - (Badoa koskortzen, lehenagokoek zeukaten ohitura hori nahiko)*

**kostau:** kostatu

*"Da seaittik ese asko kosteta dana da ba, itxi ebesan bertan" - (Eta zergatik eze asko kostatzen dena da ba, utzi zituzten bertan)*

**kotisau:** kotizatu

**krusau, kursau:** gurutzatu

**kubikau:** kubikatu

*"Kubikau? len len, nik neuk beti seras, ikusi dxoat metroas alturie artze otzak kamioyei, kargetok kamioye, eta alturie, eta gero ba luserie dekona, ta gero egurre selakue dan, egurre ba metro bidxen ebai ero bi tt'erdixen ebai ero, olan" - (Kubikatu? lehen lehen, nik neuk beti zeragaz, ikusi diat metroagaz altuera hartzen diok kamioiari, kargatzen duk kamioia, eta altuera, eta gero ba luzera daukana, eta gero egurra zelakoa den, egurra ba metro bian ebaki edo bi eta erdian ebaki edo, hola)*

**kunplidu:** bete, egin

*"Paskue kunplidu dosule esateko, ba txantela emote san" - (Pazkoa bete duzula esateko, ba txantela ematen zen)*

**kurau:** larrua ondu

**labandu:** labandu

**labrau:** laiatu, landu

*"Munarridxe euesan, munarridxe, da linderuek esatakuena ixeta san ba, unatxo bat, labrau barik gero" - (Munarriak*

*zeuden, munarriak, eta bidetxoak esaten zitzaiena izaten zen ba, unadatxo bat, landu barik gero)*

**lagundu:** lagundu

*"Etxera lagundu otzat" - (Etxera lagundu diot)*

**laidxatu, laixatu, ladxau:** laiatu

*"Ladxetan be bai, gari eraitteko, ta, gedxena gari eraitteko ladxetan, ostien, labrau eitte sien, artue, nabue, ori uran selan ixaten dan, ladxetan esi leike iñ uran siku oten da ta, bañe uregonien ladxau eitte san" - (Laietan ere bai, gari ereiteko, eta, gehiena gari ereiteko laietan, ostean, landu egiten ziren, artoa, arbia, hori udan zelan izaten den, laietan ezin liteke egin udan siku egoten da eta, baina udagoiengan laiatu egiten zen)*

**landatu:** 1. landatu. 2. landa egin

**landu:** landu

**laskittu:** igurtzi, arroparen kasuan esate baterako

**laurendu:** laurendu, lau zati egin

*"Osoik erueteko ba, asko, bañe laurendako ba, laurendu te, lau bider subastau" - (Osorik eroateko ba, asko, baina laurendako ba, laurendu eta, lau bider enkantean eman)*

**lautu:** lautu

**laxau:** laxatu, lasaitu

**leidu:** irakurri

**librau:** libratu

*"A bai! se trabatik kentze osku te, librau eitte giñien, trena artzeko ta gausa asko eitteko, nik sarritten, e, merketxua emotie gure ta erun daixela, sarritten, e? librau eitte giñien biskor, itxa etorteko be" - (A bai! ze trabatik kentzen digu eta, libratu egiten ginen, trena hartzeko eta gauza asko egiteko, nik sarritan, merketxoago ematea gura eta eroan dezala, sarritan, e? libratu egiten ginen bizkor, etxera etortzeko ere)*

**limau:** limatu

*"Len, e, amen Saldibarren be baeuesan, e, baserri mordue, iguel dosena bat etxien eitte benak ba, an pistolak eta, limau te eskopetak eta eitte sien, oiñ ori galdute da" - (Lehen, hemen Zaldibarren ere bazeuden, baserri mordoa, beharbada*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*dozena bat etxean egiten zutenak ba, han pistolak eta, limatu eta eskopetak eta egiten ziren, orain hori galduta dago)*

**lisansiau:** lizentziatu

*"Bi gengosan gerran, ni baño nausidxaue bestie ta, irugarrena librau te libre euen, baño anaye lisensiau ebenien, sarra lisensiau ebenien, bestie jun biar" - (Bi geunden gerran, ni baino nagusiagoa bestea eta, hirugarrena libratu eta libre zegoen, baina anaia lizentziatu zutenean, zaharra lizentziatu zutenean, bestea joan behar)*

**lisutu:** lisatu

**lodittu, lorittu, loittu:** loditu

**lokatu:** 1. lokatu. 2. arrautzak lokatu, abisaritu

*"Ollue be lokatu eitten da" - (Oiloa ere lokatu egiten da)*

**loratu:** loratu

*"Amen ori eiñ orduko ba jan eitten da, sera, loratu orduko" - (Hemen hori egin orduko ba jan egiten da, zera, loratu orduko)*

**lorrinyu:** lorrindu

*"Botatosus ganauek pasture ta, jan barik, lorrinyu ei dxuek, lorrinyu, ba nastau ero, lorrinyu" - (Botatzen dituzu ganaduak larrera eta, jan barik, lorrindu egin ditek, lorrindu, ba nahastu edo, lorrindu)*

**lorrostu:** lorraztu, zikindu

**lotu:** lotu

*"Nik estakitt esan be itte akon ixenik orri, e? begidxe, e, lotu gogor gogor" - (Nik ez dakit esan ere egiten zitzaion izenik horri, e? begiak, lotu gogor-gogor)*

**lotzatu:** lotsatu

**lumatu, lumau:** lumatu

*"Gero kasan be bai, baño gero, ba, pena, eskopetie kendu ei naben, semie pe, semie be, birritten ero urte ben, ekarri sittuen iru lau txori ilye, gero lumau bes, bestie ta pena, ba bueno akabo! eskopetie entregau te akabo!" - (Gero ehizan ere bai, baina gero, ba, pena, eskopeta kendu egin nuen, semeek ere, semea ere, birritan edo irten zuten, ekarri zituzten hiru-lau txori hilda, gero lumatu ere ez,*

*bestea eta pena, ba beno akabo! eskopeta eman eta akabo!)*

**lurbendu:** lurmendu, elurra urtzen hasten denean esaten da

**lusetu:** luzatu

**makiñatu:** makinatu

**makurtu:** makurtu

*"Alamoskaka, ipiñi bat makurtute, bestiek aren gañea idxo, bestiek aren gañea" - (Alamuskaka, ipini bat makurtuta, bestea haren gainera igo, bestea haren gainera)*

**maminyu:** mamindu

**manejau:** 1. maneiatu. 2. konpondu

*"Oñ, e, bakarrik iguel, manejetan die" - (Orain, bakarrik beharbada, maneiatzan dira)*

*"Txita pe manejetan die amiek emon barik" - (Txitak ere maneiatzan dira amak eman barik)*

**mantau:** mantatu

*"Mantau eitten da ba, estaipa nik, otzittu estaitten, ixen otzittu estaitten san" - (Mantatu egiten da ba, ez dakit ba nik, hoztu ez dadin, izan hoztu ez dadin zen)*

**mantenidu:** mantendu, mantenitu

*"Beseruek serbitzeko, esnie mantenidu bi san" - (Bezeroak zerbitzatzeko, esnea mantendu behar zen)*

**mariau:** zorabiatu

**markau:** markatu

*"Markau bai, karetan sartu, kordel bat eta bidxen artien tak!" - (Markatu bai, karetan sartu, kordel bat eta bien artean tak!)*

**martxau:** alde egin

*"Arratzaldien etorte sien, da lelengo ikeste ben eurek, da gero erakusten ipintte sittuen, da bakixu, piskat andando gure genduenak ba, martxa eitte genduen" - (Arratsaldean etortzen ziren, eta lehengo ikasten zuten eurek, eta gero erakusten ipintzen zituen, eta badakizu pixka bat martxan gura genuenak ba, alde egiten genuen)*

**matxinbrau:** matxinbratu

**matxorratu:** matxorratu

**mekanisau:** mekanizatu

**mentau:** mentatu, mendatu

*"Gero eurek, e, mentatzen dabe" - (Gero eurek, mentatzen dute)*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**meridxendau:** askaria egin, askaria jan

**metu:** mehetu

**miestu:** mehaztu

**mikatu:** 1. oiloak mikatu. 2. makaldu, ahuldu

*"Mikatu da ba lumie botaten dabenien eta lokatu txittak etateko plantetan dienien" - (Mikatu da ba luma botatzen duenean eta lokatu txitak ateratzeko paratzen direnean)*

*"Ollue pe mikatu eitten die da personie iguel iguel" - (Oiloak ere mikatu egiten dira eta pertsona berdin-berdin)*

**mingostu:** mingostu

**minyu:** mindu

**miskau:** miazkatu

*"Ausnar espada, a geldi esta sekule be, ausnar espada ba, miñas miskauko dau ero au bei au ero ormie, ero" - (Hausnar ez badago, hura geldi ez dago sekula ere, hausnar ez badago ba, mihiagaz miazkatuko du edo behi hau edo horma, edo)*

**mobidu, mogidu:** mugitu

*"Atxurras an da geldi, da, piskat mogidueskero tak! geatzen da, e? nik lengo, ondio lengo astien arrapau neban bat eta, apur bat anak mogidueskero arek itxurie an antenie ona deko, tak! geatzen da, joten badabil, apur bat mogidueskero jo ta segiruen geatzen da" - (Aitzurragaz han eta geldi, eta, pixka bat mugituz gero tak! geratzen da, e? nik lehengo, oraindino lehengo astean harrapatu nuen bat eta, apur bat hankak mugituz gero hark itxura han antena ona dauka, tak! geratzen da, jotzen badabil, apur bat mugituz gero jo eta segituan geratzen da)*

**modelau:** modelatu

**morau:** moretu, altzairuak hartzen duen kolorea tenperatura zehatz baten

**morristu:** murriztu

**moskortu:** mozkortu

**mostu:** 1. moztu, amoztu. 2. moztu, ebaki

*"Gero arek esteko bixiik, mostu eitten da biskorra, orraittik, a temperaturie sainyu ein bi da forjetan" - (Gero hark ez dauka bizirik, moztu egiten da bizkorrago,*

*horregatik, tenperatura hura zaindu egin behar da forjatzen)*

**moteldu:** moteldu

**mutilyu:** mutildu

**mutxurtu:** belar piloak egin

**nastau:** 1. nahastu. 2. kutsatu

*"Eraiteko sulfato eitte akon, sulfatuas nastete ben" - (Eraiteko sulfato egiten zitzaion, sulfatoagaz nahasten zuten)*

**neurtu, negurtu:** neurtu

*"Aras neurtze soasen len, keixie, okana ta melokotoye ta orrek gausok, ipurdidxen ba kaso bateskero, landaratik ba lurretik erresien ixate soan, ba bardinyu eitteko" - (Haregaz neurtzen zituan lehen, gerezia, okarana eta mertxika eta gauza horiek, ipurdian ba kasu baterazkero, landaretik ba lurretik mailan izaten zuan, ba berdindu egiteko)*

**obetu:** hobetu

**odolostu:** odolustu

**oittu:** ohitu

*"Luanak, karkabie, karkabie berie ixete bala esate ban gure aittek, eta emen alan oitze gendun guk, gure luanetan, e, karkabie ebalte ban, luana eukenak, luana, lurre botata euen aldekuak" - (Luganak, karkaba, karkaba berea izaten zuela esaten zuen gure aitak, eta hemen hala ohitzen genuen guk, gure luganetan, karkaba erabiltzen zuen, lugana zeukanak, lugana, lurra botata zegoen aldekoak)*

**okertu:** 1 okertu. 2 okertu, gaiztotu

**olgau:** olgatu

*"Oin umiek estabe olgetan, gu, ixate san eskolatik urtenikuen da ba, bei saintzien ero espeuen ero bestie, iturriko ure ekarri ero, ba juen ara ta kuadrillatxuek, olgetan" - (Orain umeek ez dute olgatzen, gu, izaten zen eskolatik irtenekoan eta ba, behi zaintzen edo ez bazegoen edo bestea, iturriko ura ekarri edo, ba joan hara eta taldetxoak, olgatzen)*

**on:** egon

**ondatu:** hondatu

*"Sikuek ondatzen dau ori be" - (Sikuak hondatzen du hori ere)*

**ondu:** ondu

**oriskau:** horixkatu



# ZALDIBAR HIZTEGIA

**orittu:** horitu

**orrastu:** orraztu

**osatu:** osatu

"Da orre pe okerrak ixaten die, e? minberak, da osatu be nekes iguel" - (Eta horiek ere okerrak izaten dira, e? minberak, eta osatu ere nekez beharbada)

**ostu:** ostu

**otzittu:** hoztu, hotzitu

"Bueno orrek, e, betik eittekuok dana erre artien itxi tte gero ba otzittu artien bertan itxiko ben, bañe goittik eittekoai kontinuo etaten eoten die" - (Beno horiek, behetik egitekook dena erre arte utzi eta gero ba hoztu artean bertan utziko zuten, baina goitik egitekoari segituan ateratzen egoten dira)

"Gero beruena bajie orreaittik esatako otzittu artien, beruen itxurie gedxa pisetan dau" - (Gero beroarena jaitsiera horregatik esaten zaio hoztu artean, beroan itxura gehiago pisatzen du)

**pagau:** ordaindu

"Ermandadie pagau eitte osu bañe ba, pagau bes gausa andiik bañe kobrau bes" - (Ermandadan ordaindu egiten duzu baina ba, ordaindu ere ez gauza handirik baina kobratu ere ez)

"An danak pagete ben plasakue" - (Han denek ordaintzen zuten plazakoa)

**parau:** paratu

"Buruas parau beyen olan, da ra! bueltie osue iñ" - (Buruagaz paratu behean hola, eta ra! buelta osoa egin)

**parkatu:** barkatu

**partidu:** banatu

"Eibarra esniek partidu etxeik etxe, kantiñekin de gero plasara" - (Eibarrera esneak partitu etxerik etxe, kantinekin eta gero plazara)

**pasau:** pasatu

"Gurien be ori pasau san, e, baten baño sarridxa, orrek ixeten die txala ein barridxen ero" - (Gurean ere hori pasatu zen, baten baino sariago, horiek izaten dira txahala egin berrian edo)

"Geuk pasau au serik aundiñe, seaittik ese bakixu ser san a?" - (Geuk pasatu hau zerik handiena, zergatik eze badakizu zer zen hura?)

"Orre pe itxurie urteik onenak, e, pasa itue, e?" - (Horiek ere itxura urterik onenak, pasatu dituzte, e?)

**pegau:** itsatsi, kutsatu

"Ori pegau eitten da, e? onduen dauenai be, asten danien" - (Hori ordaindu egiten da, e? ondoan dagoenari ere, hasten denean)

**pentzau:** pentsatu

"Nik estot pentzetan, e, asko ebalten danik, bañe lena ori ebalte san" - (Nik ez dut pentsatzen, asko erabiltzen denik, baina lehenago hori erabiltzen zen)

**perrau:** perratu

"Ori perrau estakitt nik, kendu eitte otzasela kendu, te kutxilloas" - (Hori perratu ez dakit nik, kendu egiten zikiola kendu, eta aiztoagaz)

"Bañe oiñ ya aspaldiko bu! ogetamar urte baño geixa, esta idiik eta perrau" - (Baina orain ja aspaldiko bu! hogeita hamar urte baino gehiago, ez da idirik eta perratu)

**pikau:** 1. pikatu intsektuek. 2. harria pikatu

"Aras pikau, e, jungura gañien sera, e, pikamalluas" - (Haregaz pikatu, jungude gainean zera, pika mailuagaz)

**pinttau:** pintatu

"Arrotzias pinttau ero eitte ben" - (Arrautzagaz pintatu edo egiten zuten)

**pisau:** pisatu

"Iridxek, e, segun semat, e, pisetan daben, aren proporsiñuen arridxe kargau ero es kargau ero" - (Idiek, segun zenbat, pisatzen duten, haren proportzioan harria kargatu edo ez kargatu edo)

**plantau:** 1 plantatu, paratu. 2 landatu

"Bata bestien atzien plantako ga" - (Bata bestearen atzean paratuko gara)

**plantxau:** plantxatu, lisatu

"Len, e, eitte ben ba, euren ba, neu pe itte neban, gastetatik asitte, elixako erropak eta ba ekarte sittuen arek eta garbittu te plantxau, da ba oiñ, e, grupuek das bañe orduen euren familidxakuk ero" - (Lehen, egiten zuten ba, euren ba, neuk ere egiten nuen, gaztetatik hasita, elizako arropak eta ba ekartzen zituen hark eta garbitu eta plantxatu, eta ba orain, taldeak daude baina orduan euren familiakoak edo)

**podau:** inausi

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Podau te itten die ta barristau bañe" -  
(Inausi eta egiten dira eta berriztatu  
baina)

**postu:** poztu

**preguntau:** itaundu

"Es preguntau nun dauen ollogorra" - (Ez  
itaundu non dagoen oilagorra)

**prensau:** prentsatu

"Prensau itten da, bai, prensau, da geratzen  
da gastaye lentxik" - (Prenstatu egiten  
da, bai, prentsatu, eta geratzen da  
gaztaia legetxe)

**preparau:** prestatu

"Preparau ot baskaidxe amak esan daben  
moruen" - (Prestatu dut bazkaria amak  
esan duen moduan)

"Otie, otie, e, olako lekuen preparetako,  
otie, sera, idak eta ganauai aspire" -  
(Otea, otea, holako lekuan prestatzeko,  
otea, zera, irak eta ganaduari azpira)

**prestau:** prestatu

"Prestaute ipintte san" - (Prestatuta ipintzen  
zen)

**probau:** 1. probatu, dastatu. 2 hazi

"Neuk estot probau sekule bañe entzun eitte  
ot ori, bai ori antxiñe estala, baye ori esa  
oste amen, e, selan, e, estakitt señek eta  
jate bela" - (Neuk ez dut probatu sekula  
baina entzun egiten dut hori bai hori  
antzina ez dela, baina hori esan zidaten  
hemen, zelan, ez dakit zeinek eta jaten  
zutela)

**proibidu:** galarazo, debekatu

"Euskeras eitten bagendun berba, proibidute  
euen euskerie, da estakidxenak selan  
eingo ban ba?" - (Euskaraz egiten  
bagenuen berba, galarazota zegoen  
euskara, eta ez dakienak zelan egingo  
zuen ba?)

**prometidu:** agindu

**protestau:** protestatu

**pujau:** puxatu, enkantean egin

"Ermandara ixate san ba ill ye ba, nok  
pujau diru gedxen" - (Ermandada izaten  
zen ba hil eta ba, nork puxatu diru  
gehien)

**pustu:** puztu

**rakitikotu:** endekatu, indargetu

"Orrek idxe ikusi bestie itten, bañe  
rakitikotu eitten da arbolie" - (Horiek ia

ikusi ere ez dira egiten, baina endekatu  
egiten da arbola)

**sabaldu:** 1. zabaldu. 2. karta jokoetan kartak  
eman

"Burdiñeskue pe ibiltte soasen, baten batzuk  
bañe gitxi, guk egurresekuek, da gero  
orrek batu eitte soasen, utzik oyesenien  
batu, da gero kargetako sabaldu eitte  
oasen" - (Burdinazkoak ere ibiltzen  
zitian, baten batzuk baina gutxi, guk  
egurrezkoak, eta gero horiek batu egiten  
zitian, hutsik zihoazenean batu, eta gero  
kargatzeko zabaldu egiten zitian)

"Ori aklarau orduko, e, sabaldu eingo san  
da" - (Hori argitu orduko, zabaldu  
eingo zen eta)

**sainyu:** zaindu

"Beste asko ba ero beres asikuek ero, bere  
sasoi maten sera urre ixenikuek eta  
sainyu eta gero abandonaute geatu  
dienak da alan da gusti be emoten  
dabenak, sera, frutue" - (Beste asko ba  
edo berez hazikoak edo, bere sasoiaren  
baten zera hurra izanikoak eta zaindu eta  
gero bertan behera utzita geratu direnak  
eta hala eta guzti ere ematen dutenak,  
zera, fruitua)

**sakartu:** zakartu

"Bañe ya elbitze sakartu eitten dana" -  
(Baina ja albitza zakartu egiten dena)

**sakatu:** sakatu

"Gastaye itteko ba, learra bota bi da apur  
bat, aretze pe, sertzzen da ta gero, sakatu"  
- (Gazta egiteko ba, legarra bota behar  
da apur bat, harexek ere, zertzzen da eta  
gero, sakatu)

**sakondu:** sakondu

**saldu:** saldu

"Suk saldu osu orren etxie" - (Zuk saldu  
duzu horren etxea)

"Saldu ordun ba etxietara salduko san da  
tallerretan be bai tte" - (Saldu orduan ba  
etxeetara salduko zen eta tallerretara ere  
bai eta)

**sapaldu:** zapaldu

**sapotu:** zapotu, belaunen eta ukondoen  
azala garau txikiz bete

**saratu, saatu:** belarrak eraitsi

"Ortue saatu eitten da dana" - (Ortua eraitsi  
egiten da dena)

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**sarratu, serratu:** zarratu

**sartau:** zartatu

"Bringau da, e, sartau ero olan egurre astilletu ero eitten danien ero" - (Bringatu da, zartatu edo hola egurra arrakalatu edo egiten denean edo)

**sartu:** 1. sartu. 2. zahartu

"Ori itturriko uretan sartu dabe" - (Hori iturriko uretan sartu dute)

"Bata bat sartu da etxien" - (Baten bat sartu da etxean)

**satartu:** zatartu, motzitu

**satittu:** zatitu

"Eta gero ori berori satittu inteixas ero, ta olan aprobetxate" - (Eta gero, hori berori zatitu igitaiagaz edo, eta hola aprobetxatuta)

"Gure aittek ilte sittuen ausoko gustiek, ilte satittu" - (Gure aitek hiltzen zituen auzoko guztiak, hil eta zatitu)

**saurittu:** zauritu

"Eukitte ittue andrak, e, baneka batek, bueno! dana saurittute, saurittute" - (Edukitzen dituzte andreek, banaka batek, beno! dena zaurituta, zaurituta)

**seetu:** xehatu

"Gero etorri san makiñie, ori geu pe euki genduen da orduen seetzen genduen geu pe" - (Gero etorri zen makina, hori geuk ere eduki genuen eta orduan xehatzen genuen geuk ere)

**segidu:** segitu

"Segidu ei oste" - (Segitu egin didate)

"Mese aurretik, ba kanpa bueltakuk jotzen die, oin be bai, orrek segitzen dau amen" - (Meza aurretik, ba kanpai bueltakoak jotzen dira, orain ere bai, horrek segitzen du hemen)

**selaittu:** zelaitu, basoa izan dena zelai egin

**selebrau:** ospatu

**sendotu:** sendotu

"Sendotze san ba igual metro erdi" - (Sendotzen zen ba beharbada metro erdi)

**sentidu:** sentitu

"Mordo batek barrutik sentiduko dau ori, bañe esaten estie atrebitzen, nik esan doten moruen" - (Mordo batek barrutik sentituko du hori, baina esaten ez dira ausartzen, nik esan dudana moduan)

**sepillau:** zepilatu

"Bera maniatikue san ganauekin, e? sepillau egunero ganauek" - (Bera maniatikoa zen ganaduekin, e? zepilatu egunero ganaduak)

**serbidu:** zerbitzatu

**serrau:** 1. itxi. 2. zerragaz ebaki

"Gero serrau eitteko sostxo batas" - (Gero itxi egiteko zoztxo bategaz)

**sertu:** zertu

"Beren burko ta gusti, sertute, preparaute" - (Beren buruko eta guzti, zertuta, prestatuta)

**sikatu, siketu:** sikatu

"Lar sikatute, ero sikutiaittik ero" - (Lar sikatuta, edo sikateagatik edo)

"Sasoi baten, oiñ estaitt, bañe lena siketu, eta aras seoser be itte san, estaitt setan erabilte san, seosetan ba aprobetxeta san beintzet" - (Sasoi baten, orain ez dakit, baina lehenago sikatu, eta haregaz zer edo zer ere egiten zen, ez dakit zertan erabiltzen zen, zer edo zertan ba aprobetxatzen zen behintzat)

**sikinyu:** zikindu

"Onek txoridxe asko galdu die, basuek galdu die asko, sikinyu die" - (Txori hauek asko galdu dira, basoak galdu dira asko, zikindu dira)

**silyu:** zildu

"Etxien esta garatzen esebe, silyu bai" - (Etxean ez da garatzen ezer ere, zildu bai)

**simeldu:** zimeldu

"Simeltzie ya dok ya gause bat, siketzera doyena arbolie, susterrien, e, inyarrrik es ero galdu, galtzera doyena" - (Zimeltzea ja duk gauza bat, sikatzera doana arbola, zuztarrean, indarrrik ez edo galdu, galtzera doana)

**siñistu, siñestu:** sinistu

"Nik estot siñistu orretan gausetan" - (Nik ez dut sinistu gauza horietan)

**sirinyu:** zirindu

"Sirinyu eitten die ba" - (Zirindu egiten dira ba)

**sirittu:** ziritu, ziriekkin josi, ziria sartu

"Orrek das sirittute, siridxeekin, latruas sulue iñ, egurre preparau, eta siridxeekin, oin be badas egur batzuk gurien siridxe dekenak" - (Horiek daude zirituta,

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*ziriekin, laratroagaz zuloa egin, egurra prestatu, eta ziriekin, orain ere badaude egur batzuk gurean ziria daukatenak)*

**sirriketu, sirrikittu:** zirrikatu, kinatu

*"Sirrikitzen etorri akon" - (Zirrikatzen etorri zitzaion)*

**sobrau:** sobratu

**soldu:** zoldu, zornatu

**soltau:** soltatu

*"Tabernan baten, e, sartu da ta, ollogorra ta ikusten asi die ta burue soltau, gerrikotik eñ ei dxakon" - (Tabernaren baten, sartu da eta, oilagorra eta ikusten hasi dira eta burua soltatu, gerrikotik egin ei zitzaion)*

**sorrostu:** zorroztu

*"Orrek txikidxorrek dekos puntak sorrostute" - (Horrek txiki horrek dauzka puntak zorrozuta)*

**sostenidu:** eutsi

*"Bai, agie da, sera, e, tallatue sostenitzen daben serak" - (Bai, habea da, zera, teilatuari eusten dioten zerak)*

**subastau:** errematan eman

**suberatu:** altzairuari egiten zaion tratamendua

**suertau:** suertatu

*"Etxe bat ero bikue pa iguel alkarrei lagundu ero, etxe matetik beste batera juen laguntzen, bai geuri be suertau aku ori, olakuek sertzie, bañe bestelan olako, ori bakarrik nik esautu neban, da ixengo sien bi bakarrik, gari jotietan, eon sienien ba, nik esautuko nittuen, amen, nere etxien eta beintzet ein sien, askenengo gari jote bat ero bi, askenak" - (Etxe bat edo bikoak ba beharbada elkarri lagundu edo, etxeren batetik beste batera joan laguntzen, bai geuri ere suertatu zaigu hori, holakoak zertzea, baina bestela holako, hori bakarrik nik ezagutu nuen, eta izango ziren bi bakarrik, gari jotzeetan, egon zirenean ba, nik ezagutuko nituen, hemen nire etxean eta behintzat egin ziren, azkenengo gari jotze bat edo bi, azkenak)*

**sufridu:** jasan

**sujetau:** eutsi, oratu, heldu

**sulotu:** zulatu

*"Eridxue da, bueno onek tuberidxonek eridxue deko, sulotute dauela ero" -*

*(Erioa da, beno hodi honek erioa dauka, zulotuta dagoela edo)*

**surittu:** 1. zuritu, azala kendu. 2. zuritu, zuri kolorea eman. 3. elurrak zuritu

*"Ta gero kanpuen euskidzek surittu daidxesan erropak eta, oitturak euesan orduen" - (Eta gero kanpoan eguzkiak zuritu ditzan arropak eta, ohiturak zeuden orduan)*

**susatu:** suseratu

**susendu:** zuzendu

*"Ordun ba ortixik, e, apur bat susentze san jentie" - (Orduan ba hortixik, apur bat zuzentzen zen jendea)*

**sutundu:** zutundu

**tapau:** tapatu

*"Ortik manejete ben, da begidzek tapaute" - (Hortik maneiatzen zuten, eta begiak tapatuta)*

*"Begidzek tapeta otzesan, eitte otzen sakuas, iru lau dobletan sakue, sintta batzukin" - (Begiak tapatzen zizkioten, egiten zioten zakuagaz, hiru-lau tolesetan zakua, zinta batzuekin)*

**tardau:** denbora egin, berandu heldu, berandu joan

*"Ilye geratu, sortzi orduen pentzau ixe, sortzi ordu tardetako Urkiolatik Mañarire, normalien ba, ordu betien etorri bi dau ganauek, normal ibillieskero" - (Hilda geratu, zortzi orduan pentsa ezazu, zortzi ordu egiteko Urkiolatik Mañarira, normalean ba, ordu batean etorri behar du ganaduak, normal ibiliz gero)*

**tasau:** tasatu

**tenplau:** tenplea eman, burdinari egiten zaiona

**tentau:** tentatu

*"Gero mutikuek tentau eitte ben gure aittitte" - (Gero mutikoek tentatu egiten zuten gure aitaita)*

**tiratu, tiretu, tietu:** 1. tiratu. 2. tiro egin

*"Sokias gero burtalbora ero, tiratu te, a onena ixate san" - (Sokagaz gero gurtalbora edo, tiratu eta, hura onena izaten zen)*

*"Arek preparau es, arek, e, orrek iertu ero eitten dienien, da ondo siketzen da, ta su emon da, tietu te a esta amatetan da, ori*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*mutikotan, ori mutiko gustiek ori" - (Haiek prestatu ez, haiek, horiek ihartu edo egiten direnean, eta ondo sikatzen eta, eta su eman eta, tiratu eta hura ez da amatatzen eta, hori mutikotan, hori mutiko guztiek hori)*

**tokau:** tokatu

*"Saidxe orduen eruten sanien, e, garidxe, seuri toketatzun saidxe be" - (Zahia orduan eroaten zenean, garia zeuri tokatzen zitzaizun zahia ere)*

**tolostu:** tolestu

*"Ondo toloste ittue" - (Ondo tolesten dituzte)*

**topau:** topatu

*"Ori eroseñ lekuten topau siñeike" - (Hori edozein lekutan topa zenezake)*

**tostau:** igertu

*"Eitte san an piskat tostau a, arinyu eitte sala" - (Egiten zen han pixka bat igertu hura, arindu egiten zela)*

**trabau:** trabatu

*"Laburraue ixeta san ori, burtaun oi ye katie lusiaue, bañe oiñ, e, estaitt nik ba trabau gutxia eitten die ero anka pasau gutxia ero" - (Laburragoa izaten zen hori, burteun hori eta katea luzeagoa, baina orain, ez dakit nik ba trabatu gutxiago egiten dira edo hanka pasatu gutxiago edo)*

**tratau:** tratatu

**trokatu:** trokatu

**tunantetu:** tunantetu, tunante egin

*"Tunante bat san, e? atzenien tunantetu ein san" - (Tunante bat zen, e? atzenean tunantetu egin zen)*

**txikittu:** txikitu

**txupau:** txupatu

**ugarittu, ugerittu:** ugaritu

*"Eskillasue, e, len etorte san asko, bañe oiñ, e, aspaldidxen ori esta ugarittu" - (Eskinosoa, lehen etortzen zen asko, baina orain, aspaldian hori ez da ugaritu)*

**ugertu:** ugertu

*"Sarritten ero ugertu ero ta urrengo urterako ba, karguik ein barik iguel da" - (Sarritan edo ugertu edo eta hurrengo urterako ba, kargurik egin barik beharbada eta)*

**uldu:** uldu. ilea bakandu, mehaztu

*"Lumatxie moruen, uldute da" - (Lumetxa moduan, ulduta dago)*

**umau:** umotu

**urdinyu:** urdindu

*"Urdinyute deko ulie" - (Urdinduta dauka ilea)*

**urketu:** urkatu

**urkuldu:** urkuldu

*"Gurien be itte ben ori, urkuldu be errasa itten da" - (Gurean ere egiten zuten hori, urkuldu ere errazago egiten da)*

**urreatu:** hurreratu, ondoratu

*"Berrogetamabost irurogeire urreatzen, juten die, txala normala bada" - (Berrogeita hamabost hirurogeira hurreratzen joaten dira, txahala normala bada)*

**urretu:** urratu

*"Asko, gari ebaten bu! arkondarie jantzi gioneskuena onaño tapetako, urretu es eitteko besuek, gari ebaten, ta gero gari lotzen, lotzen ebatie baño txarra da" - (Asko, gari ebakitzen bu! alkondara jantzi gizonezkoena honaino tapatzeko, urratu ez egiteko besoak, gari ebakitzen, eta gero gari lotzen, lotzen ebakitzea baino txarrago da)*

**urten:** irten

*"Berandu urten dot" - (Berandu irten dut)*

*"Eskenduan urten be itten orduen da" - (Ez genuen irten ere egiten orduan eta)*

**urtu:** urtu

*"Sulfatue urtu uretan, da etartien eitte ben" - (Sulfatoa urtu uretan, eta etartean egiten zuten)*

**urundu:** irindu, irin egin

*"Karo narrak esabasen apurtzen orrek mokillok, orduen arek, urundu eitte basen" - (Jakina narrak ez zituen apurtzen horiek mokilok, orduan hark, irindu egiten zituen)*

**usau:** usatu, erabili

*"Gero ganetik lena, nik neuk etxuat usau, bañe ixate soan, ganauen pekotza, batu, eta trapu batas lotu" - (Gero gainetik lehenago, nik neuk ez diat erabili, baina izaten zuan, ganaduen bekorotza, batu, eta trapu bategaz lotu)*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Guk ori amen etxuau guk usau ori asko, e?" - (Guk hori hemen ez diagu guk erabili hori asko, e?)

**usteldu:** usteldu

"Lurren kontra ipiñiko balitze ba, usteldu eingo litxateke, ta aittik ipintten da ori arri ganien, e, umedadie artu estaidxen" - (Lurraren kontra ipiniko balitz ba, usteldu egingo litzateke, eta hagatik ipintzen da hori harri gainean, hezetasuna hartu ez dezan)

**ustu:** hustu

**utzittu:** hutsitu, hustu

"Utzittu te barrixe sartu, barristau dana, se austute ote san a, austute, oingo oyek ikusi tte ordun ikusi, iguel iguelak" - (Hustu eta berria sartu, berriztatu dena, ze haustuta egoten zen hura, haustuta, oraingo oheak ikusi eta orduan ikusi, berdin-berdinak)

**uxatu:** uxatu

## 23.2. ADITZ KONPOSATUAK

### 23.2.1. EGIN

**ainka iñ, ainke iñ:** haginka egin

"Etxetik urteidxeran txakurrek ainka i otza" - (Etxetik irteeran txakurrak haginka egin dio)

"Seose pasau ba, asko pasauko san, ainke inye, il diena pe" - (Zer edo zer pasatu ba, asko pasatuko zen, haginka eginda, hil direnak ere)

**alde iñ:** alde egin, ospa egin

"Guretik alde i dxeban orrek txoridxek" - (Guretik alde egin zuen txori horrek)

**alegiñe iñ:** ahaleginak egin

**alekie iñ:** alaka egin, gripatu

**alkar poderosue iñ:** elkar poderoso egin

"Andra gixonak alkar poderosue itten dabe" - (Andre-gizonek elkar poderoso egiten dute)

**amesetan eiñ:** ametsetan egin

"Amesetan eitten dan gausie pasau eitten dala esaten dabe ta estaki pa nik" - (Amesetan egiten den gauza pasatu

egiten dela esaten dute eta ez dakit ba nik)

"Amesetan eitte banak, ba Santa Inesi erresau barik pentzau bes ogera juteik" - (Amesetan egiten zuenak, ba Santa Inesi errezatu barik pentsatu ere ez ohera joaterik)

**anka iñ:** hanka egin, alde egin

"Eta ya frentie selan jute san ba, leku bakotxien, egun bat eta bi eitte gendusena bakarrik, beti anka eitten" - (Eta ja frentea zelan joaten zen ba, leku bakoitzean, egun bat eta bi egiten genituen bakarrik, beti hanka egiten)

**aproba eiñ:** proba egin

**arramuskarie iñ:** arramuskada egin

"Eerra arramuskarie i ostan!" - (Ederra arramuskada egin zidan!)

**arrausi eiñ:** aharrausi egin

**arrikue iñ:** harrikoa egin, tresnak garbitu

**asala eiñ:** 1. zauriak osatu. 2. lurrari azala egin

**askurie iñ:** hazkura egin, hazka egin

**atximurke iñ:** atximurka egin

**atxurren eiñ:** aitzurrean egin

**ausnar eiñ:** hausnar egin

"Ori, kontetan geuntzesan, ba, bakixu ya astute dekatela, len erdi gaixoik baeuen bedxe aber senbat ausnar eitten daben" - (Hori, kontatzen genizkion, ba, badakizu ja ahaztuta daukadala, lehen erdi gaixorik bazegoen behia ea zenbat hausnar egiten duen)

**axaxa iñ:** axaxa egin

**barre iñ:** barre egin

**bat eiñ:** bat egin

**begisko iñ:** begizkoa egin

"Begisko ei otza oni" - (Begizko egin dio honi)

**berba eiñ:** berba egin

**bero eiñ:** bero egin

**bersuetan eiñ:** bertsuetan egin

"Panaeruek eitte ban bersuetan da" - (Okinak egiten zuen bertsotan eta)

**buelta eiñ:** buelta egin

**bultza iñ, bultze iñ, bultz eiñ:** bultza egin

"Bultze i otzat" - (Bultza egin diot)

"Ori ixaten dok ba en jeneralien bultz eitteko ero ekarteko, ba erramie ekarri itteko" - (Hori izaten duk ba normalean

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*bultza egiteko edo ekartzeko, ba arrama ekarri egiteko)*  
**burle eiñ:** burla egin, txitxekar egin  
**dantzan eiñ:** dantzan egin  
*"Dantzan eington mesedes" - (Dantzan egingo dun mesedez)*  
**demandan eiñ:** demandan egin, eztabaidan egin  
**diar eiñ:** deiadar egin  
*"Diar ei otzat" - (Deiadar egin diot)*  
**edurre iñ:** elurra egin  
*"Bidzar edurre ingo dau" - (Bihar elurra egingo du)*  
**egas eiñ:** hegaz egin  
**erasue iñ:** eraso egin  
**erpeka eiñ:** erpaka egin, txerpaka egin  
**espatadantzan eiñ:** ezpata-dantzan egin  
**euridxe eiñ:** euri egin  
*"Gaur goixien euridxe in yau" - (Gaur goizean euria egin du)*  
*"Gaur euridxe ingo baleu" - (Gaur euria egingo balu)*  
**falta eiñ:** falta egin pilota jokoan  
**fregae iñ:** harrikoa egin, tresnak garbitu  
**fubolien eiñ:** futbolearen egin  
**gañes eiñ:** gainez egin  
**gatza eiñ:** gatza egin  
**goruetan eiñ:** goruetan egin  
*"Ori goruetan, e, ardidxen lanias da goruetan eitte dxuen" - (Hori goruetan, ardiaren ileagaz eta goruetan egiten ziaten)*  
*"Baserrien baten esate ben arek badaki goruetan bañe, neuk estot ikusi eitten" - (Baserriren baten esaten zuten hark badaki goruetan baina, neuk ez dut ikusi egiten)*  
**grasie iñ:** barre eragin  
**iges eiñ:** ihes egin  
**inpresiiñue iñ:** zirrara egin, hunkitu  
*"Neri orrek ei ostan umetan, e, mutikotan, impresiiñue i ostan" - (Niri horrek egin zidan umetan, mutikotan, zirrara egin zidan)*  
**irribarre iñ:** irribarre egin  
**irutzurre iñ:** iruzur egin, jokoan apropos galtzea edo irabazten uztea  
*"Joko bat danien, e, bata, e, galtzea eitten dabenien, irutzurre in dxok orrek" - (Joko*

*bat denean, bata, galtzera egiten duenean, iruzurra egin dik horrek)*  
**jamon eiñ:** jaramon egin  
**jokue eiñ:** jokoa egin, postura egin  
**jokuen eiñ:** karta jokoan egin  
*"Bi ipintte ittue, ni enas jokolaridxe, nik estot eitten jokuen, e, bañe, begire egote nas asko" - (Bi ipintzen dituzte, ni ez naiz jokalaria, nik ez dut egiten jokoan, baina, begira egoten naiz asko)*  
*"Orduen estosue itten suok jokuen?" - (Orduan ez duzue egiten zuek jokoan?)*  
**kalte iñ:** kalte egin  
**kargu eiñ:** kargu egin  
**kasu eiñ:** kasu egin  
**komuniño eiñ:** jaunartzea egin  
**kontra eiñ:** kontra egin  
**kilikili eiñ:** kili-kili egin  
**kukurruku eiñ:** 1. kukurruku egin. 2. ahotsa altxatu  
**laban eiñ:** laban egin  
*"Bai olan, e, laban eitte ban, e, baldosie ero olako gausa lisutxo batas, arri polittas, anka baten gañien" - (Bai holan, labearen egiten zuen, baldosa edo holako gauza lisotxo bategaz, harri politagaz, hanka baten gainean)*  
**landa eiñ:** landa egin, lehen basoa izan dena landa bihurtu  
**lege iñ:** lege egin  
**lo iñ, lo eiñ:** lo egin  
*"Gutxitten geatzen da lo itten ori" - (Gutxitan geratzen da lo egiten hori)*  
**lurbenak eiñ:** lurmenak egin  
**malluketan eiñ:** mailuketan egin  
*"Malluketan jeneral eitte san jungurien gañien" - (Mailuketan gehienetan egiten zen jungudearen gainean)*  
**mun eiñ:** muin egin  
*"Monagilluek erabilte ban elixan, pastikun pastikun, ikutu olan da mun eiñ" - (Mezlagunak erabiltzen zuen elizan, pastikun, pastikun, ikutu hola eta muin egin)*  
**narra iñ:** narra egin  
*"Narra itten dabenien lurrek luperidxe" - (Narra egiten dutenean lurrek luperia)*  
**negar eiñ:** negar egin  
**olgetan eiñ:** olgetan egin

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Gustetata amen olgetan ein daixela" -  
(Gustatzen zait hemen olgatzten egin  
dezatela)

**ospa eiñ:** ospa egin

**parra eiñ:** parra egin, hainbanatu

**paskuakue iñ:** pazkoagazkoa egin

**pelotan eiñ:** pilotaka egin

"Bai, goiko elispie, pelotan eitte genduena,  
goikue" - (Bai goiko elizpea, pilotan  
egiten genuena, goikoa)

"Guk pelotan ein you, gure jenerasiñokuk  
ba, asko, pelotan" - (Guk pilotan egin  
dugu, gure belaunaldikoek ba, asko,  
pilotan)

**putz eiñ:** putz egin

**sakien falta eiñ:** sakean falta egin

**salto eiñ:** salto egin

"Iños birera ero salto eitten dau baten  
batek" - (Inoiz bidera edo salto egiten du  
baten batek)

**saunke iñ:** zaunka egin

**selai eiñ:** zelai egin, lehen basoa izan dena  
zelai bihurtu

**sintz eiñ:** zintz egin

**sirri eiñ:** 1. ganadua kinatu. 2. zirri egin

**sitze iñ:** karena egin, txahala egin eta ostein  
behiak karena egiten du

"Sitze iñ dxok" - (Karena egin dik)

**tire iñ:** tira egin

**traba iñ:** traba egin

**trumoye iñ:** trumoia egin

"Trumoye itte banien, santa barbara santa  
krus, iñusentien ogidxe, jaun  
miserikordidxe" - (Trumoia egiten  
zuenean, Santa Barbara Santa Kruz,  
inuzenteen ogia, jaunaren miserikordia)

**tuturruska eiñ:** tuturruska egin, txirinbuelta  
egin, buruzkainka egin

"Tuturruska eiñ, bai tuturruska eiñ, be  
esatakon orri, guk geuk, geuk, airesko  
bueltie bañe gu baño sarrarek olgetan  
guas ibiltten sienak, tuturruska eiñ esate  
ben, arek lenakuauek" - (Tuturruska egin,  
bai tuturruska egin, ere esaten zitzaion  
horri, guk geuk, geuk, airezko buelta  
baina gu baino zaharragoek olgatzten  
gugaz ibiltzen zirenak, tuturruska egin  
esaten zuten, lehenagoko haiek)

**txala eiñ:** txahala egin

"Es, garbittu, txala ein ye gero garbitzeko, a  
piskat emon, eta esate seben, euren  
medikamentue, sera" - (Ez garbitu,  
txahala egin eta gero garbitzeko, hura  
pixka bat, eta esaten zuten, euren  
medikamendua, zera)

**txixe iñ:** txiza egin

**txurru eiñ:** zurrut egin

**umie iñ:** umea egin

**ure iñ:** ura egin, infusioa egin

**utz eiñ:** huts egin

## 23.2.2. IZAN

**agiri ixen:** agiri izan

**al ixen:** ahal izan

"Al daben bittartien ein eingo dau arek" -  
(Ahal duen bitartean egin egingo du  
hark)

**ardura ixen, ardure ixen:** ardura izan

"Suri ser ardure otzu?" - (Zuri zer ardura  
dizu?)

**aurrerako ixan:** aurrerako izan

**ayuntamentus ixen:** udalez izan

**balidxo ixen, balio ixen:** balio izan

"Semat balio dau kilo bat makatzek?" -  
(Zenbat balio du kilo bat makatzek?)

"Gaur bedarrak asko das, e, ortako balidxo  
tzuenak" - (Gaur belarrak asko dagoz,  
horretarako balio dizutenak)

**bat ixan, bat ixen:** bat izan

"Landie ta selaidxe bat dittuk" - (Landa eta  
zelaia bat dituk)

"Orrek eta gu bat ixen ga" - (Horiek eta gu  
bat izan gara)

**biar ixen:** behar izan

"Gaur goxien etxera juen biar ixen dot" -  
(Gaur goizean etxera joan behar izan  
dut)

"Etxera jun bi ot" - (Etxera joan behar dut)

"Jun bi neuke" - (Joan beharko nuke)

**billurre ixen:** bildur izan

"Orri billurre be banotzan nik" - (Horri  
bildurra ere banion nik)

**bixi ixen:** bizi izan

"Ori esta bixi ixen amen" - (Hori ez da bizi  
izan hemen)

**elisas ixen:** elizaz izan



# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Baserridxe Berriskue san, da elisas, Saldibarkuek" - (Baserria Berrizkoa zen, eta elizaz, Zaldibarkoak)

**esiñ ixen:** ezin izan

"Gaur goixien esin ixen nas etorri lena" - (Gaur goizean ezin izan naiz etorri lehenago)

"Esi neike etxera juen" - (Ezin naiteke etxera joan)

**falta ixen:** falta izan

"Gurien, e, ba ori, satza falta sanien da eitte san, karo aspigarri gedxa botatakon ganauai, ba ein daidxela satza ta ba bota, bañe es ori sulora bota ta ori usteldu daidxen da ori, nik entzunde badekat bañe gure aurretiko gausie da ori" - (Gurean, ba hori, satsa falta zenean eta egiten zen, jakina aspigarri gehiago botatzen zitzaion ganaduari, ba egin dezala satsa eta ba bota, baina ez hori zulora bota eta hori ustel dadin eta hori, nik entzunda badaukat baina gure aurretiko gauza da hori)

**familidxe ixen:** familia izan

"Esate ben ba, geroko familidxe ixeteko, e, eukela ser aundidxe" - (Esaten zuten ba, geroko familia izateko, zeukala zer handia)

**gura ixen:** gurago izan

"Au gura dot ori baño" - (Hau gurago dut hori baino)

"Goixien gura dot atzaldien baño" - (Goizean gurago dut arratsaldean baino)

**gure ixen:** 1. gura izan. 2. maite izan

"Etorri siñeike gure osunien" - (Etorri zintezke gura duzunean)

"Orrek eskontzie gure dau" - (Horrek ezkontzea gura du)

**igual ixen:** berdin izan

"Igual dosta" - (Berdin dit)

**logure ixan:** logura izan

"Logure danien da ostantzien gogo eskastxuaue ero dauenien da be bai" - (Logura denean eta osterantzean gogo eskastxoagoa edo dagoenean eta ere bai)

**terrenos ixen:** terrenoz izan

"Elorridxo terrenos aundidxaue da, Durango baño, terrenos" - (Elorrio terrenoz handiagoa da, Durango baino, terrenoz)

**uste ixen:** uste izan

## 23.2.3. GAINERAKOAK

**agiñek bardinyu:** haginak berdindu

**alperrik galdu:** alperrik galdu

**aragi bixixen eukiñ:** haragi bizian eduki

**asalera eraiñ:** azalera erein

"Eraitten basu erremintias, asalera, eraitten basu esta filtretan ure" - (Ereiten baduzu erremintagaz, azalera, ereiten baduzu ez da irazten ura)

**astrapala baten juen:** astrapala baten joan

**ausnarra juen:** hausnarra joan

**axaxa emon:** axaxa eman

**bañu artu:** bainu hartu

**bariek eldu:** bareak heldu, korrika ibilita ostean alboan mina sentitzen denean esaten da

"Ai! bariek eldu osta" - (Ai! bareak heldu dit)

**bedarrak etara:** eraitsi

**bedxek batu:** behiak batu, eraitsi

**begidxek jausi:** begiak jausi, logurak erreta egon

**begire kalkulau:** begira kalkulatu, neurtu edo pisatu barik, begiz egiten den pisua edo neurriaren kalkulua

"Ori da begire kalkuletako, begire eitte sittuen tratuek, txalak eta" - (Hori da begira kalkulatzeko, begira egiten zituen tratuak, txahalak eta)

**begiskue bota:** begizkoa bota

"Ene! esa leike se orri begiskue bota otzela, danak txarto urteta otza ta, entzun bai" - (Ene! esan liteke ze horri begizkoa bota diotela, denak txarto irteten dio eta, entzun bai)

**bertan bera itxi:** bertan behera utzi

"Errasiñue artu bi xonat eta banaxoyen, bixar ingo xonau au, itxi bertan bera dana eta bera" - (Errazinoa hartu behar dinat, eta banoan, bihar egingo dinagu hau, utzi bertan behera dena eta behera)

**buelta emon:** buelta eman

"Bueno buelta emon burdidxei bai, olantxeik, ser batzukin, ba egur luse bat eta, palanka esate geuntzen palanka einye" - (Beno buelta eman gurdiari bai,

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*holantxerik, zer batzuekin, ba egur luze bat eta, palanka esaten genion palanka eginda)*

**burutik endreaute eon:** burutik endredatuta egon, burua galtzen hasita egon edadearren

*"Bañe jota ongo da, endreaute ongo da piskat burutik" - (Baina jota egongo da, endredatuta egongo da pixka bat burutik)*

**busterrireko esi:** buztarrirako hezi

**daridxola eon:** dariola egon

*"Ure daridxola oten da" - (Ura dariola egoten da)*

**errentan artu:** errentan hartu

**errie euki:** jin-jaun eduki, errea txarto ahoskatzea da

*"Orrek deko errie" - (Horrek dauka errea)*

*"Nik koñetue neuken erre aundidxas, ta semiek bapes" - (Nik koinatua neukan erre handiagaz, eta semeak bat ere ez)*

**erropa jo:** arropa jo, garbitzeko arropa harlauza baten gainean jo egiten zen

**esetzien eon:** ezetzean egon

**eskola euki:** eskola eduki

*"Arek eskolaik selan eseuken ba ortixik etako dxuan" - (Hark eskolarik zelan ez zeukan ba hortixik aterako zian)*

*"Nik euki baneu eskola piskat, sartuko nitzen musturre or nunbaiten" - (Nik eduki banu eskola pixka bat, sartuko nintzen musturra hor nonbaiten)*

**esnie batu:** esnea batu

**esnie eskutau:** esnea izkutatu

*"Ori os dauenien, esnie bestelan eskutau eitte ake ganauai otzas" - (Hori hotz dagoenean, esnea bestela ezkutatu egiten zaie ganaduei hotzagaz)*

**esnie galdu:** esnea galdu

**esnie gorde:** esnea gorde

**esnie sabaldu:** esnea zabaldu, txahala egin ondoren ganaduak edukitzen duen gaixo bat adierazteko esaten da

*"Esniek sabaldu ba, orrek jeneralien, e, esne bei aundidxei eitte ako ori, esne gitxi dekonai es" - (Esneak zabaldu ba, horiek gehienetan, esne behi handiari egiten zaio hori, esne gutxi daukanari ez)*

**estomaguén gañien eukin:** estomagoren gainean eduki, bihozgainean eduki, jakiren batek kalte eginda astun egotea

**estomaguén gañien geatu:** estomagoaren gainean geratu; jakiren batek kalte egitea

**etxe erre batu:** etxe errea batu

*"Ori, segurue, seguruek, orrek, e, ba, pagaten badau baukosu ta ostantzien es, e, ostantzien etxe erre batzen ibiltten da amen" - (Hori, segurua, seguruak, horiek, ba, ordaintzen badu badaukazu eta osterantzean ez, osterantzean etxe erre batzen ibiltzen da hemen)*

**garagarrak irabasi:** garagarrak irabazi, astoek eta zaldiek behearen gainean bueltak egiten dituztenean lepoaren gainetik

**gatza emon:** gatza eman

**gatzetan ipiñi:** gatzetan ipini

**gerriek urten:** gerrak irten

*"Amasortzi urte neukesan nik gerriek urte banien" - (Hamazortzi urte neuzkan nik gerrak irten zuenean)*

**goguen euki:** gogoan eduki

**golpie artu:** golpea hartu

**igesixen juen:** ihesean joan, ihesi joan

**ikarie emon:** ikara eman

**kantuen ibili:** kantuan ibili

**kartak erebagi, erabagi:** kartak erabaki

**kirri-korrue euki:** kirri-korroa, zirri-parra; katarroaren ondorioz bularrean egiten den zarata edukitzea

**konforme eon:** ados egon, bat etorri

**komuniño emon:** jaunartzea eman

**kontrako istarrittik jun:** kontrako izterretik joan, kusun egin

**kontratik bustertu:** kontratik buztartu, ezkerre edo eskuma dena kontrako aldean buztartu

*"Or esate ben ba, Saldiberren or Urkitzen ero euen lena, probalarin bat da ein yau jokue, ta okerreko bidetik bustertute ekarri, ei eban jokue itxurie, beste baten, suok bidxok eitte osuen beste bakarrik ein bayes nik, jabiek berak, da bera ba ona san da ba, bestie pe pentzaurik, e, seoser eingo belakuen, jun die ta, arei ekarri otzesan kontratik bustertute, ero aldrebes bustertute, da, esebe esebeñ itxurie ta, da onei estotzesue suek latigoik emon, onei emon ein biar, ta artu sittuen or, akullue artute, aiñeketan da, a, e, bañera ostie esate akon orri barrankuorri, erun*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*ara ta ri-ra! kanbidxau te, ekarri sittuen da arridxei ra! bañe bestiai ekarri otzesan kontratik bustertute" - (Hor esaten zuten ba, Zaldibarren hor Urkitzen edo zegoen lehenago, probalariren bat eta egin du jokia, eta okerreko bidetik buztartuta ekarri, egin zuen jokia itxura, beste baten, zuok biok egiten duzuen beste bakarrik egin baietz nik, jabeak berak, eta bera ba ona zen eta ba, besteek ere pentsaturik, zer edo zer egingo zutelakoan, joan dira eta, haiei ekarri zizkien kontratik buztartuta, edo aldrebes buztartuta, eta, ezer ere ez zuten egin itxura eta, eta hauei ez diezue zuek latigorik eman, hauei eman egin behar, eta hartu zituen hor, akuilua hartuta, arineketan eta, bainera ostea esaten zitzaion troka horri, eroan hara eta ri-ra! aldatu eta, ekarri zituen eta harriari ra! baina besteei ekarri zizkien kontratik buztartuta)*

**kontutan euki:** kontuan eduki

*"Ori be kontutan euki bi dau oiñ ainbeste esta bañe orduen ba frutie danetik artze san" - (Hori ere kontutan eduki behar dugu orain hainbeste ez dago baina orduan ba fruta denetik hartzen zen)*

**landa itxi:** landa utzi, lantzar utzi; erein barik utzi

**latigue emon:** zirri egin, latigoa eman

**legarra emon:** legarra eman

**lo errias egon:** lo erreagaz egon

**loran eon:** loran egon, loretan egon

*"Ointxe da ori ederto loran da" - (Oraintxe dago hori ederto loretan eta)*

**lurre jo:** lurra jo, aitzurragaz edo laiagaz lurra jo

**martxan ipiñi:** martxan ipini

**mesie etara:** meza atera

*"On be bai amen, mesie etaten da" - (Orain ere bai hemen, meza ateratzen da)*

**mesie emon:** meza eman

**mesie eraso:** meza eraso

**mesie entzun:** meza entzun

**miñ emon:** min eman

**mun emon:** muin eman

**nabo atala euki:** berbaltua eduki

**nagixek bota:** nagiak bota, nagiak atera

**ondue bete:** hondo bete

**osoik egon:** seinduna osorik egotea, umea egin barik oraindino egotea

*"Ondioko osoik da?" - (Oraindino osorik dago?)*

**oso-osuen jausi:** oso-osuan jausi

**ostrora emon:** orbelera eman

**oye jantzi:** ohea jantzi

*"Oye preparaute ipintte ben, arriuen ipintte ben, beren burko ta gusti, sertute, preparaute, oye inye erute san, jantzitte oye" - (Ohea prestatuta ipintzen zuten, aurrean ipintzen zuten, beren burkoa eta guzti, zertuta, prestatuta, ohea eginda eroaten zen, jantzita ohea)*

**parran ipiñi:** parran ipini

**parte artu:** parte hartu

*"Or ein san iketza, nik enaben parte artu iketza eitten" - (Hor egin zen iketza, nik ez nuen parte hartu iketza egiten)*

**paskuaskue kunplidu:** pazkoagazkoa bete

**saldi surire juen:** zaldi zurira joan, ohera joan

**selai eon:** zelai egon

**senera etorri:** senera etorri

**serran ebai:** zerran ebaki

**sirri eraiñ:** zirri eragin, kinatu

**sobra eon:** sobra egon

*"Nik orrek danok esautu ittut eta, garidxe bai sobra baeuen, e, panareidxa eruteko ero" - (Nik horiek denok ezagutu ditut eta, garia bai sobra bazegoen, okindegira eroateko edo)*

**sue artu:** sua hartu

**titixe emon:** titia eman, bularra eman

*"Bai ba, beti soluen da, aiñiketan au te bestie, ta eskondu ume txixixe pe, itxi amen amamamas al dan moruen kuman da, nobera solora ta, amamak, amak jote ostan katxabias doun-doun-doun, bai ba or beyen soluek eta, entzute notzan an titixe emoteko ta umiai ordureko, aiñiketan etxera ta, olantxik, umiek asi ttut nik, iru euki ttut, ta irurek" - (Bai ba, beti soroan eta, arineketan hau eta bestea, eta ezkondu ume txikiak ere, utzi hemen amamagaz ahal den moduan kuman eta, norbera sorora eta, amamak, amak jotzen zidan makuluagaz doun-doun-doun, bai ba hor behean soroak eta, entzuten nion han titia emateko eta umei)*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*ordurako, arineketan etxera eta, holantxe, umeak hazi ditut nik, hiru eduki ditut, eta hirurak)*

**trabatik kendu:** *trabatik kendu, enbarazutik kendu*

**txandan jarri:** *txandan jarri*

**txikitteuen ibili:** *txikiteoan ibili*

**txistue jo:** *txistua jo*

**txorimalue sartu:** *aharrausi egiten denean esaten den esakunea*

*"Txorimalomat sartuko tzut, e!" - (Txorimaloren bat sartuko dizut, e!)*

**txost jo:** *pilotan hormen arteko eskudran jo*

## 23.3. PARTIZIPIO DEKLINATUAK

Partizipio soilen erabilera aztertzeko, jaso ditugun adibideak deklinabide kasu marken arabera aurkeztuko ditugu.

### absolutua:

*"Damutute na dana jan biar esa" - (Damututa nago dena jan behar eza)*

*"Estekosu setan juen" - (Ez daukazu zertan joan)*

*"Lastimie lena etorri esa" - (Lastima lehenago etorri eza)*

*"Tripetatik basabis be ur egosidxe, ona ixaten da" - (Tripetatik bazabiltza ere ur egosia, ona izaten da)*

*"Badakitt ser esan" - (Badakit zer esan)*

*"Esta setan etara" - (Ez da zertan atera)*

*"Aixiek botata ero estai pa ser eiñe ongo san, eseuken iñun be golpe ba pe" - (Haizeak botata edo ez dakit ba zer egina egongo zen, ez zeukan inon ere kolpe bat ere)*

### instrumentala:

*"Bierra eiñes seoser eingo dabe" - (Beharra eginez zer edo zer egingo dabe)*

*"Asidxes doye, badoye asidxes" - (Haziz doa, badoa haziz)*

*"Eiñes eiñes akordetan die orrek gausok" - (Eginez eginez gomutatzen dira gauza horiek)*

### eskeru:

*"Egixe esaneskero naikue da" - (Egia esanez gero nahikoa da)*

*"Sera bustieskero, or dator satorra" - (Zera bustiz gero, hor dator satorra)*

*"Bein san blasak pasaueskero pasau itte san a" - (Behin san blasak pasatuz gero pasatu egiten zen hura)*

*"Batzuetan, ori ikusieskeo bai, bañe txalak mordue jadxo sien gu lo trankil eitten gausela" - (Batzuetan, hori ikusiz gero bai, baina txahalak mordoa jαιο ziren gu lo lasai egiten gaudela)*

*"Egosidxen sartzen die, ba, erremolatxie ta, egosieskeo dana ona" - (Egosian sartzen dira, ba, erremolatxa eta, egosiz gero dena ona)*

*"Ganauek eukiñ esko ardixek eukiñ esin" - (Ganaduak edukiz gero ardiak eduki ezin)*

### leku genitiboa:

*"Bilbotik ekarrikue gordeta da" - (Bilbotik ekarrikoa gordeta dago)*

*"Nik etxien estot, e, esautu, bañe or, e, Uribarriñien egoten sien, e, arto malutias eiñeko, koltxoyek, da gu umiek eta iguel ogañien saltoka ta, da Nikasia, erdi koittau bat or da" - (Nik etxean ez dut, ezagutu, baina hor, Uribarriñean egoten ziren, arto malutagaz egineko, koltxoiak, eta gu umeak eta beharbada ohe gainean saltoka eta, eta Nikasia, erdi koitadu bat hor eta)*

*"Serran ebaikue baño obie da ori asko be" - (Zerran ebakikoa baino hobea da hori asko ere)*

## 23.4. PARTIZIPIOEN GEHIGARRIAK

Ataltxo honetan partizipioari erants dakizkiokeen posposizioak eta gainerako gehigarriak aurkeztuko ditugu.

### alien, alan:

*"Etorri alien jarri eitten die" - (Etorri ahala jesarri egiten dira)*

*"Batu alien jan mallubixek" - (Batu ahala jan mailubiak)*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Lepuen sestuek artu, aittek bete alan" -  
(Lepoan otzarak hartu, aitak bete ahala)

## ala:

"Urtiek pasau ala ondio eta geixa ierri da  
ori" - (Urteak pasatu ahala oraindino eta  
gehiago igarri da hori)

## arren:

"Amarretan akabau arren berandu ixengo  
litzake" - (Hamarretan amaitu arren  
berandu izango litzateke)

"Etorri esarren estotza ardure" - (Etorri ez  
arren ez dio ardura)

"Asko etorri arren danak afalduko dabe" -  
(Asko etorri arren denek afalduko dute)

"Denpora txarra iñ arren basora jungo ga"  
- (Eguraldi txarra egin arren basora  
joango gara)

"Errikue ixen arren estot esautzen" -  
(Herrikoa izan arren ez dut ezagutzen)

"Pasauko san, bai, entzun es arren, e?" -  
(Pasatuko zen, bai, entzun ez arren, e?)

## arte:

"Etorri arte amen egongo ga" - (Etorri arte  
hemen egongo gara)

"Itxaingo tzut akabau arte" - (Itxarongo  
dizut amaitu arte)

"Neure amama bixi sanien, ipintte ben  
ixotute lanparillie, gabien, da arimen  
gabera pasau arte etzan amatetan a,  
selako oitturak" - (Neure amama bizi  
zenean, ipintzen zuten isiotuta  
lanparatxoa, gauean, eta arimen gauera  
pasatu arte ez zen amatatzen hura, zelako  
ohiturak)

## artien:

"Geubes ni partitzea juen da ene, gure  
jaunas abadie, da, belaunikotu giñien  
pasau artien" - (Gauetz ni banatzera joan  
eta ene, gure jaunagaz, abadea, eta,  
belaunikatu ginen pasatu artean)

"Arek eltzen baotzu estabela aintzen gedxau,  
arik ill artien, estabela agiñekiñ aintzen "  
- (Hark heltzen badizu ez duela agintzen

gehiago, harik hil artean, ez duela  
haginekin agintzen)

"Nobera jun artien beintzet ganaue ba, esta  
aurrera juten" - (Norbera joan artean  
behintzat ganadua ba, ez da aurrera  
joaten)

"Beiñ ero beingo ollogorra ixengo san, beti  
bat, da beti eunero ekarten ei dxeban  
ollogorra, da usteldu artien antxe" -  
(Behin edo behingo oilagorra izango zen,  
beti bat, eta beti egunero ekartzen ei zuen  
oilagorra, eta usteldu arte hantxe)

## aurretik:

"Afaldu aurretik ba errosaridxue erreseta  
san, protestak egon arren" - (Afaldu  
aurretik ba arrosarioa errezatzen zen,  
protestak egon arren)

## baño len:

"Txala ein baño len ba mordue aurretik ba,  
sertu eitte sien" - (Txahala egin baino  
lehen ba mordoa aurretik ba, zertu egiten  
zen)

"Karo bajeta sittuen, e, Larrinagako  
kapillara, afusillau baño len" - (Jakina  
baxatzen zituzten, Larrinagako kaperara,  
fusilatu baino lehen)

## barik:

"Erueixu ori apurtu barik" - (Eroan ezazu  
hori apurtu barik)

"Iñusentekeridxek esan barik obeto sas  
isilik" - (Inuzentekeriak esan barik hobeto  
zaude isilik)

"Egun bitten eo nas etorri barik" - (Egun  
bitan egon naiz etorri barik)

"Karguik ein barik iguel da, atza barridxek  
erosteko ta dirue ta nun?" - (Kargurik  
egin barik beharbada eta, atzera berriak  
erosteko eta dirua eta non?)

"Amen il san parrokie neure akorduen be, e,  
tapa barik bai, tapau barik egon san  
elixan be ta, tapau barik" - (Hemen hil  
zen parrokoa neure gogoan ere, tapa  
barik bai, tapatu barik egon zen elizan  
ere eta, tapatu barik)

# ZALDIBAR HIZTEGIA

## **bierrien:**

"Arek, e, beittu, basuen, kargetan san samie esatakon, e, adar batzun gañien, ba lepoka ibili biarrien gora ta bera, ta gero goittik bera arrastraute, akordau aku burdidxe beyen ipiñi parien" - (Hark, begiratu, basoan, kargatzen zen sama esaten zitzaion, adar batzuen gainean, ba lepoka ibili beharrean gora eta behera, eta gero goitik behera narratuta, gomutatu zaigu gurdia behean ipini parean)

## **orduko:**

"Sue iñ orduko bentanie itxixu" - (Sua egin orduko leihoa itxi ezazu)  
"Jan orduko eskuek garbittu" - (Jan orduko eskuak garbitu)  
"Urtie amaittu orduko gari barik geatzen siñen" - (Urtea amaitu orduko gari barik geratzen zinen)  
"A kandelie amatau orduko ixate san" - (Kandela hura amatatu orduko izaten zen)  
"Da sulfatue botate otzen da, nastau itte ben dana eskuekin eraiñ orduko" - (Eta sulfatoa botatzen zioten eta, nahastu egiten zuten dena eskuekin erein orduko)  
"Ekarridesu apio, e, ospelak asi orduko, egosi apio, da aritzen uras garbittu, da sertzeko, da eskuetaku pe bai" - (Ekardazu apioa, ospelak hasi orduko, egosi apioa, eta harexen uragaz garbitu, eta zertzeko, eta eskuetakoak ere bai)

## **esik:**

"Esileike ikusi biskor allegau esik" - (Ezin liteke ikusi bizkor ailegatu ezik)

## **esien:**

"Olako gausemat ixen esien, ba muskerrak anka eitten dau" - (Holako gauzaren bat izan ezean, ba muskerrak hanka egiten du)

## **selan...alan...:**

"Orrek pasaittu pillo at nik, eta selan etorri olan juen" - (Horiek pasatu ditut pilo bat nik, eta zelan etorri hala joan)

## **-ta:**

"Ori jarritte egon da" - (Hori jarrita egon da)  
"Ogidxe euki ot gordeta" - (Ogia eduki dut gordeta)  
"Ta iguel, asteko ogidxe amaittute, da lelengo bertan egunien jateko isten san me meye opille" - (Eta beharbada, asteko ogia amaituta, eta lehenengo bertan egunean jateko uzten zen mehe-mehea opila)  
"Begidxe tapaute, selan esatakon orri?" - (Begiak tapatuta, zelan esaten zitzaion horri?)  
"Ori ekarritte estu eser eitten" - (Hori ekarrita ez dugu ezer egiten)  
"Dirue artute juen ei san" - (Dirua hartuta joan egin zen)

## **-ta be:**

"Eniskio emongo belauniko eskatute be" - (Ez nioke emango belauniko eskatuta ere)  
"An jaurti garidxe eta erneta san ondo, edurre einye be urik sekule esan argitzen" - (Han jaurti garia eta ernetzen zen ondo, elurra eginda ere urik sekula ez zen agertzen)

## **-takoa:**

"Ori amen jaxotekue da" - (Hori hemen jaiotakoa da)  
"Ori amak einyekue ixen da" - (Hori amak egindakoa izan da)  
"Batzuk ixeten siren sereskuek gañera, giñarrias einyekuek, guk es genduen euki bañe, goltzie esate akon ari, goltzie ari giñarrias einyekuai" - (Batzuk izaten ziren zerezkoak gainera, ginarragaz egindakoak, guk ez genuen eduki baina, goltza esaten zitzaion hari, goltza hari ginarragaz egindakoari)  
"Lenako adarra jaurtittekie ba andik sulotu eitten die, da mukurre ari esaten geuntzen guk" - (Lehenagoko adarra

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*jaurtitakoa ba handik zulotu egiten dira,  
eta mukurra hari esaten genion guk)*

"Oñetakuek, e, abarkak, etxien einyekuek ta  
beste batzuk erositekuek dotoriauek, arek  
domeketakuek ero estaipa ser sien" -  
(Oinetakoak, abarkak, etxean egindakoak  
eta beste batzuk erositakoak  
dotoreagoak, haiek domeketakoak edo ez  
dakit ba zer ziren)

## **-takoan:**

"Bañe beñ eldutekuen esteko esnerik" -  
(Baina behin heldutakoan ez dauka  
esnerik)

"Da usañe txarra ilyekuen ser deko orrek!" -  
(Eta usaina txarra hildakoan zer dauka  
horrek!)

"Guk txapiñue esaten tzau, beye bustittekuen  
gorus bueltau, da godxas bera ipiñi" -  
(Guk txapinoa esaten diogu, behea  
bustitakoan gorantz bueltatu, eta goiaz  
behera ipini)

## **-ta laster:**

"Eskondu te laster topau neban" - (Ezkondu  
eta laster topatu nuen)

## **-ta gero:**

"Bierra in ye gero jangou" - (Beharra egin  
eta gero jango dugu)

"Basuen ibili tte gero afaittea juen giñen" -  
(Basoan ibili eta gero afaltzera joan  
ginen)

"Urdaixde sartanien ein ye gero iguel  
arrotza bat batiu gañera bota, da a ixate  
san berakas sopie ta armosu oi" -  
(Urdaia zartaginean egi eta gero  
beharbada arrautza bat irabiatu gainera  
bota, eta hura izaten zen berakatz zopa  
eta armozu hori)

"Piper gorridxe esatotzau gu pa gero eldu te  
gero gorrittu eitten dana" - (Piper gorria  
esaten diogu guk ba gero heldu eta gero  
gorritu egiten dena)

"Txala ein ye gero garbitzeko, a piskat  
emon, eta esate seben" - (Tahala egin eta  
gero garbitzeko, hura pixka bat eman, eta  
esaten zuten)

## **-ta segiduan:**

"Etorri tte segiduen oera juen san" - (Etorri  
eta segituan ohera joan zen)

"Apur bat mogidueskero jo ta segiruen  
geatzen da" - (Apur bat mugituz gero jo  
eta segituan geratzen da)

## **-nikoa:**

"Kasorie bere denpora gustien, ixenikuei,  
beti, e, ollogorra, egunero ekarten ei  
dxeban" - (Ehiztaria bere denbora  
guztian, izanikoari, beti, oilagorra,  
egunero, ekartzen ei zuen)

"Asto naparreixe pasaikue da ori" - (Asto  
nafarrerria pasatarikoa da hori)

"Ba, maixuek es, bañe dantzariidxe ixanikue  
beti, da sarrenetaiko bat, amen be, onen  
aitte be dantzariidxe da, ixanikue" - (Ba,  
maisua ez, baina dantzaria izanikoa  
beti, eta zaharrenetariko bat, hemen ere,  
honen aita ere dantzaria da, izanikoa)

"Amamak eiñiko tostadak gosuek ixaten ei  
die" - (Amamak egineko tostadak gozoak  
izaten ei dira)

## **-nikoan:**

"Oñ umiek estabe olgetan, gu, ixate san  
eskolatik urtenikuen da ba, bei saintzien  
ero espeuen ero bestie" - (Orain umeek ez  
dute olgatzten, gu, izaten zen eskolatik  
irtenekoan eta ba, behi zaintzen edo ez  
bazegoen edo bestea)

"Txaletik paseikuen, esta? biaye" -  
(Txahaletik pasaturikoan, ezta? begia)

## **23.5. ADITZ IZENAK**

Azpi-atal honetan aditz izenen erabileraren  
gaineko esaldi ereduak emango ditugu.

## **-(k)eran:**

"Da ikusi be asko gedxa, e? aurretik ikusi  
bela ta bestie ta eikeran da ba, gero  
txittie falta sala, ta anditxuek einye be bai  
txittak, e? es txikidxe bakarrrik" - (Eta  
ikusi ere asko gehiago, e? aurretik ikusi

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*zutela eta bestea eta egikeran eta ba, gero txita falta zela, eta handitxoak eginda ere bai txitak, e? ez txikiak bakarrik)*

*"Len txikitxotan, e, umiek eskola asieran da eukitten dabe, bañe umie jadxokeran be bai buruen, e, sabalodxe ta" - (Lehen txikitxotan, umiek eskola hasieran eta edukitzen dute, baina umea jaiokeran ere bai buruan, zabaloia eta)*

*"Etxetik urteidxeran txakurrek ainka i otza" - (Etxetik irteeran txakurrak haginka egin dio)*

## **-tea:**

*"Ibili esettie txarra da" - (Ez ibiltzea txarra da)*

*"Damutute na ain berandu etortie" - (Damututa nago hain berandu etortzea)*

*"Ori esatie esta ona" - (Hori esatea ez da ona)*

*"Ori fasilie da eittie" - (Hori erraza da egitea)*

*"Kantzaute na bedarra ebatie" - (Nekatuta nago belarra ebakitzea)*

*"Intentaukot akabatie biskor" - (Ahaleginduko naiz amaitzea bizkor)*

*"Damutu eitte ata berandu etortie" - (Damutu egiten zait berandu etortzea)*

*"Basuen ibiltie ona da" - (Basoan ibiltzea ona da)*

*"Umiei olgetan eittie gustetakue" - (Umeei olgatzen egitea gustatzen zaie)*

*"Ori gatxa da sinistie" - (Hori gaitza da sinestea)*

## **-terik:**

*"Estau gure ixen etorteik" - (Ez du gura izan etortzerik)*

*"Amesetan eitte banak, ba Santa Inesi erresau barik pentzau bes ogera juteik" - (Amesetan egiten zuenak, ba Santa Inesi errezatu barik pentsatu ere ez ohera joaterik)*

*"Gure mutillek eta eseben gure an lo eitteik" - (Gure mutilek eta ez zuten gura han lo egiterik)*

## **-teari:**

*"Orrek erretiai itxi otza" - (Horrek erretzeari utzi dio)*

*"Garidxe eraittiai itxi otze" - (Garia ereiteari utzi diote)*

*"Amaikaas ya itxi notzan eskolara juetiai" - (Hamaikagaz utzi nion eskolara joateari)*

*"Konjuru eitte ben, trumoyorrek itxi deidxen jotiei" - (Konjuru egiten zuten, trumoi horiek utzi diezaioten jotzeari, eta kanpora irten ba)*

## **-teagaz:**

*"Posi na ikustias" - (Pozik nago ikusteagaz)*

*"Akordau nas erostias" - (Gomutatu naiz erosteagaz)*

*"Entzutias bakarrik esautu ot" - (Entzuteagaz bakarrik ezagutu dut)*

*"Ori esatias esta eser arregletan" - (Hori esateagaz ez da ezer konpontzen)*

## **-teagaz batera:**

*"Bai, bai, e, selan da? gora eltzias batera, bire ba toye" - (Bai, bai, zelan da? gora heltzeagaz batera, bide bat doa)*

*"Da esatias batera, konturetu ei san" - (Eta esateagaz batera, konturatu ei zen)*

## **-tearren:**

*"Afaldu esettiarren juen ein die" - (Ez afaltzearren joan egin dira)*

*"Ba ayuntamentuen be seoser, e, emototzen, arrapetiarren, ba estaitt ori, e, selan ixleiken, e?" - (Ba udaletxean ere zer edo zer, ematen zioten harrapatzearren, ba ez dakit hori, zelan izan litekeen, e?)*

## **-teagatik:**

*"Askorias, kapau ero esate ako, ero sati bat kentze otzasu ba erresa botatiaittik eta" - (Aizkoragaz, kapatu edo esaten zaio, edo zati bat kentzen diozu ba errazago botatzeagatik eta)*

## **-tes:**



# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Arranue ixetes andidxe da, bañe orrek atxarranuek die txikidxe" - (Arranoa izatez handia da, baina haitz-arrano horiek dira txikiak)

## **-ten:**

"Ikesi dau txistue joten" - (Ikasi du txistua jotzen)

"Orrek badaki eitten" - (Horrek badaki egiten)

"Atrebidu da artzen" - (Ausartu da hartzen)

"Pasetan itxi oste" - (Pasatzen utzi didate)

"Jaten emoste" - (Jaten eman didate)

"Orrek estudixetan segitzen dau" - (Horrek estudiantzen segitzen du)

"Erakutzi otzat eitten" - (Irakatsi diot egiten)

"Orri astu dxako euskera berba eitten" - (Horri ahaztu zaio euskara berba egiten)

"Asi da jaten" - (Hasi da jaten)

"Ipiñi ot jatekue berotzen" - (Ipini dut jatekoa berotzen)

"Lagundu otzat akabetan" - (Lagundu diot amaitzen)

## **-tera:**

"Etorri nas ama ikustea" - (Etorri naiz ama ikustera)

"Ori gurien esta egon, bañe amen aldemenien da, ormara altzeta eben da, makillias, makillias ra! gero jatera oyesenien, bajatu" - (Hori gurean ez da egon, baina hemen aldamenean eta, hormara altxatzen zuten eta, makilagaz, makilagaz ra! gero jatera zihoazenean, baxatu)

"Ba ori, gastaña arrue ori da, e, usteltzera doyen, e, arrotute materidxela, bai, tronkuek, or gerritik ero orridxetatik bera oten dana, sustarretik bittarte ori arrotu, arrotute, ori dekot" - (Ba hori, gaztaina harroa hori da, usteltzera doan, harrotuta materiala, bai, enborrak, hor gerritik edo orrietatik behera egoten dena, zuztarretik bitarte hori harrotu, harrotuta, hori daukat)

"Geubes ni partitza juen da ene, gure jaunak abadie, da, belaunikotu giñien pasau artien, itxi kantiñek serien da belaunikotu eitten giñien" - (Gauetz ni banatzera joan eta ene, gure jaunagaz

abadea, eta, belaunikatu ginen pasatu artean, utzi kantineak zerean eta belaunikatu egiten ginen)

"Gari jotietan laguntzera juen da, ori bai, esautu ot ori" - (Gari jotzeetan laguntzera joan eta, hori bai ezagutu dut hori)

## **ez ... -tera:**

"Biskor juen eseittera esi lleike ikusi" - (Bizkor joan ezean ezin liteke ikusi)

"Esi lleike juen kotxie eukiñ eseittera" - (Ezin liteke joan autoa eduki ez egitera)

## **-terakuen:**

"Ostien, ilbarridxen botetan baosu dana ure daridxola oten ei da egurre, su eitterakuen be bai" - (Ostean, ilberrian botatzen baduzu dena ura dariola egoten ei da egurra, su egiterakoan ere bai)

## **-teko:**

"A esaten san sala kardetako, ol baten ipintte olan gora begire, sorros sorrotzak puntak eukesena" - (Hura esaten zen zela kardatzeko, ohol baten ipinita hola gora begira, zorrotz-zorrotzak puntak zeuzkana)

"Au ekarri ot suk erueteko" - (Hau ekarri dut zuk eroateko)

"Berdurie jateot lodittu eseitteko" - (Berdura jaten dut ez loditzeko)

"Akordau saittes erosteko" - (Gomutatu zaitez erosteko)

"Etorteko da" - (Etortzeko dago)

"Esteko jateko gogoik" - (Ez dauka jateko gogorik)

"Amen oitturie, egosteko oitturaik esta, gurien beintzet, da ostera aldemenetan beti" - (Hemen ohitura, egosteko ohiturarik ez dago, gurean behintzat, eta ostera aldamenetan beti)

"Esayosu dana ekarteko" - (Esaiozu dena ekartzeko)

"Amak esan dau amen egoteko" - (Amak esan du hemen egoteko)

"Au erosi ot umiai emoteko" - (Hau erosi dut umeari emateko)

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Ama elixan sartzeko moruen egon san" -  
(Ama elizan sartzeko moduan egon zen)

"A, bai, ilberan ebai bi da ulie, asi esitteko,  
gutxi asteko, asteko, il barridxen" - (A,  
bai, ilbeheran ebaki behar da ilea, ez  
hazteko, gutxi hazteko, hazteko, ilberrian)

## -tekotan:

"Egurre ekartekotan junas" - (Egurra  
ekartzekotan joan naiz)

"Txarto eittekotan oba bakien itxi" - (Txarto  
egitekotan hobe bakean utzi)

"Txarto berba eittekotan isilik egotie oba" -  
(Txarto berba egitekotan isilik egotea  
hobe)

## -teko ustean:

"Etorri die guas berba itteko ustien" -  
(Etorri dira gugaz berba egiteko ustean)

## 24. POSPOSIZIOAK

Atal honetan, daukaten garratzia gogoan  
erabilita, jaso ditugun posposizioak eta  
euron erabileren esaldi eredu batzuk  
ematen ditugu.

**aiñe:** adina

"Gure aiñe kipula ekarri dabe" - (Gura  
adina kipula ekarri dute)

**aldien:** aldean

**antza:** antza

"Aitten antza deko orrek" - (Aitaren antza  
dauka horrek)

**antzekue:** antzekoa

"Ori da nere antzekue" - (Hori da nire  
antzekoa)

**antzera:** antzera

"Ori, esta, katuen antzera buru txikidxaus"  
- (Hori, ez da, katuaren antzera buru  
txikiagoagaz)

**arte:** arte

"Irurek arte eongo ga" - (Hirurak arte  
egongo gara)

"Da bueno jentie astuas ibiltte san asko, ba  
lelengo kotxiek agertu arte" - (Eta beno

jendea astoagaz ibiltzen zen asko, ba  
lehenengo autoak agertu arte)

**artien:** 1. artean. 2. arte

"Umion artien auxe da andidxena" -  
(Umeon artean hauxe da handiena)

"Andren artien gastiena esta etorri" -  
(Andreen artean gazteena ez da etorri)

"Bota dabe umien artien txikidxena" - (Bota  
dute umeen artean txikiena)

"Orrek bostak artien berba in yabe" -  
(Horiek bostak artean berba egin dute)

"Erresa eingau bidxon artien" - (Errazago  
egingo dugu bion artean)

**aspidxen:** azpian

"Burtaunen aspidxen artu adarra iridxe eta  
bota il san" - (Burteunaren azpian hartu  
adarra idiak eta bota hil zen)

**baño:** baino

"Ni nas su baño gastiaue" - (Ni naiz zu  
baino gazteagoa)

"Ori da ni baño sarraue" - (Hori da ni baino  
zaharragoa)

"Suk ekarri osu ni paño gedxa" - (Zuk ekarri  
duzu nik baino gehiago)

"Orrek erosi dau gu paño gitxia" - (Horrek  
erosi du guk baino gutxiago)

**barik:** barik

"Urtie amaittu orduko gari barik geatzen  
siñen da uruni parik" - (Urtea amaitu  
orduko gari barik geratzen zinen eta  
irinik barik)

**barren:** barren

"Neri ser esate ostasu igual da barren" -  
(Niri zer esaten didazu berdin da barren)

"Selan esango tzu pa estakit barren" -  
(Zelan esango dizut ba ez dakit barren)

"Egaña tallerra ein yaben lekuen, axe  
Saldiberko partien axe euen barren" -  
(Egaña tailerra egin duten lekuan,  
huraxe Zaldibarko aldean huraxe zegoen  
barren)

"Aber itxaiñ, ser deko? A! kendute deko  
barren!" - (Ea itxaron, zer dauka? A!  
kenduta dauka barren!)

**barru:** barru

"Iru egun barru etorriko die" - (Hiru egun  
barru etorriko dira)

"Aste bete barru jungo die" - (Aste bete  
barru joango dira)

**begire:** begira

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Ni nere sasoyen, ixen da beti albora begire" - (Ni nire sasoiari, izan da beti albora begira)

**beste:** beste

"Suk dekosu ni peste diru" - (Zuk daukazu nik beste diru)

"Orrek jan dau anaye peste" - (Horiek jan du anaiak beste)

**besteko:** bestekoa

"Su sa ni besteko gastie" - (Zu zara ni besteko gaztea)

"Ori besteko aundixe sa" - (Hori besteko handia zara)

**bides:** bidez, bitartez

"Orduntxe sartu ben sera, tuberixa bides, ure" - (Orduantxe sartu zuten zera, hodia bidez, ura)

**bille:** bila

"Semien bille jun biko su" - (Semearien bila joan beharko duzu)

"Nere bille etorri die" - (Nire bila etorri dira)

**eske:** eske

"Da araxe juete san, aklandetan, da gero ni juete nitzten eske" - (Eta haraxe joaten zen, akklaritzen, eta gero ni joaten nintzen eske)

**esker:** esker

"Trena artu genduen anaidxei esker" - (Trena hartu genuen anaiari esker)

**eskerrak:** eskerrak

**estilora:** erara

**gañera, gañea, ganera:** gainera

**gañien, ganiien:** gainean

"Orren gañien berba eiou" - (Horren gainean berba egin dugu)

"Olako gausaik, e, orren ganiien es" - (Holako gauzarik, horren gainean ez)

**ixen esien:** izan ezean

"Olako gausemat ixen esien, ba muskerrak anka eitten dau"- (Holako gauzaren bat izan ezean, ba muskerrak hanka egiten du)

**kauten:** kabutan

**kontra:** kontra

"Orrek sure kontra das" - (Horiek zure kontra daude)

**kontran:** kontran

"Bertan batu de bertan isten genduen, geure sillie ta danak gendukesan da sillien

kontran" - (Bertan batu eta bertan uzten genuen, geure aulkia eta denak geneuzkan eta aulkia kontran)

"Palasio sarra an, e, manikomidxo barruen, kanpo fubolan an kontran daona, ala etza jun orra?" - (Jauregi zaharra han, zoroetxe barruan futbol zelaian han kontran dagoena, ala ez zara joan horra?)

**konture:** 1. lepotik, bizkar. 2. kontura

"Orrek amen konture bixi die" - (Horiek amaren kontura bizi dira)

"Euren konture gero, aurretik emote tzen ba, arda apurren bat eta ogidxe ero seoser emote otzen" - (Euren kontura gero, aurretik ematen zieten ba, arda apurren bat eta ogia edo zer edo zer ematen zieten)

**lain:** lain

"Sordanbirie ixeta san ba burdidxe pasetako lain sera" - (Zordanbidea izaten zen ba gurdia pasatzeko lain zera)

**lako:** lako, lango

**lekuen:** lekuan

"Barakatzen lekuen kipulak ekarri sittuen" - (Berakatzen lekuan kipulak ekarri zituzten)

**lentsik:** legetxe, bezalaxe

"Da geratzen da gastaye lentsik" - (Eta geratzen da gaztaia legetxe)

**moruen:** moduan

"Au ein yot orren moruen" - (Hau egin dut horren moduan)

**morukue:** modukoa

"Ori aitten morukue da" - (Hori aitaren modukoa da)

"Ni nas sure morukue" - (Ni naiz zure modukoa)

"Onek eukitte ban olan seose seose, punta moruko bat" - (Honek edukitzen zuen hola zer edo zer, zer edo zer, punta moduko bat)

**morure:** modura

**ordes:** ordez

"Lengosuen ordes anaye etorri san" - (Lehengusuen ordez anaia etorri zen)

**parien:** parean

**purus:** podazuz

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Biarren purus ba, seoser irabasten dau ero" - (Beharraren podazuz ba, zer edo zer irabazten du edo)

**saiñ:** zain

"Bueno! e, txittat arrapetan sittuen amen, e, ba sain sain espasengosan, e, beti baten bat falta" - (Beno! e, txitak harrapatzen zituen hemen, ba zain-zain ez bazeunden, beti baten bat falta)

**siar, sier:** zehar

"Basuen siar jun die" - (Basoan zehar joan dira)

"Ametik estartatik sier, e, Mendibera" - (Hemendik estartatik zehar, Mendibera)

"Orra errekan sier etorten die" - (Horren errekan zehar etortzen dira)

"Ibillera txarra ei eben ortik siar jun sienak" - (Ibilera txarra egin zuten hortik zehar joan zirenek)

**tipora:** erara

**ustien:** ustean

## 25. HOTS BERBAK

Atal honetan jaso ditugun hots berbetariko batzuk biltzen dira. Berbok egin diren ekintza batzuen zaratak adierazteko erabiltzen dira. Esangura ematean, ekintza bera adieraziko dugu.

**blasta-blasta:** sator joa

**brau:** garia botatzean edo zohiari buelta ematean egiten den zarata

"Gari asidxai, sulfatue nastate otzen, etartien botate ben brau! gari sakue" - (Gari haziari, sulfatoa nahasten zioten, etartean botatzen zuten brau! gari zakua)

**da:** eztula pasatzeko lepoan ematen den golpearen zarata

"Igurtzi olan es, e, jo jo, olan, da! da! da!, lepuen, da gero alkolaas dana igurtzi" - (Igurtzi hola ez, jo, jo, hola, da! da! da!, lepoan, eta gero alkoholagaz dena igurtzi)

**danba-danba:** atearen kolpea

"Jo dau eskatzeko atie, arek esekidxen, gutxi gora bera jo dau ate bat, e, danba-danba jo dau te, atie sabaldu akon" - (Jo du ezkaratzeko atea, hark ez zekien, gutxi

gora behera jo du ate bat, danba-danba jo du eta, atea zabaldu zitzaion)

**daun, doun:** makilagaz ematen den kolpearen zarata

"Amak jote ostan katxabias doun-doun-doun, bai ba or beyen soluek eta, entzute notzan" - (Amak jotzen zidan makuluagaz doun-doun-doun, bai ba hor behean soroak eta, entzuten nion)

**di-da:** kolpeak ematea batetik bestera

"Jota makillias di-da! akabau gendun" - (Jota makilagaz di-da! akabatu genuen)

**dingi-danga:** dingi-danga edan

**donba-donba:** jazbandaren soinua

**dra:** kanikak potxolan sartzean egiten den zarata

"Ba irabasi, da danak sartzen basendusen, danak seuriek, danak irabasi, olan bueno! asartau olan da dra! bota ta laurek potxola" - (Ba irabazi, eta denak sartzen bazenituen, denak zeureak, denak irabazi, hola beno! aparatu hola eta dra! bota eta laurak potxola)

**dri-drau:** arintasunaren zarata

**dxa:** intsektuen zitzadaren zarata

**dxast:** burdina egurrezko txirrinkari presioan sartzeko zarata

"Da ori burdiñioi san egurrek euken bueltie baño txikidxaue, gero sartze ben dxast! or egurrien da botate otzen ure, baldie, raaa! otzittu te, gogortute!" - (Eta burdina hori zen egurrak zeukan buelta baino txikiagoa, gero sartzen zuten dxast! hor egurrean eta botatzen zioten ura, baldea, raaa! hoztu eta, gogortuta!)

**kirri:** txirri txirriaren zarataren irudia

**krak:** hausturaren zarata

**pli-pli:** irakiten dagoenari eragikeran egiten den zarata

"Bañe atzien, e? se ostantzien, e, eraiñ ye, atze atzien, pli-pli, pli-pli, te ya sendotzen sendotzen, sendotzen juten da" - (Baina atzean, e? ze osterantzean, erein eta, atze-atzean, pli-pli, pli-pli, eta ja sendotzen sendotzen, sendotzen joaten da)

**plis-plas:** plis-plas jo

**plasta-plasta:** plasta-plasta egin

**pol-pol:** egosikeran edo irakikeran egiten den zarata adierazteko

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Bai lapiko bat, lapikuek ixete sien asta batekuek, gorrixek, lurrekuek, gu pe olakuek gu genduesan beti emen, da juete giñen solora biarrien da, babie ipintte gendun an atzien atzien, pol-pol pol-pol egosten, erre be esan eitten sekule lapikue be, antxe brasan, estakixu?" - (Bai lapiko bat, lapikoak izaten ziren asta batekoak, gorriak, lurrezkoak, guk ere holakoak gura genituen beti hemen, eta joaten ginen sorora beharrean eta, baba ipintzen genuen han atzean-atzean, pol-pol pol-pol egosten, erre ere ez zen egiten sekula lapikoa ere, hantxe txingarrean, ez dakizu?)

**ra:** arin egineko ekintza baten zarata

"Olan ra! buelta eitte ban, ta ra! a ebalte gendun babie joteko, da koltxoyen lanak joteko be bai" - (HOLA RA! buelta egiten zuen, eta ra! hura erabiltzen genuen baba jotzeko, eta koltxoiazen arteleak jotzeko ere bai)

**ron-ron:** motorren zarata

"Ron-ron, ron-ron, olako abioi sar bat etorte san aundi bat, sarata baten" - (Ron-ron, ron-ron, holako hegazkin zahar bat etortzen zen handi bat, zarata baten)

**sirti-sartie:** zirti-zarta jo

**taka:** enorrari belarragaz ikutzean egiten den zarata

"Da bidxagonien be iguel, taka! allegautekuen an dator bestie" - (Eta biharamunean ere berdin, taka! ailegatutakoan han dator bestea)

**taka-taka:** mailuketaren zarata

"Da mallukias jo, taka-taka! urune iñ, da gero aittek ekarri oskuan, ser bat" - (Eta mailukiagaz jo, taka-taka! irina egin, eta gero aitak ekarri ziguan, zer bat)

**tan:** gona arin altxatzearen zarata

"Alan eskue sartze ben, altzau gonie ganekue ta tan! seras, partikeran" - (Hala eskua sartzen zuten, altxatu gona gainekoa eta tan! zeragaz, patrikan)

**tanga:** ur tantaren zarata

"Intxaurre gabonak orduko podaten esposu, intxaurrek eitte otzu posue, eitte otzu, adar bat ebaitte, bidxagonien be antxe, tanga ta tanga ta tanga ta tanga jausten" - (Intxaurra gabonak orduko inausten ez

baduzu, intxaurrak egiten dizu putzua, egiten dizu, adar bat ebakita, biharamunean ere hantxe, tanga eta tanga eta tanga eta tanga jausten)

**tan-tan:** kanpaiaren hotsa

"Onek, selako oitturak dire onek, tan-tan, il kanpayek jotzen ainbeste denporan, tan-tan alan ixete san oitturie" - (Hauek, zelako ohiturak dira hauek, tan-tan, hil kanpaiak jotzen hainbeste denboran, tan-tan halan izaten zen ohitura)

**taparra-taparra:** taparra-taparra

**tarra-tarra:** tarra-tarra

**tilin-tilin:** txilinarean hotsa

"Bañe txiliñe ixete san, tilin-tilin, txiliñe esatakon" - (Baina txilina izaten zen, tilin-tilin, txilina esaten zitzaion)

**tiki:** txirikila kotzean egiten den zarata

"Txirikillie da olako palotxo bat, ertzak, e, ori dekosen ta, jo olan da tiki! eitten dabena" - (Txirikila da holako makilatxo bat, ertzak, hori dauzkana eta, jo hola eta tiki! egiten duena)

**tirriin:** txirrinkolaren zarata

"Aren txirrinkolias, tirriin! erabiltteko, txirrinkolie" - (haren txirrinkolagaz, tirriin! erabiltzeko, txirrinkola)

**tirrin-tarran:** kateen zarata narraz eroatean

"Katietan anak lotute tirrin-tarran, tirrin-tarran da etorte siela gabien" - (Kateetan hankak lotuta tirri-tarran, tirri-tarran eta etortzen zirela)

**txak:** zer edo zer bat-batean inkatzean edo itsastean egiten den zarata

"Kendu odola ta txak! axe ipiñi, da arek geatu eitte ban itxurie" - (Kendu odola eta txak! huraxe ipini, eta hark geratu egiten zuen itxura)

**txin-txin:** txori txikien zarata

**txurruu:** garauaren zarata

## 26. ESKLAMAZIOAK

Gure korpusean jaso ditugun esklamazioak eta, hainbat kasutan, euren erabileraren testuinguruak ere batzen ditugu atal honetan.

**akabo:** akabo

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Auxe da mutue, au amaitzen daniel akabo!" - (*Hauxe da mutua, hau amaitzen denean akabo!*)

"Nik sortzi urte neukesan, e, sortzi ba bederatzi eitteko amen sartu sienien, da arreskero amen ba akabo, kendu ei eben da, olan ixen san" - (*Nik zortzi urte neuzkan, zortzi ba bederatzi egiteko hemen sartu zirenean, eta harrezkero hemen ba akabo, kendu egin zuten eta, holan izan zen*)

**alakun baten:** halakoren baten

"Ai! alakun baten ill in bi neban esate ban" - (*Ai! halakoren baten hil egin behar nuen esaten zuen*)

**ara:** hara

**bai sera:** bai zera

**edarra:** ederra

**ene, enei:** ene

**fijo:** ziur

**grandie:** handia, itzela

**jakiñe:** jakina

**jota:** jo eta

**karo, klaro:** jakina

**keba:** bai zera

"Es! aparte! sekule bes mutillekin, keba! gu nesken eskolan" - (*Ez! bereiz! sekula ere ez mutilekin, bai zera, gu nesken eskolan*)

**kitto:** kito

**klaro, karo:** jakina

**kontus:** kontuz

**kontxo:** kontxo

**kristona:** kristorena

**madaikatue:** madarikatua

**ño:** ño

**oba:** hobe

"Etorriko balitzes oba!" - (*Etorriko balira hobe!*)

**seguru:** ziur

**sentelle:** zentaila

"Da arek erreten dau eridietan, sentelle moruen erreten dau" - (*Eta hark erretzen du zaurietan, zentaila moduan erretzen du*)

## 27. ESAKUNEAK

Atal honetan adjektibo eta aditzondo esakuneak aurkeztu ostean, jaso ditugun esaldi eginak batuko ditugu.

### 27.1. ADJEKTIBO ESAKUNEAK

**ago berue:** aho beroa

**ago satarra:** aho zatarra

**badaspadakue:** badaezpadakoa

**bidxen bittartekue:** bien bitartekoa

**buru gogorra:** buru gogorra, tematia

"Buru gogorra dok ori" - (*Buru gogorra duk hori*)

**dana dalakue:** dena delakoa

**ikusi esiñekue:** ikusi ezinekoa

**kaleko umie:** kaleko umea, kalean jaio dena eta ez baserrian

**marti ollandie:** neska bizkorra

"Marti ollandie don ori" - (*Marti oilanda dun hori*)

**saldi suridxe:** zaldi zuria, ohearen gainean esaten da

**saso onekue:** sasoi onekoa, sasoi onean egon

"Ama ixate san beti eitte bana ba, saso oneku euen ama ta ba, arek eitte ban beti" - (*Ama izaten zen beti egiten zuena ba, sasoi onekoa zegoen ama eta ba, hark egiten zuen beti*)

**txanka meye:** txanka mehea

### 27.2. ADITZONDO ESAKUNEAK

**asken baten:** azken baten

**aspikues gora:** azpikoz gora

"Beyek bustitte akesenien, atzera aspikues gora ipiñi, godxe bera ta beti sikuen anakak" - (*Beheak bustitzen zitzaizkienean, atzera azpikoz gora ipini, goia behera eta beti sikuan hankak*)

**atzekuas aurrera, atzekos aurrera:** atzekoz aurrera

"Baitte ori be bai, asko, ori asko, e? atzekos aurrera, asko, bai asko ori" - (*Baita hori ere bai, asko, hori asko, e? atzekoz aurrera, asko, bai asko hori*)

**badaspadan:** badaezpada

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Badaspadan beintzet kandela batzuk, da arek, a farola, kandelena be bai, farol sarra, oin be bada bat etxien eta" - (Badaezpadan behintzat kandela batzuk, eta haiek, farol hura, kandelarena ere bai, farol zaharra, orain ere bada bat etxean eta)

**baneka-baneka:** banaka-banaka

**bates be:** batez ere

**begidxen bistan:** begien bistan, begi bistan

**beñ ero beñ:** behin edo behin

"Beñ ero beñ etorri da" - (Behin edo behin etorri da)

"Beñ ero beingo ollogorra ixengo san, beti bat, da beti eunero ekarten ei dxeban ollogorra, da usteldu artien antxe" - (Behin edo behingo oilagorra izango zen, beti bat, eta beti egunero ekartzen ei zuen oilagorra, eta usteldu arte hantxe)

**bidxen bittartien:** bien bitartean

**botala:** euria asko egiten duenean esaten da

**dana dala:** dena dela

**egunien egunien:** egunean-egunean

**esate baterako:** estae baterako

"Orrek etxe artuek eukesan, ausunak artute eukesan, iguel ausuna baten be etxe bittera esien jungo, ara beste bat juete salako, esta? esate baterako, ta olan eitte ben" - (Horiek etxe hartuak zeuzkaten, auzuneak hartuta zeuzkaten, beharbada auzune baten ere etxe bitara ez ziren joango, hara beste bat joaten zelako, ezta? esate baterako, eta hola egiten zuten)

**gedxen bat:** gehien bat

**gitxi gora bera:** gutxi gora behera

**godxas bera:** goiaz behera

**jo ta su:** jo eta su

**kaso batesko, kaso bateskero, kaso bateraskero:** kasu baterazkero, kasu baterako

"Bueno bai lurre, lurre, lurrek dittuk gorriskiauek, kaso batesko paraje batetik bestera, eoten dok ori diferensie, kaso batesko mendi batek eukitte dxok gorriskiaue, beste batek illunaue" - (Beno bai lurra, lurra, lurrak dituk gorrixkagoak, kasu baterazkero inguru batetik bestera, egoten duk desberdintasun hori, kasu baterazkero

mendi batek edukitzen dik gorrixkagoa, beste batek ilunagoa)

**kurioso-kurioso:** kontuz-kontuz, kontu handiz

"Asaltxo at ixate san, aspidxen eukitte bena ta kurioso kurioso orratzas kendu" - (Azaltxo bat izaten zen, azpian edukitzen zutena eta kontuz-kontuz orratzagaz kendu)

**lekuen-lekuen:** lekuan-lekuan

"Maratza goiku asko, untxe be bai, amen baserridxetan, lekuen lekuen ipiñitte iguel baserridxen, iguel olan, e, lekuen lekuen eote ittuk" - (Mahatsa goikoa asko, oraintxe ere bai, hemen baserrietan, lekuan lekuan ipinita beharbada baserrian, beharbada holan, lekuan lekuan egoten dituk)

**nosien beñen:** noizean behin

**or-emen:** hor-hemen

**oso osuen:** oso-osoa

"Orrek arrapetan juen sien, orrek arrapetan, oso osuen danak barruen arrapau bi sittuela, gu, ta gero frakasue demasa" - (Horiek harrapatzen joan ziren, horiek harrapatzen, oso-osoa denak barruan harrapatu behar zituztela, gu, eta gero porrot itzela)

**piskat gora bera:** pixka bat gora behera

**ume eske:** ume eske, ganadua susara dagoenean ume eske egoten da

## 27.3. ESALDIAK

**andramari martikos erromako subidxe pasetan da:** kukuak orduan jotzen duelako lehenengoz esaten da

**andramari martiko tartien udietatiko, andik aurrera betiko:** andramari martiko tartean udetatiko, handik aurrera betiko

**artue goixien selai, ta illuntzien eraiñ:** artoa goizean zelai, eta iluntzean eragin

**auntze pe ilteko moruko aixie:** ahuntzak ere hiltzeko moduko haizea

**baserrixe nun txarrixe an:** baserria non txerria han

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**bedeinkatu daidxesela onek janaridxok:**

bedeinka ditzala janari hauek; mahaia bedeinkatzeko modua

*"Bedeinkatu daidxesela onek janaridxok, ba oixe ixete san gure seroi" - (Bedeinkatu ditzala janari hauek, ba horixe izaten zen gure zer hori)*

**belarridxe tente:** belarriak tente, umeekin beti erne eta kontuz ibili behar dela adierazteko erabiltzen da

*"Onas umionas belarridxe tente" - (Ume honegaz belarriak tente)*

**busterri iridxi baño billur aundidxaue dotza kapeladun agurjai:** buztarri idiari baino bildur handiagoa dio kapeladun agureari; ustei belarraren gainean esaten den esaera

**egoaixe urte gaixo urte:** hego haize urte, gaixo urte

**egunon, jainkuek emon:** egun on, Jainkoak eman

*"Egunon! bai, Jainkuek emon" - (Egunon! bai, Jainkoak eman)*

**erleye pestabe itten or abidxeik:** elaiak ere ez dute egiten hor habiarik; leku txarra izendatzeko erabiltzen den esaldia

*"Erleye pestabe itten or abidxeik esaten da, esan gure dau ba jente txarra dauela ero" - (Elaiak ere ez dute egiten hor habiarik esaten da, esan gura du ba jende txarra dagoela edo)*

**eskerrik asko gosiek il dxoan:** eskerrik asko, goseak hil zian

**esta urrik emon be:** ezta urrik eman ere

**euski tte euri martiko eualdi:** eguzkia eta euria martiko eguraldia

**frantzes a baño faltzuaue ixen:** frantsesa baino faltsuagoa izan; faltsua dela adierazteko

*"Faltzuaue as, frantzes a baño faltzuaue as da etorri adi ona" - (Faltsuagoa haiz, frantsesa baino faltsuagoa haiz eta etor hadi hona)*

**gaba gabekue dako:** gaua gauezkoentzako

**gois gorri euritzu, illuntzi gorri aixetzu:** goiz gorri euritsu, iluntze gorri haizetsu

**iñusente potente txakurren bustena tente:** inuzente potente txakurraren buztana tente; inuzente egunean txantxaren bat eginda, esaten dena

**ixar gorridxe ta urriko euridxe, txarrak:** izan gorria eta urriko euria, txarrak

**jainkuek bereinketu:** Jaungoikoak bedeinkatu, ume txikiei esan behar zitzaien, bestela begizkoa egiteko arriskua ei zegoen

*"Jainkuek bereinketu daidxela, ori beti, ume bat ikusten basu ba, barridxe, jainkuek bereinketu daidxela!" - (Jaungoikoak bedeinkatua, hori beti, ume bat ikusten baduzu ba, berria, jaungoikoak bedeinka dezala!)*

**jan bat eta eran bat arima tripakok urten arte:** jan bat eta edan bat arima tripakoek irten arte

*"Mallabidxen esate ben, Mallabidxen, jan bat eta eran bat arima tripakok urten arte, esate bela, iñon konture sanien, iñon konture ba, entierrotako janak eta ixate sien iñon konture len da, jan bat eta eran bat iñon da, arima tripakok urten arte" - (Mallabian esaten zuten, Mallabian, jan bat eta edan bat arima tripakoak irten arte, esaten zutela, inoren kontura zenean, inoren kontura ba, enterruetako janak eta izaten ziren inoren kontura lehen eta, jan bat eta edan bat inoren eta, arima tripakoak irten arte)*

**kredu e txarto erresau:** kredoa txarto errezatu, ume bat okertxo edo denean esaten zaie aitabitxi amabitxiri ea kredoa txarto edo aldrebes errezatu dioten

*"Ori esaten dabe bai, ene! onek umionek biurridxe urten dau, bai ba txarto erresauko san kredue ta" - (Hori esaten dute bai, ene! ume honek bihurria irten du, bai ba txarto errezatuko zen kredoa eta)*

**lupue baño gasidxaue egon:** lupua baino gaziago egon

*"Au lupue baño gasidxaue da" - (Hau lupua baino gaziagoa dago)*

**marti kakatzu, oiñarte billur ix e natzu:** marti kakatsu, orain arte bildur izan natzaizu; marti hilaren gaineko esakunea

*"Bueno emen san esakerie ba, marti kakatzu oiñ arte billur ix e natzu, da, ogetamarrien, e, gure aittek esate ban, ogetamarrien esa otzala, e, sosuek, marti kakatzu oiñ artien billur ix e natzu, bañe oiñ, emetik aurrera estakatzut" - (Beno*



# ZALDIBAR HIZTEGIA

*hemen zen esakera ba, marti kakatsu orain arte bildur izan natzaizu, eta, hogeita hamarrean, gure aitak esaten zuen, hogeita hamarrean esan ziola, zozoak, marti kakatsu orain artean bildur izan natzaizu, baina orain, hemendik aurrera ez daukagizut)*

**mayetza erdidxe otzak iltten da erdidxe berue erretan:** maiatza erdia hotzak hiltzen eta erdia beroa erretzen

**natibitate ase ta bete:** Natibitate ase eta bete

**ordu labor bat desiau:** ordu labor bat opatu  
*"Ordu labor bat desiau tzut" - (Ordu labor bat opatzen dizut)*

**San Antonio guarda:** San Antonio guarda, ganadua jaiokeran edo etxera berritan ekarieran esaten dena

**San Antoniok gorde daidxela:** San Antoniok gorde dezala; ganadua jaiokeran edo etxera berritan ekarieran esaten den esakunea

**Sanestebantxo beti beselantxo:** San Estebantxo beti bezalantxo

**San Ramoni erregutu:** San Ramoni erregutu; seindun daudenei zorte ona ekartzeko santu honi erregutu behar izaten zitzaion

*"San Ramoni erregutuko tzau te orrek entzute sien, San Ramon nonato, ba a san patroye itxurie, nik ori oitturioi badakitt, ene erregutuko tzau ba San Ramoni, ondo urten daidxen ser gustik" - (San Ramoni erregutuko diogu eta horiek entzuten ziren, San Ramon jaiobakoa, ba hura zen patroia itxura, nik ohitura hori badakit, ene erregutuko diogu ba San Ramoni, ondo irten dezan zer guztiak)*

**Selako ume ederra, jainkuek bedeinkatu dittela:** Zelako ume ederra, Jainkoak bedeinka dezala

*"Ene selaku ume ederra jainkuek bedeinkatu dittela" - (Ene zelako ume ederra Jainkoak bedeinkatu dezala)*

**umien sentzune etxien entzune:** umeen zentzuna etxean entzuna

## 28. BERBA ERATORRIAK

Atal honetan eratorpen atzizkirik garrantzitsuenak aurkezten ditugu. Era berean, bakoitzeko jaso ditugun adibideak ere emango ditugu.

### ADA/KADA

**abidxadie:** abiada

**ainkadie:** haginkada

**arramuskarie:** arramuskada

**arraspadie:** urratada

**arrikarie:** harrikada

**atximurkadie:** atximurkada

**besakarie:** besakada

**betekarie:** betekada

**bultzekadie:** bultzakada

**burkadie, burkarie:** gurdikada

**burukadie:** burukada

**dardarie:** dardara

**daunbadie:** danbada

**erpekadie:** erpakada, txerpakada

**iñusentadie:** inuzentada

**kamiokarie:** kamioikada

**karlistadie:** karlistada

**karraskarie:** karraskada

**ostikadie:** ostikada

**parrastadie, parrastarie:** parrastada

**pikarie:** ziztada

**sakukarie:** zakukada

**sastarie:** pikada

**santzerradie:** zentzerrada

**saprastadie:** zarrastada

**surrustarie:** lo zorrumea

**taupadie:** taupada

**tiradie:** botaldia bolo jokoan

**tirekadie:** tirakada

**ukondokadie:** ukondokada

**urrumarie:** urrumada, morrosa

### ALDE

**aspikaldie:** azpiko aldea

**atzekaldie:** atzeko aldea

**aurrekaldie:** aurreko aldea

**bealdie:** beheko aldea

**bestekaldie:** besteko aldea

**durangoaldie:** Durango aldea

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**elixaldie:** elizaldea  
**ganekaldie:** gaineko aldea  
**goikaldie:** goiko aldea  
**kostaldie:** kostaldea  
**ostekaldie:** osteko aldea

## ALDI

**burrukaldixe:** borrokaldia  
**egotaldixe:** egotaldia  
**gaualdixe:** gaualdia  
**gorputzaldixe:** gorputzaldia  
**lotaldixe:** lotaldia  
**umealdixe:** umaldia

## ARO/ERO

**astero:** astero  
**egunero, eunero:** egunero  
**urtero:** urtero

## BAKO

**akaberabakue:** amaierabakoa  
**arrotubakue:** harrotubakoa  
**arrotzabakue:** arrautzabakoa  
**botabakue:** botabakoa  
**ereinbakue:** ereinbakoa  
**esibakue:** hezibakoa  
**esmaltaubakue:** esmaltatubakoa  
**estriñaubakue:** estreinatubakoa  
**familixabakue:** familiabakoa  
**ganorabakue:** ganorabakoa  
**iñausibakue:** inausibakoa  
**lotzabakue:** lotsabakoa  
**mentaubakue:** mentatubakoa  
**mintzebakue:** mintzebakoa  
**plantaubakue:** landatubakoa  
**saratabakue:** zaratabakoa  
**solusiñobakue:** konponbidebakoa

## BARRI

**jaxoparrixe, jadxoparridxe:** jaioberria  
**labraubarrix:** laiatubarria  
**pasaubarrix:** pasatuberria

## BIDE

**esaupidie:** ezaupidea  
**eskabidie, eskabirie:** eskabidea

## DATE/DADE

**amistadie:** adiskidantza  
**autoridadie:** autoritatea  
**belosidadie:** abiadura  
**borondatie:** borondatea  
**edadie:** edadea, adina  
**fasilledadie:** erraztasuna  
**formalidadie:** formalitatea  
**kantidadie:** kantitatea  
**konformidadie:** konformidadea  
**nobedadie:** berritasuna  
**sosiedadie:** elkarte, txokoa  
**umedadie:** hezetasuna

## DI/TI

**aistidxe:** hariztia  
**gastañaridxe:** gaztainadia  
**mastidxe:** mahastia  
**paadidxe, pagaridxe:** pagadia  
**piñurixe:** pinudia  
**sagastidxe, sagastixe:** sagastia

## DUN

**arrainyune:** arrain saltzailea  
**beidune:** behiduna  
**bixardune:** bizarduna  
**dirudune:** diruduna  
**erdaldune:** erdalduna  
**euskaldune:** euskalduna  
**jakittune:** jakituna  
**jatune:** jatuna  
**jostune:** jostuna  
**kapeladune:** kapeladuna  
**landaradune:** landare saltzailea  
**lepodune:** lepoduna  
**loradune:** loreduna  
**mangadune:** mahukaduna

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**puestudune:** postuduna  
**takodune:** takoiduna  
**tallerdune:** tailerduna  
**tanbordune:** danborduna  
**untzedune:** iltzeduna

## ERIA

**arotzeridxie:** arotzeria  
**barberidxie:** bizartegia  
**ferreteridxie:** burdindenda  
**kaballeridxie:** zalditeria  
**karnaseridxe, karneseridxe, karnaseidxie:**  
harategia  
**karreteridxie:** karreteria  
**kinkelleridxe:** kinkaileria  
**panaderixe:** okindegia  
**peskaeridxie:** arrandegia  
**sakristeridxie:** sakristia  
**sapateridxie:** zapata-denda

## ERA

1. lekua edo instrumentua adierazteko,  
erdal -era :  
**fregaderie:** harria, sukaltarria  
**kabeserie:** kabezera  
**kafeterie:** kafegailua  
**karterie:** diru-zorroa  
**mariñerie:** marinera  
**sayeterie:** leiho txikia  
**simenterie:** mintegia  
**txokolaterie:** txokolatera

2. neurriak edo tamaina adierazteko:  
**luserie:** luzera  
**sabalerie:** zabalera  
**sendoerie:** sendoera

3. Agentea adierazteko:  
**fruterie:** fruta saltzailea  
**ilanderie:** neska dantzaria  
**kafeterie:** kafezalea  
**karniserie:** harakina  
**karterie:** postari andrazkoa  
**martxanterie:** martxantera  
**parterie:** emagina

**solterie:** ezkonbakoa

## ERU

1. Agentea adierazteko:  
**abarketerue:** abarketeroa  
**anderue:** andaria  
**armerue:** armeroa  
**barberue:** barberua, bizargina  
**barkillerue:** barkilo saltzailea  
**basurerue:** zabor biltzailea  
**dulsaiñerue:** dultzaineroa  
**errenterue:** errenteroa, errentadorea  
**fruterue:** fruta saltzailea  
**kafeterue:** kafezalea  
**karneserue, karniserue:** harakina  
**karreterue:** karretero  
**karterue:** postari gizonezkoa  
**kinkillerue:** kinkileroa  
**listerue:** listeroa  
**panaderue, panaerue:** okina  
**pastelerue:** pasteleroa  
**sapaterue:** zapataria  
**sesterue:** otzaragilea  
**solterue:** ezkonbakoa (m.)  
**tabernerue:** tabernaria  
**traperue:** trapu saltzailea  
**txisperue:** zizpagina, eskopeta egilea

2. Lekua edo instrumentua adierazteko:  
**baberie:** baberoa  
**basurerue:** zakarrontzia  
**fruterue:** frutontzia  
**kandelerue:** kandelerua  
**labaderue:** garbitokia, ikuztokia  
**mataderue:** hiltegia  
**metxerue:** metxeroa  
**panderue:** panderoa

## ETA

**berbetie:** berbeta  
**gerratie:** gerratea  
**olgetie:** olgeta

# ZALDIBAR HIZTEGIA

## GARRI

1

**entretenigarri****dxe:** entretenigarria  
**gogaikarri****dxe:** gogaikarria  
**iguingarri****x:** higuigarria  
**ikaragarri****dxe:** ikaragarria  
**ikusgarri****dxe:** ikusgarria  
**interesgarri****dxe:** interesgarria  
**kaltegarri****dxe:** kaltegarria  
**lagungarri****x:** lagungarria  
**soragarri****dxe, soragarri****x:** zoragarria

2

**aspigarri****dxe:** azpigarria  
**esagarri****dxe:** ezagungarria  
**sugarri****dxe:** sugarria

## GEI

**andraged****x:** andregai  
**erreinged****x:** erraingai  
**gixonged****x:** gizongaia  
**suinged****x:** suhingaia

## GIN

**argiñe:** hargina  
**baskulagiñe:** baskulagina  
**biargiñe, biergiñe:** behargina  
**bustergiñe, busterrigiñe:** buztargina  
**ikesgiñe:** ikazkina  
**sestogiñe:** otzaragina  
**sorgiñe:** sorgina  
**txispagiñe:** zizpagina

## IK

**alperrik:** alperrik  
**bakarrik:** bakarrik  
**baraurik:** baraurik  
**bixiik:** bizirik  
**gaixoik:** gaixorik  
**gordiñik:** gordinik  
**isilik, ixilik:** ixilik  
**kasik:** kasik  
**makalik:** makalik

**mangutzik:** mahuka hutsik  
**posik:** pozik  
**osoik:** osorik  
**sabalik:** zabalik  
**sutunik:** zutunik, zutik  
**utzik:** hutsik

## KA

**ainke:** haginka  
**andandaka:** andandaka  
**apurke:** apurka  
**apurke-apurke:** apurka-apurka  
**asterka:** azterka  
**arramuska:** arramuska  
**arrastaka:** narraz  
**arrausike:** aharrausika  
**arrike:** harrika  
**atximurke:** atximurka  
**atzeraka:** atzeraka  
**aurreraka:** aurreraka  
**ausike:** ahausika  
**banaka:** banaka  
**barreka:** barreka  
**builtaka:** builtaka  
**bultzeka:** bultzaka  
**diarka:** deiarka  
**dosenaka:** dozenaka  
**erpeka:** erpeka  
**eskinke:** eskainka  
**gañeska:** gainezka  
**gora-goraka:** gora-goraka  
**kargaka:** kargaka  
**kanikaka:** kanikaka  
**kilo erdike:** kilo erdika  
**kiloka:** kiloka  
**konbittuke:** botaka  
**lepoka:** lepoka  
**ontzaka:** ontzaka  
**orrueka:** orroaka  
**ostikoka:** ostikoka  
**piskaka:** psikaka  
**saltoka:** saltoka  
**satike:** zatika  
**saunkeka:** zaukaka  
**sientoka:** ehuneka  
**sirrike:** zirrika  
**tireka:** tiraka  
**txingiliske:** dindiliska

# ZALDIBAR HIZTEGIA

**uluaka:** uluka

**urumaraka:** urumadaka

## KERIA

**arrokerixie:** harrokeria

**astakeridxe:** astakeria

**barrabaskeridxe:** barrabaskeria

**iñusentekerixie:** inuzentekeria

**lelokerixie:** lelokeria

**sikinkeridxe:** zikinkeria

**tonterixie:** inuzentekeria

## KERA/ERA

**akaberie:** amaiera

**amayerie:** amaiera

**arpeikerie:** aurpegikera

**asierie:** hasiera

**egakerie:** hegakera

**egoerie:** egoera

**eliskerie:** elizkera

**esaerie, esakerie:** esakera

**ibillerie:** ibilera

**jausikerie:** jausikera

**urteidxerie:** irteera

## KI

**kurutzekidxe:** gurutzekia

**mantakidxe:** mantakia

**sayeskidxe:** saiheskia

**txarrikidxe:** txarrikia

## LARI

**atzelaridxe:** atzelaria

**aurrelaridxe:** aurrelaria

**bersolaridxe, bertzolarixe:** bertsolaria

**bolaridxe:** bolaria

**bultzalaridxe:** bultzalaria

**dantzaridxe:** dantzaria

**denderidxe:** dendaria

**errementaridxe:** errementaria

**errotaridxe:** errotaria

**espatadantzaridxe:** ezpata-dantzaria

**gorularidxe:** gorularia, neska dantzaria

**itxutxularidxe, itxuslaridxe:** itaurrekoa

**jokolaridxe:** jokalaria

**kontularixe:** kontularia

**pekataridxe:** bekataria

**pelotaridxe:** pilotaria

**perretxikolaidxe, perretxikularidxe:**

perretxiko beltzailea

**probalaridxe:** probalaria

**sermolaridxe:** sermolaria

**tratularidxe:** tratularia

**txistularixe:** txistularia

## MENDU

**armamentue:** armamentua

**medikamentue:** medikamentua

**mobimentue, moiminttue:** mogimendua

**tratamentue:** tratamendua

## NTZIA

**diferentzidxe:** desberdintasuna

**inportantzixe:** garrantzia

## ORE

**afiladorie:** zorrotzailea

**aministradorie:** administradorea

**barrenadorie:** barrenadorea

**diretorie:** zuzendaria

**enterradorie:** enterradorea, lurpetzailea

**fundidorie:** fundidorea

**kantorie:** kantaria

**kapadorie:** irentzailea

**kasorie:** ehiztaria

**kolorie:** kolorea

**korredorie:** postura korredorea

**ordenadorie:** ordenagailua

**pastorie:** artzaina

**segadorie:** segalaria

**traidorie:** traidorea

**tratorie:** traktorea

**trilladorie:** txilindroa

# ZALDIBAR HIZTEGIA

## OYE

**armasoye:** armazoia  
**balkoye:** balkoia  
**bastoye:** makulua  
**botoye:** botoia  
**bukoye:** bukoia  
**faldoye:** faldoia  
**kamisoye:** kamisoia  
**kañoye:** kainoia  
**koroye:** koroa  
**koskorroye:** koskorroia  
**makarroye:** makarroia  
**matxoye:** postea  
**sankarroye:** zankarroia  
**tabloye:** ohol luzanga  
**takoye:** takoia  
**turroye:** turroia

## OSO

**benenosue:** pozoitsua  
**drogosue:** drogoa, bihurria  
**famosue:** ospetsua  
**itxurosue:** itxurakoa  
**mañosie:** mainatia  
**mañosue:** mainatia  
**peligrosue:** arriskutsua

## PE

**ankapie:** oinazpia  
**arbolapie:** arbolapea  
**atepie:** atepea  
**aterpie:** aterpea  
**auspie:** hauspea  
**bentanapie:** leihopea  
**besapie:** besapea  
**elispie:** elizpea  
**keispie:** gerizpea  
**lurpie:** lurpea  
**motapie:** motapea  
**ogepie:** ohepea  
**orripie:** orripea  
**sakapie:** sakapea  
**samapie:** okozpea  
**subipie:** zubipea  
**surpie:** sudurpea  
**tellatupie:** teilatupea

**tripepie, tripapie:** tripapea  
**urpie:** urpea

## RENGO

**berengue:** beherengoa  
**gorengue:** gorengoa

## RO

**astiro:** astiro  
**barriro, barrido:** berriro  
**lusero:** luzaro

## TAR

**aittetarra:** aitazuloa  
**baserritarra:** baserritarra  
**berritarra:** berritarra  
**betarra:** behetarra  
**bilbotarra:** bilbotarra  
**biskaitarra:** bizkaitarra  
**eibartarra, eibertarra:** eibartarra  
**fransiskotarra:** frantziskotarra  
**gasarra:** gazarra  
**goittiarra:** goitiarra  
**kaletarra:** kaletarra  
**kanpotarra:** kanpotarra  
**karmeldarra:** karmeldarra  
**mallabitarra, mallubitarra:** mailabitarra  
**ondarrutarra:** ondarrutarra  
**saldibartarra:** zaldibartarra

## TASUN

**argittasune:** argitasuna  
**berotasune:** berotasuna  
**bixittasune:** bizitasuna  
**epeltasune:** epeltasuna  
**estuasune, esturasune:** estuasuna  
**gaixotasune:** gaixotasuna  
**garbittasune:** garbittasuna  
**illuntasune:** iluntasuna  
**laguntasune, launtasune:** laguntasuna  
**pobretasune:** pobretasuna  
**surittasune:** zurittasuna

# ZALDIBAR HIZTEGIA

## TEGI

**asittigidxe:** hazitegia  
**munteidxe:** mintegia  
**sasteidxe:** sastegia, sats-lekua  
**suteidxe:** sutegia

## TE

**edurtie:** elurtea  
**gerratie:** gerratea  
**sikutie:** sikatea

## TI

**billurtidxe, billurtixe:** bildurtia  
**eskertixe, eskertidxe:** ezkertia  
**eskumetidxe:** eskumatia  
**gusurtixe:** gezurtia  
**negartixe:** negartia

## TO/DO

**obeto, ogeto:** hobeto  
**ondo:** ondo  
**politto:** polito  
**txarto:** txarto  
**ederto:** ederto

## TOKI

**artokidxe:** arditokia  
**bedartokidxe:** belar tokia, belar lekua  
**bolatokixe:** bolatokia  
**lastokixe:** lastategia  
**ollotokidxe:** oilotokia  
**perratokidxe:** perratokia  
**umetokidxe:** umetokia

## TZA

**alfafetzie:** alfalfatza  
**artotzie:** artotza

**babatzie:** babatza  
**baldotzie:** baldotza  
**basatzie:** basatza  
**bedartzie:** belartza, belardia  
**edurtzie:** elurtza  
**garitzie:** garitza  
**gixontzie:** gizontza  
**jentetzie:** jendetza  
**kakatzie:** kakatza  
**lokatzie:** lokatza  
**lupetzie:** basatza  
**nabotzie:** arbitza

## TZAILE

**asur konpontzaille:** hezur ipintzailea  
**batzaille:** batzailea  
**erakustaille:** irakaslea  
**eruetaille:** bataioa egiteko umea eroaten zuena  
**gari ebataille:** hari ebakitzaila  
**irebataille:** ira ebakitzaila  
**jotaille:** jotzailea  
**laguntzaille:** laguntzailea  
**lo eittaille:** lo egitailea  
**perratzaille:** perratzailea

## TZU

**aixetzue:** haizetsua  
**araputzue:** arapotsua  
**eskamatzue:** ezkatatsua  
**euritzue:** euritsua  
**inyartzue:** indartsua  
**lañotzue:** lainotsua  
**uletzue:** iletsua  
**urtzue:** urtsua

## TURA/DURA

**esturie:** estura, estutasuna  
**jakitturidxe:** jakituria  
**josturie:** jostura  
**loturie:** lotura  
**oitturie:** ohitura

# ZALDIBAR HIZTEGIA

## UNE

**aterrunie:** aterrunea  
**ausunie, eusunie:** auzunea  
**baltzunie:** beltzunea  
**basuunie:** basounea  
**garbiunie:** garbi unada  
**gorriunie:** gorriunea  
**uldiunie:** uldunea, soilgunea

## ZALE

**dantzasalie:** dantzazalea  
**personasalie:** pertsonazalea

## ZINO/INO

**afesiñue:** zaletasuna  
**diputasiñue:** diputazioa  
**diskusiñue:** eztabaida  
**enfesiñue:** zoldura  
**errasiñue:** errazioa  
**estasiñue:** geltokia  
**estimasiñue:** estimazioa  
**formasiñue:** formazioa  
**fundisiñue:** fundizioa  
**informasiñue:** informazioa  
**inpresiniñue:** zirrara  
**intensiñue:** asmoa  
**jubilasiñue:** jubilazioa  
**kalefasiñue:** kalefakzioa  
**konbertzasiñue,**                    **konbersasiñue:**  
    elkarrizketa  
**kondesiñue:** baldintza  
**konparasiñue:** konparazioa  
**kontribusiñue:** kontribuzioa  
**madarikasiñue:** madarikazioa  
**maldisiñue:** madarikazioa  
**obligasiñue:** betebeharra  
**presiñue:** presioa  
**proporsiñue:** proportzioa  
**prosesiñue:** prozesioa  
**solusiñue:** konponbidea  
**tradiñue:** tradizioa

## ZKO

**alanbraskue, alanbreskue:** alanbrezkoa

**andraskue:** andrazkoa  
**ardilanaskue:** artilezkoa  
**ariskue:** harizkoa  
**arriskue:** harrizkoa  
**asurrekue:** hezurrezkoa  
**bronseskue:** brontzezkoa  
**burdiñaskue:** burdinazkoa  
**bustiñeskue:** buztinezkoa  
**egurrekue:** egurrezkoa  
**erderaskue:** erdarazkoa  
**espartuskue:** espartuzkoa  
**euneskue:** ehunezkoa  
**euskeraskue:** euskarazkoa  
**galtzairuskue:** altzairuzkoa  
**gixoneskue:** gizezkoa  
**gomaskue:** gomazkoa  
**kiñarreskue:** ginarrazkoa  
**lanaskue:** artilezkoa  
**latoiskue:** latorrizkoa  
**liñuskue:** lihozkoa  
**lumaskue:** lumazkoa  
**lurrekue:** lurrezkoa  
**malutaskue:** malutazkoa  
**marmoleskue:** marmolezkoa  
**metaleskue:** metalezkoa  
**narruskue:** narruzkoa  
**oleskue:** oholezkoa  
**patxaraskue:** patxadazkoa  
**plastikoskue:** plastikozkoa  
**sementoskue:** zementuzkoa  
**sereskue:** zerezkoa  
**sinkeskue:** zinezkoa  
**sumitzeskue:** zumitezkoa  
**telaskue:** ehunezkoa  
**tersiopeloskue:** belusezkoa  
**txapaskue:** txapazkoa

## ZULO

**amasulue:** amazuloa  
**etxesulue:** etxezuloa

## 29. JUNTAGAILUAK

Atal honetan jaso ditugun juntagailuen zerrendagaz batera, euron erabileraren adibidetzat agertzen izan zaizkigun esaldi eredu batzuk ere emango ditugu.



# ZALDIBAR HIZTEGIA

## **bata... bestie:**

"Anadxa bi euesan, da batak soñue jote ban da bestiek ori jote ban" - (Anaiia bi zeuden, eta batak soñua jotzen zuen eta besteak hori jotzen zuen)

"Angarie san, balda bi ipintten sien bata atzien da bestie aurrien, da, makillie baño senduaue ixate san, e? egur bat, sendo samarra, da gantxo moruen, e, euren lekue euken" - (Angara zen, balde bi ipintzen ziren bata atzean eta bestea aurrean, eta, makila baino sendoagoa izaten zen, e? egur bat, sendo samarra, eta gantxo moduan, euren lekua zeukan)

"Bueno busterridxe, guk, e, busterridxe geunkesan, e, ser bi, narruskuek, e, lusiek, estakitt semat euko besan, bi, ganau bata ta bestie lotzeko" - (Beno buztarria, guk, buztarriak geneuzkan, zer bi, narruzkoak, luzeak, ez dakit zenbat edukiko zituzten, bi, ganadu bata eta bestea lotzeko)

"Berak ipiñi ban arek, a etxie, bata Berris san da bestie Elorridxo, da amen sartu jenerue ta ona pasau gero, ta akabo! inpuetue pagau biarri pes!" - (Berak ipini zuen hark, etxe hura, bata Berriz zen eta bestea Elorrio, eta hemen sartu jeneroa eta hona pasatu gero, eta akabo! zerga ordaindu beharri ere ez!)

## **batien... bestien...**

"Dirue eukeni, batien frontora, bestien, e, Eiberra, bestien probara, bestien bestera, geldittu bes" - (Dirua zeukanean, batean frontoira, bestean, Eibarrera, bestean probara, bestean bestera, gelditu ere ez)

"Batien garidxe ta bestien artue itten dabe" - (Batean garia eta bestean artoa egiten dute)

## **bañe:**

"Kangrejue, politto, es olan asko bañe, erreka txikidxe ixen dire onek eta, baye erreka garbidxe" - (Karramarroa, polito, ez hola asko baina, erreka txikiak izan dira hauek eta, baina erreka garbiak)

"Katietan anakak lotute tirri-tarran, tirri-tarran da etorte siela gabien bañe, esosten billurrik emoten nei orrek gausok, enas ixen billurtidxe" - (Kateetan hankak lotuta tirri-tarran, tirri-tarran eta etortzen zirela gauean baina, ez zidaten bildurrik ematen niri gauza horiek, ez naiz izan bildurtia)

"Klase asko da amen bertan be, aurten be il yau bat, e, subi onek suba berdiok, aundidxe, d'orrek benenoik estekela esaten dabe, bañe estakitt" - (Mota asko dago hemen bertan ere, aurten ere hil dugu bat, suge hauek, suge berdiok, handiak, eta horiek pozoirik ez daukatela esaten dute, baina ez dakit)

"Lelengo eruate san olan, e, sera kamiseta morukue, mariñerie da aren goikue bañe gero, ixurras, bueltan, gerridxen formie gomie sartu gerridxen tamañuen, da gero bueltan, e, seras" - (Lehenengo eroaten zen hola, zera kamiseta modukoa, marinera eta haren goikoa baina gero, izurragaz, bueltan gerriaren forma goma sartu gerriaren tamainan, eta gero bueltan, zeragaz)

"Liekie, bai baye ori, erosi bixate san da dirue nun egon ba erosteko?" - (Lika, bai baina hori, erosi behar izaten zen eta dirua non egon ba erosteko?)

"Seoser ba ansueluek eruten gendusen, ansuelo txikidxe pe, baye orrek sien, e, neguen eruten gendusenak" - (Zer edo zer ba amuak eroaten genituen, amu txikiak ere, baina horiek ziren, neguan eroaten genituenak)

Juntagailu hau esaldi osoaren amaieran kokatuta ere erabiltzen da:

"Gu be pillo bat giñen da, dana liñuena bañe" - (Gu ere pilo bat ginen eta, dena lihoarena baina)

"Aspidxen burdiñesko ser bat, oingo moruko molleik es bañe" - (Azpian burdinazko zer bat, oraingo moduko moilarik ez baina)

"Astue beti euki u guk len bañe" - (Astoa beti eduki dugu guk lehen baina)

## **be:**

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Oneaittik erun giñeike jatekue be" -  
(Honegatik eroan genezake jatekoa ere)

"Oñ amen be bai one pe edertxuk eitte ittu,  
ederrak ein be gañera" - (Orain hemen  
ere bai honek ere edertxoak egiten ditu,  
ederrak egin ere gainera)

"Berdie da lora gorri batek urtete otza, poli  
politte da bera be politte da, suabe  
suabie" - (Berdea da lora gorri batek  
irteten dio, polit-polita da bera ere polita  
da, suabe-suabea)

"Botika pe esaten dabe botikie be asko  
soluetan da, ortue dauen lekuen da, bañe  
nik pentzetot, e, jatekoik esak iguel gedxa  
galduko bala" - (Botika ere esaten dute  
botika ere asko soroetan eta, ortua  
dagoen lekuan eta, baina nik pentsatzen  
dut, jatekorik ezak beharbada gehiago  
galduko zuela)

"Bueno begire jarri be eska eiñ orretako,  
txoridxei tte olan" - (Beno begira jarri  
ere ez gara egin horretarako, txoriei eta  
hola)

"Amen be beuen, aridxe ittekue be" -  
(Hemen ere bazegoen, haria egitekoa ere)

## be bai:

"Soidxe ta ba, soidxe ixaten san, e gero,  
goldiek etate bana be bai, soidxe" -  
(Zohia eta ba, zohia izaten zen, gero,  
goldeak ateratzen zuena ere bai, zohia)

"Oitura sarra da elorridxe, bentana  
gustietan, da serien, entradako atien be  
bai" - (Ohitura zaharra da elorria, leiho  
guztietan, eta zerean, sarrerako atean ere  
bai)

"Txirtxilluek esate akuen be bai, gure  
amamak eta txirtxilluek esate ben" -  
(Zirtziluak esaten zitzairen ere bai, gure  
amamak eta zirtziluak esaten zuten)

"Estot sekule olan ukusi, askonarrrik nik,  
baye ibili bai, e? ibili badabix, oin be  
bai" - (Ez dut sekula hola ikusi,  
azkonarrrik nik, baina ibili bai, e? ibili  
badabiltza, orain ere bai)

"Olluek ibilte sien an ganien, kanpuen be  
bai, bañe an ganien be bai, orduen ollo  
satzik eseuen gurien se eitte ben, e, satzen  
ganera, bedxen satzen ganera" - (Oiloak  
ibiltzen ziren han gainean, kanpoan ere

bai, baina han gainean ere bai, orduan  
oilo satsik ez zegoen gurean ze egiten  
zuten, satsaren gainera, behien satsaren  
gainera)

"Amen estot, e, askonarrrik estot nik, e, gure  
soluetan, e, estot sekule olan ukusi,  
askonarrrik nik, baye ibili bai, e? ibili  
badabix, oin be bai" - (Hemen ez dut,  
azkonarrrik ez dut nik, gure soroetan, ez  
dut sekula hola ikusi, azkonarrrik nik,  
baina ibili bai, e? ibili badabiltza, orain  
ere bai)

## be es:

"Da or juen da kastillanue maixue ta guk  
eskeuntzen, e, aittu be esebe eitten  
esateko, gausa batzuk, bañe gero  
denporias bakixu, sartu giñesan" - (Eta  
hor joan eta Gaztelakoa maisua eta guk  
ez genion, aditu ere ez zuten egiten  
esateko, gauza batzuk, baina gero  
denboragaz badakizu, sartu ginen)

"Erleye pestabe itten or abidxeik esaten da,  
esan gure dau ba jente txarra dauela ero"  
- (Elaiiek ere ez dute egiten hor habiarik  
esaten da, esan gura du ba jende txarra  
dagoela edo)

"Ermandadie pagau eitte osu bañe ba,  
pagau bes gausa andiik bañe kobrau bes"  
- (Ermandadan ordaindu egiten duzu  
baina ba, ordaindu ere ez gauza handirik  
baina kobratu ere ez)

"Es! aparte! sekule bes mutillekin, keba! gu  
nesken eskolan" - (Ez! bereiz! sekula ere  
ez mutilekin, bai zera, gu nesken eskolan)

"Gelie be etxatan gustetan, kuartue gustau,  
kuartue gustau te gelie esan biar" - (Gela  
ere ez zitzaidan gustatzen, kuartua  
gustatu, kuartua gustatu eta gela esan  
behar)

## baitte... be:

"Eta uste dot lena be eraitte sala baitte  
nabue eta beste jenero batzu pe sulora" -  
(Eta uste dut lehenago ere ereiten zela  
baita arbia eta beste gauza batzuk ere  
sulora)

# ZALDIBAR HIZTEGIA

## **esta... be:**

"Askotan esan eoten esta astiri pe erretiretako ba, erresaue san ba pillo batzuk eiñ, mutxur batzuk ein eta ba, mutxurrek" - (Askotan ez zen egoten ezta astirik ere erretiratzeko ba, errazagoa zen ba pilo batzuk egin, mutxur batzuk egin eta ba, mutxurrak)

## **bai... bai...:**

"Amenguek txikitxuauek die, bai ales eta bai lekas be" - (Hemengoak txikitxoagoak dira, bai alez eta bai lekaz ere)

"Oñ, e, askenengo urtietan esta erremolatxarik eta olan eraitten, e, sera, ganauei emoteko, bañe sasoi baten bai, bai gordiñik eta bai egositte, sera, emote akon" - (Orain, azkenengo urteetan ez da erremolatxarik eta holan ereiten, zera, ganaduari emateko, baina sasoi baten bai, bai gordinik eta bai egosita, zera, ematen zitzaion)

"Bai erropakuei tte bai egurrekuei sitze esate otzau" - (Bai arropakoari eta bai egurrekoari esaten diogu)

## **be bai... be bai...:**

"Urune apur bat gurien beti, talue itteko be bai, da artue eitteko be bai" - (Irina apur bat gurean beti, taloa egiteko ere bai, eta artoa egiteko ere bai)

## **barres:**

"Gero soloako obie da, bestelan, bestie erute osu segidxen, da euskidxezik sikatzen dau segiduen, arro eote san, soluen ganien botata arro arro da, euskidxezik sikatu, bestie barres pegau eitte akon lurrei, beste gausa bat da" - (Gero sororako hobea da, bestela, bestea eroaten duzu segidan, eta eguzkiak sikatzen du segituan, harro egoten zen, soroaren gainean botata harro-harro dago, eguzkiak sikatu, bestea barrez itsatsi egiten zitzaion lurrari, beste gauza bat da)

"Birrie amaitzen da barres an" - (Bidea amaitzen da berriz han)

"Guk gendukena, olan puntatik eldu te balansie, estakixu? txiki txiki bat, bañe fiñe pisue! beste batzuk barres eukesan, e, olan epiñi, olan mostradorien eukesan lekuen" - (Guk geneukana, hola puntatik heldu eta balantza, ez dakizu? txiki-txiki bat, baina fina pisua! beste batzuek berriz zeuzkaten, hola ipini, hola mostradorean zeuzkaten lekuan)

"Oin be bai igual an gordeta euko dabes lengo sarrak orrek eta, de koltxori barres oin selan estauen lanaskoik, bier bes" - (Orain ere bai beharbada han gordeta edukiko dituzte lehengo zaharrek horiek eta, eta koltxoiari berriz orain zelan ez dagoen artilezkorik, behar ere ez)

## **ero:**

"Ordun jakingo ben ba, maixuen bat euen ero, abariek ero, iñok estakidxen amen, danak euskeras eitte ben" - (Orduan jakingo zuten ba, maisuren bat zegoen edo, abadeak edo, inork ez zekien hemen, denek euskaraz egiten zuten)

"Ori geu, e, eskertidxe ixen ero eskumetidxe ixen igual" - (Hori geu, ezkertia izan edo eskumatia izan berdin)

"Ori neguen eitten san, e, sagar errie, ero ogidxe tostau, da, sartu, ardau berotu te asukerie be bai" - (Hori neguan egiten zen, sagar errea, edo ogia txigortu, eta, sartu, ardaua berotu eta azukrea ere bai)

Esaldi osoaren amaieran ere ager daiteke:

"Ori solittuendako bai, oridxotan bigundu, da olan, e, saldarrak ero" - (Hori zolituentzat bai, oliotan bigundu, eta hola, zaldarrak edo)

## **ero ... ero:**

"Gero bai, gero beratu te emon, e, salmuerie eo esate akona, piper autzas ero seras, ero piper, txoriseruen, e, seras da, binagrie ero estait ser eitte akon, eitte ben ser masa bat, d'axeas egosi, da gero, eskei, ta sayeskidxe pe iños bai" - (Gero bai, gero beratu eta eman, salmuera edo esaten zitzaiona, piper hautsagaz edo zaragaz, edo piper, txorizeroaren, zeragaz eta, ozpina edo ez dakit zer

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*egiten zitzaion, egiten zuten zer ore bat, eta harexegaz egosi, eta gero, eskegi, eta saiheskiak ere inoiz bai)*

*"Arek erabagitteben ero, tratante bati eskiñi, ero ermandarara emon ero" - (Haiek erabakitzen zuten edo, tratulari bati eskaini, edo ermandadara eman edo)*

*"Ausnar espada, a geldi esta sekule be, ausnar espada ba, miñas miskauko dau ero au bei au ero ormie, ero" - (Hausnar ez badago, hura geldi ez dago sekula ere, hausnar ez badago ba, mihiagaz miazkatuko du edo behi hau edo horma, edo)*

*"Bueno, e, ganaue setarako dan, busterrireko ixen ero esnerako ixen ero, ero okelatzeko ixen ero, ba or be aldie dau" - (Beno, ganadua zertarako den, buztarrirako izan edo esnerako izan edo, edo, okelatzeko izan edo, ba hor aldea dago)*

## **ala:**

*"Iñusentadie eraittie, al dosuen danai, bai, oin be esta ala ori? oin be, len gedxa iguel ongo san oin baño" - (Inuzentada eragitea, ahal duzuen denei, bai, orain ere ez da ala hori? orain ere, lehen gehiago beharbada egongo zen orain baino)*

*"Or landak emote otzesan, e, pastoriei, da pastoriek etorte sien, eukitte besan ba, nik estai nos etorte sien udegonien ala estakit nos bañe" - (Hor landak ematen zizkieten, artzainei, eta artzainak etortzen ziren, edukitzen zituzten ba, nik ez dakit noiz etortzen ziren udagoienez ala ez dakit noiz baina)*

*"Orduen, e, amentxe euen, nos egon san, e, untxe dala urte bi ala iges, urte bi, esta?" - (Orduan, hementxe zegoen, noiz egon zen, oraintxe dela urte bi ala iaz, urte bi, ezta?)*

*"Sei ala estakitt amar sien ba ipiñi tte, bota kanikie gora ta buelta, lepo ta suloka" - (Sei ala ez dakit hamar ziren ba ipini eta, bota kanika gora eta buelta, lepo eta zuloka)*

## **es... es...:**

*"Amen be bai, amen be bai beste batzuk eukitten dabe olan, amen, amen atzien moruen, amentxe koroitxue, da aori esin ixaten da susendu es batera ta es bestera" - (Hemen ere bai, hemen ere bai beste batzuek edukitzen dute hola, hemen, hemen atzean moduan, hementxe koroatxoa, eta haori ezin izaten da zuzendu ez batera eta ez bestera)*

## **alan da gusti be**

*"Alan da gusti be, nik txikitten eta ikusitte eta ba! bueno! sarritten ixaten san ba, al dan moruen or gaur ona badak eta bixar estakit ser ero iferrak jotzen badau uda partien iferrak jotzen dabenien denpora segurutxuau eoten da, esta?" - (Hala eta guztiz ere, nik txikitan ikusita eta ba! beno! sarritan izaten zen ba, ahal den moduan hor gaur ona bazagok eta bihar ez dakit zer edo iparrak jotzen badu uda aldean iparrak jotzen duenean eguraldi ziurtxoagoa egoten da, ezta?)*

*"Beste asko ba ero beres asikuek ero, bere sasoi maten sera urre ixenikuek eta sainyu eta gero abandonaute geatu dienak da alan da gusti be emoten dabenak, sera, frutue" - (Beste asko ba edo berez hazikoak edo, bere sasoiaren baten zera hurra izanikoak eta zaindu eta gero bertan behera utzita geratu direnak eta hala eta guzti ere ematen dutenak, zera, fruitua)*

*"Inguruen etxe bat euen, kaleko etxie san, bañe alan da gusti be baeukesan iguel ganau bi ero iru" - (Inguruan etxe bat zegoen, kaleko etxea zen, baina hala eta guztiz ere bazeuzkaten beharbada ganadu bi edo hiru)*

*"Arek danak kendu geuntzesan da, masias artu, txikidxuaek, bañe alan da gusti be, beste tellak baño aundidxauek" - (Haiek denak kendu genizkion eta, masagaz hartu, txikitxoagoak, baina hala eta guzti ere, beste teilak baino handiagoak)*

## **eta:**

# ZALDIBAR HIZTEGIA

## 1. kopulatiboa:

"An ote san olako abarketero bat, da ari eroste notzan beti" - (Han egoten zen holako abarketeru bat, eta hari erosten nion beti)

"Itxiotzan bisikletie berai, ta bera etorri san bisikletan" - (Utzi zion bizikleta berari, eta bera etorri zen bizikletan)

"Ona etorri die ta emen geatu die" - (Hona etorri dira eta hemen geratu dira)

"Orduen, e, sera, sardie esate geuntzen, e, sera sartu, da kargau burdidxe" - (Orduan, zera, sarda esaten genion, zera sartu, eta kargatu gurdia)

"Amen erderie sartu da bai asko, d'orrek galdu ein yie danok" - (Hemen erdara sartu da bai asko, eta horiek galdu egin dira denok)

## 2. kausala:

"Eruixu guardasola euridxe itteko itxurie deko ta" - (Eroan ezazu goardasola euria egiteko itxura dauka eta)

"Banoie berandu da ta" - (Banoa berandu da eta)

"Onei etxake kantau olakoik eta" - (Hauei ez zaie kantatu holakorik eta)

"Ortxe bertan das eskolak oin be, lenguen segidan einye da ta" - (Hortxe bertan dagoz eskolak orain ere, lehengoan segidan eginda dago eta)

"Baso beirik eskenduen euki sekule, kortan euki gendusen beti, da kortakuek esin yau jan, esin yau arrapau, lotute da ta" - (Baso behirik ez genuen eduki sekula, kortan eduki genituen beti, eta kortakoak ezin du jan, ezin du harrapatu, lotuta dago eta)

## nai:

"Aldie aundidxe, e, ba, estie ondo ibiltten, ikasi artien beintzet, batzuk balio dabe bateako nai besteako, or be ba, fubolistak esker eskumak batzuk deke ta beste batzuk eskertidxe die, ba ganauek igual igual deko ori" - (Aldea handia, ba, ez dira ondo ibiltzen, ikasi artean behintzat, batzuek balio dute baterako nahi besterako, hor ere ba, futbolariak ezker

eskumak batzuek daukate eta beste batzuk ezkertiak dira, ba ganaduak berdin-berdin dauka hori)

"Baitte bedarra ebaten nai, e, garidxek erretiretan, joten be bai, gari joten be, gari joten, e, onen aittitte, onen neskionen aittitte gurera etorte san, gu orrenera jute giñen" - (Baita belarra ebakitzen nahi, gariak kentzen, jotzen ere bai, gari jotzen ere, gari jotzen, honen aitaita, neska honen aitaita gurera etortzen zen, gu horienara joaten ginen)

## seiñ... seiñ...:

"Sein asto gañien saltoka, seiñ ,e, ba saman, sein burtaunen puntan, ankorkillo" - (Zein asto gainean saltoka, zein, ba saman, sein burteunaren puntan, hankorkilo)

"Kanpora sein barrure, batzuk ba, barrurutz, beste batzuk kanporutz, esibako ganaue" - (Kanpora zein barrura, batzuk ba, barruruntz beste batzuk kanporuntz, hezibako ganadua)

## ostien:

"Da garidxe ba diferente ereitten da ala? artue da ereitten dana, sulora, sulora batzuk eta ostien irran be bai" - (Eta garia ba desberdin ereiten da ala? artoa eta ereiten dena, zulora, zulora batzuek eta ostein irran ere bai)

"Gedxena gari eraitteko ladxetan, ostien, labrau eitte sien, artue, nabue" - (Gehiena gari ereiteko laietan, ostein, landu egiten ziren, artoa, arbia)

## ostera

"Amen oitturie, egosteko oitturaik esta, gurien beintzet, da ostera aldemenetan beti" - (Hemen ohitura, egosteko ohiturarik ez dago, gurean behintzat, eta ostera aldamenetan beti)

"Busterri bakarras be bai, bakarras, arto bittartie jorrazteko, bañe gero ostera parejientzako burdiñarie" - (Buztarri bakarragaz ere bai, bakarragaz, arto

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*bitartea jorrazeko, baina gero osteraren parearentzat burdinarean)*

"Onen etxien osteraren uras" - (Honen etxean osteraren uragaz)

"Aurten, e, osteraren, ba kristoren eskabiriek euki ttuk eta etxuek euki aurtengo, arbolaik" - (Aurten, osteraren, ba kristoren eskabideak eduki dituk eta ez dituk eduki aurtengo, arbolarik)

## ostantzien:

"Dana jan biosu ostantzien txikixe geldituko sa" - (Dena jan behar duzu osterantzian txikia geldituko zara)

"Bai tte ori paskuaskue itte banai txantela emote otzen, ta ostantzien txantelik eseban eukitten" - (Bai eta bazkoagazkoa egiten zuenari txantela ematen zioten, eta osterantzian txantelik ez zuen edukitzen)

"Astien iru lau bat bider busti ein biar ostantzien es loraik eta es inguruik, au da, neguen be epela da, e?" - (Astean hiru lau bat bider busti egin behar osterantzian ez lorerik eta ez ingururik, hau da, neguan ere epela da, e?)

"Logure danien da ostantzien gogo eskastxuaue ero dauenien da be bai" - (Logura denean eta osterantzian gogo eskastxoagoa edo dagoenean eta ere bai)

"Ori, segurue, seguruek, orrek, e, ba, pagaten badau baukosu ta ostantzien es, e, ostantzien etxe erre batzen ibiltten da amen" - (Hori, segurua, seguruak, horiek, ba, ordaintzen badu badaukazu eta osterantzian ez, osterantzian etxe erre batzen ibiltzen da hemen)

## bañe ostantzien:

"Gure jaunak etorte sanien, monagilluak be bai, bañe ostantzien, e, seraas, bañe gure jaunak etorte sanien monagilluak" - (Gure jaunagaz etortzen zenean, meza-mutilagaz ere bai, baina osterantzian, zeragaz, baina gure jaunagaz etortzen zenean meza-mutilagaz)

"Ni neuk ikusi ttuasenetan, bueno erropak eta bai, bajillie ta, orre pai bañe ostantzien, e, oiñ, baserridxetan bakixu selan, e, goruekin ye juete sien" - (Nik

*neuk ikusi ditudanetan, beno, arropak eta bai, ontziteria eta, horiek bai baina osterantzian, orain, baserrietan badakizu zelan, goruekin eta joaten ziren)*

"Ori bai, bañe ostantzien gaixuekana be bai, monagillue txiliñe jotzen, juete sien ba, abadie seras sertute" - (Hori bai, baina osterantzian gaixoengana ere bai, meza-laguna txilina jotzen, joaten ziren ba, abadea zeragaz zertuta)

## ero ostantzien:

"Etxien eongo da ero ostantzien tabernan" - (Etxean egongo da edo osterantzian tabernan)

"Botate otzesu oixe kipulie ta, berak botaten daben ure sikatzen doyenien, tomatie bota, da, gero ardauridixe ero koñaka ero bota da, gero, e, piper sikue be bai tte, saldie euki, ero saldie okeliene ero ostantzien berakatzas ta saldie einye ipiñitte, bota ta antxe, da, txorisue ta pernille be sartenien buelta bat emon" - (Botatzen diozu kipula horixe eta, berak botatzen duen ura sikatzen doanean, tomate bota, eta, gero ardauridixe edo koinaka edo bota eta, gero, piper sikua ere bai eta, salda eduki, edo salda okelarena edo osterantzian berakatzagaz eta salda eginda ipinita, bota eta hantxe, eta, txorizoa eta pernila ere zartaginean buelta bat eman)

## bestela/bestelan

"Orrek gausok esiñ ein len, esiñ eiñ, bestelan gogoaitti bai, bañe esiñ eiñ" - (Gauza horiek ezin egin lehen, ezin egin, bestela gogoaitti bai, baina ezin egin)

"Bai aginkadie bañe ogigastaye, suk, e, olantxeik, e, nonbaiten bedarrartien egon da eskuekiñ ebatu ero eitten espatzesu, e, bestelan nun sertu bi osu se arek martxau eitten dau" - (Bai haginkada baina ogigastaya, zuk, holantxerik, nonbait belarrartean egon eta eskuekin oratu edo egiten ez badiozu, bestela non zertu behar dizu ze hark ihes egiten du)

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Gero soloako obie da, bestelan, bestie erute osu segidxen, da euskidzek sikatzen dau segiduen, arro eote san, soluen ganien botata arro arro da, euskidzek sikatu, bestie barres pegau eitte akon lurrei, beste gausa bat da" - (Gero sororako hobea da, bestela, bestea eroaten duzu segidan, eta eguzkiak sikatzen du segituan, harro egoten zen, soroaren gainean botata harro-harro dago, eguzkiak sikatu, bestea barrez itsatsi egiten zitzaion lurrari, beste gauza bat da)

"Kortie danendako, bai, oin bere lekue, baten lekue, estakitt, baten lekue, etxat akordauko, bestelan, e, danendako, lokal bat, ba kortie" - (Korta denendako, bai, orain bere lekua, baten lekua, ez dakit, baten lekua, ez zait gomutatuko, bestela, denendako, lokal bat, ba korta)

"Arratoye bai, arratoyek, e, ba paño gedxa klasiak, neuk esautu ittut, len gañera ganbaran esa otzutena, etxe arratoyek esate akuen illunauek sien arek, baltzauek, bestelan arratoye gorridxaue ixaten da" - (Arratoia bai, arratoiak, bat baino gehiago motak, neuk ezagutu ditut, lehen gainera ganbaran esan dizudana, etxe arratoiak esaten zitzaaien ilunagoak ziren haiek, beltzagoak)

## ainbeste .... ese

"Ainbeste jente batu san ese, orduntxe berotu sien, San Martiñen probalekue itteko, da orrexek, Salduko Plasan ein san probiek ekarri eban San Martingo, karrejue ittie" - (Hainbeste jende batu zen eze, orduntxe berotu ziren, San Martinen probalekua egiteko, eta horrexek, Salduko Plazan egin zen probak ekarri zuen San Martingo, karrajua gitea)

## se:

"Bueno ollo satza, e, oiñ, se gurien ollo satza ba, etzan egon sekule, bañe ori leku batzutan eongo san, ollo satza, e, ona da" - (Beno oilo satsa, orain, ze gurean oilo satsa ba, ez zen egon sekula, baina hori

leku batzuetan egongo zen, oilo satsa, ona da)

"Da a bai peligosue dala, anakak eta jakiñ ein bi da piskat, se bajatzen danien bera, ba dou! joten dau beye, da suk anakak, e" - (Eta hura bai arriskutsua dela, hankak eta jakin egin behar da pixka bat, ze baxatzen denean behera, ba dou! jotzen du behea, eta zuk hankak, e)

"Garidxe, orduen be itten genduen orduentxe atzenengo urtiek ixengo sien, se aittek kalien eitte ban bierra ta morroi bat eukitte genduen da" - (Garia, orduan ere egiten genuen orduntxe atzenengo urteak izango ziren, ze aitak kalean egiten zuen beharra eta morroi bat edukitzen genuen eta)

"Bañe albatie san, e, gu bixi giñena, se gu, frentien eskiñen bixi, baserridzek frentien deko, e, etartie, eta an bixi sien bi, da, gu bixi giñen, e, albatien" - (Baina albatea zen, gu bizi ginena, ze gu, aurrean ez ginen bizi, baserriak aurrean dauka, etartea, eta han bizi ziren bi, eta, gu bizi ginen, albatean)

"Amairu es genduesen ipiñiko se amairu beti ixen da amen numero txarra" - (Hamahiru ez genituen ipiniko ze hamahiru beti izan da hemen zenbaki txarra)

Esaldi osoaren amaieran ere ager daiteke, edo beronen aldakia den "ese":

"A bai ainbeste gausa, esatakes umiei se" - (A bai hainbeste gauza, esaten zaizkie umiei ze)

"Sakona, sakona, esta? bai, baltza, illun illunek, ba ari estotze, estakitt selan esate otzen ari, ainbeste katxarro euesan ordun ese" - (Sakona, sakona, ezta? bai, beltza, ilun-ilunak, ba hari esaten diote, ez dakit zelan esaten dioten hari, hainbeste katxarro zeuden orduan eze)

## se ostantzien:

"Amen ipiñi bi ot se ostantzien esta lekuik" - (Hemen ipini behar dut ze osterantzean ez dago lekurik)

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Bañe atzien, e? se ostantzien, e, eraiñ ye, atze atzien, pli-pli, pli-pli, te ya sendotzen sendotzen, sendotzen juten da" - (Baina atzean, e? ze osterantzean, erein eta, atze-atzean, pli-pli, pli-pli, eta ja sendotzen sendotzen, sendotzen joaten da)

## se bestela:

"Ori apartau eitte akon se bestelan garidxe paño inyar andidxaue artze ban" - (Ori apartatu egiten zitzaion ze bestela gariak baino indar handiagoa hartzen zuen)

## se... eta:

"Ganausaiñ ibili biar ixaten senduen, da ganaue sainyaute ure eran eraiotzasue? se etxien be eseuen ordun urik eta" - (Ganaduzain ibili behar izaten zenuen, eta ganadua zainduta ura edan eragin diozue? ze etxean ere ez zegoen orduan urik eta)

"Artik arri bat or, se or, e, sekuleko aldarra dak eta" - (Har ezak harri bat, ze hor, sekulako aldarra zagok eta)

"Es, da gañea kotxien be etxoat ekarri se neuk etxoat ekarri neure kotxie ta" - (Ez, eta gainera autoan ere ez diat ekarri ze neuk ez diat ekarri neure autoa eta)

## segaittik ese:

"Neguko San Andres egunien, kanpora eskondute dauesen seme alabak, etorte sien ba mesie etaratzera, segaittik ese eurek euesen lekuen ba, domu santu egunien da ba, an eukitte ben euren erridxen da arek danak etorten die" - (Neguko San Andres egunean, kanpora ezkondata dauden seme-alabak, etortzen ziren ba meza ateratzera, zergatik eze eurak zeuden lekuan ba, domu santu egunean eta ba, han edukitzen zuten euren herrian eta haiek denak etortzen dira)

"Da seaittik ese asko kosteta dana da ba, itxi ebesan bertan" - (Eta zergatik eze asko kostatzen dena da ba, utzi zituzten bertan)

"Geuk pasau au serik aundiñe, seaittik ese bakixu ser san a?" - (Geuk pasatu hau zerik handiena, zergatik eze badakizu zer zen hura?)

## 30. MENPERAGAILUAK

Atal honetan erabiltzen diren menperagailuak batzen ditugu. Menpeko esaldi guztiak, -LA, -N eta BA-menperagailuetan oinarritzen direnez gero, menperagailu hauen arabera, sailkatu eta bakoitzaren erabileraren esaldi ereduak emango ditugu.

### 30.1. -ELA

#### konpletiboa:

"Pentzete xuet etorri dala" - (Pentsatzen diat etorri dela)

"Estotzut esan txarto dauela" - (Ez dizut esan txarto dagoela)

"Akordau nas erosi osule" - (Gomutatu naiz erosi duzula)

"Esan dabe bixar datosela" - (Esan dute bihar datozela)

"Atzo esa eban gaur ekarriko ebal" - (Atzo esan zuen gaur ekarriko zuela)

"Estotzut esan erosi otela?" - (Ez dizut esan erosi dudala?)

"Amen eongo die pikuek iguel bosteun urte deukesenak or, oiñ, e, podau te itten die ta barristau bañe, gure amamak esate ban bera etorri sanien be olan euesela" - (Hemen egongo dira pikoak beharbada bostehun urte dauzkatenak hor, orain, inausi eta egiten dira eta berritu baina, gure amamak esaten zuen bera etorri zenean ere hola zeudela)

"Amesetan eitten dan gausie pasau eitten dala esaten dabe ta estaki pa nik" - (Amesetan egiten den gauza pasatu egiten dela esaten dute eta ez dakit ba nik)

#### se... -ela:

"Ene! esa leike se orri begiskue bota otzela, danak txarto urteta otza ta, entzun bai" -



# ZALDIBAR HIZTEGIA

*(Ene! esan liteke ze horri begizkoa bota diotela, denak txarto irteten dio eta, entzun bai)*

## **subjuntiboagaz batera:**

*"Etorri daittela" - (Etor dadila)*

*"Estaittela juen" - (Ez dadila joan)*

*"Gustetata amen olgetan ein daixela" - (Gustatzen zait hemen olgatzen egin dezatela)*

*"Jainkuek bereinketu daidxela, ori beti, ume bat ikusten basu ba, barridxe, jainkuek bereinketu daidxela!" - (Jaungoikoak bedeinka dezala, hori beti, ume bat ikusten baduzu ba, berria, jaungoikoak bedeinka dezala!)*

*"Da ba, botate osu esnetara ta irakiñ estaidxela gogor eiñ" - (Eta ba, botatzen duzu esnetara eta irakin ez dezala gogor egin)*

## **gerundiala:**

*"Afaltzen gauesela argidxe juen da" - (Afaltzen gaudela argia joan da)*

*"Nik baten ortxe bedarra ebaten nabillela tunelen onduen, segias, e, arrapau neban, da ill" - (Nik baten hortxe belarra ebakitzen nabillela tunelaren ondoan, segagaz, harrapatu nuen, eta hil)*

*"Umiek kantau eraitten dau, gure estosule, bai, orreaittik diñot nik umiek asko gastetzen dau personie" - (Umeak kantatu eragiten du, gura ez duzula, bai, horregatik dinot nik umeak asko gastetzen du pertsona)*

*"Da etxaonduen amen, e, pasa dan urtien be bai, bi ero seu pe bai bat, e, senaoridxak etaraten sabixela ortuen be bai, b'orrek subok, e, estabe seik eitten" - (Eta etxe ondoan hemen, pasatu den urtean ere bai, bi edo zeuk ere bai bat, azenarioak ateratzen zabilzala ortuan ere bai, ba horiek sugeok, ez dute zerik egiten)*

*"Bera siku siku dauela, ur gitxias egositte gero oridxo asie, orduen estai pa oridxo asie esate akon" - (Bera siku-siku dagoela, ur gutxigaz egosita gero olio aza, orduan ez dakit ba olio aza esaten zitzaion)*

## **-lako:**

*"Esta etorri berandu dalako" - (Ez da etorri berandu delako)*

*"Damutute na estotelako dana jan" - (Damututa nago ez dudalako dena jan)*

*"Eskerrak etorri dalako" - (Eskerrak etorri delako)*

*"Jausi da biskor ibili dalako" - (Jausi da biskor ibili delako)*

*"Berandu nator treña galdu dotelako" - (Berandu nator treña galdu dudalako)*

*"Abariñon ixaten da ori jadxe, san blas besperie dalako" - (Abadiñon izaten da jai hori, san blas bezpera delako)*

## **-lakuen:**

*"Ta beiñ etara eban, eskallumat ero salakuen, olako suba bat, erreka suba bat eskuen" - (Eta behin atera zuen, ezkailuren bat edo zelakoan, holako suge bat, erreka suge bat eskuan)*

*"Seoser eingo belakuen, jun die" - (Zer edo zer egingo zutelakoan, joan dira)*

## **-la ta:**

*"Umetan, bai, txarto dauela ta ill ero bixi in yaitten mesie, da kandela mordo bat ipiñi an, e, aurrien, altarien onduen" - (Umetan, bai, txarto dagoela eta hil edo bizi egin dadin meza, eta kandela mordo bat ipini han, aurrean, aldarearen ondoan)*

*"Arixena, e, sala, trumo ostien ekarri ebela ta ba, ba estakidxela, orduen lupue ta esate ben, trumo ostien, e, subie be, trumoyas, e, asko ibiltten da, e? trumo denporie dauenien" - (Harexena, zela, trumoi ostean ekarri zutela eta ba, ba ez dakitela, orduan lupua eta esaten zuten, trumoi ostean, sugea ere, trumoiagaz, asko ibiltzen da, e? trumoi sasoi dagoenean)*

*"Bai bañe billurtu eitte san jentie bauen, ta sinistu orrek, katiak anketan lotute, katiakiñ etorte siela ta" - (Bai baina bildurtu egiten zen jendea bazegoen, eta sinistu horiek, kateak hanketan lotuta, kateekin etortzen zirela eta)*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

"Da ikusi be asko gedxa, e? aurretik ikusi bela ta bestie ta eikeran da ba, gero txittie falta sala, ta anditxuek einye be bai txittak, e? es txikidxe bakarrik" - (Eta ikusi ere asko gehiago, e? aurretik ikusi zutela eta bestea eta egikeran eta ba, gero txita falta zela, eta handitxoak eginda ere bai txitak, e? ez txikiak bakarrik)

"Karlistadetako gausak eta orduko, da, guardasebillek etorritte bost aistak, da ama, eskuek lotu atzera ta, eskopetias aurrien da, aber aitte nun euen da, ill ein bi sittuela ta, guk, e, euki genduen estuasune ta, guk es genkiñan nun san da, gu ixilik, es genkiñan, e, klaro esan be esotzen eingo aitte badaspadan da, guardasebillek etorritte, ormien kontra etxe ostien ipiñitte, guk pasau genduen estuasune ta, semat olako kontu! esate ban arek" - (Karlistadetako gauzak eta orduko, eta, goardazibilak etorrita bost ahiztak, eta ama, eskuak lotu atzera eta, eskopetagaz aurrian eta, ea aita non zegoen eta, hil egin behar zituztela eta, guk, eduki genuen estutasuna eta, guk ez genekinan non zen eta, gu isilik, ez genekinan, jakina esan ere ez zieten egingo aita badaezpadan eta, goadazibilak etorrita, hormaren kontra etxe ostean ipinita, guk pasatu genuen estutasuna eta, zenbat holako kontu! esaten zuen hark)

## -la be

"Gure estabela be iñ ein yau" - (Gura ez duela ere egin egin du)

"Ori da muittie esaten geuntzan, muittie bedarra, ene! astute euki ot, erresaidxo moruen, txarra ori! ene ori be orre pe batu eitte sien, atxurran sabisala be urteten beben, orrek batu itte sien" - (Hori da arrosario belarra esaten genion, arrosario belarra, ene! ahaztuta eduki dut, arrosario moduan, txarra hori! ene hori ere horiek ere batu egiten ziren, aitzurran zabilzala ere irteten bazuten, horiek batu egiten ziren)

## 30.2. -EN

### erlatibozkoa:

"Orre datos gu goixien egon gayen lekutik" - (Horiek datoz gu goizean egon garen lekutik)

"Ogidxe ekarri dabena gaixoik dak" - (Ogia ekarri duena gaixorik zagok)

"Giltze dekona esta etorri" - (Giltza daukana ez da etorri)

"Jarri sayen sillie apurtute da" - (Jarri zaren aulkia apurtuta dago)

"Berba ein yosun gixona esta amen" - (Berba egin duzun gizona ez dago hemen)

"A esaten san sala kardetako, ol baten ipintte olan gora begire, sorros zorrotzak puntak eukesena" - (Hura esaten zen zela kardatzeko, ohol baten ipinita hola gora begira, zorrotz-zorrotzak puntak zeuzkana)

### subjuntiboagaz batera:

"Artik ori umioi jausi estaitten" - (Har ezak ume hori jausi ez dadin)

"Orrek gure dabe amen egon gaittesan" - (Horiek gura dute hemen egon gaitezen)

"Atie itxi ot otzittu estaittesan" - (Atea itxi dut hoztu ez daitezen)

"Da a sartze akon, gerriken sinttan, da gero lotu, bueltaka ta bueltaka, umie ondo batu, batu, batu tente jun daitten, kotxeik eseuen da" - (Eta hura sartzen zitzaion, gerrikoaren zintan, eta gero lotu, bueltaka eta bueltaka, umea ondo batu, batu, batu tente joan dadin, kotxerik ez zegoen eta)

"Bai urten estaidxen, e, ipintte akon bai, laakuek urten estaidxen" - (Bai irten ez dezan, ipintzen zitzaion bai, larakoak irten ez dezan)

### zehir galdera:

"Estakitt etorri dan" - (Ez dakit etorri den)

"San Martin badakixu sein yan Saldibarren" - (San Martin badakizu zein den Zaldibarren)

"Aixiek botata ero estai pa ser eiñe ongo san, eseuken iñun be golpe ba pe" -

# ZALDIBAR HIZTEGIA

(Haizeak botata edo ez dakit ba zer egina egongo zen, ez zeukan inon ere kolpe bat ere)

"Klaseik estaitt ibil leiken amen, e, bertan" - (Motarik ez dakit ibil litekeen hemen, bertan)

"Pentzaixu semat urte dien" - (Pentsa ezazu zenbat urte diren)

## **-na:**

"Esta egidxe etorri dana" - (Ez da egia etorri dena)

"Enas konturetu amen dauena" - (Ez naiz konturatu hemen dagoena)

"Estostasu igerri amengue nasena?" - (Ez didazu igarri hemengoa naizena?)

"Selan benas akordetan, bañe badakitt dekona ixen bat" - (Zelan ere ez naiz gomutatzen, baina badakit daukana izen bat)

"Baeuen, e? akordeta nas euena karrajue, e?" - (Bazegoen, e? gomutatzen naiz zegoena karrajua, e?)

Esklamazioetan ere erabiltzen da:

"Klaro diena!" - (Jakina direna!)

"Oixe dana politte!" - (Horixe dena polita!)

"Eskerrak ekarri dabena!" - (Eskerrak ekarri duten)

## **-nien:**

"Ardidxek gora igoten dabenien illuntzidxen denpora ona" - (Ardiek gora igotzen dutenean iluntzean eguraldi ona)

"Etxetik urte otenien txakurrek ainke i otza" - (Etxetik irten dudanean txakurrak haginka egin dio)

"Etorri nasenien ikusi saittut" - (Etorri naizenean ikusi zaitut)

"Urtetosunien atie itxi" - (Irteten duzunean atea itxi)

"Akabetosunien etxera juengo ga" - (Amaitzen duzunean etxera joango gara)

"Ixena apuntetan da, da gero a emote ako etxeko jabiai, ya iru urrena amaitzen dabenien" - (Izena apuntatzen da, eta

gero hura ematen zaio etxeko jabeari, ja hiru hurrena amaitzen dutenean)

"Eldu barik, ondo eldu barik jaten danien, erre itte otzu" - (Heldu barik, ondo heldu barik jaten denean, erre egiten dizu)

"Abarkistena, aras suluek ein ye pasau, gero ugela ganien, buelta gustien, da gero neurridxen ipiñi" - (Abarka-eztana, haregaz zuloak egin eta pasatu, gero uhala gainean, buelta guztian, eta gero neurrian ipini)

"Agin txikidxek jaurtzen dienien, urtetotze palak, askenenguek, eta ya orduen bardintzen da" - (Hagin txikiak jaurtitzen direnean, irteten diote palek, azkenengoak, eta orduan berdintzen da)

## **-nik:**

"Orrek etxok esan etorriko danik" - (Horrek ez dik esan etorriko denik)

"Estot uste ekarri dabenik" - (Ez dut uste ekarri dutenik)

"Estabe esan eingo dabenik" - (Ez dute esan egingo dutenik)

"Estot entzun gaixoik dauenik" - (Ez dut entzun gaixorik dagoenik)

"Estotzat igerri amengue danik" - (Ez diot igarri hemengoa denik)

"Ba lenengos entzutot ointxe, sapaburutik urgerixuek urteten dabenik" - (Ba lehenengoz entzun dut oraintxe, zapaburutik urgerixoak irteten duenik)

## **-netik:**

"Etorri sanetik estot ikusi" - (Etorri zenetik ez dut ikusi)

"Ori ekarri ebanetik esta etorri" - (Hori ekarri zuenetik ez da etorri)

"Oin be mesie amaitzen danetik gabeko amarrak arte egoten da elixie sabalik" - (Orain ere meza amaitzen denetik gaueko hamarrak arte egoten da eliza zabalik)

## **-netik gehiago:**

"Domusantutan bai, domusantu egunien kanpaye jote san atzaldien, funsiñue itte sanetik gedxa, gaberartien kanpaik jote

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*sien" - (Domu-santutan bai, domu-santu egunean kanpaia jotzen zen arratsaldean, funtzioa egiten zenetik gehiago, gauera arte kanpaiak jotzen ziren)*

## **-nerako:**

*"Datosenerako bierrien gas" - (Datozenerako beharrean gagoz)*

*"Gu jun giñenerako juenda euesan" - (Gu joan ginenerako joanda zeuden)*

*"Akabetosunerako etorriko da" - (Amaitzen duzunerako etorriko da)*

*"Datorrenerako akabaute egongo da" - (Datorrenerako amaituta egongo da)*

## **-n moruen:**

*"Bierra ein yot seuk ei osun moruen" - (Beharra egin dut zeuk egin duzun moduan)*

*"Orrek berba itten dau dakixen moruen" - (Horrek berba egiten du dakien moduan)*

*"Gastetan dau aberatza dan moruen" - (Gastatzen du aberatsa den moduan)*

*"Ein yot suk esan dosun moruen" - (Egin dut zuk esan duzun moduan)*

*"Artzen daben moruen jan eitten dau" - (Hartzen duten moduan jan egiten du)*

*"A bañe, ontxe, desfrutetan daben moruen desfrutetan gendun orrekin gausokin" - (A baina, oraintxe, disfrutatzen duten moduan disfrutatzen genuen gauza horiekin)*

## **-n morukue:**

*"Arkondara bat ekarri ot aitte tekon morukue" - (Alkondara bat ekarri dut aitak daukan modukoa)*

*"Ekarri ot gasta bat seuk ikusi osun morukue" - (Ekarri dut gazta bat zeuk ikusi duzun modukoa)*

*"Neri akordau eraitte ostan guk eskolara erute gendun moruko poltzie" - (Niri gomutatu eragiten zidan guk eskolara eroaten genuen poltsa)*

## **-n neurridxen:**

*"Eitten daben neurridxen saldu eitte ittu" - (Egiten duten neurrian saldu egiten ditu)*

*"Irabasten daben neurridxen gastetan dabe" - (Irabazten duten neurrian gastatzen dute)*

## **-n gañuen:**

*"Gero aren gañien ipintte san beste suri bat, dotoretuxe, bakoitxak al eban gañuen" - (Gero haren gainean ipintzen zen beste zuri bat, dotoretxoa, bakoitzak ahal zuen ginoan)*

## **-n bittartien:**

*"Amen gausen bittartien juen eingo ga ikustera" - (Hemen gauden bitartean joan egingo gara ikustera)*

*"Ori itte osun bittartien baskaixe preparaukot" - (Hori egiten duzun bitartean bazkaria prestatuko dut)*

*"Suek akabetosuen bittartien etxera jungo ga" - (Zuek amaitzen duzuen bitartean etxera joango gara)*

*"Al daben bittartien ein eingo dau arek" - (Ahal duen bitartean egin egingo du hark)*

## **-n artien:**

*"Da gero ba, a topetan dabillen artien, ba, aiñeketan atza, ormiari ikutu" - (Eta gero ba, hura topatzen dabilen artean, ba, arineketan atzera, hormari ikutu)*

## **-n guztien:**

*"Datorren gustien seoser ekarten dau" - (Datorren guztian zer edo zer ekartzen du)*

*"Amen bati pasau ei dxakon, e, gixon bati, kasorie bere denpora gustien, ixenikuei, beti, e, ollogorra, egunero ekarten ei dxeban jute san gustien ollogorra" - (Hemen bati pasatu ei zitzaion, gizon bati, ehiztaria bere denbora guztian, izanikoari, beti, oilagorra, egunero, ekartzen ei zuen joaten zen guztian oilagorra)*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

## **-n bakotxien:**

"Etorten dien bakotxien afaitten geatzen die" - (Etortzen diren bakoitzean afaltzen geratzen dira)

## **-nes:**

"Esan dabenes gero etorriko die" - (Esan dutenez gero etorriko dira)

"Farduek, al danik eta sikuen, esaten dabenes, ni neuk neure etxien estittut eñ, nik dekaten apurrek oso txikixek die ta, gañera es ain leku ona makiñak eta sartzeko eta farduek eitteko" - (Fardoak, ahal denik eta sikuen, esaten dutenez, nik neuk neure etxean ez ditut egin, nik dauzkadan apurrak oso txikiak dira eta, gainera ez hain leku ona makinak eta sartzeko eta fardoak egiteko)

"Leku batzutan amama pe bai esate benes bañe, nik gure etxien beintzet ama san" - (Leku batzuetan amamak ere bai esaten zutenez baina, nik gure etxean behintzat ama zen)

## **-neskero:**

"Asi sayeneskero akabaixu" - (Hasi zarenez gero amai ezazu)

"Katuek dekuseneskero estekaus, bañe amen muskerra? kantidadie" - (Katuak dauzkagunez gero ez dauzkagu, baina hemen muskerra? kantitatea)

## **-n beste:**

"Ekarri ot amak esan daben beste" - (Ekarri dut amak esan duen beste)

"Bakotxak al eban beste diru emote ban" - (Bakoitzak ahal zuen beste diru ematen zuen)

"Lodittu itten dau, asko eraneskeo, pitxarras jun de eran, da gure dan beste eran a, estau arek kaskarrara eraitten, e? bestie pai, bestiek moskorra emoten dau" - (Loditu egiten du, asko edanez gero, pitxarragaz joan eta edan, eta gura den beste edan hura, ez du hark kaskarrera eragiten, e? besteak bai, besteak mozkorra ematen du)

"Sagar urtie basan, sardaue gure aiñe, jun barrikara ta, gure dan beste sardaue eran" - (Sagar urtea bazen, sagardoa gure adina, joan barrikara eta, gure den beste sagardoa edan)

"Es beintzet oingo moruen da gure dan beste, es orta es, neurtute" - (Ez behintzat oraingo moduan eta gura den beste, ez horretara ez, neurtuta)

## **seinye .....**

"Burue, dotorie eukitten dau okillek, seinye kardantxilluen antzera" - (Burua, dotorea edukitzen du okilak, zeinda kardantxiloaren antzera)

"Barruen iste otzen, e, bobeda bat, seinye laba batek eukitten daben moruen" - (Barruan uzten zioten, bobeda bat, zeinda labe batek edukitzen duen moduan)

## **segun...-n:**

"Segun selan ipintte osun ero goratxua ero beratxua, suk artu bi tzasu" - (Segun zelan ipintzen duzun edo goratxoago edo beheratxoago, zuk hartu behar diozu)

"Sistemak asko erabilte sien, segun se jente euen" - (Sistemak asko erabiltzen ziren, segun zer jende zegoen)

## **selan...-n:**

"Ori selan kanpokue dan estaki euskera" - (Hori zelan kanpoko den ez daki euskaraz)

"Gaur astelena selan dan bierrera juen ga" - (Gaur astelehena zelan den beharrera joan gara)

"Emen karmelitik selan euesan, arek erregalate ben" - (Hemen karmelitik zelan zeuden, haiek erregalatzen zuten)

"Lebatza gurien asko, e, bai da, sapterue ta, narrue kendute sapterue, e, orre pe asko eingo ban iguel, arraindire esnie selan eruten genduen ba, astien, e, serien beti domeketan, beti ekarte san" - (Legatza gurean asko, bai eta, zapateroa eta, narrua kenduta zapateroa, horrek ere asko egingo zuen beharbada, arrandegira esnea zelan eroaten genuen)

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*ba, astean, zerean beti domeketan, beti ekartzen zen)*

*"Amen, e, aitte selan, e, kontratistie san, beti, e, obretara dediketan san, txapie nire akordu gustien egon da" - (Hemen, aita zelan, kontratista zen, beti, obretara dedikatzen zen, txapa nire gomuta guztian egon da)*

## **semat eta... -n:**

*"Semat eta urrea sauesan obeto entzungo siñuke" - (Zenbat eta hurrago zauden hobeto entzungo zenuke)*

## **yaketa... -n**

*"Yaketa amen gauesan ikustera juengo ga" - (Hemen gaudenez gero ikustera joango gara)*

## **30.3. BA-**

### **baldintza erreala oraina:**

*"Arek brentzajuek eukitten dabena lurre joten badau, gero altzau esiñik geratzen da, eguekiñ ye, beye joten dau, da altzau esiñik geratzen da" - (Sorbeltz hark edukitzen duena lurra jotzen badu, gero altxatu ezinik geratzen da, hegoekin eta, behea jotzen du, eta altxatu ezinik geratzen da)*

*"Ardidxe eta gora badoyes denpora ona" - (Ardiak eta gora badoaz eguraldi ona)*

*"Berandu etorte mok, afai barik geldittukok" - (Berandu etortzen baduk, afari barik geldituko duk)*

*"Biskor jueten espanas esi leike ikusi" - (Bizkor joaten ez banaiz ezin liteke ikusi)*

*"Kotxeik espada arañoko esi lleike juen" - (Autorik ez bada haraino ezin liteke joan)*

*"Ogixe ekarten espadabe estou afalduko" - (Ogia ekartzen ez badabe ez dugu afalduko)*

*"Urretzen bada, bariseliak markak iste ittu" - (Urratzen bada, asto-nafarreriak orbainak uzten ditu)*

*"Agiñek, agin txikidxe eukitte ittu, e, bei gastie bada, lau urtas botate ittu agin txikidxe, da lenengo eukitte ittue, sortzi agin txiki, gero sei, gero lau, gero bi, da botate ittue lau urte, inyertzu bada, e, bedxe ero iridxe bardin ya, e, lau urte baño len botako ittue, oin ba desgovernau ero olan bada, piskat argal ero, ule sarra bota esiñ eta, lena urtie txarrak basien da, oiñ, e, ganaue obetotxua gobernetan da" - (Haginak, hagin txikiak edukitzen ditu, behi gaztea bada, lau urtegaz botatzen ditu hagin txikiak, eta lehenengo edukitzen dituzte, zortzi hagin txiki, gero sei, gero lau, gero bi, eta botatzen dituzte lau urte, indartsu badago, behia edo idia berdin da, lau urte baino lehen botako dituzte, orain ba desgovernatu edo hola badago, pixka bat argal edo, ile zaharra bota ezin eta, lehenago urteak txarrak baziren eta, orain, ganadua hobetotxoago gobernatzen da)*

*"Arapuek aundidxe baukos, andik ausi eitten da" - (Arapoak handiak badauzka, handik hautsi egiten da)*

### **baldintza erreala iragana:**

*"Etxera juen bagiñen ikusiko genduen" - (Etxera joan baginen ikusiko genuen)*

*"Jentie beuen, ebatu, eta buelta emon, da sarritten iguel aspigarridxe, otie ta, d'ari ebatzeko ta" - (Jendea bazegoen, oratu, eta buelta eman, eta sarritan beharbada azpigarriak, otea eta, eta hari oratzeko eta)*

*"Abastosek, e, euren partie kentze otzuen da orduen dana deklaratan basenduen, ba urtie amaittu orduko gari barik geatzen siñen da uruni parik" - (Abastosek euren partea kentzen zizuten eta orduan dena deklaraten bazenuen, ba urtea amaitu orduko gari barik geratzen zinen eta irinik barik)*

*"Apala ba, olan, adarra (k) dekosena, apala au formie au dekona, jeneral ori eukitte ben asturianuek iri asturianuek eukitte ben au, onetako formie, baye au be, olan, urreatzen basien bidxe, etzan ona ixaten, se erie pasetako, lotzeko, erie*

# ZALDIBAR HIZTEGIA

*pasetako a beti traba eitte ben da, adar puntak ebaitte ta, bai geuri iños pasa aku etxien be" - (Apala ba, hola, adarrak dauzkana, apala itxura hau daukana, gehienetan hori edukitzen zuten asturiarrek idi asturiarrek edukitzen zuten hau, hauetako itxura, baina hau ere, hola, hurreratzen baziren biak, ez zen ona izaten, ze hedea pasatzeko, lotzeko, hedea pasatzeko hura beti traba egiten zuten eta, adar puntak ebakita eta, bai geuri inoiz pasatu zaigu etxean ere)*

*"Orras ya medikuana, osatze espasan, orras medikuana jute san amen" - (Horregaz ja medikuagana, osatzen ez bazen, horregaz medikuagana joaten zen hemen)*

## **baldintza irrealak:**

*"Ori ekarriko basenduke geuk erungo genduke" - (Hori ekarriko bazenu geuk eroango genuke)*

*"Dirue baneuke ondo bixi ixetie gura neuke" - (Dirua baneuka ondo bizi izatea gura nuke)*

*"Basora juengo balitzes galdu eingo litzakes" - (Basora joango balira galdu egingo lirateke)*

## **zehir galdera:**

*"Estaitt egon basa" - (Ez dakit egon zaren)*

## **ba...be:**

*"Ur epela ona ixaten da gausa askotako ur egosidxe ta, e? tripetatik basabis be ur egosidxe, ona ixaten da" - (Ur epela ona izaten da gauza askotako ur egosia eta, e? tripetatik bazabiltza ere ur egosia, ona izaten da)*

*"Bedarra sikue, sartu bi bada, bestela sartzeko, ba estotza ainbesteko ardura, ainbeste inportantziik esteko, al danik eta sikuen eta igerren euki ero, es ain sikue bada be" - (Belarra sikua, sartu behar bada, bestela sartzeko, ba ez dio hainbesteko ardura, hainbeste garrantzirik ez dauka, ahal denik eta sikuen eta igerren eduki edo, ez hain sikua bada ere)*

*"Pupu da min, seose itten badau be, pupu ei osu" - (Pupu da min, zer edo zer egiten badu ere, pupu egin duzu)*

## **ba-....moruen:**

*"Gixon andidxe balitze moruen, mutikue san ondio, burten puntan parau, da karo! guk bota gendunien goittik bera kargie, jota inpulsuen bota ban gora goraka ta, berba barik egon san" - (Gizon handia balitz moduan, mutikoa zen oraindino, burteun puntan paratu, eta jakina! guk bota genuenean goitik behera karga, jota indarrean bota zuen gora-goraka eta, berba barik egon zen)*

*"Dana ara jute san, da beste aldien utzik baleuke moruen umiek, burue, da buelta emon" - (Dena hara joaten zen, eta beste aldean hutsik balu moduan umeak, burua, eta buelta eman)*

*"Eseuen es erromeridxaik eta es, e, famelidxako at il baletxikixu moruen da" - (Ez zegoen ez erromeriarik eta ez, familiako bat hil balitzazu moduan eta)*